

EHUNBAT
SAINDUEN BICITCEA

JOANNATEY

Saraco Bieario ohi eta Aizaio erretoraz

Tolle, lege.

Har zazu eta lezeur.

(SAN AGUSTINES BICITCEA.)



BAIONAN

LASSERRE BAITHAN IMPRIMATUA

1876^{an}



EHUNBAT

SAINDUEN BICITCEA

THE

WALDEN BIBLE

OF THE

NEW TESTAMENT

AND

THE

OLD

TESTAMENT

H-87207
F-95996

ZRV
3350

EHUNBAT
SAINDUEN BICITCEA

JOANNATEY

Saraco Bicerio ohi eta Alzaico erretoraz

Tolle, lege.

Hic zazu eta iracur.

(SAN AGUSTINES bicitcea.)



BAIONAN

LASSERRE BAITHAN IMPRIMATUA

—
1876^{no}

FRANCIA

SAINT-DENIS-BOUTEVILLE

PARIS



SAINT-DENIS-BOUTEVILLE

FRANCIA

1871

Alzain egina Aboztuaren 21^{oa} 1876^{an}.

FRANÇOIS LACROIX,

Baionaco Jaun Apezpicuari

ENE JAUNA,

Badulke sarri bi urthe ethorri nintzautzula erraitera, nola nahi nuen, zure baimenarekin batean, agerraraci orducotzat egintchea maucan liburu bat : Ehunbat Sainduen Bicitcea; eta zue onhartu cinuen ene solhasa, mercei ez nuen lehiarekin.

Gehiago dena, eiran cinautan onhesten cinutela liburu hartaz egiten nautzun escaintza eta ezar nezakela zure icenaren gerizan.

Horra cere darozkidan haixraraci ozken trabac; edo, hobeki, cere nauen iragunaraci traba hekien gainetie. Eeen badakit eta aithortzen dut, egin ahala artha eman diodan ondoan, asco moldegaizkeriarekin egina den liburu bat dudala ezartzen Escualdun maiten esuetan. Bainan ere ez dut vste deus huxie gabeco lan bat iyurukiteen cinutela nere ganie.

Ordean onhestean, gogone erraiten zautzun, zure bician hain

*kharsuki arthatu dituzun arimen salbamenduarentzat, cen-
cen-ere, laguntza bat citekela.*

*Hori cen ene guticia, inprimatzaileac oraï akhabatcera dara-
man liburu hunen hastean. Hori da, egun ere, nere bihotzac
guticiateen duen gucia. Bai, izan dadiela bat edo bat, iracurtee
saindu huni esker, ceruco bidean sarthuco denic, eta baduket
sariric aski.*

*Galdetcen diot Jesus Jaunari, ezagutaraci nahi izan ditudan
Sainduen arartecotasunaz, benedica dezan ene guticia, eta
guticia horrec-eginarqci darotan-lana. Zuc ere, ene Jauna, Jesu-
sen maitherazten baicic onic izatu ez duzuna, zuc ere emozu
zure benedicionea, eta helduco naiz ene chedera.*

*Esperantza hortan eta icustatezco sentimenduric bicienetan
barutcen naiz*

ENE JAUNA,

Zure cerbitzari leial eta errespetuz bethea,

JOANNATEY, *apeza.*



GUC, FRANÇOIS LACROIX, Bayonaco Apezpicuac,
ikhusirik, examinatzeaz cargatuac izan diren apez
arguituec eman deraucuten lekhucoetasun ona, onhes-
ten dugu imprimatua, izan dadin EHUNBAT SAINDU
BERHECIREN BICITCEA, M. Joannatey, gure diocesaco
apezac escuarat itzuli duena.

Bayonan emana, hacilaren 20^{an} 1876.

† FRANÇOIS,
BAYONACO APEZPICUA.



... ..
... ..
... ..
... ..
... ..
... ..

... ..

... ..

... ..



EHUN BAT

SAINDUEN BICITCEA



JESU CHRISTO GURE JAUNAZ

CENBEIT HITZ

Gure lehen burhasoac ¹, debeatu fruitutic janez, aldaratu ² cirenean ceruco bidetic, Jaincoac etcituen halere madaricatu; bainan madaricatu zuen Satan, aingeru gaichtoen aintcindaria; eta ordu beretic Adam eta Evaren bihotzac conxolatcen ditu sugeari erraiten dion solhas ³ huntaz: « Exaigoac ezarrico ditiat emaztearen eta hire artean, haren ondocoen eta hiren artean. Eta egun batez, hire amarru ⁴ gucien gatic, hare lehertuco daroc burua. »

Horra nola zaion gizonari, bekhatu egin dueneco, agindua ⁵ Bitarteco ⁶ bat, bakeac bere Jaun guciz gainecoarekin eginaraco diozcana. Horra nola zaion agindua, lehen aldicotz, arrostaille bat debruaren aztaparretarie atheratuco ⁷, eta Jaincoaren alderat ⁸ dituen zorren pagatcen lagunduco duena. Orai, nor da Jaincoaren eta gizonaren artean jartcen

¹ Aita eta amac. — ² Elkhí. — ³ Elhz. — ⁴ Finacia. — ⁵ Hiteemana. — ⁶ Ararteco. — ⁷ Elkhíco. — ⁸ Eretcian.

ahal dena? Nor diteke gai ¹ bekhatuac Jaincoari egin diozcan laidoen eceztatceco, bekhatuaz gizonac merecitu dituen gaztigu ikharagarrien jasaiteco ²? Jainco Semea, Jainco Seme gizon eginen dena.

LEHEN PHONDUA.

Denborac behar ciren, agintza ³ horien bethetceco; hartaracotz, noicetic noicera eta geroago eta garbikiago, erreberritcen cioten Jaincoac solhas bera Patriarkhei, erran nahi baita, bere gogaraco cituen gizon Saindu batzuei. Abrahami erraiten dio: Jende den gucia benedicatua izanen da zure ganic sorthuco denaren baithan. Jacop, Abrahamen semasoa ⁴, hiltcera doharic, Izpiritu Sainduaz argitua, mintzo da, hura ere, populua salbatu behar duenaz, eta erraiten dio Judas, bere laugarren Semeari: Erregegoa zure odoletic ez da atheraco, igorria izan behar dena ethorri arteraino.

Berantchago, Moisec ere, bozcarioric handienarekin, erraiten diote Juduei: « Jaincoac, zuen artetic eta zuen haurridetarie, jeikiaracico darotzue ene idurico profeta bat; beba zaizcote. » Jop sainduac hura zuen gogoan, hitz hauc erraiten citularic: Badakit, ene arreroslea bici da; azken egunean pitzaracico nau, eta ene haragiaz jaunteia, haragi huntan berean icusico dut. Davit erregeac, diteken ederkiena cantatcen ditu haren aphalmenduac eta loria. Aphalmendu hetaz mintzo delaric dio: escuac eta zingoac cilhatu darozkitet, eta condatu hezur guciac; partitu dituzte beren artean ene soinecoac, eta chorthean ezarri dute ene arropa.

Isaias profeta iracurtcean, gogoetatceco ere bada, ja, Jesu-Christo ethorri ondoan ala aiuteinetic mintzatu den. Huna cenbeit hitz: Errozuete axecabetan ⁵ direnei eta nahigabez bihotza ttikitua dutenei: indar harazue, Jauna bera ethorrico da zuen salbatcera. Orduan, gorren beharriac eta ixuen begiac

¹ Capable. — ² Egarteco. — ³ Hitz. — ⁴ Seme ttikia. — ⁵ Phere-tan.

idekico dire; orduan zangoz galdua cena jaucico da oreña¹ bezala, eta mutuaren milia lachatua izanen da. Salbatzaile hura, dio profeta berac, sorthuco da Birjina baten ganic; eta haren bidez, jainco falxuen adoratzailen gainerat ere, ceruco, benedicioneac jauxico dire.

Entzun dezagun oraino, cer dion Salbatzailearen aphalmen-
duz : Lur mehetaco landarearen pare, jeikico da deus ederta-
sunic ez distiraduratic gabe. Icusu dugu eta etzaicu urricald².
Iduri zuen deusetaco on ez den gauza bat, gizonetan azkena
oinhacez³ harturicaco gizon bat. Haren aintcinean bazterten
du bakhotchac begia, eta utcia da casuric gabe. Hura, bizki-
tarteac⁴, colpatua izatu da gure gaichtakerien gatic, eta le-
bertua gure bekhatuen gatic. Escainia izan da sacrificiotan,
berac nahi izatu duelacotz. Heriotcerat eremanen dute, hilteera
daramaten ardia bezala; eta ez du, ilea mochten dioten bildoxac
baino gehiago ahoric idekico. Ehortcico dute, bainan hobiac
berac Jainco dela eracuxico du, eta haren bandera distiranta,
populu guciec icusico dute.

Daniel profetac, adiaracico du, urtheac condatuz, noiz sor-
thuco den. Seinalatuco ere ditu haren heriotcea eta Juduei
jarraikico zaizcoten zorigaitzac⁵. Hirur hogoi eta hamar
asteren urtheac iragan dire, dio profeta hunec, eta Christo
hilaracico dute, bainan ez da gehiago haren populua deithuco
hura hilaracidiena. Ecen populua exai bat bere aintcindaria-
rekin ethorric⁶ da; hiria eta temploa deseginen ditu eta bethi-
cotzat eceztatuco.

BIGARREN PHONDUA.

Icendatu profetac eta berceac horrela⁶ mintzo circlari
Mesiassez, erran nahi baita Christo edo Gantzutu aginduaz,
Jaincoac ezagutarazten zuen oraino, munduco gerthacati hau-
dienetan, cer izan behar cen haren Seme bakharrac. Abel, bere

¹ Orkhatza. — ² Pietate egingarriexita. — ³ Sofrieoric. — ⁴ Hare-
gatic. — ⁵ Malurac. — ⁶ Gisa hortara.

anaia Cainen escuz hilac orhoitarazten gaitu bere haurridez eta jendakiaz hilaracia izan beharra cen Jesu-Christo Gure Jaunaz: Cainec hil zuen bere anaia bekhaizgoaz; badakigu bekhaizgoaz dutela Juduec ere Jesus hilaraci.

Berantago, Jaincoac emaiten dio manu hau Abrahami: Har zazu Isaac zure seme bakhar eta maitea, eta zohaci, sacrificia ciezdazut eracuxico darotzudan tokian ¹. Abrahamec estecatcen dio bere semeari sacrificioco egurra bizcarrean, eta, hirur egunez ibili ondoan, beltcen dire Galbarioco mendira. Egia da Jaincoac etzuela bururaino nahi izatu, Abrahamec hil cezan eta errearaz bere seme umila, eta jadanic egur zamaren ² gaínean estecatua zuelaric, aingeru batec iduki ciola besoa, ezpata ukhaldia etcezon eman. Baiuan ez da gutiago egia, Jaincoac ordutic eracusten zuela, nola egun batez, mendi gain hartara berera, garreiatu behar zuen gurutce dorphe bat Jesus dibinoac; eta nola hantchet, gurutce hari itzatua, ichuri behar zuen bere odol gucia, gure salbatceco.

Josepen ichtorioac badu eiteric handiena Jesus Jaunarena-ekin: hasteco, saldua da tratulari arrotz batzuei bere anaiez berez; Jesus ere salduco du apostolu batec hogoi eta hamar diru phecetan, eta bere jendakiaz ezarria izanen da Erromanoen escuetan. Cenbeit denboraren buruan, Josepec, preso delaric bi gaizki egilekin, erraiten dio bati: laster hemendic atheratuco zare, eta erregec bere etchean hartuco zaitu; eta erraiten dio bertceari, nola izanen den phaldo bati amarratua ³; Jesusec ere, bi ohoinen artean; gurutceari itzatua, erranen dio bati: « Egun enekin izanen zare ceruan, » eta bertcea utcico du hiltcera bere bekhatuan. Presondegi hartaric, hirur urtheren buruan da Josep atheratcen, eta orduan, ohore handienetarat igaten da; Jesus Jauna ere, hirur egunez hobian egon ditekeanean da pizturen, bethiereco ohorez eta loriaz gozatceco. Gerochago, zazpi urthe irauten duen gosete denboran, Josepec hazten du mundu bat, bildua zaducan ⁴ bihiatz; Jesusec, bere hitzaren hazcurriaz, emanen dio munduari bicia. Josepec,

¹ Lekhian. — ² Hachiaren. — ³ Estekia. — ⁴ Atehikiten cian.

oraino aldi bat, barkhatcen diote bere anaiei eta ezartcen ditu lur aberax batzuen nagusi; Jesu Christo Gure Jaunac, gurutcearen gainetic galdetuco du bekhatore gucien barkhamendua, eta bere heriotceaz idekico diote guciei ceruco athea.

Izraeldarrac, janez Bazcoco Bildoxa, heriotceetic beiratuac izatu cirea; eta guc, Jaincoaren Bildoxaren gorphutz eta odolaz haciz gure arima, bekhatuzco heriotceetic beiratcen dugu mundu huntan graciaren bicia, eta ardiesten bertcean, bicitce eternala.

Izraeldarren gaztigatceco, ceren Moisentzat erasiaz zauden, Jaincoac igortcen diozcate suge ikbaragarri batzu. Hainitzac dire ausikiac, eta ausikia den gucia hiltcen da. Noizbeit, bere baithan sarthu direnean hobendunac, berriz ere urricaltcen zaiote Jaincoa. Haren manuz, Moisee egiten du cobrezco suge bat, eta, phaldo bati estecatua, ezartcen, gucien icusmenean. Handic aintcina, Izraeldarrec aski zuten suge haren ganat begien althateea, eta, ausikiac izanic ere, sendo ciren. Gu bekhatuaren phozoina irexi dugunentzat, horrela izanen da sendatcea. Fede bici eta amodio egiazco batekin begira ¹ diozogula Jesus, gure gatic gurutcean hedatu denari, eta sendo gaitezke, badukega eternitateco bicia.

HIRURGARREN PHONDUA.

Azkenecotz, Jacopec erran heinean da Juduen nacionea: Judasen odoleticaco erregez gabetua eta erromaco inperadorener menerat eroria; Daniel profetac erran egunac ere, lau urthezco asteren buruco akhabo dire. Ordu hartan bacen Nazareteco hiri ttikian, bekhatu orisinalic gabe concebitua izatu cen birjina gazte bat, Maria saindua.

Maria sainduari zaió ethortcen aingeru Gabriel, erraitera Jaincoaren icenean, ama izanea dela birjina izaitetic gelditu gabe; eta Izpiritu Sainduaren berthutez, haren ganic sorthuco dena, Jainco guciz goraren semea deithuco dela. Mariac sinhexi

¹ So egia.

zuen, eta, nahiz etcitzaion iduriteen, holaco ohorea mereci zuela onhexi zuen Jaincoac egiten cion galdea. Orduan da conpliteen Incarnacioneco michterioa. Orduan, Jaincoaren Seme bakhar aintcina ere Jainco ditekera gizon bilbacateen da; ecen Jesu-Christo Jainco da eta gizon denbora berean. Horra nolaz haren apha[m]enduen eta pairamenen balioa bazterric gabecoa ditekera. Horra nolaz Maria saindua Jaincoaren Ama izanen den. Horra oraino nolaz, geroni ¹ gaitezken Jaincoaren haur, Jesusen haurride, eta ceruco primu.

Andredena Maria, lagunaren, amodioaz geroago eta gehiago sustatua, badoha berri handi horren ondotic, Elizabet bere cusinari egin cetzazken lagunteen egitera. Hirur hilabetheren buruan, itzultcen da etcherat, eta badago apha[m]ur ou bat Nazareten, bere birjinitatearen za[nt]zaile, Jaincoac eman cion lagunarekin. Lagun hura, Josep saindua cen.

Oraino egun cenbeit, eta, Mesias Patriarkhei agindua, Profetez aiphatua, sorthua ditekera. Bakharric, huna Miche profetaren solhas bat, Betleemeco hiriaz: «Eta hi, Betleeme, ehaiz Judeaco hirien artean ttikiena, ecen hire ganic atheratuco due ene populuaren aintcindari izanen dena.» Ordean, nola egia izaiten ahal da solhas hori, Nazareten dagonaz geroz Birjina Maria saindua? Bai, solhas hori ere egia izanen da; ecen erromaco inperadoreac, behar duela jakin, cenbat jende duen bere azpico, manatcen diote guciei, beren herrietan icenen harraraztea. Eta horra nolaz bortchatuac diren Maria saindua eta san Josep Betleemerat joaiterat, handic celacotz hekien ethorkia ².

Bide luce baten ondotic, heldu ciren unhatuac ³ Betleemerat. Ezagun cen Maria saindua cer heinetan cen, bainan ezagunago zuten oraino, erromes ⁴ cirela; eta horra cergatic, tokiric ⁵ ez delaco aitzakian ⁶, igorriac diren, hiri gucian, etche batetic bertcera, eta azkenean hiritic canpo. piajantendaco cen heia ⁷ batetarat. Geroan erran behar zaucunac, «Ache-

¹ Gihaur. — ² Surgia. — ³ Eñheric. — ⁴ Praube. — ⁵ Lekhuric. — ⁶ Estacurian. — ⁷ Establian.

riec badituzte Leren cilhoac, uso cholomec ere bai ohantceac umentzat, eta gizonaren Semeac ez du non pausa burua, » bai, Jesus maiteac heia hura zuen begistatua, sortcean behar zuen jauregizat.

Han da beraz sartcen ceru lurren Erregea Lere baithan dakharkena ¹, eta harekin san Josep. Eta erraiten ahal dugu sartcen direla bihotza arinic; eeen icusten dute hala dela Jaincoaren nahia; ezagutcen dute Salbatzaile dibinoac nahi diola munduari haste-hastetic predicatu, cein diren ezdeusac hain arthoski ² bilhatcen ³ dituen onthasunac, axeginac ⁴ eta ohoreac. Eta han, gauerd gainean, bazter guciac ichiltasunic handiencan daudeloric, sortcen da lau mila urthe hetan agindua ⁵ eta igurikia cen Christo Jauna.

Hainbertcenarekin, argidura handi batec harrituac ezarrituen artzain batzuei agertcen zaiote aingeru bat, eta erraiten diote : « Etzazuela beldurric izan, ekhartcen darotzuet bozcariozco berri handi bat : Gaur sorthu zaitzue, Daviten hirian, salbatzaile bat; eta huna certaric ezagutuco duzuen : Causituco duzue haur bat chatharrez inguratua, eta manjatera batean ezarria. » Ordu berean horrela mintzo cenarekin bertce aingeru keta ⁶ handi batec dio, cantuz : Loria Jaincoari ceru gorenetan, eta bakea borondate oneco gizonci lurrean. Bada, galdu cituztencan aingeruac begien aintcincetic, ichildu cirenean hekien cantuac, artzainec diote elkharri : Goacen Betleemearaino, eta icus dezagun cer den solhas han. Eta artzainec aurkhitec ⁷ dute, haiceari zabalic den heia hartan, Haur sorthu berri bat, etzana lastoaren gainean; Hari amulxuki ⁸ begira, eta belhau-nico, badaude emazte bat eta gizon bat. Hec ere, ahuspecatcen ⁹ dire, eta, haur chume ¹⁰ hura baithan adoraturic beren Jainco eta Salbatzailea, hartcen dute beren arthaldetaraco ¹¹ bidea, bihotzac egiazco zorionean ¹² igeri.

¹ Ekharten diana. — ² Hainbeste arrancurareki. — ³ Clerkhatec. — ⁴ Placera. — ⁵ Hitecmana. — ⁶ Teli. — ⁷ Edireiten. — ⁸ Amourioreki. — ⁹ Burkhoca emaiten. — ¹⁰ Tchipi. — ¹¹ Saldouetaraco. — ¹² Irou-sitatan.

Aingeruac, artzainac eta justo orducotzat hilac bozcariotan ezartcen cituen haurra, eremana izatu cen tenplora zorteigarren egunean, eta eman cioten icena Jesus, erran nahi baitu salbatzailea.

LAURGARREN PHONDUA.

Handic bortzpasei egunen buruan, helteen dire Jerusalemara arrotz aberax batzu, galdez, non den Juduen Errege sorthu berria; icusi dutela haren izarra, eta ethortcen zaizcola adoratcera. Herodes erregea nahasten du osoki berri horrec; iduritcen zaio, jadanic bere cargua galdua duela. Hargatic galdegiten diote Juduen apecei, non den sorthu beharra hekien erregea; eta jakinic Betleemec direla profetac mintzo, hango bidez ditu igortcen arrotzac, edo hobeki erraiteco Errege Magoac; gomentatcen diotelaric, adoratatu dutenean, ethor dakizcola berrien emaitera, hanc ere adora abal dezan. Jerusalemetic atheratcearekin berriz ere agertu citzaioten, hara artio ekharraraci ondoan, han gorde citzaioten izarra, eta gidatu cituen Betleemeco heira.

Haur bat hain ahula ¹ eta gauza gucien escasian icusiz, eteen durduzatu ² hekien fedea. Artzainec bezala, Jaincoaren graciaz argituac, adoratatu zuten Haur Jainco hura, escaini ciozcaten cituzten gauzaric baliosenac, eta jakinic amaxetan, Herodesec etzuela ezagutu nahi Haurra non cen, haren galarazteco haicen, bertec bide batetaric itzuli ciren beren herrirat.

Herodesec, exitu zuenean errege hekien icustea, eman zuen bi urthez azpico haur gucien hilarazteco manna. Halaz uste zuen, Jesus haurra fere atcemaiten zuela. Bainan ez Jaincoac erran cion Josepi: Har zatzu haurra eta ama, eta ihes egizu Esiptorat; han egonen zare, nic erran arteraino.

Cer aphalmendua! Cer pairua ³! Ez balitz bezala aski beheja jauxi Jainco Semea, gizonaren gorphutza jaunteiz, hara oraino,

¹ Flakia. — ² Ikharatu. — ³ Pacenteia.

indarric ez balu bezala, ihes, gaichtagin baten aintcinean; hara, non dohan pagano batzuen arterat.

Bazuen cenbeit urthe Esiptoan circla, aingeru batec Lerriz ere erran cionean Josepi : Jeiki zaitc, har zatzu haurra eta haren ama. eta zohaci Izraeldar herrietarat; ecen hilac dire haurrari bicia khendu nahi ciotenac. Eta familia saindua joan cen Nazaretan zuen etche ttikirat.

Nazaretetic urthe guciez bazohacin, Bazcoco bestetan, Jerusalemrat legeac manatcen cioten bezala. Hamabi urthe cituelaric Jesus haurrac, hango besten ondotic, abiatu ciren Josep eta Maria etcherat. Eta, gizonac gizonekin zabiltzalacotz, emazteac emaztekin, eta aldiz haurrac, nahiago zuten bezala, aitarekin edo amarekin, Josep eta Maria badabiltza lehen eguna, haurric gabe; eta galdua dutela, arraxean dire bakharric obarteen.

Nahigabearen handiz bihotzac lehertuac, itzuli ciren Jerusalemrat, eta han hirugarren egunean, zuten causitu, tenploan, lege iracaxtaileac zagozcala zoratuac bere galdez eta egiten ciozcaten ihardeste zuhurrez. Orduan, aditcerat ¹ emanic bere amari eta aita-ordeari ², bere Aita cerucoaren manuz cela baratu egin zuen bezala, jauxi cen Nazareterat. Nazaretan egonen da aintcina gordea eta obeditcen duela Maria bere amari eta Josepi; eta egonen da, halachet, oraino hemezortci urthez.

Gauza espantagarria! Jesusec hogoi eta hamahirur urthe baicen ez du lur hunen gainean iragaiteco, eta bakharric hirurez harico da predicatcen. Ala baigare bortchatuac ezagutcerat, bicitce ilhun eta obedientciazco batean, nekhazailearen bicitce gogor eta arruntean, egiten ahal dela cerucotzat irabaci handiric! Jesus Jaunac, hainbertce denboraz, ez duenaz geroz bertceric bilhatu, baicen ere, horrelaco bidean direnei eracusp³en ³ emaita.

Hirur urthetara cen Jesusen mundu huntaco bicia, eta jadanic Jondoni Joanes-Batichta biden egiten hari citzaion, penitenciazco bathaioa emaiten ciotelaric bekhatorei, noiz eta ere Jesus Jauna bera, behin batez, jartcen baita bekhatore hekien

¹ Enthelegatcerat. — ² Lekhucoari. — ³ Etsemp^{tu}.

artean, eta galdegiten baitio bathaioa. Horrela Jesus aphaltzen da gaichtagin batzuen herronean agertzerainoan; eta Jainco Jaunac, aditcerat emateco bezala, cein zaion gogoraco umiliatce hori, geroan Taborreco mendi gainean eginen duen bezala, entzunarazten du bere mintzoa diolaric : « Horra ene Seme guciz maitea. » Bathaio hortaric lekhora ¹, gure Salbatzaile Jaincoazcoa sartzen da desertuan; han badago berrogoi egunetaco harar baten egiten, eta gero, hasten da Ebanjelio sainduaren predicateen, miracuiluric handienez ezagutcerat emaiten diolaric Jainco bezala duen botherea.

Canaco hirian, hetarat joanez saildutu nahi izan dituen eztei batzuetan, bere Ama sailduaren othoitcera, ura arno bilharazten ² du. Simon Petriren etchean delaric, ekhartcen diote zain guciac hilac cituen gizon bat. Orducotzat exai batzu ere hacituen, eta haue begira zauden, cer eginen zuen. Jesusec erraiten dio eriaric : Bekhatuac barkhatuac zaizkitzu, eta gero, aditcerat emateco erasiaz hari diren exai hekiei, Jainco delacotz dituela erran hitz horiec, deraso oraino : Chuti zaite, manaten darotzat; har zazu zure ohea eta zobaci etcherat. Eta eriac, osoki sendatua, badarama etcherat ohea.

Non nahi, ixuei emaiten diote bichta, gorrei entzutea, mutuei mintzoa; non nahi, bortchatcen ditu izpiritu gaichtoac, beren azpico daozen gorphutcetarie atheratcerat. Jair tenploco aintcindariaren alaba pitzarazten du. Handic berehala, Naimeco alhargunxaren seme bakharra ehortztera zaramatelaric, hura ere pitzarazten du; eta hortaracotz ukhitcen du doidoia khacha ³, erraiten hilari : gizon gaztea, jeiki zaite; eta piztua cen.

Naimeco hiri hortaric atheratu-eta, bere Ebanjelioaren predicateco hautatu cituen hamabi apostoluekin cen Jesus Jauna; hainbertcenarokin bilcen da, haren ingurura, jendeketa handi bat; doidoia aipatu esaiac ere han dire; eta, eracusteco ethorkizunac ⁴ etzuela deus gorderic harentzat, eracusteco galtcen balinbazuen bicia, berac nahi zuelacotz ciotela khenduco, era-

¹ Landan. — ² Bilharazten. — ³ Thomba. — ⁴ Geroac.

custeco, azkenean, etcala hilen artean lucez egonen, baina hirugarren egunean piztuko dela, erraiten du : « Populu hunec guticiatcen ¹ luke miracuilu icustea, baina etzaio bertee miracuiluric emana izanen, baicie ere Jonas profetarena. Hura arrain baten barnean, hirur gau-egunez egon cen bezala, gizonaren semea ere egonen da lurraren barnean, hirur gau-egunez. » Berantchago, oraino, erraiten du apostoluen aintcinean, joan behar duela Jerusalemerat, eta populuco zaharrez eta apez aintcindariez izanen dela hiltcerat condenatua; hilen dela, eta hirugarren egunean piztuko.

Jerusalemen ibiliric exai gucien artean gaindi, eta hekiei bertee behin ezagutaraciric bere zuhurtcia, Jesus atherateen da hiritic, eta aurkhitcea ² da, bide bazterrean zagon gizon erromes bat, sortcez ixu cena, eta ixu cena Jesusec bere bortherea haren bidez behar zuelacotz hobeki eracuxi. Jesusec beraz, thu batez lurrean egin duen lohi picicarekin gantzutcen ³ diozca begiac, eta erraiten dio : « Zohaci Siloeco itihurrira, eta garhi zatzu begiac. » Egiten du ixuac manatua zaion bezala eta argitua cen.

Exai aiphatu hekiei bakharric zaiote gaitci sendatce hori. Hec coleraz sutan daude, ecen icusten dute, miracuilu horren gatic, cer nahi ohore behar diola egin populuac; eta, beren ecin bertecan, emaiten diote ixu izatuari tenplotic canpoa. Jesus Jaunac, ondoco egunetan, buru egiten du gizon harekin eta galdegiten dio, ja sinhesten duen Jainco Semea baithan. Nor da Jauna! ihardesten dio ixu izatuac. Jesusec erraiten dio berriz ere : « Eta icusi duzu, eta mintzo zautzuna bera da Jainco Sem a. » Eta bertecac ihardesten dio : « Bai, Jauna, sinhesten dut; » eta, ahuspeca ⁴ jarriric, adonatu zuen.

Cenbeit denboraren buruan ekhartece diote Jesusi berria, Bethanian zuen adichkide maite bat, Lazaro, eri gaizki dela; hil dela ere badaki, eta joaiten da Bethaniarat. Lazaroren arrebec, Marthac eta Maria Madalenac, erraiten diote, lau egun hetan hila dela, eta jadanic usaina dariola. Halaric-

¹ Desiratcen. — ² Causitcen. — ³ Untatcen. — ⁴ Burkhoca.

ere bi ahizpa hekiekin, eta bertee hainitz jendez lagundua, badoha hobira. Han, haxbeherapenez dago aphur bat, eta othoitcean; gero, oihu hau egiten dio hilari: Lazaro, zato camporat; eta Lazaro, bere hil mihise eta soca guciekin, piztua atheratu cen. Handic aintcina Jesus Jaunaren ondotic zabilan jende oste handi bat; eta haren exaiac ecin asmatuz¹ ciren, nola behar zuten galdu.

Bizkitartean Jesusec, jadanic bere azken egunetan, erraiten diote apostoluei, Jerusalemerat dohala, eta han, laidostatua izatu den ondoan eta azotatua, Juduec hilaracico dutela, bainan hirugarren egunean piztuo dela. Beren nagusi dibinoari entzun ciozeaten gucien gatic ere, apostoluen bethiereco usterkeria hau cen: Lur huntaco errege izan behar cen gizon botberexu baten azpico cirela; horren gatic ez dute aditcen, cer dioten Jesusec erran nahi; eta egin ahalaz gibelteen dute Jerusalemerat joaitetic.

Bainan Jesus Jauna badoha aintcina, eta hurbildu denean, jende chehe gucia atheratcen zaio bidera, zubain adar berde bana escuetan, oihuz eta cantuz diotelaric: «Hosanna Daviten Semeari. Benedicatur izan bedi Jaunaren icenean ethortcen zaicuna.» Haur eta larri², guciac hari zaizeco, ceinec ohore gehiago eman, eta horrela, nihore oraino azpian izatu etzuen asto baten gainean, egiten du sartcea Jerusalemen, predicatcen da tenploan, eta, nahiz ecinbertceratuac diren haren exaiac, ez dio nihore escuric gainera ezartcen, etcelacotz oraino haren orena ethorria.

Atheratcen da hiritic iduritcen zaionean, eta berriz ere ortcegun saildu egunean sartcen da, bere apostoluekin, Bazcoen egitera. Jaten hari direlaric erraiten diote: egiaz mintzo natzaitzue, zuetaric batez izanen naiz saldua. Hargatic, othuruntzaren³ ondoan, emaiten diote Apostolu guciei, ogiaren eta arnoaren itchuretari, bere haragia jaterat eta bere odola edaterat; eta gero, orducotzat gaua, badoha bere othoitzaeren egitera Olibetaco baratcerat.

¹ Phenxatian. — ² Gehitu. — ³ Apairiaren.

Baratce hartan agoniaratcen du gure bekhatuen cargac; azkenean bere ariman jasanik gure bekhatuei zohacoten gaztigu neurririe gabecoa, eta ekbarria behar ciren tormenta gucien bere gorphutzean ere pairatcerat, chutic cen, ethortzen zaionean soldado batzuen aintcindari Judas apostolua. Hare zuen saldu Juduei. Hemen ere Jesusec eracusten du bere Jaincotasuna; eta oraino, denbora berean, hala nahi izatu duelacotz berac, dutela hilaraci. Ecen haren hitz bakhar hau : *Ni naiz*, entzun duteneco, soldadoac erortcen dire ezagutzaric gabe; bazohaken beraz Jesus orduan: baina ez! chutitcerat uzten ditu; uzten du bere burua estecatcerat; eta horrela badaramate apez handiaren gana. Hunec, populuco bertce zaharrekin, oihu egiten du hiltcea mereci duela.

Biharamunean joaiten diote Pilatus gobernadoreari onhex dezan hekien condenacionea. Pilatusi errech zaio icustea bekhaizgoz dutela hilarazten. Horrengatic, nolazpeit behar duela aphaizegaraci¹ apecce eta farisauec nahasi eta jazarraraci² duten jendea, azote ukhaldica larruarazten dio gorphutz gucia. Ezartcen diote buruan arrantcezo³ khorro bat, escuan canaberazco makhila bat, bizcarrera arthikitcen diote capa gorri pusca bat, eta gero, Pilatusec agerrarazten du populuaren aintcinera diolaric : Horra Gizona. Ordean, deusec, ez emaiten ciozcatela entzuten cituzten ukhaldiec, ez haren gorphutz zaurituaren icusteac, ez gaineraco bertce laidoec etzuten beraraci⁴ jende esker gabe haren bihotz gogorra. Jesus condenatua da hiltcerat.

Cenbat nahi ahuldua⁵ izanagatic galdu duen odolaz, berac beharco du, gurutce dorphe bat Galbarioco mendira eraman. Bai, Jesus Jaunac gogo onez hartcen du gurutce hura, eta abiatcen da, bide gucia gorritcen duelaric darion odolaz; eta, hainitz eroricoren ondotic, helteen da gurutceficatua izan behar zuen tokira; galdetcen diozcate escuac eta oinae, eta Jesusec, errencuratu gabe, itzatcerat uzten ditu. Azkenecotz, hara non den, arbola gainean, egiazeo biciaren fruitua; eta horrela Jesus

¹ Ema eraci. — ² Jekki eraci. — ³ Elhorrizco. — ⁴ Bell. eraci. —

⁵ Flacatia.

amulxua egonen da, hirur orenez, dilindan ¹ ceruaren eta lur-
raren artean. Hirugarren orenera heltcearekin, oihu handi bat
egiten du diolaric : « Akhabo dire guciac. » Orduan aphaltcen
du burua, eta emaiten azken haxa.

Jaincoaren justicia cein den garratza! Cein diteken bekhatua
gauza ikharragarria, Jainco bati hainbertce zaionaz geroz gosta
haren barkhamenduaren merecitea!

Bi gizon sainduetz izatu cen ehortcia, hobi berri batean, Jesus
Jaunaren gorphutz adorragarria. Eta haren arima joan cen
Linboetan zauden sainduei erraitera, hurbildua zutela ceruan
sartceco eguna.

Bizkitartean Juduac orhoitcen dire Jesusen hitzaz : Hirur-
garren egunean piztuce cela; eta soldado multzo bat ezartcen
dute hobiaren zain, apostoluec etcezatzen gorphutza bertce
norapeit ereman. Apostoluec urrun da haren ebastecotan bai-
teiren; harrituac, Jerusalemen zauden gordeac, eta, esperan-
tzaric gabe, egia izanen cela Jesusen hitz hori.

Bada, Bazco goicean, lur ikhara batec inharrosten du Galba-
ria. Ordu berean aingeru bat, bazterturic hobia hesten zuen
harria, jartcen da haren gainean. Soldaduac, aingerua icustean,
erortcen dire, hilac izatu balire bezala. Jesus piztua cen. Gero-
chago mundua garhaituce duen bezala garhaitu du orai herioa.
Eta soldadoac badohaci Juduei erraitera, cer duten icusi.

Orai, dio san Lucas ebanjelistac, Jesu Christo agertu izan
da maiz ² bere apostoluei, bere Pasioneaz geroz, eta eracuxi
diote bici dela, hekiei agertuz berrogoi egunez, eta hekiekin
ceruco erresumaz mintzatuz. Ebanjelio sainduac erraiten darocu
agertu cela Maria Madalenari; emacume ³ saindu batzuei, Jon-
doni Petriri, Emauseco dicipuluei, apostoluei san Tomas han
etzutelaric, Apostoluei bertce behin san Tomas han zutelaric,
Bazco zahar egunean; eta oraino Jondoni Petriri, bertce apos-
toln eta dicipulu batzuekin, arrantzan hari celaric.

Azkenean bortz ehun dicipulu baino gehiago bada bilduric
Olibetaco mendiaren gainean, apostoluec ere han dire, eta

¹ Chilintchan. — ² Ardura. — ³ Emazte.

Jesus Jauntac erraiten diote haukiei, ceruco eta lurreco bothere guciac emanac izan zaizcola, dohaicila ¹ beraz munduaren argitecra eta gizonen bathaiatcera, Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren icenean. Hitcemaiten diote, oraino, hekiekin izanen dela munduaren akhabantzaraino, eta igorrice diotela Izpiritu Saindua. Gero, benedicatzen ditu, eta, hekien aintcinean, igaten da ceruetarac, non baitago bere Aitaren escuinean jarria.

ANDRE DENA MARIA

Jaincoac, gure buruen gainean, ezarri dituen bezala bi argi handi, iruzkia eta ilargia, lurrac izan cezan gure hazteco behar zuen beroa, eta gue ere izan ginezan gure mundu huntaco urhaxentzat behar ginuen argia; hala-hala, ezarri darozkigu oraino begien aintcinean bertcelaco iruzki bat eta ilargi bat, Jesus eta Maria, bere ganaco amodioaren gure bihotcetan pitzarazteco, eta guri ceruco bidearen eracusteco.

Bainan Jesusec, agertcerat utci duen zuhurtciatic, saindutasunetic eta botheretic, ezagun du Jainco dela; Jesusen justiciac, iruskiac bezala distiratcen du; eta horrengatic, nor duke begia aski garbi, ahalcatu gabe, hari begira egoiteco.

Ala Jaincoaren ontasuna handia baita! Bai, Jaincoac icusten zuen gure ahuleciac behar ginituela loxaraci, ez ginela abiatcen ere abal Jesusen ondotic, eta hortacotz ezarri darocu begien aintcinean ilargiac lur huntaco bidea bezain eztiki, ceruracoa eracuxico darocuna.

Gure arimen argitzaile ezti hura, Birjina Maria, gutarteco bat da, Adam eta Evaren haur denaz geroz; bainan bere berthute miragarrien distiraduraz histen du ilargiaren edertasuna. Cenbatez ez da beraz gutaz gorago!

Icusi dugu Jesus Jaunaz, hura ethorri aintcinec, erranac

¹ Jonan ditceila. — ² Ekhiac eta argizaria. — ³ Ardura.

cirenetaric cerbeit; Maria sainduaz ere mintzo dire maiz ¹ Testament zaharreco liburu sainduac. Maria zuen Jainco Jaunac gogoan, erraiten cionean sugeari, lurreco parabisuan: Noizbeit izanen dac emazte bat, zangoaz lebertuco darocana burua.

Lurreco parabisu hartan izatu ciren gure galgarri birjina bat, zuhain bat eta fruito bat; hala-hala birjina baten sabeleco fruitu benedicatuac, arbola baten gainean, erran nahi baitut gurutce baten gainean hilez, merecituco darocu bicitce eternala. Orduz geroz Izraeldar populuaren ichtorioan aiphatuac diren emazte sainduen bicitceaz eracuxico du Jaincoac ecin hobeki, nolacoac ditezken Andredena Mariaren berthutea, botherea eta saindutasuna.

Hain handi izaiterat deithua cen haurraren burhasoac ¹, Joachin eta Anna, saindutasunic gorenera helduac ciren, hau sortcen icusi gabe; ecen, hogoi urthe hadu jadanic othoitz bera egiten diotela Jaincoari, eta, saindu ez izaitera, nola, cerbeit esperantzarekin, galdetuco ahal zuten oraino, khen cezotela haurric gabe izaitte horrec emaiten cioten ahalkea?

Azkenecotz, Jaincoac Adami hitceman haur benedicatuaren ama izaitera doha Anna saindua; ecen du contcebitu haur bat bekhatuaren notharic gabe dena.

Nolaz erein-suge egiazcoari burua lebertu behar ciona, arteric laburrenaz ere, izan citeken debruaren meneco? Jesu-Christo Aitaren Seme eternalac zor cion bertzalde horrelaco berechcuntza bere Ama izaitera deitcen zuenari.

Joachin eta Annaren haur guciz berantexia ethorri cenean mundurat, deithua izatu cen Maria; ez, uste gabez, bainan hali celacotz Jaincoaren nahia. Hitz horrec erran nahi du, Erregina, Andre gucien Andrea, eta oraino Ixasoco-Izarra. Cer laguntza, ecen, etzarocun eman behar gu, mundu huntaco ixaso ilhun eta calernaxuan gabiltzanei! Nor da icen gozo eta ezti hori bihotz onez aiphateen ez duena? Cenbat ama dohacabec ez diozcate gomendatcen eri, edo munduco bide makhurretan ² dituzketen haur dohacabeagoac, hitz bakhar huntaz: Maria

¹ Aita eta amac. — ² Okhirretan.

saindua! bai, lehenic, Jesusen icen sacratua, eta gero Mariarena da gehienic maithatua eta benedicatua dena mundu gucian.

Sorthu cenetic laur hogoi egunen buruan, Juduec egiten ohi zuten bezala, Maria eremana tenplorat Jaunari escainia izaiteco, berriz ere etcherat izatu cen ekharria; eta han alchatu zuten Jaincoaren Seme eternalac guticiatcen ¹ zuen bezala. Hirur urtheac bethe cituenean, cen bezain ttikia celaric, jo zuen Jerusalemeco tenploan, birjina gaztec zuten egoitzaco athea ²; han nahi zuen bere bicia iragan, ban nahi zuen, aldaren oinetan, bere azken haxa eman.

Eta orai nor da, lur huntan, haur chume ³ hare zaraman bicitcea adiarazten ⁴ ahal duena? Saindu batzuen bicitce gogorrac harriccen gaitu; ederrexmenduric handienarekin iracurtcen tugu Jaincoaren eta laguaaren amodioac hekiei eginarazten ciozcatenac; eta, bizkitartean, saindu hec bekhatu orisinalari darraizcon ⁵ ilhumbe eta ahuleciekin ciren. Cer citeken beraz saindu gucien erregina bekhatu gabe contcebitua izatu denaren berthutez? nolacoac etcitezken haren umilitatea, haren modestia eta eztitasuna! nolacoa etciteken haren Jaincoa ganaco amodioa!

San Joachin eta santa Anna hil ciren Maria tenploan celaric; ordu hetan zuen Haur saindu hunec egin, egundaino nihorc ez bezala, birjinitatearen hotua. Gracia bereci baten ariaz ⁶ haicic etzuen ezagutcen ahal birjinen erregina izan beharra cenac, cein citzaion gogoraco Jaincoari berthute hori. Ecen ordu arteraino, eta guciz emazte Juduentzat, ahalkegarri cen birjina egoitea. Halaric ere Mariac hautatcen du Jaincoa bere arimaco esposzat eta lehen-lehena, bihotz, izpiritu eta gorphutz, den gucia, jartcen da bere Jaun eta Nagusi handiaren escuco.

Bizkitartean legeac manatcen diote apeeçi senhar baten bilhatcea ⁷ Mariarentzat; eta Jauna othoiztu ondoan, hautatcen diote Josep, gizon bat justua, eta Jaincoaren bihotzaren arabera. San Josep adinean aintcinatua cela erraiten darocute

¹ Desiratcen. — ² Bortha. — ³ Tchipi. — ⁴ Enthelega crazten. — ⁵ Jarraikiten. — ⁶ Bidez. — ⁷ Cherkhatcia.

liburuec, eta san Epifanec dio, berrogoi eta hamar urthe baci-
tuela, Maria saildua bere etchean hartcean. Jaincoaren nahia
cen, adineco desberdintasun hori izan zadien bekien artean,
Maria gazteac izan cezan lagun bat onic, bere behar ordu gu-
cietan.

Azkenecotz ethorri da profetec aiphatu oren zorionezcoa, eta
Jaincoac agerrarazten du Gabriel aingerua Mariaren aintei-
nean. Birjina hau othoitcean zagon, eta erraiten dio aingeruac :
« Agur, graciaz bethea, Jauna da zurekin, benedicatua zare
emazte gucien artean. » Maria, elbe horiec entzutean, ikhara-
tzen da. Aingeruac berriz ere erraiten dio : « Ez duzu ceren
beldurric izan, Maria, ecen onhexgarri causitu zaitu Jaincoaren
begiac. Horra beraz non, zure erraictan, contcebituco duzun
haur bat, eta emanen diozu icena, Jesus. Jainco Jaunac emanen
dio Davit bere aitaren alkhia ¹, eta Jacopen etchearen errege
izanen da menderen mende.

Mariac aldiz, erraiten dio aingeruari : « Nola diteke zue dio-
zuna, ez dudana z geroz senharric? » Eta aingeruac ihardesten
dio : « Izpiritu Saildua jauxico da zure ganat, eta Jaun-Goi-
coaren berthutearen itzalac hartuco zaitu; hortacotzat zure
ganic sorthuco den fruitu saildua, Jaincoaren Semea deithuco
da. Eta horra non, Elizabeth zure ahideac ² berac contcebitu
duen seme bat, bere adin aintcinatuan; eta agorra deitzen zute-
nac badu sarrri sei hilabethe, esperantcetan dela; ceren ez baita
Jaincoac egin ez dezakenic. » Orduan Mariac ihardesten dio :
« Iluna Jaunaren nescatoa, egina izan beikit zure hitzaren ara-
bera. »

Gerthacari miresgarri ³ hortaric lekhora, berehala, dio bethi
Ebanjelio sailduac, Maria joan cen Zacharias eta Elizabet zau-
den mendi arteco herrirat. Elizabetec, entzun dueneco Mariac
egion dion agurra, nabaitcen ⁴ du haurra sabelean betbetan
jauztea zaiola; bera ere Izpiritu Sailduaz bethea da, eta hasten
da oihuz, diolaric Mariari : « Benedicatua zare emazte gucien

¹ Jargia. — ² Ascaciac. — ³ Agertec admiragarri. — ⁴ Bogatcen edo
somatecn.

artean eta benedictua da zure sabeleco fruitua! Eta niri, nola zait emana, ene Jaunaren ama nere etchean icustea! Ecen zure mintzoa heldu deneco ene beharrietaraino, bozcarioaren bozcarioz, jaucica abiatu zait haurra. Eta zu dohaxu zare sinhexi duzulacotz, ceren Jaunac erranaraci dautzuna gerthatuco baita. »

Mariac ere ihardesten dio : « Ene arimac loria dio Jaunari emaiten, eta ene izpiritua bozcarioz lethea da Jainco ene Salbatzaí'ea baithan. Ceren begiratu baitio bere nescatoareu aphaltasunari, orai jendeac, mende gucien akhabantzaraino, deithuco nau dohaxua, Guciz Botherexua denac egin darotalacotz gauza haudiric, eta haren icena saindua delacotz, Jaunaren urricalmendna¹ ere, haren beldur direnentzat, badoha mendez-mende. Eracuxi du here besoaren indarra, galaraciz beren bihotzetan urguluz hantuae zaudenac, arthikiz handiac beren alkhietaric², eta althacatuz chumeac³. Onthasnez bethe d.tu gose cirenac, eta escuac huxic igorri aberaxac. Onhexi du Izrael bere cerbitzucó, orhoituz here urricalmenduaz, gure arbasoei⁴, Abrahami eta haren ondocoeci bethicotzat egin ciozcaten aginteen⁵ arabera. »

Maria egotu cen Elizabetekin hirur hilabeteren ingurua; gero itzuli cen etcherat, eta han zagoen, jadanic cenbeit denbora betan, Auguste imperadorearen manuz, san Josepekin Bethleemerat joan behar izatu zuenean. Hara cireneco, haurraren sortceco eguna cen. Mariac, chatarrez inguratua, ezartcen du manjatera batean bere Semea, etcelacotz tokiric⁶ hekientzat, hirico ostatueta. Aingeru baten mintzora ethorri ciren artzainac, hekien ondotic, Jaincoaren graciaz gidatuac, errege Magoac; eta Miria sainduac, da errana Ebanjelio sainduan, zaozcalaric gauza horiec bere baithan, alha zuen oraino bihotza horien gainean.

Jesus sorthu-eta berrogoi egunen buruan, Moisec bertee ama arruntecoeci egin cioten legeari obeditecco, Maria badoha tenplorat bere haurraren Jaincoari escaintcera, eta Purificacio-

¹ Misericord a. — ² Jargietaeic. — ³ Tchipiác. — ⁴ Aiten aiter. — ⁵ Bit-en. — ⁶ Lekburic.

neco ceremonietaric iragaitera. Maria, umilitatearen lehen modela Jesusen ondotic, bazagoken, bekhatuaren notharic ¹ gabe celacotz, ceremonia hortara joan gabe; bainan icusten du aphaltendu bide bat dela harentzat irabaz bidea beraz, eta badoha aintcina.

Ceremonia hortan, haurraren arraerosteco egiten ohi cen cerbeit gauzaren escaintza; aberaxec egiten zuten hekien onthasunei emana cen bezalaco; jende chehearen ganic etche-uso ² pare bat cen galdegina. Bainan haurraren sortceco egunetan norc ez dagoca bere burua aberax? Bertzalde, Maria Judeaco erregen alaba cen; cergatic beraz ez du eginen handiec bezala? Ez! Mariac ez du iduriaracico den baino aberaxago dela, eta bi uso ttiki ditu, bakbarric, eremanen templorat.

Jaunac nahi ciozcalacotz bere bicico egun guciac umiliacionean eta axecabetan iraganaraci, adin handitaco gizon saindu bat, Simeon profeta gertharazten du temploan harekin batean. Eta saindu hunec, hitz bakhar batzuez, ezagutarazten dio, cer izan Leharra den hartaz. Simeonec, beraz, hartcen duelaric bere besoetan Haur dibino hura, benedicatecen du lehenic Jauna, ceren emana zaion haren icustea; gero dio: « Haur huntaric doha hainitcen galtcea eta salbatcea »; azkenean amari berari mintzo zaiolaric, erraiten dio: « Eta zuretzat, ezpata bat izanenda, bibotza cilhatuco darotzuna. Hitz pizua ³ Mariarentzat! Ordutic ethorkizunari begira ⁴ jarri cen ama samur ⁵ hura, eta, ethorkizunean, icusten zuen Galbarioco mendia.

Purificacioneco ceremonien ondotic, Josep eta Maria itzuli ciren Nazareterat, beren haur maitearekin. Hemen hasten da Jesusen eta Mariaren bicitce gordea. Eta egundaino lurrac haci ditoen bi izaiteric handiennen bicitcea, Jesus eta Mariarena; eta ordu berean san Josepena contatcen du Ebanjelioac solhas bakhar huntaz: « Jesus hekien escupeco cen. »

Jesus Jauna bere Ebanjelioaren predicatcen hasi cenetic aintcina, icusten dugu Maria saindua aiphatua dela, doidoia, bizpahiruetan; eta oraino orduan, aiphatua da aphaltendu cer-

¹ Thonaric. — ² Urzo. — ³ Phacia. — ⁴ Geroari soz. — ⁵ Trende.

beiten jasaitea ¹ beharteen zaiolacotz. Canaco ezteietan, Maria sainduac, ez nahiz ahalcatuac icusi jende erromes ² batzu, erraiten dio Jesusi : « Ez dute arnorie gehiago. » Eta orduan, Jesussec egin cion ihardeste gogoetarazgarri hau : « Emaztea, zuc eta nic cer egiteco dugu elkharrekin. »

Bertce behin, Andre Dena Maria, jakinic, Jesus bere biciaren gal-ordean cela, jarri cen hura ingoratcen zuen jende-ostearen gibelean. Norbeitce erraiten dio Nagusi Dibinoari, haren ama eta ahideac han direla. Huna ene ama eta ahideac, ihardes en du Jesussec, eracuxiz jende oste hura. Ecen ene Aita cerucoaren nahia egiten duena da ene anaia, ene arreba eta ene ama.

Bertce aldi batez ere aiphatua da Maria saindua Ebanjelioan, eta huna nola : Jesus Jauna predicatcen hari celaric, jendeketa handi baten artelic, emazte bat oihuz hasten zaio : Dohaxu ekharri zaituzten erraiac ! Dohaxu esnea eman darotzuten bulharrac ! Eta Jesussec bere ama sainduari, han balinbacen ere, bozcariotan sartceco astiric ³ eman gabe, ihardesten du : Dohaxuago Jaincoaren hitza entzuten dutenac, eta harri jarraitkitcen direnac.

Birjina umil hare etzuen deus oborerie ez laudoriorie izan behar mundu huntan, bainan bai bethiereco axecabea. Ez da errana Maria saindua han cela, Jesusen ondoan, emazte saindu hura mintzatu cenean, bainan badakigu jarraiki citzaiola, Galbarioco mendiari gora, gurutceaz cergatua zobalaric ; itce lodi hec escuetan eta oinetan sartcen diozatenean ere, han izanen da ; gurutean dagolaric dilindan ⁴, han egonen da oraino Ama, chutic ; eta hare ere escainico du, san Agustinec dion bezala, bere bihotceco aldarean, Seme Jaunac gurutcecoan egiten duen sacrificioa.

Jesus azken haxetara celaric, Maria sainduac entzun ciozcan, czpatac baino latzkiago bihotza cilhatu behar cioten elhe hauc : « Emaztea, horra zure Semea, » Mintzo citzaion Jondoni Joanezez ; eta dio Ebanjelioac, ordutic apostolu hunec izatu zuela bere guciz maitearen amaz, beraz izatu zuken artha ⁵.

¹ Egartia. — ² Praube. — ³ Aieinarie. — ⁴ Chilintchan. — ⁵ Arrancura.

Mariaren bihotzmina handi izatu cen oraino ieusi zuenean Jesus Jauna Cerurat igaten; ecen badaiki urthe multzo bat badauela lurrean egoitico, eta urthe hec cein etzaizeco luce iduriteen! Apostolnac bezala, izan cen Izpiritu Sainduaren dohainez bethea, eta gerochago joan cen Jondoni Joanesekin Efesaco hirirat. Hiri huntan bicico da, osoki gordea, hogoi-ta bortz urthez, nihoiz gogotic galdu gabe bere Jesus maitea, bethiereco penitencia eta othoitectan, apostoluen mintzoa entzuna izan zadien.

Azkenecotz, hiruetan hogoi eta hamabi urthe cituzkelaric, eta, ustekeria baten arabera, apostolu guciez inguratua, haren arimac hau xi cituen amodioz agorandua ¹ zagon gorphutzari esteracten zuten lokharriac, eta, aingeruen laudoriozco cantiken erdian, egia zuen bere sartzea Jerusalemec cerucoan.

Jesus Jaunac etcezaken utz hobian ustelcera ² bere Amaren gorphutzsaindua; ez, etzuten dens zucenic hobico harrec notharic gabeco gorphutz haren gainean; alchatu zuten beraz aingeruec cerurat, eta gorphutz eta arima, jarri cen Andre Dena Maria bere seme Dibinoac aphaindua idukitcen cion alkhi destirantaren gainean.

Ederrexxgarria dela Jaincoaren Probidencia! Mariarentzat hasten dire loria eta ohore guciac desterruzco eta nigarrezco haran ³ huntaric atheratu deneco. Ordutic egia diteke berac erran solhas hau : « Jende guciec, mendereu mende, deithuco nante-dohaxua. » Hil cenetic hirur ehun urtheren buruan, giristino guciac bozcarioan dire ceren, bekien bethificaco ustearen arabera mintzatu den Efesaco concilioa, sinhesterat emaitcan, Maria, Jaincoaren ama dela; eta handic aintcina, Maria Sainduac izanen ditu aldareac bazter eta zokho gucietan. Ez diteke nihon giristinoric Mariaren potret bat soinean gabe. Jesus Jaunac erran zuen : « Bere nahitara aphaltcan deua izanen da alchatua »; hitz hunen arabera zaio gerthatu Mariari, gu guciei, aphalmenduac maite balin baitugu, eginen zaicun bezala.

¹ Jardixia. — ² Sustotcerat. — ³ Naba.

IRAGAXPENA ¹

Andre dena Mariac, Joanes apostolua semetzat emana izatu citzaion ordutic, hartu ditu gure alderat ¹, Amarié samurrenaren sentimenduac. Bakharric, nahi balin badugu baitezpada, hel dakigun gure behar orduetan, eracux dezagun gure bicitceaz haren haur garela. Icus dezala bederen gure urrikia ², ceren ez garen haren urhaxei jarraiki. Eta justo denac galdetcen balin badio ere bururaino arimaco exaiei bihurtceco gracia; bekhatoreac, jar dakion bitarteco ³ bere Seme Jaunaren aintcinean; bai ardiexico dute guticiatcen dutena. Justua izanen da hazcartua; bekhatoreac ere hartcen ahal du esperantza; ecen, Jaincoaren justiciac ez dezake jo, Maria gure Ama Sainduac bere geriza ⁴ hartcen duena.

PERTHARILAREN 9^{an}

SANTA GENEVIEVA BIRJINA

Hilb 499^{an}

Pariseco ondoan, Nanterraco herrian sorthua, Genevievac sei edo zazpi urthe cituen, San Germain Auxerreco apezpicuaz izatu cencan begiztatua, herri huntaco bertce haur eta emacume ⁵ gucien artean.

Izpiritu Sainduaz argitua, san Germainec icusten du eer gauza espantagarriac egin behar dituen Jaincoac, haur haren bidez. Hortacotz hurbilarazten du. Haurrari jarraiki ciren burhasoac ⁶; eta erraiten diote lehenic burhaso hekiei: Arthazazue ⁷ haur ttiki hau, ecen orai chume ⁸ eta ahul bezain handi eta ahalxu izanen da Jaincoaren aintcinean. Gero, haurrari

¹ Ekhoitzpena. — ² Eretecian. — ³ Dolomena. — ⁴ Arartecari. — ⁵ Itzailaren pian. — ⁶ Emazte. — ⁷ Aita eta ama. — ⁸ Arrancura ukhecic. — ⁹ Tchipi.

berari erraiten dio : Gure Salbatzaile Dibinoac, Genevieva, galdetzen zaitu beretzat; beraz, nahi balin baduzu zure arima izan dadien jauntzia ceruco edergailuez, utz zatzu mundutarrentzat aphaindura guciac.

Ordu beretic hasi cen Genevievaren bihotzean Jaincoaren amodioa pizten eta hazcarteen. Baditu acienda batzu zainteco, etchean ere badu cerbeit lan; bainan izan dadiela acienden ondotic edo lanean, izan dadiela lanic gabe, haren izpiritua mintzo cen bethi, solhasic samurrenez¹, Jesu-Christo Gure Jaunarekin; eta, huxarte bat balin bazuen, laster egiten zuen elizarat.

Behin bizkitartean, orducotzat hamar bat urthe cituzken Genevievae, amari gaitciteen zaiio, haur hunc elizarat joaiteco zuen lehia; eta, besta egun batez, abiaz celaric, emaiten dio macelaco bat, harekin egon dadiela etchean. Ordean, jo dueneco lanho batec hartcen diozca begiac; eta egonen da ixu, bi urtheren heina. Orduan, orhoituz san Germainen solhasez², benedicarazten dio Genevievari ur chorta bat. Ur hartaz garbitcen ditu begiac, eta bazuen argia.

Burhasoec ezagutu zuten horrela³ beren haurraren saindutasuna, eta, Jaincoaren gracia zabilanaz geroz, utci zuten biciterat, berac nahi zuen bezala.

Hamabortz urthetacotz birjinen herroncan jarria, eta jadanic umezurtz⁴, joan cen Parisen zuen iceba baten ganat; eta han hasi zuen, hogoï eta hamabortz urthez, deusetan ganbiatu behar etzuen biciteca. Haren othoitza bethierecoa cela erran dezakegu; bainan bere ganbaran, egun guciez, egiten zuen othoitz ichilagoan balin bacen, orduan hainbertceco nigarrac egiten cituen, non, azkenecotz, ichtila baitcen ganbara zolan.

Bertzalde jakinki ez bagare mundu huntan Jesus Dibinoaren idurico, Jainco Aitac ez gaituela bere haurtzat ezagutcen ahal; eta oraino beldur, bere gorphutza sopra ongi ekharriz, haux cetzan Jaincoari egin agintzac⁵, etzuen astean bi othuruntza⁶ baicic egiten, bat igandean eta bertcea ortcegunean. Orduan ere

¹ Elheric amodioxienez. — ² Elhez. — ³ Gisa hortala. — ⁴ Aitaric ez amarie gabe. — ⁵ Hitzac. — ⁶ Apairu.

Janharitzat izanen du, ogi garagarrezco pichca¹ bat, bethi egosi zahar ciren cenbeit baba bihirekin.

Gauaz oren bakhar cenbeit cituen doidoia lo egiteco; eta igande goiceraco gaua oso-osea othoitcean zaraman.

Deus bekhatuic etzuelaric aubendatceco², hainbertcecoac bere gorphutzari jasanarazten³, eta oraino etcitzaion aski. Horra cergatic, urthe guciez, Trufaniatic⁴ ortcegua saindu arterainoco denboran, gordea zagon bere gelan, nihorekin deus solhasic egin gabe. Eta nore erranen darocu, nolacoac citezken, ordu hetan, haren othoitzac, penitenciaic, nigarrac, Jesus Jaunaren alderaco amodiozco actac, eta Jesus Jauna ganic, ordainez, cituzken conxolacioneac!

Behin emazte bati lothu citzaion, hainbertce denboraz cer hari citeken jakiteco guticia. Bai, hurbiltcen⁵ du begia athechilora⁶, bainan, orduberean ixutcen da, eta deusic ieusi gabe beharco du egon garizoma ondoraino. Sainda hunec orduan sendatu zuen, gurutcearen seinalea egiten ciolaric begien gainera.

Genevievaren berthute distirantac, eta, hala hurbilean nola urrunean, Lere eracuspenez eta solhas sarcorez, egiten zuen ungia etzandezken debruaren bekhaizgoa pitzaraci gabe. Gure arimen exaiac nahi du galaraci; eta horrengatic erranarazten du norbeiti, hunen berthuteac ez direla berthute orde⁷ batzu baicic, eta itchurarie sainduenez gerizatcen⁸ cituela bekhatuic handienac.

Omen horrec laster jo cituen bazter guciac; eta gaichtoec uste izaiteco zuten, behin bethicotzat galdua ceta Genevievaren icena. Bainan san Germain berriz ere iragaiten da Parisetic; eta saindu hunec, alchatu zuen, ekharri cion icustateaz, mihi gaichto baten erranaz herrestatua zagon Jesusen espos garbia.

Bertce behin oraino, bere biciaren gal-ordean⁹ celaric, Jaincoaren graciari esker baicic etcen salbo izatu: hura cen denbora

¹ Bouchi. — ² Deithoratceco. — ³ Egaz erazten. — ⁴ Aphaiciotic. — ⁵ Hullantcen. — ⁶ Bortha. — ⁷ Falxu. — ⁸ Gordatecen. — ⁹ Galtceco lancherrian.

ceintan, Attila, gizon bat berac bere burua Jaincoaren azotea deitzen ohi zuena, barmada ikharagarri baten aintcindari, hurbiltzen hari baitzen Parise alderat, hiri guciac su eta odoletan ezarriz.

Paristarrac jadanic ihesi dohaci. Genevieva sainduac aldiz erraiten diote, ez ditecela athera ¹, edo galduac ditezcela; bakharric egin dezatela othoitz harekin, eta bere gain hartzen duela hiriaren beiratzea. Ordean sainda hunen mintzoa hainitz gaizki izatu cen hartua, eta sorgin² bat cela, erretcera zaramaten, Jaincoari esker, izatu cenean berriz ere libratua. Gauzac joan cirea hare erran bezala: Hiritic athera cirenac erori ciren exaien escuetan, Parisen aldiz, haren othoitcei esker, etcen exaiie sarthu.

Ecín bertce hortan, eta hori bezain trichterico bertce behar ordu batzuetan, ezagutua izatu cen, nolaco botherea zuen Genevieva sainduac Jaincoaren aintcinean; gorexia cen beraz eta maithatua jende guciac. Baina handic aintcina, egun gutti zuen lur hunen gainean bicitceco; hil cen sainduen heriotceaz lauetan hogoi eta hamar urthetan, eta hil ondoan Pariseco hiriac hartu zuen bere Patrointzat. Frantcia guciac ere hari dio oihu egiten, cerbeit izurrite handiz zafratua ³ denean.

IRACAXPENA ⁴

Mundu huntaco gure bidechketan, cenbat nahi chuchen joanez ere, aphalduac eta gaizki ibiliac izaiten ahal gare gizonen mihi izurrixuez, baina nahi bagare jarraiki birjina hunen berthutei, bereciki hunen umilitateari, Jaincoa bera, aphaltcen direnen altchatzailea, helduco zaicu. Eta ez bagaitu ere altchatu nahi mundu huntan, bederea adiaracico darocu ⁵, cer irabaci handiac egin detzazkegun cerucotzat, umiliacione hekien bidez.

¹ Jelkhi. — ² Belhagile. — ³ Joa. — ⁴ Ekhoizpema. — ⁵ Enthelega eracico.

JERTHARILAREN 5^{on}

SAN SIMEON PILARECOA

Hila 56^{on}

Simeon sorthu cen Syriaco bazterretan, nekhazale bainan giristino ciren burhaso ¹ batzuetaric. Bere haurtasunean, orducotz artzain abiatua, sartcen da behin eliza batean, eta entzuten ditu Ebanjelioco hitz haue: «Zorigaitz' irriz daudenei! dohaxu nigarrez daudeneac! Galdetcea da solhas ² horiee cer duten erran nahi, eta herehala, utciric mundua, sartcen da mortuco ³ comentu batean. Etche huntan egotu cen bi urtheren heina; eta gero, bicitce garratzago baten billia ⁴, joan cen bertee comentu batetarat.

Azkenean, bethi penitencia gosez, eta Jaincoaren manuari obediteagatic, uzten ditu lagunac eta comentuac, eta emaiten du bideari. Lucez ibili den ondoan, helteen da mendi zokho batetarat, eta han hasten ditu penitenciaric espantagarrienac.

Berrogoi egunetaraino, bazagoen deusic jan ez edan gabe. Lehembician ⁵ bere barurac egin citueneco, hambertcetaraino cen ahuldua ⁶, non, zain guciac hilac, ez baitzagoken, ez zangoen ez errainen gainean. Bainan denborarekin, hain citzaizcon errechtu ⁷ bere barurac, non azken eguneraino baitzagon chutic, eta deus bermagailuric gabe.

Hortaric ezagutu zuen, cerbeit gehiago ere, egin cezakela. Igaten da beraz, mendi gora batetara, eta haice gucien meneco cen toki hartan corrale ⁸ lat eginic, burdin gathe batez lotcen du escuineco zangoa harroca bati. Han zagon begiac cerurat alchatuac eta ceru guciac baino gorago denaren handitasunearen ederresten ⁹.

Jendeac etcezaken sinhex bertcen erranaren gainean, horre-

¹ Aita eta ama. — ² Mator. — ³ Elhe. — ⁴ Bortuco. — ⁵ Cherkha. —

⁶ Haxarrian. — ⁷ Flacatia. — ⁸ Aisetu. — ⁹ Barrigo. — ¹⁰ Admiratcen.

laco penitentiaren egiteco gai ¹ cela norbeit. Hala-hala, bacen noiz nahi chunca, gizon eta emazte, haren inguruan. Behin, bertekin batean ethorri citzaion apezpica batek erraiten dio : Simeon, cergatic gathe hori? Ecen ez daroente sokec ez gathec estecatu behar gorphutza, bainan bakharric gure nahi hazcarac.

Ezagutu zuen sainduac egiaz mintzo cela apezpicua, eta berehala ekharraraciric harotz bat, hauxaraci cion gathea, eta, gatheric gabe, egotu cen, oraino aphur bat, toki berean.

Bainan Simeonen saindutasunaren omenac, joan cituen, jadaneco, bazter guciac; eta herriric urrunenetic ekharrarazten cion icustiar. Corralearen barnean ez da gizonic baicen sartcen, ordean hec ere, behar dute ukhi ², bere larruzco arropatic behar diote pichea cerbeit khendu. Hortacotz unhatu ³ cen bere jendezco presondegiac, eta asmatu ⁴ zuen egoitza bat, egundaino nihore izan etzueu bezalacoa.

Eginarazten du pilar bat, lehenic bederatci piacoa. Gero, bethi lurrari hurbelegi delacotz, handiarazten du bi-hirur alditar ino. Azkenecotz, berrogoi-ta hamalau pia gora badelarie pilarra, igaiten da haren gainera Simeon saindua; eta hantchet, casco biluci eta deus gerizaric ⁵ gabe den hartan, da egonen, dela iruzki ⁶ dela uri ⁷, haice izan dadiela edo calerna ⁸, uda ala negu, gau eta egun.

Pilarrean egonen da chutic, eta nihoiz jarri ez belhaunicatu gabe, chut-chuta edo osoki gurthua. Ez du jaten berrogoi egunetic berrogoi egunetara baicic; bakharric, egiten du egun guciez comunione saindua. Erran diteke, etzuela behinere Jaincoa begien aintcetic galteen; bizkitartean, egun guciez, ilhun nabarrean, hasten zuen biharamun eguerdi arteraino iraun behar zuen othoitza. Eta arte hura gucia zagon, cernuari begira ⁹, besoac zabal-zabala hedatuac, aldi batez ere erortcerat utci gabe. Cer diokete gure bihotz nagiec penitencia lazgarri horiez?

¹ Capable. — ² Hounki. — ³ Debciatu. — ⁴ Phenxatu. — ⁵ Aizolberic. — ⁶ Ekhi. — ⁷ Ehi. — ⁸ Tenpesta. — ⁹ Soz.

Behin, Fraide batec, hura ere harrítua hainbertce sainduta-sunez, galdegiten dio : Simeon, erraguzu gizon zaren ala aingeru? Sainduac ibardesten dio : Zato, anaia, ígan zaíte; nahi dut ezagut dezazun cer naicen. Eta gainera cenean eracuxi cion, ichterrean ¹ zuen zauri beltz bat, dena harrez bethea. Eta Fraidea jauxi cen, ez okhaztua ², bainan sainduaren pairuaz zortua ³.

Sainduari urrun da sobresten baitcizaizcon har hec; cer diot? erortcen citaonean cenbeit bakhar, biltcen eta bilarazten cituen, berriz here zaurian ezartceco, erraiten ciotelaric : Jan zazue Jaincoac eman dautzuena.

Erran dut ilhundiritic biharamun eguerdiraino othoitcean zagoela. Orduan predicatcea zuen haren pilarra setiratuá zocan jendeketa nihoiz jabaltcen ⁴ etcenari; eta ecin erran diteke, cenbat bekhatore sarrarazten zuen here baithan, cenbat eriei ardiesten cioten osasuna ⁵, cenbatac itzultcen ciren haren ganic, ceruco berriez, edo orobat geroan gerthatu ⁶ behar cirenez jakinxun. Iduri zuen Jaincoaren bothere guciac bere escuco cituela.

Azkenean, mundu gucian ezagutua eta aiphatua, printcez eta apezpicuez berez, lehiatuki bilhatua celaric, seietan hogoi urthetan, oraino aldi bat gurthu ⁷ cen here othoitzaren egiteco bezala, eta haren arima saindua Jaincoa ganat begaldatau cen, bicitce bat hain garratzaz irabaci zorionaz gosatcera joaiteco.

Erran gabe doha, ez darocula Jaincoac saindu hunen urbaxei jarraititcea galdetcen; bainan ez da gutiago egia, ez garela bide hersitic baicen sartcen ahal ceruan. San Simeonen bicitceaz orhoituz, bederen utz detzagun hartu gabe hainbertce janedan, pausa eta aisia mainazcoac; eta har detzagun, gogo onez, jasaiteco dituzkegun axecabeac ⁸; ecen alfer ⁹ da Jesus Jaunaresin ceruan izanen garela uste izaitea, ez balinbadugu edan nahi haren calitcetic, lurrean gareno.

¹ Azpian. — ² Desgoustatia. — ³ Pacentciac Enochentia. — ⁴ Ather-
tccen. — ⁵ Osagarria. — ⁶ Agitu. — ⁷ Aphaltu. — ⁸ Nahigabiac. — ⁹ Gal.

JURTHARILAREN 5^o

SAN JERLAK, BEKHATORE URRIKITUA.

Hila 1170^{oo}

Belsicaren eta Holandaren artean da Linbourgeco probintzia. Probintzia huntan cen sorthu Jerlak Fauquemonteco herrian, aita eta ama aberax batzuen ganic. Gaztetasuna iragan zuen, ohoinkeriatie eta gaichtakeriatie bici cen jaun baten harmadetan soldado. Erran gabe doha escola hartan etzuela lucez iraun berteeac bezalacatu gabe; eta azkenecotz bere nahitara egiten zuen, lebenbician bertcen manuz baicic egiten etzuena. Bertce-rie cer dakharke¹ lagun gaichtoei jarraikitceac?

Jadanic ezcondua cen, eta, aitoreaseme celacotz, harmadeco aintcindari, noiz-eta ere, besta egun handi batez, jende oste² baten aintcinean, bere indarren eta guducaco jakitatearen eracustera dohalaric, ekharten baitiote berria, andrea hil zaioia. Ihurtzuri³ carrascac atzarraraci⁴ duena bezain-laztua berri hortaz, Jerlak ere atzartcen da, eta zabalteen ditu begiac Jaincoaren graciari. Jausten da beraz zalditie, osticatcen ditu bere guducaco jaunzturac eta harmac, cin egiten dio Jaincoari, akhabo direla haren guducac, bai eta ere jostetac, eta, jende gucia harritua uzten duelarie, badoha etcherat, asto tchar baten gainean.

Bere egitecoac antholatu⁵ dituenean, ezarririe soinean larru arraseco zurdazco bat, gerrian burdin punta zorrotceez eginicaco gathe bat, atherateen⁶ da etchetie, orthux, eta abiateen da elizaz-eliza, bere Jaincoarentzateco kharrac daraman toki⁷ sainduei buruz.

Noizbeit heldu cen Erromarat. Heldu bezain sarri, egiten dio bere bekhatu gucien cobesioa Aita Saindu Eusena hirur-

¹ Ekharten abal du. — ² Saldo handi. — ³ Uholgu. — ⁴ Iratzar eraci. — ⁵ Chuchentu. — ⁶ Elkhiteen. — ⁷ Lekhu.

garrenari, eta izaiten du penitenciatzat, eri arthatcea ¹. Ospitaleco aintcindariec, ezaguturic haren larru-arte legunetic, etcela hura gizon arrunteco bat; etcioten barne nahasgarri ² cen deus lanic egiterat uzten. Jerlakec aldiz, apha! baino apha! lago jauxi nahiz, eta etzaiolacotz iduritec hura bezain bekhatore handiari badohacola Jesu Christoren haurride berecien arthatcea, othoizten du Aita Saindua, lehen eman penitencia ganbia diozacon, eta condena dezan zazpi urthez urdain egiterat. Onhexia da haren galdea, eta badabila, zazpi urthez, acienda beltz batzuen ondotic.

Orduan citzaion gerthatu ³ zangoan minhartcea, eta ikhara-garricoa cen haren oinhacea ⁴. Baina orhoituz, lehenago, haurrean, zango hartaz beraz jo zuela bere ama, eskerrac emaiten ciozcan Jaincoari, ceren haren damuztateco ⁵ on izatu cen oinean pairarazten ⁶ cion zor citzaion gaztigua. Eta, bici gucian, zauri bat garraiatu zuen, bocic, zango hartan.

Bere penitenteiaco demborac bethe cituenean itzuli cen sor etcherat. Etche haren ondoan bacen haitz zahar bat, barne hustua; betheteen du barne haren zola zaborraz; zabor hekien gainean hedatcen du lasto pichka ⁷ bat, eta horrela ⁸; haitcean berean, baitu etchea eta ohea. Han zagon othoitcean, haustateen zuen garagarrezco ogia janhari, eta ur hotza edari; bethi bere zurdazco larru arrasecoa soinean, bere burdinazco gathe zorrotza gerrian. Goiz guciez, eta cer nahi denboraz, jeikia cen oilarrac cantatu zueneco, eta Lazohan, oren bat bidetan, Maestricheco hirira, san Jervasioren elizan emaiten ciren ofi-ciatarat.

Bicitce bat hain garratza etzagoken lucez jendearen aho-mihitaratu gabe. Comentu batetaco fraideac ere mintzo dire Jerlakez, ordean hura galdu nahiz, eta harentzateco becaiztiz, haren bicitce herxiac condenateen zuelacotz hekien bicitce largoa. Jaun apezpicuari ere salbatua da; eta jaun hau, sinhexiric arinkiegi, contatu diotena, badoha bera haren haitz ondora.

¹ Souaia'tcia. — ² Grengarri. — ³ Agitu — ⁴ Sofri'aria. — ⁵ Ofenxateco. — ⁶ Sofri er. zten. — ⁷ Bouchi. — ⁸ G'sa hortan.

Erran cioten, errromesei ¹ eman orde, bere etchetic altchatu dirua, eta erromes bezala izaiten zuena, haitzaren zolan gordetzen zuela. Bainan jaun apezpicuac, egoitzaraci ondoan haitza, etzuen deusic causitu haren barnean, baicic ere Jerlak sainduaren penitenteien seinale eta lekhuco ² ciren zaborrac. Errechki zuen ezagutu, beraz, gaizki egin zuela bekhaizti batzuei behatcea, eta zabor hetaz berez eginaraci cituen bi etchola, bata sainduaren egongiatzat, bertcea caperatzat.

Ordutic ezagutua eta bazter gucietan aiphatua cen Jerlaken saindutasuna. Bertzalde Jaincoac, aditcerat ³ emaiteco Jerlaki lehenic, onhexiac cirela haren aubenac ⁴ eta nigarrac, eta gero, gu guciei, cer contu dagocan gure nahitara besarcateen ditugun penitenteiez, egin cituen miracuilu batzu, bere cerbitzari leialaren ohoretan. Noicetic noicera mezaren emaitera ethorteen ⁵ citzaion apezac, ekharten cion behar zuen ura. Bada, Pasioneco igande batez, bethi bezala ithurrico ura bere uestez zakharrelaric ⁶ apezac, ur hura hirur alditaraino, etcholara ceneco, arnotua gerthatu cen; eta biac ederresteco izan zuten Jaincoaren ontasuna.

Orducotzat ttikituac ⁷ ciren saindu hunen penitenteien denborac. Nahiz higatua cen zaraman bicitce garratzaz, oraino gazte celacotz, ueste zuen aintcinachagojoailea, noiz eta ere oharreen baita indarrac escasten hari zatcola, eta badohacola bicia. Haren bihotzac ez du lurreco gaucentzat deus estecamenduric; hala ere axegabe ⁸ batez lehertua dago bihotz hura: Nola hel chuchen bidez cerurat, dio bere buruarekin, gidaritzat ez hadut hogoi urthez ene bihotz guciaz maithatu dudan Salbatzaile dibinoa? Eta bizkitartean ⁹ hiltcera noha. Biatico Sainduaren ekharrarazteco astiric ¹⁰ gabe.

Ecin bertee hortan Jaincoac berac zuen sokhorritu bere haur maitea. Aireric arraienarekin, adinetaco apez hat betbetan ¹¹ agertcen zaio, escuetan daocalaric Ostia saindua; comuniatcen

¹ Prauber — ² Jakile. — ³ Enthelegatce:rat. — ⁴ Hax beherapenac. — ⁵ Jiten. — ⁶ Ekharten cialaric. — ⁷ Tchepiac. — ⁸ Nahigabe. — ⁹ Haregatic — ¹⁰ Aicinaric. — ¹¹ Batbatetan.

du beraz eta ezagutzaz bethea Jesus Jaunarentzat, haren ganaco amodioa bihotcean gaindica duelaric badoha cerurat, gazte-atsuneco bekhatuac eceztaturic bere penitencia sainduaz.

IRACAXPENA

Lehen urtheac gaizki ereman dituenari hainiteetan iduriteen zaio berantegi dela bide onerat itzultceco, eta Jaincoaren maithateen hasteco. Ikhas beza nor nahic, Jerlak sainduaren bicitecic, bekhatuz cargatua izanic ere, erran dezakela : Saindutu behar naiz, eta orai beretic; cer da Jaincoaren laguntzarekin egin ez dezakedanik? Jaincoaren graciarekin batean uzten dut bekhatua, eta bicico naiz sainduki.

URTHARILAREN 9^{no}

SAN JULIEN ETA SANTA BAZILIZA, MARTIR

Hilac 313^{no}

San Julien sorthu cen Antiocheco hirian, burhaso¹ aberax eta Jaincoaren beldurrean bici ciren batzuenganic. Burhaso hankiek bethe cituzten haur hunen alderat cituzten eginbideac; eta haurrac, behatu celacotz hala hekien iracaxpenei² nola Jaincoaren graciari, hazcar zuen bihotcean Jesusen amodioa.

Hemezortci urthetarat heldu denean, aita eta amac erraiten diote, behar duela laguntzat hartu aiphateen dioten andre gaztea; Basiliza zuen andre hunec icena. Julienez ez daki cer ihardex; ecen ordu hura baino lehen, gorphutz eta arima, bere burua emana zuen Jesus Jaunari. Azkenean erraiten diote: Ene zoriona³ baicic ez duzenaz geroz bilhatcen⁴, indazuete⁵ zortci egunen ephea, orduan jakinen duzue ene gogoaren berri.

Onhexi cioten galde hori, eta jarri cen Julien otloitcean,

¹ Aita eta ama. — ² Leccioner. — ³ Irousitatia. — ⁴ Cherkhatcen. — ⁵ Eman ezadaciet.

Jaincoari escateen zuelaric, adiaraz¹ cezola, cer behar zuen egin. Zaxpigarren egunean, Jesus Jaunac erran cion, harteen ahal zuela laguntzat Basiliza; celacotz andre bat birjinitatean bicitce-
rat errechki² bilduco zuena.

Ezcontza beraz egiten da, eta lehen gauean berean, ganbaran sarthu direneco, Julien eta Basiliza, biac emaiten dire othoi-
tcean, eta hainbertceanarekin Basilizac sumatcen³ du arrosa eta bertee lore⁴ batzuen usain gozoa. Harritua, eceu neguan ciren, galdegiten dio jaunari, nondic den usain hori. — Garbitasun osoaren usaina duzu sumatcen, ihardesten dio Julienece, horrela nahi darocu Jaincoac adiaraci, nolacoa diteken ceruan bert-
thute hori maithe izan duketenen zoriona. Bazuen aski entzunic Basilizac; berehala egin zuen birjinitatearen botua.

Ordu berean agertcen zaizcote bi saindu aralde⁵, bat gizo-
nezcoa, bertcea birjinezcoa. Gizonen itchura zutenec cioten, cantuz: Garhaitu due, Julien, garhaitu due. Birjinece aldiz ihar-
desten zuten: Dohaxu zare, Basiliza, ceren Julienece errana sinhexi duzun. Adin handitaco gizon batece oraino iracurraraci cioten liburu batean, cer sari duen irabazten eternitatecotzat, birjinitatea beiratcen duenac, eta gero sunxitu⁶ ciren izpiritu dohaxu guciae, senhar emazte gazteac uzten cituztelaric susta-
tuac Jaincoac ganaco amodio berri batez.

Haandic cenbeit denboraren buruan galdu cituzten berea bu-
rhasoac eta, onthasunetaric zathi on bat erromesei⁷ partituric, elkharretaric urrun, eta etche tchar batzuetan eman ciren, cem kharxukiago, penitenteia egiten. Etciren lucez egon beren bakhartasunean. Birjina keta⁸ handi bat jarri cen Basilizaren azpico. Hainitz gizoner ere othoiztu zuten Julien, iracax cezo-
tela ceruraco bidea eta horrela biac, ongi handiaren egiten hari ciren.

Bizkitartean Maximin inperadoreac berriteen du giristinota-
sunaren galarazteco jadanic ekharria cen legea; berriz ere beraz libaiac⁹ gorrituac izanen dire giristinoen odolaz. San Julienece

¹ Enthelega craz. — ² Aise. — ³ Bogateen. — ⁴ Lili. — ⁵ Saldo. —
* Izali. — ⁶ Prauber. — ⁷ Teku. — ⁸ Uhaitzac.

eta santa Basilizac othoitz egiten diote Jaincoari, edo eman dezola bakca Elizari, edo bederen bere gracia sainduaz borthitz detzala gomendatu diozcaten arimac. Jaincoac adiaraci cioten etzuela oraino bakca behar, aphur bathez, Elizac; ordean etcela hekien azpico cenetarie, nihor galduco. Halachet cen gerthatu. Ecen nahiz hainitz ehun birjina bazuen bere meneco Basilizac, exaia hetara heldu gabe, guciac hil ciren sainduki; eta, azkenean, berac ezarri zuen bere arima ederra Jesus maitearen escuetan.

Antioheco hirirat igorria izatu cen gobernadoreac Marcien zuen icena. Gizon hunec, jakinic ehunca dituela giristinoac ethecan Julianec, agerrarazten du bere aintcinera, eta erraiten dio hare eta harenec ere behar dituztela inperadoren jaincoac adoratu. — Ez nic, ez nere azpico direnetarie nihore, ihardesten dio Julianec, ez dugu gauza hortan zue nahi duzuna eginen. Gobernadoreac, hasarretua, igortcen ditu soldadoac, eman dezotela Julienean etcheari su. Bai sutan da comentu gucia, baina ez du horrengatic fraidetarie nihore arbuiatcen fedea. Erretcen dire guciac, eta diote liburnec, toki¹ hetarie iragaiten cenean entzuten cirela ceruticaco cantica batzu.

Julien saindua preso ezarria izatu cen; gero, berriz ere agerrarazten du bere aintcinera gobernadoreac, eta ohico hitcetan delacotz, soca coropiloxu batzuez eta makhila ukhaldica, umarazten² hari zuen, burrego latec uste gabez, begia lehertcen dioenean jujearen adichkide bati. Sainduac, ahantciz bere gorphutcean cer dio pairarazten³, erraiten dio Marcieni: Etcinukete hoberic oilu eginez zuen jaincoei gizon horrentzat, ecen begiac baituzte eta ez dute icusten, beharriac ere bai, eta ez dute entzuten. Nahi duzue nic senda dezadan? Jainco falxuen apeccc lucez egia zuten othoitz, baina okherra⁴ bethi okher zagoen. Azkenecotz aithortcen dute beren ecinbertcea. Orduan Julienec egiten du gurutcearen seinalea, eta eria osoki sendatua da, eta gehiago dena, galdegiten du bathaiatua izaitea.

Egintza saindu horrec eteion bihotza ukhitu jujeari. Carriacaz-

¹ Lekho. — ² Cheheca erazten. — ³ Sofri erazten. — ⁴ Begi-bakhotcha.

carrica abiarazten du, azote eta makhila ukhaldica chebatuz, carrica gurutzada gucietan. Bada gobernadorearen seme bakharra, bertee haur lagun hainitcekin, jarraikitzen citzaion sainduari, gizon baten hola joitea josteta citzaiolacotz : Bainan bere ustez irri egitera joana, eta horra non icusten duen Juliennen inguruan, gizon multzo bat, denac churiz beztí. Aingeru batzu ciren, Jaincoac bere cerbitzari maitearen sokhorri igorriac.

Etzuen gehiago irriac Celce gobernadorearen seme ttikiac; harrítua, eta denbora berean Jaincoaren graciaz argítua, hurbiltzen da Juliennen gana, eta erraiten dio, hanc ere nahi duela giristino izan. Marcienen bihotza erdiratu cen berri hori entzutean; egiten-ere ditu egin cetzazkenac bere harren gogoz gantziarazteco, bainan alferretan, eta hala Julien nola bere haurra, biac ezarrarazten ditu presondegi ilhun batean.

Presondegian sarthu direneco, argídura eder batec harteen du barne gucia; eta hogoi soldado, argi hori icusiric, Jaincoaren gana itzultzen dire; eta guciac ¹ bathaiatuac izatu ciren, Jesus Jaunac bertee zazpi giristinoekin bidali ² cioten Antonio, apez saindua. Gobernadoreac, jakin zuenean soldado horien giristinotcea, eman zuen manua berehala denac hilaraz cetzatela. Bethetce dituzte beraz, elkharrekin ciren hogoi hameca sainduentzat, hainbertee zuan ³ olio eta bikbe irakituz.

Jadanic martirac zuan hetarat daramazcatularic, hekien aintcinean iragaiten da pagano oste bat, hil baten ondotic. Juceac trufaz erraiten dio Julienni : Okherraren begia argitu darotazu, certako etcinezadaket hil hori ere pítzaraz? Julien sainduac, icpsiz nor-edo-nor izanen dela miracuilu horrec bere baithan sarraracico duenic, egiten du gurutcearen seinalea eta hila pítua cen; eta hura ere, bathaioa galdegin duelacotz, bertee martirekin ezarria da.

Marcienec ez ditu hargatic begiac zabalteen; Bakharric, ez nahiz bere haurra hiltzen icusi, hekien gucien olio irakituan sartceco manua bertee hati utciric, joan cen etcherat. Egina izatu cen erran zuenaren arabera. Ordean, tormentaric lazgar-

¹ Igorri. — ² Cubela edo boja.

riena causitu orde zuan hekien barnean, mainhu ezti batean bezain gochoki daude, utci nahi dituzteno, Jaincoaren laudorioen cantatzen.

Ezartzen dituzte herriz ere preso; eta gobernadoreac igortzen dio bere semeari ama, nolazpeit behar duela haur hura, hartu duen bidetic ceiharraraci. Ez! ez! ez-du haurrac arbujatzen ¹ bere erlisionea! Ama da gogoz ganbiatzen dena, gobernadorearen andrea da, hura ere giristino dela, barateen dena, presondegian bere haurraren lagun.

Gobernadoreac etzakien non cen, hasarregoaren handiz. Errearazten ditu, bicirie, hogoi soldadoac, ebac-arazten diote burna Antonio apezarekin ethorri zazpi giristinoei, berteeac badaramazca jainco falxuen tenplora, eta han, tenploa bethea celaric apezec eta paganoz, erraiten dio Julieni : Hire botherea, eracusterat emaiten ducan bezain handi balinbada, cergatic, oraino, ez duc eginen gure jaincoen potret haukien fundiarazteco ² gai den kheinu bat? Eta Marcienec icusten du miracuilu lazgarri bat : Lurra erdiratzen dela, eta iresten dituela jainco falxuen bultoac, apezac, asco pagano eta azkenecotz tenploa bera; eta hala-ere ez du ezagutten Juliener Jaincoaz campo ez dela bertceric.

Bere semea, bere Andrea, Anastase hil piztu hura, Antonio apeza eta Julien arthikitzen ditu, bazca orde, basa ihicie; eta basa ihicieac ethortzen zaizcote zangoen milicatcera.

Marcienec etzakien gehiago bertceric cer pairaraz. Hortacotz ezpataz hiltcerat condenatzen ditu; eta, horrela, joan cen Julien sainduaren arima, bere exenpluaz irabaci ciozcan arimez lagundua, Jesus maiteac harentzat zagocan dohaxutasun ecin erranezcoaz gozateerat.

IRACAXPENA

Giristinoa, aski hazcar denean fedez, icusteco cein diren handi berthutean biciz egiten dituen irabaciac, errechki zaio bihurtzen munduari. Orduan, mundutarrac izan dezala irri

¹ Arnegateen. — ² Gal erazteco capable.

zuria ezpainetan, solhas gaichtoa mihian, edo, Marcienece bezala, ezpata escuan, giristino fededuna badoha bere bidetari. Saindu handi hankien arartecotasunac ardiex dezaucula horrelaco fedea.

URTHARILAREN 15^{oa}

SAN PAULO, LEHEN MORTUTIARRA

Hila 343^{oa}

Saindu hau baino lehen izan othe den bertzeric bere bicia mortuan ¹ ereman duenic ecin erran dezakegu. Bainan hau delacotz gure ezagutzan lehena, deiteen dugu lehen mortutiarra.

Hamabortz urthe cituen Pauloc, bere burhaso giristino cirenez gabetu cenean. Adin gazte hartan etciteken oraino etchetic atheratecco ² chedetan, bainan icusi zuenean girichtinotzat eracuxia cela Decius eta Valerien inperadore crudelei, hekien escuetarat ez erortceco, utci cituen etchea eta mundua eta sarthu ceu mortuan.

Mortura deneco, jadanic jenden icusmenetic urrun da; hargatic ez da han berean haratcen, bainan badoha geroago eta barnago. Azkenecotz, mendi gain batean causitcen du lece bat, harri zabal batez hexia ³. Baztertu duenean harria, icusten du ezcaratz largo bat, zubain eder batec hostoz eta fruituz aphainteen duena. Sahex batean bada ithurri garbi bat, eta zolan oraino cilho bat, bigarren barne batetarat daramana.

Badu gizon gazte hare guticiatcen ⁴ zuen gucia; Jaincoari eskerrac emanic, sartcen da beraz lecean, eta dio bere buruari: Harpe hauche diteke ene mundu huntaco azken egoitza.

Urtheac eta urtheac cituen lece hartan ehorteia eta ahantcia bici cela, noiz eta ere san Antonio, hura bezala mortuan bici

¹ Bortian. — ² Elkhitecco. — ³ Certatia. — ⁴ Desirateen.

cenari, gogoratzen baitzaio badukela merecimendu Jaincoaren begietan, ceren den mundutic lehenic atheraia. Ondoco gauean, alde bateti bere cerbitzariaren umiliatceco, bertce tic Pauloren saindutasunaren guri ezagutarazteco, erraiten dio Jaincoac Antoniori, abia dadiela denboraric galdu gabe, eta dohala Paulo lehen mortutiarraren icustera.

Argitu duen besain sarri, harteen du san Antonioc makhila, eta abiatcen da mortu barnerat buruz. Eguerdi gainean etzakien gehiago cein escualde har, ethorri citzaionean ondora ¹ giz-abre ² ikharagarri bat, erdiz aintcinaz iduri ³ gizona, gibel alde zaldia. Gure saindua, orducotzat debrua asco itchuretari icusia celacotz, ez da icitcen; bakharric egiten du gurutcearen seinalea, eta galdegiten dio: Non da Paulo Jaincoaren cerbitzariaren egoitza? Giz-abreac eracusten dio besoaz cein bidetaric joan, eta harteen du lasterra, ihesi egiteco. San Antonio badoha eracuxi alderat, eta, oihanez oihan, basa ihicien alhapideac gaindi, badabila bi egunez asmuca.

Bigarren gaua dena othoitcean darama, eta, argi hastean, icusten du oxo bat, haxantua ⁴, dohala lasterea mendi gainean ageri den lece bati buruz. Ez otte darot oxo horren bidez eracuxi nahi Jaincoac non den bilhatcen ⁵ dudana? cion sainduac bere baithan, eta hartu zuen mendiari gora.

Lecearen ahora denean, emaiten du beharria, ja ez duen deusic entzunen; badoha aintcinachago, eta urrunean iduritzen zaio argi ttiki ⁶ bat badela. Bai, bai, sainduaren egoitzan da! eta abiatcen da, ahal becenbat harrabox ⁷ eginez. San Pauloc, bere aldetic, sumatu ⁸ duen bezain laster arrotza, hexten du athea ⁹. Bertceac othoizten du idec diozacon; ordean alferretan. Sei orenen buruan, etzakielacotz gehiago cer egin, erraiten dio: Etzaizkidanaz geroz agertu nahi, badakikezu hementche berean egonen naicela haxac diraudano ¹⁰; bederen baduket zutaz ehortcia izaiteco zoriona ¹¹. Orduan cion zabaldu athea,

¹ Khantila. — ² Gizoun-ihici. — ³ Iduri ciala. — ⁴ Haxulbo. — ⁵ Cherkhatcen. — ⁶ Tchipi. — ⁷ Herox. — ⁸ Bogatu edo nabaitu. — ⁹ Bortha. — ¹⁰ Iraiten deitano. — ¹¹ Irousitea.

irri ezti batekin, eta erori ciren bata bertcearen besoetarat, elkhar bere icenaz deithuz.

Jaincoari eskerrac bihurtu-eta, elkharri beren berrien contacten hari direlaric, bele batec ekhartcen diote ogi bat. Eta Pauloc erraiten dio Antoniori : Icusazu, anaia, cein den ona gure Jainco Jauna. Hiruetan hogoi urthe badu ogi erdi bat egun guciz igortcen darotala, eta luna orai, non darocun igortcen osoa. Jesus maiteac ez ditu ahanzten bere soldadoac. Ordean ceini zagocon hauxtea? Bat bertcea baino aintcinago ez joan nahiz, hemen abiatcen da umiltasunezco gudu bat bi sainduen artean. Azkenean, bakhotchac bere aldetic idukiz, erdizcatu zuten ogia.

Othuruntzaren ¹ ondoan, uste gabez bezala iragan citzaioten gaua, othoitcean eta ceruco gaucez solhastatcen ². Biharamunean, san Pauloc erraiten dio bere lagunari : Aspaldion banakien, ene anaia, mortu huntan cinaudela; aspaldi du Jaincoac agindu zarotala, zuc ere haren cerbitzuan eremanen cinuela zure bicia; bainan ene zorionezco loaren denbora ethorria da. Orai bederen, hauxico ditut gorphutz hilcor luni estecatua naucaten lokharriac. Azkenecotz joanen naiz Jesu Christorekin bat-egitera. Bai, banoha, zor darotan khoroaren hartcera; eta horra cergatic bidali ³ zarozkitan Jesus ene Jaun maiteac, lurrez estal cinezan gorphutz ez deus han, edo hobeki, lurra itzul cinezon lurrari

Solhas hori entzutearekin, Antonioc, nigarrez eta auhenez ⁴ dagoelaric, ihardesten dio : Zuc, anaia maitea, badukezu Jaincoa ganic galdetu gucia; galdezozu beraz, edo oraino utz zaitzan gehichago lurrean, edo izan dezadan zurekin cerurat joaiteco zoriona. Pauloc erraiten dio : Ez duzu guticiatu behar gehienic lohaukezuna, bainan hobekienic dena zure lagunentzat. Erran gabe doha, nahiago cinuke Bildox notharic ⁵ gabe denaren ondotic ibiltceco, cerurat igan, ecen ez, bethi lurrerat zaramazcan gorphutz horren azpian egon; ordean, zure haurri-

¹ Apairiaren. — ² Elhestatcen edo mintzateen. — ³ Igorri. — ⁴ Hax-beherapenez. — ⁵ Achouri thonaric.

dec badute oraino zure eracuxpenen ¹ beharra. Eta orai, joan zakizkit, othoi, Athanase apezpicuac eman darotzun caparen bilha, hartaz inguratua ehorts dezazun ene gorphutza.

Bihotzminic saminenarekin ² utci zuen Antonioc gizon jaincotiar hura, eta lehiarie handienez joan cen, agian ³ oraino emana izanen eitzaiola haren biciric aurkitzea ⁴. Bere comentura heldu denean galdetcen diote haurridec : Gure aita, non egotu zare hoinbertce denbora? Eta hunc ihardesten du : Zorigaitz ⁵ ni bekhatore dohacabeari, ceren hain gaizki garreatcen dudan fraidearen icena! Icusi dut Elias, icusi dut Joanes mortuan, eta, egiaz mintza nadien, icusi dut Paulo parabisu batean. Eta, hain sarri, bere capa harturic, eman cen berriz ere bideari.

Hegalac izatu halitu bezain zalhu gibelerat zoan, noiz eta ere, elhurra baino churiago, hainitz sainduen erdian icusten baitu, ezagutu orduco galdu behar zuenaren arima ederra, ceruetan sartcen.

Orduan erori cen begitarteaz lurrerat; eta herrauxez estaltcen zuelaric burna, zoasan : Paulo! Paulo! cergatic ez nauzu zure lagun hartu, zurekin egon ahal nindadien? Cergatic joan zaizkit adioric ere erran gabe? Hoin laster galteecotz, cergatic behar cinitudan ezagutu?

Horrela aphur bat egotu denean, abiatcen da berriz ere eta heltcen da lecera. Han, saindua icusten du belhaunico eta escuac chutic. Bici da oraino, dio Antonioc bozcarioekin bere buruari, othoitcean dago! eta emaiten da hura ere belhaunico.

Noizbeit ohartu cen gorphutz hartan etcela arimarie. Orduan nigar turrusta batez busti zuen lehenic sainduaren begitarte. Gero emaiten ditu hilen othoitzac, eta, galdetu cion bezala, Athanasen caparen barnean atheratcen du leccic. Canpoan, nola behar zuen ehortei zagoelarie gogoeta, icusten ditu bi lehoin ondo-ondora ethortcen. Ezagun dute sainduaren galtecaz trichte direla, ecen beren marrumec ⁶ inharrosten dute mendi gucia, berecatcen dutelarie buztanez haren gorphutza. Aphur

¹ Exenplien. — ² Borthitcenarekin. — ³ Balinba. — ⁴ Causiteia. — ⁵ Malur. — ⁶ Arramez.

baten buruan egin zuten cilho bat zarrapoca¹, eta itzuli ciren beren oilhanerat.

San Antonioc ehortei zuen orduan gorphutz saildu hura, eta berekin zakharrelaric² haren hostozco arropa, hartu zuen bere comenturaco bidea.

IRACAXPENA

Horra, Jaincoa baithan elkhar maite dutenen adichkidantza. Jaincoaz elkharrekin mintzatceac berac hain uros egiten ditu, non ez bailukete gehiago elkhar galdu nahi. Cer izauen da beraz elkharrekin eta Jaincoa baithan causituce garenean bata bertcearen galtceco heldurric gabe? O batasun maithagarri eta esperantzaz bethea! Hel gaiten, hel, cer nahi gostaric ere, familia maite haren membro izaitera.

URTZAILAREN 17^{na}

SAN ANTONIO, MORTUTIARRA³

Hila 356^{na}

Antonio sorthu cen Esiptoan, hirugarren mendcearen erdixuan. Hemezortci urthetan galdu cituen bere burbaso giristinoac, eta, arreba gazte batekin, baratu cen umezurtz, bainan onthasun handien jabe. Cenbeit egun zuen bere buruaren nagusi⁴ ceta, elizan sartcearekin entzuten ditunecan Ebanjelioco hitz hauc: «Nahi bazare perfet, izan, zohaci, salzatu eta eman erromesei⁵ dituzunac, eta jarraic zakizkit.» Horra cer diesadan⁶ Jaincoac, dio Antonioc bere buruari; eta ordu berean salteen ditu onthasun guciac. Egin duen dirutic gutti bat du bakharric arrebarentzat atchikitcen, eta gaineracoa emaiten diote erromesei.

¹ Haztaparca. — ² Ekhatten cialaric. — ³ Bortutiarra. — ⁴ Buruzagi. — ⁵ Prauber. — ⁶ Deitan erraiten.

Bertee aldi batez, oraino entzuten ditu Nagusi Dibinoaren solhas ¹ hauc : « Etzaitecela errecura biharamunaz. » Abiaduran, bere arreba, comentu batean ezarriric, badoha morturat, eta jartcen da, aspaldi hetan han cen gizon saindu baten azpico. Handic ibiliz bertee fraide aiphatuenen icusten, bakhotchari ezagutcen cion, cen zuen bere berthuteric maitena, eta gero berthute haren beretceco egin ahalac egiten cituen. Horra cergatic cen handizki aintcinatcen saindutasunean.

Arimen exaiac, ecin jasanez ² holaco merecimenduen distiradura, eta zakielacotz hain khar handico gizonaren ganic cer zuen igurikitceco, nahi luke ekharri bere chede sainduei ukho egiterat; eta hartaracotz, ezartcen diozca begien aintcinean, utci dituen onthasun ederrac, izaiten ahal cituen axegin ³ eta ohore handiac.

Ordean urrun da mortutiar gaztearen bihotcean pizten baita utci duenaz urrikizco ⁴ sentimenduric; aiticic ⁵, exaiaren amarruei ⁶ gurutcearen seinaleaz ihardexiz, cerbeit gehiagoren egiteco chedea hartcen du. Uzten du beraz bere gidari saindua eta jana ekharri behar dion lagun bakhar batekin sartcen da barnago mortuan.

Mortu barne hartan egonen da, hobi zahar batean, mundu guciaz abantcia, eta biciric ehortcia. Debrua cen bakharra saindu hau gogoan zagocana eta begietaric galtcen etzuena. Exai maltzurac ez dio nihoiz ⁷ arteric emaiten. Ageri du ez dukela onic, non ez duen cordocaraci ⁸ haren berthutea. Icusi duenean, jadanic hainitz indarca baduela alferretan eginic, hartcen du emazte itchura, eta agertcen zaio. Ez othe du halachet bederen gizon gazte bat garhaituco? Saindua, su ahalkegarri baten bere bihotcean pizterat ez uzteco, orhoitcen da ifernuco suaz, egiten du gurutcearen seinalea, eta ihesi doha berriz ere debrua.

Ondoco egun batez osteca ⁹ biltcen zaizco izpiritu gaichtoac ingurura, eta hainbertetaraino dute joiten eta uspelatcen ¹⁰,

¹ Elhe. — ² Egariz. — ³ Placer. — ⁴ Arragrotezco. — ⁵ Bena. — ⁶ Finacier. — ⁷ Behinere. — ⁸ Ohiltu. — ⁹ Saldoea. — ¹⁰ Odolouritcen.

non, biharamuean oraino, aldichartua ¹ eta bici delaco deus seinaleric gabe causitu baitzuen jatera ekhartcen cionac. Hila dela ere iduritcen zaio, eta badarama fraide batzuen elizarat. Ordean, ezagutzaratu den bezain sarri, othoizten du bere laguna joan dezan hartu tokira ². Eta han, etzana, umatuegia ³ celacotz zangoen gainean edo jarriric egoiteco, erraiten cioten debruei : Hemen nauzue oraino, eta hemen egonen zuen gatic; ecen ez nauc zuen beldur.

Bertce aldi batez, agertu citzaizcon oraino debrueac, basa ihiciric lazgarrienen itchuran. Alegia irexi behar, inguratcen diote etchola, orroz eta marrumaca ⁴ daudelaric. Eta Antonioc erraiten diote : Cer etcinezakete egin balin bacinute bothere, bainan huna cer aski dudan zuentzat : Gurutcearen seinalea egiten du, Jesusen icen saindua aiphatcen; eta debruec, hortz carrascaz eta izkirituca, ⁵ eman zuten ihesari.

Eraunxi horren ondotic, auben samur ⁶ batzuetan, cion Antonioc Jesus Jaunari : Non cinen, Nagusi Dibinoa, hainbertce exaien erdian ene uzteco? Eta ordu berean, etchola bethe zuen argi distirant baten erditic, entzun cituen hitz hauc : Hor nin-duan, Antonio, hire aldean, ⁷ eta begira ⁸ hire guduacuari. Hala-hala, bihotzduu izatu haicelacotz, hirekin nukec bethi, eta hire icenac jocotic bazter guciac.

Horrela borthiztua su berri batez, uzten du bere hobia, eta badoha urrun; bere ustez nihortaz icusia izanen ez den tokirat; eta, han, sartcen da gaztelu erdi erori batean. Egundaino bezain haste zuen debruekilaco guduca; batzuetan, osteca setiatcen eta inharrosten cioten etchea, harraboxic ⁹ ikharagarrienenetan; bertce batzuetan, alegia suge edo apho izanki, bethetcen cioten barne gucia; cembeit aldiz, ethortcen citzaizcon aingeruen itchuran, hari argi emaiterat bezala. Behin agertu citzaion bat, fraide arropan, erraiten ciolaric : Ori, ene anaia, har zazu eta jan ogi huntaric; orhoit zaite gizon zarela, eta hortacotz, etzaitzula emana izaiten ahal, aingeru bezala bicitcea. Ordean Jesu-

¹ Engochatia. — ² Gunila. — ³ Zaphatiegia. — ⁴ Arramaz. — ⁵ Garra-siaca. — ⁶ Trende. — ⁷ Khanian. — ⁸ Soz. — ⁹ Heroxic.

sen icena zagocan ahoan Antonioac, eta ihes eginarazten cioten guciei icen saindu horren bidez eta gurutcearen seinaleaz.

Horrela¹ bici izatu den ondoan hogoi urthez, penitentiariac lazgarrienen erdian, ascotan hainitz egunez deus ere jan gabe, uzten du bere gaztelu zaharra, eta Jaincoari obediteca gatic hasten da lehia saindu batekin, ethortcen zaizcon gizonentzat comentu egiten. Azkenecotz, haiñitz mila fraide badu bere meneco. Eta Antonio handiac gogo onez egiten cituen, haukiei guciei ceruco bidearen eracusteco, egin behar cituen urhaxac, Jaincoaren amodioaz sutan zuelacotz bibotza.

Amodio hori hain zuen handia, non, entzuten baitcioten cenbeit aldiz solhas hau : Ez naiz gehiago Jaincoaren beldur, maite dut, maite Jaincoa. Khar saindu horrec ereman zuen, behin, Alexandriaco hirira, Jesusentzat bere odola ichurtcen zuten giristinoen curaiestatceagatic, eta agian² berari ere zorion³ bera gerthatuco⁴ citzaiolacoan. Eta etcen deserturat itzuli, azken martirac bere odola ichuri arteraino.

Gero, bere haurrekin cenbeit denbora oraino egoturic, joan cen mendi bazter batetarat, bere arimaren hobeki arthatcerat,⁵ handic ere, noicetic-noicera, jausten cen bere haurrenganat, bainan han zuen bere egoitza, lagun batekin edo biekin. Ethortcen citzaizecon icustiarrae munduaren bazter gucietaric. Eta hori zaio gaitci San Antoniori; ez dezake niholaz ere onhez haren gatic hainbertce urhaxen egitea ez icustateric harentzat izan dezaten.

Merecimenduzco ithurri huni, debruarekin gducatceac, irauñ behar cion bici ceno. Izpiritu gaichtoac, bederen bere menditic jau xaraci nahiz, bilcen diozca ingurura oihan hetaco basa ihici guciac. Ordean sainduac, hekiei buruz mintzo delaric, erraiten diote : Balinbaduzue niri gaizki egiteco escuric, egin diezadazuet, bainan ezbanauzue ukhitcen ere ahal, urruñ zaitezte ni ganic; eta berehala, lau hatcez⁶ airean, eman zuten guciec ihesari.

¹ Gisa hortan. — ² Balinba. — ³ Irousitate. — ⁴ Agituco. — ⁵ Sounateera. — ⁶ Zangoz.

Horrela bici izatu cen mortutiarren aita handia, ehun eta hamar urthetaraino. Azkenean, gomendaturic bere bi lagunei, ehortz cezatela haren gorphutza, nihore jakinen etzuen toki batean, eman zuen eztiki bere azken haxa, eta haren arima joan cen, hainbertee penitenciez irabaci sariez gozatcerat.

IRAGANPENA

Saindu humentzat bezala, nahiz bertee nolazpeit, debrua bethi inguru-inguru dabila gu irexi nahiz. Norda mila gogoeta eta guticia gaichtoz tincatua eta khechatua ez dena noiz nahi? Contu! hor da debrua? ihes laster Jaincoa ganat; egizu San Antonioc bezala, gurutcearen seinalea, aipha Jesusen icena eta laster ihesi diteke debrua.

JIRTHARILAREN 20^{OO}

SAN SEBASTIEN MARTIRA

Mila 286^{OO}

Francian, Narbonaco hirian sortlu cen Sebastien. Hunen burhasoac hirico lehenetarie ciren; hala-hala, igorria izatu cen Milaneco escolelarat, eta gero sarthu cen soldado, Dioclecien inperadorearen harmadetan. Bihotzdun celacotz, eta berenaz ongi egina, inperadoreac ezarri zuen bere goardiaco soldadoen aintcindari. Handic laster, Dioclecien bera iruzkirateco escualdetarat joan cen, Erromaco inperadore ezagutaracirie Maximien-Hercula, eta biac hari ciren, beren meneco cituzten bazterren, giristino odolez gorritcen.

Sebastien aldiz, orducotzat giristino, zabilan bere capitain-goaco jaunztura ederrarekia, non ere uste baitzuen cerbeit laguntza giristinoei emaiten abal ciotela. Egun batez, jakiten du anaia biitchi ¹ batzu, bi etheco seme handi, preso althet-

¹ Sabellara bereco.

tuac direla, eta ez dela egiten ez dutenic hekiei beren giristino-
tasunaren arbuiazteco. Han dituzte beren aita eta ama, beren
emazteac eta haurrac. Aita hari zaiote, bere bilo churituac era-
cuxiz, ja etzaioten urricalteen¹. Ama bekientzat izatu cituen
arthen² contateen; emaztec galdegiteu diote cergatic, hain gaz-
teric, behar duten albargunxatu. Haurrec, bertec baino ge-
hiago daasate,³ beren nigarrez.

Han zauden beraz Marc eta Marcellien, ez jakinez cer egin,
eta erdi darduzatuac, Sebastien capitaina ethorri citzaiotenean.
Cergatic, erraiten diote hunec, cergatic begitarte ilhun hori,
Jesus Jaunaren soldado zaretenaz geroz? Marc eta Marcellien,
begira diozozue zuen aintcindariari, eta icusazue, ja ez duen
harc bakharric mereci zuen bihotza; hainbertce zuentzat pai-
ratu⁴ duen ondoan, cer da zuec harentzat pairatu behar ezdu-
zuenic? Bertzalde, baldin burregoez bazaituzte iciteen, herioa-
ren bazarete beldur, goiti begi horriec! goiti zuen bihotzac!
Cer ez duzue irabazten zuen odol ichurtceaz? Gero berriz, min-
tzo delaric ahide⁵ hekiei guziei, presondegi zainari eta haren
familiari, erraiten diote: Eta zuec etzazuela anhenda⁶ amia
haukien zoria,⁷ ecen, haukiei esker izanen zaitzue, zuei ere,
dohaxutasuneraco bidea idekia.

Ordu herean, Jaincoac nahi izatu balu bezala eracuxi onhart-
cen cituela girichtino kharxu haren elheac, argidura batec
bethe zuea hec zauden barnea, eta betbetan agertu citzaien Se-
bastiani gare Salbazaile dibinoa, zazpi aingeruren erdian.
Zoe presondegi zainaren andreac, icusiz distiradura hura, eta
denbora herean Jaincoaren graciaz hunkitua, bathaioa galde-
gitea du kheinuz, ezen bazuen sei urthe ecin mintza citekela.
Sebastianec ihardesten dio: Egiazcoa baldinbada nic predicatcen
dudan erlisionea, Jesus Jaunaren icuean manateen dautzut
Zoe, mintza zaite; eta, hain sarri sendatua, hasi cen mintzateen.
Miraculu hori icustearekin, Nicostrate, Zoeren senharra, Marc
eta Marcellienen ahideac, presondegian ciren guciac, Jaincoa
ganat itzuli ciren, eta guciac bathaiatuac izatu.

¹ Pietat: egin garriesten. — ² Souanen. — ³ Erraiten die — ⁴ Sofritu.
— ⁵ Ascoci. — ⁶ Deithora. — ⁷ Zorhia.

Egun hetan giristinoentzateco errabia handiencan ⁵ cen, eta bazohacin hainitzac hiritic canpo, burregoen escuetarat ez errottea gatic : ordean, Sebastien han zagon, bethi ekharria hirian oraino zaudenen lagunteerat, noizeta ere Dioclecieni, Erromara ethorri den aldi batez, salhatcen baitiote Sebastien ere giristino dela.

Coleran, inperadoreac erraiten dio : Horra beraz, Sebastien, ene ongi-eginei nola duzun ihardesten ; berehcuntzaric baicic zuretzat izatu ez dudan orduan, zure bihotzac esker gabetasunaz behar ninduen saristatu. Badu aspaldi, erraiten dio Sebastienec, zur edo harrizco, urhe edo cilharrezco jaincoen berri badakidala. Ezda, inperadore jauna, Jainco bakhar bat baicen, hura dut adoratcen, eta haren seme bakhar, guretzat gizon egindena : bainan, hargatic, ez natzaitzu desleial izatu, eta ez naiz gaizkiago jarraiki ene egitecoei.

Hala ere Dioclecienec ekharrarazten du ehun bat soldado, eta Sebastien hilaraz dezatela emaiten diote manua. Soldadoec, lotcen dute, arroparic gabe, zuhain bati, eta, balezta ukhaldica, cilhatcen diote eta odoletan ezartcen gorphutz gucia. Azkenean hila ditekela uzten dute, eta badoaci handic.

Arraxean, Irenea, alharganxa saindu bat ethortcen da, bere ustez Sebastienec gorphutzaren bilha, haren ehortzeco ; bainan, oi bozcarioa ! ezagutcen du oraino haxa baduela ; badarama beraz etcherat, eta, denbora laburric barnean sendatua cen.

Girichtinoac, jakin duteneco bici dela hekien lagun ona, ethortcen zaizeco othoiztera, athera dadien aphur batentzat hiritic ; berteenaz berehala izanen dela berriz ere preso hartua. Bainan Jesu-Christoren soldado leialac etzuen bertceric guticia-ccen baicen ere lehen baino lehen bere odolaren ichurtcea.

Badoha beraz inperadorea iragan behar dela dakien toki batera. Eta, aski hurbil ethorri ¹ zaionean, erraiten dio : Enga-
natua zaozcate, inperadorea, zure tenploctaco apecec ; gezurrez hantcen zaituzte erraiten dautzutenean, giristinoac direla zure exaiic handienac. Giristinoac ez dire zure exaiac, aitic ² bai

¹ Askia hullan jin. — ² Bena.

zure cerbitzariric leialenac, hekien othoitcei esker zarenaz geroz garhaitiar, canpoco exaiekin ditutzun gerletan. Dioclecien barritcen da hila zagocan baten ganic solhas horien entzuteaz; mintzoric gabe dago aphur bat; eta gero, erraiten dio: Hi haiz, Sebastien, nic hilaraci nahi izan dudana? Cer? Ez haute hilaraci? Nolaz beraz bici haiz oraino?

Sainduac ihardesten dio: Bici naiz Jesus ene Jaunac beiratu bainau hiltcectic, populu gucia jakinxun egin nezan, egiaric baicen ez duela iracasten gure erlisione sainduac, eta ezagutarraz nezon oraino populuari cein den handi zure gaichtakeria; zu gerla egiten diozutena gaizkiric egin ez dautzutenei, noizbeit bara zaite; nahi balin baduzu lucez bici eta zure nagusitasunac lucez iraun dezan, utzazu giristino odol ichurtcea.

Hitz horiec sarrarazten dute inperadorea halaco coleran, non manatcen baitu, azote ukhaldica jo dezatela, haxac diraueno ¹. Azote ukhaldi hekien azpian utci zuen, azkenecotz, lurra sainduaren arimac; eta joan cen bere egintza ederrez eta guduca handiez irabaci dohaxutasunaz gozateera.

Haren gorphutza ereman zuten, gauaz, hirico cikinkerlac ² arthikitcen cituzten cilhorat. Beldur cen Dioclecien, hil ondoan ere cerbeit miracuilu egin cezan, eta horrela, bil cetzan pagano Jesusenerlisionerat. Bainan Jesus Jaunac, ez du nihoiz ³ ahanzten harentzat egin dukeguna, eta etzuen nahi izatu gal zadien gorphutz maite hura; Sebastien bera agerraraci zuen Lucina deitcen zuten andre alhargunxa bati, eta erran cion dilindan ⁴ craco batetaric baratu cela haren gorphutza, eta handic atteraric ⁵, ehortz cezala giristinoen lurrean. Lucina sainduac egin zuen manatua citzaion bezala.

IRACAXPENA

Jesu-Christoren soldado garenac confirmacionearen bidez, orhoit gaiten san Sebastianec ceruan orai duen dohaxutasunaz, eta izanen dugu behar dukegun curaica gure erlisione sainduco eginbide guciei jarraikiteco.

¹ Iraiten deieno. — ² Theiukeriac. — ³ Behinere. — ⁴ Chilintchau. — ⁵ Elkhiric.

URTHARILAREN 21^o

**SANTA AGNES EDO AINES EDO ORAINO ANNETA
BIRJINA ETA MARTIRA**

Langarren mendearen hastean.

Erromaco etche aiphatuenetarie bat cen Ainesen ethea; icen bat beraz bazakharren handirie, eta ontasunac gaindica cituen; bertcealde, bere baithan bacituen guticia ditezken edertasun guciac; bainan icenaz, onthasunez, bere begitarteco eta gorputceco edertasunaz achola guti zagocan Ainesec. Giristino cen. Eta, adimendutara ceneco, Jesusen amodioaz osoki joa, agindu ¹ cion bere Salbatzaile Dibinoari, haren bihotzac etzuela bertce jaberie, bertce erregerie izanen hura baicen.

Hamabortz urthetarat zohan, eta bethi gogoeta ohicoetan, noiz eta ere Procopce, gobernadorearen semeac, emaiten baitu bere buruari, hura behar duela andretzat. Ainesen ganaco amodioaz bihotza sutan, bertcez lehenie alferretan mintzaraci ondoan, bera abiatcen da Ainesen bilha ². Noizbeit causitcen du, eta, elhe samur ³ batzuen ondotic, egiten diozca escaintzarie ederrenac. Ordean baur huncce, lerradan bezala dohacolarie, nola escutic aingira bat, erraiten dio: Ohakit, begien aintcietie, ifernuco ileti ⁴ dohacabea; printce bat, cer diot? Errege bat due, ene bihotzaren nagusia; errege bat ceru-lurrei manaitcen diotena, eta ez natzaioc desleial izanen.

Horrelaco ihardesteac nahasten dio Procoperi burua. Calernarie ⁵ gabeco orduan, aldera erori litzaioken ihurtzuriac etzuen gehiago harrituco: ez daki gehiago non den, ez cer hari den; ethean, eman nahi diote jaterat, bainan ez dio barnezac jatecorie hartcen abal; bertzalde gauac eta egunac badaramazca begirie cerratu gabe; errechki da beraz eritcen.

¹ Hitecan. — ² Cherkho. — ³ Trende. — ⁴ Itchinti. — ⁵ Tenpestarie.

Aitac, ezaguturic azkenean, cer den haren gaitza, ekharrazten du Aines bere aintcinera, eta erraiten dio : Nor zare zu, Aines, ahalke izaiteco ene semearen lagun bilhacatceaz? ez balitz bezala Erromaco gobernadorearen semea? — Alferretan zaizkit mintzo, gobernadore jauna, ihardesten dio Ainesec, zure semeaz; ez diotet begiratceric, ez eskerric, lur huntaco onthasunei eta handikeriei. Deus gucien gatic ez dut utcico, nic, behin maithatu dudana.

Orduan, norbeitec erraiten dio gobernadoreari Aines giristino dela. Etzuen bertceric entzun nahi. Egiten du bere baitan, baduela orai giderra franco, eta, begietarie dariola phindarra¹, berriz ere erraiten dio Ainesi : Aines, badun hauta, edo ezcont hadi ene semearekin, edo beharco dun giristinotasuna utci; pairarazten² daronat eder ezdena; igorteen haut, biluzgorria, zarkerietaco etchetarat. — Ez uste izan, jauna, dio Aines sailduac, ez uste izan gutiegi citzaidalacotz, zarotala gaitteitu zure semearen solhasa. Jesus Jaunari diot eman nere bihotza, eta hexi harengatic bertce guciei. Eta orai, zure escuetan naiceuaz geroz, khendiezadazu, nahi baduzu, bicia; ordean ez! ezartcen banauzu ere tigreac berac baino areago ditezken gizonen aztaparretan, ez! nihorc, ez nau ukhituco, izanen dut zaintzaile.

Gobernadoreac manateen diote bere muthilei khen detzotela arropac, eta, carricaz carrica, ereman dezatela etche aiphatuetarat. Ordean, khendu diozcateneco, buruco biloa hainbertcetaraino zaio handiteen, non harteen baitio gorphutz gucia; eta, sarraraci dutenean zarkerietaco etchean, aurkhiteen du eman dioten ganbara, distiradura handi batez argitua; aingeru bat zagoea han, jauxia cerutic. Ainesen zaintcerat, Ainesi elhurra baino churiago cen soin baten ekhartcerat.

Han sarthu deneco, berehala, agertcen dire gizon gazte galdu batzu; bainan harrituac gela hartaco distiraduraz, lehia berearekin, harteen dute canpoa. Bertceac baino atrebituago eta ixuago, ethortcen da Procope. Haren begientzat ez da, ez ain-

¹ Chinaha. — ² Sofricazten.

geruric ez bertceric; sartcen da, eta lotcera zohan haur gazte hari. Ordean, abiatu deneco, hil gogorra erortcen da aingeruaz joa. Noizbeit, berantexi dutencan, lagunac hurbiltcen dire; eta nolacoa etcen izatu hekien icialdura; gobernadorearen semea, errozgora eta hila icustean. Berehala eremaiten diote berria aitari.

Aita heltcen da Ainesen gana, eta bere seme maitearen galtceaz zoratua ¹, erraiten dio ahora ethortcen zaion gucia. Ainesec ihardesten dio, Procope joa izatu dela haren beirateen dagon aingeruaz, ceren-eta, bertceac ez bezala, menturatu den sartcera eta bortcha egitera. Ematua ² solhas hortaz, gobernadoreac erraiten dio: Hori hola bada, Aines, urricak zakizkit ³, eta othoitzazu zure Jaincoa pitzaraz diezadan. — Gracia horren izaitea, erraiten dio Ainesec, ez lohaukezu; hala ere othoitz eginen dut, eta belhaunicatzen da. Handic aphur baten buruco Procope chutic cen, eta jende oste bat, harritua zagocularic beha, cion goraki: Ez da cernan ez lurrean bertce Jaincoric Ainesena baicen; egiazeo Jaincoa da giristinoec adoratcen dutena.

Miracuilu handi hunen ondotic, gobernadoreac behar zuken Aines etcherat igorri; baina ez, beldurtiegi paganoen eta hekien apecen, bera da etcherat joanen. ezartcen duelaric bere orde eta Ainesen juje, bertce gizon bat, Aspase deitcen dena. Aspasec condenatcen du Aines biciric erretcerat. Pitzarazten du beraz su handi bat, eta, berehala, hartarat arthikia da birjina gaztea.

Bainan haren gorphutza garbiegi cer lur huntaco axeginen ⁴ amodiotic, su hartan erre behar izaiteco. Suac ez dio deus minic egiten; eta, egurrac erre arteraino, han dago, Jaincoaren laudorioen cantatcen, eta harri eskerren emaiten, ceren creaturen gauaco sua hilaraci duen hura baithan, eta ceren, egur hekien suari ere ez dion deus indarric utci haren gorphutzaren erretceco.

Jujeac, ez dezakelacotz bertceric asma, condenatcen du ezpatz hiltcerat. Hil behar zuen tokiracoan, Ainesec ageri zuen

¹ Errotia. — ² Fayegatua. — ³ Ukhazu pietate. — ⁴ Placerren.

egiazco ezteietarat zohala, hain cen alegera. Icustiarretarie hainitzac aldiz, nigarrez zauden, bihotza erdiratuac, cerutiar uso garbi hunc lurreco axegin gucientzat eracusten zuen eza-cholatasuna ederrexiz.

Heldu direnean, Aines saindua, jadanic Jesus maiteari bere azken othoitza egina, belhannico zagoen, eta ukhaldiaren beha, ohartcen denean burregoa bera ikhara daldaretan dela eta joi-tera ecin menturatuan; erraiten dio: Cergatic ez nauc joiten? Cerc hagoca? Khen diezadac, khien Licia, utz dezadan gizonex icusia eta maitbatua izaiten ahal den gorphutz hau, eta dohan ene arima, guciz maite duen bere Espos dibinoa ganat. Ordu berean, othoitz egiteco bezala, aphaldu zuen burua, eta ebakia izatu citzaion. Horrela, hamabortz urthetan, joan cen cerurat Ainesen arima saindua, bere birjinitateaz eta martirioaz irabaci khoroen errecebitcera.

IRAGAXPENA

Nescatcha gaztea, cer model miragarria zuretzat! Badire hainitzac uste dutenac maite dutela garbitasuna; bainan maite dute arriscua ere, maite dute ederki jauntciric atheratcea, maite begico agertcea; horra cergatic, noiz nahi, cerbeit gerthatcen zaioten, erdi uahi gaberic, eta erdi nahiz. Haurra, segur izan zaite ezduzula egiazki maithe berthote hori; santa Ainesec bezain maite bacinu, Jaincoac miracuilaac egin letzazke erortcerat utz cinetzazken baino lehen.

URTHARILAREN 22^{na}

SAN BICENTE EDO BICHINTCHO MARTIRA

Hila 304^{***}

Bicentec, sorthua Zaragoza ondoan, egin cituen bere escolac Valere, hiri hartaco jaun apezpicuaren etchean; eta nola antce¹

¹ Moaien.

handitacoa baitcen, apezpicu hunec ordenatu zuen diacre. Bertzalde, bera zahartua celacotz eta mintzoa galdua, eman cion bere gain, ahal zuen jende guciari Ebanjelio sainduaren predica-
catcea.

Giristino eta pagano, mundu gucia mintzo delaric Bicente diacreaz, heltcen da Espainiarat, gobernadore eta giristinoen galaraztera, Maximien inperadoreac igorri duen basa gizon bat: Dacien. Hunec laster entzuten du Bicentez mintzatcen; eta erranez bere buruari, hura hilaraciz, erroac ¹ picatcen ciozcala gure erlisioneari, altcharazten du preso, Valere bere apezpicuarekin, eta eginarazten diote oinez Zaragozatic Balentciaraco bidea. Uste zuen oraino, cenbeit egunen gosea aski izanen cela, hekien gogoz ganbharazteco: arthikiteen ditu beraz gaztelu cilho bate-tarat eta han uzten lucez, deus jatecoric gabe; bainan aski egon direla iduritu zaionean, atherateen zaizco egundaino becenbat indar eta bihoteekin.

Hargatic, behar dituela nolazpeit garhaitu, erraiten diote: Valere, zuri nago, nahi ditutzue gure Jaincoac adoratu, ala nahi zarete oinhacen ² erdian hil? Ecin aditu ³ zuten apezpicu saindu haren mintzoa; ordean huna Bicentecer ihardexi cion: Ceroni, Dacien, geriza ⁴ zaitzatela zuen jainco zur eta harrizcoec. Gutaz denaz becenbatean, ez dugu bertecoric jaincotzat ezagut-
tzen, baicic ere ceru lurrac ezdeusetaric egin dituena; mundu gucia bere escuetan daocan Jaincoa; eta Jesu-Christo haren seme bakhar, guretzat gizon eginic, guretzat bere odola ichuri duena. Eta egiazco zoriona dukegu guc, hainbertce maithatu gaituenarentzat cerbeiten pairatceaz.

Hitz horien ondotic, coleraric handiencan, Dacienec igortcen du Valere desterrurat, eta ekhartcen du manua, Bicenteri pairaraz dezotela egin zitaken gucia. Biluzten dute beraz burregoec. lotcen ⁵ zur pusca bati, eta gero, lau zango besoetaric, lau alde hain borthizki tiratcen, non membro guciac athera ⁶ baitcioz-
caten beren tokietaric. Tiranoac egiten zuen bere baithan, zain

¹ Zainac. — ² Sofricarien. — ³ Enthelegatu — ⁴ Zain. — ⁵ Estecatcen. — ⁶ Elkhi.

guciac ethenic cituen giristino hanc bihotza ere hila zukela. Ordean, Bicentec erraiten dio : Dacien, emazu aintcina, non ez diren hor zure ahal guciac, ezen jasanarazten darozkidatzun oinhacen handitasunetic doha ene eternitateco khoroaren edertasuna.

Coleraz zoratua, manatcen du berehala Dacienec bertce tormenta lazgarri bat : Burdin aztapar batzu escuetan, burregoac hari zaizco Bicenteri gorphutz guciaren sarraskitan ¹ ezartcen ; azkenecotz unhatuac ², pausatu behartcen zaiote bi alditaraino ; eta Bicente sainduac hazuen, halaric ere, cerbeit gehiagoren pairateco nahia.

Haren guticiac betheac izatu ciren. Tiranoac icusiz nihoiz ³ baino hazcarrago zagoela Bicente bere lehen hitcetan, ezarrazten du su borthitz baten gainean, ohe burdinazco bat, eta nahiz dena zaurthua den, nahiz haragi pusca darion, ohe hartan hedarazten du diacre saindua. Gero, gorphutz gucian errea izan zadien, cobre hosto suan gorrituez estalarazten diozca surat ezdauden alderdiac, eta gatza arthicarazten dio zaurietara, haren erredura samina senti cezan hezurretan barna. Urina gorphutz gucitic zarion arren ⁴, martir handi hura begia arin zagoen, eta Jesus Jaunarekin solhasean ⁵.

Azkenean, erdi errea celaric, Dacienec, cerbeit tormenta borthitzagoen oraino jasanarazteco, igorri zuen presondegirat. Eta presondegian ere, etzadien deus pausaric izan haren membro fundituentzat, bacheraki puscaz ihaurtua izanen da barne gucia.

Ordean Jainco Jaunaren mandatari, aingeru bat ethorri citzaion conxolatcera eta zauri gucien sendatcera. Argidura handi batec ere hartu zuen barne hura, eta presondegi zaina, harritua zagon, Bicentec erran cionean : Zohaci gobernadorearen gana, eta errozu, berriz hasteco on naicela ; bakharric, lazgarriago diteken cerbeit asma dezala.

Soldadoac joan ciren Dacieni erraitera cer cen gerthatcen ; eta gizon dohacabe hau, gogoeta jarri cen, cer othe cion oraino pairarazten ahal.

¹ Odoletan. — ² Eñberic. — ³ Secula. — ⁴ Borthitza. — ⁵ Nahiz khorpitcectic ourina jouaiten zacon.

Ordu berean cantuz hasten dire aingeru batzu diacre sainduaren inguruan, edo hobeki erraiteco Jaincoarentzateco su berri bat ezartzen diote bihotzean, hitz hautaz : zaude oraino aphur bat chutic, martir handia, eta ez dezazula beldurric izan, ecen pairamenac dire zure beldur, etzaituztelacotz garhaitu ahal izatu. Jesus Jaunac icusi ditu zure guducac, eta orai, garhaitiar zarenaz geroz, nahi zaitu khoroatu ¹. Utz zazu beraz gorphutz hilcor hori, eta zato ceruco loriaz gozatecerat.

Biharamuneco, gobernadoreac iragan zuen bere baithan, oinhaceric borthitcenez garhaitu ahal izan etzuena, menturaz eginen zuela axeginen ² eztitasunaz. Lausenguzco ³ solhas batzuen ondotic etzanarazten du beraz ohe guri baten gainean. Bainan Bicente saindua, ekharria litekena bicitcerat, oraino pairatcecotz ⁴, herxateen ⁵ da Jaincoari, eta galdetcen dio ez dezan utz lucezago bicitcera. Eta, ordu berean martir handiaren arima igan cen ceruetarat, haren aldean ⁶ zauden aingeruekin.

Bizkitartean Dacien nahi da nolazpeit mendecatu ceren hainbertce indarca alferretan egin duen. Arthicarazten du beraz sainduaren gorphutza larre ⁷ batetarat. Bainan larre hartan bele bat jartcen da gorphutz hunen zain. Bele harc beiratuco du bertce basa ihicien eta bereciki oxo baten bazca izaitefic. Orduan gobernadoreac ezarraraci zuen zorro batean, eta harri handi bati lothua, hondaraci ⁸ ixaso barnean. Bainan ixasoaren eta harriaren gatic ere, Jaincoaren escuac ekharri zuen leihorreat ⁹, eta emana citzaion bezala izatu cen ehortcia giristinoez.

IBACAXPENA

Horra san Bicenteren guducac eta garhaiac. Pairuric ¹⁰ handienarekin jasan ditu oinhaceac eta tormentac, jasan ditu irriz zagoelaric. Eta bere exaiac garhaitu dituenean umil da, ceren baitaki ezdela bera, bainan bai Jaincoa, guducatu dena eta

¹ Coronatu. — ² Placerren. — ³ Balacuzco. — ⁴ Sofritcecoz. — ⁵ Adrezateen. — ⁶ Khantian. — ⁷ Oihan. — ⁸ Hour zolalat igorri. — ⁹ Lur idorrilat. — ¹⁰ Paentciaric.

garhaitu duena hura baithan. Eta horra, certaz behar garen orhoitu, tentacione denboran eta tentacioneac garhaitu dituz-kegunean.

JURTHARILAREN 30^{ena}

SANTA MARTINA BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 926^{ena}

Martina Erromacoacen sorteez. Haren burhasoac hirico lehenataric ciren, beren ethorki¹ handiaz. Bertzalde giristino ciren, eta giristino guciez hainitz maithatuac, beren onthasun handiac erromesen² sokhorritceco cituztelacotz. Martinac etzuen izatu lucez burhaso hain behar bezalacoez gozatceco zoriona; hil citzaizeon ecen, uzten ciotelari³ onthasuna gaindica. Ordean birjina gazteac onthasun guciac partitu cituen beharretan cirenei, hekien cargac etcezan traba martiriorat arin joaitetic.

Martirioaren berantesteco denboraric etzuen oraino, Alexandre inperadoreac eman zuenean manua, giristino citezken gucien preso hartceco. Martina othoitcean zagon eliza batean, soldadoez hatzeman izatu cenean. Inperadorearen jaincoen adoratera, hekiekin joan behar duela, erraiten diote soldadoec. Eta-bai, ihardesten diote birjina sainda hunec, irri ezti batekin, jarraikiten natzaitzue berehala, igurie nazazue, aphur bat, othoitza akhaba dezadan.

Soldadoec boz, ustez cerbeit onic daocaten escuetan, emaiten diote berri inperadoreari nor duten hatzeman. Hirico lehen andre gaztetaric bat darotet ekhartcen aintcinera, cion inperadoreac bere baithan; cer ihardexico othe darot? Cer begitarte eginen othe diote jasanaracico³ diozcan tormentei? Cer nahi den, uste zuen errechki beretcen edo garhaitcen zuela Martina.

Galdetcen dio beraz ja egia den, ezdituela Erromaco jaincoac.

¹ Noblecia. — ² Prauben. — ³ Egar eracico.

adoratu nahi, eta hekiei sacrificio escaini. Martinac erraiten dio: Ez, nihoiz,¹ nihoiz erdut adoratuco debruric. Nic adoraten dudan Jaincoa, da egiazco Jaincoa, hari diot orai arteraino sacrificatu, hari diot sacrificatuco bici naiceno. Hala ere manatu zuen tiranoac, Apolon deitzen zuten jainco falxu baten tenplorat, eremana izan zadiela.

Dena bihotz, sartzen da tenplo hartan Jaincoaren haur leiala, egiten du othoitz labur bat, gurutcearen seinalearekin batean, eta horra non lur ikhara batec inharrosten duen hiri gucia, erorarazten duelarie tenploaren erdia, eta Apolonen bulto² zathicatuaz lehertzen dituelarie han ciren jainco falxuen apezac, eta paganoetarie asco.

Inperadoreac, hasarre³ apez hekien gaitceaz, eta aski ixu Jaincoaren escuaren miracuilu hortan ez icusteco, emaiten du manna, ukhail-ukhaldica uma⁴ dezatela Martina, eta gero burdinazco aztapar batzuez, larru dezotela gorphutza. Lotzen zaizco beraz lau gizon, eta hari zaizco joca, hari zaizco larrutu beharrez; bainan, ordu berean, Birjina sainda haren begientzat ageri cirenac, baciren bertee lau aingeru burregoen ukhaldien baratzen hari cirenac; eta etcituzten bakharrie baratzen, bainan Martinari min egin nahi, eta burregoe beren buruac cituzten joiten, eta larrutcen. Hortacotz laster utci behar izan zuten beren lana.

Haukien ecin bertean, zortci gizonac harteen dute gorphutz garbi hura beren escuetan, punta zorrotz batzuez nahiz alderen alde iragan. Ordean, cein diren ezdeusac gizonaren indarcac Jaincoari gaitci zaizconeac! Ceruticaco argidura batec harritcen ditu, eta ezartcen lurrari josiac. Halere ezagutcen dute beren gaizkia, eta Jainco-legea besarcaturic, badute beren odolaren Jesu-Christorentzat ichurtceco zoriona⁵.

Biharamunean Martina saindua eremana izatu cen, herriz ere, inperadorearen aintcinera; [badaramate ere jainco falxu baten tenplorat, bainan alferretan. Orduan inperadoreac pica-

¹ Secula. — ² Potret. — ³ Khechu edo samur. — ⁴ Cheheça. — ⁵ Irou-sitafia.

razten dio chehe-chehea duen haragi gucia ; gero hasten zaizco zazpi gizon azote ukhaldica, eta hari dire lucez, elkhar aldica-tuz unhateen¹ direnean. Icusgarri hortaz ukhitua izan orde, Eumenius deitzen zuten gizon batec erraiten dio inperadoreari : Igor dezala nescatcha hura presondegirat, eta olio irakitu chor-tez errearaz cetzala haren zauriac. Eta egina izatu cen hitz horren arabera. Bainan Jaincoaren laguntza berekin zuen Martinac, eta tormenta lazgarri horien erdian, entzuten cituen ainge-ruen cantuac.

Handic ondoco egunean, Dianaren tenplorat izatu cen ere-mana, bainan hura han sartceatekin, harraboxic² handienetan atheratu cen debrua bulto hartaric. Ordu berean, oraino, ihur-tzuri eta chimisten³ erdian, su batec hartu zuen eta zathicatu bultoa, eta haren zathiec hilaraci zuten hainitz apez falxu. Miracuilu horren ondotic, exitu zuen inperadoreac Martina gaztearen garhaitcea eta, Justin bere ministro bat utciric bere orde, egin cezala ahal zuena, joan cen etcherat.

Justinec kharracarazten diozca gelditzen zaizcon haragiac eta bereciki bulharrac, burdinazco orraze batez ; zauri berri bat egiten cion aldi gucian, erran arazten ciolaric trufaz : Iire Jaincoac athera bezala gure escuetaric.

Behin, hain dute beren orracez deseginic ezarri, non iduri-teen zaiote hilaraci dutela ; bainan ez, oharteen dire bici-bicia dela ; erraiten dio beraz ministroac : Martina, sacrifica zazu gure jaincoei, oraino jasanarazten ahal darozkitzudan pairame-netaric⁴ bederen beira dezazun zure burua. Ene hazcarzaile den Jesus nere Jaunarekin nago ni, ihardesten du saindac, eta ez dut sacrificioric escainico debruari.

Coleraz sua zarion Justin ministroari, etzakielacotz gehiigo cer egin. Aldi bat oraino igortcen du presondegirat, eta gero, condenatua da lehoin bazca bilhacatcerat. Ordean largatcen dioten lehoina joaiten zaio, chakhurric eztieta baino eztiago, bere zaurien milicatcera : eta aldiz bere tegian sarrarazten hari

¹ Eñhetcen. — ² Heroxie. — ³ Uhulgu eta iñhacien. — ⁴ Sofricaric-taric.

zutelaric, bizpahirur elascas, puscatu zuen Eumenius inperadorearen aholcazaile¹ gaichtoa. Orduan ezarri zuten su handi baten erdian, bainan uri erauxi² batec berehala itho zuen sua. Azkenean icusirie etcezaketela bertce deusic egin, inperadoreac condenatu zuen Martina saindua ezpataz hiltcera, eta horrela, munduaren burregoen eta ifernuaren garhaitiar, joan cen hirjina hunen arima ederra bere Espos dibinoaren ganat.

IRACAXPENA

Erran cioten santa Martinari : Hire Jaincoac athera bezala gure escuetaric : atheratu zuen; eta huna non dohaxu den eternitatecotz. Nescatcha gaztea, etzaituzte orrace puntaz eta azote ukhaldiez borthateen gaizkirat; bainan bai mundutarrec beren solhas³ lizunez eta irri zuriez; eta beautzu, ecen burregoen tresnac bezain borthitz dire edo borthitzago. Cerc atheraco zaitu hekien escuetaric? Martina bezala, Jaincoaren amodioac; baldin Jaincoa maite baduzu gauza gucien gainetic, badukezu indarrie aski.

OXAILAREN 1^oAN

SAN INACIO ANTIOCHECO PATRIARKHA ETA MARTIRA

Hila 110^oan

Gure erlisione saindua doidoia hasten baicic eteen oraino hari; doidoia, Jondoni Petriren ondotic bertce apezpicu bat cen Antiocheco hirian izatua, sarthu cenean hango giristinoen aita eta gidari bezala, Inacio, gizon saindu bat, ez balin bacen ere gure Salbatzaile dibinoarekin ibilia, hederen apostoluen beren ganic Jainco-legea ikhasia zuena.

Inacioc badaki, ordu batetic bertcera bicia galtcen ahal duela; bainan ez du hargatic gordetcen apezpicu dela. Agerian, eta

¹ Conxeilu emaile. — ² Uhar. — ³ Elhe.

non-nahi, nor-nahiri, mintzo cen Jesu-Christo gure Jaunaz, hanc eman manuez eta arimaren bethiereco izaiteaz.

Orduan Trajan cen Erromaco inperadore, eta Antiochera gan izan behar zuen exai handi bat garhaituric, etcheracoan. Hiri hortan entzuten du Inacioz mintzatcen; eta berehala, ekharraraciric bere aintcinera, erraiten dio: Nahi nuke jakin, ja zu zaren, inperadoren manuen hausterat menturatcen direnen aintcindari, Jaincoa-nerekin deitcen den hura?

— Ni naiz Inacio, eta Jaincoa-nerekin deitcen naiz, ihardesten dio sainduac, cereo ene arimac baithakarre ¹ berekin Jesu-Christo ene Jainco-Jauna. — Beraz uste duzu ez direla jaincoac gure arimetan causitcen, eta ez gaituztela laguntcen gure behar orduetan? — Etzazula holacoric erran, inperadore handia; ez detzatzula jainco deith, mintzoric gabe diren bulto ² batzu. Ez da Jainco bat baicen; eta haren escuetaric atheraricaco ³ lana dire ceru lurrac eta izaite guciac. Zuc ere ezagutzazu zure Jaincotzat, eta zure erregegoac ez duke nibon cedarriric. — Zuc lehenago, erraiten dio inperadoreac, utzatzu amex horiec; eta emaiten darotzut nere adichkidantza. Icendatcen zaitut Jupiter jaincoaren apez handi.

— Badakit, ihardesten dio Inacioc, orgi egileari, nor nahi izan dadien, zor diozcogula eskerrac. Bainan cein diren dohacabe gaizkirat ekharraraztea gatic dohain egiten hari diren printceac! Cein diren, halaber, dohacabe gaichtagin hekiei escua hedatcen diotenac! Jesu Christoren apez naiz, eta orantchet nahi diot nere burua sacrificatu.

Trajanec, bertce hainitz elhe lausenguzco ⁴ eta larderiazcoez ⁵ egin abala egin ondoan Inacio sainduaren irabazteco, icusiz gal cela haren lana, mintzatu cen oraino aldi bat, bainan erraiteco, Erromarat izanen cela igorria haren hitcei behatu nahi etcena, eta han lehoinei arthikia, bazca orde.

Berri hori barreiatu deneco, bihotz-min bera izatu cen giristino gucien artean. Bakhotchari iduriteen citzaion bere aita

¹ Ekharten baitu. — ² Potret. — ³ Elkhiricaco. — ⁴ Balacuzco. — ⁵ Mehatchuzco.

galteen zuela. Hala-hala etcen entzuten nigarric eta auhenic baicen. Inacio da bakharric boz eta arin dabilana.

Ixas portura heldu bizkitarte, oinez egin behar izatu zuen bidean, besarcatu ahal izan zuen Ezmirnaco apezpicu saindua, adichkide bat Jondoni Joanesen etchean ezagutua. Iкуси cituen oraino toki hetaco giristinoac; eta, guciei, gomendu hau cioten egiten : Egizue othoitz, lehoinec har nezaten, eta chehaca egiten ahal nauten bezain borthizki.

Gaztigatu ¹ cioten ere Erromaco giristinoei : Jakinxun egiten zaituztet Jesu-Christoren gatic ene odolaren ichurtcera ethorteen natzaitzuela. Bainan, othoi, ez dadiela zuen artean nihor izan niri ene zorionaren ² galarazteco urhaxic eginen duenic : Utz nazazue Jesus Jaunaren gatic cerbeiten pairatcerat ³. Jaincoaren ogi bihia da ene gorphutza, basa ihicien haginena artean izan dadiela ehoa, Jesu-Christori dohacon ogi churi bat bilhaca dadien. Atchicarazatzue lehenago lehoi nec goserie, hasarrazatzue ⁴ nolazpeit, sutan athera ditecen ene gainerat, eta urricalmenduric ⁵ gabe zathica nezaten eta irex. Ez dut zuei manuric emateco, ordean huno certan naicen : Gabaz eta egunaz, ixasoan eta leihorrean ⁶ estecatua nago, basa ihiciric borthitcenac baino areago diren lau soldadoren artean; eta, haukienganic jasaiteco ditudanen icenean, othoizten zaituztet utz nazazuen lehoien aztaparretarat erortcera. Hortan icusico dut, ja egiazki maite nauzuen.

Solhas kharxu horiec ezagutarazten dute cein zuen maite Inacioc Jesu-Christo gure Jauna. Bainan amodio hori ez da aditua ⁷ izaiten ahal munduco axeginen ⁸ ondotic dabilzanec. Behar da bihotz bat Jaincoarentzat sutan dena, Jesus Jaunarekin bat egina cen gizon hunen mintzairaren aditeco.

Azkenecotz, pitzaraciz martirioaren guticia icusi cituen giristino gucien bihotzetan, heldu cen Erromarat Inacio saindua.

Erromaco gobernadoreac ere, nahi izatu ciozcan, cerbeitetan, bere ahalac ezagutaraci. Haren manuz azotateen dute, citeken

¹ Mezeto. — ² Iroustatiaren. — ³ Sofritecra. — ⁴ Ehelega erazitzaicie. — ⁵ Pietateric. — ⁶ Lur idorrian. — ⁷ Elhe. — ⁸ Enthelegatia.

borthizkiena, burdin orrace batzuez larrutcen diote gorputz gucia, eta zaurien gainera gatz eta ozpin¹ ichurteen, oinhacen handiteco. Azkenean hirur egunez, deus jatecoric ez edatecoric gabe atchiki ondoan, besta egun batez, eremana izatu cen Erromaco guducagiara², lehoinei arthikia izaiteco.

Sainduaren begitartean berean iracurt citeken arima gainditecen cion bozcarioa. Guducagiaren erditic altchatcen ditu begiac soz dagocon jende ostearen ganat, eta oihu egiten dio : Ez uste izan, Erromano icusgarri huntarat ethorri zaretenac, cerbeit gaichtakeriaren gatic naizela orai zuen aintcinean; ez, hemen naiz nahi dutalacotz joan Jainco egiazcoaren ganat; ecen haren amodioac erretcen hari darot bihotza.

Ordu berean entzuten ditu lehoinen urhuriac³ eta orroac, icusten ditu hekien lehen jauciac, eta bere fede subarrac erranaraci ciozcan hitz hauc : Jesu-Christoren ogi bihia naicena, orai izanen naiz ehoa eta irindua basa ihicien hortcez, eta naiteke Jesus ene Jaunari dohacon ogi bat.

Solhas horiec erran citueneco gainean cituen lehoinac eta ithoa cen. Horrela san Inacioren gorputza sarraskitan⁴ ezarria, zathicatuac, chehatua eta jana celaric lehoin batzuez, haren arima jadamic heldua cen cerurat, eta, eternitate gucian irauenen dioten, axegin garbi eta egiazcoen gozamenean sarthua.

IRACAXPENA

Cer amodioa pairamentzat! Badaki hec behar dutela Jaincoarekin ezarri; orduan cer achola du pairaturic ere oren bat? Ah! orhoit gaiten, hemengo denbora ez dela oren bat ere, eta ondotic baduela eternitateac. Hemen beraz ceba⁵ eta porrosca behar den bezala bihotza eta gorputza, gero izan dezagun eternitateco dohaxutasuna.

¹ Binagre. — ² Guducan harite co. — ³ Ohugiac. — ⁴ Odoletan. — ⁵ Zapha.

OXAILAREN 3^{an}

SAN BLAS EDO SAN BLADI APEZPICUA ETA MARTIRA

Hila 294^{ena}

Uste izaiteco da san Blas sorthu cela Sebaste Armeniacoan, eta hiri hortan zagola, apezpicutu aintzinetic. Gaztetasunean ikhasi zuen, orduco escoletan iracasten cen gucia, eta bertzalde oraino miricuntza. Bainan lur huntacotzat cerbeit balio duten jakitateac baino hobeki ikhasi zuena, hau cen : Cer behar zuen eguin saindutceco.

Saindutceagatic jarraiki cen Jaincoaren graciari, eta, bere-naz¹ ezti celacotz eta deus jaidura² gaichtoric gabe, laster heldu cen saindutasunic gorenera. Giristino eriec eta erromesec³ bazakiten haren caritatearen berri. Horra cer cen Blas, Sebasteco hiriac hautatu zuenean apezpicutzat, eta alde hetaco giristinoen aita eta gidari bezala.

Gerochago, bizkitartean, athera⁴ cen hiritic, nahi zuelacotz Jaincoaren amodioa hazcarraraci bere baithan, ichiltasanaren eta barneco bildura handiago baten bidez; eta joan cen Arje deitcen zuten oihanerat. Oihan hartan, lece ttiki hatean zuen bere egoitza. Eta bici izata cen cenbeit denboraz othoitcic kharxuenetan, jendetarie urrun, lainan icusia eta inguratua, egun guciez, cer nahi basa-ihiciz : lehoinez, tigrez, hartcez eta oxoez. Othoitcean hari cela causitcen balinbatzuten, hantche zanden ezti eta ichil. Gero joaiten ciren, cein bere escualde, othoitza akhabatu-eta bere benedicionea eman ciotenean.

Horrela⁵ Jaincoac nahi zuen eracuxi munduari nolacoa izanen cen guizonaren botherea, ez balitz bekhatuan erori.

Ordu hetan, oxo egiazcoec san Blasen zangoei⁶ musu emaiten ciotelarie, Licinius inperadorea hari cen, oxo baten pare,

¹ Berartarie. — ² Enjogidurarie. — ³ Praubec. — ⁴ Jekhi. — ⁵ Gisa hortan. — ⁶ Pot.

Jesusen arthaldearen ¹ odol uharrietan hondatu ² beharrez. Agricola, Armeniaco gobernadoreac, nahiz batean galdu preso zaozeaten giristino guciac, igorri cituen soldadoac Arjeco oiha-nera, ahal zuten becenbat tigre eta lehoi atceman cezatela.

Beren sai ⁴ horiec cituztelaric bakharric gogoan, heldu ciren soldado hauc san Blasen lece ondora; eta nolacoa ez da hekien icialdura! Gizon bat icusten dute, hari othoitcean, eta bilhatcen ⁴ dituzten basa ihicien erdian. Han utciric othoitz egilea eta basa ihiciac, lehiaric handiencan joan ciren gobernadoreari erraitera, cer zuten icusi. Eta gobernadoreac asmatuz ⁵ etcela bertceric izaiten ahal, baicic ere giristino bat, manatcen diote, gizon othoitz egilea eta bertce giristino atcemaiten ahal duten gucia altcha dezatela preso

Soldadoac itzultcen dire beraz mendirat, eta erraiten diote mortutiarrari ⁶: Nor nahi izan zaitecen, gobernadoreac bere aintcinera galdeteen zaitu. Jarraic zaizkigu. — Ungi ethorri zaretela, ihardesten diote sainduac, aspaldion haxperenez nindagon eta osoki berantexia, noiz agertuco cinezten. Goacen, hala da ecen Jaincoaren nahia.

Soldadoez inguratua Sebasteco hirirat Blas hurbiltcen hari celaric, erraiten dio aintcinera ethorteen zaion emazte chahar batec: Ene aita, urricak dakizula ⁷ alhargunxa dohacabe ⁸ bat! acienda beltch bat cen ene onthasun gucia; hura nuen heldu diren egunetaco jaki gaia, eta aichtian oxoac ereman darot! — Emaztekoa, ihardesten dio apezpicuac, etzazula nigarric egin, ez duzu oraino galdua; ecen hara non darotzun ekharteen oxoac berac. Eta ordu berean, haxantua ⁹ heldu cen basa ihicia; eta alhargunxari oinetan ezarriric bere onthasuna, bazohan berriz ere lasterca.

Gobernadoreac, heldu deneco, erraiten dio: Axegin ¹⁰ dut, jainco bethierecoen adichkidea, zure icusteaz. — Jaincoac bere gerizan ¹¹ zaozcala, gobernadore jauna, ihardesten dio san Blasec.

¹ Saldoaren. — ² Itho. — ³ Basa ihici. — ⁴ Cherkhatcen. — ⁵ Phenxatuz. — ⁶ Bortutiarrari. — ⁷ Ukhen dezazula pietate. — ⁸ Malerous. — ⁹ Hax salbo. — ¹⁰ Placer. — ¹¹ Proteccioniaren pian.

Ordean beartzu¹, ez detzatzula jainco deith, deus onic egiten ahal ez dautzuten izpiritu trichte batzu. Colerarie handienez, gobernadoreac manatcen du, makhila ukhaldica haux detzotela hezurrac.

Makhila ukhaldizeo eraunxi ikharagarri harren azpian bethi berdin ezti eta berdin alegera cen saindua. Eta burrego hekien gibelean icusirie debrua, erran cion : Oi arimen enganatzaile gaichtoa, uste baihuen eiki², pairamen³ haukien bidez, miri ene Jaincoaren galaraztea! Ez-ez! enekin duc Jauna, hanc naic borthizten, jasanaraz⁴ diezadac beraz nahi ducan gucia, ez nauc hire beldur. Agricolac orduan, icusiz ez duela deusic irabazten, ezarrazten du presondegian.

Harat, bazter gucielaric, osteca⁵ ethorteen zaizeo eriac, eta guciei emaiten diote osasuna⁶. Eriekin gerthatu⁷ cen haur bat arrain alezta bat cintzurrean⁸ gelditua zuena; eta hanc ere ardiexi⁹ zuen, san Blasi esker, bicia. Egundaino geroz, hezur edo alezta cerbeitez cintzurra trabatua duenac saindu huni dio othoitz egiten.

Cenbeit egunen buruan, apezpicua gogoz ganbiatu ditekela, berriz ere ekharraraci zuen tribunalera gobernadoreac. Baina hura, bere lehen hitectan cen; eta horrengatic, amarratu¹⁰ ondoan zur batzuei, larruaraci cion gorphutz gucia burdinazco orrace batzuez. Gero, oraino bici celacotz, ezarri zuen sua zarion burdinazco jaunztura haten barnean; baina burdina hoztu cen, saindua erre gabe. Saindua itzulico da beraz presondegirat; eta badoha, eskerrac emaiten diozcalarie Jesus Jaunari, ceren hainbertetaraino sokhorritcen duen, eta ekharria pairaraci nahico dioten guciaren jasaiterat.

Doidoia aiphatu albargunxac ere jakiten du preso dela bethi saindua. Hilteen du beraz acienda beltcha, eta zathi batzu errearacirie eremaiten diozca. Sainduac, axegin egiteco, jan zuen chingar berri pichea bat; eta erran cion hainbertee icustate zuenari : Ni banoha, baina gero ere, ene ohoretan errea-

¹ Avisatu. — ² Gisala. — ³ Sofricari. — ⁴ Egur eraz. — ⁵ Tropaca. — ⁶ Osagarria. — ⁷ Agitu. — ⁸ Ictarrian. — ⁹ Ukhan. — ¹⁰ Esteki.

raz zazu cenbeit chirio¹; egizu duzun guttitié amoina, eta, Jau-naren benedicionearekin batean, zure guttiá ez da emendatuco baicen.

Exia etzuen oraino hartua gobernadoreac : Hirurgarren aldicotz galdegiten dio, ja nahi dituen inperadoreen jaincoac adoratu. San Blasec ez dio casuric ere egiten. Eta orduan itho zadiela arthicaraci zuen ixasorat

Bainan ez! ez da ithotcen saildua. Leihorrean bezain ungi, chutic dabila uraren gainean; gero, joan denean urrunsko, jartcen da; eta handic deiteen ditu bere ganat jainco falxuen adoratzailac, erraiten diotelaric : Orai, zuen jaincoec lagun-teen ahal bazaituzte, zathorzkitet². Berehala jendeketa handi bat abiatu cen, bainan ura ur cen hekientzat. Itho eiren guciac, giristinoec hobeki gorex³ ahal cezaten Jaincoaren ontasuna eta botherea.

Orduan san Blasec, jakinki bere azken orenean dela, galdetcen dio Jaincoari, haren arartecotasunaren bidez cerbeit escatuco⁴ ciotenee izan cezatela guticiatcen duketena. Onhexi cion Jaincoac othoitz hori. Jauxi cen beraz leihorrerat⁵, bozcarioa biho-ctetic gaindi, eta han, ezpataz hiltcera condenatua, aphaldu zuen burna burregoei. Horrela igan cen arima eder hura Jaincoac ganat.

IRACAXPENA

Debocione bat ~~da~~ Escual-herrico hainitz tokietan, saildu hunen gerizaren⁶ azpian cabalen ezartcea, meza batez, edo bertce cerbeit othoitcez. Hori egiten dutenec diote, ungi causitu direla pratica hortaz. Bakharric ez huntan, ez bertce debocionetan ez dadien izan supersticioneric. Jaincoari galdegiten diogunean mundu huntaco cerbeit gauza, egin dezogun gure arimarentzat on diteken bereen batean.

¹ Torcha. — ² Jinzakieta. — ³ Admira. — ⁴ Galthatuco. — ⁵ Lur idorrilat. — ⁶ Proteccioniaren.

OXAILAREN 5^oan

SANTA AGATA BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 254^{ena}

Quincian Siciliaco gobernadoreac bere tribunalean icusi dituen giristinoen artean, hazcarrenetarie bat, izatu da santa Agata. Birjina hau hainitz aiphatua cen isla gucian; eta hortacotz, lehenetarie izatu cen preso alchatua. Ecen erraiten zuen gobernadoreac bere baithan, Agatari arbuiazten ¹ahal balin hacion bere fedea, bertzeric ere izanen cela haren urhaxei jarraikico cenic. Aski jakinxun icusteco, bihotza creaturei estecatuegia duenaren erlisionea achaleticacoa dela, ezartcen du Birjina gazte hau, bederatzi alaba bera bezain tzar cituen emacume ²baten ethean; niholaz egitecotz, han icusi eta entzun behar zuhenac higuinaracico ciola giristino legea.

Bainan Agata sainduac erraiten cioten ifernutiar emazte hekiei: Zuen solhasac zaizkit haicearen pare; zuen agintzac ³, uri calernacoaren ⁴ pare; zuen larderiac ⁵, hibai ⁶ zorrotz baten pare. Bainan, ez haiceac, ez uriac, ez hibaiac ez dire aski hazcar izanen ene ethearen arthicarazteco. Cimenduac harroca bicia- ren gainean jarriac ditu, eta ez dauzcatzue cordocaraciric. Aphrodisac (hola deitzen zuten emazte gaichto hura), erraiten dio gobernadoreari, haren ahalez goragoco lana eman diola, Agataren gogoz ganbiaraztea, bere lehen hitzetan dagoela, eta alferretan utcico duela lucezago haren ethean.

Orduan Quincianec ekharrarazten du bere aintcinera Birjina jaicotiarra, eta galdetcen dio: Cer da hire ethorkia ⁷? Agatac ihardesten dio: Nere buruaren jabe naiz, ene jendakiatic icus dezakezun bezala. — Cergatic, beraz, agerrarazten dun bertcen escupecoa haicela! — Jesu Christoren nescato naicen arren ⁸,

¹ Arnega orazten. — ² Emazte. — ³ Hitz ederrac. — ⁴ Tenpestacoaren. — ⁵ Mehatchiac. — ⁶ Uhaitz. — ⁷ Arraza. — ⁸ Nahiz Jesusen nescato naicen.

erregina naiz; ecen ene Jaunaren manuen egiteari eratchikiac dire handitasu guciac. — Eta gu, gure jaincoei jarraikitzen garenac, ez othe gare handien herroncan izaiten ahal? — Ez erran baduzuela Jaincoric, ecen zuen igelxuzco¹, harrizco, edo burdinurthuzco bultoen azpian, nahiz begitartea urhestatua duten, ez duzue debruric baiçen adoracen. — Agata, eman contu, eta ez detzanala laidosta gure jaincoac. — Ceronec lehenago egizu contu, edo bertcenaz zure andrearekin gan beharco òzuz zerurat jaincoen lagun. — Iduri liken hire ahoaren bethe ere ez garela, bairan sarraracico darozkinat irriac, baldin ez badarotan bertce² e ihardesten ahal. — Behar bezalacoac izatu badire zuen jaincoen urhaxac, cer gaizki da ene elhetan? eta behar ezbezalacoac izatu badire, cer gatic nahi darozkidatzu adoraraci? Eta gero, lehoinei, hartcei, tigrei bazcatzat nahi banauzu arthiki, Jesusen icena deithuco dut, eta galduco dute beren basatasun gucia; suan nahi banauzu kichkeilaraci³, ceruco aingeruec gerizatuco⁴ nante, ene gainera ihintz gozo bat jauzaraciz; zathicaraci nahi banauzu burregoen escuz, orduan oraino, izanen dut nere baithan Jesusen izpiritua, eta baduket aski.

Gobernadoreac hasarre⁴ goa⁴ ecin handiago batez hartua, manacen du ezar dezatela gazteluan; eta uzten du, erraiten diolaric: Zuhurtciaric balinbada gehiago hire baithan, bertcela mintzatuco haizkit geroco aldian. Ceronec, ihardesten dio Agata sainduac, icusazu cer irabazten duzun Satanen muthil izanez. Eta bocic sartcen da gazteluan.

Biharamunean berriz ere galdetcen dio birjina saina hari: Cer daasan bicia edo herioa dakharken⁵ egitecoaz? — Bicitcea neretzat, dio Agatac, Jesu Christorekin izaitea da. — Noiz artio, dohacabea, haiteke hire chede funxgabecoetan? arbuia zan Christo, eta adora zatein gure jaincoac; begirazon⁶ hire gartetanari, edo bederen, icus zatein hiretzat ditezken tormenta lazgarriac. — Zuc lehenago utzatzu zure ustekeriac, adora zazu

¹ Plastrezo. — ² Chukha eraci. — ³ Beiratuco. — ⁴ Hechu. — ⁵ Ekharren dian. — ⁶ So eg'on.

Jainco handia, edo, jakin zazu eternitateco herioteca zuretzat ditekela.

Berehala, coleraz sutan, gobernadoreac manatzen diote burregoei pairazaz ¹ dezotela Agatari, ahal duten gucia; eta Agata sainduac, gurutzadan zauden bi zuren gainean hedatua, cion: Huna ene egunic ederrena; oinhace ² haukiei esker izanen ditu ene arimac eternitateco ezteietan agertceco behar dituen aphaindura guciac.

Hitz horiec entzutean, colerac gaindi egiten dio Quinciani, eta manatzen du lehert dezotela bulhar bat. Eta horrela oinhaceric ikharagarriena jasanaraci ondoan, ebakitecn diote bulhar hura. Orduan erran cion Agatac gobernadoreari: Haicen bezalaco bibotz-gabea, nola ehaiz ahalke, heroni ³ hire ama baithan haci hauenaren, emacume bati ebacarazteaz? Bainan, emac aintcina, nere barnean, haur-haurretic bazaozcaiat Jesusentzat nibore ecin khenduco darozkitan bertce bulhar batzu. Jujec ezdaki gehiago cer egin eta igortcen du berriz ere presondegirat, ungi gomendatcen duelaric miricuric ez dezaten sartcerat utz.

Han zagon Agata, behin ere baino hazcarrago gogoz, noiz eta ere gabaren erdian agertcen baitzaio, argia zakharren ⁴ haur baten ondotic, itchurarie eztiena zuen gizon adinetaco bat; eta entzuten diozca solhas ⁵ hauc: Zaude oraino aphur bat, chutic, Jesusen espos kharxua. Ecen cenbatenez ere latzgarriagoac izatu baitire zure oinhaceac, hainbertcenaz ere handiago dukezu, ceruco loria: Larrean ere ederrexmendurekin aiphatuco dute gir:stinoec zure curaica. Ni ethortcen natzaitzu, orai, zauri gucienc sendatecra. Ez, egundaino, erraiten dio Agata sainduac, eguadaino ez diot ene gorphutzari eman deus sendagailuric, eta egonen naiz, Jesusen gatic, ezarri nauten bezala. — Zaharrac erraiten dio berriz-ere: Jesusec natzaitzu igortcen, ecen haren apostolu naiz. Ez dakizula gaitci Jesusen icenean sendatua izaitea. Hambertcenarekin sunxitu cen saindua. Agata, bere aldetic, othoitcean hasi cen, Jaincoari eskerren bihurtceco, eta berehala ezagutu zuen sendo zuela gorphutz gucia.

¹ Sofrieraz. — ² Sofricari. — ³ Hibaur. — ⁴ Ekharten cian. — ⁵ Elhe.

Biharamun goicean gobernadoreac bere begiac ecin sinhex cetzazken. Birjina hura icusten du sendatua, eta nolaz egin den ecia asma¹ dezake. Azkenean, ez jakinez bertceric cer egin, manatu zuen, ihaurt cezatela presondegia bacheraki cascoz, eta ikhartz biciz, eta, itzulica ibil cezatela Agata hekien gainean. Manu lazgarri hori eman dueneco, lur ikhara batec arthikitcen du hekien aldean pareta gorabat, bi gizon, bat jujearen aholca-tzaile², bertcea adichkide cirenac, lehertcen dituelaric. Hiri gucia, icialduraric handienecan, biltcen da tribunalera, eta oihuz hasten gobernadoreari, haren gaichtakerien gatic hiria galtcera dohala.

Jendearen beldurrez, gobernadoreac ihesari eman zuen, eta Agata saindua, presondegian berriz-ere ezarria, hunela mintzatu cen Jaincoari: O ene Jaun maitea, ez deusetaric egin izatu nauzun ondoan, hainbertce exaien garhaitcen lagundu izatu nauzuna! O zu, zure maithateco gracia egin darotazuna! ordu da khen nazazun mundu huntaric! Bai, khen nazazu, eta har zureganat. Othoitz hori akhabatcearekin, oihu handi bat egiten zuelaric, eman zuen azken haxa, eta ehortcia izatu cen haren gorphutza, hirian berean, ohoreric handienekin.

IRACAXPENA

Cer indarra pairamen³ horietan! Eta gurea, den gutieneco minean eroria da. Certaco? Ceren urrun baita ga ganic santa Agataren fede hazear hura, santa Agatac Jaincoarendaco zuen amodio hura.

Bainan, egun nihoiz baino ageriago dena, non da sainda hunen gogo hazearra, gaizkirateo exenplu eta gomituei ihardokitceaz⁴ dohanean? Ez, bakharric, gu baino goragococ, bainan gure heinecoc berec, cer ez dute aski, gure icitarazteco? Entzun dezagula solhas bat, icus irri bat, eta ukho egiten diogu Jaincoari eta gure eginbideari. Bizkitartean ez ginuke santa Agatac gobernadorearen ganic becen bat calte⁵ igurikitceco. Gora beraz

¹ Phenxa. — ² Conxeilu emaile. — ³ Sofricari. — ⁴ Buhurtceaz. — ⁵ Gaitz.

bihotzac! Eta aithor, nor nahiren gatic, gure Jaincoa. Dohaxu Jesus Jauna bere nagusizat, gizonen aintcinean, ezagutcen duena!

OXAILAREN 6^{ta}

SANTA DOROTHEA BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 364^{****}

Bacen laugarren mendearen hastean, Capadocia Cezareco hirian, birgina gazte bat, Dorothea deitzen zutena, hainitz aiphatua paganoez eta giristinoez. Paganoec ezaguteen zuten, munduac guticia detzazken edertasun guciae aurkhiteen¹ cirelacotz hura baithan. Giristinoen artean aldiz aiphatua cen Dorothearen icena, halacoa celacotz haren biciteea : Jesu Christo gure Jaunari bihotza emana osoki eta behin bethicotzat, bici cen barurean eta othoitcean, ichiltasunean eta, ahal zuen becen bathean, gordea.

Saprice Capadociaco gobernadoreac ere entzuten du Dorotheaz mintzateen, eta ekharrarazten du bere aintcinera. Nescatcha jaincotiar hura agertcen da begiac aphalduac; othoitcean dagola ezagun du. Gobernadoreac galdegiten dio : No!a deitzen haiz? — Dorothea da ene icena. — Behar ditun, gure printce handien manuec hala cione, jainco bethierecoac adoratu. — Ceruco Jaincoa da bakharric handi dena, eta hare manatcen darot, haren baicic ez adoratcea. Ceroniri² galdetcen darotzut cein da manu horietaric beiratu behar dudana? Ceru lurrac egin dituenarena, ala gizon hilcor batzuen, erraiten darotedanean bulto³ cikhin batzuei behar naicela herxatu⁴? — Escain zoten sacrificio gure jaincoei, edo urrikituco⁵ zain; hi baithan eracusten dinat bazter guciei, cer diteken inperadorea manuei behatcen ez direnez. — Nic, nahi diotet guciei aditcerat eman, ihardesten dio berriz ere Dorotheac, Jainco jaunaren beldur

¹ Causiteen. — ² Cihau:i. — ³ Potret. — ⁴ Adrezatu. — ⁵ Dolutuco.

dela bakharric izan behar, eta ez duela nihore ceren casuric egin gizonec pairarazten¹ ahal diotenaz.

Orai ageri dun hire erlisione ixuan egoitecotan haicela, bainan sinhex nazan, Dorothea, ez balinbaitun hire bezurrac bere tokiataric² atheratzen entzun nahi. — Izan beitez nola nahico, nic jasan behar ditudanac, aphur baten gora-behara da gucia; eta aldiz, zue nahi duzuna eginez, pairamenen pairamenac dituzke, menderen-mende, enetzat. Horren gatic cion ene nagusiac : « Etzazuela beldurric izan, arima hilaraci gabe, gorphutza choilki hilaraz dezaketenez gorphutz eta arima, bethicotz ifernurat arthikiteen ahal zaituztenentzat izan zaitetze lehenago beldur. » Gauza horiec jakin, eta, adoracione cerbeit emanen diotedala, nic ifernu zolan erretzen hari diren arima batzuen zurezco edo harrizeco bultoei? Ez! ez! Adora detzatela hekien ganat erretcerat joan nahi dutenec.

Hitz horiec entzutean, ecin dagoke Saprice, bere larruaren barnean. Manatzen du burregoei nescatcha hari trencaraz detzotela membro guciac, gurutzadan zauden zur batzuei lothuz³. Behar dugu icusi, zaasan, ja pairamenen borthiztasunac ez diozcan adoraracico gure jainco botherexuac.

Haur gazte hura ez da loxatzen, nahiz handi diren haren oinhaceac⁴; erraiten-ere dio ainteindari muthiri hari : Egin diezadac lehen baino lehen egin gogo dukana, nohan⁵ laster nere guciz maitearen ganat. — Eta noren ondoan habila? — Christo, Jainco biciarena seme gizon egina, diat bilhatcen⁶ — Non da Christo hura? — Jainco bezala toki gucietan, gizon bezala aldiz, ceruan bere aita eternalaren escuinean. Eta harat, bethiereco lore⁷ ecin histuzcoez aphaindua dea baratce hartarat, gaitic deiteen gure arimen jaun adoragarriac. Sinhex nazac, Saprice, eta eginzkic hire egin ahalac, baratce hartan hartua izan hadien. — Utzkin amex horiec, sacrificia zan gure jaincoei eta axegin⁸ guciac hire dituzken — Nihoiz⁷! nihoiz! giristino nauc, eta horra ene azken hitza.

¹ Sofrierazten. — ² Lekhiataric. — ³ Estekiz. — ⁴ Sofricariac. — ⁵ Juan nadien. — ⁶ Lili. — ⁷ Placer. — ⁸ Secula.

Sapricec orduan hauzarazten ditu estecatua zaocaten lokharriac, eta ezarteen du Dorothea giristinotasuna arnegatua zuten bi ahizpa, Christa eta Calista deitcen cirenen, escuetan; ustez, hekien aphaindurac eta onthasunac icusiz, gaubiatuco cela harroca bezain gogor causitu zuen bihotza.

Dorotheari beraz erraiten diote nescatcha dohacabehec: Icusazu cein den handia gure zoriona¹: onthasunen eta axegineu erdian igeri gaude, irriz eta josteta dohaci gure egun guciac. Zu ere gazte zare, eta cergatic ez duzu gue bezala eginen? Dorotheac ihardesten diote, gehiagocoric erraiterat utci gabe: Bai, nahi dut, orai dohaxu zaretela, ordean, cer diteke laster zuetaz? Ene ahizpac, ahizpa maiteac, oraino ordu da! orhoit zaiteste ethorkizunaz²? eta urricai zaikituela³ zuen arimac. Itzul zaiteste Jaincoa ganat. Othoitz eginen dut zuentzat, eta nere gain harteen dut zuen bekhatua.

Hitz horiec entzutearekin, bi ahizpac erori citzaizecon oinetarat, eta, nigarretan urteen hari cirelaric, ihardexi cioten: Gure arimac zure gain harteen dituzunaz geroz, Dorothea, Jaincoaren adiehkidea, zureac gare eta nahi duzun guciaren egiterat ekharriac.

Biharamunean, galdegiten ditu gobernadoreac bere aintcinera bi ahizpa hec; eta nolacoa ez da haren axecabea⁴ entzuten dituenean erraiten: Gu ere giristino gare; gaizki handia egin ginuen gure Salbatzaile dibinoaren arnegatceaz; oraiegizu gutaz nahi duzun gucia.

Bere ecinbertcean, arthicarazten ditu bi ahizpac bertz⁵ suan gorritu batetarat. Orai dire Christa eta Calista egiazki dohaxu. Bai, boie dituzte beren buruac utci, bertzan ezartcerat; eta, haren barnean, han cen hekien othoitz: Jesus Jauna, icusazu gure urrikia⁶ eta barkha diezaguzu. Dorothea ere han zuten hari solhas sarcor batzuez, hekiei indar emaiten. Holachet iraun zuten erre artio, eta gero, hekien arimac igan ciren cerurat.

Dorothearentzat bacen oraino bertce oinhaceric. Bigarren al-

¹ Irousitatia. — ² Gerouaz. — ³ Ukhecie p'etate. — ⁴ Nahigabia. — ⁵ Pandero. — ⁶ Dolumene.

dicotz ohico zurari, laurdengatceco heinean, estecatua, pairatcen cituen ikharagarriac : eta, hala ere bozcarioric handienean delá ageri du. Haren pairua¹ icusiz, gobernadoreac su emanarazten dio sahexetariac, eta gero, ukhail ukhaldica joarazten du maceletan, burregoac unhatu² arteraino. Noizbeit ohartu cen alfer cirela haren indarca guciac ; eta orduan condenatu zuen ezpataz hiltcerat.

Sainda harc bazuen, azkenecotz, guticiatcen zuena. Lehiaric handienean eta bihotz-bihoteetic Jaincoari eskerrac emanex, tribunaletic canpo zohan, Theophile gobernadorearen adichkide batec, hartaz irri egiteco bezala, erran cionean : Zure Jaunaren baratceetic cerbeit lore edo fruitu igor diezadazut. Ongi da, izanen duzu, ihardexi cion birjina gazteac, eta joan ceu aintcina.

Hil behar zuen tokira heldua, galdeteen du utz dezaten othoitz baten egitera ; eta oraino othoitcean zagolaric ethortcen³ zaio aingeru bat, haurra iduri, eta oihal churi bat escuan. Oihal haren barnean baciren hirur fruitu eta hirur arrosa ecin gehiago ederrac. Dorothea sainduac igorri ciozcan Theophili, Jaincoa ganat itzul zadien ; eta berac, ezpata ukhaldiarekin batean, utci zuen lurra bere Jaincoa ganat joaiteco.

IRACAXPENA

Santa Dorothea bi ahizpa hekiekin bezala, gu ere causitcen gare eracuspén gaichtoez, eta giristino lazo, hainitcetán zarrez inguratuac. Bainan hura ez bezala gu gaituzte gaichtoec berentcen, guc ginituzkegularic gaichtoac ungirat ekharraraci behar. Sainda hunen bitartecotasunaz⁴ galde diozogun Jaincoari, hemendic aintcina, hala hazcar gaitzala berthutean, non cenbeit arima irabacico baitiogu.

¹ Pacencia. — ² Eñbe. — ³ Jiten. — ⁴ Arartecotasunaz.

OXAILAREN 10^{ena}

SAN GILLAME EDO GILLEM AQJITANIACOA

Bila 1137^{ena}

Aberaxa certaratcen ahal den Jaincoaren graciari ez bazaio jarraitkitcen, eta aldiz, graciac cer dion eginarazten ahal bekhatore urrikituari ¹, horra, hastera daramagun bicitceac, cer duen iracasten.

Aquitaniaco duke, edo lehen aintcindarien seme, Gillamec, haurtasunetic, agertcerat uzten cituen gaizkiraco jaidurarie handienac. Haur-haurretic sarthu cen lohikerian, hartan iragan zuen gaztetasuna, eta geroan, bera aintcindaritu ceneco, hain behera jauxia cen, non, Herodesen pare, berekin baitzagocan bere anaiaren emaztea.

Poitiereco jaun apezpicua, hasarregoa ² saindu batean, menturatcen zaio erraitera etzaiola holacoric cilhegi ³. Haren eginbidea cen; bainan, bere solhasaren gatic, beharco du jasan mila laido, eta, hekien ondotic, bortehatua izanen da hiritic atheracerat.

Hanbat gaichtoago, bere bide ciklinean, Gillameri hara bat, traba cerbeit ezarri nahico dionarentzat! izan dadiela atce edo ahide, baduke goiz edo berant, bere gaztigua. Eta iduri, horrelaco bicitcean egin bekhatuekin etzuela azki, handiagoric ere izanen da bere gain; ecen haren gatic Eliza gucia nahasia izanen da.

Aita Saindu, Honorius bigarrena, hil cenean, hunen ondoco hautatua izatu cen Aita Sainduarekin batean, athera cen Piarres Leongoa, hura cela Aita Saindu egiazcoa. Gillamec etzuen berterric guticiateen. Hartu zuen, bocic, bere gerizan zucenic etzuen, eta, aitzakia ⁴ hortan, casatu cituen beren elicetarie,

¹ Doluturic denari. — ² Samurgoa. — ³ Haizu. — ⁴ Estacuru.

Aita Saindu egiazcoarekilacoa idukiteen zuten apezpicuac, berretzen cituelarfic bekien elicetaco onthasunac. Horra nola bici den lucez Gillame bekhatorea.

Noizbeit, san Bernaten solhas sarkhorree icialdura cerbeit emaiten diote. Uzten du beraz Aita Saindu-ordearen escualdea, itzultzen ditu elicetarat hartu diozcaten onthasunac, eta, nahiz ez den oraino urrikiric¹ handiencan, bederen da cordocatua. Oraino aphur bat, san Bernatec, bere othoitzez eta penitentciez, egiten dio ceruari bortcha saindu bat, eta Gillame, ecin gehiago egonean, emaiten da bideari, mortu² barnean zagon gizon jaincotiar bati buruz.

Berbera iragaiten icusten zutenec, cioketen beren baithan: Horra non, oraino ere, dohan cerbeit gaichtakeria gogoan. Bainan ez! Dena nigarretan eta auhenetan³, galdegiten dio, bilhatcen⁴ zuen gizon sainduari, nolaz atheratcen⁵ ahalden ifernuco bidetic. Mortutiarra badago lucez, ecin sinhexiz Gillame duela bere oinetan. Cer gerthatu zaio hainbertce har-rabox⁶ egin duen gizon aiphatuegiari?

Ecin izan citeken bertela, ezagutcen du Jaincoaren escuac diola bidali⁷, Jesusen arthaldean⁸ oxo errabiatu bat baicic izatu ez den gizon dohacabea. Etzadien eximendutan eror, emaiten dio cenbeit elbe on; eta gero, igortcen du bere lurreco egitecoen antholatcera.

Lehiatcen da Gillame manatua zaion guciaren egiterat; sobera zorion dukela egiten du bere baithan, nolazpeit salbatceaz. Itzuli dencan, sainduac harrarazten diozca larru arraseco zur-dazco bat, eta, aintcindei gucia gerriraino estaltcen diola, barneco burdinazco bat; azkenean, horien gordagailu emaiten dio oihal arruntezco jaunztura tchar bat; eta horrela igortcen du Aita Sainduari buruz.

Aita Sainduac entzuten du Gillamec bere bekhatuez egiten dion aithorra; bainan, hobeki ezagutcea gatic nolacoa cen haren urrikia, egin cion lehenbician ez sinhexiarena; eta gero, egin

¹ Dolomesic. — ² Bortu. — ³ Haxbeherapenetan. — ⁴ Cherkhatcen. — ⁵ Eikhiten. — ⁶ Herox. — ⁷ Igorri. — ⁸ Saldouan.

zuela aski othoitz eta urrikizco nigar, iduritu citzaionean, igorri zuen Jerusalemerat, han izanen zuela galdetcen zuen barkhamendua.

Ecín erran ditekena da, cein gogo onez hartu zuen Gillamec bide luce haren egitea, cein cen handi izatu haren bozcarioa, bekhatu keta icigarri haren carga khentcen ciotela buruaren gainetic, ezagutu zuenean. Bekhatuac barkhatuac citnen arren¹, etzuen utci bere buruaren gaztigatcea. Lur sainduetan egotu cen aintcína, etcheric ez oheric gabe, bere jaunxtura garratcean, eta ogi beltz cerbeit pichka janbari, ur huxa edari.

Bizkitartean ohartu cen jenden ganic ez zuela egitate onic baicen; eta ordu berean ethorri cen Italia Luqueco hiriraino. Bada denbora betan Luquearrae gerlan hari ciren, beren hainitz hauzoekin, eta gaztelu setiatua zaocaten batean sartcea, exitcen hasia zuten.

Gauza horiec entzutean, Gillame baithan pizten da lehena-goco guducaco sua; ecín dagoke behar luken bezalaco ezpata bat escuan hartu gabe, eta azkenecotz, galdegiten du soldadoen aintcindari jartcerat utz dezatela, gaztelua hekiena ditekela laster, Luquearrec bocic eman cioten galdegina, eta Gillame, gorphutza zaurteen cioten lokharri guciac, harotz bati khenaraciric, aintcindari bezala, aintcindarien soineco ederrekin, hiritic atherateera zohan Jaincoaren escuz izatu cenean ixutua. Horrela ezagutarazten cion Jaincoac bere arimaco exaiei baicen etciotela gerlaric egin behar.

Dena ahalecatua, bainan ez loxatua, Gillame sainduac aithortu zuen bere hobena eta umiliatu cen bere arinueriaz. Jaincoac ere onhexi zuen haren bihotzmina, eta, barkhateen ciola seinale, eman cion berriz ere bichta, eta oraino, argitu cion hobeki adimendua². Hala-hala, penitencia egiteagatic, jo zuen Jondom Jakearaino.

Beila hortaric lekhora³, gorphutzaren bethi zaphatua atchikiteco, sarthu cen Italiaco oihan handi batean. Oihan hau basa ihiciez dena hartua da; bainan Gillamec ez du haukiekin deus

¹ Nahiz bekhatiae phareatae zutian. — ² Euthlegia — ³ Landan.

egitecoric; bere guduac, guduca ikharagarriac, gure arimaren exaiekin ditu.

Behin, bertee aldiez ez nadien mintza, bere etcholaco athea¹ harrabox² handitan zabalteen ciotelaric, dena uspelcatua³ eta zaurthua ezarri zuten, ez baiian hila. Orduan oihu egin cion Birjina Maria Sainduari; eta ceru lurren Erregina, ama samur⁴ baten pare, agertu citzaion, solhas ezti batzu ere erran ciozcan, eta utci zuen egundaino baino hazcarrago.

Denborarekin, Gillame Aquitaniaco dukea saindu handi bat cela banatu cen, hala lehenago bere bekhatuez escandalisatu cituen herrietan nola bertetan; eta bazter gucietaric ethortcen citzaizeon bekhatoreac, hekiei ere behar ciotela iracaxi, nola irabazten ahal zuten cerua. Gillame sainduac alchatu zuen beraz comentu bat hekientzat.

Bainan Jaincoaren chedea cen, saindu hunec etzuela deus conxolacioneric, nihoiz mundu huntan izanen. Berac egin ethetic, bortchatua izatu cen atheratcerat, eta, fraide batzuen gatic ihesi joan cen, basa ibicien ez debruaren gatic egin etzuen bezala. Joan cen behin mendi gain batetara, handic Castiglioneco hirira eta azkenean, bere buruaren, jenden ganic zuen ieustateari hobeki gordeteeco. Siena ondoan cen haran⁵ zokho batetarat. Han, oraino cenbeit denbora, bakharric bici izatu cen; gero, ecindu cenean, lagun batekin; eta bethi penitentciaric lazgarrienetan.

Lagunarekin biciteen hasi cenetic bi urtheren buruan, eza-gutu zuen azken egunerat hurbildua cela. Lehiatu cea orduan biatico sainduaren hartcerat, eta gero, jende oste bat nigarretan zagolaric haren khar saindua mirexiz⁶, begaldacatu cen ceruetarat haren arima saindua, bere nigarrez eta bere nahitaraco gatziguez irabaci zuen loriaz gozatzerat.

IRACAXPENA

Bekhatorea, handi izatu ditezke menturaz zure escandalac

¹ Bortlia. — ² Herox. — ³ Ubeluritia. — ⁴ Trende. — ⁵ Naba. — ⁶ Admiratuz.

Bainan ez duzu oraino exitu behar; bakharric, bicitec saindu baten bidez ecezta zatzu zure haurriden arimec egin dituzketzun calteac¹, eta ceronec eguizu bekhatu hekien araberaco penitencia.

OXAILAREN 10^{ean}

SANTA SCOLAZTICA EDO EZCOLAZTICA BIRJINA

Hila 543^{ean}

San Benoat eta santa Ezcolaztica anaia arreba ciren. Biac, berdin ongi jarraikiz Jaincoaren graciari, batabertcea bezain sainduki hici dire. Eta gero, saristatuac izan direnean hekien arimac ceruco dohaxutasun beraz, hobi berean lo egingen dute oraino hekien gorputhec.

Bi saindu hauc sorthu ciren Italian, Onbriaco probintcian, eta sorthu cirenetic laster, galdu zuten beren ama. Aitac hartu zuen artha² bereci bat Ezcolazticaren bihotcean pizarazteco, ahalic goicena, Jaincoaren beldurra eta amodioa. Hainbertceta-rainocoan beldur cen, munduan gal zadien haur gaicho hura, non Jesu-Christo Gure Jaunari beretzat escaini eta agindu³ baitcion.

Ezcolazticac, bere aldetic, guzic ongi ihardesten zuen aitaren nahicundeari. Etzuen errencuracic, bertce haurrec lehiarekin bilhatcen⁴ dituzten aphaindurez ez edergailuez. Hala-balaco achola du onthasunez. Ecen anaia joan zaio comenturat, eta, munduan egoitera, aberax handi izaiten ahal da; bainan, iduri cerutiar baten begiac dituela iensteco lureco axeginen eta onthasunen balioa, cion maiz bere baithan; noiz emana izanen zait, munduari adio bethiereco baten erraitea, eta Jesus Jaunaren espos bilhacatcea!

Azkenean adinetaratu da, eta galdetcen dio aitari, utz dezan

¹ Ogenec — ² Arrancura. — ³ Hitceman. — ⁴ Cherkhatcen.

serora sartcera. Eta Aita jaincotiar hunec laguntzen du comen-
turat, nahiz icuſten duen andrerie ez haurrie gabe, eta berbera,
dohala baratcera.

Horrela ¹ sarthu cen Ezcolaztica gaztea etche saindu batean.
Etche hartan gure Nagusi Jaincozcoaren ondoan eta haren esco-
lan, laster iragan zuen bide zathia; berthute guciac hazcartu
ciren hura baithan, eta bereciki ageri zuena hau cen, Jaincoa-
rentzat bihotza sutan ezarteen cion amodioa. Amodio horree
galarazten ciozcan jana, loa eta berteekein solhas egiteco guticia
guciac; nahiz beharteen zutenean causitcen zuten haurra bezain
mintza-errech ².

Hola zohalarie, egunetic egunera, geroago eta sainduago,
entzuten du Benoat haren anaiac, Casineco mendian, altchatu
duela comentu bat, eta hari tuela pagano eta giristino gucien
bihotzac Jaincoa ganat itzul arazten. Horiee jakinez geroz, ecin
dagoke Ezcolaztica bere anaiaren ganic hain urrun; galdegiten
du beraz eta ardiesten haren ganat joaitea. Casineco mendira
heldu cenean, othoiztu zuen bere anaia saindua, gizonentzat
egin zuena, egin cezala oraino haren eta haren azpico ³ jarri
nahi zuketenen onetan.

Ceruco bidearen hobeki ikbaztea gatic hainbertee urbax egin
zuenarentzat etcen deus sobrarie. Benoatec altchatu zuen, bera
zagonetic oren bat eta erdiren bidetan, bertee comentu bat; eta
handie cenbeit denboraren buruco, hainitz nescatcha eta andre
gazten aintcindari cen Ezcolaztica. San Benoatec gizonentzat
eginicaco erregela borthitzari obedituz, bazohacin hec ere
arinki, saindutasuneraco bidean.

Hau cen bere serora lagunei gehienic gomendatcen ciotena Ez-
colaztica sainduac; Eginahal guci iz, ihes egin cezatela munduan
bici cirenekin mintzatceari; cenbat nahi saindu eta jaincotiar
izan citecen munduco bidetan zabilzananac, hekiekilaco solhasen
ondoan barreiamendu gehiago bacela bethi izpirituan, eta etcela
nihoiz ⁴ Jaincoarekin egotu cenean hecenbat khar eta bildura.

Hori cen berac egiten zuena. Anaja bera ere etzuen urthean

¹ Gisa hortan. — ² Aisa. — ³ Peco. — ⁴ Secula.

behin baicic icusten. Hortaracotz, atheratuz¹ beren etchetaric, cenbeit lagunekin, elkharretaratcen ciren bide-erditan zuten etche batean.

Han, Ezcolazticac galdegiten cion, cer eta nola eginaraci behar cioten serora lagunei, hekien berthutean hazcarrarazteco, eta ceruco bidean chuchen joanarazteco. Gaineraco denbora, mintzo citzaion bere arimaz, eta anaia saindua ganic bazuen behar zuen argia, hala bere buruaren garhaitceco nola exaiaren tentacionei bihurtceco. Eta gero, su berri bat bihotcean, hartcen zuen etcheraco bidea, bertee urthe batentzat.

Ethorri cenean Jaincoac bere ganat anaia-arrebac hartu nahi cituen urthea, jakinxun azken aldicotz direla elkharrekin, egun gucia badaramate ceruaz eta ceruan sainduac duketen dohaxutasunaz mintzatcen. Arraxalde aphalean, othuruntza² tiki baten ondotic, egundaino baino gose eta egarriago ceruco gaucez, Ezcolazticac nahi luke cerbeit gehiago entzun bere Espos Jaincozcoaz, eta Espos maite hare birjinentzat daocan zorion³ bereciatz. Erraiten dio beraz : Hau da, nie eginen darotzudan azken galdea, anaia ; gauden othoi, gau huntan elkharrekin, bertee cenbeit hitz erran diezadazun oraino ceruaz. Uste gabeco othoitx horrec harritua ezarteen du Benoat. Ecen erregelac debecatcen dio gabaz ethetic canpo egoitea ; eta iduriccen zaio escandala baten emaitera nahi duela ekbarraraci ; ihardesten dio beraz : Nola ez duzu icusten, niholaz ere ez dezazukedala onhex galdetcen darotazuna?

Birjina sainda hare, icusiz etzuela deusic ardiexico bere anaiaren ganic, hartcen du bere bi ahurrez begitarte, eta hala-hala dagolaric pausatcen du mahainaren gainean. Orduan itzultcen da Jaincoari buruz, eta galdetcen dio, eracux dezala ceinaren alde⁴ dagocan ; gero hasten da haxbeherapenez eta nigarrez ; eta hainbertzenarekin oraino, hasten dire chimichtac eta ihurzuriac⁵, uri⁶ erauxi jaux abalaco batekin. Orduan altchatu zuen burua Ezcolazticac.

¹ Elkhiz. — ² Apaira teh pi. — ³ Irousite. — ⁴ Gaintia. — ⁵ Iñhaciac eta uhulgi.c — ⁶ Ebi.

Benoat sainduac, icusiz nola haren nigarrekin batean calerna¹ hasi cen, nahiz ordu arteraino etcen ceruan hedoiic² chumena, ederrexu zuen Jaincoac ekhartcen cion amodioa. Hala ere cerbeit gaizki erran cion. Baina sainduac ihardexi zuen : Icusu dudanean gaitcesten cinarotala nere othoitza, herxatu³ naiz Jaincoari, eta Jainco Jaunaz entzuna izatu naiz. Zobazkit⁴ orai, ahal bazaitezke.

Anaiac ezagutu zuen horrela, Jaincoac nahi zuela han iragan cezan gau hura; eta berriz mintzateen hasi cen ceruco dohaxutasunaz. Etzuen bertceric nahi Ezcolazticac. Harri bat, anbilca⁵ mendiari behera abiatcen denean, errecaratago eta zalhuago dohan bezala, halaber Birjina hunen arima zohan sainduen egongiarat hurbilduago eta beroago. Kharra zarion egongia hartaz mintzateen entzutean.

Biharamunecotz, calerna iragana cen. Utcu zuten elkhar, Jainco Jaunac egin cezala hetaz nahi zuen gucia, eta ciotelariac, behin bethicotzat laster elkharrekin izanen cirela. Ezcolazticaren arima etzagoken lucezago lurrean; eta deuseritasunic gabe, amodioaren handitasunaz chukhatua, utci zuen gorphutza cerurat joateco.

San Benoat, ordu hartan, leihoan zagon, eta icusi zuen bere arrebaren arima cerurat hegaldatcen uso⁶ eder baten itchuran. Bera Jaincoari eskerren emaiten hari celariac, igorri cituen haurride batzu haren gorphutzaren bilha, eta elhortci zuen bere comentuco elizan.

IRACAXPENA

Anaia arrebenztat eracuspen⁷ handia! hauc elkhar maite zuten; baina Jaincoa ganat elkharren erakhartceco, eta hori da ongi maithatcea, hemen lehenic, gero ceruan ere egiteco. Bekhaizgoan eta hasarre⁸ bici orde, cergatic haurridec ez dute bilhatcen bakea eta zoriona elkhar maithatuz Jaincoa baithan?

¹ Tenpesta. — ² Odeic. — ³ Adrezatu. — ⁴ Jonan zakitzat. — ⁵ Dourdoulachea. — ⁶ Urtzo. — ⁷ Exenplu. — ⁸ Aharra.

OXAILAREN 19^{ena}

SAN MARTINIEN MORTUTIARRA

Hila 830^{ena}

Saindu hunen bicitceac iracasten darocu egia dela Jop patriarkharen erran hau : « Gizonaren bicia lurrean, da bethiereco guduca bat. » Ecen cenbatenez ere Martinienez artha¹ gehiago baitzuen bekhaturat erakhartzen ahal zuten guciei ihes egiteco, hainbertenez ere hobeki bilhatua² izatu dela exaiaz, erran diteke.

Sorthua Palestina Cesareco hirian, doidoia jastatu orduco utci cituen behin bethicotz, munduco axeginac³. Hemezortzi urthetan atheratu⁴ cen hiritic, eta hartu zuen morturaco bidea, han bereber, Jainco Jaunaren hobeki maithatceagatic.

Hain subartki⁵ eman cen lan horri non, laster, Jaincoaren graciarekin batean saindu handi bat bilhacatu baitcen Hala-hala eriei emaiten cioten osasuna, eta izpiritu gaichtoac, haren manura, bortchatuac ciren gorphutcetarie atheratcera. Horien gucien gatic, nolacoa cen haren gana zabilan jendeketa ecin erran ditekena da ; ecen bazakiten bazter gucietan, gorphutcecotzat izan cezatela sainduaren laguntzaren beharra ala ar.macotzat, laguntza hura izanen zutela.

Izpiritu gaichtoari zaio bakbarric gaitci Martinienen berthuttea. Horra cergatic egiten duen egin ahala, hari bere chede eta urhax onen utzarazteco.

Behin batez Martinienez icusi zuen, hartz-hegaldunaren itchuran, hari citzaiola, zarrapoca⁶, etcholaco cimenduen⁷ agertcen. Ordean etcen icitu eta erran cion, bere tokian⁸ zagolaric : Alferretan hari baiz, dohacabea! ez nauc hire beldur, ene aldean⁹ dudano Jesu-Christo ene Jauna. Hitz horiec entzutearekin,

¹ Arrancura. — ² Cberkhotia. — ³ Placer. — ⁴ Elkhi. — ⁵ Garxuki. — ⁶ Aztaparca. — ⁷ Fondamenen. — ⁸ Lekhan. — ⁹ Khantian.

haice chirimola¹ baten pare, urrundu cen debrua, erraiten ciolaric: Ago, iguric nazac, bai aphalaracico darioat buru gora hori, eroraracico haut eta etchola hortarie athearacico, cenbat nahi izan hadien lagundua aichtian aiphatcen huenaz. Hala-ere Martinien egotu cen desertu hartan hogoieta bortz urthez.

Huna azkenean, exaiac ceren eginarazterat ekharri zuen. Bacen etche tzarretaco emazte bat, Zoe deiteen zutena. Jendea ecin aski mihi izanean celaric, Martinienen saindutasunaren laudatecco, hartaz mintzo ciren gizon batzuetara ethorri² cen aiphatu emaztea, eta hunec erraiten diote: Saindutat daucazue Martinien, basa ihicien artean, basa-jaun bat bezala bici delacotz; saindu dela, nic sinhexico dut, baldin ez badiot bekhaturic eginarazten ahal. Ichpicho³ erorarazten dudala; irabazten badut pagatuco nauzue, eta aldiz, ni banaiz galtzailea, enetzat bai zuen eta bai hiriaren irriac.

Horien gainean, bere soineco ederrenac galtzarrean⁴, escale bat bezala emana, badoha, uriac-uriari, eta doidoia ilhun nabarrec, helteen Martinienen etcholaco athera. Han, auhenez⁵ hasten da, diolaric: Jaincoaren cerbitzaria, urrical zakizkit⁶; emazte dohacabe-bat haicic ez naicen arren⁷, zabal diezadazut athea⁸, ez dakit non naicen, ez norat buruz joan, ez cer egin basa ihicien aztaparretarat ez erortceco.

Sainduac badu beldurra beharreztenkeria cerbeit ditekela, baiman izan diteke hain ongi, erromes egiazco bat, eta orduan nola canpoan utz? Zabalteen dio beraz athea; idorrazteco egiten sua, jaterat-ere cerbeit emaiten, eta gero ongi gomendaturic dobacon⁹ handic, biharamun goicean argia gabe, badoha bera bertce etchola batetara. Biharamunean, baldin ez bacen jadanic egina, etcholaren huxaraztea zuen egin gogo Martinienec lehen lana.

Baiman horra non, etcholan, andre guciz aphaindu bat causitcen duen; harritua, galdegiten dio nondic sarthu den toki

¹ Mahomet. — ² Jin. — ³ Pariatcen deiciet. — ⁴ Besepian. — ⁵ Haxberapenez. — ⁶ Ukhezu pietate nitaz. — ⁷ Nahiz ez nizan. — ⁸ Bortha. — ⁹ Jouan datiola.

hartarat. Bertceac ihardesten dio ezti-eztia : Bardaz geroz hemen naiz. Eta gero hain ongi lausengatcen¹ du, non, jadanic bihotcean bekhatua onhexia, atheratu baitcen mortutiarra, etchola aintcinera, ja etcen nihor nihondic ageri.

Bainan Jaincoac ordu berean argitu cion adimendua². Ecenbai, sarthu cen bere etcholan; bainan, zabal-zabala ezarriric suco ikhatzac eta iletia³, abiatcen da ihalozcan, hekien gainean, gorphutz gucia errearteraino; eta dio bere buruari: Hea! Martinien! ez den gocho-ohc hori. Gero jeiki cen aphur batenztat, hainan berriz ere egundaino bezala hazten da, diolaric berebaithan: Orai icusac, ja on haicen ifernucotzat, eta on balin lahaiz, egin zac bekhatu. Denbora berean Jaincoari barkhamendu galdegiten cion.

Emazte dohacabe hura, begira⁴ zagocon laztua eta harritua. Azkenecotz harc ere ezaguteen du bere gaizkiaren handitasuna, khentcen ditu beraz bere arropa ederrac, eta dena nigarretan, galdegiten dio Martinieni, erran dezon, non eta nolaz egiten ahal duen bere arimaren salbamendua. Martinienec igorri zuen Bethleemerat; eta han lucez penitencia egin ondoan, sainda handi hil izatu cen.

Martinienec icusten du gero ere, bertee cerbeit holaco gertatcen⁵ ahal zaiola, han egonez, eta gogoratcen zaioc behar duela ixasoan edo leihorrean nonbeit atceman emazteric gehiago icusico ez duen toki bat. Mariñel batec jakin duenean ceren bilha dabilan, erraiten dio, harc eracuxico diola ixasoan guticiatcen⁶ duen bezalaco egongia; harroca casco bat, nihor ezdagona.

Ordu berean uzten ditu etchola eta mortua, eta abiatcen da mariñelaren ondotic. Debrua aldiz, chichtuz⁷ hari citzaion gibetic, erraiten ciolaric: Oha⁸ Martinien, oha, hemendic bezain ongi bertcetari⁹ ere haizatuco haut. Martinienec ihardexi cion: Ez nohac hemendic, neroni egoiteaz unhatua⁹ naicelacotz, bai-

¹ Balacateen. — ² E. thelegia. — ³ Itchindiac. — ⁴ Soz. — ⁵ Agitcen. — ⁶ Desiratcen. — ⁷ Hichtuz. — ⁸ Habiloua edo habil. — ⁹ Debeiatia edo enoatia.

nan bai, hire hobeki garhaiceagatic. Errac non duc ene galtce-
rat igorri harotana?

Mariñel jaincotiarrac ereman zuen Martinien erran islara;
eta han, haice gucien meneco eta iruzkiaz¹ errea cen harroca
baten gainean zagon, egin zuen gogozco bekhatuaren aihen-
datcen².

Sei ilabethetic ekhartcen cion bere mariñelac ogi pichca
cerbeit, eta saritzat hartcen ciozean egiten cituen otharrec³.
Uste zuen, hantchet egoitea bere azken eguneraino, Jain-
coarekin bakharric mintzo, eta arriscu gucietaric urrun. Bai-
nan horra non, ingurune betan, hondatcen⁴ den untei bat.
Barnean cituen jende gucietaric, bakhar bakharra heltcen da
Martinien harroketara nescatcha gazte bat; eta akhabo dire
sainduaren zorionezco⁵ egunac; atcema da berriz ere bere
gordagian.

Hargatic ez duke irabaci handiric arimen exaiac. Ecen ordu
berean emaiten diozca nescatchari cituen jatecoac, hetaz bici
dadiela mariñela ethorri artio, eta Jaincoari herxatcen⁶ delaric
bere bihotz guciaz, jauci egiten du ixasorat, gertha dakiola Jain-
coac nahi duen gucia.

Jaincoac etcezaken galtce rat utz haren gainean hainbertce
condatcen zuena. Igorri cion ixas-cherri bat, eta haren gainean
heldu cen leihorrerat. Cenbeit denboraz, oraino, ibili cen toki
batetic bertcera, bethi penitencia egiten eta azkenean heldu
cen Athenaco hirira.

Orduan Jaincoac ezagutaraci cion hango aphezpicuari saindu
handi bat bazuela, bainan denbora laburrentzat, hirian. Apezpi-
cua abiatu cen bilba, eta causitu zuen Martinien saindua eliza
chokho batean, jadanic erdi hila. Bizkitartean izatu zuen doi-
doia sacramenduen hartceco denbora. Eta halachet, behin edo
behin garhaitua eta haimitcetari garhartiar izatu cen saindua,
igan cen ceruetarat bere garhait sariac gozatcera.

Isla hartarat uraz ekharria izan cen nescatcha⁷ hura ere, ma-

¹ Ekhiac. — ² Deithoratcen. — ³ Zariac. — ⁴ Galtcen. — ⁵ Irousita-
tezeo. — ⁶ Adrezatcen. — ⁷ Nescatila.

riñela ethorri orduco, lakhetua cen harri hekien gainean; eta galdetu cion Martinien sainduarentzat egiten zuena harentzat ere egin ezala. Iraun zuen beraz mariñelac aintcina, ohico lanean sei urthez. Zazpigarrenean ere ethorri cen, bainan orducotzat hila cen bere penitencia garratcen erdian, Fotina saindua.

IRACAXPENA

Non nahi izan gitecela, nola nahico izan dañela gure lana, ezgaizco nihoiz espacatuco exai beltzaren begiari. Bainan goacen curaierekin; ecen, non eta ezgaren geroni¹ tentacionearen bilha joaiten, Jaincoac emanen darocu beharrarren araberaco laguntza.

OXAILAREN 26^{ena}

**SANTA MARGARITA CORTONECOA, BEKHATOROS
URRIKITUA**

Hila 1297^{ena}

Margarita Cortonecoa, hola deithua Cortoneco birian ehortcia izatu celacotz, sorthu cen Italian, Alvianoco herrian. Gaztetasunean creaturentzateco amodioac hartu cion bihotza, eta, bederatci edo hamar urthez, hainitz gizonakilacoa egin zuen.

Hetarie azkena, cen Monte-Palcianoco jauna. Gizon hau hilic izatu cen, ez dakigu nola. Ageri dena da, hunen hiltceac eman ciola bicia Margaritaren arimari. Jaun hare bazuen chakur ttiki bat Margaritac guciz maite zuena. Chakur hau ehortcen zaio behin Margaritari, dena uruhuri eta sainga². Gero, epheric eman habe, hasten zaio tiraca, zai hegaletarie. Cer du chakur hunec? cion Margaritac bere baithan; norat nahi nau joanaraci? Ez daki cer asma³. Halarie ere ezagutcen du jarraiki behar zaiola; eta chakurraren ondotic heldu cen egur meta⁴ bateta-

² Gihaur. — ³ Ohugu eta chanda edo ihausi. — ⁴ Penxa. — ⁵ Athe.

raino. Bainan nolacoaz da haren lazdura, han, egur meta haren azpian¹, ichsten duenean bere jaunaren gorphutz jadanic harrez erdi-jana!

Harritua icusgarri hortaz, ahalcatur ceren horrelaco cikhi-kerientzat² izatu dituen hainbertceco atchikimenduac, eta ordu berean, Jaincoaren graciaz argitua, badoba bere aitari buruz, hari lehenic barkhamendu galdetceca eta hari erraitera, lehenagoco haur prodigoac bezala, etzuela mereci bere haurtzat ezagut cezan. Eta aitac, nahiz aspaldico egunac trichtecian zaramazan alaba hunen escandal ondicozcoengatic, hala-ere zabalteen dio athea³, eta Margarita hasten da bere bekhatuez nigar egiten.

Hasian-hasi etzakien gehiago non bara, eta zagon gau-eta-egun nigarrez eta auhenetan⁴. Batzuetan ceruco saildu guciei galdetcen cioten, ja bekhatuen barkhamendua izanen othe zuen. Bertce aldi batzuez, soca bat lephotic bazohan elizarat, eta han, oficioco denboran, jende guciari oihu egiten cion: Barkha diezadatzuet eman darozkitzuedan eracusp⁵ gaichtoac.

Gaitcexiac izatu ciren Margaritaren amaizunaz Jaincoaren gogoraco eitezken urhax horiec, hainbertcetarinocoan non etchetie canpoa eman baitcion, behin bethicotzat. Egitate tchar horrec nahasi cion osoki bihotza Margaritari, eta ez daki gehiago cer egin.

Arimen exaia ere, lehenagoco axeginetar⁶ itzularaci beharrez hari zaio, eta adiarazten⁷ dio, oraino gazte, hazcar eta eder dela, irria nasaiki badukela heraz lucez munduaren ganic. Ordean, cion bere buruari Margaritac: Cer diteke nitaz, leheneco bide galduetan sartcen banaiz? Ecin bertce hortan celaric, sumatu⁸ zuen bere bihotcean mintzo hau: Nahi badun bakhea, Margarita, oha Cortoneco Francizcanoen comentura, han jakinen dun cer behar dunan egin.

Demboraric galdu gabe, joan cen Margarita Cortoneco comen-

¹ Fian. — ² Theukerientaco. — ³ Bortha. — ⁴ Haxbeherapenetan. — ⁵ Exenplu. — ⁶ Placeretalat. — ⁷ Enthelega erazten. — ⁸ Bogatu edo nabaitu.

tura. Han ezagutaraci ciozcan apex bati bere bekhatuac; erran cion ere, cein handi izan ciren harentzat Jaincoaren gracia; eta, egiten ahal zuen penitencia guciaren egiteagatic, galdegin zuea Heren-ordrean sartzea. Gracia hori ere izatu zuen, bainan gerochago, eta aski eracuxi cionean munduari, egiazcoa dela haren urrikia¹.

Handic aintcina, bi sentimendu hauc ditezke bakharric haren bihotcean : Jesus Jaunarentzat amodio neurri² gabeco bat, eta bekhatuaren higuintzaric biciena. Jesus Jauna maite duelaetz ez du bertceric nihoiz bilhatuco³, baicen ere hari egitea, egin diozoken axeginic handiena. Bekhatua higuin duelaetz jasan aracico diozca bere gorphutzari pairamenic saminenac.

Horra cergatic, ukhail ukhaldica, umatua⁴ zarocan bere burua; cergatic, legarra⁵ hartu ahurtaraca, eta hartaz harrascateen zuen begitarte, odola jauzarazterainocoan; horra cergatic, soca coropilodun batzuez joea, ubeldua zaduc in⁶ bethi gorphutza.

Bicitcecotz behar dire loa eta jana. Bainan lo hura eginen du Margaritac lur huxaren gainean, eta, harri bat edo zurpusca bat bururdi⁷. Haren janhari gucia izanen da, ogi idor pizca bat, ceubeit elzaur bakharrekin, edo belharrerria gordin cerbeitekin. Eta haxac diraneno⁸ hola-hola bicico da, nigarra akhabatu zaionean, odola dariola begietaric, ceren eta ez baitu nihoiz galtcen izpiritutic, cer laidoa dion egiten bekhatuac Jaincoari, cein diren lazgarriac bekhatuaren gatziguac ifernuan.

Hainbertcecoac jasaiteco cituen gorphutza etcitzaion niholaz jazarteen⁹ ahal; bainan hargatic, etcen oraino bakean Margarita saindua izpiritu gaichtoarekin. Hunec, behin agertcen zaiolaric arrotz baten itchuran, erraiten dio : Cergatic hainbertcetarinocoan ceba¹⁰ zure gorphutza? gutiagoc ere eginen duzu zure salbamendua. Bertce aldi batez ere erraiten dio : Jaincoaren gracia ez daunc iraunen bururaino, erorico haiz

¹ Dolomena. — ² Izariric. — ³ Cherkhatuco. — ⁴ Zaphatia. — ⁵ Gallalla. — ⁶ Odolouritia edukiteen cian. — ⁷ Burunegi edo burukita.

⁸ Iraiten direna. — ⁹ Buhurteen. — ¹⁰ Iguchki.

eta, icusico dun, alferdituzken hire lanac. Behin oraino, gizonic ederrena bezain eder, agertu citzaion, haren gaizkirat ekhar-teeco bezala : ordean horietan gucietan, Margarita chutic zago-can eta hazcar Jaincoaren laguntza sainduac.

Entzun ere zuen, aldi batez, mintzo hau : Ez hadiela izit, ene alaba, hirekin nuken hire axecabetan¹; jarraic hadi bakharric hire arimaco gidariaren erranei, eta, ene graciaz garhaitiar haiteke.

Horiataric gucietaric icusteco da, cein citeken handi eta abe-rax Jaincoaren begietan. Berac hargatic etcezaken onhex, deus icustateteric nihorc izan cezala harentzat. Eta, aldi batzuez, erraiten cioten lagunei : Nola jasan² dezakezue, zuen artean, ni bezalaco izaite dohacabe bat? Cerc dautzue ahantzaraci nolacoa izatu den ene bicitcea?

Bertce behin soca batez lephotic estecatua, ibilaraci zuen bere burua, carricaz-carrica, eta, socatic zaraman emazteac cion oihuca : Huna hainbertce arima galaraci duen Margarita hura ! huna zuen hiria bere bekhatuez cikhindua ezarri duen Margari-ta !

Ecín zagoken Jainco urricalmenduxua³ bere nescatoaren berthuteari, mundu huntaric beretic, cerbeit sari eman gabe. Alde batetic, izpiritu gaichtoac berac bortchatuac izatu ciren erraitera. Margarita zagon tokietan⁴ haxic ere ecin har cezake-tela. Bertce alde, Jesus Dibinoa, noiz nahi, agertcen eta mintza-tcen citzaion ; noiz nahi, eracusten eta ukhiarazten ciozcan bere zauri adoragarriac.

Cer memento gozoac Margarita sainduarentzat ! O peniten-tciaren balioa.

Ethorkizunac⁵ ere etzuelacotz deus gorderic harentzat, eza-gutu zuen noiz citezken haren azken eguna eta orena, eta oraino, lagundua izanen cela orduan, purgatorioetaric bere othoitcez atheraraci⁶ arimez.

Noizbeit jo zuen oren guciz berantexi harc; eta orducotzat

¹ Phenetan. — ² Egar. — ³ Misericordiousa. — ⁴ Gunetan. — ⁵ Ge-rouac. — ⁶ Elkhi eraci.

sacramendu guciac hartua, berrogoita hamar garren urthean celaric, eta, penitencia egiten zuela, hogoita lau garrenean, irri ezti bat eginic haren inguruan cen jende osteari, joan cen arima saindu hura Jesus Jaunac ceruetan harentzat zagocan zorionaz gozatcerat.

IRACAXPENA

Cein da bekhatorea santa Margaritac bezala, izan ez duena, noizbeit. gracia bereci bat, Jaincoaren oihu handi bat, bere bekhatuzco lotic atzarraraci nahi zuena. Casuric egin gabe utci balin baduzu orai artio mintzo hura, gogo-emazu, nola diteken gorphutza, hil eta cenbeit egunen buruan, nola diteken arima ! Cer nahi dukezu beraz orduan eginic ukhan?

MARTCHOAREN 1^{ena}

SAN LEON ROUENECO ARCHAPEZPICUA

ETA BAIONACO APOSTOLUA

Hila 891^{ena}

San Leonez erraiten ahal da apostolu bat izatu dela, ez bakharric, saindua celacotz haren bicitcea, bainan oraino halacoa celacotz haren kharra. Leon oraino sortcecoa cen, eta omeneria baten arabera bazakiten jadanic burhasoec ¹ cer gracia handiac ciren, haren bidez, arimatarat jauxi behar. Omen berac dio oraino, ceruticaco dohain bat bezala igurikia izatu cen haurra ethorri cela mundurat, halaco orduetan emacumec ² dituzten oinhaceticaric ³ deusere bere amari sentiaraci gabe.

Omenic gabe dakiguna da, sorthu cela Neustrian Carentaneco herrian 856^{ena}. Casic chutic abiatu orduco, zoratuae ⁴ zagozcan burhasoac, egiten cituen barur eta penitenciez. Jostatceaz deus errencuraric gabe, haren on eta axegin ⁵ gucia cen, Jain-

¹ Aita eta amec. — ² Emaztec. — ³ Sofricarieticaric. — ⁴ Euauchentia. — ⁵ Placer.

coaren landorioen cantatcea. Eta horrela, iragaiten ditu lehen hamabi urtheac citeken saindukiena.

Hamabi urthe hauc egin cituenean, ezarria izatu cen Pariseco escoletan, eta nahiz escola handi gucietan, lagun on batentzat izaiten den bethi bi gaichto, Leon gaztea joan cen, denbora gucian, geroago eta jakinxunago eta sainduago. Azkenecotz hain cen aiphatua bere adimendu¹ zorrotzaz, mintzatceco zuen errechtasunaz, bere lagunen arimaz zuen arthaz² eta Jaincoarentzateco amodio beroaz, non ederresimendurekin beira³ baizagozcon guciac. Dena den, oraino, agertuco da apeztu ditekenean.

Denbora hetan ixas hegian edo ur handien bazterrean ciren hiri eta herriac, Frantcia gain-gainetic hasirie Irungo zokhoraino, fundituac zaozcaten, uutci tchar batzuetan Nortetic jausten ciren gizon basa batzuec; Roueneco hiria, Neustriaco probintcia, Bordele eta Baiona ere, hekien azpico ciren.

Hogoita bortz urthetan apez ordenatua, Roueneco hirian, Leonec bihotza sutan du, Jaincoari arima irabaci beharraren handiz; hasten da beraz predicatcen, lehenbician Neustriaco jendeari, eta gero Nortetic ethorri diren gizon hekiei, haukien mintzaira ere ikhasi duenean, eta, Neustries ala Norman, guciac bortchatuac dire hari behatcera, eta Jainco Jaunaren maithatcen hasterat. Apez gazte haren bicitce garratzac eta haren predicuei zobacoten suac hori zuten manatcen.

Badabila holachet herri batetic bertcera, zortci urthez. Bannan etzaio iduritcen lucezago egoiten ahal dela Neustrian, edo batetara dohana Normandian; eeen jakin du han berean diren arrotz hekien haurridec, Baionatic canpo ezarri dutela Escualduna, Jainco Jaunac ez duela gehiago hiri huntan aldareric, eta jadanic baduela hogoita hamar urthe diosesa hau apezpicuric gabe dela. Berri trichte horiec entzutean erdiratcen zaio bihotza Leoni, eta galtcen hari ditezken hainbertce arimei laguntza cerbeit eman behar diotela, othoizten du, iscribuz⁴, Aita Saindua, eman detzola Escual herrirat predicatcera joiteco podoreac⁵.

¹ Enthelegu. — ² Erreencursaz. — ³ Soz. — ⁴ Izkiribuz. — ⁵ Botheriac.

Letra hau doidoia iracurtua zuken Aita Sainduac, eta horra non belhaunicatzen zaizcon oinetara, Rouenes gizon batzu, galdeteen diotelaric Leon apeza icenda diozotela archapezpicutzat. Hortacotzat, Leon bera behar izan cen Erromarat joan; eta handie itzuli cen, bai Roueneco archapezpicu, baina Aita Sainduaz beraz othoiztua, apezpicuric gabe ciren Escualdunen gana joan zadiela, hekien fedearen finatcera.

Leon sainduac ezarri cituen bere elizaren egitecoac bi bicario jeneralen escuetan, eta, bere bi anaia Phillipe eta Gervasio, apez citezkenac hec ere, lagun harturic, eman cen oinez Baionarat buruz. Huna orai, heinxu batez, nolacoac izatu ditezken saindu hunen bicico azken hirur urtheac: Lehen tricatcea¹, Rouenetie abiatuz geroz, Maranteinan egin zuen, Labouheireco herrian. Nola ecen joan aintcina? Causitcen du hantchet jende alde bat oraino jainco falxuen adoratcen hari dena. Predicatcen dio beraz cenbeit egunez, eta badu herri guciari Jainco legearen bezarcarazteco zoriona².

Horrela ederki saristatuac ordu arterainoco unhaduraz³, hirur haurridec hartu cituzten, berriz ere, beren makhilac, eta azkenecotz heldu ciren Baionaco athetara⁴, ilhuntcera zohalaric. Gau hartan ez ditezke sar oraino hiriau. Ecen egun guciez hesten cituzten atheac Baionesec, iruzkia⁵ itzali gabe, escualdunen beldurrez. Eta horrengatic bortchatuac izatu ciren leñhor⁶ pichea baten bilhatcera⁷ harri arte batzuetan.

Leonec begien aintcinean du Baiona, eta badaki hango jende guciaren lana eta bicipidec ohoizta dela; badaki denac jainco falxuen adorateen hari direla. Badaki ere Leonec, mendietaraco aldean⁸, badela bertec populua bat hiritie eta lehen cellaietaric Normanez urruntaracia. Hura da Escualdun populua. Escualdunac aspaldion giristino dire, baina orai apezpicuric gabe diren huntan, ez othe da hekien fedea flacatcen hasia!.. Leon bere anaiekin hasten da othoitcean, hala hirico paganoentzat nola mendietaco giristinoentzat.

¹ Ekhuateia. — ² Irousitatia. — ³ Eñhiaz. — ⁴ Bort¹ etala. — ⁵ Ekha.
⁶ Atherba. — ⁷ Cherkhatcera. — ⁸ Gaintian.

Jadaneco beranta, oraino hari ciren, noiz eta ere hurbiltzen baitzaizcote gizon jarzar batzu denac harmatuac. — Nor zarete, zuec? Cer hari zarete harri cilho hautan? galdetzen dute hurbiltzean¹. Bainan ecin ihardexi cioten Leonec deus ere, etzakielacotz oraino escuara; eeen bertceac escualdun batzu ciren, han gaindi zabiltzanac, miatcen², ja atcemanen zuten ohoinen cerbeit gauza. Escualdunec peregrin cenbeit citezkela egin zuten beren baithan, eta joan ciren aintcina.

Biharamunean, argiteen hasi ceneco, Baiones batzu oharteen dire hirur arrotz, apez arropan, hiriari heira daudela; eta, cer nahi duten galdegin gabe, itzultzen dire hirico aintcindariet erraitera cer icensi duten.

Baiones nagusi handiac elkharretaratzen dire, hitzarteco cer egin behar den. Eta azkenean bidaltzen³ diozcate mandatariaac, nor diren eta ceren bilha dabilzan. Mandatarieit jarraiki cen bertee jende asco, eta san Leonec erraiten diote predien ttiki batean, hekieit ceruco bidearen eracusteco egin dutela Rouenetic eta haradinoco bidea.

Ukhituac⁴ solhas⁵ horiez, mandatarieit ihardesten diote gogo onez entzunen dituztela hekien lagunec ere; eta horrela sartzen da san Leon Baionaco hirian. Husu⁶, bere inguruan du jende gucia, eta orduan aditcerat⁷ emaiten diote, cein den ondicozcoa⁸ hekien ixumendua, debru batzueit emaiten Jaincozco ohoreac. Ez dela Jainco bat baicic, erraiten diote oraino, eta hura dutela, hec ere, adonatu behar, eta haren seme bakhar gure gatic gizon egin dena. Egiteco hori cein duten baitezpadacoa⁹ sinhexaraci ez dueno, mintzo da casic egun gucia; bainan azkenecotz, zazpi ehun Baionesec galdetzen diote baithaioa.

Baiona ordutic bere escuco zuen. Hargatic ez du lehen gaua hirian iragan nahi; eta, han emanen ciozcala hobeki eskerrac Jaincoari, joan cen aintcineco gauean zuen egoitza tcharrerat.

Biharamunecotz bacen berriagoric hirian; eeen gau gucia,

¹ Hullantean. — ² Ikherteen. — ³ Igorten. — ⁴ Hounkitiae. — ⁵ Elho. — ⁶ Laster. — ⁷ Enthelegateer. t. — ⁸ Malerousa. — ⁹ Nesesariona.

carricaz-carrica ibili ciren jainco falxuen apezac, oihuca jendeari, gezur-untzi batzu baicic ez diren gizon hekiei nahi balin bada behatu, behin bethicotz galdua dela; eta azkenecotz cordocarazten dote giristino berrien fedea. Hala-bala, icusiz hilarazten ere ahal dituztela beren irabaz bidearen galaraztaileac, joaiten zaizcote bilha: Nahi balin badute lucezago bici, behar dutela, odin hekien jaincoa adoratu. Eremanac dire beraz tenplorat.

Egia da, gure saindua belhaunicatzen da tenploan. Bainan ceru lurren Jaunari galdetceco, urricai dakizeola¹ izpiritu gaichtoac berriz ere bere saretarat bildu nahi dituen arima hec. Ecen, jendea ecin amestuz zagolaric, cer zuen erran nahi belhaunicatce horrec, jeikitzen da berriz ere Leon, hurbiltzen da jainco falxuaren gana, eta, buhaco batez, arthikitzen du bere aldarearen gainetic. Apezac aldiz, harrituac daude, icustez cein guti aski zuen hekien jaincoaren potretac erortceco eta mila frix egiteco.

Jaincoaren gracia etcen hortan baratu. Ezagutu zuten apecec eta aithortu populuaren aintecinean debruaz enganatuac izatu cirela ordu artio; eta itzulteen dire Jaincoa ganat. Garhaitua da beraz Satan, eta Baionaco hirian ez du gehiago izanen, ez temploric, ez aldareric; barreiaraci ditu guciac Leon sainduac, eta, hekien orde², alchatu du Andre dena Mariaren ohoretan eliza bat. Horra cergatic garreiatzen duen saindu hunec, Baionaco apostoluaren icena.

Baionesei eracuxi ciotenean ceruco bidea, ibili cen, oraino egia beren predicatzen, Laphurdico eta Bache-Nabarreco herri handienac gaindi, eta gero, joan cen Probintecietaco bertce Escualdunetarac. Han ere egin zuen Laphurdin bezala, Ebanjelio saindua predicatu, lazatuac cirenac erocaraci, lo zaudenac atzarraraci³; eta horrela, buru batetic bertcera, piztu, gure herri ederretan, behin bethicotzat, fedearen argia eta caritatearen sua.

Bizkitartean bere ohoinkerietan lucez ibiliric, ethorri cen

¹ Ukhen dezala pietate. — ² O dari. — ³ Iratzar eraci.

etcherat, ixas bazterrean, lece batzuetan, zagon gizon andana bat. Hauc ere Nortetic jauxiac ciren Baionesac bezala, eta Baionaco tenploetan cituzten beren othoitzac egiten. Bainan oraicoan, nolacoa ez da hekien bihotzmina, tenplo guciac zabalzabala icustean! Jakiten dute beraz giristinotu direla heyen lagunac, eta hekiei ere beharco zaiotela beren gaichtokeriez penitencia egin.

Coleraz sutan ganbio hori Baionesei harraraci diotenarentzat, eta nolazpeit urrikiaraci ¹ nahiz Baiones hauc egin duten urhaxaz, badabiltza egun guciez, hirian blasfemia dariotela. Leonec ere jakiten ditu Baionaco berriac, eta beldurrez cerbeit flakecia izan dadien giristino berrien aldetic ², hartcen du Baionaraco bidea.

Bada ³, egun batez, unhatuac ⁴ bethi solhas ⁵ beren entzuteaz, aseac hainbertce laidoen izaiteaz, han dituztelacotz orduan ere beren exaiac, Baiones guciac jausten dire harmekin carricarat, eta, guduca handi baten ondotic, bortchatuac dire paganoac, cein bere alde, ihes joaitera. Baionesac etciren jarraiki eguerdiraco athetarat buruz joan cirenci, bertce aldetarat zobacinac hainitz gehiago cirelacotz, eta horra nolaz athe huntarie jalgi cirenac izatu zuten gaichtakeriaric handienaren egiteco astia ⁶.

Gizon Norman hauc athearen aintcinean agertcen, eta, lehiaric handienan, barreatcen hari cen jende multzo bat urruntehago. Bakharric, higitu ere gabe badaude, han berean, bi gizon. Hargatic ageri dute ez dutela deus harmaric; eta hortacotz, hirian izatu laidoaz aspertu ⁷ nahian, beren ezpatac escuetan, badohaci bi haukiei buruz aiphatu Normanac. Eta nolacoa ez da hekien bozcarioa, asmatuz ⁸ Leon dutela atcemaiten eta bertce hura ere haren anaietarie bat ditekela. Bai san Leonen aintcinean ciren.

Saindu hunc etcituen deusic erran gabe utci nahi izatu, hiri ondo hartan causitu cituen giristino batzu; eta gero, ezaguturic bere azken orenera heldua cela, igorri cituen giristinoac eta

¹ Dolutan sar eraci. — ² Eretetic. — ³ Arren. — ⁴ Debeiatiac. — ⁵ Elhe. — ⁶ Aicina. — ⁷ Mendecatu. — ⁸ Phenatuz.

bere anaia Philipe, zohacila gordetcera, eta caritatezco acta hat egiten zuelaric iguriki cituen, axeginekin, martiren khorea eman behar ciotenac. Lehenic Gervasio jo zuten gaichtagin haue, eta gero, berari ebaki cioten burua.

Burua lurrean, san Leonen gorphutza oraino chutic zagon. Hiltzaile dohacabeac emaiten dio ostico bat, eror dadiela; bainan osticoa izatu duenean, gorphutz hura aphaltcen da bakharrie buruaren escuetan hartceco, eta badoha, aingeru baten ondotic seietan hogoi urhax gorago.

Herioa bera ere garhaitcen du beraz saindu handi hunec; eta horrengatic, baratu cen tokian¹, eliza itiki hat alchatua izatu cen. Burua erori cen tokian ere ithurri bat sorthu egundaino geroz agortu ez dena; hura da san Leongo ithurria. Elizaz becenbatean, arthikia protestantex, gero berriz egina, azkenean gobernamentuaz beraz izatu cen khendua, hirico paretei hurbilegi celacotz, eta orai gurutce bat da haren orde.

Erranic da, hil baino lehen, san Leonec egin cituela bi galde Jaincoari: lehena, hura othoiztuce zuten emazte haur ezperantcetan cirenec, uruski ukhan cetzatela haurrac; bertcea etzadiela nihoiz gal Baionaco hiria.

Zohacon bezala, Baionaco patrointzat ezagutua, hainitz gracia bereci ardiexaraci du, eta oraino ere ardiexarazten hari herxatu² edo herxatcen direnei.

IRACAXPENA

Elizac emaiten darozkigu patroinac, hekiei herxatuz mereci ahal dezagun lagunduac izaitea. Gure diosesaco patroin emanic zaicunaz geroz san Leon, ez dezagun ahantz hari othoitz egitea. Eta bertzalde hiltcean egin zuen othoitzaz baliatceco, haur ukhan behar duten amec galde diozotela ez choilki uroski izaittea, bainan haur saindu eta benedicionezco batzuen izaitea. Hainitz on da, sorthu gabe, haurra izan dadien Jaincoari escainia; egin diozotela amec san Leonen arartecotasunaz.

¹ Bitoriarea. — ² Adrez ita.

MARTCHOAREN 6^{ena}

BERROGOI ETA BI MARTIR

Asiaco aldetan hilac 845^{ra}

Theophile Constantinopleco inperadoreac. Jaincoa hasarrearaci¹ ondoan erlisioneari egin cituen gaizkiez, izatu zuen gerla bat Mahometanoen ganic. Bazter gucietan joa izan cen, eta ezdusec egin zuen, bera ezbaiteen hekien escuetarat erori.

Garhaitce horien ondotic ethorri ciren exaiac Amareco hiriarren setiateera. Lucez atchiki zuten buru hiri haren zaintzailec; gehiago ere irannen zuten; bainan federic gabeco gizon dohacabe batec, Baditcesec, cenbeit sosen gatic saldu zuen bere arima iferauco printee gaichtoari, eta hiria exaiei; eta horrela² hirico jende guciac, hekiekin batean soldadoac, ezpataz iragan cituen exaiac.

Berrogoieta bi aintcindariei bakharric utci citen licia; eta hori, nahi ciotelacotz arbuiaraci beren giristinotasuna.

Hortaracotz Califac, edo batetara dohana Mahometanoen erregeac, arthiaraci cituen iruzkiac³ nihoiz⁴ argitcen etzuen gaztelu zola batetarat. Han zauden, nihoiz nihor, beren athe-zain⁵ bihotz gabea baicic icusi gabe. Ogi eta ur izaiten zuten, ordean, doidoia gosez ez hiltceco behar zuten becenbat; nahi cirenean jarri edo etzan, lur busti eta hotz bat baizic etzuten. Eta gogoac errechki erraiten ahal darocu, nolacoa citeken hekien soineco erdi ustelduen garbitasuna.

Beren pairamenez⁶ azki loxatuac citezkela iduritu citzaionean, Califac fgorteen diozcate, hekiei, beren erlisionearen arbuiarazteco⁷ gaienie⁸ zaozcan gizonac.

Gizon hec, beren baitharie ethorriac izatu balire bezala, hasten dire batzuei eta berteei diru emaiten; emaiten ere diozcate aldateco behar cituztenac. Gero, hekien axecabez⁹ izatu balire

¹ Khechaeraci. — ² Gisa hortan. — ³ Ekhiac. — ⁴ Behinere. — ⁵ Gilzain. — ⁶ Sofricaricz. — ⁷ Arneg, erazteco. — ⁸ Caspablenic. — ⁹ Phenez.

bezala akhituac, erraiten diote: Ez dezazuen erlisionea arbuia gogoz, ez binotecz, ongi da. Bainan cergatic ez duzue alegia bat eginen, iduriaracico ukhatcen duzuela?

Nihoiz, ihardesten dute soldadoec, ez gaitutzue icusico gezur horren erraiten, ez escandal horren emaiten. — Utz gaitzatzue mintzatcerat, erraiten diote berriz ere adichkide gaichto hec, eta gero eginen duzue nahi duzuen.

Behar bada bici ditutzue oraino zuen aita eta amac, eta hala balin bada, nolaz izan zaitezketec hekientzat deus amodioric gabe? Baditutzue menturaz emazteac eta haurrac, bederen baditutzue adichkideac eta herria; eta nolaz nahiago izaiten ahal duzue urhax ez deus bat egin baino lehen, horien gucien galteea? Non ez diren zuen bihotzac harrocaren pareco, ager zaitezte gure temploan, egizue califarekin othoitz bat, eta badukezue onthasun, ohore eta gaticia dezakezuen gucia.

Hori othe da zuer egin cinezaketena? galdetcen dute sainduer. — Hori eta berbera. — Eta guc, ihardesten dute giristino khar-suec, ez dugu nahi, cer egin behar dugun erran dezaucuten beren erlisioneari hobeki atchikitcen ez diren batzuec. Zohazkigute begien aintcineric.

Cenbeit egunen buruan ethortcen ¹ zaizcote bertec mandatari batzu; eta iduri luke lehen aldicoac baino trichteago ezarri dituela saindu hekien zorigaitzac ²; ecen nigarrez daude; eta huna hekien solhasa ³.

Noiz artio, dohacabeac, nahi zarete egon adimendua ⁴ nahasi darotzueten ustekeria batzuetan? Athera zaitezte Mariaren Semeac eracuxi darotzuen bide herxitic, eta har zazue Mahomet profeta handiac eracuxi darocuna. Gizonari etzaioc emana izaiten ahal Jesusen legearen bethetcea, eta horra cer gatic, Jainco onac igorri darocun Mahomet bere profeta, erraitera, mundu huntan hartcen ahal ciren axegia ⁵ guciac, harc maite dituenentzat direla.

Martir sainduac ez dire durduzatcen ⁶ eta ihardesten dute:

¹ Jhen. — ² Zorthe trichtiac. — ³ Elhiac. — ⁴ E thelegia. — ⁵ Placer. — ⁶ Dudatcen.

Nolaz egiazcoa izaiten ahal da bihotceco jaidurei ¹ deus trabaric ezartcen ez duen erlisione bat? Zuec, centzua duzuenac, certan zarete cabalac berac baino gehiago?

Bertce behin, ethortcen zaizcote beren gogoen araberaco fraidegoa batean zauden gizon batzu. Ez daude bakharrie elhe legunez eta nigarrez hauc; beren amodioaren hobeki eracusteco, musu ² emaiten diote gure sainduei, gero mintzatcen hasten dire, diotelaric :

Erran diezaguzue, nori, oraico egunean, Jaincoac eman du lurreco nagusitasuna? Erromanoei ala Mahometanoei? Norentzat dire lur gicenac, harmada bethi garhaitiar ³ direnac? Gurretzat, hortehatuac zarete aithortcerat. Eta nolaz eman letzarozkeguke Jainco zuentitasuna bera denac, ez bagine bide onean, ez baginitu maite?

Garhaitiar zaretelacotz, ez uste izan Jaincoaren adichkide zaretela, ihardexi zuten bertcec. Ecen badakigu gaichtoac berac ere ibil detzazkela Jaincoac, azote orde, on n joiteco; hainan, haren orenac eman dukenean, gaichtoec badukete beren gaichtakerien araberaco gaztigua.

Zazpi urthez iraun zuten guduca holacoetan, eta cer nahi pairamenen azpian. Ordean bethi alegera, ceren emana citzaiten, lur huntan berean, beren bekhatuez penitencia egitea. Zazpi urthe bekien buruan, etzuen oraino exia hartua califac, nahiz icusteco zuen bere amarru ⁴ guciekin, etzuela ordu arte-raino deusic irabaci.

Bertce gucien ondotic, eta azken aldicotz igortcen diote Baditec. Gristino arnegatu hau hurbilteen da, ilhun nabarrean, presondegico athe chilora, alegia mandatu ⁵ ichil bat izanki ⁶ Constantin, gristino hekien artean jakitateric gehiena zuenarentzat; ekharrarazten du beraz Constantin athe ondora, eta erraiten dio :

— Califac, bihar berean, nahi du hilaraci Aece zuen aintcindari handia, non ez duen gristinotasunaren ukhatce alegiazco

¹ Enjogidurer. — ² Pot. — ³ Bitorios. — ⁴ Finacia. — ⁵ Mezu. — ⁶ Ukhen.

bat bederen egin nahi. Adiaraz¹ diozozu, halachet hobe duzuela eginic. Cer gaztigu izanen da zuentzat Jainco urricalmenduxu² eta bethi barkhateera ekharria denac? Hainbertcecoac jasan dituzue orai artio haren amoreagatic.

Constantin, solhas horiec entzutean, ceinbatu cen, eta ihardexi cion : Satan, Jaincoac ez dikec bertceric hiretzat, baicen ere ifernua. Ohakit³ laster, eta ez hakidala gehiago ager begien aintcinera.

Constantin itzuli cen bere lagunetarat, eta erran cioten, berri cela biharamunean Aecec beharco zuela galdu lurra eta irabaci cerua. Berri horrec bozcarioan ezarri cituen hekien bihotzac, eta gau gucia iragan zuten Jaincoari laudorio eta esker emaiten.

Biharamunean califac igorri capitainac galdegin cituen hekien artean carguric handienean cirenac. Bainan hec, atheratu⁴ ciren berrogoita biac, eta capitainac etcituelaric icitaraci nahi baicen, guciec batean oihu egin zuten : Madaricatua izan bedi Mahomet, eta laudatua menderen mende Jesu-Christo gure Jauna. Eta horren gatic condenatu cituzten hiltcerat.

Hil behar ciren tokira⁵ jadaneco helduac, califac bazterrazten da giristino hetaric bat, behar diola cerbeit erran. Theodore cen hunen irena. Bada, Theodore apez cen, bainan hain dohacabea non, ahantcirie hala cela, lurreco axeginen ondotic ibili baitcen, eta azkenean, curarieric ez izanez barkhamendu galdetceco, soldado egin. Huni beraz erraiten dio califac :

— Zu, Theodore, cergatic nahi zare jarraiki bertcei, ecen zure bidetic atheraia zarenaz geroz, ez duzu hoberic Mariaren semearentzat hilez. Cer sari iguric dezakezu?

— Nic erraiten darotzut, ihardesten dio apezac, nic ere nahi dudala ene odola ichuri ene bekhatuen eceztatcea gatic, eta, euetzat ere, baditeke ceruan toki, baditeke sari. Hola denaz geroz, erraiten dio califac : Athor, hurbil hadi. Bekhatore urrikitua hurbildu eta belhaunicatu cen, aphaldu ere zuen burua

¹ Enthelvga eraz. — ² Misericordious — ³ Joun hakit. — ⁴ Elkhi. — ⁵ Lekhila.

eta ezpata ukhaldi batec ezarri cion arima ceruco lorian. Bertce guciac ere egha zuten harc bezala; eta guciac izatu zuten ceruetan, Jaincoac martirentzat dagocan sari berecia.

Haukien lehia handiari begira,¹ harritua zagolaric, califac icusten du Baditces, giristino arnegatua, eta dio : Egiazki giristino izatu balitz, hunec ere, horiec bezala eginen zuen : eta coleran motz araci cion burua. Halaz, mundu huntaco biciaren gatic, bertcecoaren galtceaz guphide izatu etcenac, ukhan zuen eternitate guciacotzat, jadanic berekin zakharken² ifernua.

IRACAXPENA

Gudu eder eta miragarria, zazpi urtez, martir haukiena! Cenbat arrazoin, edo hobeki aitzakia³ ez daucu naturalezac eracusten graciaren eta contcientciaco eginbiden bethetetic gure gibelteco. Ah! baginaki guc ere Jaincoaren mintzoari baicen ez behateen! Izan gaiten lehen-lehenic giristino, eta ikhas dezagun erraiten bethi gure buruei : « Erran eta egin zac behar ducana, eta izan bedi, gero, ahal dena. »

MARTCHOAREN 7^{ena}

SANTA FELICIDA, SANTA PERPETUA ETA HEKIEN LAGUNAC MARTIR

Hilac 203^{ena}

Septime-Severe Erromaco inperadore celaric atcemanac eta arthikiac izatu ciren Carthaseco gaztelu batetarat, Jesu-Christoren legearen ikhasten hari ciren hirur gizon eta bi emazte ezcondu. Emazte hetaric bat, Felicida, jende chehetaric cen; Perpetua, bigarren emaztearen zainetan aldiz, aitoren semen odolá zabilan. Felicida esperantretan cen eta oraino urrun zuen haur izaiteco muga; Perpetuac aldiz bazuen haur bat berac hazten zuena.

¹ Soz. — ² Ekharten cian. — ³ Estacuru.

Andre huni, etche handi bateco bicitce goritic lekhora¹, ungi ilhun iduritu bide citzaion presondegia, Ordean adiaraz² ahal ez dezakeguna da, cer bihotzmina sentitu zuen bere baithan hunen aitac, jakin zuenean preso zuela alaba, giristino celacotz; ecen hura pagano cen, eta niholaz etcezaken onhex, haren alaba hil zadien erlisione berri baten gatie.

Behar diola beraz hartu duen bidea hauxaraci, joaiten zaio gaztelura, eta erraiten diozca ahal dituen guciac. Orduan alabac ihardexi cion: Begira³ diozozu, ene aita, untcu huni (lurrezco untcu bat zaducan escuan); izaiten ahal du hunec bertce icenic, duena baicen? Ez, ez din bertceeric izaiten ahal. Eta, ni ere, naicena izanen naiz, dudan icena izanen dut, giristino naiz eta giristino izanen. Begiac atheratu⁴ nahi izatu baliozca bezala zarrapoca, erori citzaion gainera, eta utci zuen aldi hartacotz.

Handic ondoan, Perpetuac, amexean jakin zuen cer gerthatu⁵ behar citzaioten, eta huna, nola mintzatu cen bere amexaz:

Icusi mituen zurubi urhezco batzu, lurretic ceruraino zohaciac Ordean, ezker eta esquin, pazot⁶ zorrozuz, nabalez, aibotceez eta ezpataz inguratuac ciren. Zolan, zurubien ondoan, bazagon musker ikharagarri bat. hurbildu nahi cen guciaren irextera ekharria. Hala-ere, Asture gure laguna, menturatu cen hurbiltcerat, eta zurubietaratu cen, muskerra, haren bel-durrez, urrundu celacoz. Gero, mailez-mail, goiti zohalaric, oiuhu egin zarotan, ja eznuen nic-ere igan nahi. Hazcartua hitz horiez hurbildu nintzen. Muskerrac, icusi ninduenean, ezti-eztia baztertu zuen burua; ageri zuen etzarotala deus minic egin nahi. Egin zuen hobeki, jarri cen hera zurubien zolan, lehen mailzat, errechkiago⁷ hel nindadien zurubietarat, eta igan nintzen borrela⁸, cernahi lore⁹ eta fruitu zuen baratce batetaraino. Atzartcearekin¹⁰ entzun nuen, beharco nuela pairatu¹¹, bainan helduco nintzala cerurat.

Handic cenbeit egunen buruan ethorri citzaion berriz ere

¹ Landan. — ² Enthelegu eraz. — ³ So egiozu. — ⁴ Elkhi. — ⁵ Agitu.

⁶ Kholte. — ⁷ Aisekiago. — ⁸ Gisa hortan. — ⁹ Lili. — ¹⁰ Iratzartceareki. — ¹¹ Sofritu.

aita, eta erran eion : Urrical zakizkit¹, ene alaba, begira diozozute-bilo churi haukiei, eta ekharri badautzut egundaino artha² eta amodio berechirie, ez nazazula ezar hiri guciaren irringarri; orhoit zaitz zure anaiez, hainbertce maite zaituen amaz, zure haur gaichoaz; zu gabe nola bicico da? Cer bilhacatuco da haur chume³ hura? Zure haurraren icenean galdeteen darotzut, ni eta zure ahideac⁴ ez gaitzatzun abalkearaz hiri guciaren aintcinean zure heriotceaz. Perpetuac egin zuen ahal cezakena, aitari bere bibotz-minaren eztiki harrarazteco, ordean eteen haren gogoa ganbiatu.

Jujamenduco egunean agertu ciren guciac, burua goraric, jujearen aintcinean. Han ere egin zuen, oraino, egin ahal bat Perpetuaren aitac, eta gero jujea hasi cen, hanc exitu zuenean, erraiten ciolaric : Sacrificac zazu inperadoreen osasunari⁵, zure aitac izan dezan alaba, eta zure haurrac ama. — Ez, nihoiz⁶ sacrificioric Jainco ez direnentzat, Giristino naiz. Bertceac ere hura bezala mintzatu ciren.

Horren gainean jujeac erran cioten : Hola denaz geroz, beharce zaitzue jenden jostagailu eta basa ihicicn janhari izan, inperadorearen sor egunean.

Ordean legeac debeatcen du haur esperantcetan diteken baten hilaraztea, haurra sorthu arteraino; eta horrec eion emaiten Felicidari nahigabe handia. Cergatic ez du ceruan sarthu behar bere axecabetan⁷ lagun izatu dituenekin? Bertcei ere gaitci zaitote beren lagunaren lur huntan uztea, eta, hitz-harturic el-kharrekin, galdeteen diote Jaincoari, sorraraz dezola haurra, muga gabe.

Hekien othoitzac entzunac izatu ciren. Haur minetan cen Felicida, eta, samin cirelacotz haren oinhaceac⁸, auhenic⁹ erdiragarrienetan zagon. Bizkitartean gazteluzain batec erraiten dio : Orai ezbalinbaduzu pairu¹⁰ gehiago, cer diteke zutaz sarri, harteen edo tigren aztaparretan zaitzekenean? — Orai, ihardexi

¹ Ukhez i pietate nitzaz. — ² Errencura. — ³ Tchipi. — ⁴ Ascaciac. — ⁵ Osagarriari. — ⁶ Seculan. — ⁷ Phenetan. — ⁸ Sofricariac. — ⁹ Pleinuric. — ¹⁰ Pacentcia.

cion Felicidad, neroni¹ naiz nere pairamenetan, bainan sarri Jesus-baithan izanen naiz, eta, hortacotzat arin duket oinhacea.

- Egunaren beha zaudelarik, Perpetuac izatu zuen bertice amex bat eta, hartan, iduritu citzaion icusten zuela, zazpi urthetan galdu zuen anaia ttikia. Bainan mehe cen, eta macelan bazakharren oraino, hiltcean zuen min gaichtoa. Ithurri baten ondoan zagon, edan nahiz, eta, niholaz ere etcetzazken bere ezpain chukhatuac busti ur hartan. Atzartcearekin jakin zuen oraino Purgatorioetan cela. Zazpi urthetan hil cen, eta nola asma² laguntza beharretan izaiten abal cela!

Orduan egin zuen othoitz, eta cenbeit egunen buruan, lehen aldian bezalaco bertice amex batean, agertu citzaion bere anaia, begitarteric ederrenean, eta josteta hari cela bere kludeco³ lagunekin; horrela ezagutu zuen Jaincoa urricaldu citzaiola.

Ethorri cen, azkenecotz inperadorean sor eguna; bozcariozco egun bat bazter gucientzat. Gure sainduei cen Carthasetiarren jostaraztea. Hiri pagano batec behar cituen icusi giristinoac basa acienda batzuen adarretan, edo basa ihicien aztaparretan. Bainan egiazco bozcarioa, bihotza bakean uzten duen bozcarioa, hura, giristinoentzatzagon. Ecen badakite Jesus Jaunarentzat odola ichuriz eternitateco dohaxutasuna hekientzat dela.

Guducagian⁴ sartcearekin, Asturec bertice lagunen icenean oihu egiten dio gobernadoreari: Orhoit zaitte, gobernadore jauna, ethorriren zaittzula, zucenic gabe hilarazten dituzunen odolaz, contu eman beharco duzun ordua. Elhe horren gatic izatu ciren azotatuac. Gero ezarri cituzten bi emazteac sare batzuen barnean, deus soinecoric gabe. Bainan paganoac berac okhaztatu ciren icuspen hortaz eta bortchatua izatu cen gobernadora bekiei beren arropen emaiterat.

Orduan, largatu cioten behi basa batec hartu zuen Perpetua bere adarretan, althatu eta arthiki. Gero, Perpetua bere biloen eta zaien antholaten⁵ hari celaric, ethorri cen Felicidadaren aldia. Hura izatu cen hainitz gaizkiago oraino ibilia. Eta nola

¹ Nihaur. — ² Phenza. — ³ Adineco. — ⁴ Guducaco plazan. — ⁵ Chuchentzen.

eroria baitzagon, joan citzaion Perpetua chutiteen laguntzerat.

Orduan jenden begiac itzuliaz zauden Astueri, eta haren lagunei buruz, lehoin batzu nola gozatzen ciren hekien lurrerat arthikitceaz eta zathieatceaz¹. Pagano hec harritzen dituenaghenic da, sainduen pairua, heriotce lazgarri horren aintcinean.

Azkenecotz lehoinec egin dute lehen martir hekiekilacoa, eta bi emazteac beha daude, noiz itzulico diren heien ganat, jendeac hala nahiago zuelacotz, ezpataz hiltcerat izatu cirenean condenatuac.

Bozcarioxic handienean besarcatzen dute beraz elkhar bi emacume saindu hauc, eta escaintcen dituzte lephoac burregoei. Perpetuaren burregoac escua ikhara zuen eta etcezaken niholaz causi ezpataren lephotic sartceco tokia². Perpetuac berac atchiki eion orduan ezpata punta, erraiten ciolaric: Hortic emazu. Horrela, izatu zuen, sacrificio berri batez, cerbeit gehiagoren irabazteco bidea, eta Felicidadekia batean joan cen ceruco loriaz gozatcerat.

IRACAXPENA

Huna bi emazte, bici huntaz gozatecco heinic hoberenean, badituzte ecen familia maiteac, eta, bereciki badute haur bana bulharrean. Cer behar dute bilhacatu haur hec? Cer behar dute hetaz penxatu familia eta senhar hec? Buruzkingoa batez haurrac umezurtz egiten dituztela? Haurrac eta familia Jaincoaren escuetan dituzte uzten, ecen bertceric diote manatcen beren eginbideac. Gu ere egin dezagun behar dena, Jaincoac eginen du handie aintcinacoa.

¹ Pouscatciaz. — ² Gunia.

MARTCHOAREN 9^{ena}

SANTA FRANCISCA EDO FRANTCHESA ALHARGUNA

Hila 1440^{ena}

Francisca Erromaco etche handienetarie batetaco alabac, haur haurretie eracusten zuen berthuterie berecienez aphaindua zuela arima. Etcioten ecen, eskerric haur lagunen jostetei ez edergailuei; eta bertceac jostetan hari cirelarie, bazagon bere Nagusi Dibinoarekin bihotcez solhasean.

Hala hala hameca urthetan, nahi zuen sarthu comentu batean, birjinitatearen begiratceco, botu bethiereco batez. Ordean etcioten burhasoec¹ onhexi bere guticia, eta hekiei axegin² egitea gatic, handie laster, ezcondu cen Aitoren seme handi bezain aberax cen gizon gazte batekin.

Ezcontceac etcion gutitu Jaincoarentzat zuen amodioa. Jaincoaren gatic bere sehi³ guciei begiratcen⁴ cioten bere haur edo haurride batzuei bezala. Hortacotzat errencurarie handiena zagocan hekien arimaco eta gorphutceco beharrez, eta atzarria⁵ zagon deusetan ere etcezaten Jaincoa damusta⁶.

Bere senharraren manuentzat bazuen Jaincoarenentzat izatu zuen icustatea. Horra cergatic etcitzaion nihoiz⁷ iduritcen harc cerbeit galdetu edo manatu cionean bacitekela hura baino eginbeharragoric. Jarraikimendu beratzuen bere etche barneco eginbidez zohanean, izan zadiela othoitcean, iracurtce sainduetan edo certan nahi.

Behin batez, Andre dena Mariaren oficioaren erraiten hari celarie, bere egitecoei buru emaita gatic, behartu citzaion hitz bera, hirur alditaraino erdi-iracurtua utci; hirugarren aldian, Jaincoac adiaraci⁸ cion cein citzaion gogoracoa bere egitecoez zuen errencura; hirur aldiz iracurtcen hasiricaco hitza beraz,

¹ Aita eta amec. — ² Placer. — ³ Micheandi. — ⁴ So egiten. — ⁵ Iratzarria. — ⁶ Ofenxatu. — ⁷ Secula. — ⁸ Enthelega eraci.

causitu zuen iscribatua, ez, aintcnetic cen bezala, tintaz, bainan urhez.

Izatu cituen haurrac artharekin ¹ alchatu cituela erran gabe doha. Haur hetarie bat hil cen bederatci urthetan, eta orducotz, saindu handi bat cen. Cer ez dezake egia ama jaincotiarrac etche batean.

Joanes deiteen zuten haur hunec erran cion aldi batez aitari: Ethorrnico zaitzu eguna nabala ukhaldi bat errainetan izanen baituzu, eta hartarie hilen zare; erran cion ere eske zabilan fraide bati, beharco citzaiola laster utci zuen soineco hixa, ederrago baten hartecico. Denborac eracuxi zuen egia zaasala ². Aitari gerthatu citzaiion haurrac errana. Fraide hura ere izatu cen apezpicu icendatua.

Joanes bere haur saindua galduz geroz, bezuen Franciscac, bere aingeru begiraleaz bertzalde, eta bethi ageri zagocona, Arcanjelu bat. Eta huri begira ³, huren ariaz ⁴ cituen argi eta laguntcekin, egunetic egunera, geroago eta sainduago zohan.

Bazuen, jadanic, hogoita zortci urthe hainbertce berthute ederresteco zuela Franciscaren senharrac, noiz eta-ere, icusiz Jaincozco gaucentzat zuen khar handia, eta onez-onean, arreba bati bezala begiratuco ciola, handic aintcina, erran baitcien: Emacume ⁵ saindu harc etzuen bertceeric guticiateen.

Ordu beretic bere gorphutzarentzat cituen garrakeria gucien borthizten hasi cen. Etzuen gehiago egunean behin baicic jaten, eta orduan oraino cerbeit belharki deus onkhailuric ⁶ gabe. Utcu zuen behin bethicotz athorra. Harren orde bazakharzcan zurdazco ⁷ larru arasecoa eta gerrico itcestatua. Horrela zagon gau eta egun, non etcituen arte labur cenbeitez hax hartecico bezala khentcen, ixutuqi obediteen zuen bere cobesoraren manuz.

Haren lan gucia, lan moitea cen, errromesen sokhorriteen. Eta, Jesu-Christoren haurride dohacabei hobeki helteea gatic, bera bezala lagunarentzateco amodioaz sustatua cen coinat bate-

¹ Arrangurareki. — ² Erraiten ciala. — ³ Sox. — ⁴ Bidez. — ⁵ Emazte. — ⁶ Adoburic. — ⁷ Bilho lateezco.

kin zabilan; berenetic emaiten ahal zuten gucia eman ondoan, abiatcen ciren, athez-athe¹, escas zutenaren biltcen.

Hainbertce egintza sainduc pitzaraci zuten gure arimen exaiaren bekhaizgoa. Horren gatic izatu zuen nahi gabe hainitz bere etchean berean; galdu cituen, batzu berteen ondotic, onthasunac, bi haur, senharra eta omen ona bera ere. Ordean ecia bertce horien gucien erdian gogoan dagozca eta aiphatcen ditu Jop sainduaren solhas hauc: Jaincoac eman zarozkitan, Jaincoac khentcen darozkit, haren icen saindua izan dadiela benedicatua.

Bertcelaco axecaberie² ere bazagocan exaiac Franciscarenztat. Noiz nahi agertcen citzaion izpiritu gaichto hura, ditezken itchurarie lazgarrien eta eikhinenetan; batean iduri zuen bekhatura ekharraraci nahi zuela; cenbeit aldiz hartcen zuen gerritic eta arthikitcen lurrerat.

Behin, ekharri cion gelara, gizon gorphutz harra eta usteldura zarion bat, eta tin-tinca ezarri zuen eta iduki lucez haren gainean. Hainbertcetarainocoan okhaztatua³ izatu cen gerthacari hortaz. non, handie aintcina, giza seme baten icustea aski baitzuen, orduco lazdura beretan erortceco; iduritcen ere citzaion, hainbertcenarekin usain barne nahasgarri haren erdian cela.

Bazuen emazten comentu bat bere sosez egina, senharra oraino bicizuelarie, hartan hala nescatcha birjininitatea beiratu gogo zutenec, nola allhargunec, errechkiago⁴ eta hobeki iduc⁵ ahal cetzaten bihotzac Jainco Jaunaren amodioan. Bada, laguna galdu duenean, soca bat lephotie eta phildarie tcharrenetan, joiten du etche hartaco athea, eta nigarra begian, othoizten ditu har dezaten beren laguntzat. Etcitzaion ecen iduritcen zorion hori emana izaiten ahal citzaiola.

Comentuan sarthuz geroz arinago zobala ceruraco bidean eta zalhuago erran citeken. Hortacotz laster ezagutu zuten guciec beren amatzat. Ama cenaz geroz bazagocan hekien arimez eta gorphuttez lehenago bere haur egiazcoez zuen artha⁶.

¹ Prauben. — ² Borthaz-bortha. — ³ Nahigaberie. — ⁴ Desgu tatia. — ⁵ Aisckiago. — ⁶ Errencura.

Serorec aski cioten begiratcea, bazakiten cer eta nola behar zuten egin. Hura, andre handi izatua, etcen ahalke hirico carriketan gaindi iragaiteaz, egur zama ¹ bat buruan, bertce bat zaraman asto tchar baten ondotic. Horrelaco eracuspenac ² cituztenean begien aintcinean nolaz errencura citezken haren peco cirenac, aphalduac cirela iduritzen citzaiotenean.

Hola-hola cen hekien gorphutceco beharrez zohanean; behin bazariteracoan, etche gucian etzuten aintcineco arraxean utciricaco bi edo hirur ogi cachco-baieic. Hala ere jarrarazten ditu serorac mahainean, emaiten diote denei nahi duten gucia, eta othurruntza ondoan, biltcen da otharretara ³ bat sobrakin.

Bertce behin, neguaren erdian, mahasti batean cen, hamar bat serora lagunekin, egur keta. Serorac beren egarria ecin jasanean ciren. Franciscac, icusiz hekien ecin bertcea, egiten du bere baithan othoitz bat; gero, begirarazten diote zuhain adar bati lothua cen aihenari, eta, cer dute icusten? ciren becenbat mahax mulkho eder! Horrela nahi zuen Jaincoac saristatu ⁴ bere nescato leialaren saindutasuna.

Berrogoi eta hamasei urthetan, seme eri zuen baten arthateen ⁵ zagolaric, bera eritu cen. Ezagutu ere zuen ondoco ortcegunean hilen cela. Hartu cituen beraz sacramenduac, amodio-ric kharsunearekin, eta gero, erran egunean, ezti ezlia, deus pairatceric gabe, ezarri zuen bere arima Creatzailearen escuetan,

IRACAXPENA

Penitencia handiric eta miracuilu ere bai egin duen sainda hau, cerc uste duzu, den bezain gora ezarri duela ceruan? ez da dudaric, familiaco egiteco aphalei cen bezain jarraiki izaitceac. Ah! emaztea, ikhasazu hunen ganic, etchecoea aingeru tegirale eta sainduaraztaile izan behar duzula. Eta hori egin dezakezu, lehenic zure obedienteia osoaz eta umiltasun maithagarriaz, gero eginbide guciei jarraikitceaz, eta azkenean Jaincoaganic, zure othoitceaz, merecituco diozcatzuten graciaz.

¹ Hache. — ² Excopliac. — ³ Zaretara. — ⁴ Errecompensatu. — ⁵ Sovenatcen.

MARTCHOAREN 10^º^º

BERROGOI MARTIR SAINDUAC

Hilac 320^{***}

Agricola, Armeniaco gobernadorea, hari celaric, Licinius inperadorearen manuz, giristino hilarazten, bacen toki hetaco harmadetan soldado andana¹ handi bat, dena giristinoa. Soldado hauc herioaz zuten achola gutia, ezagutua cen bazter gucietan; eeen lazgarriac ciren exaiari buruz zobacinean.

Gobernadoreac ekharrarazten ditu bere gana, soldado hekien artean, berteen aintcindari ciren berrogoi gizon, eta erraiten diote: Gure inperadore handia, jakinxun eta boz zuen egintzez ekharria da zuen saristatcerat; ordean, zuen ganic, igurikitzen duena da, behin bethicotz, utz dezazuen Jainco bat zuentzat hil delaco ustekeria.

Diozun bezain ungi guducatu bagare lurreco inperadore barentzat, ihardesten dute bertec, cer iduritzen zaitzu eginen dugula, ceruco inperadoreaz dohanean? Jakiten ahal duzu, orai arterainocoac izanen garela, hemendic aintcina ere. Escualde⁴ ona dagocagu, eta ez gare hartaric ceihartaco⁵.

Larderiazco⁶ cerbeit solhas⁷ entzunaraci cioten oraino gobernadoreac, eta gero, igorri cituen gaztelurat gomendatcen ciotelaric, icus cezatela astiroki⁸, nolaco ondorio izaiten ahal zuten hekien urhaxec.

Gaztelu hartan, egin cioten othoitz hau Jaincoari: Lehenago, lur huntaco egitecoen gatic izatu garen behar orduetan, bethi heldu zaizkigu; huna, orai, zure icen sainduaren ezagutarazteaz, zure ahalen ederrexarazteaz dohan ordua. Othoi, Jauna, zathorzkigu⁹, lagunt gaitzatzu guretzat diteken guduca handi.in.

¹ Tanda. — ² Gainti. — ³ Baztertuc. — ⁴ Mehatchuzco. — ⁵ Elhe. — ⁶ Aicinala. — ⁷ Jiu zakizxigu.

Ondoco gauean, hari circ'aric Jaincoari esker eta laudorio emaiten, agertu citzaioten gure Salbatzaile dibinoa, eta errancioten : Ene haur maiteac, hasi duzuen saila eremazue bururaino. Ecen garhait-saria¹ ez da guducan hasten denarentzat, bainan exaiic deino, guducaten duenarentzat. Hitz horien ondotic sunxitu² citzaioten Jesus Jauna, eta baratu ciren soldadoac, dena su eta khar cer nahiren jasaiteco.

Biharamunean egiten diozcate gobernadoreac agintzaric³ ederrenac ; aginteen ondotic contatcen diote cer oinhaceac⁴ eta nolaco heriotrea dagozcan hekientzat. Bainan alferretan. Berrogoiac beren ohico hitcetan zauden ; eta, egundainocotan, eremanac izatu ciren gaztelurat.

Gazteluan, soldado hetaric batec, Cyrion zuen icena, errancioten bertcei : Ene lagun maiteac, Jaincoac, sinheste beraren ariaz⁵, ezarri gaituenaz geroz elkharrekin, soldadogoa beraz, ibilaraci gaituenaz geroz urhax gaichto beretan, eta orai, oraino, gaozcanaz geroz, Jesu-Christo gure Nagusi dibinoarentzat gure odolaren ichurtceco min berean, gauden bururaino elkharrekin, eta badukegu Licinius inperadoreac niholaz ere emaiten ahal ez darocun bethiereco dohaxutasuna. Orai artio, Jaincoac eman darocu, gure behar orduetan galdegin diogun gucia. Othoitz egin dezagun orai-ere, eta, ez gaitu laguntzaric gabe utceico.

Sei edo zazpi egunen buruan Lysius hekien jeneral ohiaic galdetu cituen bere aintcinera ; eta hunen ganat zohacilaric, Cyrionec, oraino ere, erraiten cioten lagunei : Baitugu hirur exai : Satan, gobernadorea eta gure jenerala ; edo hobeki erraitceco, ez dugu exai bat baicic, bertceac baren muthil direlacotz, eta hura da Satan. Nolaz gu, berrogoi garenac, exai bakhar baten beldur izaiten ahal gare?

Jeneralac icensi zuen husu⁶ etrela hoberic hekiei mintzatceaz, eta manatu zuen harri ukhaldica, hortzac haux cetzotela. Burregoac hasi ciren lan berri ; bainan, martir hec jo nahi, eta,

¹ Erreconpenxa. — ² Itzali. — ³ Promesic. — ⁴ Sofri ariac. — ⁵ Bidez. — ⁶ Laster.

Leren buruac cituzten joiten, beren ahoac cituzten odoletan ezartean. Hortacotzat utci cituzten laster harriac. Jenerala aldiz colerac ixutua dagoca. Eta, ustez cerbeit sorginkeria badela, arthikitcen diote, berac, harri bat, abal duen bezain bazarki. Bainan, horra non, bertee ageri etcen escu batec itzularazten dion gainera harri hura bera, berari min handia egiten diolaric.

Berriz ere presondegirat igorriac, othoitcean hari ciren, ethorri citzaiotenean Jesu-Christo gure Jauna, bigarren aldicotz; erraiten ere diote : Ni baithan sinhestic duena, lalinbada ere hila, bicico da. Etzazuela beldurric iz in pairamenez ¹, aphur bat baicen ez dute irauten ahal. Zohazte, emazue hola-hola, eta badukezue garhaia ².

Ondoco egunean agertcea zuten oraino jeneralaren aintcinean, eta izatu ciren condenatuac, deus arroparic gabe gauaren iragaitera, hormatua ³ cen ur handi baten gainean. Etciren hargatic loxatu gure martir sainduac. Ur bazterrera heldu cirenean, berec khendu cituzten beren soinecoac, eta, alegeric, jauxi ciren hormaren ⁴ gainerat. Han zauden othoitcean, eta galde hau Jaincoari egiten ciotelaric : Berrogoi gaituzte ezarri horma huntan; egizu, Jauna, berrogoiac sar gaitecen zure ceruco lorian.

Hekien zainzalen artean, bertceac lo zaudelaric, bazagon bat atzarria. Eta, hau gauza miresgarria! gauaren erdixuan, icusten ditu hogoi eta hemeretei khoro cerutic jausten soldado hekien ganat : Eta, berrogoi garrenarena, non da? zaasan ⁵ lere buruari, noiz eta ere icusten baitu berrogoietaric bat, lasterca joiten, hormaren aldean ⁶ zaocaten ur ephelerat, eta mainhu ezti hartan sartcen, arbuiateen ⁷ duelaric bere erlisionea.

Icusi duenac eta Jaincoaren graciec sarraraztea dute lere baithan athe-zain hura. Atzarrarazten ditu lagunac, erraiten diote giristino dela, eta biluzten delaric, badoha hormaren gainera berrogoigarrentzat. Handic atheratu cena, aldiz, hil cen ur ephelcan sarthu ordaco.

¹ Sofricaric. — ² Bitonia. — ³ Kharrountatia. — ⁴ Khorroa: en. — ⁵ Errait a cian. — ⁶ Khantian. — ⁷ Atnegateen.

Biharamunean, jeneralac, egundaino baino hasarreago, mahila ukhaldica hauxarazten diozcate hezurrac hilic etcirenei. Hala ere Meliton, martir hekien artean gaztena, bici da oraino, eta berteen gorphutzac daramaztelaric orgetan erretceera, uzten zuten hau, behar bada arbuatuco zuela giristinotasuna.

Bainan Melitonec hau zuen ama. Eta ama jaincotiar hari fedecac erranarazten ciozcan hitz hauc : Ene haurra, aitcha zazu bihotza zure Salbatzaileari, hor berean alhean ¹ dagokizu begira ², ja ceroni bakharra berrogoietaric, izanen othe zaren joanen etzaizeona. Gero, begiac chukhu, bihotza hazcar, harteen du hizearream seme maite hura, abiatcen da orgen ondotic, eta badoha, hil zaiola sumalic ³ duen arteraino. Orduan ezarri zuen bertee gorphuteen gaineaa, elkharrekin pairatu zuteaen hezurrac etcitecen nihoiz elkharganic l ereciac izan.

Gobernadorearen manuz izatu ciren bezur hec urerat arthikiac; bainan guciac bildu ciren, Jaincoaren nahiz, ur bazter-rera, eta giristinoez ezarriac izatu ciren hekiei emana cen tokian.

IRAGAXPENA

Ah ! certaco ez dugu giristino guciac behar elkharrekin izan bat eginac Jainco bithan ! Jesusec ororentzat eman duenaz geroz bere odola, eta guciei nahi darocunaz geroz eman garhuit-sari, lori¹ bera ! Izan gaiten Jaincoaren egiazco soldado ; cenbat nahi nekhe izan dadien, guduca gaiten curaierekin egun bat, eta eternitate gucia badukegu pausatceco.

MARTCHOAREN 17^{oa}

SAN PATRICE IRLANDACO APOSTOLUA

Hila 161^{oa}

Patrice sorthu cen Bretauñian. Hunen aita, Calpurnius, cen gizon bat ingurune gucian ezagutua cena; halaco cirelacotz haren onthasunac, eta oraino, ceren cen capitain handien seme.

¹ Borthan. — ² Soz. — ³ Bogetu edo nabaitu.

Hamabortz urthetan, Patriceri gerthatu¹ citzaion hux batean erortzea, eta hartaz nigar eginen du bere bici gucian; bizkitartean luxa etren icigarricoa. Badakigu, bertzalde, adin lura baino lehen ere, bathaiatua cela, bainan ordu artio etzuela ezaguteen Jaiucoa.

Hamasei urthetan celaric, Irlandes jende basa batzu zarthu ciren Calpurniusen lurretan; hil zuten bera, eta haren meneco ciren guciac, Patrice hekiekin, creman cituzten saltcera Irlandarat. Jaun aberax batec erosi zuen Patrice, eta ezarria izatu cen artzain.

Manupecogoa hortan egotu cen zazpi urthez pairamen² gucien erdian. Batean zuen gosea, bertcean egarrria, orai hotza edo bustia, sarri berriz iruzkiric³ borthitcean; ordean pairamen horiez goragocoa cen haren pairua⁴, eta ungi urrua cen haren gogotic bere zoriaren⁵ deithoratea. Ger diot⁶ etritzaiion iduritcen, oraino, aski pairateen zuela. Ecen bere nahitara, egiten zuen hainiz barur, eta bertce asco penitencia.

Zazpi urthe hetaric lekhora⁷, erranez bere buruari, aski lucez egotu cela etche hartan, eta bere libertatea bederen irabaci zuela, eman zuen ihesari, eta joan cen ixasoco alderat, causitaco duen lehen unteian, behar duela Frantciarat iragan.

Lucez ibili ondoan, heldu cen ixas bazterrera. Ordean philda charregia dakharre⁸, nihori uste izanarazteco cerbeit irabaci eginarazten ahal diola. Untei bat cea bakharric ab atceri zohana; eta capitaiuae husu⁹ dio ihardexi, unteigucia bethea duela, ez dela tokiric. Uztera ere zaramaten, ahal zuena egin, ezala mariñelec urricalmenduz¹⁰, ekharraci zutenean eta sarraraci.

Bertce behin, oraino, Frantciaratu cenetic laster, gerthatu citzaion, acienda nagusiric gabe diteken bat bezala, atcemana izaita, eta bi hilabetez bertcen escupeco egoiea. Horrelaco bicitec gogorraren lidez, nahi cion Jaincoac bihotcean su eta khar gebiago ezarri arimen atherateco¹¹ debruaren aztapar-

¹ Agitu. — ² Sofricari. — ³ Ekhiric. — ⁴ Pacentcia. — ⁵ Zorthiaren. — ⁶ Landan. — ⁷ Ekharren du. — ⁸ Laster. — ⁹ Pietatez. — ¹⁰ Elkhitceco.

retaric. Azkenean helaraci zuen nolazpeit Jondoni Martine bere osaba gana.

Saindu hunc harraraci cion fraide arropa, eta erauxiric, lau urthez, egiten ahal zuen gucia, mañatu cion Irlandesei Ebangelio sailduaren predicatcerat joatea. Manu horri jarraiki behar zuela, Jaincoac ere aditcerat¹ eman cion, eginzuen amex baten ariaz².

Amez hartan, iduritu citzaion, Irlandes batzu oihuz hari citzaizcola, zaasatelaric. Othoizten zaitugu, ogizon gazte saildua, ethor citzaizkigun, eta gure erdian ibil.

Horrela jakin ondoan Jaincoac galdegiten zuela Irlandarat, egotu cen oraino apezpicu saildu batzuen etchean, cerbeit gehiagoren ikhasten, eta azkenean, hogoi eta cenbeit urtheren buruan. joan cen Erromara, behar cituen botheren bilha³.

Jende oies⁴ batzuen ganat zohanaz geroz apostolu bat bezala, Aita Sailduac nahi izatu zuen apostoluen escu-guciekin igorri. Eta hortacotz, apezpicu ordenatua, eman cen bidean Irlandarat buruz, hirur-hogoi urthetan.

Irlandan gutiz gehienac, oraino, jainco falxuen adoratcen hari ciren. Handi cen beraz hastera zaraman lana; bainan sailduac erraiten zuen bere baithan, etcitekela bera, lan hortan. Jaincoaren lagantzarekin batean zuen cerbeit egin gogo. Badakcausituco dituela herriac eta hiriac bihoteic izan behar ez duen jende basa batez betheac; eta hortacotz, mila eta mila aldiz, biciaren gal-ordean⁵ izanen dela. Bainan ez da lox tceen: eta, Irlandarat heldu deneco, emaiten da bere lanari.

Bere saildutasunaz eta bere eztitasunaz ezagutaraci cioten jende hek ei guciei, bazutela hec ere bihotz eta arima bana. Hasi ciren Patricea maithatcen eta haren erranei jarraikiteen. Nolaz izan citeken bertecela? Escuinetic ezkerrera, gainetic beherera agertcen da Patrice zokho gucietan; handiekin eginez hekieki-lacoa, ttikiekin aphalduz, hekiei iracurteen eracustera nocoan.

Populu hare, icusi zuenean cein cen maithatua apostoluaz,

¹ Enthelegatcerat. — ² Bidez. — ³ Cherkha. — ⁴ Basa. — ⁵ Galtceero lanjerrian.

utci cituen bere jainco falxuac, eta jarri cen hunen escuetan. Eta sailduac ez irri zuen hor-hemenca apezpicu; ordenatu zuen bederen hirur mila apez; egin zuen comentu gizonen eta emazten; hitz batez, hogoi eta hamar urtheren buruco, ezarri zuen Irlanda, egundaino geroz izatu den bezalaxu; giristino egiakzi kharxu direnen herria.

Hortaratu etzueno, egin behartu citzaion hainitz miracuilu; nola, bertcenaz, beraraz ¹ harrocaren pareco bihotz hec? Nola sarraraz, bertcela, deusetaz acholaric etzuten bihotz hetan, Jaincoaren beldurra?

Baciren hirur sorgin ² nagusi, jendea zoratua zaocatenac beren sorginkeriez; San Patrisec hilaraci cituen hirua, bere elheaz beraz. Hetaric bat, airean zabilana populu guciaren aintecinan, debruec itho zuten; bigarrenac uste zuen, suan ibiltcen ahal cela, erie gabe; ibili ere cen aphur bat, ordean, san Patricen mintzora galdu cituen bere gerizagailuac ³, eta etcen gehiago sutic athera: bertcearen galarazteco, sailduac manatu cion lur-rari, eta lurra erdiratu cen, haren iresteco.

Hilac oraino pitzarazten cituen, eriac sendatcen; manu bakhar bat eman erduco, izpiritu gaichtoa gorphutzetarie atherarazten zuen; sorrarazten zuen itburri, tokiric ⁴ idorrenetan; erran nahi baita, etcela egiten ahal etzuen miracuiluric. Hata-hata, etzagoken jendea, hare galdegiten ciona egin gabe.

Lan eta miracuilu horien artean zaraman bicitcea helhi berdin garratza cen; eta erran diteke, lehenago ceruco biciaz cela bici, ecenez ⁵urrecoaz. Gabaz emaiten zuen loari, doidoia, lo egiten zuela erraiteco behar zuen becenbat; gainerateco denbora iragaiten zuen edo erlisioneco egien gaincan meditatcen, edo cerbeiten ikhasten.

Hainbertetaraino atchikia cen gurutcearen seinaleari, non egiten baitzuen, gau eta egun, ecin maizago ⁶. Bidetan zabillanean, aurkhutcen ⁷ hazuen gurutceric, ahuspez ⁷ emaiten cen hekien adoratceco.

¹ Bella eraz. — ² Belhagile. — ³ Beiragailliar. — ⁴ Gunic. — ⁵ Ardarago. — ⁶ Causitcen. — ⁷ Cudiciatcen.

Azkenean, laütan hogoi eta hamabi urthetan celaric, aingeru batec ekharri cion berria heldua cela mugara. Etzuen berticeric guticiateen aspaldion, baicen ere lurraren uztea bere Jesus maitzarekin bat egiteco.

Ezti-eztia, athera cen arima eder hura lurrari estecatua zagocan gorphutetic; eta cernan egin zuen sartecaren ohoretan, aingeruec entzunaraci cituzten beren alegranteiazco canticac, haren ehorztean causiteen cirenei.

IRACAXPENA

On da saindu hunen bestaz orhoitcea eta hunen ohoratcea cerbeit otteitceez. Ecen, oraino bici celaric, Jaincoac hitceman cion, debocione egiazco bat harentzat zuketen guciac, izanen zatela heriotce on baten egiteco gracia.

Bainan hunen bician har dezakeguna bereciki gure onetan, da, gurutcearen seinalearen maiz eta bethi fede bici batekin egitea; gurutcea da gure geriza exai eta irriscu guciac erdian; gure esperantza eta gure amodio gucia; gurutceaz eremanen dugu garhaia ¹, gurutceaz idekiren cerua.

MARTCHOAREN 19^{ena}

SAN JOSEP

Ebanjelio sainduac ez darocun erraiten cein tokitan sorthu cen san Josep; dakiguna da Galilea beherecoan, Nazarethco hiri ttikian zagola. Haren arbaso ² ciren Judeaco erregeac, Davit, Salomon eta hekien ondotic izatu cirenac. Ordean nahiz erregen odola zabilan Josepen zainetan, chumeac ³ ciren haren onthasunac, eta bici cen maesturuntzatic ⁴. Bizkitartean, langile hura lagun eta lekhuco, ditu Jainco batec egin gogo, ekhartcen darocun amodioa eracuxico duten urhax harrigarriac.

¹ Bitoria. — ² Aiten aita — ³ Tchipiac. — ⁴ Charpantergoatic.

Hurbildua cen Jainco semeac munda hustara agertuz, egi-tera zaraman lehen urhaxaren ordua, san Josepec eta Birjina Maria sainduac hitzartu zutenean, apezac lekhuco, elkharrekin jartzea.

Ezconduco dire beraz bi sainduac, ez bat bertzearenac izanen direlaco gogoarekin, baina elkharren beiratzaila eta laguntzaila izateagatic. Birjina bat da Birjinen Erreginaren aldean¹ izanen dena. Horrela² birjinitatea, nihon bere parecoric ez duen lore³ ederra, ungi zaindua izanen da, eta Maria saindua ama bilha-catuco ahal da jenden aho-mihitara erori gabe; Maria sainduac baduke egiteco handiric, baina izanen du, Josep baithan, lagunduco duena.

Josepekin batean, cer ez du eginen ahal Mariac? ecen justo cela Josep, erraiten darocu Ebanjelioac; hortaric ageri da bertute guciekilaco gizon sainda bat cela; gizon bat cela beraz sacrificioric handienegiteco gai⁴ cena. Bai, hura cen ceru lurren Erregina eta Jaincoaren Ama izan behar cenari guciz ungi zohacoa laguna.

Ezcondu gogo zutenec izaiten cituzten ceremonietaric iraganac direlaric orducotzat, conplitu cen Maria saindua baithan Incarnacionearen michterioa. Eta Birjina saindua, michterio hortaz Josepi deusic erran gabe, joan cen Elizabet bere cusina ganat. Hirur hilabetheren buruan da bakharric itzultcen etche-rat. Baina, jadaneco, ezagun du cerbeit gambio badela hura baithan. San Josep ere ohartcen da bihotzminic handienarekin gambio hortaz.

Eta, orai, cer behar du egin? Legeac manateen du horrelaco desleialtasunac tribunalari ezaguturaztea; eta gaztigu lazgarri bat baditeke emaztearentzat. Baina, Josepec badaki, Maria ez da hobendun izaiten ahal. Nola beraz salha? Hargatic legeac oraino debecateen diolacotz etchean idukitcea⁵, harekilaco hitz guciac nahi ditu ichil-ichila hauxi.

Orduan aingeru batec erran cion amaxetan: Josep Daviten semea, ez duzu ceren beldurric izan Mariaren emaztetzat har-

¹ Khantian. — ² Gisa hortan. — ³ Lili. — ⁴ Capob'e. — ⁵ Atchikitcia.

teeaz, Ixpiritu sainduaganic da hori baithan dena. Izanen du seme bat; eta zuc, Jesus deithuco duzu, ezen bere populua atheratueo ¹ du bekhatutic.

Atzarri ² cenean, san Josepec, icustatez bethea Mariarentzat, egin zuen aingeruac manatu cion bezala, hartu zuen emaztetzat. Eta handic aintcina, bere fede hazcarraren bidez, icusiz Mariaren errai garbietan Jainco gizon egina, amodioz errea zagon, eta ahalkez urthua, Tabernacle bici hari begira ³.

Michterio hori ezagutu zuenetic sei hilabetheren buruan, Erromaco inperadorearen manuz bortchatuac izatu ciren Maria eta Josep, beren icenen emateagatic, Bethleemerat joaiterat; nahiz Jesusen sortceco eguac hurbilduac ciren. Hiri ttiki hartaco etchetan galdetceen dute atherbe, ordean alferretan.

Ez da nihor izanea, Mariaz urricalduz ⁴ bederen, hartu nahico dituenic. Ezagunegi zuten etcirela dirudua. San Josep eta Maria saindua, ceru lurten Erregea berekin dakharrena ⁵, bortchatuac dire heiatzat ⁶ ibilia den harroca azpi batetarat joaiterat.

Cer axecabea izanen ceta Josepentzat, cer begiratec trichtea eginea ciona Mariari heia aitecinean, fedenc ez balio erran, Jainco Semea gizon egin ceta eta lurraren gainuan agericera zohala, ezagutarazteco munduari, cein ciren ez deusac hemengo axeginac, onthasunac eta ohoreac. Bainan fedea hazcar duelacotz sartcen da harpe hartan bihotza arinic, eta ciokelarie bere baithan: Etche ederrac eta jauregiac ere bere escuco cituelarie heia hau du hautatu; egin bedi haren borondatea cernan bezala lurrean ere.

Han du beraz Josepec, lehen aldicotz, icusico Patriarkhac eta Profetec icusi nahi zuten Jainco Gizon egina. Han oraino, emana izanen zaio Aingeruen cantu ederren, hekien ondotic, artzainec egin ciozcaten othoitz kharxuen entzutea; gerochago entzunen ditu oraino, tenploco atnean ⁷, Simeon eta Anna profeten erranac, Haur Jaincozco haren gainean. Eta azkenean izanen du Jaincoaren bothere guezcoa ederresteco, nonbeitic ethorriricaco errege batzu, Jesusen oinetan icustea.

¹ Elkibico. — ² Iratzarri. — ³ Soz. — ⁴ Pietate ukhenez. — ⁵ Ekhar-
ten diana. — ⁶ Establiataco. — ⁷ Borthan.

Ordean etzion axegin huncet lurrez iraun. Ondoco gauean herean, aingeru latec emaiten dio manua, har detzala Maria eta Haurra eta dohala Esiptorat, Herodes haurra galdu beharrez dabilala. Josepec etzuen deusic ihardexi. Eta bizkitartean, cer bide luca ez du egin behar! eta bide hartan gucian ez duke nihon ezagun bakhar bat! Haurra oraino ttiki da! Noiz artio beharco zaio egon Esiptoan? Gogoeta horiec han cituzken trebes bere izpirituan; bargatic, deusetaz errencuratu gabe, harteen du ama bere Haur dibinoarekin, eta badoha.

Esiptoan biciaracico du familia saindua, aingeruac berriz ere erran arteraino, itzultcen abal dela, Izraeldar lurretarat, hil dela Herodes. Orduan itzuli cen Nazaretherat eta liburu sainduac jakinarazten darocute legeac manateen cion bezala, bazabilala handie, urthe guciez Jerusalem.

Bada behin, Jesus Janna hamabi urthetan celarie, gerthatu¹ citzaioten Mariari eta Josepi Haur hunen galtcea. Abiatu ciren biac etcherat, astez jarraikitcen citzaiotela; eta gero, arraxa ethorri cencan, ez batec bertcearekin, ez ezagunekin, etzuten causitu. Itzuli ciren beraz Jerusalemera, eta hirur egunen buruan zuten bakharric icusi, tenploan, apezac eta lege eracustailleac zoratuac zaozeala bere galde eta ihardeste ederrez. Orduan Jesus jauxi cen Nazaretherat, eta han zagon d o bethi Ebanjelioac, behatcen celarie Maria bere amaren eta Josepen manuei.

Jainco bat gizon baten manuei behatcerainocoan aphaldua, gizon bat Jainco bati manatcerainocoan altchatua, horra cere darocuu eracusten, ceiu citeken saindu handi san Josep. Baldin gure Salbatzaileac, oraino bere amaren sabelean celarie, bekhatu orisinaletic garbitu bazuen Jondoni Joanes Batichta, haren gracia bereciec cer aberastasunac, cer aphaindurac etcituzketen ezarri, ondoan, aita-ordearen ariman!

Gracien ithurburuan cen Josep, ithurburu hura zaintceco zuen, cenbat gracia etciokeu emaiten Jesus Jaunac; eta gracia hekiei esker, begien aintcinean cituen eracuspua saindua

¹ Agitu.

gatic, Jesusi entzuten eiozcan solhas samurren gatic, cer merecimenduzco tresorac etreituen bildu!

Saindu hunen heriotceaz uste izaiten ahal duguna da, hil cela Jesusen eta Mariaren escuetan. Bicitce bat hain Jaincoaren gogaracoari emana citzaion horrelaco heriotcea.

IBAGAXPENA

San Josepi, Elizac ezagutcen dio sainduki hiltcen laguntceco botherea. Bertzalde, Aita Saindu Pio bederatei garrenaz ezagutua izatu da, 1871^{mo}, Eliza guciaren patrointzat. Mundu huntan aita-orde izatu duenari, cer dio utrico eman gabe Jesus dibinoac? Bai! laguntcen ahal gaitu gure behar ordu handienetan, bainan baitezpada, hel dakigun azken orenean, aipha dezagun maiz¹ haren icena Jesus eta Mariarenekin batean; Martchoco egun guciez, egin diozogua oraino cerbeit othoitz; eta maite izan dezagun garbitasun² saindua.

SAN JOACHIN EDO KHOAKHIN

Martchoaren 20^{mo}

ETA SANTA ANNA

Uztailaren 25^{mo}

BIRJINA MARIA SAINDUAREN AITA ETA AMAC

San Joachinen etchea, cen Judeaco etcheric aiphatuenetarie bat. Errege cituen izatuac edo lege eracustaile, edo harmadetaco aintcindari bere aiten aitac. Hogoï eta lau urthetan celarie, hautatu zuen emazteztat, andre gazte bat, hala odolez nola onthasunez, berari guciz ongi zohacona. Hura cen santa Anna. Anna Bethleemen zagon eta ezagutua cen bere bertbuteaz, bere onthasunez baino oraino hobeki.

Bataren eta bertcearen amexa, eta amex baxharra ezcontcean, hau cen, beharbada emana izanen citzaiotela beren ondocoetan

¹ Ardora. — ² Chahutarzun.

izaitea, munduaren salbatzaile agindua¹. Bizkitartean, gaztetasunean jadanic iragaiten hasiac ciren, zaharteen ere bai, eta, Jaincoac hekien batasuna benedicatu zuela seinale, etzuten oraino haurric.

Ez dute hargatic berehala exiteen. Noizbeit Jaincoac onhexico cituelacoan hekien guticia sainduac, bici ciren othoitcean eta barurean. Badute hainitz ontasun: heren bat doi-doia atchikiccen dute berentzat; eta bertce bi herenac emaiten dituzte, amoina tenploari eta erromesei². Hala ere lurrae etzuen oraino aski aphaindura³, ez aski garbitasun⁴, fruitu bat hain ederra ekharri behar zuen landarearen hazteco; bethi haurric gabe ciren.

Eta Anna sainduaren agorreria gatic, cenbat laido, cer ahalkea etzaiote jasan⁵ beharteen? Ecen, Judea gucian, etcen senhar emazte batzuentzat, haur gabe izaitea baino deus ahalkegarriagoric; hori cen, etche batec izaiten ahal zuen axecaberie⁶ handiena. Bekhatore eta Jaincoaren madaricionen azpian cirelaco seinale bat bezala. Horrengatic san Joachin eta santa Anna etchean zauden, ahiden⁷ artean ere agertcerat ecin menturaturaz.

Egun batez Joachin bere eciubertcearen deithoratcen zago-larie, aldare sainduen oinetan, handie urrundua izatu cen apez batez, hura bekhatore zaocatena, sobra hurbildu izatu balitz bezala. Laido herri hortaz bihotza erdiratuá, itzuli cen etcherat, Jaincoa othoizten zuelarie icus cezan haren bihotz-mina. Bertce nor nahie exituco zuen; gure bi sainduac herxatcen⁸ dire, egundaino baino khar gehiagorekin, Jaincoari, berarentzat agintcen diotelarie eman nahico diotena.

Othoitz horren ondotic, Joachin joan cen harroca gain bategara, berrogoi egunelaco barur baten egitera; Annac, etchean berean, bertce hainbertce egin zuen. Horrela⁹ nahi zuen Jaincoac eracuxi, emaitera zohacoten haurra etcitekela berteen

¹ Hiteamana. — ² Prauber. — ³ Althadur. — ⁴ Chabutarzun. — ⁵ Egari. — ⁶ Phenarie. — ⁷ Ascacien. — ⁸ Adrezateen. — ⁹ Gisa hortan.

iduricoa; hari licia eman behar ciotenetan, hainbertceco saindutasuna, baitezpada¹, behar cenaz geroz.

Berrogoi egunen buruan, aingern bat agerteen zaiote bie, ekharteen diotelarie berria, hekien guticieac² betheteera doha-cila; baduketela haur bat, bere sortceaz bakea lurrean, eta boz-cariao ceruan, ezarrico duena.

Eta orai, cer erran, ezagutarazteco, nolacoa cen hekien axe-gina: Begira³ zandelarie gerthatu⁴ behar citzaiotenari, biho-teetic gaindi egiten cioten bozcarioac. Hogoï eta gehiago urthe-ren buruan burhasoteera⁵ dohaci lehen aldicotz, eta oraino han dukete, bere berea, Jesseren erroctarie⁶ atheratu⁷ behar cen lore⁸ aiphatua. Emacume⁹ batec Jainco baten tenplo bici bilha-catu behar, eti emacume hura hekien alaba da. Eta hauc guciac icusiz, hekien bihotzac urthuac zanden ezagutzaz eta ecin Jaincoari aski esker emanaz.

Abendoaren zortecian Anuac contzebitu zuen haur bat, ez berteeac bezala bekhatuaren haxaz lanhotua, bainan gorphu-tceco bicia bezain sarri, arimacoa ere berekin zuena; Adamec lehen egunean bezain eder eta argi zuena arima.

Benedicionezco haur berantexia sorthu cen buruilaren zor-tecian. Eta gero, handic bederatci egunen buruan, Joachin bere aita eman cion icentzat, Maria; erran nahi baita, Andre guciz botherexua. Eta ecin dohacon ongi icea hori! Ecen hura da Patriarkhec hax-beherapenetan, guticiatu duten haurra; Pro-fetec hain ocenki aiphatu emazte hazearra; ifernuco sugeari burua lehertuz gizona ceruco bidean ezarri behar duen emaztea.

Dohaxu! mila miletan dohaxu haren burhasoac¹⁰! Axeginic¹¹ baicen emaiten etcioten haur haren etchean izaitea, cer zorio-na¹² hekientzat!

Ordean Aita eta Ama saindu hauc etcituzten ahantciac Jain-coari egin cituzten agintzac¹³. Hirur urthe bethe citueneco, ereman zuten tenplorat. Han, toki saindu hartaco lanetan,

¹ Absolutoki. — ² Nahiac. — ³ S. z. — ⁴ Agitu. — ⁵ Aita eta ama bilhatcera. — ⁶ Zeinetarie. — ⁷ Elchi. — ⁸ Lili. — ⁹ Emazte. — ¹⁰ Aia eta amac. — ¹¹ Placer. — ¹² Ironsitate. — ¹³ Hitzac.

Jaincoaren graciai jarraikiz, behar zuen, hartaric zohan becenbanean, Jaincoaren ama bilhacatceco heinetan jarri.

Huntan gelditeen da bi saindu maite horien gainean daki-guna. Noiz artio hici izatu ciren? nola hil ciren? Ez dakigu. Bainan erran dezakegu, urrunegi goacilaco beldurric gabe, egun, gora direla ceruan san Joachin eta Santa Anna.

Ecen, cein da Andre dena Maria sainduari eman diozokegun iceoic ederreña? Hauche: Jaincoaren Ama. Iceu hori aiphatean, aiphateen baititugu oraino hortaracotzat, izatu dituen gracia eta berthute bereci guciac. Eta horra cer den osoki'egia, bi saindu hautaz. Erranez geroz, Jaincoaren Amaren Aita edo Ama direla, cer diteke gehiagocoric edo othoragarriagoric asma¹?

Orai, errecaco ura, ithurriratago eta garbiago balin bada; edo cein gauza, suari hurbilago² eta beroago balin bada; norc adiaracico³ darocu nolacoa izatu den gracia gucién ithurriari, Mariaz canpo, hurbilenic izatu diren bi sainduen garbitasuna? Deua su eta khar izan behar zuen bihotzari, hain hurbil ciren bihotz batzuen amodio garbia?

Hautaric icus dezakegu, Jaincoac ere, bere aldetie, cer amodioa ekharri dioketen, mundu huntan berean cirelaric; ceibat laguntza izatu dukeken saindutceco: cer irabaciac egin dituzketen cerucotzat; eta ceruan cein ditezken botherexu gure socorritceco.

IRACAXPENA

Aita eta amac, elkhar ganatuac zarete familieu Jaincoaren legean althatececo. Jaincoac benedicatcen duenean zuen ezcontza, zuen egitecoric herxiena da, haurren gidatcea eman darozkitzuen ganat.

Hortaracotz, huna cer behar cinuketen egin: Ezcontzarat arinki edo zoratuki⁴ joan orde, mereci zatzue othoitceez eta obra onez ondoan beharco ditutzuen gracia. Ezcondu zaretenean, hitceman zotzue Jaincoari zuen haurrac, othoizten duzuelaric

¹ Plenza. — ² Hullanago. — ³ Enthelega eracico. — ⁴ Erhoki.

ordutic har detzan beretzat. Ethorri direnean orhoit zaitezte zuen hitzaz; orhoit, haur hec ez direla zuenac bainan Jaincoarenac. Zuen eracuspeneac eta othoitceac salbaraz detzatela! Hortaric doha zuen salbamendua.

MARTCHOAREN 21^{ena}

SAN BENOIT, ERROMAZ HUNINDICO FRAIDEN AITA

Hila 542^{ena}

—

Italian sorthua, Umbriaco probintecian, Benoitec haur-haurretic eracusterat emaiten zuen cer klar biciarekin sarthu beharra cen ceruraco bidean. Zazpi urthe cituen ezirria izatu cenean Erromaco escoletan. Escola hetan egotu cen hamalau urtheac bethe arteraño.

Orduan, niholaz ere ecin gehiago jasenez hango lagunena arinkeriac, utci zuen escola. Ecen erraiten zuen bere buruari, gutichago jakinen balin bazuen ere, hobe zuela arimaren salbateca.

Escolarekin batean utci cituen ahide¹ eta ezagun guciac; eta, bere amaño ebaharra lagun harturic, joan cen mendi zokho batetarat. Han hasi cen Jaincoaren amodicari bere amodioaz ihardesten, han oraino, bere amañoen gatic egin zuen bere leben miracuilua.

Emazte huni gerthatu citzaion, jende erromes batzuei, mailatu² cioten lurrezco unteciaren haustea, eta etzakien gehiago cer bilhaca. Benoitec othoitz ttiki³ bat egiten du, eta ezartcen dio escuetan untecia oso-osea. Miracuilu horren bidez, jendeac ezagutu zuen saindu bat cela haur gazte hura. Bainan Benoitec, beldurrez eta, han berean egoiten balin bacen lucezago, laudorio cerbeit izan cezan, utci zuen bere mendi zokhoa, eta joan cen Subiakeco oihanerat, bere amañcari berari ere deusic erran gabe.

¹ Ascaci. — ² Jezan. — ³ Tipi.

Oihan huntan aurkhiteen duen fraide bati erraiten dio, behar duela bertee jendetarie urran bici, bederen cenbeit denboraz; eta fraideac ihardesten dio, nahi dituen lan guciac eginen diozcala. Ordu berean sarthu cen lece cilho batean, hitzarturie bere adichkide berriarekin, noicetic noicera jauxico diola, soca batez, beharco duen ogia eta ura.

Lecean da beraz Benoit, eta han egonen da hirur urthez penitentiariac ikharagarrienetan. Bethiereco barurac ez aski gorplutz samur¹ baten cebatecco², gau eta egun jaunteia zagoa zurdaz³ eta burdin gathez. Solhasic⁴ ere ez du nihoiz, nihorekin eginen. Lurrean othe cen ahantzia, Jaincoa zuen bethi gogoan. Bai, Jaincoaz cen hartua Benoitzen gogoa, eta Jaincoac ere etzaocan ahantzia, bere cerbitzari gaztea.

Bazco egun batez, ondo hetaco erroto bat bazcaritera zoñan, entzun cituenean hitz hauc : Benoit ene cerbitzaria gosez hiltcera zohac, eta hi, jateco on horiez bazcaritera. Ghititu cen apeza, eta, bere bazcari gucia esueetan, athera cen etchetico, jakin gabe norat zuen joan behar. Jaincoac ereman zuen sainduaren lecera. Eta hunc, icusi zuenean cer cen gerthatu, eman cituen lehenic eskerrac Jaincoari; eta gero, ceruro gaucez mintzo cirelarie, egin zuten Bazcoren ohoretan othuruntza⁵ ttiki bat.

Ordutic ainteina, hasi ciren berteeac ere, saindu bat lecean bacela oharteen. Artzain batzu izatu ciren lehenetarie, haren elhe sainduari behatuz, Jaincoaren maithatzen ikhasi zutenac. Azkenecotz, nondic nahitic, ethorteen citzaion icustiar eta behazaile.

Izpiritu gaiehtoac ere laster du icusi, cenbat arima dion aztaparretarie khendu behar, baldin eta ez badu bere bidetic ceiharrarazten; eta joaiten zaio behin ondoco-ondora, chocho baten itehuran gordea. Gogoac erraiten dio Benoitzi hegastia⁶ haren itehuran baditekela berteerie ere, eta egiten du gurutcearen seinalea. Chocho-ordea suntxitzen⁷ da, bainan hainber-

¹ Trende. — ² Zaphatecco. — ³ Bilhoz. — ⁴ Elheric. — ⁵ APAIRA. — ⁶ Ihice. — ⁷ Galteen.

teetaraino ezagutcen du bere burua gaizkirat ekharria, non larru-has, sartcen baita lapharric eta arrantceric baicen ez den sasi batean, eta han ihalozca¹ dabila, gorphutz gucia odoletan ezarri arteraino. Hala-hala behin bethicotz garhaituac cituen axeginentzateco jaidura² guciac.

Guduca horietaric iragana cen comentu batetaco fraidec othoiztu zutenean, jar zadiela hil citzaioten aintcindariaren ordain. Bainan sainduegi cen Benoit, lucez hekiekin ungi joaiteco. Ecen cerua irabaci nahi zuten eta lurraz ere bai gozatu. Unhatu³ ciren beraz beren aintcindari berriaz; galaraci ere nahi izatu zuten, edari phozoinatu bat emanaz; bainan Benoitec egin zuen gurutcearen seinalea edariaren gainera, eta hain sarri, gathilua hauxi cen eta edaria ichuri.

Ordu berean, utci cituen sainduac fraide gaichto hec, erraiten ciotelaric : Banakien ez ginohazkela ungi elkharrekin. Bilha⁴ zazue beraz orai, dohatzuen bezalaco aintcindaria.

Nahiz itzuli cen deserturat, etzagoken gordea Benoit saindua. Eta berehala, egin behar izatu cituen hamabi etche, nondic nahitic ethortcen citzaion jendeari, ceruco bidearen eracustea gatic. Gero berriz, lan hekien gucien ondotic, Jaincoaren manuz jauxi cen Naples alderat, eta han alchatu zuen, Cassingo mendian, munduco bazter gucietan handic aintcina izanen dituen etche gucien ama.

Bizkitartean gure arimen exaia errabiaric handienean zagon, eta maiz⁵ agertcen citzaion itchurarie lazgarrienenetan. Oihu ere egiten cion cenbeit aldiz : Benoit! Benoit! eta nola saindua ez baitcitzaion behatcen, erraiten cion : Izan hadiela madaricatua eta ez benedicatua, hire icenac dion bezala! Cer icusteco edo egiteco duc toki⁶ hautan? Cer nahi darotac? Cergatic darotac egiten bethiereco gerla? Ordean alferretan ciren indarca horiec guciac.

Exitecco ere baluke izpiritu gaichtoac, eta hargatic erraiten dio oraino behin : Banohac hire langileac cer hari diren icus-

¹ Utzularrica. — ² Enjogidura. — ³ Debeiatu. — ⁴ Cherkha. — ⁵ Ardura. — ⁶ Gune.

tera. Berehala Benoitec ere mezutu cioten langilei contu eman cezatela. Bainan Sataneec arthiki zuen paret handi bat, eta haren azpian lehertu osoki haur gazte bat. Ecin gehiago loxatuac, haurridec ezarri zuten gorphutz hura, beren aitaren oinetan, eta Benoit sainduac pitzaraci zuen eta deusic izatu ez balu bezala sendatu.

Orduan hurbildu cen, toki hetarat, Totila Gothen erregea. Entzuna, eteela deus gorderic Benoitentzat, jauntzarazten diozca, lehen zamalzainari, bere aphaindura guciac, eta igorteen du Benoit buruz, harmadaco aintcindariez inguratua, iduriaraz dezola hura dela errege. Bainan sainduac erraiten dio, icusi dueneco : Utzatzu, ene haurra, erregeren aphaindura horiec, ez dire zureac. Gero oraino erran cion erregeri, haren gaichtakeriac handi cirrelacotz, etzuela bederatci urthe hairic bicitceco; eta errege basa harc etcherat zohalaric, dena ikharetan, galdegin cion, othoitz egin cezala harentzat.

Bertzalde eteen deus egiten abal etzuenic, zohala arimaco behar orduez ala gorphutcecoez. Icusten zuen, cein cen bakhoteharen exai berecia norc certan hux egiten zuen; eta gero, aithortu ciozcatenean, hux hec eginarazten cioten penitencia.

Bere haurren arimez bezalaco artha¹ zuen oraino hekien gorphutceez. Ascotan, othuruntzara bi edo hirur oren, etzuen oraino cer jaterat eman. Orduan, othoitz egiten zuea aita on hare, eta, doidoia tenoreco, han zuen behar zuen gucia.

Haukien gucien ondotic ethorri citzaion behin gizon bat, bere seme hila bizarrean; pitzaraz cezola bere haurra, othoiztera zohan, Benoit oihuz hasi cenean bere lagunei : Goacen hementic, goacen, ez da ni bezalacoei emana izaiten abal hilen pitzaraztea, bainan bakharric apostoluei. Hala ere gizon hare cin egiten dio, ez duela utceico, non ez dion semea pitzen. Icusiz etzuela hoberic, othoitz hau egin cioa Jaincoari : Janna, ez diozozutela begira ene bekhatuei, bainan urricial beikizu gizon hunen sinhestea. Othoitz hori egin zueneco haurra biciric cen.

Cituen argi eta botherez haukiei esker, bere ordena garratceco

¹ Ariangura.

etcheari erroac ¹ ongi eginaraciac cituen, hain kharxuki cerbitzatu zuen Jaincoac adiaraci ² cionean, bazuela aski guduca jasanic, aski garhaia ³ eremanic, bereganat hartcera zaramala.

Hiruetan hogoi eta hirur urthe cituelaric eritu cen. Ezagutu zuenean bazobacola bicia, eremanaraci zuen bere burua elizarat. Comuniatu zuen, eta gero, amodiozco solhas ⁴ batzuetan zagolaric Jaun Handiarekin, Ezcolaztica bere arrebaren hobiarren eta aldarearen artean, eman zuen azken haxa. Eta haren arima icnsia izatu cen carrica guciz aphaindua cen bati gora, ceruetan sartcen.

IRACAXPENA

San Benoitec bere arropaco Fraidei gomendatu diozcate berecki berthute h ue : Bekhatuen urrikia ⁵, Jaincoaren juiamenduen beldurra, pairamenen ⁶ eta laidoen pacientciarekin hartcea eta pobreciaren amodioa. Erraiten du, berthute horiec beretu dituen arimac galtcen duela Jaincoaren beldurra, eta azkenecotz Jaincoaren amodioz egiten duela hastean haren beldurrez baicen egiten etzuena. Horra saindutatsun egiazcorateo bidea. Jaincoac eman dezauca bide horren bururaino heltceco gracia.

Ezagutua da san Benoiten medailarentzat badutela orai ere izpiritu gaichtoec beldur handi bat. On da beraz medaila lunen berekin izaitea. Bakharric benedicatua izan beharra da hortacotz bothereac dituen apez batez.

APHIRILAREN 2^o

SAN FRANXES PAULECOA

Hila 4306^o

San Franxes sorthu cen Napleseco erresuman, Pauleco hirian. Hunen aita eta amac lucez egon ciren baurric gabe: bainan azke-

¹ Zoime. — ² Enthelegu eraci. — ³ Bitoria. — ⁴ Elbe. — ⁵ Dolumena. — ⁶ Sofricarier.

nean, beren othoitz kharxuei esker, izatu zuten lurra miraculuric handieneren harraboxaz¹ eta cerua sainduz bethe behar zuten semea.

Franxes icentzat eman cioten haur hau, altchatu zuten ditaken saindukiena; eta gero, hamahirur urthetara celaric, ezarri zuten bertce urthe batentzat Franciscánoen comentuan.

Jaincozco etche huntan aurkhitu² cituen ichiltasun eta bildura sainduen gatic, handitu citzaion, jadanic bere bihotcean sumatcen³ zuen Jaincoa ganaco amodioa. Hala-hala handic atheratu cenean, san Benoitec egin zuenaren egiteco gogoarekin cen. Eta eman cen berbera, ethecoen lurretan causitu zuen etcholatchar batean.

Ordean etcitzaiolacotz aski garratz bicitce hori, joan cen handic, ixaso hegirat, eta sarthu cen harroca handi batzuen tartean. Haice guciei zabalic cen cilho hartan, harri hotza ohetzat, harroca artetarie atheratcen cituen belharren erroac⁴ janhari, egotu cen, bortz edo sei urthez.

Orduan ethorri citzaion lagun cenbeit; eta, cerua irabaci beharrez zabiltzanaz geroz, hartu cituen bere haurtzat. Bainan haukien ondotic ethortcen zaio bertceric ere; geroago eta gebiago, hari zaizeo haurrac emendatcen; behar ditu beraz etche eta eliza handi batzu egin. Eta hasten da lan horri.

Ordu beretic agertu cen bothere guciac escuetan cituela eta etcela deus haren indarrez goragocoric. Egiten hasi zuen Eliza, nahiz aski cen ordu hartan cituen fraidentzat, bizkitartean, izan behar cituenentzat ttikiégia⁵ zaraman.

Jadanic paretac goza altchatuac, agertcen zaio san Franxesen arropaco fraide bat, eta galdetcen dio: Cer gatic hain ttiki egiten duen eliza? — Badakit ttiki dela, ihardesten dio sainduac, hainan ecin egin nezaken handiagoric. — Arthie zatzu paretá horiec, erraiten dio herriz ere arrotzac, eta conda zazu Jaincoaren laguntzaren gainean. Gero, epheric utci gabe, cimendu⁶

¹ Hedoxaz. — ² Causitu. — ³ Bogatcen edo nabaitcen. — ⁴ Zainac. — ⁵ Tchipiégia. — ⁶ Fondamen.

berriac athearaci¹ cituen, eta, galdu zuten handie fraide cela-coa, nor ez cer cen ezagutu gabe.

Arrotzac erran bezala, Jaincoac lagundu zuen san Franxes. Ecen, bere saindutasunaren gatic, hainitz aiphatua celacotz, han zuen nahi zuen langile gucia. Handiei berei etcitzaioten sobera haren laguntzea, ez bakharric beren diruaz, bainan oraino beren escuz. Bera ere hari cen, berteen artean galdua, eta hetaric arruntena bezain arrunt, ordean hekien laguntza guciz botherexua, cerbeit ecinbertcetan cirenean.

Behin kisu² labe baten erretcen hari cirelaric (etciren kisu labe hec lur barnean), erretzaileac ethortcen zaizco erraitera, labea lehertcera dohacotela, sua dariola sahaxetarie Franxesec igortcen ditu guciac, dohacila pausatcera; eta gero bera, sartcen da khaldan cen kisu labe haren barnean; enbocatcen³ du barnetic, enbocatcen du canpotic ere, eta suac ez dio gutieneco mina egiten.

Egun hetan oraino, barroca ikharagarri bat abiatu cen mendigainetic, eliza berriaren parparrean. Jadanic haren jauzi bakhotchac inharrosten du mendia; langileac, icusiz alfer dela ihes egin nahi izaita, pareta gainetan daude harrituac eta escuac cerurat chut-chuta. Inguru bat edo bertee oraino, eta eliza eta langileac lehertuac ditezke. Bainan, ez-baian zolara heldu denean, sainduac egiten du gurutcearen seinalea, hari buruz, eta han berean, higitu ere gabe gehiago, baratcen du harroca; gero ez dadien nihoiz mugi⁴, makhila ezartcen dio azpico aldetic phaldo-orde.

Horrela Satanec calte⁵ egin nahi, eta ungeric baicen etcioten egin. Ecen aintcietic arrundic ekharri behar zuten harria, orai han berean dukete harroca hartan.

Ordu berean langilec hainitz icusten zuten edateco escasez; Franxesec othoitz egiten du, eta sortcen da, harri asca baten barnetic, egundaino geroz agortu ez den ithurria.

Huna, oraino, egin cituen bertee miracuilu batzu: behin, gizon bat ekharri cioten, gorphutz alderdi bat hila zuena, sen-

¹ Idoceraci. — ² Laxun. — ³ Probocatcen. — ⁴ Zothuca. — ⁵ Gaitz.

daraz cezala : Sainduac erraiten dio eri hari : Horra somer bat, hor zure aldean ¹, har zazu othoi hori soinean, eta eremozute goiti langilei.

Ordean, ihardesten dio eriac, nola ni chutic ez nagokenac, higiaraz ere dezaket, idi uztartu batzuec egin ez lezaketena? Hala-ere lot zakizco, erraiten dio Franxeseac. — Eria, ahantciric hila duela alderdi bat, chutitcen da, besarcateen du zura, eta bizcarrean darama, egur zama ² bat bezain errechki ³. Bera-ere sendo cen, eta egundaino izatu cen hobekienean.

Bertce behin bazuten langilec, niholaz, lurretic altcha eteezaketen harri handi bat. Sainduac icusten du, haren gainean jarria dagola debrua, eta berari manateen dio, harri hura ezar dezala behar den tokian. Debrua bortchatua izatu cen obedi-teera. Hartu zuen harria eta ezarri harginec nahi zuten bezala.

Etche eta eliza horiec etciren aski izatu. Ethorteen citzaion jenden gatic, behar izatu cituen Italian berean bertce hainitz etche egin. Ecen handituz zohan, egunetic egunera, jendeac, bazter gucietaric, haren ganat zuen lehia. Bekhatore balin baci-ren, galdetcen cioten lagunt cetzala barkhamenduaren mereci-tcen. Eta, gchien aldietan, bere comentuetan har ceizan othoizten zuten.

Gero, hainbertce fraideren jatecoa escastea bacitzaion, ogi pichea ⁴ bat benedica, eta hartan berean bazuen behar zuen gucia.

Bekhatorekin batean han cituen oraino, bere inguruan, eriac: eta hec ere sendatuac itzultcen ciren etcherat. Hitz batez, erran citeken Jesus Jaunaren podore guciac escuetan cituela.

Italiatic Ciciliaco islarat zohalaric, han ere bere ordenaco etche baten a tchatcera, capitain batec etzuen bere untcian hartu nahi izatu, uste zuelacotz etciola sariric emaiten ahal. Etcen hargatic khechatu gure saindua, capa hedatu zuen uraren gainean, untcí orde, eta haren barnean bere lagunarekin, iragan ixasoa. Gero isla guciari ederrexaraci oudoan Jaincoaren ontasuna, itzuli cen bere lehen etcherat.

¹ Khantian. — ² Hache. — ³ Aise. — ⁴ Bouchi.

Denbora hartan Napleseco erregeac hainitz pairarazten ¹ cion bere populuari, nahiz san Franxesec erraiten cion, ez bacen biciteez ganbiatzen Jaincoaren colera haren eta haren ondocoen gainera erorico cela.

Bizkitartean erregeac, egiten ciozcan escaintzariac ederrenac hazakielacotz, saindua alde halin bazuen, etcela Jaincoaren justiciaz joa izaiten ahal. Horrela behin batez, etche egiteco on zukela, barraraci nahi izatu cion urheketa handi bat, nahiz ordu hura baino lehen ere, bertce hainitz gauza alferretan escaini izatu cion.

Bainan erraiten dio san Franxesec : Ez egin, Jauna, urhe hortaz amoinariac ; hobeki egin cinezake zucenic gabe, eta erromesei ² odola atheratuz bildu onthasunac beren jabei itzultcen bacinitu.

Hainbertcenarekin escainiac citzaizcon urhe hetariac bat ezarri zuen bi zathitan ³. Eta erregeac icusi zuen odola zariola. Bere baithan sartceco eta cin-cinez Jaincoa-ganat itzultceco aski bazuen arren ⁴, hala ere, egotu eta hil cen gerochago dohacabe hura bere bekhatuan.

Aiphatu ditugun miracuilu horieac eta bertce asco egiten cituetariac Italian, Frantziaco Errege Louis hamecagarrena ericen, eta jadanic asma ahal guciac egina, sendatu nahiz. Azkenean gaztigatcen dio saindu huni ethor dakiola ieustera.

Erregeac cion bere baithan : Berteentzat hainbertce egiten duenac, cergatic ez du enetzat ere cerbeit eginen ? Bai, iragaiten den toki gucietan, egiten ditu Italian bezain miracuilu handiac ; ordean ezagutu zuen Jaincoaren nahia cela, Louis etzadien senda.

Erran cion beraz, lehenago Isaias profetac Ezechias erregeari erran ciona : Antholazkitzu ⁵ zure egitecoac, ecen ez da zuretzat sendatceric. Erregeac othoiztu zuen, bederen sainduki hiltcen lagunt cezala ; eta hori egin cion san Franxesec.

Saritzat izatu cituen, bere ordenaco nahi zuen becenbat etche-

¹ Sofrierazten. — ² Prauber. — ³ Pousketan — ⁴ Nahiz bazoen. — ⁵ Chuchent itzalzu.

ren altchateeco escuac. Eta horrela hedatu cen, Francian ere, Minimen ordena, erran nahi baita bethiereco garizoma batean dauden fraide eta serora batzuen ordena.

Hainbertee lan eta urhaxen erdian, ikharagarria cen san Franxesen bicitcea. Etzuen nihoiz bere othuruntzaren egiteco bertceric, baicen ere ogi idorra eta harekin cerbeit belharrerria; edan nahi zuenean, ur huxa zuen edaritzat. Bidean bethi orthux, taula gogorra zuen ohetzat, zahartu arteraino; orduan estalki tchar bat ezartcen zuen taularen gainean. Bertzalde, maiz azotaten zuen bere burua, eta bethi bazakharzken¹ larru arraseco zurdazcoa eta gerrico gathea.

Berthute guciac distiratcen zuten hura baithan, bainan berteen gainetic agertcen citzaiona cen, Jaincoaren eta lagunaren ganaco amodia.

Erran diteke sutan zagola haren arima, eta hortacotz, ez suac, ez hormac², ez uriac etzutela deus lotkiaric haren gorphutzaren gainean; ecen suac etzuen erretcen, hormac etzuen hotzarazten, uriac etzuen bustitcen, lohiac etzuen cikhintcen³.

Lauetan hogoi urthe bacituelaric ezagutu zuen hurbilteen hari cela bere azken orenerat Arruntean, baino handiagoco bildura ortcizale saindu egunean, arraxaldeco hirur orenen irian⁴ sacramendu guciac hartua, ezti-eztia, loharcatu cen Jaincoa baithan.

IRACAXPENA

Harriteen gare icusteaz gizon bat hainbertee miracuilu hain errechki egiten. Certaco? Jesusec nor nahiri erran du : *Cer nahi galde dezazun, sinhesten duzularic ukhanen duzula segur, ardiexico duzu.* Ez dezagun galde miracuilu egitea; eta bai aldiz saindutea. Gracia hori ardiexico dugu gure fedea eta horren nahia aski bici balin badire; eta saindu izaitearekin, ez gaitezke grinatuac⁵ escas dukegunaz.

¹ Ekhartzen zutien. — ² Khorrouac. — ³ Theutcen. — ⁴ Ingourian. — ⁵ Khechu.

APHIRILAREN 2^{ena}

SANTA MARIA ESIPTOCOA, DEITHUA BEKHATOROSA

Hila 525^{ena}

Seigarren mendea citeken Maria Esiptocoac, nonbeit, mundutic urrun, eceztatcen cituelaric gaztetasun barreiatu bateco luxac penitenciaric icitgarrienez.

Denbora betan Esiptoco eta Palestinaco mortuac¹ herri bilhacatuac bezala ciren, han alchatu ciren fraide-etchez. Palestinaco comentu hetaric bat husten cen garizoma guciez: haurideac ecen, penitencia gehiagoren egiteagatic, atheratcen² ciren, eta bazauden, berrogoi egunez, deus atherberic gabe, oihan barnean.

Horrela behin athera ciren fraidetaric bat Zozime, sainduta sun handico gizona, bazohan geroago-eta-urrunago, gogoari emanetz, behar-bada bere arimaren onetan mortutiar cenbeit saindu aurkhituco³ zoela.

Bazuen, jadanic, hogoi egun nahikeria horrec zaramala, iduritu citzaionean, othoitcean hari celaric, cerbeit bazuela aldechean. Begiratcen dio hobeki: Eta ezagutcen du jendea dela aintcinean duena, nahiz ez dakharren⁴ deus soinecoric. Gorphutza iruzkiaz⁵ errea du, biloa doidoia lephoraino eta elhurra bezain churi; ageri ere du ez dela gehiago hezur eta larru baicic.

Dena boztua abiatcen da hari buruz, eta aldiz mortutiarra, hau bezain zalhu, badoha hura ere ihesi. Fraideac oihu egiten dio: Jaincoaren adichkidea, trica⁶ zait! Jaincoaren adichkidea, urricak zakizkit⁷! Bainan bertcea bere bideari doha, handic-eta ur erreca idorturic den baten bertce aldera heldu den arteraino. Eta orduan ihardesten dio: Zozime, ene aita, etzakiz-

¹ Bortiac. — ² Jalgiten. — ³ Cau-ituco. — ⁴ Dian ekharten. — ⁵ Ekhiacz. — ⁶ Ekhuaz. — ⁷ Ukhezu pietate nitaz.

kidala ethor hurbilago, ezen emazte naiz. Ordean, mintzatu nahi zarozkidanaz geroz, arthie diezadazut capa.

Zozime etciteken gehiago lastu eta etzuken lasterrago jauci egin gibelerat, suge baten lehertecotan izatu balitz. Hargatic arthikiteen dio galdetcen diona.

Gero, capa hartaz jauncia, oinetaratu zaionean izaite gogoe-tarazgarri hura, haren aintcinean belhaunicatcen da, erraiten diolaric, nor nahi izan zaitecen benedica nazazu. Bainan bertceac ihardesten dio : Ez, ezda ni bekhatorosari nihoren benedicatcea. Zuc, Zozime, benedica nazazu, apez zarenaz geroz.

Bai, Zozime apez cen, bainan higitu ere gabe belhaunico za-gon aintcina; eta azkenean emazte haren ahotic athera ciren solhas¹ hauc : Gare gorphutceez eta arimez hainbertce artha² duen Jauua izan dadiela benedicatua menderen mende. Eta Zozimec ihardexi zuen : amen.

Gero galde hau egin cion Zozimeri : Emadazut berri, certan da Erlisionea? Nola doha Eliza? — Bakean gare, ene ama, erraiten dio Zozimec, eta nic uste, zuri esker. Hala-ere aintcina othoitz egizu, othoitz egizu enetzat-ere.

Horren gaincan baztertu cen cenbeit urhaxez sainda hura, belhaunico jarri, eta berehala, Zozimec icusten du, lurric ez bertceric ukhi gabe, airean dagola, eta ez jakinez gehiago non den, ez cer duen begien aintcinean, hura ere ahuspecatua³ hari cen ceina-eta-ceina, bertceac, haren icialdura-icusiric, erran cionean : Zozime, ez duzu ceren icit, hezurrez naiz eta haragiz zu bezala.

Hitz horiez curaiestatua Zozimec erraiten dio : Orai icusten dut egiazki Jaincoaren adichkide batekin naicela. Ordean, ene ama, ezagutaraz diezadazut nolaz, eta noizaz geroz, zaren mortu zokho huntan. Nahi nake jakin oraino, nola bici izatu zaren. — Zozime, ihardesten dio saindac, bihotza zaurthua ezarri behar darotedan gaucei berriz begirateera bortchatcen nauzu; hala-ere hasten naiz, urricalduco zuizkidalacoan.⁴

¹ Elhe. — ² Arrancura. — ³ Burkhoca jarria. — ⁴ Ukhenen dazulacouan pietate uizaz.

Esipioarra naiz sortcez, eta hamabi urthe nituen gaizkiaren ezagutcen eta maithateen hasi nintcanean. Ordu berean galdu nuen Jaincoaren beldurra, eta horren gatic ibili naiz hamazazpi urthez, bihotz galdu batez manatcen zarotan bezala, bekhatuz bekhatu eta ifernuco hibe zabalean.

Eroria, zolaraino jauxia, han lo nindagon, egun batez, erraiten darotedanean, Dona Gurutceco besten icustera, badohala jende Jerusalemerat. Ni ere banoha bertcekin. Elizan ere sartcera nindohan, soca ageri etcen batez izatu nintcanean, ni bakharric gucien artean, canpoan atchikia.

Ahalkez urthua, itzultcen naiz plaza ezkina batera; han gogoratcen zait, ene bekhatu lazgarrien gatic, nidekela horrela ¹ berecia izatu; eta ez nakien cer egin.

Hainbertcenarekin, ohartcen naiz Birgina Sainduaren potret baten azpian naicela. Ama on hari orduan herxatu ² nintcen, hitcemaiten niolaric bekhatuaren eta munduaren uztea, ene ararteco nahi baliabacen izan bere Seme Dibinoaren aintcinean. Agintza ³ horren ondotic etcen gehiago trabaric; sarthu nintcen elizan eta adoratu nuen Gurutce Saindua.

Orduan entzun nuen nere baithan mintzo bat, erraiten zarotana: Jurdango hibaia ⁴ iragaiten baduzu, izanen duzu bakea. Eta berehala, othoizten nuelaric oraino ere Ama cerucoa, berac eracax cezadan norat joan, abiatu nintcen hirur ogi nerekin harturic. Jondoni Joanes-Batichtaren elizan egin nuen comunione Saindua, eta, huna orai berrogoita zazpi urthe, hemeu neroni ⁵ naicela.

Egundaino geroz ez dut icusi nihor, ez eta basa ibiciric ere. Ikhara latecan izaiten naiz egungo egunean ere, orhoitcen naicenean, hamazazpi urthez, cenbat pairatu ⁶ dudan gose egarrietaric, hotz beroetaric eta debruen aldetic. Ordean, ene axecabe ⁷ gucietan, herxatu naiz bethi Birgina Maria Sainduari, eta bethi lagundu izatu nau.

Galdetcen darotazu, certaz bici izatu naicen; nere hirur ogiac

¹ G sa hortan. — ² Adrezatu. — ³ Hitzemaite. — ⁴ Uhaitza edour handia. — ⁵ Nihaur. — ⁶ Sofritu. — ⁷ Nahigabe.

janez geroz, ez dut bertce jateoric izatu, escupean causitu dukedan belharra edo erroa baicic. Ordean benedica nazazu, ene Aita, badautzut aski erranic, banoha! ez nitaz mintza nihori; eta helduden garizoman, ortcegun Saindu arraxaldean, zathorzk¹, othoi, Jurdango hegira comunione sainduarekin.

Zozimec, harritua, hartu zuen bere comenturateo bidea; eta, ondoco urthean, hitzartu tokian² cen, erran egunean.

Jadanic ilhunteen ere hari, berantesten hasia cen, icusi zue-
nean sainda hura uraren gainean ibilki leihorrean³ hezala.

Orduan, oraino, Zozimec entzun ciozcan solhas hauc; lehenic, Jesus Jaunari mintzo celaric: Jauna, orai, nahi duzunean har dezakezu zure ganat zure nescatoa, ecen ene bihotzac badu guti-
ciatcen zuen zoriona⁴; gero berari, uraren gainean abiatcean, erraiten dio: Helduden urthean ere, Zozime, hel zaite lehen aldian aurkbitu nauzun tokira.

Zozimec, ustez oraino sainda hunen cenbeit elbe entzun-
nen zuela, joan cen; bainan hila cen orducotzat, eta, haren gorphutzaren aldean, harean⁵ iscribatuae, causitu cituen hitz hauc: Ni-naiz Maria Esiptoarra, hila ortcegun saindu arraxean; hemen ehorts zazu ene gorphutza. Hitz hauc aingeru batez izatu citezken iscribatuae, eta bazuen urthe bat Jainco onac gorphutz hura osoric zagocala.

Jaincoac oraino bertce miracuilu bat ere egin nahi izatu zuen haren gatic. Zozime sainduac etzakielaric nola ehorts gorphutz hura, lasterea ethorri citzaion lehoi bat, eta ezarri zuen hare zarrapoca⁶ egin cilhoan.

Gero itzuli cen bere haurridei eta munduco giristinoei errai-
tera cer zuen icusi, eta gucien bihotcetan su berri baten pitza-
raztera, contatuz, nolaco penitenciac cituzten egiten bekhatua cer den zakitenee.

IRACAXPENA

Ah! Jauna, othoi emaguzu beraz ungi ezagutcea cer den

¹ Jin zakizkit. — ² Gunian. — ³ Lur idorrian. — ⁴ Irousitatia. —

⁵ Harinaren edo sabliaren gainan. — ⁶ Aztaparca.

bekhatua; saina miragarri hunc bezala, contricioneric hazcarrenaz eta penitenciaric garrateenez, eceza detzagun gureac. Maria bekhatosaren arartecari izatu zarena, Ama Birjina saindua, ardiex diezaguzu, guri ere, gure bekhatuez nigar egiteco gracia.

APHIRILAREN 5^o

SAN BICENTE EDO BICHINTCHO FERRIER

Hila 1419^o

Espania Balenciaco hiriac berea zuela erran behar zuen saindu hau eteen oraino sorthua, eta, jadanic, hunen aita jakinxun cen seme guciz aiphatua izanen cen bat zohacola sortcera. Chakhur sainga¹ batzu ere amac entzuten cituen bere barnetic, haur hau oraino bere erraietan zakharrelaric². Horra cergatic biac harico diren, cein hobeki, Bicente deithu zuten semea baithan berthutearen haci sainduen eraiten; horra cergatic errencura berarekin urrunduco dituzten haren aintcetic, arimaco edertasuna histen ahal cioten gauza guciac.

Goicic escoletan ezarria, hamazazpi urthetacotz ikhasia zuen nagusi handienec iracasten ahal cioten gucia. Orduan sarthu cen Dominicanoen ordenan, eta, etebe huntan, denboralaburrez, hazcartu cen Jaincoaren amodioan.

Bazuen bereciki Jesusen pasionearentzat atchikimenduric handiena; zuen fede biciarekin gurutceari begira³ egon, eta etciteken izan bertcela. Jesus Jaunarentzat pairatcea⁴ zuen orduan bilhateen⁵. Ondoan, apeztu ditekenean ere, ez du bertce predicuric emanen, baicic ere, gurutcearen oinetan, hari begira egin dukena. Eta, bere mintzo sarcorretic, ageri izanen du Jesus Jaunaren amodioaz sutan duela biho'za.

Predicatcen hasi cenetic laster, eracuxi zuen mundua har-

¹ Chaupha. — ² Ekharren cialaric — ³ Soz. — ⁴ Sofritcia. — ⁵ Cherkhateen.

teen hari zuten ilhunben gainera, argi berri bat zohala jeiki-
teera.

— Gure arimen exaiac ere etzuen bertce beldurric, agertuz
lehenagoco denboretaco fraide zahar haten itchuran, erran cio-
nean : Gazte nintcelaric, orai zure adinean josteta hari ninteen
munduan. Berantchago joan izatu naiz deserturat, eta onhexi
darozkiz Jaincoac egin ditudan urrikizco¹ nigarrac ; egizu, zuc
ere, nic bezala. Bertzalde badakizu, baldin ez bazare aski hazcar-
etzarela deusetaco on ; sinhex nazazu eta ez dazazula hoin
gaizki ekhar zure burua.

— Ohakit² Satan, begien aintcineac, ihardexi cion sainduac,
hala gaztean nola zaharrecan, nahi ciozcaiat ene egun guciac
Jaincoari eman.

Bertce behin, bazakielaotz Jaincoa ganic behar dugula gar-
bitasunaren beiratceco gracia, Bicente gaztea Ama Birjinaren
aintcinean zagon, dohain horren galdez, noiz eta-³re entzuten
baititu solbas hauc : Nahiz orai arteraino garbi izatu haicen ez
dukec bethi horrela.

Harritua, berriz ere herxatcen³ da Birjinen Erreginari ; eta
Ama samur⁴ harc, agertcen citzaiolaric, erran cion : Etzaitce'a
loxa, Bicente, ene haur maitea, zure aldean naukezu zure hici
gucian, eta etzure erorico.

Gure arimen exaia, errabian da ceren oraicoan ore ez duen
garhaituric izaitceco ahalkea baicic irabaci, eta egiten du oraino,
cenbeit denboraz, emazte gaichto batzuen bidez, ahal duen
gucia saindu gaztearen bekhaturat lerrarazteco ; ordean alferre-
tan izanen da indarrea hau ere. Chutic dago bethi Bicente.

Handic lastercheo, bere predicu eta penitencia handic
unhatuegi⁵ zutelacotz, eritu cen Avinonen, Aita-Saindu Benoit
hamahirurgarrenaren etchean celaric. Jadaneco ecin geliago
gaizki, leha zauden guciac, noiz emanen zuen azken haxa.

Bainan ez, etcen oraino hil beharra. Gure Salbatzaile Jauna
bera agerteen zaio, eta erraiten dio : Bozcaria zaitc, ene haurra,

¹ Dolumenezco. — ² Jouan bakit. — ³ Adrezatcen. — ⁴ Tremde. —
⁵ Sobera cuhe.

ecen zure othoitcen arabera egina izanen da. Elizac baduke laster lakea eta batasuna. Zue ere behar duzu oraino zure khoroa edertu nekhe eta axecabe gehiagoz. Predica zozute ene Ebanjelioa Espainiaco eta Franteiaco jende guciei. Badukezu hainitz pairateco, orlean zurekin izanen naiz. Solhas¹ horien ondotic, nkli cion macela² eta utci zuen conxolacionez bethea.

Sendatu bezain sarri, eman zuen beraz bideari, eta hainbertce su eta kharrekin predicatceari, non jendea jendearen gainean, eta bazter gucietaric osteca ethorteen baitcitzaion cen tokira. Eta gero entzun zutenean mintzateen bekhatuaz edo ifernuaz, edo azken jujamenduaz, bekhatorec lehia zuten barkhamenduren bilhatcera penitentciaco sacramenduan; ecen okhaztatua³ ciren beren bekhatuen beltztasunaz, latzduraric eta ikhararic handienetan zauden, beldurrez Jaincoaren justiciac jo cetzan cobesatu baino lehen.

Giristinoen artean fedea hainitz ttikitua celacotz, eta gizona bazter gucietan axeginen ondotic zabilalacotz edo onthasunen ondotic, Jaincoac eman ciozcan fedearen hazcartzeco behar cituen bothere guciac.

Ethorkizuna⁴ ezagutcen zuen denbora iragana bezain ungi. Icasten zuen nor cer bekhatuz hobendun cen. Haren ondotic zabilan jendea gertha⁵ zadiela jatecoric gabe, egiten zuen gure Nagusi Dibinoac egina zuena: Behin, herri eta hiri gucietaric urrun, celhai batean cen jendeketa ikharagarri batekin, eta eteen ogiric otharretarabat⁶ baicen; hala ere emaiten dio bakhotchari nahi duen becen bat, eta, guciec beren zaibia izan arteraino otharreari bethi ogia dario.

Bertzalde, gorphutceco eta arimaco eritasun guciac sendatcen cituen. Eta gero lura cen tokian balin-bacen fraide etcheric; hetaric batera zohan, ez lo egitera, lainan Jesus Jaunaren amodioaz bere bihotzaren sustateera, haren pairamenci⁷ eta haren gurutce sainduari begira egonez.

Behin hiri batean, etcelacotz fraide etcheric, gizon jaincotari

¹ Elhe. — ² Mathela. — ³ Desgoustatiac. — ⁴ Geroua. — ⁵ Agit. — ⁶ Zaretara bat. — ⁷ Sofricarier.

batec othoiztu zuen haren ethean egin cezan bere egoitza; sainduac onhartu zuen escaintza hori, eta jauxi cen haren etcherat.

Gizon hunen andrea, emazte bat cen, noicic behinca burutic galteen ohi cena. Biharamunean badobaci, saindua predicatce-
ra, ostalera ere haren entzutera, eta etchezain, arrainezco bazca-
richca bat haukientzat eginen duela, gelditcen da emaztea,
haur ttiki batekin ¹.

Ordean, eguerditan, huna cer zaion gerthatcen ostaler doha-
cabeari: lehenic, etcherat heldu gabe, nabaitcen ² da ezagutcen
etzuen usain bat; gero, ethean sartcearekin, causitcen du
emaztea osoki nahasia, eta gaitcen-gaitcenean; begiratcen du
oraino, eta horra non, zarthaina batean, su aintcinean, icusten
duen cerbeit haragizeo jateco, eta aldiz, zokho batean, bere
haurraren erdia; bertee erdia cen jadanic errea cen haragi
hura.

Ecín hemen erran ditkena da, nolacoa cen aita haren bihotz
mina, eta cer eximendutan causitu zuen sainduac, ethorri ³
cenean. Bainan Bicentec jakin dueneco cer iragaiten den, ekhar-
razten ditu pichea ⁴ guciac bere aintcinera, ezartcen ditu
elkharren aldean, othoitz bat egiten duelaric, eta ordu berean
picheac lotcen dire pichkei, puscaic puskei, zathiac zathiei,
osotcen da haur gaichoaren gorputza, eta azkenecotz pizten
da haurra.

Egintza horren ondotic errechki ⁵ sinhetxaraci zuen Jaincoa-
ren manuz cituela egiten bere urhaxac.

Bacen bertee miracuilu bat noiz-nahicoa. Mintzo cen bethi
erdaraz; eta bizkitartean, izan zadiela Frantciaco cein nahi
tokitan ⁶, Italian, Alemanian, Angletarren, Irlandan, orotan
bethi aditua ⁷ cen. Gerthatu zaio oraino berrogoi bat mila jen-
dei batean mintzatcea; eta, nahiz bethiereco barurez, bethiereco
curridez eta lanez lehertua zagon, hala-ere, guciei entzunaraz-
ten eta adiarazten cioten bere predicua.

¹ Tchipiareki. — ² Bogateen. — ³ Jin. — ⁴ Bouchiac. — ⁵ Aise. —
⁶ Sunetan. — ⁷ Enth-legatia.

Azkenean, Bretanian Vaneco hirian izanki, eta bacituelaric orducotzat arimac ehun milaca Jaincoa ganat itzularaciac, ezagutu zuen hurbildua cela haren orena; eta, berekin zabilzcan apez lagunei axegin¹ egiteco, abiatu cen hiritic, bere herriat behar zuela itzuli. Gau gucia badabiltza, nihon pausatu ere gabe, eta horra non icusten duten argitzean, jadanic urrun cirela uste zutelaric, oraino hirico athean² direla. Sainduac errechki aditu zuen Jaincoaren nahia cela, han, hiri hartan be-rean, egon zadien.

Sarthu cen beraz behin bethicotz Vaneco hirian, ciolaric : Balentcia, ene herri maitea, etzait behatu nahi izan; ez da Jain-coa ganat itzuli eta horrengatic ez du ene gorphutza nihoiz icu-sico.

Handic laster eritu cen, eta errau cion jaun apezpicuac hamar egunen buruco hilen cela.

Lur huntan iragaiteco cituen hamar egun hetan, etzuen berac gehiago bertce lanic, baicen ere, cobesioaren bidez, bere ari-maren geroago eta garbiago ezartcea. Azkenean galdetu cituen sacramenduac eta indulgentcia plenarioa. Gero, erran egunean, aphirilaren bortcean, agoniaco othoitzac akhabatcearekin, eman zuen azken haxa, hiruetan hogoita bi urthetan; eta, bere lan eta unhadurez irabaci sarriez gosatcerat, igan cen ceruetarat.

IBACANPENA

Eman gaiten saindu hau bezala gu ere Jaincoaren escuetan, egin dezan gutaric nahi duena. Ez bide duke nahi miracuiluric egin dezagun; bainan hobeago dena, nahico gaitu bere graciaz baliaraci, eginen gaitu saindu, eta hartuco mundo huntan eta bertcean beretzat : halabiz.

¹ Placer. — ² Eorphan.

APHIRILAREN 16^{to}

SANTA ENGRACIA EDO GERACHANE EDO GRACIUSA

BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 303^{era}

Dioclecien eta Maximien imperadoreen manuz, Dacien, Espainiako gobernadore bat, hari celarie Zaragozaco hirian, giristino icena galaraci beharrez, ethorri cen hiri hartara Portugaletic, printce handi baten alaba bat; Engracia zuen icena. Rousilongo capitain aiphatu bati hitcemana ezcontzaz, orduan zohan andre gazte hau, erresumaco lehen hemezortci gizon gaztez lagundua, aitaren ustez, ezteietarat, ordean bere baitian egiten zuelarie, etcela harentzat, lur huntan, izanen ez ezteie ez senharric; nolazpeit ere, emana izanen citzaiola Birjina gelditcea, eta ceruan eternitateco ezteiez, gozatcea. Ecen giristino cen Engracia, giriztino ciren ere haren lagunac.

Heldu deneco Zaragozara, badoha Gobernadorearen gana, eta erraiten dio : Cergatic hari zare giristino odolez, bazter gucien gorritcen? Giristino garela, gu ere, jakin zazu; bainan horren gatic cer gibeltzopen duzu zure egitecoetan. Balinbadakigu, zuen jaincoen bultcoetan¹, debruac ditutzuela adoratcen, cer laido egiten dautzuegu hekien jaincotzat ez hartceaz?

Hainbertcecoac entzutearekin, ez daki Dacienec non ez certan den. Hantchet dago, higitu ere gabe, eta begiac itzatuac birjina gazte haren gainera. Azkenean, colerac aski odol iganaraci dionean burura, chutitcen da, hartz ihiztariac jo duenaren pare, eta, azote ukhaldica, cheha dezatela, emaiten flu manua.

Pairamen² horien ondotic, estecarazten du zaldi baten buxtanari, eta horrela, ibilarazten carricaz-carrica, dena uspelcatu³ eta umatu⁴ den arteraino.

Biharamuncan lazgarriagoac zauden oraino harentzat. Bur-

¹ Potretetan. — ² Sofreari. — ³ Dolouritu. — ⁴ Lehertu.

dinazco aztapar batzuez ezartcen dute hain ixuski larrutua¹ non hertceac ageri baitcituen, eta gibel-errai pusca bat, geroan beiratua eta giristinoei eracuxia izatu dena, khendu baitcioten. Horrien ondotic, ebakitcen diote ezkerreko bulharra eta horrela egin dioten cilho lazgarritic, bihotza ageri izanen du.

Tigren pareco jende bekien aztaparretan celaric Engracia saindua, hazcartua cen Jaincoaren graciaz, eta hortacotz pairatuago eta bozcarioa handiago dohaco. Icusten du ecen hurbiltcen hari zaiola ezteietacoeguna, eta Bildox notha gabearen aintecinean, aberaxie eta ederric bortchatua dela agertcera.

Gobernadoreac etzuen nahi izatu berehala akhaba citecela haren oinhaceac.² Cena-cen igorri zuen gaztelurat, han hiltcea bera baino hainitcez ikharigarriago cen biciaz, ahal zueno, bici zadiela. Eta nahiz zauri, guciac gaizcuratuac³ dituen, hala ere bicico da aintcina Engracia Saindua odol usteldu⁴ bat dariola gorphutz gucitic.

Azkenecotz, oinhaceric handienetan cen Birjina hunen orhoitzapenac herstuten cion bihotza Dacien gaichtoari, inguma⁵ batec bezala; bortchatua da beraz hilaraztera; eta hortacotz, itce handi bat sarrarazten dio burutic. Horrela igan cen ceruetarat Jesusen espos kharxua.

Ordu hura baino lehen, tiranoac burua motzaraci cioten haren lagunei; eta, ehortci cituzten, hobiaren gainean iscribatu cituzten giristinoec haukien icenac, marmolazco harri batean. Santa Engracia ere ehortci zutenean, egin cioten bertcei bezala, icena iscribatu marmolazco harrian.

Handic hamar edo hameca ehun urtheren buruan santa Engraciaren ohoretan, eliza berri baten egiteco lanean hasten ciren Zaragozaco hirian, noiz-eta-ere aurkhitu⁶ baitcituzten, ordu artio gordeac egotu ciren bi hobi hauc. Eta barnean, saindu haukien hezurrae, ehortciac cirela, cenbeit egun bakhar baicic izatu ez balute bezain oso. Horrela Jaincoac eracuxi

¹ Luhardekia. — ² Sofricariae. — ³ Subartiac edo gaizcandiac. —

⁴ Hirotu. — ⁵ Amez gaichto. — ⁶ Causitu.

zuen, cein ciren handi haren begietan, eta cenbatetarainocoan zarokigun baliatcen ahal hekien arartecotasuna.

Azpaldi du, arartecotasun hori cein den botherexua, ezagutcen dutela Zuberrotarrec. Santa Engraciaco herriac ecen, diotenaz, escale¹ bati esker, izatu zuen, duela jadanic hainitz ehun urthe, sainda handi hunen escu bat.

Escu hura, ondicotz², Eliza erre cen batez, galdu cen, bairnan, egungo egunean ere baditu bere Patroinaren erlekiac santa Engraciaco eliza ederrac. Ecen meza emaiteco heinean ezarria izatu cen bezain laster, joan ciren herri huntaco comentuan zauden calonjeac Zaragozara; eta handic, zobacon icustate guciarekin, ekharri zuten saildu hunen erbi bat; eta Escualdunec, urrunecan ere, badakite, erleki hunen ohoretan egiten diren urhaxac ez direla guciac alferretan.

IRACAXPENA

Santa Engraciaraco bide gaitzari gora iganic, edo garen tokitic, herxatcen³ bagare saildu aiphatu huni, gure mundu huntaco behar orduetan hel dakigun, galde diozogun oraino, ardiex dezancula, guri ere, Jesus Jaunarentzat zuen amodio kharsu hartaric, bederen phindar⁴ bat.

O birjina eta martir bihotzduna, egizu zure othoitceez, ez dezaten gure bihotcec bertce erregeric izan, baicen Jesus Jauna gure amodio gucia harentzat izan dadien; egizu gure amex gucia izan dadien, nolaz heltcen ahal garen orai gozatcen duzun dohaxutasunera.

APHIRILAREN 16^{ean}

BENOIT JOSEP LABRE DOHAXUA

Hia 1783^{ean}

Saildu hau sorthu cen Bouloñeco Diosesan, Amettes deitcen den herri ttikian. Haur-haurra cen oraino, eta jadanic, alferre-

¹ Biltzalu edo praube. — ² Malerouski. — ³ Adrezatcen. — ⁴ Chinkha.

tan cioten ethecoec erraiten zobala lagunekin jostatcerat. Bainan Benoitetcelacotz jostagura, jostetagiatarat¹ joan-orde, zohan edo elizarat, edo cenbeit selaru² zokhotarat; eta han, zagon, edo iracurtcen, edo gurutce bati gorphutceco begiez soz, izpiritucoez, galbarioco mendian iragan cen michterio handiari.

Burhasoec³, eta bereciki, osaba, apez batec, hura ere apez dadien nahi lukete, ecen latina arras ungi ikhasia zuen. Ordean ez dio gogoac Apeztu behar duelaoric emaiten. Eta, ethecoen baimena⁴ izatu ahal duen bezain laster, sartcen da fraide, char-treusen comentuan. Etcelacotz hura ere Jaincoac harraraci nahi cion bidea, ez orduan, ez egin zuen bertee sar aldi batean, ecin gogortu cen ethe hartan.

Jo zuen beraz Trapistetara, garratzagoa den ethe huntan berderen egonen cela ustez. Bainan ez, eritu cen, eta miricuec erran cioten, Trapisten bicitcearentzat, etcela aski hazcar. Ethe horietaric canpo Jaincoaren escuac zuen ezartcen, nahi c'olacotz bertee bideric harraraci. Benoitec behar zuen, San Alexisen urhaxei jarraikiz, lur huntaco axeginei⁵ estercatuegia cen mende galdu bat gogoetaraci. Utcu zuen beraz Frantcia; eta abiatu cen, hura, etheco seme ona cena, escalen phildatcharrez jauntcia, Giristinoec maitenic dituzten eliceu eta tokiei⁶ buruz.

Lehen trica⁷ aldia egin zuen Andre Dena Maria Loretacoaren elizan, bigarrena San Franxes Assisecoaren hobian, hirugarreneco heldu cen Erromara.

Erroman gehienic maite cituen egiutza sainduetaric bat cen, Jesu-Christo gure Jaunac Jujearen aintcinean agertceco igan, eta geroztic Jerusalemetic Erromarat ekharriac izatu diren pausuei gora belhaunico joaita mail bakhotchcan gogoan ibiliz, hekien beren gaincan cenbat trufa, eta laidoren josaita behartu citzaion Salbatzaile maiteari.

Erroman urthe baten heina⁸ egoturic, joan cen Fabrianeco hirira. Hiri hartan, behin uriac-uriari⁹, carrican zohan andre

¹ Jostatceco tokietarat. — ² Sabai. — ³ Aita eta amec. — ⁴ Laudamena. — ⁵ Placerer. — ⁶ Lekhier. — ⁷ Ekhura. — ⁸ Ingurunia. — ⁹ Ebiac-ebiari.

alhargun batec sarraraci zuenean bere etchean. Eta gero, haren begitartean berean iracurtuz etzuela edo cein escalerekin¹ bere egitecoa, jakinxun egin zuen, bihotza zaphatzen eta berstutzen cioten axecabe² guciez.

Eta Benoite bere ceruco solhas³ ezti eta samurrez⁴ hain ungi gantzutu⁵ ciozcan bihotceco zauri hec guciac, non, dena boztua, galdegin baitcion dohain bera, hederatci urthe hetan, barneco min-gaichto batez jana, ohean zagon nescatcha baten-tzat.

Benoit Sainduac etzuen eri hau sendatu, bainan huni ere adiaraci⁶ cion, cein cen handi, mundu huntaco pairamenen⁷ bidez, egiten ahal cen irabacia. Eta orduz geroz eria zagon, gogo onez, eri izaitera. Hiri hartan etcen lucegi egotu eta eman zuen herriz-ere bideari, beldurrez jendeac icustate cerbeit ekhar ce-zon; iragan cen beraz Napleseco hirirat.

Naplesen, ecin gehiago ukhitua da presondegico athe⁸ aintcinean, icusteaz, hantche daoizatela dohacabe batzuec escuac alferretan, hardin ciren artetic canporat luzatuac, begiratec⁹ bat dutela, doidoia iragailetarje, eta gero bertceric deusere.

Berehala zapela ezartcen du lurrean, haren gainean gurutce-fica bat, eta, belhaunico, hasten da Andre Dena Mariaren lethanien cantatcen. Ordean cerutiar bat cela cantuz hasten erran citeken; hain zuen ezti eta ukhigarri boza. Jendea bortchatua celacotz hari behatcera, bildu zuen dirutce on bat, eta gucia ordu berean, eman presondegian zaudenei.

Naplesen eta Naples aldean icusten zutenec cioten; oraino denborarekin erromes¹⁰ hori diteke Elizarentzat aphaindura eta edergailu berri bat. Hola-hola, eta bere lagunei ahal zuen un-gia eginez, ibili cen lucez Suisaco, Alemaniaco eta Franciaco tokiric aiphatuenac gaindi.

Berthute guciec distiratcen zuten hura baithan, ordean baci-ren bia bertcen gainetic agertcen eitzazconac. Hec ciren, othoitza-ren amodia eta pairamenen gose bethiereco bat. Othoitza

¹ Biltzaliareki. — ² Nahigabe. — ³ Elhe. — ⁴ Trendez. — ⁵ Onnetatu. — ⁶ Enthelega eraci. — ⁷ Sofricarien. — ⁸ Bortha. — ⁹ So. — ¹⁰ Praube.

hain zuen maite, hainbertce zuen egiten, non cenbeit tokitan deitzen baitzuen : Othoitcezco gizona. Othoitcean cenean, haren izpirituac hain ungi bat egiten zuen begietan zuen berthute, edo michterio edo izaitearekin non, haren aldean cer nahi iragan zadiela deusez ere ez baitcen ohartcen.

Horra cergatic predicurie ukhigarriena cen haren icustea, batzuetan lerrari ahuspez¹ emana, bertce batzuetan, ez osoki airean ez eta ere osoki lurrean, bainan higitu gabe zagola. Birjina Sainduaren bulto² baten aintcinean balin bacen bere ustez ahopetic hariki eta entzutenciozcaten hitz hauc : Ene Ama ona ! O Maria nere Ama ona !

Aldareco Sacramendu Sainduaren oinetan balin bacen, ageri zuen ezagutzaz eta amodioz bihotza urteen hari citzaiola. Bainan zagonean begira gure Nagusi Dibinoaren pasioneari, hainbertcetaraino citzaion urricaltcen Jesus ona, hain bihotz mia handia loteen citzaion, non, ithurritic ura bezala baitzarion begietaric nigarra.

Bertzalde, Jesus bere guciz maitearekin, geroago eta gehiago iduripen hartceagatic, nihoiz ecin aski pairatua zuen. Bere harat-hunat gucien ondotic, izan zadiela unhaduraz³ trencatua,⁴ hala-ere behar zuen, oraino, gorphutza chehacatu azote ukhaldica.

Erroman iragan cituen lehen urthetan, pareta zahar batean aurkhitu zuen cilhoan zuen bere egongia. Ondoan eta alde bat ethorri cenean Erremarat, egoiten cen, orai, athe zahar baten azpian, sarri, bertce pilar baten gerizan⁵. Bacen bustia, bacen hotza, bacen-ere hormatua⁶, deus estalkiric gabe zagon deus oheric gabe, lur edo harri huxaren gainean.

Etzuen soinecoric ez oinetacoric, larruaren estalceco behar zuena baicen. Hec ere hain telarrac non, niholaz-ere, ez baiteezaketen hotz-bustetiaric beira. Gero oraino, zagon cirautcino⁷ bethi batzuekin, nihoiz⁸ deus aldatceric gabe.

Hortaric asmatceco⁹ da cer bethiereco pairamenen erdian ci-

¹ Burkhoa. — ² Potret. — ³ Eñhiaz. — ⁴ Ethenic. — ⁵ Achalbian. — ⁶ Kharrountatia. — ⁷ Irailen cieno. — ⁸ Secula. — ⁹ Phenxatecco.

teken. Horrela pairarazten ciotenen gordetceaz zuen bertceci deusetaz baino errencura gehiago, nihor ez esta-ere haren escale lagunec etzadien okhazta¹ burua eta gorphutz gucia hartzen cion cikhinkeria icusiz.

Benoiten janaz mintza nadien, bertce nihorentzat on etcen gucia cen, harc bilhatcea zuena. Izan zadiela fruitu usteldua² edo belharrerria carricarat arthukia, eta iragailez, hogoi aldiz pilatua³, aintcina harrarasten cion bere barneari.

Bere begiei etcioten deusen icustea haizu uzten ez beharrei, deus canta edo musica edarren entzutea. Eta-aldiz, izan zadiela usain gaichto bat, orduan geldituco cen; entzun cezala cerbeit solhas aphaltcen edo laidostatcen zukena, orduan ere emekiago eginen zuen urhaxa. Hautan gucietan bazuelacotz pairatecco bidea.

Hoinbertcecoac berac bere buruari jasanarazten⁴, eta huna cer cen bere buruaz zuen ustekeria: Ohea edo mahaina nonbeit escantcen bacioten ihardesten zuen bekhatore handiegia naiz ohean lo egiteco eta mahainean jateco, utz nazazue horrelaco ohoreric gabe.

Erroman cenean oraino, ortcirale eta barur egunez canpo, bazohan ospitale batetaco athera, bertce escale lagunekin, hekiendaco cen jatecoaren bilha⁵. Bainan nola ezbaitecen bertceac becen bat lehiatcen hainitcetan gabea zuen.

Baldin, jatera emalec icusiz cer gerhatcen citzaion, bertce-taric bereciz, emaiten bacioten, orduan oraino khentcen cioten, ascotan, lagunec zuen gucia; eta Benoit bazohan gibelerat bere zathiarekin izatu balitz bezain alegera. Bertcec zuten ber orobat citzaion; horra oraino berac cer zuen egiten bere ahal gucian, eeen hainitcetan, emaleac burua itzuli orduco, berriz emana zuen beretzat harraraci ciotena.

Horrelaco biciteceaz eta gorphutcie izan ez balu bezala, bici izatu ondoan hamabortz urthez, icusi zuen Jaincoac ondua⁶ ceta cerucotzat. Higatua pairamanez, errea amodioz, Elizarat

¹ Greut edo desgusta. — ² Hirotia. — ³ Houinpetan ebilia. — ⁴ E₃ ar erozten. — ⁵ Cherkha. — ⁶ Hountia.

zohalaric, Aphirilaren hamarrean, aldichartu ⁸ citzaion, bi-dean.

Bertee hainitz jenderen ondotic Zoaca elli deitzen zuten langile batec escaini cion etheea eta ohea. Onhexi cituen, eta han, berac erran egunean, hogoi-ta-hamabortz urthetan, utci zuen haren arimac mundu hau, hainbertce urhax eta egintza sainduetz irabaci onthasunez gozatcerat joaiteco.

IRACAXPENA

Gogor da duda gabe, icigarri da, nahi baduzu, hola biciteea, nahiz Jaincoac arin egiten dituen harentzat hartoen ditugun cargaric dorpherenac. Bainan cer hiltce dohaxua ondotic! eta cer eternitatea! Mundutarraren arabera, hemen hain dohacabe izatua zaren Labre erromesa, erraguzu, ja sobresten zaizkitzun orai zure hemengo pairamenac? Ez, ez! miletan handiagoez ere, ez liteke kharioegi erosla ceruco loria ecin erranezcoa.

APHIRILAREN 17^{ena}

SAN DRUON, ARTZAINA

Hila 4189^{ena}

Druon sorthu cen Francia gainean, Artoiseco probintecian, Epinoico herrian. Etcen oraino sorthua eta jadanic aita hila zuen, eta aldiz ama hiltren da hunen izaitetic. Aita eta ama hec aberax ciren, bazuten ere icen ezagutu bat, ordean badohaci onthasunac eta icena umezurtz hunentzat utciz.

Nonbeit zazpi-zortei urthetan celaric, eta erlisioneco egia handienac ikhasi cituenean, cen Druon bathaiatua izatu. Orduan zuen oraino jakin, nola, nahigaberic, khendu cion bicia bere amari. Jakitate horrec hainbertcetaraino zuen gogoetaraci, non ez baitcen gebiago munduan, deus harentzat on cenic.

Hamar urthetacotz hasia cen barur egiten. Bazuen ere bere

¹ Trenpu charthu.

gorphutz ahularentzat¹ mila gaztigu chume². Adin hartaric goiti, ezagutu zuelacotz cein den handi othoitzaren indarra, bereciki amoinaz lagundua denean, egun gucietaco othoitz lucen ondotic, emaiten cioten erromesei³ beretzat izatu zuen diru gucia. Egintza saildu haukiei esker, eta behatuz, bethi lehia berri batekin, entzuten cituen predicuei, egon beharra cen Druon gaztea munduan, bekhatua cer den ezagutu gabe.

Behin orducotzat hogoi bat urthetan, hainitz ukhitua izatu cen Gure Erostaile Dibinoa, Ebanjelio sailduan dion huntaz : « Ene ondotic ethorri nahi duenac ukho egin dezola bere buruari, har dezala bere gurutcea eta jarraic beikit. Izpiritu sailduaz argitua eta hortaratua, gizon gazte hunec dio berehala bere buruari : Druon, horra cer behar dirkan egin.

Jauntei cituen beraz larru arraseco zurdazco⁴ bat, eta, haren gainetic, soineco arrunt batzu, eta, behin-bethicotz adio erraiten ciotelarie bere alhor, ezagun eta alhide⁵ guciei, abiatu cen bidez-bidez, zaramala⁶ Jaincoac nahi zuen tokirat⁷.

Lehenbician ibili cen eliza batetic-bertcera. Gero gelditu cen Belgican Sebourkeco herrian, eta jarri cen artzain, andre jaincotiar baten etchean.

Guciz gogoracoa zuen lan hori Druonec. Ecen, alde batetic berteen manupeco, bazakien, emana citzaion lana eginez, Jesu-Christo Gure Jaunaren ondotic zobala. Gero berriz, mundutic urrun, bere eginbideac, egiten ahal ciren bezain ungi, bethe ondoan ere, eteizaion iduritzen bacela lan hortan aipharazten ahal zuen deus egintza ederric. Aphaltasunean biciteca eta gorderic, horiche cen saildu gazte hunen amexa, eta horra certan cen.

Ohartcen da bizkitartean, badela cerbeit escas duenic. Hura, Jesus Jauna hain maite duena, bai, urrun da mundu madaricatutic, baina nola egon Jesus maitearen ganic ere urrun? Nola egon comunioeric gabe? Eta, cituen egitecoekin, zorion⁸ hori eteizaiola emana izaiten ahal icusten du.

¹ Flakiarentaco. — ² Tchipi. — ³ Prauber. — ⁴ Bilho latezco — ⁵ Ascaci. — ⁶ Erouan cezala. — ⁷ Lekhilat. — ⁸ Irousite.

Belgicarat joaitean, jarri cen Jaincoaren escuetan, nahi zuen escualderat¹ ereman cezala; eta orai, Jaincoac nahi duen tokian othe da, ala lehar du lana berritu? — Bai, Jaincoac dio eman, duen lana. Eta, Jesus onac, huen guticia kharxuen bethetceagatic, eginen du, egun guciez, miracuilu bat. Druon joanen da, goiz guciez, Elizarat eta goiz guciez, hunec bere joan-jinaren egiteco behar duen denbora gucian, aingeru bat egonen da, Druonen orde, hunen arthaldearen² zaintcen. Eta gehiago dena, ez da, aldi batez ere, nihor ohartuco, saindua ez dela bere eginbideac galdetcen duen tokian.

Andrearen egitecoac zohacin ecin hobeki, herri gucian etzuten onic baicen Druonez erraitco, eta aldiz erromesec amodio-rekin zuten aiphatzen gizon gazte hunen icena, noiz eta-ere orducotzat sei urthe egotua, galdetcen baitu atheratcea, ez cerbeit gehiagoren irabazteco gogoric haduelacotz, edo lanaz unhatu³ delacotz, bainan cezen etzaion iduritcen aski aphaltendu, ez aski gurutce bazuela artzaingoan. Eta, cerbeit gehiagoren pairatceagatic, emaiten du bideari, giristinoen artean aiphatuenac diren tokiei buruz.

Abiatu bide luccan, iduritcen citzaion izanen zuela ordu artio baino hotz busti eta beroegitce gehiago, unhadura⁴ gehiago, cer nahi den, icustate gutiago behar bada trufa edo laido gehiago, bederen eitate tchar gehiago, orai edo sarri.

Asco tokitan eta bereciki Erroman, bederatci aldiz izatua eta bere guticien arabera, hainitz pairatua⁵, bere bidetan atreman cituen gaitz batzuen gatic, itzuli cen berriz ere Sebourkerat. Artzain egotua cen herri huntan Elizari datchicola⁶ eginarazten du etcholachea bat eta sarthu denean haren barnean, doidoia, argia emaitco leiho itiki bat utciz, athea⁷ bera ere hexaraci cioten harginei.

Han, bere nahitaraco presondegi hartan egonen da, Sacramendu sainduaren aldean, aldaren aintcineco argiaren pare. Gabaz ere casic bethi artzarria⁸. Pethi Jesus Jaunari izpirituz

¹ Gaintilat. — ² Saldoaren. — ³ Debeiatu. — ⁴ Eâhetce. — ⁵ Sofritia. — ⁶ Atchitca. — ⁷ Bortha. — ⁸ Iratzarria.

begira¹, haren adoratzen, hari ahantzaraci nahiz, bere bihotceco su biciaz, bertee hainbertee arimen ganic zuen hoztasuna eta eskergetasuna.

Han egonen da urtheac eta urtheac, garagarrezco ogi pichca² cerbeit janhari, ura edari; ekharteen cioten gaineratico gucia, icnstera ethorteen zaizecon erromesei emanaz, ordean ederki saritatu Jesus Jaunaren ganic cituen conxolacione handiez.

Behin sua lotlu cen Elizan, erre cen Eliza erre cen ere sainduaren etchola, bainan huni deus minic egin-gabe; nahiz han berean egotu cen etchola gucia erre arteraino.

Azkenecotz, sei urthe artzain iragan ondoan, bertee bederatci, Eliza batetic bertcera, eta berrogoi, bere etcholaren barnean, Jaunac hartu zuen bere-ganat hiruetan-hogoi eta hamabortz urthetan, haurtasunetic cerucotzat aberasten hasia cen arima maithagarri hau.

Ahidec nahi izatu zuten beren herrirat ereman hunen gorputza, bainan Sebourkeco mugara zutenean, hain citzaioten dorphetu betbetan, non, niholaz ere, ecin gehiago higitu ahal baitzuten. Hortaric ezagutu zuten Jaincoaren nahia cela, han, bici celaric bere berthuten usain onaz saindutu zuen herri hartan, haren geriza³ egon zadiela oraino, hil ondoan. Ereman zuten beraz Elizan egiten hari cioten hobirat; eta geroan handi izatu dire saindu huni esker giristinoec herri huntan ardiexi dituzten graciae.

IRACAXPENA

Escual-herrietan cenbatac, saindu hau sei urthez ibili cen bezala, dabilzanac goicetic araxera, casic beren bici gucian, acienda batzuen ondotic. Ah! hec ere, orhoitcen balire Jesus Jaunaren lehen adoratzailac artzain cirela; artzainen onetan, noiz nahi, miracuiluric handienac egin izan dituela; eta berac ere, artzainaren icena hartu duela! Artzainac, contu beraz, Jesusec maite duen urhax batean zarete; eta hortacotz, cer onthasunac ez ditutzue bilteen ahal cerucotzat! Bakharrie, izpirituae eta bihotzac iduc Jaincoa ganat alchatuac!

¹ Soz. — ² Bouchi. — ³ Begirari.

APHIRILAREN 25^{ena}

SAN MARC EBANJELISTA

Ebangelio Sainduac erraiten darocu, Jesus Jaunac, aldareco sacramendu sainduaz mintzo celaric, icusi zuela asco dicipulu bere ganic urruntcen. Dicipulu hauc urrundu ciren etcezaketelacotz sinhex haren gorputza janez cela bakharric, eta haren odola edanez heltcen abal bicitce eternalera. Omen batec dio, horrela gibel joan cirenen artean cela San Marc.

Geroan, Jondoni Petriren mintzora, zabaldu cion bere bihotza, Jaincoac berriz ere escaintcen cion graciari; eta, apostolu hunekin batean, ethorri cen Erromara.

Hiri huntan, apostoluen aintcindariarentzat laguntza handi bat cen San Marc. Ecen, ascotan, apostoluaren predicuac berriz ere emaiten ciozcan populuari chehetasun gehiagorekin, eta mintzo balin bacen Erlisioneco michterio handiez, hec ere, Jaincoa ganic zuen izpiritu zorrotzari esker, adiarazten¹ cituen, egin citezken becen batean.

Orduan oraino, Erromaco giristino berriei axegin² egiteagatic, iscribatu zuen Jesus Jaunaren bicitcearen eta heriotcearen gainean, San Markena deitzen dugun Ebanjelioa; ez bera lekhuco³ izatu celacotz edo bere baiharic zakien gauza bat bezala, bainan Jondoni Petriri entzun zuenaren arabera.

Apostolu hunen baimenarekin beraz emana izatu cen apezpicuei giristinoen bilkhuretan iracur cezatela.

Erroman, cembeit urthez horrela atchiki ondoan, apezpicuen apezpicuac igorri zuen San Marc, zohala Esiptoco bazterretan ciren paganoei Ebanjelio haren beraren iracastera.

San Marc haritu cen lanean, bi urthez, Cireneco eta Pentapoleco hirietan, eta, azkenean heldu cen, Erromaz campo, munduan cen hiriric aiphatuenera, Alexandriaco hirira, bidegucian

¹ Enthelega erazten. — ² Placer. — ³ Jakile.

bere bicitce sainduari esker eta egiten cituen miracuiluen ariaz ¹, conta ahala giristino uzten zuelarik.

Apostolu handi hunen agertcea, Aleczandriaco hirian, izatu cen iruzki ² berri baten jeikitcea bezala. Ecen haren mintzora, bazter guciac inharrosten dire. Handi bezain galdu cen hiri hartan berean, osteca ³ jarraituten zaio populua, eta alchatcen du Jondoni Petri, oraino bici cenaren icenean, munduan geroztic bigarrentzat ekharria izatu den eliza nagusia.

Jendea hainbertcetarainocoan joa cen eta ukhitua ⁴, non, ez baitzuen uste, aski nigar eta penitencia hirian berean egiten ahal zuela. Ezagutuz axeginen eta onthasunen gatic dituztela egin beren bekhatuac, urruntcen dire axegin eman dioten gaudetariac, onthasunac cerbeit badirela iduriarazten duten tokietaric ⁵ eta hartcen dute morturaco ⁶ bidea.

Mortuan, eremu ikharagarriac gaindi barreiatuac egonen dire, han bakharca, hemen etchechca batzuetan bilduac; egonen dire, elkharrekin ere nihoiz ⁷ mintzatu gabe, non ez dohan arimaco egitecoez; Jaincoaren handitasunen izpirituz beira, penitenciariac garratcenetan eta bethiere barurean; eta dena erran dezagun baruraren haustece, ogi pichea bana ⁸ dute janen ilhun nabarrean ⁹, gatza jakitzat, ur huxa edari.

Izanen da oraino asco Fraide lau bortz egunetaraino, deusic janfez edan gabe egonen denic. Ojodorio eder hori zuten San Marken predicuec.

Azkenecotz, jainco falxien apecec, icusiz laster berac izaitera dohacila beren tenploetan, eta hori gucia apostolu hunen gatic, hartcen dute hunen hilarazteco chedea.

San Markec, jakin duenean chede hortaz berri, icendatcen du apezpicu bat bere ordain bezala, eta gero, badoha, berriz ere, Pentapoleco hirira, han, bathaiatu bezain sarri, utei behar izatu cituen giristinoen ganat; eta hekien artean bi urthez egonic, hekien hobeki fincarazten behin hartu urhaxean, itzuli cen

¹ Bidez. — ² Ekbi. — ³ Saldoca. — ⁴ Hounkitia. — ⁵ Lekhietaric. — ⁶ Bortilaco. — ⁷ Behinere. — ⁸ Bouchi bedera. — ⁹ Ilhun haxarian.

Alexandriarat, eta han izatu zuen bere arthalde¹ maitearen handitua causitceco zoriona.²

Ordean eteen lucez, lur huntan, zorion hortaz gozatu beharra. Lehenagoco exaiac, jakin dutenean hirian dutela, abiatcen dire hunen bilha³, eta atemana, mezaren emaiten hari delaric, badaramate herrestan bideric gaichtoenac gaindi. Sarraskitan⁴ du gorphutz gucia eta dena odoletan, eta, hala-ere, eskerrac ciozcan Jesus Jaunari ceren emana citzaion haren gatic pairatcea⁵.

Egunaz hola ibili ondoan, ezarri zuten, gabaz, gazteluan : elkharekin hitzartceco nolaz behar zuten hilaraci.

Othoitcean zagon saindua eta behar cituen laguntcen Jaincoari galdez, noiz eta ere, orducotzat gauerdi iria⁶, lurra ikharatcen baita. Ordu berean agertcen zaio destiraduracic handienaren erdian, aingeru bat, eta erraiten dio :

Marc, Jaincoaren cerbitzari leiala, zure icena bicienliburuan ezarria da, eta apostoluen artean ditekete zure tokia; aingeruac ethorrico zaizco bidera zure arimari, eta zure gorphutza icusitate guciez inguratua izanen da lurrean.

Orduan escuac altxatcen cituelaric ecrurat, eskerrac bihurtu ciozcan Jesu-Christo, Gure Jaunari, eman nahi cion dohaxutasunaren gatic, eta oraino ere othoiztu zuen, ciolaric. Bakean, Jesus Jauna, har zazu, zure ganat, ene arima.

Onhesten ciola bere othoitza, aditeerat emaiteco bezala, Jesus Jauna agertu citzaion, lehenago, mundu huntan zabilalaric, zuen itchura berean; eta agurtzat eztitasuna bera cen mintzoaz, erran cioan : Marc, ene ezagutaraztailea, bakea izan dadiela hirekin. San Markee ihardexi cion : Bakea zurekin, da Jesu Christo ene Jaun ona.

Biharamunean ethorri citzaizcon, berriz ere bilha, eta, lehen eguneco pairamen⁷ berac egundainocotan jasanaraztea gatic, ibili zuten herrestan, bide gaitzeta harrixuenetan barna, azken haxa eman zuen arteraino.

¹ Saldo. — ² Iroustafia. — ³ Cherkha. — ⁴ Funditia. — ⁵ Sofritcia. — ⁶ Unguria. — ⁷ Sofricari.

Satanen muthilec erretcera zaramaten baren gorphutza, bainan etcioten astirie¹ utci, Saindua hiltcearekin batean, ihurtzuri eta chimichtekin² hasi cen urizco eta harrizco calerna³ handi batec; eta calerna iragan cenean etcen gehiago ordu, girstinoec eremana zuten eta jadanic ehortcia berec zakiten tokian.

IRACAXPENA

Jesusec erran zuen : Ni ezaguturen nauena gizonen aintcinean, nic ere ezagutuco dut ene Aita cerucoaren aintcinean. Mundu huatan berean apostolo, leialari sentiarazten dio egia hōri. Guc, eracux dezagun, ezagutcen dugula Jesus, hari este-catuae egonez munduaren laido eta behar bada eitate tcharren gatic ere; eta badakike Jesusec gure conxolatcen azken orenean, bai eta egin diogun ohorearen nasaiki⁴ guri bihurtcen ceruan.

APHIRILAREN 30^{ena}

SANTA CATALINA SIENACOA BIRJINA

Hila 4180^{ena}

Siena deitzen den Italiaco hirian sorthu cen, nekhazale eiren aita-ama batzuetaric, ondoan sor-hiriaren icena ekharri duen santa Catalina.

Bortz urthetacotzat, etheco escaleretan goras ohanean ukhiteen⁵ zuen mail bakhotcha belhaunaz, eta, belhaunicatu aldi guciez, erraiten cion Birjina Sainduari *Agur Maria*. Sei urthetan, osoki argitua zuen adimendua⁶; eta, ordutic, icusten ahalcioten emazte adinetacoen zuhurtcia, eta hekiei hain ungi dohacoten ahalke saindua.

Ordu beretic oraino ezagutu zuen barurac eta gorphutzari jasan arazten ahal diozcogun pairamenac⁷ cein diren Jesus

¹ Aiteinaric. — ² Uhulgu eta iñhacieki. — ³ Tenpesta. — ⁴ Abondantki. — ⁵ Hounkiteen. — ⁶ Enthelegia. — ⁷ Sofricariac.

Jaunaren gogoraco. Horra cergatic, ethecoac ohartu gabe, egiten zuen ahal beceubat barur. Bilharazten ere cituen, cenbeit aldiz, gelara, bere adineco lagunac, hekiei erraiteco bekhatuac norat zaramazcan¹ eta nolaz heltcen ahal ciren cerurat.

Zazpi urthetan egin zuen birjinitatearen begiratecco botua, eta nahiz haur bat baicie etcela adin hartan, iduri luken, bizkitartean badaki cer hari den, eta cer nahiren pairatcerat ekharria izanen da, botu hau hauxico duen baino lehen.

Bazuen ahizpa ezcondu bat, eta huni axegin² egiteco jauntci cituen, behin, soineco eder batzu. Bainan ahizpa arimac, hiltcea izatu zuten gaztigutzat; ceren Jesus Jaunac berarentzat zagocan birjina bat eracuxi nahi izan cioten mundutarren begiei. Catalinac ere ezagutu zuen bere huxa eta nihoiz³ gehiago, gizonen ganie begiratceric⁴ ere ez izaitea gatic, moztu zuen bere buruco bilo ederra, eta, burua estalia baicie, etzen gehiago nihon agertcen.

Aitac, dena kbechatua egitate hortaz, eta norapeit arint zadien, erran cion: Hemendic aintcina, etzaitzu cilhegi⁵ izanen gelan egoitea; hemen diteke zure tokia⁶, sukhaldean, nescato horiekin. Catalina gazteac, bere gela galdu zuen arren⁷, etzuen hargatic galdu bere bibotceco bildura saindua. Bihotz hartan, hazagocan barne berech bat, bere espos maitearentzat; eta, escuz lanean hari celaric ere, solhasean⁸ zagon Jesusekin.

Behin batez, aitac zukhaldetic canpo causitcen du. Anaiaren gelan cen Catalina. Aita hori hurbiltcen da, zango punttetan, athe⁹ chilhora, eta icusten du, haur haren buruaren gainean badagola, elhurra bezain churi den usoa¹⁰. Orduan ohartcen hasi cen sainda bat cela haren alaba, eta utci zuen, egin cezala nahi zuena.

Catalina gaztearen jana handic aintcina belharki cen. Bazakharren¹¹ ere gerrian gathe borthutz bat. Eta asco aldiz hura zabilcan, azote orde, gorputzaren hobeki chehatceco. Adine-

¹ Eronaiten zutian. — ² Placer. — ³ Secula. — ⁴ Soric. — ⁵ Sori. — ⁶ Lekhia. — ⁷ Nahiz gela galdu cian. — ⁸ Elhestan. — ⁹ Bortha. — ¹⁰ Urzoa. — ¹¹ Ekharren cian.

taratu cenean, izatu zuen guciz guticiatcen¹ zuen zoriona², san Dominicaren ordenaco arroparen hartcea. Hori izatu cen harentzat bicitce garratzago baten hastapena³.

Badago hirur urthez nihori, bere cofesoari baicen, mintzatu gabe. Doidoia cenbeit oren bakhar du loari emanen, eta, gainerateco denboran, egonen da bethi bere Jesus maitearekin, hari begira⁴, eta hari eskerren bihurtcen.

Bizkitartean bazuen guduca handiric jasaiteco. Gure arimen-exaiac egiten zuen egin ahal gucia, lore⁵ eder hura nolazpeit hixaraci beharrez. Aldi batzuez, han zuen cer nahi gogoeta tzar emaiten ciolaric, eta icuspentic cikhinenac begien aintcinean ezartcen ciozcalaric, orduan Catalina hasten cen joca bere buruari eta tentacioneac irauten bazuen, hari cen bere gorphutza chehacatu arteraino.

Behin, horrelaco calerna⁶ baten ondotic Birjina Sainda hare bere gorphutza dena odoletan ezarria zuelaric, agertu citaion Jesu-Christo Gure Jauna, eta gaizki amodioxu hauc egin ciozcan Catalinac : Jaun ona, aichtian non cinen, horrela ene uzteco? — Hor, haurra, ihardexi cion Salbatzaileac, hor hire aldean. — Cer, hainbertcetarainoco gogoeta eta guticia gaichtoz inguratua nintzelaric? — Bai, erran cion, berriz ere, Jesusec, bai hor nindunan hire bihotcean, eta, axeginekin begira, nola hintzen guducaten eta jazartcen⁷.

Exaiac icusi zuenean etzuela deus irabaciric escualde hortaric, hartu zuen bertce bide bat. Nahi dio, oraicoan, bere omen ona galaraci. Bazuen Catalinac bere gain hartua, emacume⁸ min biciaz bulharra jana zuen baten arthatcea⁹: Ezagutzaz bethea izan orde¹⁰ ama batec berac ere, nekez bere haurrari egin cituzken cerbitzuen izaiteaz, emacume trichte hare errancituen, Catalinaren gainean, solhasic dorpherenac.

Catalina etcen bargatic gelditu haren arthatcetic, eta bere bihotceco bakea galtcerat utci gabe ichil-ichila zagon, uzten

¹ Desiracfen. — ² Trousitatia. — ³ Haxarria. — ⁴ Sz. — ⁵ Lili. — ⁶ Tenpesta. — ⁷ Buhurteen. — ⁸ Emazte. — ⁹ Soucñatcia. — ¹⁰ Iraiteco lekhotan.

zuelaric bere esposac garbi cezola, nahi zuenean, bere omena. Eta Jesusec etrion hux egin.

Nahi gabe horren eta holaco bertce cenbeiten ondotic, izatu zuen bat khirexagoa. Haren bihotza khaldan ¹ zagolacotz Jesusen amodioaren suaz, egun guciez comuniatcen zuen; eta hainbertceco gozoa causitcen zuen haren arimac comunionean, non gorphutzac berac-ere galteen baitzuen lurreco janharien guticia. Bizkitartean behar zuen, bertcei obeditceagatic, jateco cerbeit hartu; eta orduan, goiti ecin aski arthikiz lehertcera zohala iduri zuen.

Azkenean ezagutu zuten arima eder hartaz artha ² zutenec Jaincoac harentzat zagozcan bideac bertcerenac ez-bezalacoac cirela; eta utci zuten, jateco manuric, gehiago eman gabe. Gure arimen exaiac ecin gibelatu zuen beraz mahain saindutic.

Bainan garhaitua izaitea gaitci zaio Debruari, eta mendeatceco, ceren Jesus Jauna hoin maite duen, agertcen zaio, joiten du, uspelcatcen, eta surat arthikitcen. Alfer dire, alfer, indarca horiec oro! Geroago eta hazcarrago doha Birjina hunen bihotcean Jesusen amodioa, eta ifernuco suge madaricatuac icus dezake handi direla bere espos maitearen ganic izaiten dituen graciac.

Doidoia aiphatu eriaeren arthatcen hari cen batez, izaiter zuen barne nahaste bat. Cer egiten du? Berehala hurbilteen ditu ezpainac bulharrean zuen zauri ikharagarrira, eta musu ³ emaiten dio. Bertce behin, bere buruaren hobeki garhaitcea gatic oraino, edan zuen min haren lotcen ⁴ ibili escuen ur garbikina.

Horrelaco egintcen ondotic bere escuco zuen bere burua, eta gure Salbatzaile dibinoa horiec egin cituen ondoco gauean, agertu citzaion erraiten ciolaric: Hurbil zatzu, haur maitea, ezpain horiec ene sahexeco zaurirat, eta edan zazu, nahi duzuna, eternitateco edaritic.

Bertce behin, agertu citzaion, bi khoro ⁵ escuetan, bat urhezcoa, bertcea arrantcezcoa, hauta, cezan. Catalina sainduac

¹ Erria. — ² Soueña. — ³ Pot. — ⁴ Hersten. — ⁵ Co o ia.

hartu zuen arrantcezcoa eta buruan ezarri, sarrarazten cituelaric arrantceac egiten abal ciren dezain barna.

Comuniatcen zuenean edo meza denboran, maiz¹ icusten zuen haur eder bat, ostia saindua icusi orde. Batzuetan oraino, ezagutcen zuen bere baithan su ecinago bici bat, bertee batzuetan, gorphutza bera ere hartceu cion usain bat hainitz ona. Jesus Jaunac, bertzalde, ezarri ciozcan escuetan, oinetan eta sahexcan, berac gure gatic hiltcean izatu cituen bezalaco zauriac; eta Catalinac pairatcen cituen ikharagarriac bere zauri maite hetaric.

Etcen bertee munduco gaucetan deus harentzat gorderic. Lurrean berean ere, iracurtcen cituen berteen gogoetaric gorderenac, eta jakitate horri esker, hainitzac Jaincoa ganat itzul-arazten cituen.

Ama hil citzaion, mundua bihotzez utci gabe, Catalinaren othoitcen bidez piztu cen, eta bici egotu, handic eta, oinhaceric² borthitcenen gatic, mundu huntaric ungi joan nahitu etcen arteraino.

Azkenean, elizari ere asco laguntza egin ondoan, eritu cen bera, eta hartu cituen elizacoac. Agonian celaric, icusi zuen gure arimen exaia, bere aldean³; entzun ere zuen erraiten ciola, sobra bere buruaz hartua izatu cela, eta etzuela Jaincoa aski garbiki bilhatu. Horren gainean ihardexi cion Catalinac: Ni, ene buruaz hartua izatu naicela! ez, ez! nihoiz! Nic, ez dudala Jaincoa bere gatic maithatu! Bai bethi. Urrun hadi ene ganic, Satan.

Handic gaineraco denbora, bere Jesus maitearekin solhasean⁴ eman zuen; eta gero, azken amodiozco haxbeherapen batekin, ezarri zuen bere arima haren escuetan, apherilaren hogoi eta bederatcian, hogoi eta hamahirur urthetan celaric.

IRACAXPENA

Santa Catalinari galde diozogun, ez badugu ere aski berthute pairamenen ondotic ibiltceco Jaincoaren amodioz, bederen

¹ Ardura. — ² Sofricariric. — ³ Khantian. — ⁴ Elhestan.

ardiex dezaucula Jaincoac berac igorrico dauzanen gogo onez hartceco gracia; ardiex dezaucula Jesus Jaunarentzat erretcen hari zuen su hartaric, bederen cenbeit phindar ¹.

MAIATZAREN 1^o²

JONDONI JACOBE TTIKIAGOA ETA SAN PHILIPPE
APOSTOLUAC

Bada ustekeria bat, Jondoni Jacobe Jesu-Cristo gure. Jaunaren lehen cusi cenac izatu zuela, Jondone Joanes Batichtac bezala, bere amaren erraietan, bekhatu orisinaletic garbitua izaiteco zoriona³, eta ordean jauntci zuen arropa churia, hala nola birjinitatea, nihoiz galdu gabe egotu dela.

Cer nabi den, saindua deitzen zuten, Jerusalemeco hirian, giristinoec eta Juduec. Halacoa cen haren bicitea : Etzuen nihoiz belharric baicen jaten, eta, bertzalde, ungi dakigun gauza da, hain lucez eta hain maiz⁴ belhaunico zagola, non, zango zolaco larrua baino hainitecz gogorrago baitzuen belhaun buruetacoa.

Ez darocu Ebanjelio sainduac, hunen gainean, apostolu hautatua izatu celacoaz canpo deusic erraiten. Ordean ezagutceco dugu apostoluen egintecz mintzo den liburutic, cein ungi icusia citeken bere lagunez. Ecen bertee guciec norapeit joaitea dute, bainan hau, egonen da Jerusalemeco giristinoen apezpicu eta giristinoec maintenic dituzten toki⁴ beretan.

Iracurteen dugu oraino, aingeru batec ideki ciozcanean Jondoni Petriri presondegico atheac⁵, apostoluen printcea lehiatu cela, gracia handi hortaz berri emaitera Jondoni Jacoberi. Bertzalde, Jondoni Paulo ere badoha cehin Jerusalemera, eta dio, Jacobe icusi duela eta ez bertceric nihor.

Erran dugu saindutzat ezagutcen zutela Juduec berec. Hor-

¹ Chinkha. — ² Irousitatia. — ³ Ardura. — ⁴ Lekhu. — ⁵ Borthac.

tarie asmatcen¹ ahal dena da, cer indarra zuen haren solhasac² mintzo cenean, oraino begiac hexiac³ zaozcaten judu hekiei. Jesus Jaunac utci lege berriaz eta haren besartcatceco zuten egiteco baitezpadacoaz.⁴ Handituz zohan beraz egunetic egu-nera Jerusalemeco eliza.

Anani zuen ordu hetaco apez handiac icena. Bada⁵ apez hau ecin jasanean zagon, orai familia baten, sarri bertee baten, bere ingurutie urrunteen icustez; eta ustez laudorio pusca baten bidez berecten duela apostolua; erraiten dio, deus hasarre⁶ delacoric ezagutcerat eman gabe :

Jacobe, zu saindu zarenac, nolaz pairatcen⁷ ahal duzu gure arbasocn⁸ erlisionea gal dadien gure mendean. Jende errebe-larazten⁹ hari duten horri behar diozu, lehenbico bildua icu-sico duzun aldian, adiaraci, nor eta cer den Jesus adoratcen dutena. Jondoni Jacobec ihardesten dio : Nic egin dezakana da hori; utzazu egitecoa ene gain.

Ondoan, templo gucia juduz eta giristinoz bethea den batez igaten da denec icusten ahal duten toki gora batetara. Apez handiac eta haren lagunec uste zuten etzuela aski bihotz izanen egiari bere bidearen emaiteco. Ordean erraiten du Jondoni Ja-cobec :

Nahiz badakizuen, cer den ene sinbestea Jesus gizonaren se-mearen gainean, hala-ere nor den galdegiten darotazue. Oraino beraz, aldi bat, jakin zazue bere Aita Jaincoaren escuinean jar-ria dagola, eta, egun batez, handic ethorrico dela bicien eta hi-len juiatcera.

Aithormen horrec bozcarioan ezari cituen giristinoac ordean bihotceco sumindurarie handiencan, apecec eta hekiei jarrai-kitcen cirenec oihu egiten dute : Sainduac ere galdu du bere bidea, etzazucla sinhex haren erranic. Eta ordu berean lasterca iganic hura centokira handic arthiki¹⁰ zuten, eroricoan bizcar bezurra haux cezan.

¹ Phenxatceco. — ² Elhiac. — ³ Cerratiac. — ⁴ Osoki nesesariona. — ⁵ Arren. — ⁶ Khechu. — ⁷ Sofritcen. — ⁸ Aiten aiten. — ⁹ Herra eraz-ten. — ¹⁰ Aurdiki.

Etzuen bizkitartean haxa galdu : belhaunicatu ere ahal izatu cen, eta hasi othoitcean bere gaizki egilentzat, ciolaric : Barkha diozuzute, Jauna, bekhatu hau, ez dakite cer hari diren.

Apez Judu batec, ukhitua¹ othoitz hortaz, erran cioten jende bihotz gabe hekiei : Cer hari zarete? ez duzue entzuten saindua zuentzat dagola othoitcean? Ordean etciren haren mintzoari behatu. Aitcitie² hasi citzaizeon harri ukhaldica, eta azkenean, oihal bolatzaile batec bere bolatecco mailuaz hauxi cion burua.

Horrela hil cen Jondoni Jacobe, Bazco egunean, apherilaren hamarrean. Jesu Cristo gure Jaunaren mundu huntarat ethoritic hiruetan hogoi eta hameca-garren urthean.

SAN PHILIPPE

San Philippec, haurtasunetic ikhasten atchikia izan celacotz, bazakien arras ungi Escritura Saindua. Gai³ cen beraz, Jesu-Christo gure Jaunac bere ganat deithu zuenean, zakienetic beretic, ezagutceco hura cela Mesias agindua⁴.

Hala-hala, goicic hasi cen Jesus Jaunari dicipulu biltcen. Ecen icusten dugu Ebanjelioan irabaci ciola Nathanael, gizon bat, Jesusen hitcen arabera, egiazki. Izraeldarra eta bide bat baicic ezagutcen etzuen.

Behin, Jesusec, mortu⁵ urrun batean, celaric, bortz mila gizonekin, eta conda ahal becenbat emazte eta haurrekin, icusten du jendeketa handi barc ez duela cer jan, eta ere ez dela ahuleciaric⁶ gabe, etcherat heltcen ahal; erraiten dio beraz Philiperi : Non erosico dugu jende haukiei emaiteco ogia? Bazakien Jesus Jaunac cer egin, hainan hobeki ohartarazteagatic Philippe eta gauza bunen iracurtzaile guciac, nola zohan, bortz ogitaric jende oste hari behar zuen guciaren eta gehiagoren ere emaitera, egin cion galde hau.

Bertee aldi batez, Lazaroren piztearen oimenac jo cituelacotz bazter guciac, arrotz batzu Jesus icusi nahiz zabilzan eta, ecin berac menturatuz haren aintcinean agertcera, herxatu ciren

¹ Hounkitia. — ² Countralat. — ³ Capable. — ⁴ Hitcmana. — ⁵ Bortu, — ⁶ Flakeciaric.

Philipperi, eta Philippee egin cion mezua¹ bere nagusiari. Horra cersu dion Ebangelio Sainduac Apostolu hunen gainean.

Jesu Cristo gure Jaina cerurat iganez geroz, izatu zuen bereztat Asia gainean Ebanjelioaren predicatcea. Hitcez bezain ungi bere bicitceaz erraiten cioten ifernuco bidean zabiltzan populu hekiei cer behar zuten egin.

Eta gero, Jaincoaz beraz igorria cela, hekiei ezagutarazteco, egiten cituen miracuiluric handienac. Halaz, baxter gucietan, arthicaraci cituen jainco falxuen tenploac, hekien orde eginaraci elizac, alchatu aldareac, ezarri elicetan egiazco apezac eta jarraraci jendeac girstino-urhaxean.)

Asiatic igan cen orai Russiaco diren herrietarat. Han gaindi egotu cen ogoi urthez, bethi unhatua² ordean bethi conxolacione beren erdian. Eta azkenean jauxi cen orai Turkiaren den Phrisiaco probintciarat, bertetan egin duena behar duela han nere egin.

Heldua Hierapoleco hirira, guciz ukhitua izatu cen hango tenplo batean aurkhitu³ zuenaz. Han, icustate ecinago handiez inguratua, Jaincotzat zaocaten suge lazgarri bat. Jainco cen ordutic jendeari etcitzaion sobra haren bazca izaitea, eta haren hel-menean egoitea irexi etcitueno. Ez balinbacen bere burutaric escainteen cenic, hiltcen zuten haur, eta arthikiten ciozcaten irex cetzala.

Hainbertetarainocan debruac, suge, haren itchuran, ixutua zagocan populu hura urricaltcen citzaiolacotz, jarri cen Jaincoari othoitcean san Philippe, sunxiaraz, cezala Satanen nagusitasun ikharagarri hura. Entzuna izatu cen haren othoitza. Ecen lebertu cen sugea, eta jendea itzuli bocic saindua-ganat, ekharria nahi zuen guciaren egiterat.

Ordean apecec ecin jasanez beren irabazbidcarena galtcea, esteatu zuten, azotatu eta gurutce bati itzatu. Gurutcean, harri ukhaldia, hiltcera zaramaten, noiz eta ere lur ikhara handi batec etcheac berac ere erorrazten baititu. Etche hekien az-

¹ Mandatua. — ² Eñberic. — ³ Gal eraz.

pian leherteen da Apostolu sainduaren exaietarie cenbeit, eta bertee hatzu hurrac iresten ditu.

Gaineratice jendea harritua, abiatcen da, jauxi behar duela saindua gurutcectic. Baiman ezaguteen du san Philippec odol hustua dela, erraiten diote beraz : Maité banauzue, utz nazazue hilcerat, Jesus ene Nagusia hil den bezala; eta gero, othoitz egiten zuelaric han ciren gucientzat, ezarri zuen arima bere Jainco Jaunaren escuetan.

LEHEN IRACAXPENA

Ah! cein laster eta handizki Jesusec saristatcen duen harentzat egin! Apostolu hauc exaiaren beldurric gabe lekhuco-tasun egiten diote goraki; eta Jaincoac han du, berehala, sari gucietan handiena, martirioa, eta harekin cerua. Ager gaiten nor nahiren gatic, eta ororen aintcinean egiazki Jesustiar, eta egun batez, Jesusec ere bereac gaituela eracuxico dio munduari.

BIGARREN IRACAXPENA

Hilic othe dago san Philippec leherraraci sugea? Ez othe da bertee guciac hilaraci ondoan ere bat baratcen gure bihotcetan? Cein da orai artio hux gehienic eginaraci darocun exaia? Hauxean biciric dagon ikhatzaren pare biciric dagola exai hura ere, orhoit gaiten; eta san Philipperen sugea hilaraci zuen Jaincoari galde diozogun, beira gaitzala haren aztaparretarat erortcectic.

MAIATZAREN 3^o

GURUTCE SAINDUAREN EDIREITEA

Adrien Inperadoreac, nahiz schascan¹ berean itho gure Er-lisione saindua, eta ustez, hortacotzat aski cela, gure Arrerostaile maitea hil cen tokietarie giristinoen urrantcea, ezarri cituen Jupiter eta Venus, bi jainco falxuen bultoac² toki hetan beretan.

¹ Khuñan edo ohacoan. — ² Potretac.

Horree aditcerat emaiten darocu nolaz, Constantin inperadorearen denboracotz, oraino etzuelaric hirur ehun urthe, ahantcia cen non citeken Jesus-Christoren hobia, non citezken haren gurutcea eta itceac. Eceen toki gucia chortcia izatu cen, lur eta harriketa handi batzuen azpian.

Bainan noizbeit, aski giristino odol, ichuri dute tiranoec, eta orduan, Constantin inperadoreac, gerla hastera daramalaric Maczance capitainarekin, icusten du ceru gorenean distiraduracic handiena duen gurutce bat, hitz hautaz inguratua : « Constantin, seinale hunen ariaz¹ garhaitiar izaiten haiz. »

Ordu berean inperadoreac khendu zuen arranoaren potreta bere banderetaric haren-orde gurutcea ezarri, eta garhaitar izatu cen. Hala-hala, hura, giristino etcena oraino, orduan itzuli cen Jaincoa ganat ; eta, giristino legeac gaina zuen.

Athera² cezaken beraz Jaincoac lurpetic Jesus Jaunaren odolaz gorritua izatu cen gurutce sacratua ; iracux cezaken giristino ezagutzaz eta amodioz betheac cirenei, eternitateco bicia-
ren fruitua eman zarocun arole maitea. Ez Paganoece, ez Judiee, ez dukete gehiaco escuric baren galarazteco.

Santa Helena, Constantinen amac zuen gurutce sainduaren idireiteco ohorea behar. Huni dio eceen Jaincoac gauza hori burutara emaiten, eta, gogo onez badoha Jerusalemerat.

Nonxu citeken jakitea bera ere etcen errech³. Noizbeit, bizkitartean⁴ Judu batzuec erraiten diote beren aitetaric zakitena : eta langileac hasten dire haintzurteen. Lur zathi bat aldaratu dutenean causitcendute Hobi saindua ; aintcinachago, hantchet baituzte hirur gurutce ; itce sainduac ere agertcen dire. Eta orai, nola ezagut hirur hetaric cein den gurutce saindua !

Jesus Jauna gurutceficatu zutenean, izatu zuten haren gurutceari taula bat hitz haukiekin, « Jesus Nazaretecoa Juduen Erregea, » bainan taula hura ere khendu zuten bere tokitic, eta alferretan bilhateen dute ceini den itzatua izana. Trichte cen beraz Helena, etzakielacotz nolaz berech Jesusen gurutcea bertcetaric.

¹ Bidez. — ² Elkhi. — ³ Aise. — ⁴ Haregatic.

Ordean cer dire gizonen indarcac Jaincoaren garhaitceaz dohanean? San Maker Jerusalemeco apezpicuac badaki cer egin. Bacen hirian emazte bat hainitz eri cena, eta miricuez berez ere exitua. Apezpicu sainduac galdegiten dio Jaincoari, populu guciarekin, Jesusen gurutcea cein den ezagutarazteco, eman dezola emazte huni osasuna.

Lehen ukhiarazten dioten gurutceac ez dio deusic egiten, bigarrenac ere ez, ordean hirugarrena gainean ezarria izatu zaioneco, sendatua, chutiltzen da eria; eta jende guciac, alegrantciaric handienez, emaiten diozea eskerrac Jaincoari.

Santa Helenac ere bazuen bilhatcen¹ zuena, munduco gauza guciac baino hainitez gehiagotzat zaocan onthasuna; eta, egiazco bozcarioz bihotza igeri, adoratu zuen zur sacratu hura baithan, ez zur hura bera, ezen paganokeria bat izanen cen hori; bainan adoratu zuen, zur hura baithan, ceru hurren errege zur hari itzatua izan cena, zur haren gainetic, bekhatuac barkha cezaizcula bere Aita Jaincoari galdegin zuena.

Eta horra, egundaino geroz, cer duen egiten Elizac. Horra oraino nola, Elizac edo itce, edo arrantcezco khoro² edo Jesusen pasioneco bertce cerbeit gauza begien aintcinean ezartcen daocunean, gohacin gogoz Jesus Jaunaren beraren gana.

Santa Helenac utci zuen gurutce saindutie zathi bat, cilharrezco estaki batean Jerusalemeco hiriarentzat; eta hura gorde zuten tokian eginaraci, diteken Elizacic ederreana. Bertce zathia igorri zuen bere seme inperadoreari Erromarat; eta inperadoreac ezarri zuen, egundaino geroz Dona Gurutcecoa deitzen den Elizan.

Bertzalde, eta huntaric ezagun da Constantin handiac cer icustatea zuen Gurutce sainduarentzat, inperadorehunec eman zuen lege bat debeatceco nihor gehiago gurutcefica cezatela.

Ordutic hasi ciren giristinoac, gurutcearentzat zuten amodioaren canporat, ere eracusten, ceinatuz noiz nahi, eta, bere nac cituzten tokietan, gurutceac ezarriz.

Eta, handic berehala, Tertulianec cion: Giristino garen

¹ Cherkhatcen. — ² Elborrizco coroua.

guciec, Athera gaitecela gure etchietaric edo hetan sar, jainx detzagula edo khea gure soineccae, jar gaitecela edo chuti, eman gaitecela mahainean, edo ohean, gaitcela othoitcean edo lanean hitz batez, gure urhax gucietan, egiten dugu gurutcearen seinalea.

IRACAXPENA

Gurutce cenbeiten aintcinean iragaiteco dugunean, non nahi izan gaitecela, ceina gaiten, Jesus Jaunari amodiozco acta bat egiten diogularic. Ez gurutcericicusic ere, ceina gaiten, lehen mendetaco giristino her bezala; orhoituz gurutcearen seinalea dela gure laguntzaric eta gerizaric ¹botherexuena, cer nahi beharordutan izan gaiteren.

MAIATZAREN 4^{ena}

SANTA MONICA, EMAZTE SAINDUA

Hilac 387^{ena}

Monica sorthu cen African. Hunen aita eta amec, nahiz giristino ciren, uzten zuten alaben altchatceco lana, nescato baten escuetara, bazakitelacotz nescato hau guciz Jaincotiarra cela eta, haur batzuei ceruco bidearen eracusteco, osoki gaia¹. Cenbat amei etzaiote franco egiñ dutela iduritzen, othoitz batzu eta catichima chumea² iracaxi badiozcate hurrei. Nescato hau aldiz hari cen berteen haur batzuen bihotcetan, haciric hobere- nen eraiten.

Jakinxun berthutea ez dela hazcar izaiten ahal, non ez diren jaidura³ gaichtoac zaphatuac idukitcen⁴, etcioten nescato hunec othuruntzatic⁵ canpo deusec hartcerat uzten, ez-eta ura bera ere. Eta gauza hunen orhoitzapena haur hekien bihotcetan ho-

¹ Begirazaleric. — ² Capablia. — ³ Tchipia. — ⁴ Enjogidura. — ⁵ Atchikitcen. — ⁶ Apairutic.

neki sarrarazteagatic, erraiten ciotea cenbeit aldiz : Orai, ber-
teric haizu etzaitzuen huntan, urari hari zarete, bainan geroan,
zuen escuco dituzketzuelaric sotoco gakhoac orduan **J**arnoz
aseco zarete.

Santa Monicac **J**aithortu cion Agustin bere semeari, aholcu
eta iracaspén horien gucien gatic-ere, izatu zuela gaztean ar-
noarentzateco jaidura handi bat. Nere gain nuen, cion berac,
emekin zabilan nescato batekin, arnoaren mahainerat ekhart-
cea; arno eraustea beraz egun guciez.

Lehenbician usainac berac okhaiztateen² ninduen bainan,
emeki-emeki, egiten naiz arno usainari; gerochago, abiatcen
naiz jastatcen; eta hartcen dut, erhi puntiaz, orai chorta bat,
sarri bichorta; berantchago, ezpainetarateen dut pitcherra,
ihintz baten edateco; azkenecotz, hain naiz zalhetcen³ non,
zorta baten edateac ere, ez baininduen icitcen. Urrunago ere,
behar bada, joanen nintcen, bainan, Jaincoac egin zarotan gra-
ciari esker, sarthu nintcen nere baithan, eta huna nolaz :

Behin batez, inococa⁴ hari nintcelaric, arno erausten lagun-
teen ninduen nescatoarekin, hunec, bertce asco solhasen⁵ ondo-
tic, erraiten darot, horditcen naicela; eta niri hainbertcetaraino
zait gaitcitcen hitz horren entzutea non, ordu berean hartu
bainuen nihoiz⁶ gehiago arnoric ez edateco chedea.

Burhasoec⁷ eman cioten senhartzat Monicari, ezcontceco adi-
neratu cenean, Tagaste hirico gizon gazte bat, ongi icusia hiri
gucian, ordean paganoa. Monicac hartu zuen buruan, haste-
hastetic, nolazpeit ere, behar zuela salbaraci senbarraren arima.
Hortaracotz etcen egiten etzuenic bere lagunaren bihotcean
sartceco; zakielacotz, behin bihotza **J**irabazten ahal bacion, egi-
naracico ciola nahi zuen gucia.

Horrengatic, nescato baten umilitatearekin hartueo ditu bere
jauna deitcen duenaren mannac, eta harc erran bezala eginen.
Senhar pagano harc etzulacotz pairaric⁸ batere ez-deuskeria

¹ Conxeilu. — ² Desgustateen edo greutcen. — ³ Khoitcen. — ⁴ Bilha-
ca edo aharran. — ⁵ Elhen. — ⁶ Secula. — ⁷ Aita eta amec. — ⁸ Pacen-
teiaric.

bat aski cen haren jauzarazteco¹. Orduan Monica ichil-ichila zagon hasarregoac² cirauicino. Facegatu³ cenean bakharric, cion erraiten nola eta cergatic egin cituzken gauzac ciren bezala. Eta azkenecotz, ezagutu zuen Patricec, Monica baithan aingeru bat zuela andretzat.

Moniac, oraino, ethortcen bacitzaion, bere senharraz gaizki ibilia izatu citeken cenbeit emazte bere axecabez⁴ mintzatcera, erraiten cion : Etzaitzu holacoric gerthatuco⁵ baldin zure senharra zure jauntzat badaocazu, ezti eta amodioxu icusten bazaitu, eta nihon ez bazare hartaz gaizki mintzo. Aholcu horri jarraiki cirenec ezagutu zuten egia ciola.

Berac aintcinachago iraun zuen, oraino, bere senharraren alderat zagocan urhaxean, eta, hil behar zuenetic urthe bat lehen, izatu zuen haren Jaincoaganat itzultcen icusteco gracia. Patrice hil cen sainduki, Monicaren gain uzten cituelaric bi seme eta alaba bat.

Bere laguna galdu zuenean, Monica saindua jarri cen, nihoiz baino hobeki eta leialkiago, Jesus Jaunaren nescato. Jakinki cituenonthasuna berac etciozcala Jaincoec beretzat eman, bainan cirela erromesenac⁶, nasaiki emaiten cioten beharretan cirenei. Bera eta harenac izan citecela biluciac, orobat citzaion, baldin Jesusen haurride pairatcen⁷ zutenac sokhorritcen ahal baicituen.

Artha⁸ bera zagocan eriez nola erromesez. Eta erran diteke emacume⁹ saindu huntaz, Escriturac Jop sainduaz diona, cela erromesen eta umezurten¹⁰ zangoa eta ixuen begia.

Dohacabe¹¹ haukiengatic egiten cituen urhaxec etzuten gibelen bere haurren alderat cituen eginbiden bethetic. Nahi cituen, haur hec, ceruco bidean ezarri, Jaincoaren amodioa nahi cioten bihotcean pitzaraci; handi ciren beraz haren errencurac borthitz gal zakizcon zuen beldurra, kharxa haren bethiereco othoitza.

¹ Saltarazteco. — ² Khechiac. — ³ Ematu. — ⁴ Phenez. — ⁵ Agitico. — ⁶ Praubenac. — ⁷ Sofritcen. — ⁸ Arrangura. — ⁹ Emazte. — ¹⁰ Aitaric ez amaric gaben. — ¹¹ Malerous.

Agustinec hamazazpi urthe cituen aita galdu zuenean. Aita hori icusi zuen giristinoki hiltcen, eta hortacotz iduri zuen haren urhax onei jarraikitzea baicic etzuela egin behar. Aitaric gabe bada ere, bederen gelditcen zaio ama bat guciz jainco-tiarra. Nola egonen ahal da haren erranei behatu gabe?

Eta, bizkitartean¹, Agustin gazteac ez daoca acholaric Aitari egiten icusi dionaz, ez Amac erraiten dionaz; eta ibilico da munduco bide zabalean, Jaincoac ganic urrun, ama nigarrez urtzen hari citzaiolaric. Africatic iragaiten da Erromara, Erromatic Milanera. Ama ere badoha bere haren ondotic.

Noizbeit ethorri cen ama samur² harentzat san Ambrosioc agindu³ orena. Ama bat hainbertce nigar eta othoiz egiten duenac, erran cion apezpicu harc, ez dezake bere semea galtcen icus. Ez, Agustinen izpiritua argitu zuen azkenean Jaincoaren graciac. Sarthu cen beraz haur errebelatu hura ceruco bidean; eta horrela bazuen Monica sainduac, guciz berantxia zuen zoriona⁴.

Handic laster, bere seme kharioa icusiz hiritic atheraia⁵, arimaco egitecoen hobeki chuchentcea gatic, erraiten cion : Agustin ene semea, ene zorionac ez du nihon bazterric. Nahi cinitudan Jaincoa ganat itzulia icasi, eta, orai, ezagutcen dut, ez bakharric Jainco Jaunarekin zarela, bainan, oraino, ez duzula guticiatcen munduac emaiten ahal darozkitzun landorioetarie deusere. Cer gatic egonen naiz gehiago lur hunen gainean? Jau-nac har nazala bereganat, dohaconeac.

Jadanic haur prodigoa bathaiatua celarie santa Monica, Africarat itzultcera zohan bere bi semekin, bainan eritu cen abiatu gabe.

Erituz geroz, behin, mintzo celarie giristinoaren heriotceaz, hain gauza ederrac erran cituen, non nigarrez baitzanden haren inguruan cirenac. Eta nola galdegiten baitcioten, ja, etcitzaion gaitci herritic hain urrun hiltcea; ihardexi zuen : Ez, ez¹ orobat zait non nahi hilic ere. Eeen nihon ez gare Jaincoa ganic urrun. Hala denaz geroz manua, hementche berean hil nadiela.

¹ Haregatic. — ² Trende. — ³ Bitceman. — ⁴ Irousitatis. — ⁵ Elkhia.

Jaincoac badakike non erori den ene gorphutza, eta chutiara-cico da bertee gucienae egitean.

Bortzasei egunen buruco, ageri cen etcela harentzat sendatceric. Han berean ebortz cezatela eman cioten manua haurrei. Eta nola Navigius, Agustinen anaiac, eracusten baitcien Africarat eremaiteco nahicundea : Ez, utzazue, erran cioten berri-ze, utzazue hemen berean ene gorphutza. Orhoit zaitetze bakharric ene arimaz zuen othoitcetari. Solhaz horien ondotic mintzatu cen oraino aphur bat bere amodiozco haxbeherapenez Jesus Jaunarekin. Eta gero, berrogoi-ta hamaseigarren urthean celaric, bereci cen harea arima gorphutzaganic, joaiteco, Jaincoac bere haurren arimez, gorphuttez bezain ungi, erreneuraduten egiazco amentzat dagozcan sariez gozatcerat.

IRACAXPENA

O emaztea ! o ama familiacoa ! bacinaki zure ahalen berri ! bacinaki, santa Monicac bezala, etheco angeru izaten, eta zure pairuan, zure umiltasunean hogoi urthez iraunez, Senharraren on eta Jaincotiar bilhacarazten ! Bacinabiltza, hamabortz edo hogoi urthez, aholcu on emaiten bide gaichtoetan sarthua dukезun haurrari ! Zure nigarrez eta othoitcez atherarazten balinbacinu bide gaichto hetaric ! Cer zoriona, cer sariac eternitatean !

MAIATZAREN 6^{ean}

SAN JOANES DAMASECOA

Hila 731^{ean}

Joanes sorthu cen, icenac eracusten duen bezala, Asian, Damaseco hirian. Hiri hura Mahometanoen escuetarat erori cenean, haren aitac etcituen bere ontasunac galdu, nahiz giristino kharsu cen ; ez eta ere bere irabaz bideac. Ezagutu zuten ecen gizon zuhur eta zuten bat cela, eta ezarria izatu cen hiri guciarren aintcindari.

Joanes bere semea cerbeiten ikhasteco adinetaratu citzaionean, hartu zuen bere etcherat Cosme, presonieren artean cen

gizon jakitate handitaco bat. Eta, zuen hartce onarekin, etcen haur hunec ikhasi etzuenic. Azkenecotz nagusiac ezagutu zuen etcezkela gehiago deusic iracax, Joanes gazteac bazakielacotz hare becenbat. Eta orduan, jakinxun bezain saindu cen gizon hura, atheratu¹ cen gobernadorearen etchetic eta joan desertuco fraide-etehe batetarat.

Ethorri cen Joanesen aitarentzat, mundu huntaric bertcerat joateco ordua, eta semea bera ezarria izatu cen aitaren ordain, eta egiteco beren erdian. Ungi zaramazcan² ere guciac, eta hala giristinoentzat nola paganoentzat etcen deus hoberic galdetcen ahal.

Denbora hetan, Constantinopleco emperadorea hari cen, sainduric etcela adonatu beharriaco aitzakian³, Ama Birjinaren eta bertee sainduen potretean erretcen. Joanesec aldiz mahometanoen herritic ihardesten cion, eta hari bezala bazter guciei jakinarazten cioten cenbatez den sainduen ohoratceaz bertcelaco gauza Jaincoaren adoratcea. Borthitza cen beraz enperadore gaichtagin haren hasarregoa⁴. Eta hainbertcenaz hasarreago cen, cenbatenez-ere icusten baitzuen hobeki, ecin gaztiga cezakela ihardestaile jakinxun hura.

Azkenecotz, biskitartean, burura emaiten dio Satanec Joanesen galtceco bidea. Nolazpeit hatcemaiten du gobernadoreac bere escuz eginicaco liburu bat, eta badagoca gizona hunen iscribuaren ikhasten, hitzac hare bezala-bezala egiten ez dakiena.

Eta gero, igortcen dio mahometanoen erregeari letra bat, erraiten diolaric : Damaseco gobernadorea ekharria da, hiriaren giristinoei emaiterat. Saldua cinen, harenaz cen becenbatean ; icus eta iracur zazu, ceronec⁵, cen daasan, haren ustez gordea egon beharra cen letra huntan. Eta Joanesen letra-ordean⁶, dena haren hitcegitea iduri, haren icenarekin, han zuen hiriaz egin nahi zuelaco saltcepenaren escaintza.

Laztu ere bacen mahometano erregea bi letra hec iracur-

¹ El'hi. — ² Erouaiten zutian. — ³ Estacurian. — ⁴ Khechia. — ⁵ Cihaurec. — ⁶ Letera falxian.

tecan. Berehala agerrarazten du Joanes bere aintcinera, eracusten dio harena delaco letra, galdegiten diolarie, ja ezaguteen duen. — Jauna, isribu hori icus, eta erran diteke enea dela. — Ez bacine bezala ceroni egilea, dio berriz ere erregec. — Ene Jauna, egundaino, nie holacoric. Orobat zuen ichilie egonic.

Ordu berean picaraci cion escua eta itzaraci, carrica gainean, phaldo bati. Gure Sainduac ezagutu zuen errechki¹ noren ganic zuen ukhaldi hori. Hala-hala gogoac emaiten dio Birgina sainduac sokhorritu nahico duela.

Arraxean beraz, orducolzat errege ematuche², galdegiten dio, bederen utz dezan, escu khendu dionaren bere ganat hartcerat. Erregec onhexi cion galde hori.

Eta Joanes, ekharri diotenean escua, emaiten da Andre Dena Mariaren potret baten aintcinean belhaunico, ezartcen du escua ukharaiaren ondoan, eta, nigarrez dagolarie, othoizten du Ama on hura, eratchic dezola, harena gatic galdu duenaz gero. Cion oraino : Galdeteen dantzadana, ez dut nerotzat guticiatcen; egin nahi nukena da, zure Seme Dibinoaren eta zure ezagutaraztea. Hortan loharcatu³ cen.

Lo delarie, iduriteen zaio icusten duela Birgina Maria saindua eta erraiten diola : Horra non sendo zaren, orhoit zaite eman darozkidatzun agintec⁴. Atzartcean⁵ escua han zuen, bertcea bezain ungi lothua. Doidoia ukharaiari gelditu citzaion marra gorhail batec eracusterat uzten zuen picatua izatu cela.

Erregec jakin zuenean cer citzaion gerthatu⁶, husu⁷ ezagutu zuen saindu batekin zuela bere egitecoa, eta gaizki haritu cela. Othoizten du beraz, lausenguz⁸ eta egiten abal diozcan escaintzarie ederrenez, egon dadiela, ordu arterainoco carguan. Ordean Joanesec utci zuen hiria, eta joan cen Palestinarat, lekhu sainduen icustera, eta gero, jarri cen mortuco⁹ gizon zahar baten azpico, ikhasten hobeki, cer behar zuen egin sainduteeco. Hunec eman ciozcan iracaxpen¹⁰ premiaxuenac¹¹ ciren, etcezala

¹ Aise. — ² Facegatuche. — ³ Lothu edo lokhartu. — ⁴ Wittez. —

⁵ Iratzartecian. — ⁶ Agitu. — ⁷ Laster. — ⁸ Balacuz. — ⁹ Bortuco.

¹⁰ Leccione. — ¹¹ Inportantnac.

nihoz¹ berac nahi zuena egin, ezagut ezala cein ciren ttikiac zuen jakitatea eta bere baitharic cituen abalac, eta, oraino, etzadiela nihori mintza munduan ikhasi zuenaz.

Icusteco cer heinetan zuen bere discipulua, aintcindari saindu harc manatu cion, behin batez, zohala Damaseco hirira, saski salteera, erraiten ciolaric, saski bakhotchaz cenbat behar zuen egin, Joanes, eteen guphide² izatu, lucez jaun handi egotu cen hiri hartan, saski hekientzat galdetceaz behar cenetic erdia sobera.

Ororen irringarri zabilan beraz, carricaz-carrica, eta bere zamarea³ azpian concortua, muthil ohi batec, ezaguturic nor cen, erosi-ciozceanean urricalmenduz⁴. Orduan itzuli cen bere nagusia ganat, urguiluari zaphaldi on bat emanic.

Horrelaco lan apha eta ahalkearaz garrien bidez, laster aintcinatu cen saindutasuneco bidechketan.

Azkenean Jaincoac berac adiaraci⁵ cion hunen gidariari, baciola aski iracaxiric; Joanes jar citekela bere gain; eta behar zuela egin liburu, bertcec ere edan ahal cezaten, hura baithan ezarria cen jakitatezco ithurritic. Eta, mortutiar zaharrac igorri zuen gazteangoa, jarraic zadiela Jaincoaren manuari.

Hasi cen beraz Joanes iscribateen sainduen bultoen⁶ ohoraccea eta sainduen alderaco⁷ debocionea gaitcesten zutenei buruz, eta, azkenecotz, eliza guciaz gorexia, berac bere tintaz gorexarazten zuen becenbat, mundutic urrun, lucez sainduki hici izatu ondoan, bicitcearen araberaco heriotce batec ezarri zuen bethicotz, bere Jesus eta Maria guciz maite citueneen icusmenean.

IRACAXPENA

San Joanesec sainduen potret horientzat bere egin-ahalaren egitea zuen bezala, gutaric bakhotchac ere badu Jaincoac eta bere estatuac emanic, eginbide bat bertceac baino zorrotzagoa. Aita amen eginbidea da, haurren sainduki altchatcea; cargu-

¹ Behinero. — ² Herabezti. — ³ Hachiaren. — ⁴ Pietatez. — ⁵ Enthelega (r. z.). — ⁶ Potr. ten. — ⁷

dunena beren nagusitasunaren joanaraztea. Jaincoaren ordain direla orhoituz. Cein da Jaincoac gure gain ezarri duen eginbide berecia? Hartaric doha gure Salbamendua. Hura beraz oso osoa bethe dezagun, eta azken eguneraino.

MAIATZAREN 10²⁰

SAN ISIDRO LABORARIA

Hila 1170²⁰

San Isidro sorthu cen Madrilen, beren esculanetic bici ciren burhaso¹ batzuetaric. Burhaso hauc etcioten deus escolaric eman, egunean egunecoa doidoia irabazten zutelacotz. Ordean beren erran eta eracusp² onez ezarri cituzten, haur hunea bihotcean, Jaincoaren beldurra eta amodioa; Izpiritu Sainduac egin zuen gaineracoa; eta horrela bazuen, munduco nagusien ganic izatu zuen baino gebiago.

Gaztetasunean, jarri cen muthil, jaun baten etchean, lur lanetan baritceco; berantchago, ezcontceco adineratu cenean, hartu zuen laguntzat, munduac guticiateen dituen onthasunez berac becen gutti, ordean Jaincoaren begietan handi egiten gaituztenez, berac becenbat zuen emazte bat. Zuhurrac, Testament zaharrean, deitcea ditu halaco emazteac, hazcarrac, eta dio, ceruan hainitz birjina baino gorago ditezcela.

Jaincoac onhartu zuen hekien batasuna, eta eman cioten haurra ahalic hobekiena alchatcen hari zuten, erori citzaiotenean phutzu barna batetara eta han itho. Ordean biac, beren othoitcez eta nigarrez, galdegiten dute Jaincoari, ezdizoten hain laster ereman, bere ontasunaz eman diotena; eta berehala, piztua, ur achalera agertcen da; ura bera ere hantcen da oraino eta, zola-zolatic gainera, burhaso hekien bel meneraino, ekhartcen diote haurra.

Uste izaiteco da gerthacari horren gatic cirela, eta Jaincoaren

¹ Aita eta ama. — ² Exenplu.

hobeki maithacea gatic, sarthu chedetan, beren bici gucian elkharekin anaia arreba bezala bicitceco.

Laborari saindu huneu orduz gerozco bicitcea icustecoa izanen da. Nahiz porrocatua dagocan gorputza bere lur lanetan, hala ere ez dio pausa osoric emanen gabaz. Ecen Jesus Jaunaren amodio ecin kharsuagoac cer nahi penitencia eginarazten cion.

Igande eta besta egunetan etzuen bertceric egiten baicen Jaincoarekin solhas samurrenez¹ mintzatcea, meza sainduaren entzutea, eta predicuetan aurkhitcea². Astelegunetan jeikico da goicic, nahiz gaua casic osoric othoitcean iragana duken eta ibilico da elizi batetic bertcera, ascotan nigarrez urteen hari delaric.

Horrela³ loari khenduz bere bihotzac Jaincoarentzat galdegiten cion denbora, han cen chuchen bere lanean hasteco ordua ethorri ceneco.

Bizkitartean, bere lagunec salhatu zuten bere egitecoei baino hobeki jarraikitzen cela othoitzari. Nagusiac etcituen osoki sinhexi. Ez; ordean behar duela berac bere begiez icusi cer iragaiten den, jartzen da, egun batez, Isidrori begira, ezponda⁴ baten gainetic.

Eta hau gauza espantagarria! icusten ditu, bere muthilaren bi aldetan, ezagutcen ez dituen bi gizon. Errechki ageri dute cerutiarrac direla: hargatic galdeteen dio Isidrori berari gizon hetaz berri, eta jakiten du, Jaincoac laguntcea gatic igortcen diozcan bi aingeru direla. Hortacotz utci zuen ichilic eta bere bicitceaz deusic erran gabe. Jaincoac hain maite zuenari cer erran citeken.

Egin zuen hobeki, ezarri zuen lehen etche-gizon. Ecen iduritzen citzaion Jaincoaren benedicioneac haren etchearen gainerat jauxaraci behar cituela; eta halachet gerthatu⁵ cen.

Behin, hil citzaion baitezpada⁶ behar zuen zaldi bat. Isidro pitzarazten dio bere othoitzaz. Bertce behin, nagusiari hiltcen

¹ Elberic amorioxienez — ² Causitcia. — ³ Gisa hortan. — ⁴ Lur gora. — ⁵ Agitu. — ⁶ Nescsarioki.

zaio alaba guciz maite bat, Isidro¹ oraino othoiz egiten du eta pitzarazten haurra.

Bertze aldi batez, lanean hari celaric, icustera ethorria, egarriac erretcen hari zuen nagusi hau, eta eteen nihon, ondo hetan, uric. Isidro² akhiluaz³ joiten du lurra, eta herehala agertcen da, egundaino geroz agortu ez den urburua.

Bertzalde, oxoac eremaiten cion egun batez bildox bat; Isidro ez da bere tokitic higiteen, bakharric othoiz egiten du, eta oxoa hil-gogorra erortcen da, biciric uzten duelaric ez-baian ithoa zuen acienda.

Erran dugu jadanic etela aberax; hala ere laguntza handia egiten cioten erromesei: Noiz nahi beretzat izaiten zuena erdizateen zuen hekiekin edo hobeki erraiteco, hekien sobrakinetaric baicic eteen bici.

Egun batez, zuen gucia eman ondoan ethorri citzaien oraino erromes⁴ bat, cerbeiten eske. Manatcen dio andreari, dobala jateco-ascara deusic gehiago ez othe den icustera. Andreac arras ungi bazakien hustua cela, ordean, manatu diolacotz badoha; eta, horra non, jatecotz bethe-bethea causitcen duen. Jaincoac egin zuen miracuilu hori, hekien lagunarentzateco amodioaren saristateca gatic.

Ordu hetan ere confrariac egiten obi zuten elkharrekin, beren elizaco urhaxen ondotic, cerbeit othuruntza⁵. Isidroentzat elizan cela besta gucia, errech da sinbestea. Behin ahanteiche ere zuen elizan bere burua; eta noizbeit baicic eteen heldu othuruntza cen tokira.

Haratcean, erromes oste⁶ batez inguratua aurkhiteen du etchea. Sartcen da hekiekin, eta behatu gabe, jende cikhin hec cergatic sarraraci dituen, eta cergatic hain berant ethorri den galdegiten diotenei, hartcen du escuetara beiratu dioten zathia; emaiten du lehenic ethorriari, eta hala ere baratcen zaio bigarrenarentzat, emaiten du bigarrenari, emaiten du hirugarrenari, emaiten diote gucici, eta, Jaincoac hala emendatu due-

¹ Pherticaz. — ² Praube. — ³ Apairu. — ⁴ Teli.

lacotz zathi bakhar hura, erromesekin egiten du lehen mahaintaracoena bezain ona cen othuruntza bat.

Horiataric guciataric ezagun da arima eder hura ondua cela cerucotzat. Urhax saindu horietan, eta Birjina sainduaren ohorateen zahartu cen ondoan, hil cen maiatzaren hamabortcean bicitcearen araberaco heriotceaz. Eta laster hedatu cen Madril-en eta Espainia gucian haren alderaco debocionea.

IRACAXPENA

Munduco lanteietan¹ egonez San Isidro bezala, zure arimaren Salbamendua egin behar duzun laborari edo langilea iducatzu zure bihotcean Jaincoaren beldurra eta amodioa, eta, ez izana gatic ere ez onthasun ezjakitate handirie, cer mercecimenduzco tresorac ez ditutzu cerucotzat biltcen, zure nekhe eta icerdien bidez! Orhoit zaite hortaz, zure egun ilhun eta axecabez betheac direnetan!

MAIATZAREN 16^{ean}

SAN JOANES NEPOMUCECOA MARTIRA

Hila 1381^{ean}

Nepomuce da hiri bat, egun Autrichiari obeditecen duena. Hiri huntan cen mundurat ethorri orai ezagutaraztera daramagun Joanes saindua. Hargatic, seme hau bere besoetan icusi etzueno, lucez othoitz egin behartu citzaion hunen amari. Eta erraiten ahal dugu, Andre dena Mariaren arartecotasunari esker zuela izatu. Gerochago oraino, ama samur² haren escuac beiratu zuen heriotce trichte batetarie. Asmatceco³ cen beraz, ordutic, haur hau etcela gizon arrunteco baten gaia⁴.

Ezagutzaratu⁵ cenetic aintcina, joan cen Joanes gaztea, nihoiz⁶ bide onetic ceihartu gabe, eta egunetic eguenera, ge-

¹ Lankhietan. — ² Trende. — ³ Phenxatceco. — ⁴ Geia. — ⁵ Enthelegiaren adineratu. — ⁶ Behinere.

roago eta sainduago. Azkenean, orducotzat ikhasia escoletan eracasten ahal cen gucia, izatu cen apez ordenatua. Apezpicu ere izan citeken, bainan carga handiegia zaio; eta badoha Vencezlas enperadorearen caperarat, predicatzen eta cobesatzen haritcera.

Gortean hainbertce su eta kharrekin mintzatu cen, non, Jaincoaren beldurric gabe bici cen enperadore hura, aphur batentzat bederen, tricatu¹ baitcen bere bekhatuzco bidean. Joanesen saindutasuna eta jakitatea ezagutuac ciren. Horren-gatic enperatrizac hartu zuen arimaco gidaritzat, eta, haren erranei behatuz, bazohan arin ceruco bidean.

Vencezlas aldiz, iduri exaiac hartua, bekhaizgo beltz batez irexia zagon, eta ikharetan, andrea noiz izanen citzaion desleial. Nahiz haren ganic bacituen amodiozco seinaleric hoberenac, bazabilzcan hala ere barrandariac² non zabilan, norekin ciren haren solhasac. Azkenean bururatcen zaio, behar dituela enperatrizaren berriac jakin, haren cobesoraren ganic.

Joanesi beraz, urrundic hasten zaio, agian uste gabez, cerbeit erran aracico diola. Gero, galdetcen dio ageriki eta chuchenca. Sainduac, laztua, ezagutcerat eman cion, cein cen beltza eginaraci nahi cion salhatcea. Bainan gaichtagin hura, ordu arte-raino bere manuae berehala eginac icusten³ obi cituelacotz, entzuten duen ihardeste zuhurrac, areago baicen ez du gaichtarazten; eta, beltzuri ikharagarri batekin igorri zuen Joanes canporat.

Handic cenbeit denboraren buruan, enperadorea aski bi-hotz gabe agertu cen, jaki bati gatz gutiegi edo sopra ezarri ciolacotz sehi⁴ batec, sehi haren beraren gerrenean erre nahi izaiteco.

Joanes jakinxun, buruan zuenaz geroz, gai⁵ cela oieskeria⁶ horren egiteco, joaiten zaio, ja emarazten⁷ ahal duen. Ordean enperadore gaichtoac, bera ezarrarazten du presondegian, jate-coric ez edatecoric gabe, han utz dezatela manatcen duelaric.

¹ Ekhuatu. — ² Celatariac' edo concouchcazaliac. — ³ Sordei. — ⁴ Michcandi. — ⁵ Capable. — ⁶ Salbaikeria. — ⁷ Faecegarazten.

Uste zuen horrela garhaitcen zuela. Bainan ez, ezagutu zuen laster, etcela deusic hari.

Orduan ekharrarazten du bere etchera. Agurra¹, solhasa² eta ederrarena egiten diozca, hekien artean deusic behinere iragan ez balitz bezala; mahainean, berarekin eta bertee handiekin jan arazten dio. Bainan, azkenean, bibiac direlaric, erraiten dio:

Hitz darotzut ene andrearen berriric nihore, nihoiz, ez duela ene ganic jakinen; mintza zaite beraz, deus beldurric gabe; eta zuretzat ditezke ohore guciac. Ordean zure ezean nahi bazare thematu³ cer nahi pairarazten⁴ dautzut, eta behar bada heriottea bera.

Nihoiz⁵! nihoiz! Jauna, holacoric! ihardesten dio Joanes sainduac; ceroni⁶, ohart zaite Jaincoa dela bakharric gure gogoeten, eta gure bihotcen miatzailea⁷. Bertee cer nahitan zure muthil; cobesione salhatceaz denaz becen batean ez gehiago deusic galde.

Enperadoreac, hasarreagoaric⁸ handienez, ezartcen du burregoen escuetan; eta burregoez, zur batzuen gainean lotcen diozcatelari zango-besoac erretcen diote gorphutz gucia, su ezti batean. Gure Sainduac etzuen ez aubenic⁹, ez nigarric; entzuten cioten gucia, hau cen: Jesus! ene Jesus Jauna! Jesus eta Maria! Horrela pairaraci ciotenean ahal becenbat utci zuten erdi-hila, eta, berriz ere, gazteluan ezarri.

Bizkitartean, enperatriza, jakinic cer iragaiten den, badoha enperadoreari buruz, eta hain ungi egiten du, non, bere cobesor sainduari barkhamendua izanarazten baitio. Joanesi ephe labur bat baicic etcela barkhamendu hori, adiarazten¹⁰ cion Jaincoaren graciac. Egundaino baino kharsukiago eman cen beraz contcientciaren garbitcen¹¹, deus errencuraric gabe ager ahal zadien Jaincoaren aintcinean.

Eliza aphaitu batean izanic, Andre Dena Mariaren laguntza-

¹ Salutationia. — ² Elhia. — ³ Gogortu. — ⁴ Sofriarazten. — ⁵ Secula. — ⁶ Cihaur. — ⁷ Ikherzalia. — ⁸ Khechuric. — ⁹ Haxperenic. — ¹⁰ Enthelega erazten. — ¹¹ Chahatcen.

ren eske, etcherat zohan, enperadoreac icusi zuenean leihotic Jauregi aldean¹ iragaiten. Sarraracirie lehenagoco galde berac egiten diozca, eta Joanes sainduac ez dio densic ihardesten. Ecin gehiago egonean, manateen diote burregoei, ilhundu duen bezain sarri, eta nihore icusi gabe, zubi gainetic arthic dezatela ur handirat.

Saindua etcen harritu manu hori entzutean. Aitcitic² eskerren emaiten iragan zuen heriotcerainoco denbora, ceren emana citzaion hiltcea bere cin sacratuen gatic. Jesus Jaunaren amodioaz bihotza sutan zuen, erori cenean hibaierat³ eta itho cen sentimendu beretan celaric.

Ordean etcen urpean egon beharra. Ecen haren arima cerurat zohalaric ur achalera igana, gaiac⁴ darama ezti-etzia Joanes sainduaren gorphutza. Eta hainberteenarekin, chirio⁵ piztu batzu iduri, argiric ederrenac abiatcen dire lerro lerro gorphutz haren inguruan. Jainco Jaunac horrela eracuxi nahi zuen cin zuen gogaracoa saindu hunen berthutea.

Jendeac lasteregin zuen, argi hec cer ciren icustera; eta, han aurkhituric⁶ Sainduaren gorphutza, ohore gucien erdian, ereman zuen hirirat.

Miracuila hortaz canpo hainitcec izatu cituzten graciariac berecienac, Saindu hunen arartecotasunari esker, hala haren ehortztecó orduetan, nola geroztic.

Bertzalde, Aita-Saindu Benoat hamahirur-garrenac Sainduzat ezagutu zuenean, miatu zuten haren hobia; eta, nahiz bazuen hirur ehun urthe baino gehiago ehortcia ccla, hala ere, atceman zuten haren mihia, hiltceco egunean bezain eder eta garbi. Miracuilu haukien gatic, Saindu hunen alderaco debocionea hedatu cen bazter gucietarat.

IRACANPENA

Horra certara ekharria den, denbora gucietan, cobesora :

¹ Khantian. — ² Countrabat. — ³ Uhaiteilaq. — ⁴ Hour courrentac. — ⁵ Torcha. — ⁶ Causituric.

Gobesio¹n entzun gauzac salha letzazken baino lehen, cer nahi-
ren eta heriotcearen beraren ere jasaiterat.

Cergatic bekhatorea ez da orhoiteen Saindu huntaz, bere be-
khatua erran gabe uztecotan denean, ahalkez edo beldurrez?
Jainco batec bere odola ichuriz erosi zaituen arima, orhoit zaite
cobesor haren mihia estecatua dela eta niholaz ere, ez duela eza-
gutcerat emaiten ahal, deusic erran diozula; orhoit zaite, cobes-
sional hartan ehortcia barateen dela zure solhasa; eta, segur,
errechago izanen zaitzu zure huxen agertcea.

MAIATZAREN 27^o^{oa}

SANTA MARIA MADALENA PAZZICOA, BIRJINA

Hilac 1607^o^{oa}

Maria Madalena cen, Italia Florenzaco hirian, Pazzi icena zuen
etche aiphatu batetaco alaba. Sehascatic¹ athera orduco, hartu
zuen saindutasuneraco bidea. Hamar urthe baicen oraino ez
izanki, eta jadanic egina zuen bethiereco birjinitatearen beira-
tceco botua, eta etzuen orduz geroz, deus erreneurarie munduco
edergailuez ez axeginez².

Berantchago, Jesus Jaunarentzat zuen amodioari hobeki be-
reaz ihardestea gatic, sarthu cen Carmelitetan, eta hasi zuen,
etche saindu hartan, gucientzat iracaspén erneazgarri cen
bicitce bat.

Jaincoaren graciae ezagutaraci ciolacotz, haste-bastetic, pai-
ramenen balioa, ecin gaizkiago ekhartcen zuen bethi bere gor-
phutz hobenic gabea. Ordean huna, cergatic eman cen peni-
tencia egiten garraztasun berri batekin.

Behin, maiz gerthatcen citzaion bezala, mintzo delarie izpi-
rituz Jesus, bere espos guciz maitearekin, egiten dio Nagusi
Dibinoari lehenago Jondoni Pauloc egin cion galdea: « Jauna
cer nahi duzu egin dezadan? » eta Jesusec ihardexi cion: « Hire

¹ Khuñatic. — ² Placerez.

bicico egun gucietan, igandez eta besta egunez canpo, hagekidan jan ez edan gabe, ibil hadin, uda ala negu orthux eta soineco tcharrekin. »

Eta horra nola bicico den Madalena. Joanen da oraino urrunago. Bere soineco tcharren azpian, ibilico ditu zurdazco¹ larru arrasecoa eta gerrico itcestatua, ascotan odoletan ezarrico du bere gorphutz samurra²; eta gero haurride lagunec erraiten hadiote urrunegi dohala; utz nazazue, ibardesten diote, pairatcerat³ ene bekhatuentzat.

Berteelaco pairamen batzu garratzago izan behar citzaizconac, bazaozcan oraino Jainco Jaunac bere haur maitearentzat. Udaco beroen ondotic, calerna⁴ dakharketan⁵ hedoi beltz-urdinec, lurra hartcen duten bezala, jaidurarie⁶ muthirienen lanhoac eta guticiarie tzarrenen kheac hartu cioten arima.

Goibeldu⁷ zaio beraz cerua eta izar ihintcic ez da gehiago jausten haren gainera. Lehenago, tabernaclen inguruan cituen zorionezco ithurriac, hec ere osoki agortu dire. Izpirituac ez dio bertceric eracusten, ez bihotzac bertceric galdeteen, baicen ere bekhatua.

Ganic beltcenean, toki arrotcetan, argiguciac hil zaizeconaren pare, ezdaki gehiago non den, ez cer hari den. Bakharric, chimichta batzuen bidez, icusten du lece handiaren hegian dela. Behin ez-baian lerratu dela ere idurituric, badoha asunez eta lapharrez hartua den baratce zokho batera; eta, han asun eta laphar hekien artean, itzul-inguruca dabila indarrec dirautetimo.

Bortz urtheren buruan, bakharric, exitu zuen ifernuac harekin deusic irabaztea. Jaincoac ere icusi zuen aski garbitua cela haren arima, eta gai⁸ cela harentzat oraino ciren gracia berecien jasaiteco.

Madalenac frogantzazco urthe hetan egin zuena hau cen, ixutuki bere cobesoraren erranei jarraititcea eta aphaltasun handi batekin ezagutcea etzuela osoki zohacona baicen.

¹ Bilhozco. — ² Trendia. — ³ Sofritcerat. — ⁴ Tenpesta — ⁵ Ekharren dian. — ⁶ Enjogidura. — ⁷ Odeizutu. — ⁸ Capable.

Orai arteraino erran dugunetic errech da icustea, edo bederen asmatcea cein citeken handi Madalenac Jesus Jaunarentzat zuen amodioa. Amodio horrec guticiarazten cion, gizona egon zadiela bekhatuic gabe; eta zaasan maiz¹: « Cer ez nezake paira, lur-raren gainetic bekhatua, behin bethicotzat gal dadien! Bai! ni hilen naiz, aditu² ahal izatu gabe nola gizonac damusta³ deza-ken Jaincoa! »

Eginen zuen cer nahi bazter guciei egia horren entzun araz-teco. Bere ecin bertean erraiten zuen cenbeit aldiz: « Oi amo-dioa! amodioa! borthitz diezadazut mintzoa, iruzkia⁴ jeikitcen den aldetic ixas bazterraino, toki gucietan entzun nazaten, eta zu egiazco amodiotzat ezagut zaitzaten. »

Emana izatu citzaion icustea, izpirituz, arima bat ifernuan sartcen; eta, berehala, oihuz hasi cen: « Horra beraz, dohaca-bea, non haicen ifernuco ileti⁵, eta denbora iraganaren orhoi-tzapenac, ez daroc tormentaric baicen emanen! O Jainco bethie-recoa! eta gizonec ez diote begiratceric gauza haukiei! » Horre-laco haxbeherapenez hiratua, hurbildu cen Madalena saindua bere azken egunetarac.

Bere guticien arabera, orduan hazcartu ciren haren pairamen guciac. Behartu citzaion egon, ohe bati josia, oinhaceric⁶ bor-thitcenen erdian; doidoia ukhitcen bazuten, pairatcen zuelaric, nabal ukhaldica chehatua izatuz egin zukena.

Etcen dena hortan, Jaincoaz ere utcia bezala izatu cen bere indarrei. Haren amexa, denbora gucian izatu cen geroago eta iduripen gehiagoren hartcea bere Jesus maitearekin; eta orai hura bezala doha hiltcera.

Cobesorac erraiten dio, pairua⁷ gal cezan beldurrez, nahi diola Jaincoari othoitz egin conxolacione cerbeit eman dezon: « Ez, ez! ene aita, ihardexi cion sainduac, ez dut conxolacioneric bilhatcen, bainan bai oinhace; nahi dut pairatu ene azken haxeraino! guticiatcen dudana da, hiltcea edo pairatcea, edo hobeki, bicitcea pairatcea gatic. »

¹ Ardura. — ² Enthelegatu. — ³ Of-nxa. — ⁴ Ekhia. — ⁵ Itchindi. — ⁶ Sofricaritic. — ⁷ Pacentria.

Irabazbide haukien erdian lucez egotu ondoan, berac erran egunean, utci zuen Maria Madalenac lur hau, berrogoita bat urthetan, bicitce bat hain garratzari zobacon dohasutasunaz gozateerat joaiteco.

Santa Madalena hil cenean izatu cen asco miracuilu. Aipha-teen dut bakhar hau : Haren begitartearen icusterat ethorri cirenen artean, izatu cen bekhatuan bici cen gizon bat. Eracusterat emaiteco, oraino behin, cein zuen higuin izatu bekhatua, saindaren burua inguratu cen bertce alderat. Etzuen beraz bekhatore haren begiac icusi ahal izatu.

IRACAXPENA

O bicitce baliosa, bethi gurutcean eta pairamenetan Jaincoa gatic iragana! Cein dohasu den sainda handi hau ezagutu due-lacotz ez dela bici hau. bainan bai bertcea axeginetan izaiteco egina. Erran dezagun harekin gue ere : Nigarretan hemen erai-nen dut hacia, eta ceruan, bozcario gucien erdian, izanen dut uztaz gozateca.

FRIARDAREN 6^o^{mo}

SAN NORBERT MAGDÉBOURKECO ARCHAPEZPICUA

Hila 1134^o^{mo}

Norbert sorthu cen Alemanian Coloñaco hiriaren aldean, Santeneco herrian. Haren gatzetasunari begira¹ eta, etcíteken erran nolacoac behar ciren izan haren gerochagoco urhaxac. Ordenatua sudiacre, beneficiatu bezala, eta apecen officioa emanaz cituzken onthasunez gozateca gatic, bici cen, bere en-peradorearen gortean, axegin² eta besta gucien erdian; eta aspaldi zuen horrelaco bicitcea zaramala.

Egun batez, orducotz hogoietan hamahirur urthetan, iragai-ten cen sorho³ eder baten erditic, bera zaldiz, muthil bat on-

¹ Sogin. — ² Placer. — ³ Phentco.

dotie, eta joanki, bere ustez, axegin berri bilha¹, noiz eta ere betbetan, denbora ordu arteraino aski on cenac, osoki tzarrerat emaiten baitu. Hedoï beltz bat aintaineratcen bezala zaiote, eta hartaric ihurtzuri eta chimichtarie² ikharragarrienac hasten dire.

Harritua, muthilac erraiten dio : Jauna itzul zaite ! itzul zaite Jauna ! Jaincoa ez duzu alde ! Ordu berean ceruticaco mintzo batec ere erraiten dio : Norbert, Norbert, cergatic gerla egiten darotac ? ene elizaren ongi egile nahi hindutan eta hire haurriden galaraztaile baicen ez haiz !

Hainbertcenarekin aire gaichtoa erortcen da Norberten sahexera, egoitcia³ da bera zalditic ; eta noizbeit, bere baitharatu denean, ezagutuz Jaincoaren escuac duela arthiki, galdegiten dio : Jauna, cer nahi duzu egin dezadan ? Eta Jesus Jaunac ihardesten dio : utz dezacan gaizkia eta egin ungia ; atceman arteraino bilha zac bakea.

Hori izatu cen Norbertec lurreco axeginentzateco amex guciac utci cituen oren eta ordua, Jaincoaren amodioa bihotcean itzultcen da bere etcherat. Lebenbician, bere jaunztura ederren barnetic, ezartcen du bekhatore urrikituen⁴ gathea eta larru arrasecoa. Gerochago uzten ditu bere arropa ederrac berac, eta, jauntzia philda tchar batzaez, deithoratcen ditu lucez bere bekhatuac.

Azkencan apeztua, hasten da predicatcen kharric handienarekin, eta ethortcen da Nimeco hirira, han celacotz aurkhitcen⁵ orduan Aita Saindua.

Norbertec egiten dio berri-berritan bere bekhatuen cobesioa Aita Sainduari. Eta, barkhamenduarekin batean, emaiten dio Jesu-Christoren Bicariaoac, penitentiataco, predicatcen haritcea. Ibilico da beraz Norbert hiriz-hiri, herriz-herri, egunean behin bakharric othuruantza⁶ mehe bat eginez, doidoia soinecoec jarrua estaltcen ciotela, eta orthux izan zadiela elhur ala horma⁷.

¹ Cherkha. — ² Uhulgu eta inhaeric. — ³ Arthikia. — ⁴ Dointan direnen. — ⁵ Causitcen. — ⁶ Apairia. — ⁷ Kharrou.

Unhatua¹ cen eta lehertua Laongo apezpicuac galdetu zuen bere diosesarat. Bainan jaun hunc pausaraci zuen, eta hain ongi arthatu² non berriz ere predicateco heinean jarri baiten. Hasi zuen beraz, bere ohico lan borthitza. Eta hemen ecin erran ditekena da, ecin cen handi egiten zuen ongia.

Hortaracotzat hunen solhas³ sua zariona eta zaraman bicitee gogorra haitz hari ciren; bainan bertalde, ageri zuen Jaincoaren bothereac escuetan cituela, barreiatceco. Hala-hala hanbat gaichtoago⁴ cen haren erranei behatu eta Jaincoaren deiari ihardexi nahi etzuenarentzat; baciteken harentzat cerbeit minhartce⁵, eta, batzuetan, hiltcea bera.

Laongo apezpicuac, Jaincoac bidali cion apostolu handi hau gal beldurrez, eta berarekin idukiteagatic, erraiten dio: Norbert, ene diosesaco lur eta bazter guciac zureac dire, dohatzun tokian, alcha zazu etche bat, zuretzat, eta zure azpico jarri nahico dutenentzat. Eta Norbertec hautatu zuen Premontre dei-teen den lekhoa.

Harat, bazter gucielaric, ethorri citzaizeon lagunei gomen- datcen cioten, izan cezatela bihotceco garbitasunic⁶ handiena, eta begien aintean iduc⁷ cezatela beren egun gucietao hux chumeac⁸, hetaz bethi nigar egiteco.

Gero etzadien nibor loxa, icusizecin cen garratza eman cioten erregla, berteen aintean zohan bera, nekhezenic egiten diren gauza gucietan. Eta horrela nahiz gure arimen exaiac egiten dituen egia-ahalac fraide gazten gañean haukien loxarazteco, bizkitartean beharce du Norbertec asco etche alchatu, ce- ruco bidea eracux dezotela galdetcea dioten guciei leihorraren emaitceco.

Denbora hetan, bacen, Amereco hirian, gizon ondicozeco⁹ bat arima galarazten hari cena, predicatuz zarkeriaric beltceac ere etcirela bekhatu. Jadanic jende oste handia zuen beretua, eta nihorc etzuen ahalic aski, haren ichilarazteco. Norbert joanarazten dute, bere oihan zokhotic, hiri harturat, eta, haren

¹ Eñheric. — ² Souañatu. — ³ Elhe. — ⁴ Sordei. — ⁵ Maiakhatce. — ⁶ Chetutarzunic. — ⁷ Atchic. — ⁸ Tchipiæ. — ⁹ Malerous.

mintzora, zoratuac eta ixutuac zauden arima hec adimendurac-
teen¹ dire, argiteen diozcate Jaindu hunec begiac, eta, hirian
bakea ezarririe, itzultcen da bere haub maitetarat.

Berantchago, gogorraci zuenean ungi bere ordre berria eta
icusteco izatu zuenean Jaincoac ere benedicatcen zuela, joan
cen Erromara, Aita Sainduari ezagutaraztera bere haurrei
eman dioten erregla.

Ordu hura baino lehen ere, Norbert Saindnaren berriac hel-
duac ciren Erromarat. Erroman bazakiten aspaldion nolacoa cen
Erregla berri hui obediteen cioten gucien kharra; eta hortac-
cotz errechki izatu zuen Aita Saindua ganic guticiatcen zuen
baimena. Ordean bozcario horrec etcion lucez iraun. Ecen
Jaincoac jakinarazten dio laster apezpicu izanen dela.

Berri hortaz bihotza zaphatua, etcherat zohan, Alemanian
gaindi, Lothaire erregeac icusi cionean miracuilu bat egiten
Bazco egunean mezaren ondotic: Jaincoaren graciaz hortara-
tua emazte ixiu bat hurbilteen da Norberten gana, eta erraiten
dio: Ene aita, urricak nakizula², ecen trichteki naiz. Sainduac
buhaco bat egiten dio, eta haren begieac bazuten argia.

Doidoia cenbeit egun zuen miracuilu hunec, noiz eta ere
Magdebourkeco jaun batzu Errege hunen gana ethorri baitci-
ren hunen othoiztera, hil citzaioten archapezpicuaren ordain
bertce bat icenda cezala. Lothairec laster bereci zuen icendatu
behar zuena, eta Norbert bortchatua izatu cen apezpicutcerat.

Ordean, egitecoac emendatcearekin, etcen bicitceaz ganbiatu:
predicatceari berriz lothu cen, eta makhur gucien chuchent-
ceari. Jendea herronca gucietan osoki lazatua celacotz saindua-
ren predicuec behar zuten han e lo hemen aspercuade³ cerbeit
pizaraci. Bertcei bide onaren eracustaile izan behar zuen gi-
zon batec atzeman zuen dirutan muthil bat, eta igorri, zohala
apezpicuaren hiltcera.

Gizon lau, harma gordea, bazohan, hari buruz, cobesa-
tceco aitzakian⁴, Jaincoac ezagutaraci cionean San Norberti,

¹ Enthelegialateen. — ² Ukhen dezazula pietate nitzaz. — ³ Maleria.
— ⁴ Estacurian.

cer chedetan ethorteen citzaion. Muthila miatua¹ izatu cen, eta hortchatua bere bekhatuaren aithortcerat. Bere ecin bertcean humiliatu cen; barkhamendu escatu-ere bai; eta sainduac barkhatu cion.

Azkenecotz gaichtaginat edo eiren sarthu bide onean, edo bederen gorde; eta san Norbert, zazpi urthe baicen etzuelarie apezpicu cela, doidoia hogoi Jaincoaganat itzulia cela, denbora laburrez hainitz bide saindutasunean eginie, deithua izatu cen bere lan eta urhax sainduetz irabaci sariez gozatcerat, herrogoita hamabi urthetan.

IRAGAXPENA

Cenbat aldiz Jaincoac Norberti bezain ngi ez darocu boz bera gure bihotcetan entzunaraci? Cergatic darotac gerla egiten? Cergatic hire exemplu eta egiutza gaichtoez galteen ditue hire eta berteen arimac.

Bekhatorea! ó ihardex zozu Norberten hitz berez.

ERIARGAREN 19^{on}

SAN ANTONIO PADOUCOA

Hila 1231^{on}

Saindu hau deithua da Padoucoa, hiri hartan zuelacotz maizenic² bere egoitza; bertcenaz, sortcez, Portugalen Lisbonacoa cen. Hautasuna sainduki iragan zuen; eta, gero oraino, goicic sarthu cen Agustinen comentu batean, mundueo bekhatuei errechkiago³ ihes egiteagatic.

Bainan nola ez baitcitzaion iduritcen aski egiten zuela gure Nagusi Jaincoarentzat, comentu batean egoiteaz, galdegia zuen eta ardiexi Franciscanoen comenturat joatea. Cion ecen bere buruari, Franciscanoetarie beharbada igorria izanen cela Maho-

¹ Ikertu. — ² Ardureric. — ³ Aisiago.

metanoei predicatera, eta hala badukela bere odolaren Jesus Jaunarentzat ichurtceco zoriona¹.

Behin, orducotzat Franciscano eta Anton'o deithua, uste izaiteco du, baduela hain kharsuki guticiatcen zuena; ecen jadaneco ixasoan da, Africarat dohan untei batean. Bainan eritucen, eta, beldurrez hil zadien, Africaco lurretarat gabe, untei zuten Siciliaco islan. Arimea salbamenduarentzat sutan cen bihotz hanc Italian berean eta Francian zuen gerla egin behar bekhatuari.

Sendatuche denean, badoha Assisero hirira, han celacotz, ordu hartan, Aita san Franxes, ordenaco aintcindari guciekin; Aita san Franxesi behar dio bere benedicionea galdetu, eta aintcindari bec behar ditu othoiztu, Italiaco edo cein etchetan ezar dezatela bainan ez dezaten gehiago Portugalerat igor.

Antonioc etzuen ezagun densetaco nihoiz² on izanen cela, eta hortacotz hainitz nekhez izatu zuen guticiatcen zuen gracia. Nolazpeit baitu, eskerrac emaiten diozca Jaincoari, eta joaiten da bocic, bere etche berrirat.

Han zagon ichiltasunean, bere arimaren berthutez aphaintcen hari; bainan osoki gordea, eta, ez balitz han izan bezain ungi, denez ahantcia. Aldi batez baciren elkharrekin Dominicano eta Franciscano batzu, Antonio ere han cen hekiekin. Franciscano aintcindariac erraiten diote Dominicanoei, predicu tiki bat behar dutela comentuan eman. Ordean Dominicanoac gibel daude, diotelarie lehentehago cerbeit jakitera, bai, mintzatuco ginen, ordean orai, ecin egin dezakeguna da.

Franciscano aintcindariac, Jaincoaz cela huntaratua ez da dudarie, erraiten dio Antonio gazteari: Zuc predica diezaguzu, zohaci, mintzatuco zaizkigu Izpiritu sainduac mihian ezarrico darotzunaz.

Antonio, manu herxi baten azpian denaz geroz, hasten da; eta hain ungi doha, hain gauza gora eta ederrac atheratcen³ dire haren ahotic, non, Dominicano eta Franciscano, guciec baitcioten, halacoric etzutela oraino entzun.

¹ Iron itatia. — ² Secula. — ³ Jalgiten.

Orduan zuten ezagutu Franciscanoec, cer onthasuna zuten beren escuco. Eta, gogo onez ezarri zuten nagusirik hobere-naren escolan. Berantchago, berari emaiten diote theolosiaco liburuen bertcei iracastea. Liburu haukiekin etzuen aski lan Antonioc eta ordu berean hasten du bekhatuari egin behar dion gerla; bainan hainbertce su eta kharrekin non, jendea, icusiz apostolu berri bat zaiola agertcen, bazter gucietarie ethortcen baitzaio. Azkenecotz, elizic ttikiegi dire eta bortchatua da canpoan predicatcera.

Milaca du notz-nahi jendea bere inguruan. Eta gero cerbeit barreiamenduz cerbeit gaichtakeriaz, orai berean, ohointzaz edo elkharrentzateco higuintzaz, balinbadu mintzateco, uharre¹ deusec geldiaraz ez dezaken bat iduri, haren solhasac² hausten cituen traba³ guciac. Predicuen acabantzara gabe etcen gehiago nigarric eta auhenic⁴ baicen. Eta gero, berac eta berekin zabilzcan hainitz apecce, bururic ecin emana zuten, cobesatu nahi cirenei. Egia da, lan hortacotzat bacituela behar cituen guciac; hain cen hazcar, non ez baitzuen gehiago deus uahadurarie⁵ sentitcen; mintzoa zuen ocena, eta behin iracurtua etcitzaion gehiago ahanzten.

Bertzalde, nihoiz iknasten haritu gabe, eman cion Jaincoac Franxesaren eta Italianoaren jakitatec. Miracuilua, oraino, bacen nola nahica, hura entzuten edo entzun nahi zutenen onetan. Emazte bat bere senhar barreiatuac etzuelacotz huncen entzuterat utci, igan cen selaruco leiho batetara; eta, nahiz oren baten bidea bacen saindua cen tokiraino, hala ere etzuen hobeki entzumen, ondo-ondoan izatu balitz.

Bigarren emazte bat joan cen predicura, bere haur ttikia etchean utciric. Haur hura erori cen ur irakitcen hari cenerat, eta han berean causitu zuen amac, josteta hari cela, mainhu ephel batean izatu balitz bezain gochoki.

Bertce batec ithoa bere sehascan⁶ atcemaiten du bere haurra. Bihotz-minic handiencan, badoha sainduari erraitera, cer zaion

¹ Hour tourrousta. — ² Elhiac. — ³ Ephantchu edo phocholu. —

⁴ Haxperenic. — ⁵ Eñberic. — ⁶ Khaman edo ohocoan.

gerthatu, haren predicua entzun nahi izatu duela: eta sainduac erraiten dio: Zohaci, bici da zure haurra. Bai bicia causi zuen, ordean piztu ciolacotz.

Aldi batez, calernaz ¹ hantua cen hedoi ² bat lehertcera zohan, predicatcen hari cen tokiaren gainera, eta jadanie guciac ihesari emaitecotan ciren, erraiten diotenean sainduac: Zaudezte hor berean, etzarete bustico; eta hedoi gucia hustu cen, bilkhura haren inguruan, behatzaitetarie nihor busti gabe.

Bertce behin, mandatari ³ bat lehia gucietan ethortcen da andre bati, mezutcera semea hil zaiola eta dohala cuchean ⁴ etcherat. Bainan san Antonior, cer den gizon bura icusiz, erraiten dio andre hegiagoraz hasten cenari: Iternuco izpiritu nahasia dabila zure ondotic; bazaudezke hor berean, zure semea ez da eri ere; gezurraren aitac gezurra dio. Eta debrua, abalcatua, ceren cen ezagutua izan, khetan sunxitu ⁵ cen.

Huna oraino, gauza espantagarriago bat: San Antoniori gerthatu ⁶ zaio ascotan, bi tokitan aurkhitcea ⁷, ordu berean. Horrelaco miracuiliuaz exenplu bat aiphatcen dut bakharric.

Behin saindu hunen aita, gizon hiltzaitetzat hartcera zaramaten, haren baratcean gorde zuelacotz gaichtagin batec, hil zuenaren gorphutza. Erran gabe doha, gizon dohacabe hunec cion juiei eta bere inguruan icusten duen jende osteari: Ene escuac ez dire egundaino nihoren odolaz gorritu! Cer hoben dut gorphutz hau baratcean ezarri balin badarotet!

Ordean alferretan ciren solhas horiec, eta jadanie condenatua zuten, noiz eta ere bozcariozco oihu bat egiten baitu'e guciac. Betbetan, aingeru baten pare, eta aingeruen bidez ethorria, agertcen da Antonio saindua; eta mintzo delarie hilari berari erraiten dio: Manatcen darotzut, jakinaraz diezaguzun ja ene aitaz zaren hilic izatu? Hainbertcenarekin chutitcen da hila, ihardesten du, ez dela hura haren hilaraztailea, eta berriz ere etciten da. Salbo cituen aitac bicia eta ohorea, eta saindua itzuli cen bere haurridenganat, ethorri cen bezala.

¹ Tenpest z. — ² Odei. — ³ Mezu egite. — ⁴ Berehala. — ⁵ Gafdu. — ⁶ Agito. — ⁷ Mainkhatceric.

Iferuico printee madaricatuac etcion nihoiz barkhatu behar, ceren hainbertee arima escuetarie atheratcen eion. Hari citzaion beraz, batean bera chuchenea, bertcean a'diz cenbeit giza-gaichtoren bidez, ahal zuen becenbat trabaren aintcinean ezarteen. Behin, predicatcen hari celaric, arthiki zuen bere predi-alkhiarekin. Bainan Jaunaren aingeruac beiratu zuen, batere minhartcetic.

Basa-erlisione bati jarraikitcen 'den gizon batec ere, ustez halachet khentcen diola bere indar gucia eman duen predi-cuari, erraiten dio : Nic sinhexico dut Jesu Cristo gure Jauna a'dareco sacramenduan dela, ene mandoa, hirur egunez, gosea egon ondoan, nic escainico diodan jatecoa utciz, joaiten lada haren adoratcera. Gizon hanc ecin izan citekena uste zuen galdegiten zuela.

Bizkitartean sainduac ihardesten dio; emana izanen zaitzu guticiatcen duzun froga. Eta icusi zuten mando gosea, Lere jatecoa utciric. Sacramendu sainduaren aintcinean belhaunicatcen ¹. Cenbat bertee holaco miracuilu ez liteke contacteco!

Egintza eder horien erdian, etzuen Antonioc nihoiz ahantci, tresna gider ² bat baicic etcela Jaincoaren escuetan, eta, egunetic egunera, emendatuz zohan Jesus haurarentzat eta haren pasionearentzat zuen amodioa. Michterio haukiei begira zaramazcan orenac, minutac bezain labur iduritcen citzaizcon. Zagon etheco jaunac icusi zuen, gau batez, aldean zuela Jesus haurra, eta hari citzaioia macelen amulxuki ³ berecatcen.

Ageri da, on ceta lur hunen noiz nahi usteco, eta bazohakela bere Jesus maitea ganat. Hala ere, jakin duenean egun cenbeit baicic ez duela mundu huntaco, eman cen, egundaino baino kharsukiago, ⁴larreco herrauxie batere jarraiki bacitzaign ere, hartarie gar¹aitcen ¹.

Ez du oraino hogoi eta hamasei urthe baicic, Franciscano dela doid oia hamar, eta hamar urthe bautan inharrosi ditu, eta casic gainecoz-azpi ezarri, Italia eta Frantciaco asco probintcia.

¹ Burkhoca jarten. — ² Arma iguñe. — ³ Eztiki. — ⁴ Chahateen.

Jaincoaren amodiozco suric borthitecenaz zuelacotz hazten bere arima, haren hiltzea hala-halacoa izatu cen, amodiozco hax bat, eta joan cen arima eder hura ceruetarat.

San Antoniori herxatcen¹ ohi dire, beren onetan, bidean edo ixasoan direnac, emacume² haur nahian edo esperantcetan direnac, eta gauza galduen bilha³ dabiltzanae.

IRAGAXPENA

Galdu halin baduzu ceruco bidea, jaidura⁴ gaichtoen lanhoac iraungi darotzulacotz argia, herxa zaite san Antoniori, eta, mundu huntaco gaucen idireiten baino segurkiago-lagunduco zaitu Jesus Jaunaren atcemaiten, Jesus Jaunaren ezagutcen eta maitbateen.

FERIAROAREN 15^{1^o}

GERMENA DOHAXUA

Hila 1601^{***}

Pibrakeco herrian, Frantzia Tolosa ondoan, sorthu cen Germena, lur lanetarie bici ciren burhaso⁵ batzuetarie. Harentzat bereciki, zuen izan behar biciae axeginie gabea, dena nahigabe eta nigarrezcoa.

Handitcen hasi orduco, beso bat hila zuen, eta bera cen gurintchoz⁶ bethea. Sehascatic athera orduco oraino, galdua zuen ama, eta aita berriz ezcondu citzajon. Badu ere aita hunec haur bigarren emaztearen ganic; eta orduan, amaizundun diren gutiz gehienen zoria⁷ izatu cen Germenarena. Higuindua aitaz, amaizunaz ecin icusia, ezarria cen goicie, bici deino idukico duen urhaxean, artzain.

Bainan Jaincoac, erromes⁸ dohacabea eta umezurtcen aita hare, etzagocan ahantcia bere haur maitea. Argitua haren gra-

¹ Adrezate n. — ² Emazte. — ³ Cherkha. — ⁴ Enjogidura. — ⁵ Aita eta ama. — ⁶ Gohen ezurriz edo lepho-cherriz. — ⁷ Zorthia. — ⁸ Praube.

cia sainduaz, Germena hasi cen pairamenaren ¹ maithatzen harekin batean sortu, haren sehascan handitu citeken ahizpa baten pare.

Bertzalde Jaincoaren graciari jarraikitzen celacotz, non nahi, certan nahi eta bere arthaldearen ² zain zagolaric orobat, icusten zuen cerbeit Jaunaren ontasunaz eta haren urricalmenduaz mintzo citzaionic.

Hala-hala bakhartasunac eta bethi lagun herekin izaiteac, hari calte egin orde, geroago hobeki berezten zuten lurreco axeginen nahicundetic. Etzuen bilhatzen bere khideco lagunekin izaitea bera ere, eta hekiekin cenean, denbora galdu orde josteta, predicatzen cioten Jaincoaren aintcinean cirela orhoit citecela.

Guticiaric gabe, cen baino hobeki izaiteco, eskerrac ciozean Jaincoari ceren zuen egin herbail eta eri; icusico dugun bezala, Jaincoaren bothereac escuetan cituelacotz, egiten zuen miracuilu, berteen onetan; ordean, etcion nihoiz Jaincoari galdegin senda edo hazcar cezala.

Pairu ³ berarekin harteen zuen bere amaizunaren ganic jasaiteco zuen gucia. Bustia, hoztua, unhatu ⁴ lehertua hel zadiela etcherat, supazterrean etcen harentzat tokiric ⁵, jakiric gabeco ogi arrunt pichca bat cen haren janharria, eta gero, escaler azpian chirmenta, edo heian ⁶ lastoa ohetzat. Bainan etzuen horien gatic galteen Germenac bihotceco bakea.

Maite cituelacotz bere haurrideac, axegin zuken hekiei cerbeit bestaren egiteaz, bainan amaizunac bere haurretaric urrun zagocan nescatcha izurria zarioken bat bezala; eta bizkitartean bekharzgoari ttikienac ere etzuen ukhitzen haur saindu hunen bihotza. Iracaxi dio Jaincoaren graciac ichilic egoiten.

Hortacotz, bocic besarcatecen ditu axecabe guciac eta ascotan, etzaiolacotz iduritcen baduela oramo aski pairamen eta oinhace, hartuco da bere nahitaraco penitencia.

Cer nahi aro ⁷ izan zadiela, eta cenbat nahi ahul ⁸ bazabilan,

¹ Sofricariaren. — ² Saldoaren. — ³ Pacentcia. — ⁴ Eñhe. — ⁵ Lekhuric. — ⁶ Establian edo barrokian. — ⁷ Sasoin. — ⁸ Flacu.

egun guciez, meza sailduaren entzuten. Bacituen, bada, acienda batzu zaintceco; baina jakinki Jaincoa helteen zaiotela hura baithan sinbeste dutenei, gomendatzen cion arthaldea, landatzen cituen hunen aldean bere makhila edokhilua, eta bazohan elizarat, ezkilaren¹ lehen deia entzun zueneco. Eta nahiz oxox bethea cen oihan baten bazterrean zagon, nihoiz² hala-ere et-citzaion gerthatu acienda bakhar baten ere galtcea, nihoiz arthalde hura eteen haren khiluaren ingurutic urrunda.

Horrelaco urhax bat bertce nornahitan sobrakin eta bekhatu citeken, baina Jaincoaren nahitic zabilala eracusten zuen aski haren arthaldearen bethi ungi joaiteac.

Bertzalde huna cer cioten, egun batez, bi gizonec icusi: Eliza-bidean bazuen ur bat iragaiteco; arruntean ur chirripa bat cen, baina bertce batzuetan, hala nola orduan, eraunxi cenbeiten ondotic, uharre³ zorrotz bat; zagozcon beraz gizon hec begira⁴, nola iraganen ahal cen; eta icusten dute Germena iragaiten, batere busti gabe, beharbada ohartu ere gabe, uraren gainean ibili dela.

Elizan zuten haren bihotzac eta arimac aurkhitzen munduac ezagutzen ez duen egiazco zoriona⁵. Han cen egiazki bere etchean. Comuniatzen zuenean erran citeken cerutiar izpiritueta-ric bat cela; hain zuen egite ezta. Haren lanetarie bat oraino, cen, sacramendu sailduaren aintcinean auhendatcea⁶ protestanten ganic gure nagusi Jaincozcoac izaiten cituen laidoac.

Andre Dena Maria etzuen ahanzten ahal Germena gazteac, eta haren alderat hain cen ezagutzaz eta icustatez bethea, non, Anjelusetan, lehen ezkila ukhaldia entzutearekin, non nabi izan zadiela, uraren erdian izanen balinbacen ere, behar baitcen belhaunicatu.

Cen bezain erromes handi celacotz, erromesen sokhorritcen hari gabe bazagokela uste izaiten ahal zuen, hala-ere bere egu-neotic hartcen zuen hekiei emaitceoa. Cenbeit aldiz, behar-

¹ Ceiniaren. — ² Behinere. — ³ Our tourrousto. — ⁴ Sez. — ⁵ Irou-sitatis. — ⁶ Deithoratcen.

bada, etheco gaucetarie, hondarkin cerbeit iraganarazten cioten, baina ez, deus ethecotzat on cenic.

Horrela behin, neguaren erdian, bazohan, bere amoina altzoan ezarririk, loiz eta ere amaizun bethi berdin borthitz eta bihotz gabe cen hura, makhila bat escuan, eta hasarregearic¹ handiencan, atheratcen baita, eta abiatcen haren ondotic; bi gizon ere, icusiz certara zohan egitecoa bazohacin, behar zutela haur gaicho hura beiratu. Atceman duenean gaizkiz ithotcen du lehenic eta gero, erran diozeanae etcirela sobera eracusteco bezala, zabalteen dio altzoa; baina nolacoa ez da haren eta bertce bi gizonen icusgarria! Ogi edo ethetic hartu cituelaco gaucen orde², horra non causitcen dioten altzo gucia arrosaric ederrenez bethea.

Miracuilu horrec bere baitan sarraraci zuen Germenaren aita. Abiatcen ere da cerbeit icustate gehiago behar diola ekharri; ordean alabac othoiztu zuen utz ezala ordu arterainoco biciteca ganbiaraci gabe nahi zuen ecen bururaino pairatu.

Baina orducotzat, bazterrerat helteen hari cen. Bazuen jandanic aski eracusp³ munduari emanic, eta aski irabaci cerucotzat eginic. Goiz batez, aita, ez icusiz jeikia bere oren bethierecoan, joan cen haren escaler azpira, eta causitu zuen hila.

Ez! Jesus Jaunac etcezaken utz, denbora lucez lore⁴ notha⁵ gabe hura arrantcen⁶ artean. Amodioz bethi sutan cen arima eder hura, hartu zuen bere ganat, hogoita bi urthe baicen etzelaric.

Baciren, hura hil cen gauean, bi apez saindu, canpoan, oihan batean, eta oihan gucia argitcen zuen distiradura handi baten erdian, icusi zuten Germenaren arima, lore berriz eginicaco khoro⁷ bat burnan, eta bilha⁸ ethorri citzaizeon hainitz birjinekin, cerurat igaten.

IRACAXPENA

Sainda hunec bezala bilha dezagun izaitea, ez nahi ginuken

¹ Khechuric. — ² Lekhutan. — ³ Exenpla. — ⁴ Lili. — ⁵ Thoua. — ⁶ Elhorrien. — ⁷ Corona. — ⁸ Cherkha.

bezala, hainan Jaincoac nahi gaituen bezala; hanc daki cer be-
har den gure salbatceco; cer nahi gertba¹ dakigun beraz, bene-
dica dezagun Jaincoaren esca eta nabia.

ERIAROAREN 17^{an}

SAN AVIT, ABADEA

Hila 530^{an}

Jaincoac duela cotz egin hala aberaxa nola erromesa², ez du
ceren lehenac uste izan, bercea baino deusetan gehiago badela.
Jaincoaren graciari jarraikiz, irabaci dituzkegun merecimen-
duac bakharric gaituzte, egun batez, ezarrico batzu bertceac
baino gorago.

Saindu hunea ama hain jeade aphalecoetarie cen, non, bici-
pide baten bilha³, Verdun bere herria utciric, joan baitcen
Orleaneco hirirat, eta han, nescato jarri. Geroan ezcondu cen
han berean nekhazale giristino batekin.

Jaincoaren gogaracoa izatu cen ezcontza hori, eta Avit hekien
lehen haur eta semea, cerbeit handiric izanen cela ezagutceat
emaiten cioten, hunea sortceco orduan, gela gucia hartu zuen
argidura eder baten bidez.

Etchean berean iracaxi cioten, haurtasuneco urthetan, bur-
haso⁴ jaincotiar batzuen ganic ikhasten ahal zuena; eta Avit,
oraino gazte-gaztea, sarthu cen comentu batean.

Etche saindu hartan, hain cen ubgi behatu emanac citzaizcon
eracuspenei⁵ eta Jaincoaren graciari, non azkenecotz, bakhar-
bakharra izatu balitz bezala, baitzigon, bethi Jesus Jaunarekin
solbasean⁶. Nihoiz ez mintzatce horrec, nihortaz ez errencuratce
horrec emaiten cion centzuric etzuelaco egite bat; zoro⁷ baten-
tzat beraz iraganaraztea zuen bere burua.

¹ Agit. — ² Praubia. — ³ Cherkha. — ⁴ Aita eta ama. — ⁵ Leccioner.
— ⁶ Elhestan. — ⁷ Erzo.

Bakharrie, san Maximien, orduan bekien nagusi cenac, zuen iensten, cer cen Avit; eta gogotic, uzten zuen bertcei jarraicaciaci gabe, eta bertcerena ez bezalaco bicitce batean. Noizbeit haurriden begiac ere zabaldu ciren, eta, zorotzat zaocatena egiazco saindu bat cela ohartuac, othoiztu zuten beren aita aintcindaria, ezar cezala comentuco giltzain eta bicigailuez contu hartzaile.

Egiteco horien erdian izaitea baino nahiago zuen ordu arte-rainoco ichiltasunean eta bakhartasunean egoitea. Bizkitartean, ongi zaraman lan gucia. Sobra ongi cenbeiten idurira. Berac ere sumatcen¹ du elhepide cerbeit emaiten diotela. Eta ordu berean, eginez bere baithan, hare baino chuchenkiago egiteco hec joanen dituenic izanen dela, eta lantei² hartan baino leialkiago atchikico dituela berac ere, ordu artio hain maite cituen urhaxac, ezartcen ditu bere gakho³ guciac aintcindariaren bururdi⁴ hegian, hura lo delaric, eta badoha, oihan batetarat.

San Maximienec ezagutu zuen, lan hori, Jaincoaren manuz laicic etzuela egiten abal; eta nahiz gaitci citzaion haur saindu haren galtcea, utci zuen hala ere Jaincoaren mintzoari jarraic zadiela.

Handic cenbeit denboraren buruan, eta saindu hau bici celaric bicitceric gogorrenean, hil citzaioeten Maximien Abadea, Aviten lehenagoco haurridei; eta guciac gogo bera zuten, mintzo bera, haren ordain behar zutela ezarri gure saindu hau.

Orleaneco apezpicuac manu bat egiten ciolacotz Avitec hartu zuen, bere sorbalden⁵ gainean, carga handi hura. Hasia cen ere, cituen ahal guciekin, aintcindaritzat hautatu nahi izan zutenen joanarazten, ordu arteraino zaocaten hibe saindutic, noiz eta ere ohartcen baita axecaberekin⁶, ez dela deusic hari, eta lazakeria sartcera dohala etche hartan. Jaincoac eman dezotela beraz besoa hare baino hazcarrago duken nagusi bat, athera cen, lagun bakhar batekin, bertce nibori deusic erran gabe, eta joan berriz ere oihanerat gordetcera.

¹ Bogotcen edo nabaitcen. — ² Lanxia. — ³ Giltz. — ⁴ Burunegi edo burukita. — ⁵ Sninen. — ⁶ Phenareki.

Oihan haren barnean egiten du etchola tchar bat, eta hartan duke bere egoitza; sagar basa batzu edo belhar cenbeiten erroac¹ janhari. Eta horrela uste zuen bere azken oreneraino egoitea, Jaincoa bakharric jakinxun eta bere lagun hura, egiten cituen penitenteia handiez. Bainan etcen Jaincoaren nahi, egon zadien gorderic; eta huna, nola ezagutaraci zuen bere muthil leiala non zuen.

Behin batez, bi gizonac, hetaric bat mutua cen, ekharri zuten oihan hartaco ezcurrerat acienda beltz andana bat. Bada, gau batez, calernac² iraungi³ ciozcaten argiac, eta barreiatu aciendac.

Hargatic, baxhar bat ere ez galtcerat utci nahiz, abiatcen dire bi gizonac, bi alde. Azkenecotz mutuac galtcen du asmu⁴ gucia; ez daki gehiago non den, ez, cer bilhacatu behar duen; eta horra non, urrunean, icusten duen argi itiki bat. Bocic doha hari buruz, han piztuc duela berea. Bainan etzuen behar argia bakharric. Ecen Aviten etcholarazohan; sainduari urricaltcen zaio gizon haren zoria⁵; egiten dio beraz gainera gurutcearen seinalea, eta, ordu berean, mutua hasten da mintzatcen.

Avit sainduac, gomendatcen dio nihori ez dezan salba, nolaz sendatu den; ordean nola gorde Jaincoaren dohaina?

Aphur baten buruco, oihan hura hiritua cen, hango bideheac bide handituac ciren; nihonereco eri eta minhartu⁶ guciac han ciren, cein bere aldiaren beba; eta guciac zohaciu etcherat, arimaco eta gorphutceco osasunarekin.

Izatu ciren ere, eta ez bakharrac, ezagutzaz betheac, haren ganic urrundu nahi izatu etcirenac. Sainduac egin zuen beraz hekientzat etche bat, eta iracaxi cioten bere bicitceaz bicitcen.

Bizkitartean⁷ etzuen berac sainduagotcea ahanzten; urthe guciez bazohan bertce oihan zokho batetarat Jaincoaren aintean bakharric egoitera. Horrela joan cen aldi batez, eri gaizkitu cen harekin oihan hartarat ethorri fraidea. Eriac ezagutu ere zuen hiltcera zobala, eta othoiztu cituen bere haurrideac haren gorphutza etcezatela ehorts, saindua ethorri arteraino.

¹ Zainac. — ² Tenpestac. — ³ Erho edo hil. — ⁴ Ousna. — ⁵ Zortzia. — ⁶ Mainkhaiu. — ⁷ Karegatic.

Avit bere aldefic, berri hori jakin zueneco, lehiatu cen etcherat itzultcera. Lehia berarekin sartcen da elizan, han celacotz baren lagun maitea, hil obe baten gainean; jartcen da abuspez¹ lurrari, eta dago nigarrez eta haxbeherapenetan.

— Azkenean, ezaguturic Jaincoac onhexi diola othoizta, chutiteen da, eta manatcen dio adichkideari, jaux dadiela bere ohetic. Hainbertcenarekin lilic cenac escaintcen dio escena; eta, icustiarrac zoratuac² daudelaric, egiten du manatua zaiona: Bici-bicia jausten bere ohetic.

Miracuilu horren omenac hobeki, oraino, behar cion erakharri jenden icustatea. Bainan ez, aski goraki condenatuac cituen jadanic, bere bicitce garratzaz, mandatar nahien lazakeriac; aski ocenki adiaracia³ ere zuen, oboreac, nere nahitara aphaltcen denarentzat, daozeala Jaincoac. Etcen gehiago bici beharra. Eta, ezti-eztia, hil cen sainduen heriotreaz, eriaroaren⁴ hamazazpian.

IRACANPENA

Gure lux handia da, creaturekin hainitz eta Jaincoarekin ez aski mintzatcea. Atehic dezagun gogoan saindu hunen bicitcea, eta egin dezagun orai artio ez bezala; ecen bertec saindu batec ere dio; gizonen artean izatu maicen aldi guciez, gutiago giristino dut nere burua ezagutu.

ERIAROAREN 21^{ena}

SAN LUIS GONZAGACOA

Hana gazte diren guciec begien aintcinean atchikitceco luketen sailatu baten bicitcea, bicitce bat gazteari eracusten diona ceren egiteco gai⁵ den Jaincoaren graclarekin.

¹ Burkhoca. — ² Enochentia. — ³ Enthelogy eracia. — ⁴ Arra maiztaren. — ⁵ Capable.

Italia gucian, bere denboraco aitoren-semen artean lehen-lehena, Luisec izaiten ahal cituen munduan guticia ditezken guciae; bainan, jakinki cerheit handiago eta gorago direnentzat sorthuac garela, ez duke deus acholaric ez axeginez¹ ez onthasunez, ez ohorez.

Argitcen hasi citzaioneco adimendua², erran nahi baita laubortz urtheac egin citueneco, hasi cen Jaincoaren graciai ihardesten; eta ordutic, axegin egiazco batekin icusten zuen amac, cenbeit chokhotarat joaitca, othoitcean egoitera.

Bakharric, aitaç gogo onez icusi cioken bertce abiaduracic ere. Ecen bera harmadetaco aintcindari cen; eta haren icena eta ezpata garreiatu behar dituenac, nola haurtasunetic beretic ere ez du harmentzat cerbeit amodio eracuxico? Horra cergatic ezarri zuen soldadoen artean.

Han Luisec, cer zaazan³ jakin gabe, hartu zuen, soldadoen arteco solbas⁴ arinsco batzuen erraiteco aztura⁵. Eta nahiz lertzorric chumerena ere etzutea haren ariman ezarri, hargatic, elhe hec, anheadatu⁶ nahico ditu bere bici gucian.

Zazpi urthetacotz hartua zuen munduco axegin guciei ukho egiteco chedea. Bere othoitz lucen gatic cion Jaincoac gracia hori egiten. Ondeco urthean gortean ezarria, bertce printce semekin ibil zadiela ikhasten. hango josteta eta ergelkeriei, nahiz haren adineco haurrentzat choragarri citezken, Luisec etcioten begirateen⁷ ere.

Cer diot? Ordu bercean han, gorte hartaco edergailu bekien gucien artean, hango printce jaunaren lagun celaric, egin zuen birjinitatearen begirateeco botua; eta botu hori ezarri zuen Birjinen Birjinaren arartecotasunaren azpian.

Handic aintcina emazte cen ber, gazte edo zahar batetara zohan, etzuen gehiago bakhar baten gainera begiric alchatcen; ez eta markisa gorteco andrearen gainera ere.

Hameca urthetan, cer nahi icen-goithi⁸ lagunec eman cezotela, hasi cen maizago⁹ cobesateen, eta ezagutu zuen mana-

¹ Placerrez. — ² Enthelegia. — ³ Erraiten cion. — ⁴ Elhe. — ⁵ Costuma. — ⁶ Deithoratu. — ⁷ Sogiten. — ⁸ Icen goitico. — ⁹ Adurago.

tua citzaiola, apeztea. Uteci ciozcan beraz anaiari bere zucen guciac, eta eman cen khar gehiagorekin Jaincoaren maithateen.

Hortaracotz bilhatcen¹ zuen, ahal becenbat, bakhartasuna; eta gero, besoac zabal-zabala edo cerurat alchatuac edo oraino bera osoki aliuspecatua² zagolaric, erdiragarri ciren haren hax beherapenac. Bertee batzuetan, uzten zuen osoki lurra haren izpirituac, eta orduan zagon Jancoa baithan galdua bezala.

Hamahirur urthetan, icusteco geroan cer eginen ahal zuen, hasi cen comentuetaco bicitceric gogorrenaz bicitcen. Asteco sei egunetarie hirur baruricen cituen; ortciraletan, etzuen deusic harteen ogi huxa eta ura baicen. Azotaten zuen bere burua, odola jauzaraci arteraino, lehenbician, astean hiruetan, eta azkenerat, hirur alditaraino hogoitau lau orenic barnean. Ohean taula bat ezartcen zuen ichilic; eta gero oraino, muthilac loharcatu³ direla iduritu zaionean, izan dadiela negu-bihotza, jeikico da, eta egoaen, athorra-has, hotzaz ungi iragana izan arteraino.

Hamabortz urthetan, Espainiaco gortean celaric, galdegiten diote burhasozi⁴ utz dezatela Jesuista egitera. Amari axegin egiten dio galde horree, baina aitac urrun igortcen da; eta lehenbician aditcerat⁵ emaiten dio ez duela ceren holaco esperantzaric har; berantchago iguriki dezala erraiten dio, ustez denborarekin galduco zuela nahicunde hori. Ordean exitu behar izatu zuen aitac, eta utci zuen Erromaco comentu batean sartcerat.

Hori cen Luis gazteac, bere bihotz guciac, guticiatcen zuena. Orduan eman cen saindutasunean aintcinatceari egundaino arimac izatu duken kbarrie bicienarekin; eta egun baxhar batzuen buruco, berthute guciez eginicaco arropa distirant batez jauntcia cen haren arima ederra.

Cein den saindu hunec gutienic zuen berthutea, ez dakigu. Berthute guciac, ditezken bezain bandi, hura baithan cirela, horra cer cen ageri. Haren begiee etzuten oinen azpian ezar-

¹ Cherkhatcen. — ² Burkhoca jarria. — ³ Lothu edo lokharte. — ⁴ Aita eta amer. — ⁵ E. thelegatcerat.

teera zaraman lurra baicic icusten, nahiz deus bekbatu-bideric, eteen izaiten ahal etche saindu hartan.

Bazuelaric jadanic hirur hilabethe jesuistekin cela, behin manateen diote, aintcindariac jaten duen tokitic ekhar dezan liburu bat. Ordean non jaten du? Hori cen Luisec etzakiena. Bizkitartean egun guciez, othuruntza¹ denboretan, icus cezaken; eta galdeginez baicic etzuen, erran tokia, atceman ahal izatu.

Etzuen, nihon ez deusetan, axegin emaiten ahal eion gauzaric, haizu uzten bere gorphutzari; bainan pairateca² eta bethi pairateca, horra cer zuen bilhatcen³. Superioraren baimenarekin cerbeit penitencia handiago egin zuenean, etzuen onic ez bakeric uzten, non etzuen berriz-eta-berriz baimen bera ardiexi.

Ez naiz orai artio mintzatu Luis sainduac Jesus Jaunaren alderat zuen amodioaz; eta bizkitartean, nola zagoken bihotz garbi hura, gure Nagusi Dibinoa guciz maithatu gabe? Lehen comunionearen egiteco zoriona izatu zuenetic aintcina, khalda⁴ bethiereco batean zagon haren arima. Eta horra cergatic, ascotan, mintzarazten zuten apez adinetacoec berec, bihotz kharsu haren haxac berac ere berotcen cituelacotz.

Comuniatu ondoan eteen mintzarazte beharric, icusteco cein zuen maite Jesus Jauna; orduan, ezagun zuen, begitartetic beretic, onthasun eta axegin gucien erdian igeri zagola haren arima. Zorion horren orhoitzapenez hartua, eta ecin eskerric aski bihurtuz, zaraman comuniatu zuen eguna, eta biharamunean behar bazuen comuniatu, bazuen aski lan, Jesus Jaunari zohacon bezala, bere bihotzaren garbitcen⁵.

Jesus Jaunaren amodio horrec berechi zuen gauza gucietaric, nola udaco beroac egiten baitu fruitua zuhain adarretic. Amodio horrec eginarazten ciona oraino cen, eri edo nahigabetan citezken lagun gucien ahalaz sokhorritcea.

Horra ere nolaz bildu zuen hilaraci behar zuen gaitza. Haurride izurria zarioten batzuen arthateen⁶ hari celaric. Bertzalde,

¹ Apairu. — ² Sofritcia. — ³ Cherkhatcen. — ⁴ Sü. — ⁵ Chahateen. — ⁶ Souanateen.

cergatic lucezeki utcico du Jaincoac, lur huntan, jadanic ceru gorenean handi izaiten abal dena? Luis sainduac, bethi pairu¹ eta eztitasun berekin hainitz jasan ondoan, ezagutu zuen, egun guti zuela hemen iragaiteco. Erraiten dño beraz superiorari, icustera ethorri zaion batez : Bagohaci ene aita. — Norat? galdegiten dio hunec, ecen etcitzaion iduritcen oraino hartan cela. — Cerurat, ene aita, urricaltcen² natzaiolaric Jainco Jau-nari.

Hitz haukien ondotic galdeteen diote bere arthatzaile lagunei, ezar dezatela taula huxaren gainean, nahiz oraino, hil baino lehen merecimendu berri cerbeit irabaci.

Gero, orducotzat sacramenduac hartua, arcanjelu baten khâr sainduarekin, aiphatu cituen amodiorekin Jesusen eta Mariaren icen sainduac, eta eman zuen azken haxa, hogoî-eta hirurgar-ren urthean celaric.

IRACAXPENA

Gaztetasunaren model miragarria! cein den eder munduco lohi beltzaren erdian, deus notharic³ ere gabe dauden bihotz samur⁴ bekien icustea! Haurra, haur gaztea, zure lehen urtheac ditu gehienic guticiateen Jaincoac beretzat. Orai danic emozu, osoki, zure bihotza. Cer axegina ez darotzu emanen ge-roan, hori eginicaco orboltzapenac!

ERIAROAREN 24^ºAN

JONDONI JOANES BATICHTAREN SORTCEA

Cergatic bertce saindu bakhar batena ere ez-bezala, besta egiten da saindu hunen sor-egunean? Cergatic hainbertce boz-cario sor-egun horren aintcineco arraxean berean? Ceren-eta, erraiten darocu sãn Agustinec, ez baita nihor hau bezala sorthu denic saindu. Bertce guciac ecen bekhatuaren lertzoarekin⁵

¹ Pœntecia. — ² Pietate egingarri iduritcen. — ³ Thonaric. — ⁴ T-ea-de. — ⁵ Thonareki.

agertu dire mundurat, eta ez dute ondoan baicic ardiexi gracia saindu egiten gaituena. Ordean ez da hola saindu huntaz.

Jaincoaren semea, gureac bezalaco gorphutz bat hartuz, gure ahuleciekin ¹ eta gure heineco agertcera zobalaric gizonen artean, eteen bargatic sortbu beharra, mundua ohartaraci gabe sortcen dela. Eta artizarraren agertceac adiarazten ² duen bezala, hurbilcen hari dela iruzkiaren ⁴ jeikitcea, orobat ⁵, Jondoni Joanesen sortceac behar zuen jakinaraci, hurbildua dela Jesus Jaunarena.

Haur guciz aiphatua izan behar zuen hunen aita eta amac dire Zakhariac eta Elizabet. Senhar emazte haukien zainetan, Aaron Izraeldarren lehen apezaren odola zabilan. Biac guciz saindu ere ciren. Ordean cirelacotz jaduic adinean aintcinatuac, galdua zuten haurric izaiteco esperantza.

Bada ⁶ egun batez, Jaincoac, igortcen dio aingeru bat Zakhariari erraitera, izanen duela seme bat. Zakhariac apez celacotz, eta hala izanki aldia, berbera hari cen isenxuaren errearazten bethi gordea zagon aldarearen gainean; eta populua, bere sacrificioaren escaintceco, hura athera ⁷ beha cen, tenploco ezcaratecan.

Aingerua icustean, Zakhariac icitcen da; bainan erraiten dio hunec: « Etzaitecela icit, zure othoitzac entzunac izatu dire; Elisabet, zure emaztea ganic izanen duzu seme bat, Joanes deithuco duzuna. Haur hura zuretzat bozcariozco haur bat ditke, eta hainitcec axegin ⁸ izanen dute haren sortceaz; ecen handi izanen da Jaunaren begietan; ez du edanen ez arnoric, ez deus hordi dezakenic; eta, amaren sabelean berean, Izpiritu sainduaz bethea izanen da. Bertzalde Izraeldar semetarie asco itzularacico du bere Jainco Jauna ganat. »

Zakhariac ihardexi cion aingeruari: Nolaz ezagutuco dut, egiaz mintzatu zarozkidala? ecen neroni zahartua naiz, eta adinean aintcinatua da ene andrea ere.

« Ni naiz Gabriel, erraiten dio aingeruac, Jaincoaren muthila,

¹ Flakeriekin. — ² Enthelega erazten. — ³ Hullantcen. — ⁴ E'chiaren. — ⁵ Higoal. — ⁶ Arren. — ⁷ Elki. — ⁸ Placer.

bethi haren aintcinead nago, haren manuen egitera ekharria; eta, orai ere, Jaincoac natzaitzu igorri, berri on horren ekhartcera; bainan, zure sinheste escasa gatic, mintzorie gabe izanen zare, nie eman agintzac¹ bethe ez direno.»

Bizkitartean², jendea berantexia zagon, noiz agertuco cen apezca. Eta icusi zuenean kheinuz baicic etcela gebiago mintzo, errechki³ ezagutu zuen, berri edo manu cerbeit izatu zuela Jaincoa ganic.

Zakhariaz saindua bere tenploan egoiteco aldia egin zuenean, joan cen etcherat; eta, handic laster, Elizabetec bazakharren⁴, bere erraïetan, aingeruac aiphatu haurra.

Haur-esperantcetan cela ere bazuen jadanic sei hilabethe, ethorri citzationean icustera Birjina saindua. Ecen Incarnacioneco berri handia ekharri cion aingeruaren beraren ganic, jakin zuen Mariac cer heinetan cen Elizabet haren ahidea⁵.

Maria saindua etche benedicatu hartan sartcean, bere amaren erraïetarie, bozcariozco agur⁶ bat egin cion Elizabeten haurrac, Mariac bere baïthan zakharrenari⁷. Nola izaiten ahal cen bertcela? Jesus Jaunaren bisitari esker, galtcen cituen ifernuac haur hunen gainean cituen escu guciac; ceruco bidea ere zabalic zuen haurrac, bere aintcinean.

Elizabet sainduac bethe cituen azkenecotz bederatci hilabetheac, eta sorthu cen aingeruac agindu⁸ semea. Berri horrec bozcariotan ezarri cituen hauzo guciac, eta lehiarekin ethorri ciren haurraren icustera.

Zortecigarren egunean, ereman zuten tenplorat, legeac manateen cioten bezala. Eta apezac aitaren icena emaiten cion, noiz eta-ere Elizabet sainduac erraiten baitio: Ez da nihor gure ethecoetan icen hori duenic, bainan nahi nuke Joanes ukhan dezan icentzat. Galdegiten diote aitari, nola nahi duen, eta harc, iscribuz, ibardesten diote: Joanes da horren icena.

Joanes, hitz horrec erran nahi du gracia edo urricalmendua⁹, eta icen hori ungi zohacon Jaincoaren gracia ren eta urricalmendua.

¹ Hitzac. — ² Haregatic. — ³ Aise. — ⁴ Ekhartan cian. — ⁵ Ascacia. —

⁶ Salutacione. — ⁷ Ekhartan cianari. — ⁸ Hitzeman. — ⁹ Misericordia.

menduaren bideac egin behar cituenari, gracia eta urricalmendua ezagutaraci behar cituenari.

Ordu berean hanxi cen Zakhariazen milia esterateen zuen lokbarria; eta mintzoarekin batean bazuelacotz ethorkizunaren¹ ezaguteco gracia, aita dohaxu hunc cion, Abrahami eta profetei egin agintzac bethetcera zohacila, Messias agertcera zohala, eta Joanes cela haren aintcinean ibiltzailea eta haren ezagutaraztailea.

Inguru guciac harrituac zauden hoinbertee gauza handien entzuteaz, eta, urruncan ere, berria jakiten zutenac, batzu berteci galdez zauden, ciotelari: Egun batez cer diteke, zuen ustez, haur huntaz? Escritura sainduac haren gainean erraiten daucuna oraino da, handiteen hari cela bai adinean, bai izpiritaz, eta Jaincoaren escua harekin cela.

AGOZTUAREN 27^º

JONDONI JOANES BATICHTAREN HILTCEA

Joanes, oraino gazte-gaztea, joan cen morturat, eta han bici izatu cen lar-otthe² batzuetaric eta basa ezti janez. Jesu Jaunac bere burua agertu behar zuen aintcineco urthea arteraino. Orduan, jauntcia camelu bilozco arropa batez, eta larruzco gerrico bat errainetan, hasi cen predicatcen, ciolaric: Egizue penitentcia, hurbildua da ecen ceruco erresuma.

Judeaco jende gucia haren gana zohan, eta Joanesec bathaiatcen cituen Jurdango uretan. Horrengatic deithua izatu da, Batichta, erran nahi baitu bathaiatzailea. Bainan etzuen bakharic bathaiatcea egiten; bere licitce sainduac emaiten dion podore³ guciarekin mintzo da, eta, gaizki egilea ez badu ere Jaincoa ganat itzularazten, bederen du abalkearazten.

Hala-hala, Herodes, Galileaco gobernadoreac ecin jasanex⁴

¹ Geroaren. — ² Chitchtera edo otthe. — ³ Bothere. — ⁴ Egariz.

lucezago entzuten dituen gaizki saminac¹, cerea escandal ikharagarri batean bieci den Herodiarekin, altcharazten du preso.

Berantchago, bere sor-egunean, besta zuen etchean gobernadoreac. Bazcal-ondoan, berekin aintcina zaducan coinataren alaba, Salomec, hainbertceco axegina² egiten dio, bere dantzatceaz, non erraiten baitio : Galdegiten badarotazu ere erresumaren herena, izanen duzu.

Salome hadoha amaren mintzatcera, jakiteco cer behar dion galdegin. Eta ama gaichtaginac erraiten dio : Galdezozu Joanesen burua.

Eta handie berehala, (lohikeriaren kheaz ixutua denean gizona, cein da hare egiten ahal ez duen gaizkia?) handie berehala diot, han zuten, untei batean, giza-semen artean bera baino handiagoric izatu etzuenarea buru sacratua.

Ordean predicatua eta ezagutaracia zuen Mesias. Egiazco iruzkia jeikia cen, goibel³ citeken beraz artizarra, bazohaken Jondoni Joanesen arima, ceruan sarthu bizkitarte, bertce saindu gucien arimekin, pausa cerbeiten hartcerat.

IRAGAXPENA

O profeta handia! ardiex diezaguzu, cenbatenez ere bekhatu gehiago egin baitukegu, hainbertcenaz ere penitencia gehiagoren egiteco gracia; ezagutaraci duzun Jaun handiac ahantz ahal detzan egin diozcogun laidoac, eta bere haurride bezala errecebi gaitzan orai dagon egoitza dohaxuan.

ERIAROAREN 29^{ena}

JONDONI PETRI APOSTOLUA

Simon zuen icena Apostolu hunec, gure Salbatzailearen ondotic abiatu baino lehen. Arrantzaile etcheacoac bezala, Andres bere anaiaac ereman zuen, lehen aldian, Jesus Jaunaren icustera;

¹ Mingarrac. — ² P' acera. — ³ Odei pian gorda.

eta Jesusec erran cion : Zu zare Cephas, erran nahi baita, harria edo harroca, eta harroca horren gainean alchatuco dut ene Eliza. Ordutic deithua cen apostoluen eta Eliza guciaren buruzagi izaiterat.

Lehen solhas¹ hori entzunez geroz, nonbeit oraino urthe batez haritu cen Petri arrantzan, noicic behinca bere nagusi Jaunaren icustera joanez. Bainan egun batez, Jesusec, predicatu ondoan, haren unteciaren gainetic, jende oste handi bati, harrazten dio berari unteciaren bethe arrain; eta harritua dagolaric begira, ² cenbat atceman duen, erraiten dio : Jarraic zakizkit eta eginen zaitut gizon arrantzaile.

Ordu berean utci cituen Petric sareac eta unteia : eta handic aintcina icus citeken, Jesus Jaunaren behatzaile gucien artean, leialena, amodioxuena eta kharxuena, hura cela.

Entzun dezala predicatcen adi³ ez detzazken gauza batzuez, icus dezala ere jendea, gauza hetaz okhaztatua⁴ Jesusen ganic urruntcen, ez da hura haukiei jarraikitcecotan; eta erraiten dio bere nagusi maiteari : Eternitateco bicia dariote zure solhasai; zu utz, eta noren ganat joan behar dugu? Petri beraz han egonen da.

Galdegin dezala Jaunac, nor dela dioten jendea? Berec, nor dela uste duten? Ihardesten du Petric : Zu zare Christo, Jainco biciaren semea. Iduritzen ere zaió ez dela deus, haren ganic berecharazten abal duenic.

Jesusec, orducotzat bere azken egunerat hurbildua, alferretan dio erraiten : Simon, Simon, oilarrac bietan cantatu gabe, zuc hiruetan ukhatua naukezu. Petric hain zagocan hazcar bere burua, non ihardesten baitio : Bertce guciec uzten bazaituzte ere, Jauna, nic etzaitut nihoiz eginen; eta behar banaute ere hil, bederen ordu arteraino jarraikico natzaitzu.

Bainan ethorria cen Jesus Jaunac aipatu ordu ondicozco⁵ hura; eta Petric, nahiz, Thaborreco mendiaren gainean, cerutiar eta Jaincozco edergailu batzuez jauntcia agertu citzaion, nahiz, miracuilua miracuiluaren gainean egiten icusi cion; na-

¹ Elhe. — ² Soz. — ³ Enthelega. — ⁴ Desgustatia. — ⁵ Malurrezco.

h'z izatu zuen berteen aintcindari ezarria izaiteco berehacuntza; hala ere, eracuxi ondoan Olibetaco baratcean, bere Nagusiaren zaintceco nahikeria bat, icusi duenero escuac gainean ezarri diozcatela, emaiten da ihesari. Eta, handic aintcina, jarraititcen bazaio, hori izanen da, nabi duelacotz jakin, cer egin gogo duten Juduec beren presonier berriaz.

Bekhatuzco bide hortan sarthua ceren hux egin duen hastetic othoiz egitea, jadanic ahantciac ditu duela cenbeit oren egin agintza guciac. Bai, bekhatuari bekhatua darraio, eta hotacotzat, jaux co da beherago bere bide tritchean. Jesusen exaiekin nahas, sartcen da apez handiaren etchean; eta ahalcatu ere gabe etche hartan izaitiaz, hantche dago beha exai hekien solhas gaichtoqi, begira Jesusi egiten diozcaten eskernioei. Eta, hotz gorphutcean, hotzago bihotcean sutondoan jartcen da berotcen.

Hor, nescato batec galdegiten dio, ja ez den Jesusen ondotic zabiltzanetarie. Ezagutcen ere duela ukhatcen du Petric. Handic laster bigarren galde bati, ihardesten dio, lehen aldian bezalaxu. Nonbeit oren bat cen iraganic, eta gizon batec erraiten dio, Jesusenetarie izan behar duela hanc mintzairatic ere ageri duela; eta Petric, osoki hasarre¹, ceren horrelaco ustekeria bat izaiten ahal duten, ukhatcen du, ukhatcen du einaren eta solhasic dorpherenen azpian.

Bainan, horra non atzarrarazten² duen oilarraren bigarren cantuac. Begiez bilhatcen³ du lehenago hain maite zuen nagusia, Jesus Jauna ere begira zagocola causitcen du; eta bai, badu aski! Bihotz minic handienaz lehertua, atheratcen da etche hartarie, eta abiatcen dire haren begietarie, nihoiz gehiago agortuco ez diren nigarrac.

Nigar egiten du, ordean eximendutan erori gabe, ecen Jesusen begietan iracurtu ahal izatu du, barkhatcen ciola. Hala cen. Jesus Jauna hari zaio, piztu ondoan, bertee apostoluei baino lehen agertcen; gucienc aintcinean, herri herritan hari dio emaiten bertee apostoluen gainean buruzagigoa.

¹ Khechu edo samur. — ² Iratrar erazten. — ³ Cherkhatcen

Horra cergatic, Izpiritu Sainduaz argituac izatu cirenean, Jondoni Petri den lehenic predicatcen hasten dena. Petriri, dohalaric tenplorat Jondoni Joanesequin, ihelaten dio es-cua, tenploco athean¹, erromes² batec. Erromes hura etcen egundaino bere zangoen gainean bermatu abal izan.

Jondoni Petric erraiten dio : So egin diezaguzu ; eta ber-teea begira zagocolaric, ustez cerbeiten emaitera zohacon, ber-riz ere erraiten dio : Ez dugu ez urheric, ez cilharric, bainan dugua emaiten dautzugu. Jesus Nazaretecoaren icenean, chuti zaite eta abia. Ordu berean, erromesa jeikitzen da, eta sarteen tenploan jaucica³.

Jende gucia izitua eta harritua zagola icusten du apostoluen ainteindariac, eta erraiten dio : Cergatic zagozkigute begira gure indarrez egin baginu bezala miracuilu bat? Ez, ez! jakinazue zuec hil araciric, bera piztu den Jesus Jaincoaren seme bakharraren icenean dela, egun, sendatua izatu gizon hau. Eta jadanic hainitzac ciren bathaioa harteen zutenac. Handic aintcina, ezagutua cea Jondoni Petriren itzalaz beraz ukhitua⁴ izaittea aski ceta, sendatua izaiteco, cer nahi eritasu-netaric.

Hortacotz, Judu nagusiec, beldurrez laster Apostoluen es-cuco izan dadiela hiri gucia, preso alchatcen dituzte. Aingeru batez canpoan ezarriac, berriz ere predicateen hari dire. Juien aintcinera eremanac egundainocotan, eta azotatuac, beren hasi lana utz dezatela manatcen diote ; eta Jondoni Petric ihardesten du : Jaincoac manatu darocu mintzatcea, icusazue, ja ez den hobe haren manuari jarraititcea, eeen ez gizo-nenari.

Horrela⁵ Judean eta Antiocheco hirian, hamabi urtheren heina, predicatu ondoan, munduco lehen hiria celacotz Erroma, harat ethorri cen Apostolu nagusia ; eta h in ezarri zuen bethi-cotzat bere alkhia⁶.

Toki⁷ gucietan haren predicuec eta haren miracuiluec ondo-

¹ Borthan. — ² Praube. — ³ Saltoea. — ⁴ Houunkitia. — ⁵ Gisa hor-tan. — ⁶ Caidera. — ⁷ Lekhu.

rio berac cituzten; eta eteen, hura mintzatzen entzun ondoan, giristino¹tu gabe zagokenic.

Erroman bakharric, debruari, arima eta gorphutz saldua cen giristino arbulatu¹, batec Simon zuen icena, iduriarazten zuen, gizonaren indarrez goragoco gauza batzuen ariaz², apostolua becenbat bacela, eta jendea liluratua³ zagon hari begira. Jondoni Petric guduea hunen akhabatceco erraiten dio: Ezagut abal dezan hiriac zuri ala niri behar duen jarraiki, zu ala ni garen botherexuago; icus dezala, zuc ala nic dugun hil bat pitzaracico.

Aztia⁴ onhartzen du ichpichoa⁴. Bainan alfer izatu ciren haren indarrea guciac: Jondoni Petric zuen bakharric hilen pitzarazteco botherea.

Miracuilu horren ondotic icusiz harenac egin zuela, eta oraino debruaren aztaparretaric atheratcerat ez uzteco irabaci ciozcanac, Simon aztia⁴ oihu eginarazten du, ondoco laronbatean⁵. badohacotela ez dutenaz geroz hura baithau sinhesteric; eta icusico dutela cerurat hegaldacatzen.

Ordean, erran egunean, debruen escuz jadanic gora altchattua celaric, Jondoni Petriren othoitzac erorraraci zuen, eta hil cen jende guciaren aintcinean.

Orduan Neron Erromaco enperadore basac preso ezarraraci zuen gure Apostolua. Jondoni Paulo ere denbora berean presondegian cen. Ez dire hargatic predicatcetic laratzen. Badute oraino beren inguruan ceruco bidetic canpo diren asco arima, eta emaiten dire haukiei buruz. Azkenecotz presondegi-zainac berac ere galdetcen du bathaioa; eta ordutic bi Apostoluec nahi dutena egin dezakete.

Horrengatic eta giristinoec othoiztu dutelacotz Elizaren onetan, eta oraino bertce cenbeit arimaren salbamendua gatic, har dezala canpoa, Jondoni Petric hausten ditu gatneac; eta jadanic hirico athetaraino heldua cen, noiz eta ere icusten baitu Jesu Cbristo gure Jauna, gurutce bat bizcarrean, hirian sartcerat

¹ Aruegatu. — ² Bidez. — ³ Ilusitia. — ⁴ Jokia edo parioa. — ⁵ Nes-canegunian.

dohala. — Norat zohaci Jauna? galdegiten dio Jondoni Petric. — Berriz gurutceficatua izaitera, ihardesten dio Jesusec.

Apostoluen aiteindariac errechki¹ aditu zuen, cer cion erran nahi; eta berriz ere sarthu cen, giristinoei axegin² egiteco utci gathe presondegian.

Handic laster condenatua cen gurutceficatua izaiterat. Bere bekhatuaren beltzasuna ezagutuz geroz, nihoiz ecin aski pairatuan³, icusten du, orai bederen eracuxico diola Jesus Jaunari maite duela; eta, bozcarioric handiencan ezartcen du ekharri dioten berri horrec. Bakharric ohore handiegia citzaiolacotz Jesu Christo gure Jauna bezala hiltcea, galdegin eta ardiexi zuen buruz behera ezarria izaitea.

Eta horrela, Apostoluen aitezindariaren arimac utci zuen lur hau, hogoita bortz urthe Erroman egon ondoan, bere nigar eta egintza sainduentzat hartu cituen sariez gozalcera joaiteco.

IRACANPENA

Apostoluen aitezindariaren bicitceac aditcerat emaiten jarocu cergatic garen hainbertcetan bekhatuan erori. Berrogoi bat urthez nigarretan auhendatu⁴ dituen bekhatuac egin cituen, bere baithan sobra contatu zuelacotz. Gure bekhatuetaric cenbat gutiago ez ginuke deithoratceco, ez baginu uste izan hekien bidera joanic ere ez ginuela eginen! Bederen gure eroricoec argi detzauzcutela begiac!

Othoitz dezagun oraino Jondoni Petri, ardiex dezaucula fede hazcarrago bat, Jesus Jaunaren amodio kharxuago bat, eta Elizari izanaraz dezola bere exaien gainean bitoria,

ERIARAREN 29^{ena}

JONDONI PAULO APOSTOLUA

Saul, geroan Paulo deithua izanen dena, judu aberax bat-

¹ Aise. — ² Placer. — ³ Sofritian. — ⁴ Deithorotu.

zuen seme cen. Horrengatic egotu ahal izatu cen lucez, nagusi-ric aiphatnenaren escolan lege sailduaren eta bertce orduan iracasten ohi cirenen ikhasten.

Dena su eta khar Moisece eman legearentzat, etcezakcn jasan Jesu Christoz mintzateen entzutea; uste zuelacotz gezurti bat cela; eta etcen, haren erranei jarraikitcen cirenen galarazteco, egiten etzuenic. Jondoai Eztebe harricatcen hari zutelaric ere han cen harricatzaileen capen zain, eta bekien lanari bocic begira.

Egun batez bazohan Jerusalemetic Damaseco hirira, Juduen podore guciac bere escuco; Jesusec eracuxi bidetic dabilzala atcemanen dituen guciac, gizon ala emazte izan ditecela, behar ditu estecatu eta Jerusalemerat ekharri.

Bainan, horra non ceruticaco argiz batez betbetan hartua eta egoitcia,¹ entzuten dituen solhas² hanc: Saul, Saul, cergatic hari haizkit gaizki egiten?—Jauna, nor zare, ihardesten dio Saulec; eta Jaunac erraiten dio: Ni nauc Jesus, zucenic gabe aintcinean naramacana³, nekhe duc akhiluari⁴ jazartcea⁵. Eta orduan, dena ikharetan eta harritua, galdegiten dio: Jauna, cer nahi duzu egin dezadan? Jaunac ihardesten dio ber-ric ere. Chuti hadi eta sar hirian, han jakinaracico daiat cer beharco ducan egin.

Harekin ciren gizonac hautche zauden laztuac, horiec guciac entzuten cituztela, ordean, deusic icusi gabe. Jeikitcen da beraz Saul, eta begiac zabalic cituen arren,⁶ hala ere etzuen deusic icusten. Escutic ereman zuten beraz; eta, jan ez edan gabe, egotu cen hirur egunez.

Bada Damaseco hirian, bacen Jesustiar kharxu bat, Anania deitcen zutena. Jaincoac erraiten dio huni: Anania, zohaci Judasen etchera, eta han bilha zazu Saul Tarsecoa; ecen othoitcean dago. Ananiac ihardesten dio: Jauna, contatu darotet, gizon horrec cenbat gaizki egin dioten zure sailduei Jerusalemen. Eta orai ere, ba-omen du, zure icena deitcen duten gucien

¹ Arthikia. — ² Elhe. — ³ Erouaiten n-icana. — ⁴ Pherticari. — ⁵ Buhurtcia. — ⁶ Nahiz begiote idekiac zutian.

preso alchateeco ahala. — Zohaci, erraiten dio berriz ere Jau-
nac, gizon hori ene hautuzco unteia da, ene icenaren ezagu-
tarazteco Jainco faltxuen adoratzailei, erregei eta Izraelgo
haurrei; eeen eracuxico diot cenbat beharco duen, ene icena
gatic, pairatu.

Joan cen beraz Anania, eta aurkhitu ¹ zuenean Saul, escuac
ezarri ciozcan buruaren gainean, erraiten ciolaric: Jesus Da-
maseco bidean agertu zaitzunac bidali ² natzaitzu, zure begiec
argia izan cezaten, eta ceroni Izpiritu Sainduaz bethea izan ci-
niten.

Ordu berean ezpalchea batzu iduri, erori ciren larru picheac
haren begietaric. Bazuen bichea, eta izatu cen berehala ba-
thaiatua. Bathaiaren ondote, egotu cen oraino gordea, egun
cenbetez, eta gero hasi cea, Jesus Jaunaren hobeki ezagutaraz-
ten, ciolaric, Jaincoaren semea cela.

Ganbiamendu betbetaco, ³ horrec harrituac zagozcan guciac:
eta Saulec ahalkearazten ere cituen Juduac hainbertetaraino-
coan, non haren hiltceco chedea hartu baitzuten. Baina giris-
tinoec, saski batean, jauxi zuten hirico harhesiei ⁴ behera.

Orduan hasi cen Jaincoac manatcen cion bezala paganoei
predicatcen, eta bathaiatu zuenean Paulo Sergius Chypraco
governadorea, utci zuen aita eman cion icena; eta handic hu-
nat Paulo deithuco du bere burua; Jondoni Paulo deithuco
dute jende guciac, munduaren acabantzaraino.

Orai egiten ahal ez duguna liburu ttiki huntan da, haren
urhaxe jarraititcea. Eeen, bere bici gucian, ibilico da herriz-
herri, hiriz-hiri, eta ixas alde batelic jo bertcera.

Predicatu du, gizonac zoramenduan baicic ez duela egiten
ahal bere alde eta bere buruaren gorexacazteagatic mintzatcea:
eta bizkitartean huna, Izpiritu sainduaren laguntzarekin iscri-
batu dituen letretan, cer cion pairateco izatu cituenez.

Juduen ganic, bortz aldiz, hogoieta hemeretei azote ukhaldi
izatu dut. Hiruetan cigorrez ⁵ joa izatu naiz, behin harricatua,

¹ Causitu. — ² Igorri. — ³ Batetanco. — ⁴ Pareter edo murrier. —
⁵ Zaharoz.

hirur aldiz untcia hondatu ¹ zait, eta behin, hogoita laur orenez, ixasoan egon izan behar dut. Cenbat aldiz ez nai zgal-ordean izatu bidetan, hibai ² handietan, ixasoan, hirietan eta mortuetan, orai ohoïn edo arrotcen escuetan, gero berriz ahide edo haurride itchurazcoen artean! Cenbat lan eta unhadura ez dut izatu jasateco! Cenbat gau galtce ¹ Cenbat gose, egarri eta bustitce! Cenbat buru hauste alchatu elicen chuchen joanaraztea gatic!

Huna oraino Jondoni Pauloc cer cion. Jaincoac egiten eiozcan gracia bereciez: Mintza nadien orai, Jaincoac enetzat izatu duen ontasunaz, ezagutcen dut gizon bat alchatua izatu dena (othe cen bere gorphutzarekin ala gorphutcie gabe, ez dakit, Jaincoac badaki), ordean alchatua izatu dena ceruetaraino; eta han, entzun dituen, nihori ecin erran, ez salha cetzazken solhasac. Hekien gatic gorexarazten ahal nuke nere burua; bainan ez, nie nere burua gorexaraci nahi dut nere ahuleciaz; ecen, icusi ditudanen gatic, ez nadien urguilutan sar, bainan lehenago ahalkez urthua egon nindadien, sumatcen ³ dut bekhaturat nahi nauela lerraraci nere haragiac. Ecin gehiago jasanez, hiruetan othoiztu dut Jauna, khien diezadan tentacione hau; eta ihardexia izatu zait: Ene gracia duzun ber, baduzu aski. Horra certaz nere burua nahi dudan gorexaraci, horrela hobeki ageri delacotz Jesu-Christoren indarra.

Hainbertceco guducac izanki, eto etcitzaion oraino iduriteen Jondoni Paulori, aski egiten zuela. Ecen bere nahitara pairatcen cituenac handiac ciren; estecatua darocat eta zaphatua, dio, nere gorphutza, bertcei predicatu ondoan, ez nadien gal neroni ⁴.

Azkean lur ezagutu gucietan gaindi ibilia, eta etzuelaric cenbeit egun baicic lur huntaco, zaasan ⁵: ongi guducatu naiz, galdetua zarotan bide gucia egin dut, leial izatu naiz, eta orai Jainac zor darotan khoroaren ⁶ beha nago.

Khoro haren hartcerat joaitea, eman cion Neron enperadore

¹ Galdu. — ² Uhaiz edo ur handi. — ³ Bogatcen. — ⁴ Nihur. — ⁵ Erraiten cian. — ⁶ Coronaren.

bihotz gabeac burua motzarazten ciolaric, eta hori Jondoni Petri gurulceficatzen zuen egun berean.

IRACAXPENA

icusten diogunean Apostolu handiari hainbertee lan, unhadura¹ eta pairamen² jasaiten, bortchatuac gare aithortcerat, kharsua cela Jaincoarentzat eta lagunarentzat zuen amodioa.

Amodio horren hedadura ezagun da, apostolu beraren hitz hautan : Tincatua naiz bi aldetaric : Guticiatzen nuke, gorphutecco lokharri hankien hausten sentitcea, eta Jesu-Christorekin izaitea, eta hori nukela hoberena ageri da ; baina icusten dut, on dela giristinoentzat, bici nadien oraino, eta horrela, ez dakit cer hauta.

Jondoni Paulo ekharria cen beraz, cerutic canpo egoitera, arima cenbeiten salbatceagatic. Ah! ceren Jesusen Izpiritua berekin baitzuen, icusteco cenbat citzaion gosta arima hekien ceruco bidean ezartcea ! Eta guc, noiz arteraino uste izanen dugu gure arimaz errencuratce hori dela gure egitecoric ttikiena ?

UZTAILAREN 4^{en}

SANTA ELIZABET PORTUGALECO ERREGINA

Hila 1336^{en}

Piarres hirur-garrena, Aragoncco erregea, eta Constanza haren andrea izatu ciren saina hunen aita eta amac. Asmarazteco³ bezala cein izanen cen, haur hura baithan, gehienic distiratuco zuen berthutea, nola hari beharra cen, bere bici gucian, lagunari ahalzuen ongi guciaren egiten ; hunen sortceac bakearaci cituen aita eta aitaso.

Adimendutarat⁴ heldu bezain sarri, burhasoec eman cioten abiadura onari esker, othoitz egitez nihoiz ecin aseu zuen. Gerochago, zortci urthe baicen ez izanki, eta, jadanic, hasia

¹ Euhetce. — ² Sofricari. — ³ Phentsalcerat. — ⁴ Enthelegaiat.

cen apecec emaiten dituzten othoitzen egiten; othoiz hec ascotan luceac dire, hala-ere emaiten ditu bici deino, nihoiz huxic egin gabe.

Hamabi urtheac bethe cituenean, hainitz Errege eta Aitorenseme handiz orducotz bilhatua, emana izatu cen, ezcontzaz, Denis Portugaleco Erregeari.

Bere egitecoec manatzen cioten gucietan bere senharrarena, etzuen ahanzten behar zuen baino gehiago cer cion zor bere Jaincoari. Horra cergatic ecin niholaz maithatu abal cituen gorteco jostetac eta arinkeriac. Barkhartasunean, othoitzean, edo eri dohacabe cenbeiten sokhorritzean, ciren harentzat egiazco axeginac; eta, eteczon nihoiz gaina har gorputzac, zaphatua zagocan barurez eta bertce ascó penitente a bere nabitaracoez.

Laganaren alderaco ¹ amoliora hain zuen handia, non ez baizagoken eman gabe galdegiten ciotena. Emaiten zuen eta emanarazten, bera gabe izan citekela gogoan erabili ere gabe. Erromesac ², eriac eta umezurtzac, haren haurrac ciren; eta hori, nongo nahico izan citecela, balinbaciren ere erresumaz canpoco; eteen nihor berezten zuenic. Izan dezala norbeitce ecin akhabatu duen etche bat, edo orobat, bertce nonbeit izan dadiela eliza, edo eritegi, edo comentu, diru escasez, hasia gelditcera dohanic, hari hel egin orduco han da, eta emaiten du nasaiki behar dena.

Garizomaco ortcirale guciez, hama hirur erromes etcherat ekharrarazten cituen, eta hekiei, berac bere escuz oinac garbitu ondoan, emaiten cioten soineco berri bana, eta ordino, berac mahainera ekhartzen cioten jatecoa.

Behin, horrela escuetan izatu cituenen artean, gerthatu cen emarume ³ bat zauri okhaztagarri bat zuena zangoan; garbitu cion hari ere zauri hura, musu ⁴ eman, eta hain sarri sendatua cen.

Bertce behin, herrestan baicic ibil etciteken lepradun bati, lasterchago joan zadiela, eman cion muthil batec makhilaz burutic behera. Erreginac, hasarretua ⁵, gaizkiac erran ciozcan

¹ Ersteialateo. — ² Paubriac. — ³ Emazte. — ⁴ Pot. — ⁵ Khechatia.

muthilari, eta gero, berac lothuric¹ makhilaz egin sakhoa, utci zuen, erraiten ciotelaric bertce sebiei artha cezatela sendatu arteraino. Ordean biharamunean, atzarri² ceneco, osoki sendatua cen, lepratic eta makhila ukhalditic.

Bertce aldi batez, oraino, bera dohalaric erromes cenbeiten sokhorritcera, diruketa on bat altzoan, buru egiten du Errege-ekin. Cer daramazu hor? galdegiten dio Errege? Arroza cenbeit, ihardesten dio Erregina. Zabaltcen ere du altzoa, eta icusten du Errege altzotarabat arroza, nahiz negua cen. Horrela Jaincoac gorde eta lagundu nahi izatu cituen bere nesca-toaren urhax sailduac.

Hainitcetan, bere solhas³ onaz, bakea ezarri ondoan errege Jaunaren eta Alphonse bere semearen artean, behin gaizki saldua izatu cen; semearen escualdea zagocala, eta hura laguntcen zuela escuazpitic. Errege arinkiegi sinhexi zuen gezur hori, eta erregina izatu cen etchetic campo ezarria. Baina jakinxun Jaincoac ez duela nihoiz uzten ahul⁴ eta hobenic gabe denaren alde, Elizabetec jasan zuen pairuric⁵ handienarekin laido hori, erregeri begiac argitu etcizaizcono.

Eteen hori andre jaincotiar hunec izatu zuen nahigabe bakharra; eeen jasan behar izatu zuen lucez, emaztearentzat ditteken axecaber⁶ handiena. Gizon zucena cen Denis, baina ecin atchiki ahal izatu cituen, hauxi gabe, ezcontzaco hitzac. Erori cen beraz bekhatuan, eta hain ixuski non, Elizabetec beharco baitu haren barreiamenduez lekhuco izan. Eta hargatic, ez dio emacume hunec niholaz ere sentiarazten bere bihotz mina, bere senhar jaunarentzat ez duke eitate onic baicen. Noizbeit Errege, ezagutuz emazte batec etzuela hainbertce ezitatan eta amodio izaiten ahal, saildu celacotz baicic, Errege sarthu cen bere baithan. Bertzalde huna cerc zuen osoki itzulacoi Jaincoa ganat:

Erregina bazuen muthil bat, leial eta jaincotiar celacotz osoki, bere mezu eta amoinen egiten zabilana. Erregeren bertce

¹ Herxiric. — ² Iratzarri. — ³ Elhe. — ⁴ Flacu. — ⁵ Pacentciaric. — ⁶ Phenaric.

muthil bat, ecin pairatuz¹ hain ungi icusia izan zadien haren laguna, badoha Erregeri erraitera, ezagutu duela Erreginae baduela bere muthilarentzat behar luken baino amodio gehiago. Cena celacotz Errege bera, eteen gaitz izatu solhas horren sinhexaraztea.

Dena piztua eta sutan Erreginaren eta haren muthilarentzat, atheratzen da hiritic, aire hartera dohalaco aizakian² causitcen ditu gizon batzu, kisu³ labe baten-erretcen hari direla, eta erraiten diote : Nic, bihar igorrico baitarotzuet gizon bat galdegitera, ja egin duzuen nic erran gauza, har zazue gizon hura, eta arthic kisu labe horren barnerat. Nola bihurt Erregeren manuari? Haren nahiaren arabera izanen dela egina, ihardesten diote.

Biharamunean, Erregec igortcen diote Erreginaren muthila erran mezuarekin; harenac egin zuela beraz erraiten abalcen; eta, deusic hobenic gabe, kisu labean errea izaitera zohala. Jandanic. joana cela, bazuen aphur on bat. Erregec, lehea-bainotehen jakin nahiz ja hila den Erreginaren adichkide celacoa, bilhatcen du sebi⁴ bat, causitcen du muthil sainduaren saltzailea bera, eta erraiten dio dohala jakitera haren manuac eginac izan diren.

Joan-jinaren egiteco denbora nonbeit doidoia zuken azken muthil hunc, eta horra non helteen zaion Erregeri lehen muthila erraitera haren manuac eginac direla.

Harritua galdegiten dio Erregec non egotu den; eta hunc ihardesten dio : Jauna, eliza baten aldean iragartean, sumatu⁵ dut sagaraco⁶ chilintcha, meza hura erran arteraino, han egotu naiz, gero bertce bia, bat bertcearen ondotic eman dire, hec ere entzun ditut, eta orai luna non naicen. Bigarren muthila izatu cela surat arthikia ezagutu zuen Erregec, eta, ordu berean, Erreginaren saindutasuna. Handic laster, hil cen Errege, erlizio-neac emaiten abal ciozcan laguntza guciekin.

Ordutz geroz, aintcietic baino ere hobeki, bilhatu⁷ zuen cerua

¹ Sofrituz. — ² Estacurian. — ³ Laxun edo gisu. — ⁴ Michcandi edo mañata. — ⁵ Bogatu edo nabaitu. — ⁶ Elebacioneco. — ⁷ Cberkhutu.

Elisabeth sainduac. Lucez oraino iranu zuen San Franxesen ordreco haurrei galdegin ditezken berthute gucici jarraizkiz, beharretan ciren gucien sokhorritcen.

Azkenean zaraman bicitce garratzaz higatua orducotzat, jakinic haren semea bere suhi Castillaco erregearekin gerlan has-tera zohala, hekien artean bakea ezarri nahiz, egin zuen piaia luce bat, eta hartan eritu cen. Ezagutu zuen laster etzukela bertce eritasunic; harturic beraz sacramentu guciac, kharric eta federic handienekin, eman zuen azken haxa hiruetan hogoieta lau urthetan.

IRACAXPENA

Teusten dugu Erregina eta muthil haukien exenplatic cer arthá duen Jaincoac bere cerbitzari leialez; egin dezagun Jaincoaren cerbitzua cer nahi gosta beharric ere, eta gure bilo ondo bat ez da erorico gure onetan eta haren nahitic baicen.

UZTAILAREN 9^{an}

SAN ARZENA MORTUTIARRA

Hila 449^{an}

Arzenaren burhasoec¹ Erromaco etcheric handienekin ihar-dokitcen² zuten, eta beren semeari iracasteco behar zuen gucia etcitzaioten deusic sobrexu. Hala-hala aiphatua cen gazte-ric bere jakitateaz, eta, oraino hobeki, zaraman bicitce behar bezalacoaz Aita Sainduaz beraz ere ezagutua cena cenarentzat, izatu cen diacre ordenatua.

Ordu hetan, Theodosé Constantinopleco inperadoreac igorri zuen adichikide bat Erromara, Aita Sainduari galletcera, bidal-cezola gizon bat gaia, bere bi semei jakin behar zutenaren eracusteco. Aita Sainduac icendatu zuen Arzena; eta horrela diacre gaztea bortchatua izatu cen batere etzohacon egiteco

¹ Ait-et-amec. — ² Atch'k'teen. — ³ Igor.

baten bere gain hartcera. Hura nagusi, husu¹ ikhasi zuten, inperadore izaitera deithuac ciren haur batzuec jakin behar zuten gucia.

Lan handi horren gatic, inperadoreac, ezagutzaz eta icustatez bethea, nolazpeit nahi luke saristatu, bainan Arzenac ez du lur luataco onthasunetarie densere guticiatcen; nahi lukea, galdegiten diona Jaincoari da, jakitea cer behar duen egin salbatceco.

Egun batez beraz, nihori bere chedeaz deus herririe eman gabe, uzten du Gortea, eta badoha Esiptorat, Scete deitzen den mortuco comentu batetarat. Nor cen eta nondic ethorria cen² erran araci ciotenean, utci zuten sartcera; eta izatu cen ezarria, haurride gucien artean, argituenetarie cen gizon saindu baten escuetan. Joanes ttikia zuen fraide hunec icena.

Egun berean, jakin behar duela, cersu den emaiten dioten dicipulua, sartcen da bere hunekin, othuruntzaco³ orduan, guciac jadanac bilduac zauden ezcaratcean; eta han, berekin zuela, ahantci balu bezala, jartcen da bera mahainean.

Arzenari ez dio nihore bere tokia⁴ eracuxi. Chutic dago beraz ezearatzaren erdian. Joanesec, bere tokitic, arthikitcen dio azkenean ogi escail bat, erraiten diolaric: Hori zuretzat jan gogo baduzu; eta, alkhi azpi batzuetan atcemanic hain esker guttirikin zuena, jarri cen Arzena lurrean, eta halachet jan zuen bere ogi idorra, deusic iharlexi gabe.

Horrelaco⁵ umilitatearekin arin joan beharra cen saindutasuneco bidean. Etzuen bertceric bilhatcen baicen ere, ordu arterainoco sobrakinen escasac, ordu arterainoco axeginen, axecabeac⁶. Ordu arteraino ederki jauntcia izatua, etzuen gehiago soinean, larruaren estaltececoa baicic. Usain onen erdian egotua ordu artio nihoiz berritu gabe uzten zuen palmier hostoen beceric atchikitceco ura, nahiz usaindua cen. Ordu arteraino onthasunen erdian egotua, etzuen gehiago deus bereric; eta eritcen den batez, bertcec diote emaiten behar duena.

¹ Laster. — ² Jiten. — ³ Apairueo. — ⁴ Lekhia. — ⁵ Gisa hortaco. — ⁶ Placerren phelac.

Erran dut eritu cela. Bada¹, eri celaric haren etchola aintean, iragaitez, gerthatu² cen fraide bat. Zagon tokian entzuna Arzenaz mintzatzea, erraiten du axegia lukela hunen icusteaz. Bainan ohartcen da, etzana dagola basa ihici larru ceubeiten gainean, bururdi³ bat ere baduela, eta galdegiten du, ja hura den Arzena hain aiphatua.

Horren gainean galdegiten diote berari : Haurridea, erran diezaguzu, cer cinen morturat ethorri aintcietic? Aintcietic? dio arrotzac, nintcen artzain, eta ahal nuen bezala. — Eta aldiz Arzena, iharlesten diote, erregeren etchean zagon, sehiz⁴ eta lausengariz inguratua, onthasunen eta axeginen erdian. Zuc, artzain cinelarie, doidoia cinuken baitezpadacoa⁵, eta orai, izaitecotz ere, cinen baino hobeki zarelaric, sobra zaitzu guritasun cerbeit ukhan dezan hain handi izatua denac? Ezagutu zuen errechki arrotzac cer huxetan erori cen, eta barkhamendu galdegia zuen, ciolaric : Bai, egiazki bide onetic doha Arzena, eta ni, cer hari naiz!

Ichiltasuna sobra maite zuen Arzenac lucez bertcekin egoiteco. Saindutasuneraco bidea ezagutcen zuela iduritu citzaionean utci zuea comentua, utci zuea bere nagusi maitea, eta bi lagunekin joan cen oihan zokho batetarot aingeruen bicitceaz bicitcera.

Urthean behin ekhartcen cioten jateco cerbeit, eta bazuen hartan behar zuen gucia. Egunaz hari cen jarriric egiten ciren lan batzuetan, eta gauac zaramazcan maiz lorie gabe eta othoitcean. Bertzalde etzuen nihoiz Jaincoa bere gogotic galtcen, eta norbeit, ceubat nahi handi izan zadiela, ethortcen bacitzaion icustera, doidoia solhas⁶ bat edo bertce eman-eta, uzten zuen berehala.

Egun batez, ethortcen zaio, Erromatic, hango andre handienetic bat; nahi cion here arima gomendatu; eta bere mezuaeren egiteco ahuspecatcen⁷ da lurreraino; bainan Arzenac erraiten dio bururic ez begiric haren ganat itzuli gabe : Andre

¹ Arrea. — ² Agitu. — ³ Burunegi edo burokita. — ⁴ Michcandiz. —

⁵ Nesesarioena. — ⁶ Elhe. — ⁷ Burkhoa jarten.

beharbezalaco bat ez da bere etxetic atheratzen, eta zue ixasoa iragan duzu bazter icusteagatic. Andre hare, bethi lurrari daocalarie begitartea, erraiten dio : Ene aita, bederen orhoit zaite nitaz zure othoitcetan. — Othoizten dut Jaincoa, ihardesten dio sainduac, nibon gebiago etzaitzadan causi, eta nihoiz etzakizkidan gogora ere ethor.

Harekin zauden bi lagunec entzuten zuten, bere buruari zaasala¹ maiz² solhas hau : Arzena, cergatic utci due mundua. Hekiei ere gomendatzen ciotelarie ichiltasuna erraiten zuen : Bethi urrikiteco³ izatu dut sopra mintzatuz, nihoiz aldiz ichilic egonez.

Mortutiar haurride batec galdetcen dio behin, cer behar duen egin lohikeriaco bekhaturat ez erortceco ; ihardexi cion Arzenac : Lohikeriaraco ekharrimendu cerbeit zure baithan ezagutu duzuneco. gatziga zazu zure burua, hobendun balin bacine bezala.

Beraz denaz becen batean, ikharagarriac ciren haren penitentiac, eta bizkitartean noiz-nahi nigarrez zagon, hiltceaz eta jujamenduaz orhoituz. Horrengatic cion ordu hetaco apezpicu batec, hiltceracoan : Oi! cen den dohaxu Arzena, here bician hainbertce nigar eginic!

Azkenecotz baditu lauetan hogoi eta hamabortz urthe eta berrogoita hamabortz mortuan dela, noiz eta ere ezagutcen baitu badohala mundu huntarie. Orduan othoiztu cituen bere lagunac, hartaz orhoit citecela mezaco sacrificio sainduan.

Gero, jadanic azken baxetarat heldua, hasi cen oraino nigarrez. Cergatic, gure aita ona, galdetcen diote, egiten duzu nigar? beraz, bertceac bezala, zu ere herioaren beldur zare? Bai, aithortcen dautzuet, hainitz beldur naicela, Beldur hortaz hartua egotu naiz nere bici gucian. Bizkitartean hil cen esperantza gozo bat bihotcean, eta haren arima saindua joan cen irabaci dohaxutasunaz gozatcerat.

IRACXPENA

Arzenac erraiten cion bezala bere buruari : Cergatic atheratu

¹ Erraiten ciela. — ² Ardura. — ³ Dolutceco.

haiz mundutic? guc ere galde diozogun gureari : Cergatic haiz munduan? Izanen dugu bethi ihardeste bera : Saindutceco, eta geroago eta sainduagotceco ; hartara ez dohan gucia gal da eta gure galgarri; ez dezagun ahantz!

UZTAILAREN 17^{oan}

SAN ALECCIZ

Hila 404^{***}

Erroman lehen aitoren semetarie bat bere benboran, eta ezcondua Aglais deitzen zuten odol handieneticaco andre batekin, cen Euphemien, guizon bat guciz aberaxa, osoki jainco-tiarra eta erromesen¹ lehen sokhorritzailea; erraiten ahal da beraz egintza horien gatic izatu circla biac saristatuac haur baten izaiteco zori² jadanic exiaz.

Erromaco gizonen artean lehen herroncan agertu behar cela zaocaten haurrari, asmatceco³ da nolaco ikhasteac eginaraci eiozcaten. Jadanic adinetaratua, aita bilhatcen⁴ dio andretzat inperadoren ahide⁵ cen nescatcha aberax bat : Ezcontza egiten da, eta, elizaco benedicionen ondotic, etche gucia bozcariozco bestarie handienean emaiten.

Hantchet harrabox hekien gucien erdian, Jaincoac ezartcen dio buruan Alecciz gazteari, behar dituela etheco axeginac, onthasunac eta etheca hera utci, eta behar duela icusi giristitinoec maitenic cituzten tokietarie⁶ cenbeit. Ilhundu den bezain laster beraz, sartcen da bere andrearen ganbaran, emaiten diozca erhaztan bat, eta, estalki garri batez inguratua, gerrico bat, erraiten diolaric : Horra horiec zuretzat, othoi, beira zatzu, eta Jaincoa zure eta ene artean diteke haren nahi sainduac dirauen.

Badoha gero bere ganbararat, hartcen du handic urhe eta harri distirant nahi duena, eta berehala, nihortaz icusia izatu

¹ Prauben. — ² Zorthe. — ³ Phenxatceco. — ⁴ Cherkhatcen. — ⁵ Ascaci. — ⁶ Lekhietarie.

gabe, laster egiten du ur bazterrera, igaten da untei batetara, eta abiatcen iruzkia atheratcen den aldetarat buruz.

Denbora hetan bazter gucietaric hazabilan hainitz giristino Edesaco hirira, Jesus Jaunaren potret baten ohoratcen Alecciz ere harat doha eta han tricateen¹ da. Han oraino, saldu cituen bere harri distirant guciac, eta hetaz egin zuen dirua, hala-nola berarekin ekharri zuena dena eman zuen erromesei², eta bera, philda tchar batzu soinean, hasi cen biciteen bertcec eman nahi ciotenaz.

Hango eliza-nagusico dorre azpian du gabaz, uda ala nega izan zadiela, bere lo chorta eginen; eta, gau eta egun, haren lanic maitena, othoitcean eta izpirituz michterioric gorenei begira egoitea izanen da.

Bizkitartean hunen ethecoac nihon lur onic gabe zauden, eta ecin amestuz³ cer bilhacatu citzaioten beren Alecciz maitea. Hiri gucia miatua⁴, bazter gucietarat igorriac cituzten mandatariaac, ja nihon deus haren berriric etcen izaiten ahal.

Izatu ere ciren urhaxez-urhax jarraiki citzaizconac Edesaco hiriraino. Aleccizec ezagutu cituen errechiki, galdetu ere cioten cerbeit amoina egin cezotela, eta bertcec, gogoan ibili gabe soineco tchar hekien azpian, begitarte cikhin⁵ harekin, eta lan hartan izan citekela bilhateen zutena, eman cioten bertce erromesei bezala. Eta aldiz Aleccizec hartu, Jaincoari eskerrac emaiten ciozcalacic, ceren emana citzaion bere muthilei escuaren hedatu behar izaitea.

Hola-hola, eta nihortaz ezagutua izan gabe, egotu cen hamazazpi urthez. Hekien buruan ceruticaco mintzo batec eliza-gizon bati erran cion, saindu bat celacotz Alecciz, harentzat icustate bereci bat izan cezala. Apezac, handic aintcina, atchiki cion hobeki begia, eta ohartu cen, egiazki handi cirela haren pairua⁶, bere erromes lagunentzat zuen amodioa eta othoitzarentza zuen kharra; eta etzuen gehiago uzten canpoan gauaren iragai-tera. Apezarekin batean bertcec ere ezagutu zuten cein saindu

¹ Baratcen. — ² Prauber. — ³ Phenxatuz. — ⁴ Ikhertia. — ⁵ Th. iu.

⁶ Pacentcia.

bandia cen, arropa tchar hekien azpian gordea. Eta han bakho-
tchac egiten cion ahal zuea ungi gucia.

Etcen hori Aleccizec guticiatcen zuena, eta igan cen untei
batetara, Lerriz ere gordetcera joaiteco. Bainan Jaincoac nahi
izatu zuen haiceaz unteia eremana izan zadien Erromara.

Alecciz sarthu cen Erroman, eta Jaincoac hantaratcen zuela-
cotz, belhi bere jaunztura tcharrean, bilbatcen du bere aitari
mintzateco artea, eta erraiten dio: Arima Jaincotiarra, othoiz-
ten zintut urricai nakizua¹, ecen deusic gabe naiz: othoi,
leihor² pichea bat eman diezadazut, han hici ahal nadien zure
muthilen mahainetic erortcen diren jateco izpiez; ez dautzut
hori haicic galdetcen, eta Jainco urricalmenduxuac³ utcico
ditu bere Lenedicioneac zure gainerat jausterat, eta maite cinu-
ken norbeit bidean ibilki balinbacinu, hura osasunean⁴ icusa-
saracico darotzu.

Euphemieni bihotzac zarrasta bat egin cion, ecen orhoitu cen
bere semeaz; eta erromes hura bere jauregirat ereman araciric,
han egiten ahal zuen bezain ungi gomendatu cion muthil bati.

Alecciz horrela bere etchean cen, eta han, nahi zuen bezala,
bere muthilen jostagailu; hetaz hainitcetari trufatua eta laidos-
tatua, ascotan joa, bainan halaric-ere bethi alegera. Eta bizki-
tartearen cenbat aldiz etcioten ez entzunarena egin behar odola-
ren eta haragiaren oihuei! Ecen aise zuen ezagutcen haren
gatic oraino maiz bustitcen cirela nigarrez nihoiz conxolatu
etciren etheco hekien begiac; eta hura, atce bat izatu balitz
bezala. Senhar emazte hekientzat eta bertce andre harentzat,
hantche egonen da, erausten gizonac cer dezaken egin Jain-
coaren graciarekin batean, ikharagarriac bere bihotcean pai-
ratcen⁵ dituelaric, ezdeuskeria bat jateco eta bertce hain-
bertce edateco.

Etchean dela hamazazpigarren urthea bethetcera darama,
Jaincoac manatecen dionean, iscribuz ezar dezala nor den, eta
non ibili den bere azken hogoita hamalau urthetan. Egiten du

¹ Ekhen dezazun pñtate. — ² Atherbe. — ³ Misericordiousac. —

⁴ Osagarritan. — ⁵ Sofritcen.

mānatua zaion bezala. Iscribateen du ere, nola utci zuen etchea, bere andreari erbaztun bat eta gerrico bat emanic, eta gero, ungi gordeteen du paper hura.

Bada, egun batez, Aita Saindua Innocent lehena mezaren emaiten hari delaric, mintzo hau entzuten dute elizan diren guciac : *Zatozte niganat axecaben¹ eta cargaren azpian zaretenac, eta nic lagunduco zaituztet*; eta berehala guciac oihuz hasten dire, diotelaric : Jauna urricai gaiz kitzu.

Gero, jendea ichildu denean, bertee mintzatzaile ageri ez den batec berriz ere erraten du : *Bilha zazue Jaincoaren gizona; Erromarentzat othoitz eginen du, eta Jaunaz entzuna izanen da. Bilha zazue, eeen hil behorra da heldu den ortciralean*. Bai, bilhatu zuten, bainan etzaocaten atcemanic; hain zuen sainduac ongi gordeteen bere saindutasuna.

Ondoco ortciralean jendeac murroca² hartu zuen eliza gucia, eta, orduan, mintzo berac erran zuen : *Zohazte Euphemien etchera, eta han bilha zazue saindua*. Euphemien bera ere elizan cen. Elhe hori entzutearekin herresacan³ abiatu cen, behar zuela icusi cer iragaiten cen haren etchean. Aita Saindua eta inperadorea ere populu guciarekin jarraiki citzaizcon.

Ordu hartan zuen hartu Aleccizec bere papera escuetan, eta, amodio saindu batez sustatua, eman azken haxa. Euphemien heldu cenean hila cen. Hunec nahi lioke iracurtu paper hura, bainan ez, gogorkiegi atchikitzen zuen.

Atherateen dute lehenic egongiatzat zuen escaler azpitic, eta gero Aita Saindua eta berteeac emaiten dire othoitcean utzi cetzala paperac cer daasan icustera Azkenean lachatu ciren erhiac eta jakin zuten saindua, nor cen. Euphemien, haren semea ceta jakitearekin, oihuz hasi cen eta izkirituca⁴; ethortcen dire ama eta andrea, eta hec ere, eroriac gorplutz maite haren gainera, daude nigarretan eta marrascaric erdiragarrietan.

Orducotzat hirico jende gucia etche haren inguruan cen, eta

¹ Nahigaben. — ² Athecca edo metaca. — ³ Presacan edo leheric handienian. — ⁴ Ga: rasiacā.

guciec behar dute saildua icusi. Jaincoac ere adiarazfen⁵ diote cer ohoreac behar diozcaten eman bere nahitara aphaidua egotu den erromesari, ecen miracuilua miracuiluaren gainean da, eriec aski dute haren ukhitcea berehala sendo izaiteco.

Azkenean Aita Sainduac, hainbertceco bihotz minac eta axeginac eztitcen hasi cirenean, eremanaraci zuen gorphutz saildu hura elizarat, eta, cenbeit egunen buruan, izatu cen ehortcia citeken ederkiena.

IRACASPENA

Ez dugu nihorc egin behar saildu hunec bezala tentacionen bidera joaita; ez gare aski hazcar ez aski saildu; bainan tentacionean garenean, begira diozogun Jaincoari, erranez: Zu lehenic eta bakharric, ó ene Jaincoa! ez dut nahi zu baicen, ez mundu huntan ez bertcean! eta bihotcez balinbagaizco mintzo causituco dugu Jaincoa, eta harekin badukegu hemen ere mundu gucia baino gehiago.

UZTAILAREN 18^{ean}

SAN ARNAUT EDO ENAUT EDO ALLANDE

METZACO APEZPICUA

Hila 641^{ean}

Saildu hunec Franciaco erregen odola zuen bere zainetan, ordean aspaldion ahantcia izanen cen, ez balitz bere saildutasuna gatic hobeki ezagutua izatu; hain da bethi egia Jesus Jainaren hitz hau, bere nahitara gordetceen dena izanen da altchiatua.

Arnaut sorthu cenean, bacen inguru betan Eztebe deitceen zuten gizon saildu bat, eta hunec cion entzun nahi zuen guciari: Jakin zazue haur hori, egun batez, handi izanen dela Jaincoaren begietan, eta aiphatua gizonen artean. Izpiritu sailduaz argitua cela Eztebe, errech¹ da icustea.

¹ Aise.

Berenaz ezti eta hartze onecoa ezarria izatu cen sortceac manatcen ciozcanen ikhasten hainitz escu onetan; eta gero, escolen ondotic, palacioco gobernadoreac eman cion lana. Gobernadorearen cerbitzotic erregearenera urhax bat cen, eta hura husu¹ egia zuen.

Theodebert erregeac ezarri zuen probintcia baten gobernadore, gero eman ciozcan bia bere meneco, berantehago hirur, eta azkenecotz bacituen sei; erran nahi baita, sei gizonec arruntean joanarazten zutena, Arnautec berac zaramala².

Hainbertce egitecoren erdian, lana izanki, gucien arabera, burutic gaindi, eta hargatic ez ditu nihoiz galteen begien aintcietic Jaincoa. Jaincozco gauzac eta berthutean geroago eta hobeki fincatcea. Axeginetarat³ lerra ez dadien, zaphatua dagoca bere burua penitenciaric handienez eta barur noiz-nahicoez; eta onthasunei bihotzaren estecateerat ez uzteco gracia, merecitcen du erromesei⁴ egiten diozcaten amoina nasaiez.

Ez da deus creaturarie bihotz garbi hura beretcen ahal duenic. Ecen, nahiz burhasoei⁵ axegin egiteco ezcoadu cen, bizkitartean gogoz bakbartasuna zuen bethi bilhatcen⁶. Haren irrixa⁷ cen, Jainco Jaunarekin bethi mintzo egoitetic gibelatcen zuten traba guciac hauxiz, lehen-baino-lehen mortu⁸ edo comentu ilhun cenbeitetarat joaitea.

Denbora berean bacen, Arnauten lagun, erregeren gortean, bertce gizon aiphatu bat, Romaric. Hau ere lurreco egitecoetan ecin hobea cena, Arnaut gaztea bezain unchatua⁹ cen munduan egoiteaz. Hala-hala, behin batez, gortetic atheratcea hitzartu zuten biec.

Orduan Arnautec, adioac eginic andreari, cituen bi haurrei eta gorteari, hartcen du Lerinceco comenturaco bidea, han bederen izanen duela guticiatcen¹⁰ zuen bakea; han, nihoren, ez deusen errencurarie gabe, ezagutuco eta maithatuco duela Jainco Jauna geroago eta hobeki.

¹ Laster. — ² Erouaiten ciala. — ³ Placerreta at. — ⁴ Prauber. — ⁵ Aita eta amer. — ⁶ Cherkhatcen. — ⁷ Aiherra edo tirria. — ⁸ Mortu. — ⁹ Debeiatu edo enoatia. — ¹⁰ Cudiciatcen edo desiratcen.

Bainan bertelacoac ciren Jaincoac Arnauten gainean cituen chedeac; ecen, han hiritic atheratcen, eta Metzarrac bazohacin, apezpicuric gabe cirelacotz, erregeri erraitera, Arnaut zutela hautatu apezpicutzat; onhexaraz dezotela beraz Aita Sainduaz.

Errege laster igorri cituen mandatariac. Arnauti erraitera, itzul zadiela; eta, gogo onez, egin cituen behar ciren urhax guciac; ecen gaitci citzaion osoki, horrelaco gizonaren bere ingurutic urruntcen icustea. Arnautec ere ezagutceco izatu zuen Jaincoac ciola manu hori emaiten, eta hainitz nigar egin ondoan ceren aintcinean zuen baino carga handiago baten azpian behar cen sarthu, utci zuen bere burua ordenatcerat.

Apezpicutcearekin erromes eta bertec dobacabe¹ guc'en aita bilhacatu cen, erregeren ganic edo bertecetari² izaiten ahal duen gucia haukientzat dagoca, haren etheca haukiena da, fraidec eta ibiltzaile erromesec haren ethecan zuten beren ostatua; eta sainduac, amari³ samurrenaren⁴ pare, berac bere escuz, garbitcen⁵ ciozcaten zangoac, minic balinbazuten lotcen⁶ ciozcaten; berac oraino ekhartcen cioten mahainera jatecoa, eta gero eri balinbaciren ere, igortcen cituen sendatuac. Horra cergatic eteen atherteen haren ethecan jendea; batzu arimaco gaitcetari⁷ bertecac gorputcecoetari⁸ senda cetzala othoitcez.

Jendearen ganic cituen laudorioec eta icustateac zuten bakharric loxarazten. Jesus Jaunac ez du izatu laidoric eta aphaltmenduric baicen, zaasan cenbeit aldiz, eta ni ohorez hantua naocate! Norc erranen darot, ez dudala oraidanic eta lur huntan berean ene baruren eta amoinen saria, ez ditudalacotz aski chede garbiz egiten? Eta orduan gordea egoiten cen penitenteia lazarri batzuetan, eta deithoratcen halaco lanteian⁹ eta bere Jesus maiteganic urrun, egon behar izaitea.

Oraino bai, aphur⁶ bat egon beharco du, ecen Clotaire erregeac ezarri cion escuetan Dagobert, bere seme errege izaitera deithua cema iracax cezola jakin behar zuenetari⁷ cerbeit. Hala-

¹ Malerous. — ² Trendenaren. — ³ Chahatcen. — ⁴ Hersten. — ⁵ Lan-
khian. — ⁶ Ichtant.

chel egin zuen; egotu ere cen apezpicu, Clotaire errege cenó.

Bainan, hau hil cenetic laster, banatcen¹ da hirian berria, sainduac utci nahi dituela, eta mortu zokho cenbeitetarat dohala. Dagobert erregeac, eginez bere baithan, cer nahi gostaric ere behar duela bere aldean atchiki, agerrarazten du bere aintcinera, eta erraiten dio: Nahi balinbanauzu neroni² utci, ahal dudana egin dezadala, badakikezu zure lehen semeac ez dukela luce bicia.

Ene semearen bicia, ihardesten dio Arnautec, Jaincoaren escnetan da; ordean hobenic ez dutenen odolic ichurtcen balinbaduzu, zue ere jakiten ahal duzu laster hilen zarela.

Erregeac, coleraz sultan, hartcen du espata, sainduaren hartaz iragaiteco. Eta hunec, deus ikhararic gabe, erraiten dio: Cerc zabilzca, printce dohacabea, cer egin gogo duzu, ungia gaizkiaz pagatu? Hargatic, emazu aintcina. Huna non nauzun, ez naiz guphide³, enetzat bere odola ichuri duenarentzat, ene biciaren emaitiaz, jo nazazu.

Hainbertcenarekin jaun batec erraiten dio erregeri: Beautzu, Jauna, holacoric egitetic; zure buruari cinezake calteric⁴ handiena egin. Errege, facegatua⁵ hitz horiez, erortcen zaio sainduari belhaunico oinetara, eta erraiten dio: Ene aita, joan nahi zarenaz geroz, zohaci, ordean otboitz eguizu enetzat.

Arnaut sainduac etzuen denboraric galdu, eta Lerinecco oilhanerat joan cen, penitencia gehiagoren egitera, Romaric bere adiehkidearekin. Oilhan hartaratecoan arthiki zuen erhaztuna ur handi batetarat, zaasalaric⁶, nihoiz gehiago Jaincoac icusarazten balin badarot, seinale diteke bekhatuac barkhatu darozkidala.

Lerinecco oilhanean, etchola tehar bat eginic, bici ciren, lurra gogotic galduric Gorphutcez egia da, orhoitcen ciren, ordean bekiei ahal zuten guciaren pairarazteco⁸.

Su berean cirelaric oraino, ekhartcen diote Arnaut sainduari, egun batez, toki⁷ hetaric urrun atzamanicaco arrain bat; eta

¹ Hedatcen. — ² Nihaur. — ³ Herabezti. — ⁴ Gaitcic. — ⁵ Ematia. — ⁶ Erraiten cioric. — ⁷ Sofri craztcco. — ⁸ Lekhu.

nolacoa ez da haren zoriona¹, arrain hartan causitecan bere erhaztuna! Etcen horren gatic baratu penitencia egitetic, ez, zokhorri bilba ethortcen citzaizcotenei ungi egitetic.

Horrela bici izatu cen oraino hainitz urthez, eta gero, bere lan eta egintza sainduz irabaci sariez gozatera. joan cen cerurat, sei ehun eta berrogoita batean.

IRACAXPENA

Munduco egitecoen erdian bici behar dukegunec, ez dezagula gal begien aintcnetic, saindu hunec utci darocun eracuxpena². Ez badugu aski contu emaiten, uste gabez ere, sopra lotcen ahal zaizu bihotzac lurrari, eta lurreco gaucei. Icusiz san Arnaut cein cen beldur, ez aski egiteaz cerucotzat, gauden, geroni ere, cerua eta ceruco gauzac gogoan, eta ez diokegu eskerrie lurrari.

UZTAILAREN 19^{an}

SAN BICHINTCHO PAULECOA

Hila 1660^{an}

—

Miresgarri¹ dela Jaincoa bere sainduetan! eta haukien egintza gucietan errech⁴ dela icustea haren escu botherexua!

Hamazazpi garren mendean urricalteen² zaio Jaincoari Francia, eta hortacotz harteen diote haur bat, bere cerbitzuc, Marantcinaco oihan zokho batean, laborantehatic doidoia bici diren aita eta ama batzuei. Haur hunen bidez ecen pizaracico du caritatearen sua giristinoen bihotcetan, eta handie aintcna, gizona sokhorritua izanen da nola nahico izan ditecela haren beharac.

Bichintcho, hainbertceco ungia egin behar zuen haurra, sortu cen Pouico herrian, Akice ondoan. Erran dut jadanie labo-

¹ Irousitatia. — ² Exenplia. — ³ Admiragarri. — ⁴ Aise. — ⁵ Pietate egingarrikiten.

rari ttiki batzu eirela hunen burhasoac¹. Bera aldiz badabila bortzpasei urthez acienda beltz batzuen ondotic.

Contu² egin ciokenac ezagutu zuken ordutic, cer caritate izanen zuen geroan bere lagunarentzat: ecen causi ezala bera baino erromesago³ citeken cenbeit erromes, eta etzagoken hari cerbeit ungi egin gabe. Errotaracoan⁴ edo handie etcheracoan. icus dezala cenbeit escale, behar dio bihi edo irin ahurtara bat bederen eman.

Behin, orducotzat hamabi edo hamahirur urthe cituzken, baditu, batzuei eta bertcei lan eginez irabaciac, hogoita hamar sos; erran nahi baita deusic gabe diren aita eta ama batzuen haurrarentzat baduela onthasun handi bat. Bada⁵ iduriteen zaio erromes bat beharordu handian dela, eta emaiten diozea hogoita hamar sosac.

Hamabi urthetan hasi cituen escolac eta hogoita lauetacotz ikhasia zuen behar cen gucia apezteco, apez ere ordenatua cen.

Apeztu cenean behar izatu zuen Marsellarainoco bat egin, eta handie etcheracoan preso hartua izatu cen Mahometanoez. Preso ere badago cenbeit denboraz, batzuec bertcei saldua, eta ascotan ungi tincatua bere erlisionea arbuia⁶ cezan. Ordean Birjina Mariari othoitz egitea cion, eta Ama samur⁷ hare lagunduco du, eta azkenean, hari esker, baduke libertatea, bere nagusia Jaincoa ganat itzularaci duenean. Hala-hala bici deino, ezagutzaz eta amodioz bethea izanen da Andre dena Mariaren alderat⁸.

Franciarat ethorria, erroter icendatua da, eta denbora laburrez ungi handia egiten du eman dioten herrian. Gero, nahi zuelacotz Jaincoac, herria baino handiagoco eremuac izan cetzan haren bihotceco khar sainduac, icendatua izatu cen galerianoen apez.

Dohacabe⁹ haukien erdian jartcen da haurride batzuen artean egin citeken bezala. Hain da ezti eta amodioan, non azkenecotz, maite baitzuten guciec aita baten pare; eta orduan er-

¹ Aita eta ama. — ² Casu. — ³ Praubiago. — ⁴ Eiheralacoan. — ⁵ Arren. — ⁶ Arnega. — ⁷ Trende. — ⁸ Eretcian. — ⁹ Malerous.

rech izatu citzaion hekiei adiaraztea¹, cargaric handiena etzutela beren burdinetaric bainan bai bekhatuetaric.

Lan huntaric lekhora² bilteen ditu elkharretara haren chedetan sarthu nahi duten apez batzu, eta hekiekin harico da jende chehearen escolatcen eta bazter herrietan missione emaiten.

Bertzalde alchateen ditu confrariac eri erromesen arthatceco³. Chutic ezartcen du, egundaino geroz mundu gucian aiphatuac diren ospitaletaco serora zuhailen comentua; egiten du etche umezurcentzat⁴, erientzat, zaharrentzat eta beren barreiamenduac deithoratu nahi dituzten nescatcha eta emazte ondicozcoeriztat⁵.

Ez du deusic bereric, eta bizkitartean halaco sinhestea dute guciac hura baithan, non errege bera baino ere aberaxago, escuetan duen diruaz probintcia osoac hazten baititu gosete denbora batzuetan.

Lan eta egintza saindu horien erdian izanki, eta luna ceren aithortceaz etcen ahalke :

Behin batez, icustera ethorri citzaizeon jende handi batzuen leguntecra canpoco atheraino⁶ jauxia cen, eta harat heltecan, ustez laudoriozco gezur horren gatic amoina handiago bat izanen duela, emazte batec erraiten dio goratic : Jauna lehenago zure amaren nescato egotua naiz, nahi bacinaut cerbeit eman.

Sainduac ilhardesten dio : Emacumea⁷, ez naiz zuc uste duketzuna; nere ama bera nescato egotua da, orai laborari ttiki baten Andre da, eta ni hekien semea acienda beltz batzuen zain egotua naiz. Ah! cer condenacionea hainbertce haurrentzat, ahalcatcen direnean beren icenaz, bere sortce aphasaz edo etcheccoen arrunkiegi beztituac icustez!

Nahi balinbadugu hobeki ezagutu Bichinteho sainduaren umilitatea, luna oraino ichtorio ttiki⁸ bat :

¹ Enthelega eraztia. — ² Landan. — ³ Souenatceco. — ⁴ Aitaric ez amaric extienentaco. — ⁵ Malerousentaco. — ⁶ Borthaladrano. — ⁷ Emaztia. — ⁸ Tchipi.

Behin, Janseniusen basa erlisionea predicatzen zuen gizon batek egia cituen bere egin ahalac saindu honen irabazteco; eta gero exitu duenean erraiten dio: Ez dakit, nola zure etchean duzun apez aldeac¹ bere nagusitzat ezagutcen zaituen, zu, hain gauza guttia dakizuna, zu, hain zozo zarena. Egia handia hori, ihardesten dio sainduac, eta oraino bacinaki cein den ez deusa ene jakitatea, cein naicea zozo handia, cer etcinezake erran?

Umilitate horren gatic etzuen nihoiz bertcen hondarrac² cituenean baino gogo hobez egiten bere othurentza³, eta bethi, arropa tchar batzuekin zabilan.

Bertcentzat ezti bezain borthiz bere buruarentzat, harea penitenteiac ikharagarriac ciren; noiz nahi barur egiten zuen; loegiteco doidoia bizpahirur oren cituen; izan zadiela eri edo sendo, uda ala negu, etcen gauerdi baino lehen etzaten, eta lo chorta bat egin zueneco, berriz ere jeikia cen.

Sacramendu sainduarentzat zuen amodioa hain cen handia, non ez baitcen nihoiz⁴ deus lan edo bidetarat abiatcen Jesus Jaunari bere agurric⁵ samarrena egin gabe; haren oinetan cen egiazki uros, eta hortacotz han zaramazcan⁶ oren osoac haren adoraten. Meza emaiten iduri zuen aingeru bat, hain cen kharsua, hain beldurrez eta amodioz joa haren begitartea.

Bazuen jadanac hiruetan hogoi urthe, aiphatu baicic ez ditudan egintza horien erdian zagola Bichintcho saindua, hiruetan hogoi urthe biei eala Jainco Jaunaren manuen azpian nihoiz deusic egin gabe Jaincoaren nahia baicic. Haren biltceac berac ere hala-halacoa izan behar zuen.

Loeria batez unhatua⁷ eta zangoac galduac, ezagutu zuen berice mundurat galdea bazuela, hartu cituen beraz sacramenduac, eman cioten benedicioea bere haur guciei, eta ezteki loharcatu cen Jauna baitian; eta haren arima joan cen cerurat nihoiz akhabantzari ez duteketen sariez gozaten hastera.

¹ Teliac. — ² Oundarrac. — ³ Apairia. — ⁴ Behinere. — ⁵ Salutacioneric. — ⁶ Eroahten citian. — ⁷ Akhitia.

IRACAXPENA

Orhoit gaiten saindu hunen bihotza orai ceruan delacotz ez dela lehenago lurrean cenean baino urricalmendu¹ gutiagorekin. Othoitz dezagun beraz geriza² dezan Frantcia eta izanaraz³ diozan oraino cenbeit egun uros eta ederric. Othoiz dezagun sokhorri dezan erromesaren gabecia, preso direnei arin diozotela beren gathen carga, conxola detzala nigarretan direnac, larga detzanzeula bihotzac elkar maitha ahal dezagun, eman dezaucula guciei bere caritatea eta umilitatea.

UZTAILAREN 22^{na}.

SANTA MARIA MADALENA

Maria, Martha eta Lazaro ciren, Jesu Chrizto gure Jaunaren denboretan, Judeaco hirur haurride. Burhasoc⁴ hiltcean, utci cioten haurride bakhotehari, etche bana⁵. Mariac duena Bethaniaco herrian da. Eta nola Magdalon baitu etche hunec icena, bera deithua izanen da Maria Madalena.

Bazuen oraino bertee icen bat Mariac. Deitcen zuten Bekhatorosa: cerea eta bere onthasunec eta edertasunac erorraraci baitzuten hainitz bekhatutan. Zazpi debruz ere hartua cen, Jaincoac egin cionean urricalmenduzco⁶ begiratce⁷ bat. Jaincoaren gracia horri esker, ezagutcen du Mariac cein den trichte haren zoria⁸; eta ordu berean badoha Jesusi buruz; ecen erran diote, ilhunbetaco izpirituac bortchatuac direla hari obediteca. Bai, Jesus onac atheratu zuen Madalena izpiritu gaichteoa aztaparretarie; eta joan cen etcherat osoki sendatua.

Handic laster, edo Jesusi cerbeit egia handi predicatcen entzun ciolacotz, edo izatu celacotz haren graciaz beraz ukhitua⁹, cer nahi den, erin jasanez gehiago bere bekhatuen carga, eta

¹ Pietate. — ² Beira. — ³ Ukhen craz. — ⁴ Aitot-omec. — ⁵ Bedera. — ⁶ Misericórdiazco. — ⁷ So. — ⁸ Zorthia. — ⁹ Hounkita.

ordu arteraino haxa bezain baitezpadacoac¹ cirela iduriteen citzaizcon josteta eta ezdeuskeria bekien orhoitzapena, badoha Jesusen atremaitera, Simon Pharisauaren etchean, baskaritan hari delaric. Nahi diozea guciac aithortu, ordean nigarrec eta aulhenec² gaina harteen diote, eta belhauaico dago eroria nagusi Jaincozco haren oinetara.

Icuspen horrec osoki hasarrearaci³ zuen Simon, ja horrelaco emazte batec sartbu ere behar duen haren etchean, eta nolaz Jesusec ere usten duen bere oinen ukhiteera. Entzunen du Simonec behar duen ahapaldia, eta aldiz Madalenac solhas⁴ hau : Madalena, hainitzac dire barkatuac zaitzun bekhatuac, ceren nauzun hainitz maithatu.

Orduz geroz oraino hemezorteci hilabetheren heina joan cen, Jesus hil bizkitarte⁵. Erran gabe doha han cela Madalena Salbatzaileari jarraikitcen cirenen artean jarraikiena. Behin, izatu ere zuen Nagusi Dibino haren bere etchera bazcariz ethorteen icusteco zoriona⁶.

Jadanic Jesus heldua cen, othuruntza⁷ ordua ere hurbildua citeken, eta Martha, dena bere bazcariac hartua zabilan, ohar-teen denean, Maria Jesusen aldean dagola, deusic egin gabe eta hari beha. Ecia gehiago pairatuz⁸ bere ahizparen alfer egoitea, erraiten dio Jesusi : Eta Jauna, ez baitzare achola hari neroni lanean utz nazan ene ahizpac! errozu, othoi, lagunt nazan. « Martha, Martha, ihardesten dio Jesusec, baduzu hainitz egiteco eta hainitz buru hauste. Mariac escualderic hoberena « hautatu du eta etzato khendua izanen. »

Ezagut dezakegu oraino Ebanjelio sainduan Madalena cein ungi icusia cen gure Arrerostaile Jaincozcoaz, egintza huntaric : Lazaro anaia hil citzationean, Jesus bertce nonbeit cen. Bainan berri hori jakin zueneco, ethorri cen Maria gana; eta nahiz jadanic lau egun baduen hila deia, pitzaraztea du Madalenaren anaia.

Icusten dugu bertzalde, Jesus, bere dicipuluekin bazcaritan

¹ Nesesarioa. — ² Haxperenec. — ³ Khocha eraci. — ⁴ Elhe. — ⁵ Artino. — ⁶ Irousitatia. — ⁷ Apairia. — ⁸ Sofrituz.

hari celaric Simon lepradunaren etchean. Maria Madalena hara joan ceta, eta Jesusen buruaren gainera hustu zuela etche gucia usainic hoberenaz bethe zuen herraux khario bat. Juda¹ sec gaizki hartu cion lan hori, galtee bat izatu balitz bezala: ordean Jesusi eracusten ahal badu, coin duen maite, cer dohaco Madalenari.

Gure salbatzaile Dibinoa izatu cenean preso alchatua, eta Galbarioco mendiari gora eremana Maria Madalena eteen nerundu haren ganic. Nahiz laguntzaric deusere ez diozok n egin, hala ere ahal duen bezain hurbiletic jarraikitzen da Jesusi. Guratcean delaric, haren ondoan da egonea. Eta cer erran haren bihotza lehertua zagocan axecabeaz! Bihotz bera eta amodioxu haren orduco herstudura khirexaz! Ez, ez! orobat erin aski saminki mintza, banoha aintena.

Guratce tic jauxi zutenean Jesusen gorphutza, ongi begia afchiki zuen non zuten ezartcen. Gogoan zuen ecen larumbata² iragaiterat utci-eta haren gautzutcera³ ethortcea.

Bazco goicean, argia urratcerat zohan heldu cenean hobira. Ordean nolacoa ez da haren nahigabea, icusteaz hobi-athea hesten zuea harria baztertua dela! Egia da, Aingeru batec erraiten dio piztua dela bilhatcen⁴ duena. Bainan Madalenac ez dio casturic egiten, eta badoha Jondoni Petriri erraitera, cer icusi duen. Jondoni Petri eta Jondoni Joanes, hekien ondotic, Madalena lagun centeitekin, ethortcen dire hobira. Hobia erran bezalacena, huxic, eta zaindua aingeru batzuez.

Etzutela hoberic lan egonez guciac itzuli ciren hirirat. Madalena bakharric dago lan berean, dena nigarretan. Aingeru batec galdegiten dio: Emaztea, cer duzu nigar egiteco? — Ereman darotet nere Jauna, ihardestea du, eta ez dakit non ezarri duten.

Hainbertceanarekin begiratcen⁴ du gibelerat, eta icusten du gizon bat. Baratce zaina ditekela, erraiten dio: Jauna, zu bazare haren gordatzailea, errazu, non ezarri duzun, eta badaramat. Baratce zaina delacoac erraiten dio: « Maria. » Mariac bazuen

¹ Nescaneguna. — ² Ounelatecera. — ³ Cherkhatcen. — ⁴ Sogiten.

entzunic aski. Ezagutuz bere Jesus maitea duela aintzinean, ihardesten dio : « Rabboni » erran nahi baita, nagusia. Bozcarroric handienez nahi lotzoke oinar besarcatu, Ordean, Jesusen manuz, badoba erraitera Petriri eta Apostoluei piztua dela eta laster icusico dutela.

Hau da Ebanjelio sailduti dakiguna Madalena Sainduaren gainean. Huna orai Elizaco aita ascoc cer uste duten egin zuela Jesu Christo gure Jauna cerurat igan ondoan, Juduec giristino hainitz hilaraci zutenean, bekien odollean itho nahiz hedatzen hari cen erlisioneoa, ezarri cituzten Maria Madalena, Martha eta Lazaro, Maximien eta bertee cenbeit giristino ixasoan, lemaric ez mastaric etzuen untei tchar batean; cenbeit ubin¹ askico zutela pulunpa baten egiteco, eta 'leihorrerat' niholaz etcirela helteen ahal. Horra cer zuten guciec uste. Ordean Jaincoac helaraci zuen bekien untei chumea Marsellaco hirira.

Lazaro eta Maximien apezpicu eiren; eta horren gatic etzaudezken Ebanjelio saildua Marsellesei predicatu gabe. Horra beraz nola Francian sartzen den Jainco legea. Lazaro Marsellaco lehen apezpicua izanen da, eta Maximien Aixecoa. Madalena saildua aldiz behar zuela lehenagoco bekhatuez nigar egin, joan cen mendi gain batetarat.

Belhar edo belhar erro cenbeit janhari, badago hantchet hogoit hamar urthez, jendetaric urrun, lurreco axeginetaric² berecia, ordean izpiritu cerutiarrez maiz icusia, eta ceruco axeginez saristatua. Hogoita hamar urthe hetaric lekhora³, noiz nahi berekin cituen aingeru hec ereman zuten, Aixeco hirian. Maximienec egin zuen elizara, hil gabe izan cezan comuniategoco zoriona.

Maximien, icustean jende hura, jaunztura orde, bilocc gordetzen diotela gorplutza, eta oraino lurric ukhi gabe dagola, harritzen da. Baiuan sailduac erraiten dio : Ni naiz Madalena bekhatorosa, zurekin Marsellarat ethorria. Orai hiltcera noha, ordean ez nazazula utz ene Jesus guciz maitearekin batasunean

¹ Ixas colpe. — ² Lur idorrilat. — ³ Zain. — ⁴ Placcretaric. — ⁵ Landan.

ezarri gabe. Comuniatu zuen beraz, eta handie berehala, amodioz dena sutan, joan cen santa Madalenaren arima bere espos maitearen cernan hobeki maithatcerat.

IRACANPENA

Norc erran dezake ez dela gai¹ penitencia garratz horiei lotceco? Hainbertce denboraz Andre handi hau guriki bici izatua cen eta obitua² aberaxec, mundutar direnean, bilhateen dituzten eztitasun guciekin; eta icusten dugu hunen bicitcea. Ah! maitha dezagun penitencia, eta sinhex ez dela Jaincoaren irabazteco deus sobra denic.

UZTAILAREN 25^{ena}

JONDONI JACOBE GEHIENA APOSTOLUA

Jacobe, Zebederen eta Salomeren semea eta Jondoni Joanes Ebanjelistaren anaia, deithua da Gehiena ceren eta icen bereco bertce Apostoluac baino berehcuntza gehiago izatu baitu gure Nagusi Jaincozcoa ganic.

Arrantzaile bere Aita bezala, ixas bazterrean zagon, bere untcian, Jesusec Jondoni Petriri harraraci cionean sareac hausteco heinean ezarri ciozcan arrainketa handi hura; eta Apostoluen Printcea izan behar cena lagundu zuen leihorreratcen³. Miracuilu horri esker hobeki ezagutu zuen Jacobec Jesus Jauna, eta abiatu cen haren ondotic. Berantchago apostolutzat hautatua da eta hortacotz bethi Nagusi on haren ondoan izanen da, eta norat nahi dohala, jarraikico zaio, amodioz bethea. Halahala ezagutarazten diozcea Jesus Jaunac, Jondonic Petriri eta Jondoni Joanesi bezain ungi, bere mandatu⁴ eta iracasp⁵ ichil guciac.

Jondoni Petriri ganbiatu cion icena Jesusec, Jondoni Jaco-

¹ Capable. — ² Costumacia. — ³ Lur idorrialatcen. — ⁴ Mezu. —

⁵ Leccione.

beri eta hunen anaiari ere eginen diote eta deituko ditu *Boanerges*, erran nahi baitu ihurtzuriaren¹ haurrac. Bici ciren ecen berenaz, eta ceia kharsuago. Behin Samaritanoec etzuten gure nagusi Dibinoa icusi nahi izatu beren herri batean, Jondoni Jacobec erraiten dio ordean Jesusi : Jauna utz gaitzatu cerotic suaren jauxaraztera herri hunen gainerat. Jesu Christo gure Jaunac etcioten onhexi galde hori, ecen amodioz gaitu bere cerbitzura bildu nahi, eta ez bortchaz. Bainan guc erran dezake guna, galde hori entzutean, da, maite zuela Jesus Jauna, hain goratic harteen cituenaz geroz egiten ciozcaten laidoac. Bakharrie eteen oraino aski oharteen, Jainco gure-gat e gizon eginarekin zuela bere egitecoa. Lur huntaco errege izatera dohala Jesus iduritzen zaio.

Ustekeria horren gatic, apostolu hunec eta hunen anaiac galdegiten diote Jesusi, beren amaren bidez, errege bezala bere alkhiaren gainera ditekenean, ezar detzala bat bere escuineco aldean eta bertzea eskerrecoan. Ezdakizue cer galdegiten duzue, ihardesten diote Jesus Jaunac. Elaten ahal duzue nic edanen dudan calitza? Nic izanen dudan bathaioaz izaiten ahal zarete bathaiatuac? Bai Jauna, erraiten diote bi anaiac. Egia da, ihardexi cioten berriz ere Jesusec, egia da, edanen duzue calitz hura, nere bathaioaz beraz ere bathaiatuac izanen zarete. Ordean ene escuinean edo ezkerrean jartecoo zoriona ene Aita cerucoac emanen dio nahi duenari.

Icusten dugu oraino Jondoni Jacobe Thaborreco mendiaren ondoan cela bere anaiarekin eta Jondoni Petriekin, ceruan orai duken edertasunaz jauntzia agerfu cenean Jesus Jauna; eta gero oraino hautatua izatu cela, gure arrerostaile maiteac Olibetaco baratecan jasan behar cituen pairamen² ikharagarri hetaz lekhuco³ izaiteco. Gau hartan etcion aski bortcha egin bere buaruari, atzarriric⁴ eta othoitcean egoiteco, eta Jesus preso hartu zutenean, ihesari eman zuen bertec bezala.

Orai alferretan erranic liteke, Jesu Christo gure Jauna piztu ondoan. Jondoni Jacobe han cela apostoluei agertu cen aldi gu-

¹ Uhlgiaren. — ² Sofricari. — ³ Jakile. — ⁴ Iratzarriric.

ciez; han cela Olibetico mendi gainean, cerurat igan cenean; ukhan zuela berteekein Izpiritu Saindua, eta ordu berean izatu cela bethea ceruticaco argi guciez, eta hainberteecco amodioaz hartua non ez baitzagoken ezagutaraci gabe mundu guciari bere Jesus maitearen piztea; banohake beraz aintcina.

Jesus Jauna cerurat iganez geroz, hamar bat urthez bakhar-ric cen bici beharra. Eta orai icusteco barateen zaicu apostolu bezala cituen egitecoac nola bethe dituen.

Espainian, guciec sinhesten duten omen batec erraiten darocu, Jondoni Eztebe Juduec hilaraci zutenean, predicatu zuela oraino urthe bakhar batzuez Judeaco inguruetan, eta gero ixasoa iraganic sarthu cela Espainiaco probintzietan.

Bizkitartean, Jaincoaren ehedeac ecin miatuzcoac¹ direlacotz jende guti bati baicic eteion besarearaci ahalizatu giristino-legea. Erain behar zuen bakharrie,² eta haren ondoticaco predicatzailec zuen behar bildu uzta.

Bere ecin berteece errechkiago jasan ahal cezan, gau batez agertu citzaion Maria Birjina Saindua, nahiz oraino Jurrean cen. Zaragozaco hiritic campo, Ebroco ur bazterrean othoitcean hari cen Jacobe lagun ceabeteekin, noiz eta-ere entzuten baititu Aingeruac diotela batzuec berteen ondotic : Agur Maria, graciaz bethea. Althateen ditu begiac eta icusten du aingeruz inguratua eta marmolazco pilar churi baten gainean ceru lurren Erregina. Mintzateen ere zaio amulxutasunic³ handienarekin; eta oraino emaiten dio manu hau : Hemen berean egidazut eliza bat, ecen toki hanc leial izanen zaizkit mende gucien akhabantzaraino, eta nic ere atchikico ditut menderen-mende, ene gerizaren⁴ azpian. Jondoni Jacobec egin zuen manatua citzaiona; eta orduan Apostoluac althatu zuenaren orde, causiteen da orai Andredena Maria Pilarrecoaren eliza eder eta aberaxa, mundu gucian aiphatua, han egin izatu diren miracu-luen gatic;

Espainian horrela egotu ondoan cenbeit denboraz, elizaco egitecoec galdetceen zutelacotz, itzulicen Jerusalemerat. Judue-

¹ Ikhertuzcoac. — ² Eztitasunic. — ³ Itzalaren.

tarie gehienac¹ icustean, oraino ceruco bidetic urrun, ecin egotu cen ichilie apostolu kharsu hau; eta hain ungi mintzo citeken, non Herodes Agripa bekien gobernadoreac, ezagutuz hori cela egiten abal cioten axeginic² handiena, condenatu baitzuen ezpataz hilteera, jenden artean nahaskeria ezartcen zuelaco aitzakian³. Gizon galdu batec, Josias zuen icena, soca bat lephorat arthiki cion, predicatcen hari celarie, eta abiatu zuten hiritic campo.

Bidean, jende oste batez inguratua zohalaric, causitcen du zain guciac hilac cituen eri bat; egiten du gurutcearen seinalea eriarri buruz, eta osoki sendatua cen. Miracuilu hortaz hainbertetaraino ukhitua⁴ izan cen Josias dohacabea, non belhaunicatcen zaiolaric oinetan, barkhamendu galdegiten baitio bere bekhatuaz; othoizten du ere giristinotu nahi dutenen artean har dezala. Apostoluac galdegiten dio, ja sinhesten duen egiazki Jesu-Christo Jainco biciaren semea dela: Sinhesten dut, dio Josiasec, eta hori diteke ene sinhestea ene azken baxeraino. Hitz horien gatic bera ere estecatuzuten Juduec apostoluaren gaztigu beraz behar duela izan gaztigatua.

Hil-tokira cirenean galdegiten du Jondoni Jacobec ur chorta bat; ekharteen diote; eta ur hartaz bathaiatcen du Josias. Eman cion gero musu⁵ bere benedicionea ere bai, gurutcearen seinalea egiten zuelarie, eta horrela bieci ichuri zuten odola Jesu Christo gure Jauna gatic.

Jondoni Jacoberen gorphutza Jerusalemen ehortcia izatu cen. bainan harekin joan ciren Españolec, berriz itzuli cirenean Espainiarat, berekin ekharri zuten, eta ehortci Iria deiteen zuten Galiciaco hiri batean. Berantago eremana izatu da Compostelarat. Eta hara ciren joaiten muizoca, osteca, gure arbasoac⁶ eta gure aitac, heren buruen, gorphuz eta arima Jondoni Jacoberen arartecotasun botherexuaren gerizan⁷ ezartcera.

IRACAXPENA

Har dezagun apostolu hunec Jaincoaren cerbitzuec zuen bi-

¹ Haberoac. — ² Placerric. — ³ Estacurian. — ⁴ Houunkitia. — ⁵ Pot. — ⁶ Aiten aitac. — ⁷ Itzalian.

citazuna; cenbat nahi eginic ere, eginen othe dugu aski? egin dezagun ahal dugun gucia: Jaincoaren misericordiac ez darocu bertceric galdetcen.

UZTAILAREN 32^{na}

SAN IÑACIO LOIOLACOA ¹

Hila 1536^{ra}

Español Ezcual-herrien artean diren ederreteraric batec, Azpeitiaco herriac, sortcen icusi zuen Iñacio. Jauregi bat, Loiola deitcen dena, cen haren etchea, eta Aitoren seme handi celacotz gducatzaile izaitera hortchatcen zuen sortceac berac. Hortacotz haren heinecoec ikhasten zutena egin zueneco, eta indarrac ethorri citzaizcon besain laster trebatu cèn harmen ibilcen.

Hemen uzten ahal litekena erran gabe, mende gucietan hala-hala denaz geroz, da soldadogoan, nahiz etzuen deus ebaske-riaric egiten, etcela hargatic jaincotiar, bainan lehenago arin eta arimaco egitecoez ezachol.

Hogoita bederatci urthetan celaric, Espainia Frantziarekin makhur ¹ celacotz, Iruña Franxesez setiatua cen. Españolac, hekiekin Iñacio Loiolacoa, hari ciren hiria zaindu beharrez; ordean Franxesa nagusitcen da, eta hausten ditu hirico atheac ².

Iñacioc, ahal becenbat lagun bilduric, beregain hartcen du bederen citadelaren beiratcea; ecen, celacotz odol beroco gizona, etcezaken ouhex garhaitua izaitca; hari da beraz guducan dituen zain eta indar guciekin, duen jakitate aiphagarriarekin. Non ere baitciteken beharrenic, eta han citekela Iñacio guciec bazakiten. Hala-hala etzacaten galdutzat hiri-gerizagia ³; bainan peza-tiro ⁴ batec hausten dio zangoa Iñaciori.

¹ Othoi, Iracurtzailea, icusazu laburzki baicen emaiten ahal ez dudun bicitcea, cein den ederki contatua Laphitz Jaun misionestaren liburuan. — ² Okher. — ³ Borthac. — ⁴ Beiragia. — ⁵ Canoï ukhaldi

Capitaina eroria, loxatu eiren husu¹ haren lagunac; etcezaketen bertceric egin, eta citadelaco gakhoc² ezarri cituzten Franxesen escuetan. Inaciori orduan lothu³ eioten bere zango hauxia; eta, hazcartuche cenean, eremana izatu cen bere Azpeitaco jauregirat. Han zangoa, sendatua bizkitarte, unhatcen⁴ celacotz, galdegiten du cerbeit iracurtceco ekhar dezotela. Jaincoac nahi izatu zuen deus bertceric ecin aurkhi⁵ ahal cezaten baicen ere sainduen biciteea.

Hastean khirex citziona horrelaco iracurteea, bainan, emeki-emeki egiten da, eta azkenecotz hain ungi onhartcen eta maitatcen du, non (cein den hazcarra Jaincoaren gracia!), ez baitagoke iracurtu gabe. Haren amexac lehenbician, ciren, ja zango hura aski chuchen eta aski luce izanen zuen, lehenagoco jostetagieta, lehenago bezain lenden eta zalhu agertceco. Bainan gogoeta hori bera ere Jaincoaren gracia galaraci eion, eta, sendatu ceneco, etzuen gehiago bertceric bilhatcen⁶, baicen nolaz eceztatueo cituen bere bekhatuae.

Hortacotz, abide⁷ batzuea icusteco aitzakia⁸, uzten du bere jauregia, eta, bi muthilez lagundua, abiatcen da Monserateco comenturat. Muthilac itzularaci cituen laster etcherat. Gero, erosirie pelegria jauntztura bat, eta hura celari estecatua, lur saindurat joan behar duelaco gogoarekin helteen da erran comentura.

Han badago bere arimaco egitecoen chuchentceco behar duen becebat; eta, emanic zaldia comentuari, escale bati bere soineco ederrac, pelegrienen phildez jaunteia, hartcen du oinez Manresa deitcen den bertce hiri hatetaraco bidea.

Hiri hartaco ospitale batean galdegin zuen lana eta leihorra⁹; nahi cituen, cenbeit denboraz eta urrunago joan gabe, heci bere jaidura¹⁰ gaiehtoac; cerbeit egiantza sainduz nahi cituen eceztatatu bere huxac. Hortacotzat etzuen gehiago deusic barkhateen bere buruari, eta irexarazten ciozean axecaberie¹¹ saminenac.

¹ Laster. — ² Giltzac. — ³ Herxi. — ⁴ Debeiatcen. — ⁵ Causi. — ⁶ Cherkhatcen. — ⁷ Ascaci. — ⁸ Estacurian. — ⁹ Atherbia. — ¹⁰ Enjogidura. — ¹¹ Phenarie.

Jendea ere ezagutcen hasi cen muthil jarraiki eta umil bura etcela nor nahi. Inacio aldiz, icustate cerbeit ekharteon diotela ohartu deneco, atherateen da erietche hartaric eta hiritic campo mendi batean bilhateen du harr-arte batzuetan lece bat.

Han egotu cen lucez, Jaincoa lekhuco¹ egiten cituen nigarrez eta bere gorphutzari jasanarazten ciozcan penitenteiez. Jaincoac bere aldetic saristatu zuen handizki; argitu cion eta borthiztu adimendua² hainbertetarainocoan, non gure Erlisione sainduco michterioetan ere ez baitcen casic deus gorderic haren-tzat. Horra nolaz gizonen ganic gehiagoco laguntzaric gabe, egin zuen ceruratceco biden gainean liburu bat hainitz omen handitan dena.

Orduan burutu zuen aspaldion gogoan zuen piaia³. Erroman barna⁴ heldu cen Jerusalem-era. Han egonen ere bacen bere bihotceco guticiei behatuz; bainan nor nahiren bidez ethor dakiola Jaincoaren manua, bethi ekharria da haren egiterat; eta hortacotz itzulteen da Espainiarat, ecen erran diote ethorri behar duela.

Jadanic garbitasun⁵ osoaren botua egina zuelarie, eta izan cetzazken lan gucien Jaincoaren loriaric handienecotzat egiteco chedea hartua, bertceric cerbeit gehiagotarat ere ekharria sentitcen zuen bere burua: « Cenbat arima bazter gucietan galteen direnac! cion bere baithan; ez othe diteke hekientzat deusic egin? » eta gaiago⁶ izaiteco hasten da latinaren ikhasten.

Latina, philosophia, theologia denac badaramazca, hari delarie bethi batzuei eta bertcei ahal dioten becenbat ungiren egiten, eta erraiten ahal dugun baino axceabe, trufa eta laido gehiagoren jasaitea berari behartcen zaiolaric. Azkenean, escolen handizkiago egiteagatic, badoha Pariserat.

Parisen dagolaric begistatcen ditu haren chedetaraco on litezken ikhasle lagun batzu, eta denboraren buruan erraiten diote hekiekin batean cer egin nahi luken; ecen beharrac hain

¹ Jakile. — ² Eathelegia. — ³ Bidajia. — ⁴ Gainti. — ⁵ Chahutarzun. — ⁶ Capabliago.

handi dire, non bakharric hastea bera ere alfer dela icusten baitu. Noizbeit batec onharteen du.

Bertce baten ondotic aspaldion badabila, erraiten diolaric: *Cer hari da gizona mundu gucia irubaciric ere, galtcen balinbadu bere arima?* Hura cen Nafartar gizon gazte bat, antce¹ handitacoa eta ezagutua jadanic eta aiphatua Pariseco hirian, Franxes Xabierrecoa. Hau ere beretcen du. Hunen ondotic bilteen ditu oraino bertce lau; eta guciac botu egiten dute Parise ondoco eliza batean, joanen direla Lur Sainduco aldetarat Ebanjelioaren predicatcera, e lo harat iragan ez baditezke Aita Sainduac nahi duena eginen dutela. Hori cen munduaren bethicotz uztea.

Iñacioren español lagunec beren ethecoo egitecoac antholatico cituzten, bera cargatcen da lan hortaz; eta Italiaratecoan badolia bere herrira.

Azpeitiarrentzat besta bat cen Iñacioren berriz icustea. Jende gucia, chehe eta larri, atheratcen zaio bidera. Anaia zaharrenac uste zuen ethecan-ere icusico zuela; ordean ez, Iñaciori sobra zaio Loiolaco jauregia; ospitalean du galdeteen leihorra; eta hantchet egonen da Azpeitian dagon denbora gucian, ethecooc eta canpocooc cer nahi escaintza egin dezotela. Bere egitecoac antholaturic², eta ere bai bertcerenac, hainitzac, bere erranez eta eracuspenez, beren haithan sarraraciric, iragan cen Italiarat.

Orducotzat han cituen lagunac, ez sei, utci cituen bezala, bainan bederateci. Gerla hari da ixascan. Horren gatic etcirelacotz niholaz-ere urranago joaiten abal, badohaci Erromarat. Erroman hartu zuten ordena saindua jadanic apez etcirenec; eta hasi ciren, errateen hari cituen suac manatcen cioten bezala, prediratcen, eta bekhatoren Jaincoa ganat itzularazten.

Horrela hasi cen jesuisten etheca; Ethe bat egundaino geroz guducan hari dena erlesioncaren exai guciokin, makhur dohacin guciokin. Guducan haritceco sorthua. Iñacioc hasten du

² Moaien. — ³ Chuchaturic.

gure arimen exaiarekin, mundua mundu deino, bere haurren ariaz¹, eginen duen gudua.

Ordean, nore dio manatu behar egunetik egunera handituz dohan harmada gazte hari? Nore behar du, egiazki jesustiar den gizon alde haren nagusi izan? Ecen Inacioc cion etcela gai, eta gidatzaile izaita baino hobeki zohacola gidatua izaita. Baina Aita Sainduac manatzen dio nahi ez luken gucia, eta bortchatua da berteen aita et aintcindari izaitera.

Orduan abiatzen da, langilen beharra den toki gucietarat igortzen. Eta ez gaitecen batez baicic mintza, igortzen du san Franxes Indietarat. Bera ere bethi lanean cen eta unhaduraren² azpian, bere haurridetarie azkena bezain ungi. Etzuen bertceric bilhaten baicic ere lana eta Jaincoaren loria; bizkitartean nihoiz ahantci gabe bere arimaren aphaintcea edergailu eta aberastasun berriez.

Hamasei urthez horrela bici izatu ondoan nagusi bezala, eta conta ahal baino gehiago arima ceruco bidean ezarriz, icusten zuelacotz etcezakela deusic gehiago egin lur huntan, hasi cen auhenetan³, Jaincoari galdetzen, har cezala bere ganat. Haren othoitzac entzunac dire. Badaki cenbeit egunen buruco ceruan ditekela. Galdegiten ditu beraz eta bartcea sacramenduac cerutiar izpiritu baten amodioarekin.

Hogoita hamabortz urthe bazuen Jaincoarentzateco amoltoa geroago eta beroago zohala haren bihotcean: Cer khalda ikharagarrian etcen azkenecotz bihotz Jaincotiar hura! azken orenera hurbiltcearekin⁴ erraiten dio bere haurridetarie bati, debakon Aita Sainduaren benedicionearen bilha. Bertceac, etzuelacotz uste oraino hartan cela erraita dio: « Eae aita, bihar ere ordu-on ditake, gauden bihar artio. » Inacio Sainduac utci zuen ichilic; baina biharamuacan berantegitcera dohala ohartcen da manua izatu zuena. Ahal bezain zalhu egiten du beraz joan jina, eta doidoia aski laster, ecen berehala Escualdun handiarea arimac hartu zuen ceruraco bidea, hainbertce egintza sainduci emanac ciren sariez gozatcerat joaitco.

¹ Bidez. — ² Eñhiaren. — ³ Hatsbeherapenetan. — ⁴ Hualantciareki.

IBACAXPENA

Cer hari naiz, mundu gucía han diren axegin¹ guciekin, nerretzat izanic ere, galteen badut arima! Horra gogoeta bat bethi gurekin bebar ginukena; aski liteke hori bera, gure saindu handi bilharazteco².

ABOZTUAREN 14^{ena}

MAKHABE ZAZPI ANAIEN HILTCEA

Zortecitan hogoi eta bat urthe Jesu Christo mundurat ethorri aintcinefic, Anthiocheco hirian, Antiochus deiteen zuten errege pagano bat hari cen, Juduei beren Jainco-legea arbuia³ beharrez, cer nahiren pairarazten⁴.

Eleazar icena zuen gizon adin handitaco baten gainean, alferretan jadaníc eginac egiten ahal cituen guciac, ekharteen diozcate zazpi anaia beren amarekin; Makhabe cen anaia haukien deithura, Eta errege gaichtoac, behar bada balachet loxaracico dituela, joarazten dita lehenic hedezeo azote batzuez.

Orduan anaiaric zaharrenac ihardesten dio: Ez dezazula uste izan, Errege jaana, larderia⁵ horiez icitarazten gaituzula, ecen hilaracico gaituzu garen guciac, Jainco-legea hauxico dugun baino lehen.

Erregec, hasarretua⁶, berorazten du bertz handi bat, picarazten diozca mihia eta hala escuetaco nola zangoetaco erhiac, larruarazten⁷ dio burua, eta gero arthicarazten du uric gabe cen bertz gorritu hartarat, han, haxic zueno eta ezti-ertzia erre zadiela. Bertee anaiac eta ama Jaincoari gracia galdez zauden, eta hari ciren elkharren sustatcen behar zutela hec ere egin anaia zaharrenac bezala.

Tormenta berac zauden bigarrenarentzat; jadaníc hil ordura

¹ Placef. — ² Bilharazteco. — ³ Arnega eraci. — ⁴ Sofrierazten. — ⁵ Mehatchu. — ⁶ Khechatia. — ⁷ Lahardesa erazten.

hurbildua ¹, itzultzen da erregeri buruz, eta erraiten dio : Zaren bezalaco gaichtagina, khentzen darocuzu mundu huntaco bicia, baiman ceruco Erregeac emanen darocu bethierecoa, jasaiten dugunaz geroz heriotcea haren legea hauxi baino lehen.

Hunen ondote pairarazten diote asco hirurgarrenari, galdegiten diozcate gero mihia eta escuac. Ikhararic gabe hedatcen ditu escuac, mihia luzatceracoan, erraiten dio Erregeri : Jaincoaren ganic nituen; haren legearen atchikitceco, galdu behar ditudanaz geroz, badakit ethorrico dela berriz emanac izanen zaizkitan eguna; eta orai, horra non ditutzun.

Errege eta harekilacoac harrituac zauden, nolaz ezdeustzat zagozcan tormentaric handienac.

Etciren arinagoac laugarrenac jasan behar cituenac. Hunec ere pairu ² berarekin irauten du bururaino, eta hiltcera doharic erraiten du : Irabaciric baicen ezdugu, gizonec khent dezaucuten bicia; ceen horrela galduz mundu huntacoa, bada-kigu Jaincoac berriz emanen darocula, pitzarazten gaituelaric, eternitatecotzat. Zuec ere piztucoc zarete, baiman ifernucotzat.

Bortz garrenari hari cirelaric, hunec erran cion erregeri, nahiz gizon hileor bat baicic etzaren, egiten duzu orai nahi duzun gucia, nagusitzat ezagutu zaituztelacotz gizon batzuec. Baiman ez amexic egin Jaincoaz utciac garela, ez bagine bezala; zaude beha, oraino aphur bat, eta icusico duzu, cein den handi haren botherea, eta nola gaztigatucoc zaituzten zu eta zure odoliticacoc diteken gucia.

Seigarrenaren aldia ethorri cen; lotcen zaizeco huni ere bertcei bezala, eta bere oinhace ³ gucien erditic, erraiten dio erregeri : Ez uste izan, errege, gutaz orai nahi duzuna egiten duzulacotz zaren baino gehiago bazarela. Jaincoaren tresna ⁴ bat zare, Izraeldarrec gaztigatuac izan behar zutelacotz beren bekhatuec gatic; bekhatu egin dugu, eta horra cergatic hoinbertcetarinocoac erori diren gure gainera: baiman ez uste izan zu gaztigu gabe zaitezcela, Jaincoaren guducateen haritu zaren ⁵ ondoan.

¹ Hullantia. — ² Pacentcia. — ³ Sofricari. — ⁴ Harma. — ⁵ Eraunxi duzun.

Bizkitartean, han zagon bekien ama saindua, behin bati gero bertceari ceruan zuken tokiaz mintzo; erraiten cioten ere: Ene haurrac, nere baithan hasi zarete, ez dakit nola, ecen ez dantzuet nic eman, ez adimendua¹ ez arima, ez bicia; ez darozkitzuet nic moldatu zango-besoac, bainan bai Jaunac; eta harc, ez deusetaric egin zaituzten Jainco harc, haren gatic galtcen dituzue naz geroz, darozkitzue berriz emauen bi garren bicitce batean.

Sei anaiac hilac orducotz, erregec, icusten du gairbaitua dela. Lausenguz² abiatcen zaio beraz zazpi garrenari eta hitcemaiten diozca guticia detzazken guciac, utci nahi balinbadu bere erlisioneac. Gehiago dena, amari hersatcen³ da, eta othoizten du, adiaraz⁴ diozon haur gazte hari, cer irabaciac dituen haren nahia eginez.

Amac agintcen⁵ dio eginen duela egin abala; eta gero, truffatcen delaric erregez, erraiten dio semeari bere mintzairan, haren ganic igurikitceco duen amodio eta ezagutza guciaren icenean galdetcen diola, gaichtagin haren agintceez ez dezan casuric egin. Eta baldin haren larderiec eta tresna lazgarriec icitcen badute, orhoit dadien, nola gaztigatua den bekhatua ifernuan, cer sari duen berthuteac ceruan; ceru eder hari begira diozola eta joanen dela errechki⁶, anaien bidetic, hec dau den egoitza dohaxurat.

Hitz horien ondotic, su berri batez hazcartua, haur gazte harc ihardesten dio erregeri: Ceren beha zaude? Cer usteckeriac zagozca ni ere jo gabe. Horra, non naicen, egizu nitaz hobekienic dohatzuna. Ordean ez uste izan, Jainco-legea hau xararico darotazula; ez eta ere asma⁷ zu, hainbertce gaitz jasanarazten darocuzuna, etzarella zure aldian Jainco baten azotearen aspiraco. Bai, bai! zuretzat ere baditeke eternitate, eta eternitate gucian beharco ditutzu zure bekhatuac alferretan deithoratu.

Erregec, icusiz haur hura bera ere irriz dagocola, odolaz erdi ithoa, erorrarazten ditu haren gainera burregoac, bertcen

¹ Enthelegia. — ² Balacuz. — ³ Adrezatcen. — ⁴ Enthelega eraz. — ⁵ Hitcemaiten. — ⁶ Aise. — ⁷ Phenxa.

gainera baino garrazkiago; ordean bethi alferretan. Egin zuen zazpigarren anaiac ere bertcec bezala, martiren heriotcea. Azken semea hiltcen icusi zuenean, cioten khendu amari berari bicia.

Bainan cer! galdua zuen jadaneco zazpi aldiz, galtcearekin bere burua baino maiteago cituenac; edo, hobeki mintza nadien, bacituen irabaciac zazpi khoro eta zazpi bici, borthiztuz bere haurrac, eta hekiei eracaxiz munda huntaco axegin¹ iragancorrac baino nahiago izaiten bethiereco bicia. Orai erraiten ahal dena, da, San Agustinen solhas² hau: Hainbertce egin dutenaz geroz, nahiz etzuten icusi Jesu Christo Gure Jauna gure gatic hiltcen, cer etzuketan egin hartaz geroz izatu balire lur hunen gainean?

IRACAXPENA

Martir saindu hauc eracusten daucutena, da, Jaincoac eliza gucia joiten duela, gure bekhatuez aski hasarrearaci dugunean sar ahal gaitecen gure baithan, icusiz haren zauriac eta entzunez haren auhenac³.

Bertce egia bat hemen predicatua dena: ungi urrun garela Jaincoaren chedetarie, ez dugunean bilhateen bicitcea, lurrar gozatceagatic baicen, mundu huntaco bicia etzaicunaz geroz emana, eteraitatecoaren merecitceco baicie.

ABOZTUAREN 4^{ta}

SAN DOMINICA EDO DOMINICE ABADEA

Hila 1221^{oa}

Espania Calaruegan, Osmaco apezpicuaren azpico cen herri ttikian sorthu cen Dominica. Aitoren-Semen artean handi izaiten ahal cen mundua ez utciz; eta, utci ahal izatu duela cotz, omen handiagoo izatu du lurrean berean, eta aldiz dohaxuta-

¹ Placer. — ² Elhe. — ³ Haxperenac.

sun mila aldiz handiagoa ceruan; hain da egia, apaltcen denaren altchatcea maite duela Jaincoac.

Lehen ikhasteac egin cituen osaba apez baten etchean. Ordu beretic haren bihotza Maria Birjina Sainduaren maithateen hasicen, eta Birjina Sainduac bere haurtzat harteen zuela eracusterrat eman cion. Hamalau urthetan, escola handien egitera joan cen Palenciarat. Hainitz escolier den tokietan¹ erran gabe doha badirela arinac eta ere izarrac, ordean lagunen arinkeriec nihoz² ecin egin izatu cioten calteric³ ttikiena. Aititic⁴, egunetic-egunera, bazohan haren bihotza kharsuago, eta jadanic, bere gorphutz hobenic gabeari pairarazten⁵ cituenac handiac ciren.

Horoi eta hartz urthe cituen, Osmaco apezpicnac sarraraci zuenean bere cathedraleco comentuan, haren icusteac berac emanen ciotelacoan berteci ere khar gehiago. Comentuan sartceac hasarazten du Dominica penitencia egiten, ordu artio deusic egin ez balu bezala: baruric lucenac; barurekin othoitzac; gabaz, casic loric gabe, lanean haritcea; gau guciez oraino bi edo hiruetan, bere buruaren azotatcea, horra haren penitencietaric cerbeit.

Saindu bezain jakinxun cen gizon gazte hau etzagoken lucez, berteen arimentzat ere cer-edo-cer egin gabe. Horrengatic abiatu cen predicatcen; eta, alde gucietan ederresmendurekin entzuna, ibili cen, cenbeit denboraz hiri batetic bertecera.

Ageri cen Jaincoaren nabia cela apez zadien. Obeditceagatic beraz, hartu zuen ordena sacratua, eta, indaf berri batekin predicatuz, heldu cen Galiciaco hegietaraino.

Ixas bazterrean, egun batez, predicatcen hari celaric, ixasoco ohoin batzuec preso hartu zuten, eta, beren herrietarat behar zatela ereman, berekin abiatu. Bainan calerna⁶ bat hain gaitza jeakitcen da, non ohoin hec loxatuac, Jaincoa ganat itzultcen baitire, deithoratcen dituztelaric beren bekhatuac, eta Dominicaren othoitcera, ematcen da ixasoa, untcia ere heltcen Bretainarat.

¹ Lekhietan. — ² Secula. — ³ Cai cie. — ⁴ Haborodena. — ⁵ Sofri erazten. — ⁶ Te pesta.

Laster eracuxi zuelacotz nor eta cer cen, hango Duke Jannac deusetan etziken jouiterat utci nahi. Ordean etcen Bretañan, Jaincoac lantcerat eman behar cion lurra; eta jo zuen berriz ere Osmaco hirira.

Handic cenbeit denboraren buruan ethorri behartu citzaion Frantziarat bere apezpicuaren lagun; eta jadaneco bertcetarie bazakitena, orduan beren begiez icusi zuten, heretico ondicozco batzuen iracaspenez hartua vela Tolosatic Marsellaraco artea. Bihotzac zaurthuac, ceren hainitzac diren gaitz berri horrec galarazten dituen arimac, lehiatcen dire beren egitecoen lehen-bai-lehen antholacera¹, eta gero bertce fraide batzuekin hantchet hasten dute lanic borthitena.

Dominicac bacituen liburuac eginac hekien argitceco; hereticoen ainteindariec arthikiteen dute surat liburu hetarie bat, diotelarie, hanc erraiten duena sinhexico dufela, ezbalinbada erreicen; eta liburu oso-osea atheratcea² da sutic lehen al-dian, bigarreanean hala-hala, arthikiteen dute oraino bertce behia, eta, hirugarren al-dian ere, atheratcen da hatere erre gabe. Bainan allerretan izatu cen miraculu hori, ecen horren nihori ez salhatcea, horra cer chede hartu zuten hori icusi zutenec.

Bizkitartean Osmaco apezpicua, ecin gehiago egonez bere diosesatic canpo, badoha Espainarat. Orduan Dominicac harteen du bere gain predicatzailen gidatcea, eta, utciric bertce predicuac, hasten da eracasten populuari, nola behar dituen ibili gogoan arrosarioco hamabortz michterioac.

Hori cen hekien sendagarri izan behar cena, ecen berehala jendea sartcen da bere baithan eta itzalteen Jaincoa ganat.

Dominica sainduac bazuen burutic khien etcezaken bertce amex bat: heretico hekien guducatceco, arima itzultcen cirenen zaintceco, bakharric deusic etcezaken egin; orai bai, baluke lagun, bainan hetarie nihor ez da, ez hitceez, ez botuz, ez deusetaz estecatua, eta denac galteen ahal ditu egundic biharrera. Nahi lukena, beraz, da, etche baten alchatcea, ain-

¹ Chuchentcera. — ² Eikhiten.

teidari baten azpico, han izan ahal dadien harmada bat bethi bildua.

Etcizaion errech,¹ izatu egitecobortan burutcea, bainan huna behin batez haren izpirituac cer icuspen bihotzaltchagarria izatu zuen : icusi zuen Jesu Christo gure Jauna guciz hasarre² gizonentzat, eta gucien galtcerat ekharria. Hainberteenarekin Andre dena Maria hurbildu³ cen Jesusen ganat, eiman cen ahuspez⁴ haren oinetan, eta othoiztu zuen, oraino aphur bat igurie cezala, erraiten ciolaric : begirazozute⁵ Franxes eta Dominica ene bi muthilei, cer ungia egiten duten berec, eta beren haurren bidez ; eta Jesus Jauna bieñ begira facegatu⁶ cen.

Beldurric gabe joan cen beraz Erromarat ; bazakien, etzaizcola berehala emanac izanen, bainan ardiexico cituela behar cituen bothereac ; hala gerthatu cen ; eta hor-hemenca, etcheac fraidez bethetcen icusi ondoan, Erroman berean ezarri zuen Dominicanoc deitcen ditugunen etche nagusia. Bizkitartean erregla garratza zuen egina bere haurrentzat, eta iduri zuen gutic zutela izanen aski bihotz haren azpian jartceco ; bainan debruaren gainean zuen botherea, hain ciren handiac egiten cituen miracuiluac, non ezagun baitcen Jaincoaren manuz zuela altchatu bere etheca.

Behin, haren entzuteagatic, etchean utci zuen haurra hil citaion emacume⁷ bati : nigarretan dena urtceen hari delaric ekharteen dio gorphutz hura. Sainduac egiten du othoitz bat, eta hain sarri piztua cen haurra. Huna oraino Jaincoac haren onetan maiz egiten zuen miracuilu bat. Uria⁸ jaux ahala hariki, eta, ez Dominica, ez haren lagunic etcea bustitcen. Horrelaco miracuiluen ondotic eta bereciki zaraman⁹ bicitce sainduaz bazter gucietan ezagutua eta aiphatua celacoñz, jendeac lehia zuen haren entzuterat, Jaincoa ganat itzultcerat, eta, halaber, haren ordrean sartcerat.

Bazuen beraz guticiatu zuen gucia, bazuen gehiago ere, eta axeginekin begira bazagoken bere harmada gaztearen curaicari

¹ Aise. — ² Khechu. — ³ I-uilantu. — ⁴ Burkhoca. — ⁵ So egiozute. —

⁶ Ematu. — ⁷ Emazte. — ⁸ Elia. — ⁹ Erogalten cian.

eta haren khar sainduari, bainan-ez, ez da tricatuco,¹ harico da aintcina, indarrec diraueteno, behin abiatu cituen urhax eta penitencia garratcetan. Jadanie osoki ahuldua² eta oraino ere hari cen, aingeru bat ethorri citzaionean berri emaitera, bazukela laburzki bere egintza saindu gucien sarria.

Berehala hasi cen, Boloñaco hirira joanie, bere egiteco gucien antholatcen. Eta gero, orduotz eri gaizkitua, bere bekhatu guciez berri-herritan cobesaturic, nigarra zariola eta dena auhenetan³, harteen ditu elizacoac. Bere hurrei orduan egin ciozcaten oraino gomendu batzu. Azkenean itzuli cen Birjina Sainduari buruz, hari bere haur orducoac eta ondoan izanen cituenac gomendatecen ciozcalarie; eta Birjina sainduac aditcerat⁴ eman cion, bere gerizan⁵ harteen cituela.

Gehiago dena, agertu citzaion Jesus Jauna bere Ama sainduarekin, eta bertce hainitz izpiritu dohaxuen erdian. Haren arimaren bilha⁶ ethorriac cirela ezagutu zuen san Dominicac; hasarazten ditu beraz azken haxetan direnentzat egiten ohi diren othoitzac, eta aphur baten buruan, escuac eta begiac cerurat althatuac zaozcalarie, amodiozco su saindu batean utci zuen lur hau, berrogoita hameca urthetan, joaiteco ceruco loriaz gozaterat.

IRACAXPENA

Apostoluen denboretan hasirie, Elizac belhi predicatu diote bere hurrei, Andre Dena Mariaren ohoratea, eta haren arartecotasunera ihes egitea. Ebanjelioarekin batean hedatu izatu da zokho gucietaraino, ceru lurren Erreginaren alderaco⁷ debocione hori; eta ez da nihon herririe, ezagutceco izatu ez due nic, horrela ohoratcen dugunaren cenbeit laguntza bereci.

San Dominicac predicatu zuen arrosorioaren bidez, hainbertcetan deitzen dugu gure laguntcera Jaincoaren Ama Saindua! Gracia guciac escuetan dituena ez da gure othoitcei gorizaiten ahal. Ordean baitezpada⁸ hel dakigun nahi badugu, begira

¹ Ekhuatuco. — ² Flacatia. — ³ Hax beherapenetan. — ⁴ Enthelegatcerat. — ⁵ Escupian. — ⁶ Cherkha. — ⁷ Eretceco. — ⁸ Segurki.

diozotegun arrosariococ michterioei, eta, hekiei begiratuz, ikhas dezagun, axecaben ¹ gogo onez hartoen eta nigar egiten gure bekhatuez; ikhas dezagun, izpirituz eta bihotzez giristino izaiten.

ABOZTUAREN 8^{ena}

SAN JUSTIN HAURRA MARTIR

Hila 301^{ena}

Ez da adinic ez herroncaric, jenden artean, bere heineco cenbeit martir eracusten ahal ez duenic. Huna muthico bat, oraino cenbeit urthe baicen ez duelanic, hala-ere bere odola Jesu Christo gure Jaunarentzat ichuri izatu duena.

Bourgoñaco probintzian eta Auxerreco hirian sortu cen Justin, burhaso² giristino batzuetaric. Haren haurtasunean etcen deus haurkeriaric ezagun, eta, nahiz adinic oraino etzuen, adinetacoec bezain idekia eta egina zuen adimendua³. Hala-hala etzuen manu beharrie othoitzaz edo Jaincoaz orhoitceco, Etche-coec berec baino ere errencura gehiago zuen othoitzaz. Hunec cituen ecen bilarazten bertceac othoitcera eta elizarat jarraic-arazten.

Bederatei urtheac gabe, hain ungi argiteen cion Jaincoac izpiritua, non geroan gerthatu behar cirenac eta orobat orduan berean tokiric,⁴ urrunenetan iragaiten cirenac icusten baitcituen. Horra nolaz ezagutu zuen Justinien, haren anaia soldadoc, gerlan preso hartua izatu ondoan, erosia cela Loup deiccen zuten Amienseco Jaun batez. Aitari erraiten dio beraz, dohala hiri hortara, haren berriz erosteco diruarekin, eta agin-teen⁵ dio Jesu Christoc berac lagunduco duela.

Aita etcen lehenbician sobra ekharria, haur baten erranaren gatic, bide hain lucearen egitera; bizkitartean sinhesten du az-

¹ Pbenen. — ² Aita eta ama. — ³ Enthelegia. — ⁴ Lekhuric. — ⁵ Hicemaiten.

kenecotz, eta, contateen duelaric Jaincoaren gainean, abiateen da oinez, Justin bere haurrarekin.

Bazuen jadaneco bizpahirur egun bidean eirela, noiz-eta-ere Melungo jauregico atheon¹ aurkhiteen² baitute erromes³ bat, larrua ageri eta gauza gucien escasiaz erdi hila. Justin ttikiac othoizten du aita berekin zaramazcan jatecoetaric zathi on bat eman diozola, eta halachet egiten du aitac. Ordean eteitzaion aski Justin, bere soineco arropetaric bat khenteen du eta emaiten erromesari; iduriteen citzaion eeen Jesu Christo gure Jaunari berari emaiten ciola.

Aitac gaitcesten du emaitza hori, eta erraiten dio: Geroni erromes gaituc, nonbeit etchetie urrun, urrunago ere joanki, cer hari baiz? Bainan Justinec hain elhe chuchen eta ezteiz ihardesten dio, eta eracusten cein gogara zaion Jaincoari amoina, non ichil-ichila, ederresten baitu bere baithan haur samur⁴ haren zuhurteia jaincozcoa.

Parisen, icena Hippolyte zuen giristiao batec eman ciolen, gogo onez, atherbea eta jana. Handie aintcina zohacilaric, helteen dire ur handi baten bazterrera. Bainan nola iragan ur hura? Ez da nihon zubiric ageri, eta alferretan bilhatcen dute aitaren begiec ja untciric nihon baden. Jadanec deithoratcera zohan ceren cen abiatu haur baten solhasen⁵ gatic, noiz-eta-ere, Justin gazteac agintcen cion bezala, ethortcen baitzaiote, untcichea batean gizon bat, urriric⁶, cremaiten dituena uraz bertee aldera. Norc daki ez othe cen aingeru bat Jaincoac igorria?

Amienserat heldu cirenean gaua cen; hargatic errechki atceman zuten Loupen etchea; nahi bezala, oraino, giristino batekin dute beren egiticoa. Hortacotz berehala dire antholatuac⁷. Bakharric behar dute baitezpada⁸ berec ezagutu Justinien deitcen dena. Loupec, beraz, agerrarazten ditu hamabi gizon eta galdetcen du, ja hekien artean den bilhatcen dutena?

¹ Borthan. — ² Causitcen. — ³ Praube. — ⁴ Trende. — ⁵ Elhen. — ⁶ Dohainic. — ⁷ Acordatiac. — ⁸ Nesesarioki.

Aita hekiei zagon begira¹, non zuen icusico bere semea Justin ere bai, begira zagon; ordean, etzuelacotz aintcinec eza gutcen, erran citeken etzuela hoberic; baina ceruticacoa ceu haren izpiritua. Hamabi hekien gibelean bacen aita casuric egin gabe uzten zuen argi atchikitzaile bat, eta Justinec eza gutcen du hura dela haren anaia.

Gau hura bozcarioan zaramatelaric², hirian bacirea hetaz gobernadoreari mintzo cirenac; eta giristino cirela salhatcen cituzten. Ondicotz³, Dioclecien Inperadoreac toki hetarat igorria zuen gobernadorea. ceu gizon bat guciz gaichtoa, eta giristinoac erran ahal ditokenbaino gaizkiago zabiltzana. Emaiten du berehala manua, argitcean berean, preso har detzatela giristino arrotzac. Loupec ere nolazpeit jakiten du berri hori, eta ordu berean abiarazten ditu etcheraco alderat, Justinien urric uzten diotelaric.

Argi hastean, manua ceu bezala, soldadoz inguratua ceu Loupen ethea; ordean jaun hunec erraiten diote, izatu dituela bai arrotzac, baina, beren egitecoac antholotu bezain sarri, eman dutela bideari, berearen beldurrez. Etcitzaion eder gobernadoreari bere sare ukhaldiaren galtcea, eta igorri cituen, hekien ondote, lau zaldidun.

Manu eta urhax horien gucien berri bazakien Justin tikiac, nahiz beretzat zagocan bere jakitatea. Bide zathi on bat egin dutenean, Justinienec erraiten diote, pichca⁴ bana behar dutela jan, gero zalhuago joanen direla. Jan dezagun, ihardesten du Justinec, baina berehala, ceu laster icusico ditugu gure bilhariac; eta hori erran dueneco, agertcen da urrunean zaldiec altharazten duten herrauxa. Justinec igortcen ditu orduan gordetcera aita eta anaia, eta bera badago bidetic ceihartu gabe.

Harat heldu direnean, soldadoec galdegiten diote, nor den eta norekin dabilan. — Giristino naiz, ihardesten diote, eta giristinoekin nabila. — Non, ditue lagunac? — Hori ez duzue jakinen. — Erran diezaguc edo hiltcen hagu? — Ez naiz herioaren

¹ Soz. — ² Iragaiten cietaric. — ³ Malerouski. — ⁴ Bouchi.

beldur, aiticie¹ Jesus, ene gatic hil denarentzat, ene odola ichuri nahia naiz. Eta, ordu berean, gizon hetarie batec ezpataz ebakiteen dio burua. Horrela haur gazte bare bere bicia eman zuen, haurrei eta larriei² predicatzen zuelarie Jesus Jaunaren amodioa.

Haren gorputza biben erori cen, baina ordu berean oraino chutitu, harteen zuelarie burua bere escuetan, eta gaihtagin hec, harrituac, itzultcen dire, gehiago nihor bilhatu gabe. Aita eta anaia ethorri cirenean, hec ere icitu ciren, baina etciren conxolacioneric gabe izatu, ecen beren haur maitearen ahotic, oraino entzun cituzten solhas hauc: Ene gorputza hemen berean ehorts zazue, eta ene burua ereman diozozue amari oraino behin besarca abal dezan. Egin zuten manatua citzaio-ten bezala.

Geroan, buru saindu hura, hainitz miracuilu egiten zuela-cotz, ezarria eta lucez beiratua izatu da Auxerreco eliza-nagu-sian.

IRACAXPENA

Haur saindu hunen bicitce laburrean icusten da nola Jaincoac lagunteen dituen amoina gogo onez egiten dutenac. Amoina errechki egin abal dezagun, eta Jaincoac gure behar orduetan lagunt gaitzan, orhoit gaiten, dituzkegun onthasunac, atchikiterat haicic etzaizcula emanac izatu.

ABOZTUAREN 20^{ena}

JONDONI LAURENDI DIACRE ETA MARTIRA

Hila 258^{ena}

Saindu handi hau Espainian sorthua, iragan cen Erromarat, ez dakigu ez noiz, ez cergatic. Erroman eracuxi bide zuen jakitate handicoa ceta eta khar borthitcecoa Jesu Christorentzat, ecen

¹ Countralat. — ² Gehitier.

Aita Sainduaren inguruan ciren eliza-gizon gucien aintcindari gazteric izatu cen ezarria.

Ordu hetaco Aita Sainduac bazuten, gucic, beren odolaren Jesus Jauarentzat ichurteco zoriona¹. Sixte orduan Aita Saindu cenaren aldia ethorri cenean, axecabeac² gaindi egiten dio Laurendiri, eta cion bere baithan : Aita Saindua gathetan da, eta ni, menturarie ere gabe naiz preso hartua izaiteco.

Badoha beraz Sixte Saindua zaocaten presondegira, eta erraiten dio : Noizaz geroz, ene Aita, hari zare meza emaiten zure eliza-muthila gabe ? Cer gatic nauzu bazterrerat utci ? Noiz natzaitzu iduritu lehenago nintzenetic bertcelacatua ? Bildox garbiaren³ odolaren partitzaile etcinuen orai artio ni baicic, eta orai, nolaz etzait emana izaiten ahal nere odolaren zurearekin nahasticatcea ?

Hazcarregi zare, ihardesten dio Sixte Sainduac, ni zabartua naicenarentzat dauden pairamenekin⁴ aski izaiteco ; ez uste izan bazterrerat uzten zaitudala. Oraino hirur egun, eta zu, ene muthila, zure artzainarekin zaitezke. Ordeandela ederra irabacico duzun khoroa ! bizkitartean lehia zaitte escuetan ditutzun elizaco onthasunen erromesei⁵ emaiterat.

Laurendic egiten du manatua zaion bezala eta berriz badohaco Aita Sainduari erraitera cituen guciac eman dituela.

Norbeitec, entzunic solhas horietarie cerbeit, salhatcen du Inperadoreari, onthasun handien jabe izan behar duela. Hortacotz Inperadoreac preso altharazten du, eta agerraraciric bere aintcinera, manatcen dio bicia ez badu nahi galdu, eracux detzala elizaco onthasunac. Gero Hippolyte haren zain-tzaileari gomendatcen dio, unge ieus dezan, non tuzken onthasun hec.

Aintcindari hunec ezarri zuen gazteluan, bacen gizon iXu bat Lucile deitcen zutena. Laurendic erraiten dio iXuari : Nahi baduzu Jesu Christo gure Jauna baithan sinhexi, argituac ditezke zure begiac. Horra, ihardesten dio iXuac, cer cen aspal-

¹ Iroustatia. — ² Phenac. — ³ Achari chsharen. — ⁴ Sofricaricki. — ⁵ Prauber.

dion guticiatcen¹ nuena. Eta ordu berean emaiten dio sainduac arimaco argiarekin gorphutcecoa.

Lucilec bezala bertce hainitz ixuec ere izatu zuten zorion bera; eta aldiz Hippolyte, dena gogoetatua, zagon, ja etcen hura ere giristinotuco. Azkenean Laurendic erraiten dio: Nahi baduzu sinhexi nic iracasten dudana, eracuxico darozkitzut elizaco onthasunac, eta aginteen² darotzut bethiereco bicia. Hitz horren ondotic, Jaincoaren gracia argitcen dio izpiritua, eta ganbiatcen bihotza, eta berac galdetcen du bathaioa.

Bizkitartean Imperadoreac erakhartcen du Laurendi bere aintcinera, eta manatcen dio, ekhar diotzola gorde dituen onthasunac. Laurendic galdeteen diozca hirur egun, onthasun hekien biltceco; eta gero, Hippolyte giristino cela oraino ezagutua etce-naz lagundua, biltcen ditu ahal tuen ixu, maingu³ eta erromes guciac, hekiekin badoha Inperadorearea atemaitera, eta erraiten dio: Huna, Janna, elizaco onthasun nihoiz ttikitcen⁴ ez direnac.

Inperadoreac, colerarie handiencan, icusiz irri baicen ez duela Laurendic hartaz egiten, emaiten du manua burdin aztaparez larru diozotela gorphutz gucia, eta martirentzat eginac ciren bertce tresna⁵ lazgarriac ere ekhar detzotela. Loxatuco cela Laurendi hekien icusteaz uste zuen.

Erraiten dio beraz: Laurendi, horra horiéc guciac zuri pairarazteco⁶; bainan cergatic hainbertceco tormenten erdian nahi zare hil? Laurendi, egizu hobeki, gure jaincoac adora zatzu. Diacre sainduac ihardesten dio: Cein haicen dohacabe, Inperadore gaitchagina, cerbeit pairaraci beharrez habilkit, eta huna non dituzkedan nic, aspaldion guticiatcen nuen mahai-near, jateco janharirie gorienac. Lehen eguna hortan akhabatu cen.

Biharamuncan galde berac egiten diozca eta larderia⁷ berac; eta, etzuelacotz deusic irabazten, cigorrez⁸ chechacarazten du. Laurendic burregoen escuetan delaric ihardesten dio: Orai be-

¹ Desiratcen. — ² Hitz emaiten. — ³ Chankhu. — ⁴ Tchipitcen. — ⁵ Harma. — ⁶ Sofrierazteco. — ⁷ Mehatchu. — ⁸ Zaharoz.

deren ezagut zae nolacoac diren ceruco onthasunen ondotic dabilzanen indarrac, hire cigorre ukhaldiee ez darotaie batere minic egiten.

Inperadoreac orduan ezarrarazten du dilindan ¹, eta errearazten diozca sahexac burdin hosto suadarioten batzuec. Sainduac aldiz, deusic pairateco izatu ez balu bezain ezti, egiten du othoitz hau : Jesus Adoragarria, Jainco egiazcoaren seme bekharra, ez dudana zgeroz ukhatu zure icena, aiteitic zure gorex arazteagatic naicenaz geroz oinhace² haukien erdian, urrical zakizkit ³.

Aldiz tiranoari, zaasalacotz ⁴, cerbeit sorginkeriaran ⁵ hidez cela cen bezain ezachol, Laurendic erraiten dio : Jaincoari eskerrac, ez naitec iciteen hire larderiec, ez hire tresna borthiecc. Emac ainteina, eginzkic hire egin ahal guciac, Jainco bi-ciaren graciaz hazcartua, ez nauc hire beldur.

Inperadoreac, laurdencatu nahi izatu balu bezala, lau zango-besoetarie, lau aldetarat tiraraztea du hain borthizki, non zango-besoac atheratcen baitiozcate beren tokietarie. Dena icertua eta zaurthua halache zaocatelarie, aingeru bat igorri cion Jaincoac, icerdiaren chucateera eta zauri hekien sendatcera. Imperadoreac ere ephe labur bat uzten cion.

Gero egundainocotan herriz ere bere ainteinera ekhararaciric egiten dio asco galde, eta azkenean erraiten dio : ez badituc ene manuac egin nahi, begira ⁶ zotec, horra hire zathicateco ekharri ditudan tresnac. Martir saindua itzultcen da beldurric gabe hekiei buruz, eta begiratcen diote amulxuki. ⁷ Hortacotz Inperadoreac, harri ukhaldica hauxarazten diozca hortzac, estecarazten du burdinazco grillada baten gainean eta azitic eginarazten dio ikhatcezcoc su ezti bat, emeki emeki eta ahalic lucekiena, erre zadien.

Burregoac burdin saarde batzuec hari zaizco sistaca eta haratchago edo hunatchago antholatcen ⁸. Ordean ez daocate garhai-

¹ Chifintchau. — ² Sofricari. — ³ Ukhezu pietate nitaz. — ⁴ Erraiten cialacotz. — ⁵ Belhagilekeria. — ⁶ So, giotec. — ⁷ Eztitarzaneki. — ⁸ Arranjateco.

tua; ez, alfer ditezke debruaren indarrea guciao; eeen hastean bezain hazcar da martir handiaren bihotza. Inguratcen ere du burua bere exai muthiriaren alderat eta erraiten dio: Jakin zae, dohacabea, hire suac axegin! gozo bat baicen ez darotala egiten, eta bere indar gucia daducala hire, eternitate gucian, errearazteco.

Haadic berehala, irriz zagolaric eta distiradura eder batez hartua, erraiten cion oraino: Ez duc icusten ene haragia aski errea dela alderdi huntaric? Itzulac beraz bertee aldera. Burregoec itzuli zutenetic laster, erran cion berriz ere: Orai ene haragia aski errea duc, jantzac gogoac emaiten badaroc.

Azkenecotz heldua cen burura; garhaia* hazuen. Emaiten diozca beraz Jaincoari eskerrac, eta badoha ceruetarat bere khar saindu eta irauncorraz irabaci khoroareen hartcerat.

IRACAXPENA

Contu emaiten baginiote Jesus Jaunaren hitz saeratuei, baginuke erromes izaiteaz eta erromesez dugun baino estimu gehiago. Ordean munduan bici garelacotz, egiten dugu mundutarrec bezala: icustateric deusere ez dohacon gauza baten pare uzten erromesa, eta aldiz geroe egiten ahal dugun gucia erromes ez egoiteco.

Bertzalde minbera gare ecin gehiago gure gorphutcean edo onthasunetan ukhitcen gaituenean gaitzac, ttiki delacotz gure bihotcetan Jaincoarentzateco amodioa. Eeen cenbatenaz ere amodio gehiago baitukegu Jaincoarentzat hainbertcenaz ere arinago idurituco zaizcu mundu huntaco gaitzac.

Erromesen eta erromes izaitearen maite izaiteco gracia, eta oraino, gure buruaren penitenteiaren bidez zaphatua idukitcecoa ardiex deziucula Jondoni Laurendiren arartecotasunac.

* Placer. — * Bitoria.

ABOZTUAREN 20^{AN}

SAN BERNAT ABADEA

Hila 1153^{AN}

Bourgoñaco probintzian sortu zen Bernat. Aitoren seme handi alde batetik, antee¹ handienecoa bertetik eta gorputzez ungi egina, zer nahi axegin² eta berezuntza igurikitzen abal zuen munduaren ganic.

Hemeretzi urthetan delaric, berac bere zainetan aski su izatu ez balu bezala, axegin betarat gonbidateen dute, jadanic munduco bide legunetan gaindi zabiltzan lagun batzuec. Bainan bere ama sainduac eracuxi cion Jaincoaren maithateen, eta urrun da jarraikitzen baitzaiote.

Bacen, toki³ hetan, San Benoitzen ordreco etche aipatu bat. Hango bicitce garratzac loxarazten cituen hazcarrenac berac ere; eta Bernat, bere adinic ederreanean delaric, Citaux deitzen duten etche hontan fraidetececo amexean da.

Jakin dioteneco berri hori, anaiac, adichkideac, osaba bat bera ere, denac hari zaizco gogoz ganbiaraci beharrez; ordean cerbeit haritu⁴ dire! Bernatec ditu bereteen anaiac, hogoita hamar adichkide eta osaba; eta guciac harteen dute comentuco bidea.

Jadanic ethetic canpo direlaric, Bernatec eta hunen anaiac causitcen dute aitari, laguntzat bezala, uzten citen beren anaia ttikia⁵; eta adioac egitearekin, zabarrenac erraiten dio: Adios Nivart! gure onthasun guciac eta gure lurra zuretzat. Bainan haur gazte barc, bere josteta utciric, ihardesten dio: Cer! zuec cerua, eta mc lurra! Zathiac ez dire berdina. Hala-hala berantchago Nivartec egin zuen bertec bezala. Aita bera ere nahi izatu zen jarri Bernat bere semearen azpico.

¹ Disposicioneric. — ² Placer. — ³ Gene. — ⁴ Eraunxi edo arizan. — ⁵ Tchipia.

Saindu huntaz denaz becenbatean, urthe baten buruco, comentuan ciren zaharrenec eta kharsuenec, berac baino aintcinago zuten ceruraco bidean; hain cen gogo onez eman bere lanari; eta hortacotz igorria izatu cen, bertee cenbeit lagunen ainteindari bigarren etche baten alchatcerat; eta Clairveau, Bernat sainduaren comentua, diteke mundu gucian eginac izanen diren hainitz etcheren ama.

Lazgarriac ciren etche huntan egiten cituzten penitentiac. Neguan hozten dire ascotan, hormatcerainocoan¹, udan iruzkiaz² erreac daude. Bertzalde, gosea dute noiz-nahi etchean, eta gosez ez hiltceco bortchatuac izanen dire bago hosto jaterat. Arruntean berean ere bicico dire garagarrez, chori-arthoz eta basa ilharrez eginicaco ogi batez. Eta bizkitartean aphur baten buruco, mundutarrac ethorteen zaizco Bernati osteca. Larri eta chume³, aberax eta erromes⁴, guciec lehia dute Bernaten peco jartcera, hain zaiote jaincozcoa gizon gazte hunen bicitcea.

Nahiz eztitasunaren ariaz⁵ saindutcerat erakharteen cituen uzcur zaudenac edo lazateen cirenac, berac etcion deusetan barkhatcen bere buruari. Hala-hala eri gaizkitu cen, eta apezpicu batec, icusirie certara zohan, urthe oso batez bere etchean arthatu⁶ behar izatu zuen, elizac etcezan hain goicic gal gizon bat hainbertce ungi egiten zuena.

Berari orobat citzaion cer nahi gertha⁷ zakiola; egin cioten bezala eman cezotela urina burra orde, olioa ur orde, aintcina zaraman emaiten cioten gucia. Eta gero sendatuche ceneco, hasi cituen bere lehenagoco penitencia garratzac. Eginen du barur, othoiz luce, harico da lanean zangoec chutic atchiki nahi duteno, eta deino, ageri izanen da ez dela bici Jaincoaren gracia bereci bati esker baicen.

Apezpicuec eta Aita Sainduac berac ere eman cioten ebanjelioarea predicatceco manua. Abiatcen da beraz predicatcen eta, non nahi, haren entzutea aski du jendeac, eta egiten ci-

¹ Kharrountatcerainocoan. — ² Ekhiac. — ³ Thipi. — ⁴ Praube. — ⁵ Bidez. — ⁶ Souanato. — ⁷ Agitu.

tuen miracuiluen icustea bere baithan sartceco. Basa erlisio-
nei jarraituen cirenec, bekhatore ibardokimendu¹ gaichtoe-
tan zaudenec, guciac sinhesten zuten, eta, haren mintzora, it-
zulteen ciren Jaincoa ganat.

Tolosaco aldetan hari celaric behin predicatzen, bere be-
hatzailei egiazat harrarazteco aiphatzen ciotena, erraiten du :
Gauzac nere ganic entzun ditutzuen bezala direla sinhex deza-
zuen, horra benedicatzen ditudan ogi horiec (ogiketa handi
bat bazuen aintcinean), horietaric jaten duketen eri guciac
sendatuco dire.

Jaten balinbadute fede hazcar batekin, ibardesten du beha-
tzailen artean cen apezpien batec, ustez horren erraitea ahantci
citzaiola Bernati, edo beldurrez, urrunegi zohala. Ez! ez! etzait
deusic ahantci, eta ez noha urrunegi, erraiten diote berriz ere
sainduac, jan dezatela bakharric, eta sendatuac ditezke. Eta
harc erran bezala gerthatu cen.

Icusten zuen, bera han izan gabe, haren etchetan cer iragai-
ten cen, orobat nor nolaco cen bere Jaincoaren alderaco egi-
tecoetan; halaber geroan cer gerthatuco cen.

Hitz batez, etcen ariman ez gorphutcean harc egiten ahal et-
zuenic, ez, egin etzuenic Francian Italian eta Alemanian; ceren
baiteiren hazcar haren felea, eta Jaincoarentzateco amodia; ceren,
oraino, baitzuen bihotz bat beroaren beroz urtzen eta
sunxitzen² hari cena Jesu Christogure Jaunarentzat eta Andre-
dena Mariarentzat; eta azkenean, ceren izaiteric ez leusenaren-
tzat eta ahulenarentzat³ baitzagocan bere burua.

Lehertua, ahitua⁴ bere eritasun bethierecoarekin zaraman
bicitce gogorraz, eta jasaiteco cituen unhadura⁵ harrigarriez,
hiruetan hogoi eta hirur urthetan ezagutu zuen haren uncia
ixas-bazterrera beltcera zohala.

Zangoac hantnac, urac izatu balitu bezala, oinhaceric⁶ han-
dienen erdian cen eta Jaincoaren aintcinean agertceco ikhara
saindu batean. Hainberteenarekin icusten ditu, bere gelan sar-

¹ Atehi kimendu. — ² Bigatzen. — ³ Flakienarentaco. — ⁴ Desegina.
— ⁵ Eñhetco. — ⁶ Sofricaric.

teen, inguru helaco apezpicuac eta fraide etchetaco aintcindariae. Ethorri eiren eeen sainduaeren oraino behin icusterat, eta haren galtceaz zuten bihotzminaren eracusterat.

Eriac, urguiluzco gogoeta baten urruntceco bezala, erraiten du : Muthil deusic egin ez dezakenac nolaz idukitcen¹ ahal du bertee baten tokia? Cergatic zubain fruituric ekharteen ez duenac, itzal emangarri, atchikico du larra? Ez, errotic² atheratua³ izan dadiela.

Horrela aphaltceen zuclaric oraino bere burua, utci zuen San Bernaten arimac mundua ceruco axeginez gozatcerat joaiteco.

IRACAXPENA

Jaincoaren ezagutcea eta gure buruen ezagutcea; horra saindu huen arabera, cerea jakitea aski dugun. Saindu huenec erraiten darocu oraino aphalduac izatu gaitezkenean, eta bakharric aphalduac izanez garela egiazki umil izaiten ahal, umiliacionen gogo onez hartceac emaiten daroculacotz umilitatea, hala nola axecabea eztiki hartceac emaiten baitarocu pacientia.

San Bernatec bezala erran diozogun beraz, cenbeit aldiz, guc ere Jaincoari : Egizu, Jauna, ezagut zaitzadan eta ezagut dezadan nere burua, eeen ezagutcea bazaitut maithatuco zaitut gauza gucietan, eta ezagutcen balin badut nere burua, ez dut nere indarren gainean contatuco, eta cerbeit ungi egiten badut, badakiket hura ere ez dudala egin zuri esker baicic.

ABOZTUAREN 16^{ena}

SAN ROCH EDO ROK

Hila 1327^{ena}

Saindu hau sorthu cen Monpelieco hirian. Joanes eta Liberia Jaun andre guciz behar bezalaco batza, jadanic adinean aintcintatuac cirelaric, herxatu⁴ cirea Jaincoari haur nat nabiz;

¹ Atchikiten. — ² Zainetacic — ³ Elki. — ⁴ Alrezatu.

erraiten ere cioten : Galdegiten darotzugun haurra, ez dautzugu guretzat galdetzen, baiñan bai, zure icena ezagutaraz eta gorrexaraz¹ dezan, eta ditugun onthasunez erromesac² sokhorri detzan.

Othoitz saindu hori entzuna izatu cen, eta, itchura gucien arabera, haurric gabe egon behar zuten senhar emaztec, izatu zuten seme baten sortcen icusteco zoriona³.

Rok deithu zuten haur hau. Cerbeit bertceac ez bezalaco izanen cela, ordutic icusi eezaten, ethorri cen mundurat gurutcearen seinalea sabelaren gainean zakharrelaric⁴; eta handie aintcina, amaren bulharrean izanen deino, ez du astezkenetan eta ortciraletan, behin baicic hartuco esnea.

Bortz urthetacotz, iduri bazakiela, gorphutza ez badugu garhaitcen garhaituco gaituela, bortz urthetacotz, diot, hari cen bere buruaren gaztigatcen. Ordutic oraino ahal zuen bezain gutti jaten zuen, eta doidoia bicitreco behar zuena. Gerochago hasi cen beretzat zuen guciaren erromesei emaiten, eta hekiei bihurtcen haurride batzuei egin cituzken laguntzac.

Egintza⁵ saindu horietarat ekhartcen zuen jarraikimendutic ezagun cen, etcela deus haurkeriaric hura baithan, bainan Jaincoaren graciaz zabilala. Bai, beha zagon bethi Jaincoaren mintzoari, eta horren gatic bazohan geroago eta merecimenduz aberaxaco. Hala-hala hogoi bat urthetara ceneco, saindu handi bat cen Jaincoaz guciz maithatua.

Hogoi urthe horietan delaric, galdu cituen burhasoac⁶; eta ordu herean, uzten ciozcaten onthasun handietaric zathi on bat erromesei emanic, nihori erran gabe norat zohan, hartu zuen Erromaraco bidea.

Aita Sainduaren hurretarat heldu denean, jakiten du Aquapendenteco hiria pesta deitcen den izurriaz funditua dela. Jandanic on dea gucia hiritic canpo da, gaitzari ihes; halaric-ere Rok gaztea joaiten da hirico er-ctchera, eta galdegiten du eri arthatzaile⁷ izaitea.

¹ Lorifica eraz. — ² Praubiac. — ³ Placerra. — ⁴ Ekhartcen cialaric. — ⁵ Obra. — ⁶ Aita eta ama. — ⁷ Soueñazale

Gero, fedez harmatua, egiten dio eri bakhotchari escuan gurutze bat, eta guciac sendo dire. Ospital'eco erien ondotic sendarazten ditu hiricoac; Lombardiaco hiri bat gaitz beraz joa dela jakinic, agiten du han ere Aquapendenten egin duena. Ordnan hasi cen izurria Erroman berean; baina jarraikico zaio saindua Erromara ere eta hunen aintcincan galduco ditu gaitz beltzac bere indar guciac.

Erroman egoturie hirur urthez, penitenciaric garratcenetan eta izpirituz bethi bat-egina Jesus Jaunarekin, eman cen berriz ere pestaren guducateen; eta, lucez hiri batetic bertcera ibili den ondoan, heltcen da Plesancera.

Hiri huntan tricatu,¹ beharra cen aphur bat; ecen, milaca bertceac sendatu dituen bera hartcen du gaitzac; eta, eri gaizki, badaramate ospitalerat.

Ordean ikharagarriac ciren haren oinhaceac² eta etzagoken auben eta intcirine³ handiric egin gabe, buru eta bihotz hauxgarri cen beraz gucientzat. Hortaz bera ere ohartu denean, jausten da ohetic, badoba herrestan etche aintcincera, eta han etzaten da. Eri arthazailec egiten dituzte egin ahalac etchean sarrarazteco, baina alferretan; eta, ustez burua galdua duela, ezartcen dute hiritic campo.

Gure saindua ez da hirico athetan⁴ baratcen; curritcen du nolazpeit aintcina, oihan handi bati buruz. Oihan haren barnean causitu zuen etcholachca bat, eta han hedatu cen luce-lucea, eskerrac ciozcalarie Jesus Jaunari ceren pairamen⁵ eta laido hekien ariaz⁶ berarekin eitegehiago emaiten cion; hargatic egiten du othoiz hau: Etzaitecela urrunt, Jauna, ene ganic oinhace haukien erdian naiceno; nahi duzu paira dezadan, ordean hazcar nazala zure gracia!

Jesus Jaunac entzun cituen hitz horiec, ecen berehala sortu citaion etcholaren ondoan ithurri bat. Edan zuen ur hartaric, garbitu⁷ ere cituen bere zauriac, eta eztituche citaion oinhace.

¹ Ekhnatu. — ² Sofricariac. — ³ Hazperen eta pleinu. — ⁴ Borthetan. — ⁵ Sofricari. — ⁶ Bidez. — ⁷ Chahatu.

Jaincoac, bere cerbitzariaren onetan, eta guri aditecerat¹ emaiteco, ez duela nihoiz² abazten haren gainean contatcen duena, egin zuen bertee miracuilu bat ere. Oihan bazter betarat izurriteari ihes ethorriac baciren, jauregi batzuetan, jann aberax batzu.

Behin, Gothard icena zuen horrelaco jaunetarie bati, ihizorac harteen dio, mahainetic, ogi pusca bat. Jostatceco hartu dukela, Jaunac irri egitan dio, eta uzten du; biharamunean josteta bera zuen chakhurrac, biharamunagoan ere bai, eta ohartcen da Jauna ogi hura ez duela jaten, bainan norapeit daramala³. Jarraikitcen zaió beraz, eta icusten du, etchola baten aintcinean etzana zagon eri latec diola harteen, eta ordainez batzuela chakhurrac criaren benedicionea.

Jaun hori ere hurbiltcen⁴ da eria ganat, eta galdegiten dio cer eritasun duen: Pestaz joa naiz, Jauna, zaude ene ganic urrun, iharlesten dio sainduac; ecen Rok cen eri hura, Gothard, harritua, abiatu cen gibelerat; bainan, etchera gabe, gogoac etciolacotz onhartcen chakhurrac baino bihotz gutiagoren izaittea, itzultcen da eria ganat eta erraiten dio: Nor nahi izan zaitecen, ez naiz zure ganic urrunduco, jarteen naiz zure muthil.

Ihizora etcelacotz gebiango ageri, sainduac barraraci cion bere capa Gothardi, eta igorrizuen, bil cezala cerbeit amoina Plesan-ccco hirian. Jaun hunec, asco laidoren ondotic, etzuen bi ogi ttiki baicen izatu. Halaric-ere behar duela gaizkia ungiac pagatu, joaiten zaiote Rok hiri huntaco eriei; eta gurutcearen seinaleaz sendarazten ditu guciac.

Eta aldiz Jaincoac, hainbertce caritateren saristatceco⁵, bera betbetan⁶ sendarazten da bere muthil Jaunaz eta hirico jendez lagundua bere oihaneraco bidean celaric.

Miracuilu hortaz egundaino baino harrituagoa, Gothardec utci zuen bethicotz mundua, penitencia egiteco. Hargatic etzuen lucez egoiteric bere saindu maitearekin; ecen Jaincoac manatu cion huni bere herrirat itzultcea, han ere cerbeit ge-

¹ Enthelegatcerat. — ² Secula. — ³ Joaiten diala. — ⁴ Hullantcen. — ⁵ Erreconpenxatceco. — ⁶ Bat-batetan.

biago pairatuz, merecimendu berriric irabaz ezan cerucotzat.

Bere lehenagoco lurretan sarthu cenean, bango jendea gerlan hari cen, eta etzuen arroteic burbiltcerat uzten, beldurrez, horrela celatari¹ cenbeitez saldua izan zadien. Rok gaztearen begitarte penitentciaz chukhatuac eta haren othoitz egite ederrac eracusterat emaiten zuketan etcela saindu bat baicen; ordean gaichtagin handi bat bezala, elizan othoitcean dagolaric, preso alchatua da; eta luzpean zuen argirie gabeco presondegi batetarat arthicarazten du gobernadoreac, erran nahi baitut onthasunetarie zathi bat utci cion osabac berac.

Gure Saindua sarthu cen lecearen pareco cilho beltz hartan, bihotza arinic; eta, iduri etzuela aski pairamen nihoiz airea berritcen etcen toki² usaindu hetan izaitea, uspelteen³ cituen oraino bulharrac ukhail ukhaldica; zaurthua zaducan⁴ gorphutz gucia azote batez joca, etzuen nihoiz jaten deus egosia edo errea cenic, eta, bertzalde, gabac eta egunac othoitcean zaramazcan. Horrela badago, bortz urthez, nor ez cer citeken nihor errencuratu gabe, nihortaz icusia izatu gabe.

Bortz urthe hekien buruan, Jaincoac jakinarazten dio haren axecabeac⁵ akhabatcera dohacila. Galdegiten du beraz apez bat, behar tuela sacramenduac hartu. Apeza, presondegian sartcean, harritcen da icusiz barne hura distiradura eder batez hartua dela eta errechki⁶ du ezagutcen saindu batekin duela bere egitecoa. Hala-hala joan cen lehiarekin gobernadoreari erraitera, gaizki handi bat egin duela gizon haren preso atchikitceaz.

Hirian ere banatcen⁷ da berri hori, eta gobernadorea, gaizki egin dukela, bere buruari ere ecin aithortuz zagolaric, bacen jende oste bat bildua presondegico athean, saindua behar zuela icusi.

Ordean saindua gaizkiagotu cen sacramenduac hartu citueneco; eta lokhuma⁸ batean entzuten zuen mintzo hau: Rok, ene haur maitea, orai daramat zure arima ene Aitaren galtzarrera⁹;

¹ Barrandari edo concouchcazale. — ² Lekhu. — ³ Ubelteen. — ⁴ Atchikiten cian. — ⁵ Phenac. — ⁶ Aise. — ⁷ Barreiatcen. — ⁸ Lo tchipi. — ⁹ Besouetala.

baldia cerbeit galdetu nahi badarotazu, lehia zaite, nahi duzun gucia ardiexico duzu. San Rokec eman ciozcan lehenic eskerac Jaunari, egiten cion escaintza ederraz, galdetu cion gero bekhatuen barkhamendua beretzat, eta hura bitarteco¹ hartuco zutenac pestatic beiratuac izan citecela; eta, othoitz hortaric lekhora², eman zuen azken haxa amodiozco sentimenduric be-roenetan.

Ordu berean presondegia inguratu zuen argi handi batec zabalac ciozcan atheac giltzainari, eta hunec gorputz bat zuen aurkhitu³ lur bustiaren gainean hedatua eta argiric eztieta emaiten zuten lanpa batzuez inguratua. Taula baten gainean ere iscribatuac ciren hitz hauc: Pestaz joa ditekenac ihes egiten badu Roken arartecotasunera, gaitz hortaric sendo izanen da.

Roken icena icustean, gobernadorea eta hunen ama harriteen dire. Ama zaharrac erraiten ere du: Roc ene semasoa⁴ balinbada ezagutuco dut sabelaren gainean izan behar duen gurutce-tic. Eta ama-handiac, osabac eta bertec bihotzminic handienarekin ezagutu zuten printee handi bat eta saindu handiago bat zutela presondegian hilaraci, eta zohacon ohorearekin izatu cen chortcia.

IRACAXPENA

Izurrite orduan badakikegu San Roki oihu egiten, bainan, bertzalde, saindu hunen arartecotasunac ardiex dezaucula Jaincoa ganic mundutarren exenplu eta solhas⁵ gaichtoei nihoiz ez behatcea eta berteci exenplu onic baicen ez emaiteco gracia.

ABOZTUAREN 24^{ena}

SAN BARTHOLOME APOSTOLUA

Apostolu huntaz denaz becenbatean, eta bereciki hunen sortcearen gainean, hunen Jesu Christorekin cen denboretaco egin-

¹ Ararteco. — ² Landa. — ³ Causitu. — ⁴ Seme ttikia. — ⁵ Elhe.

za edo erranen gainean, ez dakigu deus handirik. Jerusaleme, bertee apostoluec bezala, utci zuenean Ebanjelioaren predica-
tceco, izatu zuen bere gain Asiaco lurra. Berrogoi erregeren
escupeco ciren eremuei cen mintzatu beharra.

Nahiz haren lan handiez ez dugun chehetasunik, hala-ere
erraiten ahal duguna da, toki gucietan egiten zuen ungiaren
beiratzaille eta emendaraztaile uzten cituela apezpicuac eta
apezac.

Bertee toki urrunagoetan gaindi ibili ondoan, iragan cen
Armenia handirat, eta heldu cen Polinius, erresuma hartaco
erregea zagon hirira. Tenplo nagusian bacen Jaincotzat zao-
caten debru aipatu bat, ethorkizunaz¹ eta bertee cer nahiz
mintzo cema, bulto² baten ahoz. Apostolua badoha tenplora eta
ordu berean ichilteen da bulto hori.

Harritua ichil aldi hortaz, jendeac laster egiten du herri hau-
zoan den bertee jainco-orde baten gana, eta hunec erraiten dio :
Bartholome Jainco egiazcoaren apostoluae khentcen dio min-
tzoa ene lagunari, eta nihoiz ecin mintzatuco da, gizon saindu
hura zuen hirian dukezueno, ceren, ehunetan egunean, bertee
hainbertcetan gauean belhaunicatcen baita, othoitz egiteco;
bertzalde Aingeru oste batez bethi inguratua dabila, eta egia
dio, erraiten duenean Jaincozco ohoreac ez direla bihurtu behar
ceru lurren ez deusetaric Egileari baicen.

Ihardeste hortaric lekhora³, apezgoa zagocaten gizonec bilha-
tcen⁴ dute Bartholome, ez haren erranen egiteco, edo hari cer-
beit ohoreren bihurtcea gatic, baina hari jasanarazteco⁵,
jendea beren tenploetaric galduz zuten caltea⁷. Baina apo-
stolua hasia cen orducotzat izpiritu gaichtoen gainean, cituen
bothere handien ezagutarazten; eta nola denbora hetan non nahi
aurkhiteen⁶ baitciren debruez hartuac, populua ederresmen-
durekin begira zagocon, batzuei eta berteei egiten cioten ongia
icusiz, eta hortacotz, mendecatu nahiagoric, gorde behar izatu
zuten apez falxuec.

¹ Gerouz. — ² Potret edo moule. — ³ Landan. — ⁴ Cherkhatcen. —

⁵ Egar erazteco. — ⁶ Damia. — ⁷ Causitcen.

Erregec ere, jakin duenean cer bothereac dituen escuetan, bere hirira ethorri zaion arrotzac, othoizten du urricai dakiola haren alaba¹; ecen hura ere bere menean zaocan izpiritu gaichtoac. Bartholomec manatcen dio gure arimen exai madaricatuari, athera² dadien haur haren gorphutctic, eta ordu berean, errege ecin sinhexiz dagolaric cer duen icusten, haren alaba bere buruaren jabe³ agertcen da.

Hortacotz aita dohaxu hunec, igortcen dio, saritzat diru eta asco gauza balios; bainan apostolua gordetcen da; eta gero, ezagutu duenean sari ekhartzaileac itzuli direla beren onthasunekin, orduan badoha Polimiusen mintzatcera. Sartcen ere da haren ganbaran, athe leihoac hexiac direlaric, eta erraiten dio:

Errege handia, sendatu dudalacotz zure alaba, nahi izatu darotazu seinalatu zure ezagutza, bainan ez ditut urhe edo cilhar gosez utci nere ahideac eta herria. Oibanac eta hibaia⁴ iragan ondoan galdetcen darotzudana da, ez cerbeit onthasun eman diezadazun, bainan ceroni⁵ halaca zaitecen, non emana izanen baitzaitzu bethiereco onthasunen gozamenera heltcea. Galdegiten darotzudana da, debru baicen ez diren izpiritu batzu jainco direlaco ustekeria utz dezazun, eta has zaitecen Jainco Egiazco, Jaun gauza gucien Egile, biciaren beraren Emaile eta gure Nagusi guciz botherexu denaren maithatcen. Bertzalde, goacea, nahi diozcat Astaroth zure jainco-ordeari⁶ berari aithor-raraci zuen galtceco erraiten dituen gezurrac.

Badohaci beraz tenplorat, eta Astaroth jainco celacoac aithor-teen du, ez dela bethiereco surat arthikia den izpiritu ez-deus bat baicen; ethorkizunaz mintzo cenean, erraiten zuela cein cen gerthatcerat utci gogo zuen ungia, edo egin gabe utci gogo zuen gaizkia; eta eritasun bat sendatcen zuenean berac emanicaco gaitza zuela khentcen, jendearen hobeki bere inguruan eta bere aztaparretan atchikitceco.

Aithormen horien ondotic, sainduac manatcen dio porrosca detzan hango izpiritu gaichtoen bulto guciac, eta bera, dohala

¹ Ukhen dezala pietate. — ² Elkhi. — ³ Buruzagi. — ⁴ Uhaitz handiac. — ⁵ Cihaur. — ⁶ Jinco lekhucoari.

handic nihori gehiago calteric eginen ez duen tokirat. Ordu berean herraustuac dire bulto guciac, tenploa bera ere carras-
caz lehertcen da; eta Erregeac, han cen jende oste handiac, eta
oraino, bertee hamabi hirietan zauden guciac hartcen dute
bathaioa eta besarcaccen giristino-legea.

Ifernuco izpirituentzat galtce handiegia ciren bakean gure
Apostoluaren lucez uzteco; behar dute nolazpeit galaraci, eta
hortacotz ezartcen dute hauzoco errege baten bihotcean sain-
duarentzateco hasarregoaric¹ biciena. Astiase deitcen zuten
errege hau Poliniusen anaia cen, eta bildu duenean saindua,
cerbeit aitzakiaz², bere aintcinera, galdetcen dio, ja hura den
Poliniusen adimendua³ nahasi duen gizona.

Ceruan eta lurrean, ihardesten dio sainduac, ez da Jainco ba-
khar bat baicic. Hura ja eta Jesu-Christo baren seme bakharra
guc adoratu behar duguna. Jaincotzat daozeatzuen bulto-
en azpian ez duzue debrua baicic adoraccen; eta-bai, hari diot
gerla egiten. Polinius erregeari aldiz, ez diot adimendua nahasi,
aitcitic⁴ iracaxi diot ceruraco bide bakharra.

Errege sutan elhe horien entzuteaz, eta ceren, ordu hartan
oraino, erori eta puscatu cen maite zuen bulto bat, azote ukhal-
dica lehenic chehacacrazten du; gero, nihori egundaino gogoratu
etzaion oieskeria⁵ batean, burutic eta zango zoletaraino larrua-
razten du. Ikharatu gabe aipha ez diteken pairamen⁶ horren
ondoan ere, san Bartholome oraino bici cen.

Azkenean gizonaren icena hain guti zohacon Errege harc aski
ase ditu bere begiac, odola darion haragi pusca hari, hor-he-
menca ageri dituen hezur hekiei, eta dilindan diren hertcei soz,
picarazten dio beraz burua. Ordu zuen sainduaren arima hegal-
daca zadien cerurat.

Errege hura ordean, eta hari icigarrikeria hori eginaraci
cioten apezac debruez izatu ciren berehala hartuac; hil ciren
oinhaceric⁷ ikhara-garrienen erdian, eta jauxi ifernurat han-
diagoen oraino pairacera.

¹ Kbechuric. — ² Estacuric — ³ Enthelegia. — ⁴ Countralat. —
⁵ Salbaiakeria. — ⁶ Sofricari. — Sofricaric.

IRACAXPENA

Apostolu hau baithan ederresten dugun curaiea tormentarie lazgarrienen aintcinean, Jaincoa gaicacoa cen. Jesus Jaunaren gracia ezarri cioten apostoluei bihotzetan arimen Salbatceco nahia; eta gracia horri jarraiki direlacotz, izatu dute Jaincoaren egiazki maithatcecoa. Gu ere, jarraic gaiten Jesusec emanen darozkigun graciaei, eta egin dezagun arimentzat ahal dugun gucia. Bertceric ez balin badezakegu, egin dezagun bederen othoitz, eta har detzagun, chede hortara, gure nahigabeac. Horrela merecituco dugu Jesus Jaunaren maithatceco gracia. Eta orduan, cer izanen da gai gure ceruco bidetic ceiharrazteco!

ABOZTUAREN 25^o

SAN LOUIS FRANTCIACO ERBEGEA

Hila 1270^o

Louis bederateigarrena, Frantciaren eta Elizaren edergailua, sorthu cen Parise aldean Poissy deitzen den herrico Jauregian.

Erregina Blanca honen amacetzuen bertecguticiarie baicen ere, huni, berthutearen haste-hastetic maitharaztea; eta maiz erraiten ciozcan, ama direnec nihoiz ahantci behar ez lituzketen hitz hauc: Ene semea, badakizu maite zaitudala, bizkitartean nahiago cinituzket hobian icusi ecen ez bekhatu mortal batez hobendun. Printce gazteac ihardexi zuen ecin hobeki, ama Saindu haren arthei¹ eta iracaxpenei.

Bere aita Louis zorteigarrena galdua hamabi urthetan, berehala hasi zuen bere erregegoa, nahiz oraino amari cen mintzatcea egiteco handiez zohanean. Bertzalde, edo cein gauzaz zohala, bazakien Erregec, Amac ciola aholcuric² zuhurrena

¹ Souaier. — ² Conxeiluric.

emanen, eta, lausengariei¹ conturic eman gabe, Amari cen bethi behatcen. Horra nolaz, citeken hobekiena ikhasi zuen populu handi bati manateco eta haren behar bezala joanarazteco ara, ikhasi zuen ere nolaz bere burua maitharazten ahal zuen.

Hamalau urthe baicic etzuen oraino, Frantziaco hainitz printce, elkharrekin hitzarturic, eta ustez errech² izanen citzaio-tela ama-semen garbaitcea, hartu cituztenean harmac, haukiei gerla egiteco.

Louis bera jartcea da bere soldadoen aintcindari; eta hain ungi dabilzca, non printce icustate gabeac herrauxiac baitire, eta bortchatuac beren nagusi³ eta erregetzat haur gazte haren ezagutcerat.

Louise^c bazuen bertce beldur bat, bere jaidura⁴ gaichtoec, hec ere burua altcha cezaten, eta har cezoten gaina. Hortacotz, umatuac⁵ eta lehertuac zagozcan, bere gorphutza gaizkiekhar-riz, egiten cituen othoitz lucez eta barur noiz nahizcoez. Bazo-han beraz geroago eta hazcarrago berthutean ere.

Ecin erran diteke cein cen handia Jesu Christorentzat zuen amodioa; eta, aldaren oinetan, Sacramendu Sainduaren adoracen zagonean, etzuen gehiago gizonaren eiteric; orduan har citeken cerutic jauxiricaco aingeru batentzat. Erromesac⁶, Jesus Jaunaren haurrideac, hec ere hain maite cituen, non, ortcirale guciez, berac bere escuz emaiten baitcioten jaterat eta edaterat; noiz-nahi hekiekin jaten zuen berac ere, eta orduan, hekiei lehenic eman zathiric hoberenac, eta gaineracoa zuen beretzat.

Jaincoa etzadien izan laidostatua, gaztigatcen cituen garrakzi gaichtakeria guciac, eta bereciki Jaincoaren icena gaizkizabilatenac eta ohoinac.

Adineratu cenean, bere ama Sainduac manatu ciolacotz ezcontcea, hautatu zuen emaztetzat Margarita Provenzacoa. Louisec, andre gazte hau hartcean, etzuen bilhatu⁷ ez onthasunic ez edertasunic, baina lagun bat berthutea maite zuena, eta

¹ Balacazaler. — ² Aise. — ³ Buruzagi. — ⁴ Enjogidura. — ⁵ Chehatiac. — ⁶ Praubiac. — ⁷ Cherkhatu.

Jaincoaren heldur cen. Orduz geroz, Errege eta Erregina, biac bata bertcea bezain aintcina, harico dire egintza sanduetan, elkharren lagunteen eta elkharren sustatcen.

Jaincoac eman cioten haur; errencuratic handienarekin egin zuten bekien althetcea. Bethetcen cituzten beraz eginbide gucir, citeken hobekiena. Hala-hala, benedicatua cen Frantcia gucia hekiei esker, eta erraiten ahal da jendearen orduco dohaxutasunac ez duela ondoan izatu bere parecoric.

Hogoita bortz urthetan celaric, Louis eri gaizkitu cen, eta guciac icituac, jadanic hil berria entzun beldurrez zauden, noiz-eta-ere, Erregec egiten baitu botu hau : Sendateco zoriona balinbadu, joanen dela bere soldadoekin Lur Saindua bere escuco zaocaten exaien guduaccerat. Botu hori egin bezain sarri, sendo cen ; eta, handic laster, bazohan Jerusalemeraco bideaz.

Heltcen ere da Esiptoraino ; bainan, harat hel-eta egin cituzten garhaitce bat edo bertceeren ondotic, soldadoac eta hekien aintcindariac gaizkiari eman cirelacotz, Jaincoac etzuen nahi izatu burut cezaten beren egitecoan. Joac dire eta garhaituac hala exaiez nola eritasunez, eta gibelerat emaiten dute. Gehiago dena, gibel ethortce hortan Errege erortcen da exaien escuetara ; eta beharco du preso egon, guduatu nahi cituen mahometanoen artean, hekien trufac eta laidoac jasaiteco diuelaric.

Ordean Saindu cen Louis ; exaiac berac ere, hortaz ohartuz, bortchatuac dire haren arthatcera zohacon icustatearekin. Azkenean, antholanenduac¹ eginic, helteen da bera Jerusalemeraino, eta, nonbeit urthe baten iria² Frantciatic canpo cela, etcherat izuli cen.

Frantcian hartu cituen bere lehenagoco urhaxac : ahal zuen becenbat úngiren egitea bere populuari eta erlisioneari, ahal zuen becenbat bere buruaren, cerucotzat, egintza onez aberas-tea. Ordean, har batez bezala, jana zagou ceren etzuen Jerusalemetic canpo ezarri ahal ixatu exaia. Niholaz ere ecin dagoke

¹ Arranjia. — ² Heiña.

bertce behin icusi gabe, ja ez duen Lur Sainduco giristinoentzat deusic egiten alial.

Emaiten da beraz bideari berriz ere, eta jausten da Africa Tuniseco hirira. Uste zuen, hango Mahometanoei joite bat emanaz, errechkiago helteca Jerusalemera; baina han ere gose-teac, beroac eta egarriac izurria ezartcen diote harmadan; eta ondicoz! bera ere eritcen da.

Eritasunac ez du loxarazten Errege bihotzdun hura. Icusten du, bai, harenac egin duela; baina cerua irabazten duenber, cer dohaco bide gehichago edo gutichagoren egitea? Jaincoac nahi du hantche bara da'ien, eta bere bihotz guciaz benedicatcen du haren escua. Non nahi izan zadiela, entzuten cioten maiz otboitz hau: Egizu, Jauna, hain atchikimendu guti izan dezagun munduco gaucentzat, non ez baitukegu acholaric hekien galtceaz; eta horren erraiteac, eman cion izpirituco lachotasun handi hori.

Eritasuna aintcina zohalacotz apezac ekharteon dio Biatico Siindua, eta nigarra begietan, begitarteac, amodioz, gucia sutan, comuniaceca dohalaric, galdegina zaio, ja sinhesten duen han, ostia hartan dela Jesu Christo, Jainco biciaren semea. — Bai, sinhesten dut, ihardesten du, ene begiez icusten banu bezain hazcarki, hemen dela, cerurat zohalaric ageri cen heinean.

Azkenean, orduecotzat errana Philippe bere semeari nola egin beharce duen erregetcen denean, agoniaratu cen, eta aiphateen cituelaric Profetaren hitz haue: « Sarhuco naiz, Jauna, zure etchean, eta benedicatuco dut zure icena », bertce haukiekin, « Zure escueian, Jauna, ezartcen dut ene izpiritua », eman zuen azken haxa, berrogoita hamabortz urthe cituelaric, joaiteco bethiereco dohaxutasunaz gozalterat,

IRACAXPENA

San Louisen ama bezala, mintza beitez aita eta amac bekhatuaz beren haurrei; ez dezatela bertce beldurric izan bairen ere cenbeit bekhatutan eror ditecen, eta hekien saria eteraitatean handi izanen da.

ABOZTUAREN 28^{an}

SAN AGUSTIN APEZPICUA

Hila 430^{ean}

Errotiac ditezkenei, edo bederen hala izatu ditezkenei, bihotza pitzaraci behar dioten saildu hau sorthu cen African, Tagaste deitzen zuten hiri batean. Monica huren ama giristino cen eta egiazki jaincotiar. Ordean aita pagano, nahiz, bere azken egunetan giristinotuco den.

Amac berekin atchiki zuken seme hau eta airateerat utci gabe, giristinotasuna harraraci cioken, baina aitac jarraikaraci zuen bazter hetaco nagusiric aiphatueneu iracaspentarat¹; eta han egin cituen lagun galgarri batzuekin adichkidantzac.

Azkenecotz hec bezalacatu cen, eta amac egiten cituen arren² egin cetzazken guciac, seme maite haren bere baithan sarrazteco, hala-ere, hamabortz-bat urthez, egonea da Agustin bere bide tzarrari josia, ez bakharric bekhatuaz, baina oraino, arimen galarazteco Satanec asmaracia zuen basa erlisione batez.

Horrela Carthaseco hirian, egotu ondoan lehenic ikhasten eta gero iracasten, etzaiolacotz iduri hiri huntan aski ezagutarazten ahal dituela bere antce³ handia eta bere jakitatea, badoha, anari deusic erran gabe, Erromarat, eta Erromatic, aintcina oraino, Milaneco hirirat.

Bainan orducotzat amaren othoitzac eta nigarrac entzunac ciren Jaincoaz. Milaneco apezpicua san Ambrosio cen, eta predicatu behar zuen aldi guciez bilarazten zuen jende keta ikharragarria bere predicu alkhiaren ingurura. Agustin ere abiatcen da elizan, ez bicitcez ganbiatceco gogoarekin, baina ez duelacotz begien aintcinean izatu oraino, Ambrosio bezain ederki mintzo denic. Lucez beraz mintzatceari bakharric contu emailen dio; hargatic, emeki-emeki behateen da, cer duen erraiten.

¹ Escoletarat. — ² Nahiz egiten zutian. — ³ Moaien.

Ordu hetan oraino adichkilde egiazeo batec contateen dio san Antonioc mortuan¹ eman duen bicitcea; eta berehala guduca ikharagarri bat hasten da hura baithan.

Ez da oraino osoki garhaitua; ez¹ oraino behatzen da bere aztura² gaichtoec eta hartu dituen axeginec³ egiten dioten oilu huni: Agustin, nola bicico haiz gu gabe? bainau hargatic, durduzatua⁴ da, Jaincoaren graciae bere lecearen zolan adiarazten dion mintzoaz. Indarca cerbeit ere egiten du; ordean unhatua⁵, cer bide egin duen begiratzen duenean, causiteen du ohico lecean dela, eta lokharriac berac ere, ez dituela osoki trencatuac.

Noizbeit, ecin gehingo jazarrian⁶ Jaincoaren graciai, erraiten dio Alipe bethi berekin zuen lagun bati: Hau gure zoramendua! Deusic ez gare hari! Horra non jakitateric gabe diren batzuec daramaten cerua; eta guc, gure gorphutzaren manuen egiten baieic ez dakigu. Eta bizkitartean, cer ahalke ginuke hekiei jarraikitceaz?

Obartu gabe casic, cer hari den, hain cen nahasia, bere lagun aiphatu hunekin badoha baratce batetara. Han badago aphur bat jarria Aliperen aldean, eta gero, aintcinachago sartcen da, jarriric zagon tokian uteiric aspaldiehan iracurteen zuen Jondoni Pauloren liburua. Ihurtzuri eta chimichta darioten udaco hedoi beltzac uretan sunxiteen⁷ diren bezala, behar cen urthu nigarretan Agustinen bihotza. Luce-lucea eta ahoz behera, etzaten da phico-ondo baten azpian, eta nigarra turrustaz dario.

Hura baithan orduan iragan cenaz, luna cer dion berac: « Onhexi cinarozkitan, Jauna, ene ecin berteean egin nituen nigarrac, onhartu ere cinuen ene othoitza, erraiten nautzunean: Noiz arteraino, ene Jainco ona, hasarre izaneñ zaitut? Zure ganat itzultcea, noiz arteraino bethi igorrico dut biharamunera? Cergatic ez da izanen orai berean? Bai, Jauna, entzun cinituen solhas horiec! Ecen ichildu nintceneco sumatu nuen norbeit, hari cela, haur baten mintzo meheaz, litz haukien cantatuz

¹ Bortian. — ² Costuma. — ³ Placerrec. — ⁴ Dudan ezarria. — ⁵ Eñberic. — ⁶ Buhurtian. — ⁷ Galtcen.

emaiten : *Tolle-lege, tolle-lege*, har zazu eta iracur, har zazu eta iracur. Banago aphur bat, nere gogoarekin, cer citeken mintzo hori; azkenean, idurituric Jondoni Pauloren liburuan iracurteea manateen darotala, chutiteen naiz, eta, liburuia zabalteean, ene begiee aurkhitcen dituzten lehen hitzæ, hauc dire : *Etzaitecela bici bazcari handietan ez hordikerietan, ez lohikerietan ez aregin nahasietan, ez eta ere hasarreagoan ez behaizgoetan. Har zazu¹ jaunzturatzat Jesu Christo Gure Jauna, eta etzazula bilha² zure haragiaren guticien asetcea. Agustinec ez du gehiago iracurteen, eceñ orai badaki cer egin.*

Alipe adichkidea harritua zagon, hunen axecabeac³ ceñ ciren handi icusiz; baiman jakin duenece egiæzo giristino bilhacætera dohala, hura ere nahi zuola jarraiki ihardesten dio; eta biac badohaci, bere chede onaz berri emaitera Monica sainduari; eceñ ama samur⁴ hura Milanen ceñ, bere semearen ondotic ethorria. Erraitea baino errechago da asmaitea⁵, berri horrec nola haci cion bihotza ama saindu huni. O Monica nigar egilea, ceroon⁶ idurico bacinitu muuduco seme galduea amac!

Handic laster utci zuen Agustinec biria, eta joan cen bere lagonekin bazter etche batetarat, ahal zuen bezain ungi prepartateco bathaioaren hartcera; eta gero, bathaiatua, abiatu cen Italiatic. Berezcuntza guciei ihes egiteagatic, eta bere bekhatuez nigar egitera badoha, bere ustez, Africaco ceabeit zokhotarat, noiz eta-ere, unteian sartcera zohalaric, hiltcen baitzaio ama.

Bai, bazuen aski icusiric santa Moniac, eta erraiten bide cion Jaincoari; Janna, orai, nahi duzueca, harteen ahal duzu zure ganat zure nescatoa, izatu dudana z geroz nahi nuen gucia.

Agustin, Africarat heldua, ecin lucez egotu cen gordea, eta nahiz egin cituen egin-ahalac bere buruaren apezterat ez uzteco, hala-ere Hiponeco apezpicuac bere ordain eta bere ondoco icendaraci zuen.

Orduan agertu cen Jaincoarentzat zuen khar gucia, eta oraino zuen jakitate handia. Elizan mintzo cenean sua zohacon; eta,

¹ Clerkha. — ² Phenac. — ³ Trende. — ⁴ Phenxateio. — ⁵ Ciliuren.

hura entzunez geroz, etzagoken bekhatorea, bere baithan sarthu gabe.

Ordu hetan, esualde gucietarie gaizki bilhatua¹ cen gure erlisione saindua. Agustinec guciei ihardesten diote; eta ez baitu ere Jaincoa ganat itzularazten, arimac debruari salduac cirelacotz, bederen horrela dabilzanec galteen dute beren sartarat arima gehiagoren bilteco indarra, ezen giristino guciac, bazter gucietan, beha daude Agustinen erranci.

Jaincoaren ganaco amodioa ecin joan diteke lagunen ganacoa gabe. Horra cergatic san Agustinec etcezaken paira¹ nihore gaizkirie erran cezan bere lagunez, eta hortacotz jateco salan, iscribaraci cituen hitz hauc :

Berteez maite duenari, nola nahi mintzatea,

Ez beikio nihoiz getha,² mahain huntan jartea.

Horrela haritu cen hirur hogoi-eta-humasei urtheac bethe arteraino, bere predicuez, eracusenez, eta-ere bai, egiten cituen liburu aiphatuez, Jaincoaren ezagutarazten eta erlisionearen zaintcen. Jaincoac deithu zuen azkenean bere ganat; eta Agustini handiaren arimac utci zuen mundu hau ezi-etzia. Bazuen jadanac hogoita hamalau urthe apespicu cela.

IRACANPENA

Jaincoac ezarri nahi izan darocuaaz geroz, saindu hunen exenplua begien aintean, cergatic, erori-eta lurrean egon? cergatic bethi bilharamuerat igor, Jaincoa ganat osoki itzultea? San Agustini bezala Jaincoac hedatuco darocu escua, lot gakizcon! eta, chutitu ondoan, beha gaiten graciaren mintzoac cer darocun erranen.

¹ Cherkhatia. — ² Sofri.

ABOZTUAREN 31^{ean}

SAN RAYMON EDO ERRAMUN NONNAT CARDINALEA

Hila 1240^{ean}

Ceren egiteco gai den giristinoa, caritatearen suaz hartua duenean bibotza, horra San Raymon Nonnat Cataloniacoac eracusten darocuna.

Hain handi izan beharra cen haurra, ez-leusec egin zuen ez baitcen ehorteia izatu bathaioa bera ere gabe; ecen etcelaric oraino sorthua eta etzuelaric zazpihilabette baicen, bil citzaion ama. Miricuec diote haurra ere hila dela; Aitari beraz, zuen esperantza gozoaren orde¹, etzaio berteceric baratcen, baicic ere trichteciaric beltceña!

Bainan gauzac ungi joaitera, cer haur nuken? zuen erran aita hunec norbeiten aintcinean. Hortacotz, ahide² batec idekitcen dio amari sabela; eta horra non aurkhiteen duen baur eder bat bici-bicia. Hala-hala aitaren bozcarioa handi izatu cen. Lehiatu cen ere haren bathaiarazterat, eta deithua izatu cen Raymon, eta, icen goithiaz³, Nonnat, erran nahi baita sortceeric gabea.

Raymonec, etzuelacotz munduan amaric, hartu zuen, eza-gutzaratu cenean, bere amatzat Birjina Maria Saindua; eta, non nahi causi cezala haren potret ceabait, etzagokena bere amodioa bari eracuxi gabe.

Ikhasten ezarria, hainbertcetarinoco sua eracusten zuen Jaincozco gaucentzat, non Aitac beldurrez apez dakion lucezago nagusietan uzten balin badu, igortcen baitu laborantzaco muthilentzat cituen etchetaric batetarat; ustez horrela galarazten ciola bere debocione handiegia.

Han, arruntean zuen lana cen artzaingoa. Bainan, mendi zokho batean, icusi du san Nicolasen icenean altchatua den

¹ Lekhutan. — ² Ascaci. — ³ Gaiaticoz.

capera bat, eta haren barnean oraino, here Ama maitearen porteta, eta geroztic, jégun guciez, hari buruz dio arthaldeari¹ bere alha barrarazten, bera han cen arthaldea baino lehen, han zagon oraino arthaldea iragan ondoan.

Debruac, agerteen zaiolaric lehenic artzain lagun baten itchuran, emaiten dio bertcelaco aholcuric², bainan haur gazteac aiphatcen du Mariaren icena, eta khetan sunxitcen³ da exai maltzur hura. Gero oraino salbatua da aitari, artzain lagunez, bere arthaldeaz acholaric ez duen muthico alfer bat baicea ez dela. Berri horren entzuteac hasarreazten⁴ du aita; eta, behar duela jakin, ja erran dioten bezain ezachol duen semea, badohe aiphatu caperaren ingururura. Bidean aurkhitu⁵ zuen bere arthaldea, eta, haren zain, gizon gazte eder bat. Nor diteken artzain hau ez dezake ezagut, ez dio beraz mintzoric emaiten eta heltcen da Caperaraino. Han cen Raymon.

Aitac galdegiten dio: Nor due arthaldearekin ezarri duan muthil hori? Haurrac ez daki cer ihardex, eta, ahalkez eta beldurrez ikhara, behlaunicatcen da aitaren oinetan. Semearen umiliatce horrec hauxi cioke i bihotza coleran izan halitz ere. Bainan etrech⁶ zaio asmatcea⁷ cer iragaiten den, eta itzultcen da etcherat deus gaizkiric erran gabe.

Raymon aldiz, egundainocotan herxatcen⁸ da here gerizataile⁹ Sainduari eta galdegiten dio, othoi jakinaraz diozon aita certaz mintzo citzaion.

Eta Birjina Sainduac, agerteen zaiolaric erraiten dio: Ene haurra, zure arthaldearen zain aingeru bat dadueat¹⁰ za ene oinetan zarenean, eta horra nor duen icusi zure aitac. — Hain zarenaz geroz ona, dio berriz ere Raymonec, ez dut gehiago bertoric eginea baicen ere zue nahi duzuna. Erran diezadazut beraz, ene Ama guciz maitea, cer nahi duzun egin dezadan. — Nahi dut, ihardesten dio Birjina Sainduac, ene Ordre Mercicoan sar zaitecen.

¹ Saldoari. — ² Conxeiluric. — ³ Galteen. — ⁴ Khecharazten. — ⁵ Causitu. — ⁶ Aise. — ⁷ Phenxatria. — ⁸ Adrezatcen. — ⁹ Begirazaile. — ¹⁰ Atchikiten dut.

Aitac icusi zuenean etzuela hoheric Jaincoaren nahiari bihurtceaz, utci zuen bere seme maitea Andre-dena Maria Mercicoaren ordrean sartcerat. Hura ceu, Moroen escuetaric giristino, preso harteen cituztenen erosteagatic, alchatua ceu comentubat.

Etche hartan sarthua cela denbora guti zuen oraino, eta jadanic Raymon gai¹ ceu Moroen arterat joaiteco. Ezartcen diote beraz escuetan giristinoen ganic bildu diru gucia, eta, oraino gaztegaztea, igorria da Alserreco hirirat. Han ceu ecen giristino gehienic salteco agertcen.

Ordean urran da, aski diru baitu gucien erostecc. Hala-hala, ahal izatu dituenac erosi-eta, egiten du antholamendu² bat bertcentzat: joanen direla hec guciac ere beren herrietarat, eta, bekientzat hitcemaiten duen diruaren bahi, bera idukico³ dutela preso. Bai-eta-bai; badobaci giristinoac, eta Raymon preso gelditeen da.

Orduan cein citeken gaizki ibilia izatu pagano hetaz, huntaric dakigu: Beldurrez-eta hilaraz cezaten, hango lehen aintcindariac oiltu eginaraci zuen hiri gucian, hura [hilarazten zuena bera hilen zutela. Hortacotz]jabaldu⁴ ceu, aphur batentzat, egun guciez eta goicetic arraxera, zaphatua zaocan laidozco eta ukhaldizco eraunxia⁵.

Behar dela baliatu uzten dioten libertateaz, Saindua abiatcen da presondegiz-presondegi eta zokhoz-zokho; ecen egun guciez ceubeit giristino ekharteen zuten; eta Raymon bekien, curaiestateen zabilan. Baina sopra su zuen bihotcean paganoeci berei ere ceruco bidea eracuxi gabe lucez egoiteco. Cer hari den, gobernadoreac ere laster jakiten du; eta berehala manatcen du, hasarregoaric handientean, oiloagerrenaz egiten ohi den bezala pazot batez iragan dezatela; eta nekhe izatu ceu manu horren hauxaraztea.

Hantche berean ez balinbacen Raymon martir hil, hori izatu ceu, gobernadoreac icusi zuelacotz hura hilaraciz galteen zuela diruketa handia. Hala-ere makhila ukhaldica urdinaraci⁶ zuen.

¹ Capable. — ² Arranja. — ³ Atehikico. — ⁴ Eztitu. — ⁵ Uharra. — ⁶ Ubelar, ei edo odoluci eraci.

Ordean Raymonec achola guti du tormenta lazgarri hortaz. Ait citic¹ bozcarioric handiencan pairatceaz², berriz berehala, ohico urhaxera lerratcen da.

Orduan gobernadoreac, burutic casic joana, ezartcen du preso, gerren berobatez cilharazten diozca ezpainac, eta manatcen da craco batez gakhatuac³ atelic detzotela, jateco orduaz canpo.

Ecinbertce hortan Jaincoa heltcen citzaion; eta presondegi zainec causitu zuten aldi batez, izpirituz bere baitharic athertua, eta zagola, escu batez buruari lothua, bertceaz Psalmoetaco hitz hauc eracusten cituelaric: *Etzazula, Jauna, nihoiz ken ene ahotic egiazco hitza*. Atzarrarazten⁴ dute, eta hula oraino ezpainac hexiac erraiten duen solhasa: *Beihicotzat da, Jauna, zure hitza*. Jende basa hec, saritzat, utci zuten egun hura, deusic jaterat eman gabe.

Zortci hilabethez horrela bici izatu ondoan, bera bere aldiari eresia, bazohan Espainiarat, eta Aita Sainduac Cardinale icendatcen zuen.

Jaincoac ere nahi izatu cion ezagutaraci cein zuen maite. Negu borthitz batez, erromes⁵ hotzac ikharetan zaocan bati eman cion amoina, eta gero oraino, bere chapelac.

Egintza Saindu horren ondotic bereci cen berriz ere gorputetic haren izpiritua, eta icusi cituen Jesus eta Maria. Birjina sainduac escaintcen dio, chapel orde, lorezco khoro eder bat. Bainan ez du lorezco⁶ khororic mundu huntan nahi Raymonec: Jesus Jaunac escaintcen dio orduan arrantcezco⁷ khoroa; hura bai, bi escuz hartcen duelaric, egin dezaken bezain hazcarki sartcen du buruan, ikhargarricac pairateen dituelaric.

Ondua cela cerucotzat ageri da. Aita Sainduac galdegiten luke Er. omarat, ordean berehala eri gaizkitcen da; eta Sacramenduac eman behar ciozcan errotora etcelacotz menean, ikharan zagon, apez hura ethorri gabe, hil zadiela, noiz-eta-ere haren inguruan direnec icusten baitituzte nonbeico gizon batzu, chru-

¹ Contralat. — ² Sofriteiaz. — ³ Giltzatic. — ⁴ Iratzarrazten. —

⁵ Praube. — ⁶ Lilizco. — ⁷ Elhorrizco.

riz bezti eta lerro-lerro, chirio¹ bana escuetan, haren gelan sartzen; eta oraino, hekien ondotic, ciboara Saindua escuetan, Jesu-Christo gure Jauna begiac jasan² cezaken baino handiagocen destiradura batez jauntzia. Oren erdi baten buruan, sarthu bezala atheratu ciren. Canpoan ere bai, icusi cituzten, aphur bat, handie eta ur handi baten gainetic iragan cirenean, sunxitu ciren arteraino.

San Raymonec aithortu zuen comuniatu zuela, eta, gero, gomendatzen zuclari bere arima Jesus maiteari, hogoita hamasei urthetan igan cen ceruetarat, haiabertee egintza Sainduei emanac ciren sari bethierecoez gozatcen hasterat.

Icusi dugu hiltcean etcela bere comentuan. Eta orai, non ehortci behar dute gorphutz saindu hura? Hil den hirian nahi lukete berentzat, bertee batzuec nahi dute bertcetarat ereman. Jaincoa bera othoizturie adiaraz³ diozotela cer nahi duen, ezartcen dute gorphutza mando ixu baten gainean, eta mandoac artzain zabilalarie hain maite zuen San Nicolasen caperarat darama.

IRACAXPENA

Gure nabigabetan, eta bereciki mihi gaichtoez herrestan ibilia ditekenean gure icena, goacen Maria Saindua gana, eta Ama on bare ardiexico⁴ darocu, bederen axecabe⁵ horren pacienciarekin jasaiteco gracia.

BURUILAREN 9^{on}

PIARRES CLAVER DOHAXUA, BELTCEN APOSTOLUA

Hila 1654^{***}

Verdunen, Cataloniaco herri batean, sorthua, Piarres Claverec eracusterat eman zuen haurtasunetic, lur huntarat ethorria

¹ Torcha. — ² Egar. — ³ Enthelega eraz. — ⁴ Ukhen eracico. — ⁵ Phena.

cela ez bere aita-amentzat, edo munduarentzat, bainan bere Jaincoaren maithateco eta maitharazteco.

Lehea ikhasteac egin dituenean, galdegiten diote burhasoei¹ utz dezatela Jesuisten etchean sartcerat. Eta baimena² izatu duenean sartcen da, bozcarioa bihotcetic gaindi; munduco onthasunen ustegaberie izaitteac emaiten duen baino axegin³ gehiago egiten diolarotz, onthasun hekiei berei adios bethiereco haten erraiteac.

Rodriges Dohaxua zuen nagusitzat Jesuistetan. Hala-hala, laster ikhasi zuen certan cep saindutasuna; eta, jakinic cein cen ondicozcoa⁴ belteen zoria⁵ Ameriketan, bazohan hekiei bufuz.

Bi Ameriken artechean den hiri bat, da Cartajena. Harat cituzten Beltzac unteitaraca ekharteac, saltcerat; eta gero, acienda batzuen pare, erosiac ciren eta eremanac laneco etche-tarat.

Piarresen bihotza erdiratcen da hekien icusteaz; eta bere baithan egiten du, Beltz hekien aita izanen dela haxac diraueno⁶. Unteiac helteen cireneco, han cen beraz Saindua; eta beltz do-hacabeac, bertee churi guciez azote edo makhila ukhaldica, eta izaiten ahal den bezain gogorki ibiliac, loriatuac daude bihotz bat hain onaren causiteeaz. Ecen unteitic lurreratceco hedatcen diote escua, eririe balinbada, han ditu orgac hekientzat, badu ere cerbeit guciei emaiteco.

Unteian sorthu haurrie balinbacen bathaiatcen cituen, guciac oraino cein bere egongietarat laguntcen, eta gero, gomendaturic beren nagusiei, eta hitcemanic berei ethorrico zaiotela icustera, uzten cituen ezagutzaz eta amodioz betheac.

Hitcemaiten ciotela icustera joaita erran dut. Ez! urrun da, etcituen abantzten; bainan, hekien ondotic, bazabilan egongiaz-egongia. Eta hemen erran dezagun, egongia hec ciren borda handi batzu, eta borda hetan, ohe-orde, etzuten jende dohacabe hec, ez lasto pichea⁷ bat, ez-eta taula bera ere, deusic, lur huxa; eta leiho-orde, cirritu cilho batzu, doidoia argi ilhun

¹ Aitari eta amari. — ² Laudamana. — ³ Placer. — ⁴ Trichtia. — ⁵ Zorthia. — ⁶ Iraiten diano. — ⁷ Bouchi.

bat sartcerat uzten zutenac; eta hala-ere, erdi biluciac, hantchet metatcen¹ cituzten gizon eta emazte, chume eta larri², guciac.

Eriec han berean behar dukete egon; eta nola ez eri, halaco tokietan beren bulharrei emaiten cioten aire tzarrarekin?

Gure Sainduari eteitzaion barnea gohaintcen³ han gaindi ibiltceaz, ez han egoiteaz. Eri hec usainduac ciren ascotan eta cikhinaz janac, zauriric okhaztagarrienez⁴ estaliac; irabacia handiago duke! bai, joanen zaiote icustera, hala behar bada garbituco⁵ ditu berac, bere escuz; eta gero, jarraraciric, cenbat nahi zaurthuac izan ditecela, here caparen gainean, sendatuco eta edertuco diote arima, hainbertce aphalmendu, hainbertce urhax eragiten dion arima; ecen Beltz dohaeabe hec gogo onez behateen zaico.

Eriec duen artha⁶ berecien gatic, sendo direnec ere beren aitari, beren amari bezala atchikitcen diote azkenecotz. Etcite-teken bertcela izan. Amodio bat hain garbiac, harrocaz izatu balire ere hekien bihotzac, balaric-ere erdiraracico cituen eta beraracico⁷.

Huna behin, gorderic eta barrandan⁸ egotu citzaizeon Espa-ñol batzuec cer cioten egiten icusi: Jaun batec berekin zuen beltza hain cen gaitz okhaztagarriarekin, non zokhoric urrunenerat arthikia⁹ baitzagocaten, etchea bederen etcezan usainac har, eta hantche zagon berbera, zariola zaurietaric harra eta odol usteldia¹⁰.

Piarresi, lehen begiratcean¹¹, bihotza escasten zaio, eta gibelerat abiatcen da; ordean husu¹² ithotren dituelaric haragiaren oihuac eta erasiac, hurbiltcen da eri haren ganat, bi belhauen gainean herrestan, musu¹³ emaiten diote haren zauriei, garbitcen ditu mihiaz cikhinenac; zuen ohe tcharra antholatu¹⁴ bizkitarte bere caparen gainean ezartcen du; eta, astiroki¹⁵

¹ Atheteen. — ² Tchipi eta handi. — ³ Greutcen edo nahaster. — ⁴ Desgoustagarrienez. — ⁵ Chahatuco. — ⁶ Arrencura. — ⁷ Bella eracico. — ⁸ Coucouchean edo celatan. — ⁹ Ourthonkia. — ¹⁰ Hirotia. — ¹¹ Sogitian. — ¹² Laster. — ¹³ Pot. — ¹⁴ Chuchentu. — ¹⁵ Arrapeski.

eginic haren arimarekilacoa, hala-bala itzultzen da, bekhatu handi bat bezala auhendateen ¹ duelaric bere leben durduza?

Beltzac bezain ungi arthateen ² cituen bertce jende batzu lepradunac. Belteen etheba bezain maite zuen haukiena. Ihautirico azken egunetariac batez, adichkide batec icusten du, begitarteric arinenarekin eta herresacan ³ hiritic atheratzen; eta galdegiten dio: Norat zohaci, ene Aita, hoin alegera. — Banoa, erraiten dio sainduac, ihautiri egitera ene adichkidekin. Bere lepradunetarat zohan, hekiei, beren zaurien garbitcera, edo bederen, garbitceco laguntza emaitera.

Cobesatu behar citunengan, etcen guphide ⁵ hekiei buruaren pausarazteaz belhauen gainean, edo bere bulharren gainera, eta hec ere, bai, bere Beltz eriac bezain ungi besaratzen cituen adio erraiten citunengan.

Lagunarentzat znen amodio hortaric ezagut diteke nolacoa cen Jaincoarentzat zuena. Etxera cenean gauaren iragaitera ⁴, bi edo hirur oren doidoia loari eman-eta othoitcean zagon ⁵ gaineraco denbora gucia. Ascotan icusten zuten, gorphutric izatu ez balu bezala, ganbara ceruaren ondora igana, eta gero, jausten cela ezti-eztia argi hastean. Bertcela ere Jaincoac ezagutcerat emaiten cion, cein citzaizcon gogaraco haren egintza sainduac. Huna egia cituen miracuiluetaric bia:

Aldi batez, galdetua celaric eri gaizki cen batetara, heltzen da doidoia, hura hil deneco; eta erraiten diote, nigarrez daudelaric, etcela oraino bathaiatua; berehala, nihorc icusi gabe, ezartcen dio gainean gurutce ttiki bat, eta badoha. Bainan berrogoi bat urhax egin dueneco, ethortcen zaizco erraitera bici dela eta sendo, bathaia dezala beraz, joan gabe.

Bertce aldi batez, Beltz nescatcha bat, carrican dohalaric, -saski bat arroltce buruan eta bazterrerat begira, ez da oharteen jaunchkila bati hesten diola bidea. Gaizki horrengatic behar-rondoco batec kentcen dio burua saski petic, eta arroltce gu-

¹ Deithoratzen. — ² Duda. — ³ Souenatzen. — ⁴ Presacan edo lehia handiareki. — ⁵ Herabezi

ciac hausten dire. Hala-hala nescatcharen marraskec airean ezartcen dute carrica gucia.

Hainbertcenarekin Piarres saindua ere hantchet gerthateen¹ da, eta erraiten dio guciz maite dituenen haurrari: Etzazula nigarric egin, eta biltzatzu arroltee horiee. Gero, bat bertcearen ondotic ukhitcen² ditu makhilaz, eta, hare ukhia osotua, berehala saskian ditu nescatchac aintcietic cituen guciac.

Berrogoita lau urthez ibili ondoan bere Belteen ondotic, bere lepradunekin, bekhatoreketa, eta ahal zuen guciari egin cezaken ungi guciaren egiten, cer hartceac etcituen cernetan! Berrogoi eta laur urthe haukien buruan pairatceco³ duenaz, ez ditu merecimendu ttikiac irabazten. Ecen eri da eta gaitci zaio, ecin gehiago gaitci, berteen gain izaitea eta bertcez arthatua izaitea.

Errana zuen aintcietic, Andre dena Maria bere amatzat zaocanaren besta egun batez utcico zuela lur hau. Eta horra non, egun batez, buruilaren zazpia cen, barreiatcen den berria saindua azken haxetan dela. Ordu berean baratcen dire hirico lan guciac. Denec nahi dute oraino aldi bat icusi; eta metatcen da jendea haren ondoan. Eta hura badoha geroago eta aphilago, Jaincoarekin solbasic⁴ samurrenez⁵ mintzo delaric. Biharamun goiceraino ere heltcen da, eta orduan, joan cen cerurat, egun hartaz eta eternitateaz gozatcera.

Lurrean utci cituenac ciren ilhun gelditu, eta guciz Beltzac. Hec cioten, nigarrez, joanac dire gure egun ederrac! galdu dugu aita! galdu dugu ama! urric⁶ gakizcola Jaincoari!

IRACAXPENA

Guc ere, contu egiten badugu gure caritate escasari, eta cein den maiz⁷ gure bihotcetan gure lagunarentzateco, ez behar bada higuintza, bainan bai hoztasuna, guc ere, diot, oihu egiteco dugu Jesus Jaunari, othoizten dugularic saindu hunen arartecotasunaz, ganbia dezaucun gure bihotz gogor eta hethi

¹ Agitcen. — ² Hounkitcen. — ³ Sofritceco. — ⁴ Elheric. — ⁵ Trendenez. — ⁶ Pietate egin garri exi. — ⁷ Ardura.

beretaren ondotic dabilana. Bai, Jesus Jaunac eman dezaucula gure lagunari ahal dugun ungi guciaren egiteco gracia, eta egun batez ezagutuco gaitu bere haur eta dicipulutzat!

BURUILAREN 20^{an}

SAN EUSTACHE ETA HAREN LAGUNAC MARTIR

Hilac 120^{an}

Placide, geroan Eustache deithua izanen dena, capitain handi-cela Erromaco harmadetan, giristinotu aintcinec, horra erraiten ahal den gucia saindu hunen lehen urthen gainean.

Behin batez, orkhatz¹ eder baten ondotic zabilalaric, joaiten zaio ihici hau harroca gain batetara. Placide ere badoha haren ondotic; bainan ordu berean agertcen zaio, orkhatzaren adarren artean, Jesu Christo Gure Jauna, gurutceari itzatua, eta distiradurarie handienean.

Ustegabeco icuspen horri begira² dagolaric laztua, huna cer duen entzuten: Placide, cergatic lastercatcen nauzu. Eta Placide aldichartua erortcen da. Aphur baten buruan, berriz ere entzuten du mintzo hau: Zohaci giristinoen apezaren atcemaitera, hanc emanen darotzue bathaioa zuri, zure andreari eta zure hurrei, eta gero zathorzk³,⁴ orduan jakinen duzu cer diteken zutaz.

Placide badoha bere laguna gana, eta jakinxun egiten du gerthatu⁵ zaionaz; hunc ere erraiten dio hola-holaco cerbeit icusi duela, eta gero, beren bi seme ttikiekin, joaiten dire bathaiatuac izaiteco egin behar cituzten urhaxen egitera. Placidec izaiten du bathaioan icentzat Eustache, haren andreac Theopista seme gehienac Agape eta ttikienac Theopiste.

Manua zuen bezala, bathaioa hartu duen bezaino sarri, itzulcen da Eustache aipatu harroca hartara, eta han Jesu Christo

¹ Basa - ahuntz. — ² Soz. — ³ Engochatia. — ⁴ Jin Zakitzat. — ⁵ Agitu.

Gure Jannac erraiten dio: Hasarregeoric¹ gaitenean duzu desbrua, ceren haren azti parretaric athera² zaren; ez diteke gehiago, nihon, luronic zuretzat; bainan badukezu ene gracia, eta handi izanen da zure icena gizonen artean, handiago oraino ceruan. Eustachec ihardesten dio: Egina izan bekit, Janna, nahi duzun bezala; nihoiz ez dut sobra pairatuco³ ene bekhatuentzat.

Handic laster, giristino berri horien ethean sartcen da gaiz izurrixu bat eta galtcen dituzte schi⁴ guciac. Bertce eritasun batec hilarazten diozcate, larri eta chehe, cituzten aciendac oro. Bazuten diru eta onthasun nasaiki ohoinec kentcen diozcate diruac eta onthasunac, eta horrela deusic gabe dire eta osoki erromes⁵.

Bere eciaberteearen gordeteera joan behar duela Esiptorat, Eustache dobacabea sartcen da untcu batean bere emaztearekin eta haurrekin. Erdi bocic ere egin zuea sartcea, ordean erdiratua eta lehertua cen haren bihotza atheratecan: ecea capitaineac idukiteen⁶ eion andrea, aitzakia⁷ huntan, ordnan paga etcezaken untcu-saria, geroan egin cezan, bahi atchikiteen ciola.

Saindu hunen bihotzmina handia cen; halaric-ere adoratu zuen Jaincoaren escua; eta, bere bi haurrac oscutic, heldu cen hiba⁸ zarrotz baten bazterrera. Ura barna celacotz eta zabal etcetzazken biac batean ereman, hartcen du beraz tikiena lehene, eta, hau ezarric bertce aldean, handienaren bilha⁹ itzultcen delaric, urarea erditic begiraten dio Theopiste ma teari, marrasca bat egin duelacotz, eta cer du icusten! Oxo batec ahoan hartcen diola eta eremaiten. Izkiritpec¹⁰ ez deiharree ez dute durduzarazten¹¹ sai¹² gaichtoa; galdua duela haur hura icusten du.

Bat hederen oraino gelditeen zaiola handienari buruz abiacera zohan, noiz-eta-ere icusten baitu, lehoi bat jauzten dela seme bakhar haren gainera, eta eremaiten diola oihan bati buruz. Horrenac ere egindu! dio bere baituan Eustachec, eta ni

¹ Khechotic. — ² Eikli. — ³ Sofritu. — ⁴ Micheandi. — ⁵ Praube. —

⁶ Atchikitoen. — ⁷ Estacaru. — ⁸ Urhandi edo uhaitz. — ⁹ Cherkha. —

¹⁰ Garrasiec edo heigorec. — ¹¹ Dudarazten. — ¹² Basa ihici.

neroni, cergatic gehiago bicico naiz! Ceren ez naiz hementche ur hunen zolan, behin bethicotz etzaneu? Hori cen Debruac eginaraci nahi ciona.

Ordean Eustache orhoitcen da Jesus Jaunaren hitzez, eta athe-
ratcea da uretic, diolaric: Sehiac, aciendac, onthasunac, andrea
eta haurrac, Jaincoac zarozkita: eman, kendu darozkit, izan
dadiela benedicatua haren icen saindua. Eta jarraiki cen ain-
teina bere hartu bideari.

Noizbeit baratcen da, eta, galdeginic lana nekhazale batzuei,
badago bekien meneco hamahortz urthez, nor, ez cer cen, ni-
hortaz ezagutua izan gabe.

Ordu betan Trajan Erromaco inperadoreari behartcen zaio
gerlan haritcea exai handi batekin; eta egiten du bere baithan,
emaiten ahal badiote soldadoei aintcindaritzat Placide, bere
leheneco gizona, badukela aski. Igortcen ditu beraz muthilac
bazter gucietarat, bilha dezatela Placide atceman arteraino.
Azkenean, eta nekhez-bada-nekhez, langilen arruuteco philda-
tcharrean, atcemana da Eustache, eta badoha saindu hau Tra-
janen manuen hartcera.

Jaincoapalde zuen capitain handiac. Hala hala, egiteco guciac
dobaci ecin hobeki; exaiac, guducarie handiencen ondotic,
garhaituac dire. Nahi duten gucia soldado preso alchatcen dute
eta nahi duten gucia onthasun hartcen. Handic cenbeit egunen
buruan, heldu cen Eustache bere soldado garhaitiarrekin herri
eder baten ingurura, eta hantchel, unhatuac¹ cirelacotz guciac,
gelditu cen bi edo hirur egunez.

Holaco orduetan gerthatcen den bezala, soldadoac hari ciren
bat bertceari heren eta bertcen gainean zakizcaten contatcen.
Biga cirelaric etche pollit² batean, batec zaasan³ bertceari:

Orboit nauc ene aita eta ama jaun-andre handi cirela Erro-
maco hirian. Behin, etzakiat cer gatic, sarthu cituan untei
batean enekin eta nuen ania ttiki batekin, eta etzakiat nolaz,
untei hartaric etzuan atheratu ama, ene ama ona; eta aiat, ni-
garrez, ereman gintian bi haurrac hibai bazter batetara.

¹ Eñhric. — ² Eger. — ³ Erraiten cian.

Ilegi hartan ni utciric, bazaramac¹ ttikiagoa bertce alderat, bainan ene bilha uraren erdian celaric, oxo batec eremaiten dic ene anaia bilho horia, eta ni. hain sarri, hartcen naic lehoia batec; behar-ere, artzain batzuec kendu nindioteian lehoiari, eta geroztic hekiekin egotu nauc.

—Anaiac gaituc! anaiac gaituc! erraiten dio bertce soldadoac, besarcaccen duelaric, ecen ni haci nauten nekbazalec erran ciodatec, hekiei esker nuela bicia, utzaraci nindiotelacotz ahoan nindaraman² oxo bati.

Emacume bat etche hartan zagona, nahiz etcen herri heta-coa, beha zagon, harritua, solbas³ haukiei. Mila gogoeta buruan, bainan deusic nihori erraiterat menturatu gabe, aspaldion herri alderat hurbildu nahia celacotz, badoha aintcindariaren othoiztera⁴ ez dakion gaitci haren soldadcei jarraikitcen bada.

Eta nolacoa ez da emazte hunen onexia⁴! Icusten du eta ezagutcen aintcindari hura bera dela haren senhar Jauna, eta erraiten dio, axeginezco nigarrez urteen hari delaric: Ene Jaun maitea, etzuitzala okhazta⁵ ene besarcacceac, ez dut nihoiz deus egitecoric izatu ebaxi ninduen gizonarekin, ecen dohacabe hura, Jaincoaren esenaz joa, hil cen, berea ninduela erran zarotaneco.

Eustache, hitz horiec entzun dituenecan, badago lucez ichilic, eta nigarra dariola, ecin aski ederrexiz⁶ Jaincoaren ontasuna. Azkenean hastea zaio mintzateca bere haurrez, nola, hibai batean, biac galdu cituen. Horrela denaz geroz, dio Theopistac, bici dire gure haurrac; zato enekin. Eta berehala lauac batzu bertcen besoetan ciren, eta emaiten ciozcaten, eskerrac Jainco guciz onari.

Gerla hau hari celaric hil cen Trajan, eta izatu zuen bere ondoco Adrien, gizon bat osoki bihotz gabea. Bozcarioan da ceren Eustachec garhaia⁷ baduen, ungi-ethorri⁸ ederra ere egiten dio, bainan bere jaincoei behar dituela eskerrac eman, abiatcen

¹ Erouaiten dic. — ² Erouaitan nundian. — ³ Elhe. — ⁴ Irousitatia. — ⁵ Desgousta. — ⁶ Admiratuz. — ⁷ Bitoria. — ⁸ Datzarre.

da tenplorat bere idurico aintcindariekin. Eustachec etzuen han deus egitecoric, eta hortaz oharreen da inperadorea.

Laster jakin du giristino direla hura eta harenac, eta ez da guphide¹ eskergabe hura martiren hilarazteco zuen burdinazco cecen baten sutan ezartceaz.

Eustache sainduac icusten du cer izan behar den hartaz, eta galdeten dio Jaincoari, nihore haren arartecotasunaren bidez. deusic escateen² badio, othoi egina izan dakiola bere guticien arabera; eta gero, beren arimac gomendateen diozcatelarie, sartcen dire lauac cecen gorritu hartan; eta, han ithoac, galdu zuten mundu huntaco bicia, ordean bethierecoaren irabazteco.

Hirur egunen buruan, atheratu cituzten bekien gorphutzae, eta nahiz labe gorritua bezain bero cen burdinazco cecen hura, hala ere erreac izatu eirelaco deus seinalerie gabe causitu cituzten.

IBACAXPENA

Trichtecian, behar-bada bici gucicotzat, ezartcen gaituen nahigabe handi batzaetan, gure arimen exaiac nahico darocu sinhexaraci, cenbeit aldiz, Jaincoaz beraz ere utciac eta ahantciac garela; ordu ondicozco³ hetan, orhoit gaiten Jesus Jaunaren hitz hautaz: « Zure buruco bilo ondoac berac ere contatuac dire; ez da hetarie bakhar bat erorico zure Aita cerucoaren permisionea gabe. » Gure axecabeac⁴ nolaco nahi izan ditecela, orhoitzapen horrec lagunduco gaitu hekien errechkiago jasaiten⁵.

BURUILAREN 21^{ena}

SAN MATHIEU APOSTOLUA ETA EBANJELISTA

San Mathieu, Ebanjelioac Levi ere deiteen duena, cen sortcez Galilearra, Ordu hetan Erromanoec egiten zutena, althatu

¹ Herabezti. — ² Galthateen. — ³ Malerous. — ⁴ Nahigabiac. — ⁵ Egarten.

nahi zuten cergaren¹ biltseco, cen, hitzartea aintcineco jarri nahi zuen gizon batekin, berac bil edo ez bil, hunenbertee bat, emanen zuela.

Eta gero hari cer., egiteco hori bere gain hartu zuena, bera edo orobat berteez, hari cen, diot, zor zuenaren eta maiz² zor etzuenarea jendeari emanarazten. Hortarotz holaco cerga biltzaileac publicanoac deiteen cituzten: erran gabe doha, bekhatore handi cirela Jaincoaren begietan, eta gizon ez ere gaizki icusiac eta osoki higuinduac. Hargatic horra, cer den Mathieuren lana, Capharnaungo nirian.

Egun batez, jarria zagolaric bere mahainaren aintcinean, handi iragaiten da Jesus Jauna. Urricalmenduero begiratee³ bat ere egiten dio nagusi oa hare, erraitea diolaric: « Jarraic zaizkit. » Eta berehala, Jaincoaren graciaz argitua lar huntaco onthasunen izaite ezdeus eta iragancorraren gainean, Mathieuren ditu bere diruac eta bere mahaina, uzten ditu etcheecoac, eta abianteen da Jesusen ondotic, amodioz eta ezagutzaz bethen.

Ebanjelioac eracusten darocu oraino, Jaincoa ganat itzuli ondoan, eman ciola bazeari bat Jesus Jaunari, bere adiekkiden gatic, hec ere izan ezaten Nagusi bat hain hihotz berarea⁴ ezagutseco bidea.

Bertzalde, berac apostoluei axegin⁵ egiteco iscritatu duen ebanjelioan icusten dugu, nola bilhateen⁶ zuen bere buruaren aphaitea gauza gucietan. Mintzo delaric cen, hamabi apostoluen hautatceaz, erraiten du bere buruaz: Cerga handiegien biltzaile bat baicen ez dela izatu. Eta horrela iracaxico du menderen mende, cen den hazearra Jaincoaren gracia, hura hain aphaletic egin duenaz geroz apostolu bat.

Izpiritu Saindua izatu zuenean, berteeac bezala eta kharric handienarekin eman cen Jesus gurutseficatuaren Juduei ezagutarazten. Gero, elkharretaric berezteco orduratu cirenean, Africaraco bidea hartu zuen, Ethiapiaco bazterretan behar zuelacotz Ebanjelioaren argia piztu.

¹ Legatzen edo inposaren. — ² Ardura. — ³ So. — ⁴ Bellaren. — ⁵ Placer. — ⁶ Cherkateen.

Ethiopiara heldu gabe, Esiptoan berean hastenditu bere prediua. Eta nahiz traba¹ trabaren gainean duen, egiten du halare ungi handia bere solhas² sarecorrez, zaraman³ bicitee garrazaz, eta bere escuco cituen miracuiluei esker.

Ethiopiarat heldu denean, han causitcen ditu, bide gucietan trebes⁴ eta bethi atzarriac, bi gizon, gorphutz eta arima debruari salduac. Nonbeit Apostoluac erain hacia sort: era dohala icusten badute, laster han dire, landare gazte hec ez dituzteno nolazpeit eiharraraci. Etcezan ere gal jendeac hec baithan zuen sinhestea, emaiten zuten gaitza batzuei eta bertcei, eta gero berriz, sendarazten cituzten. Mathieuc ezagutarazten du hekien gaichtakeria, eta berei emaiten diote ahalke gorria.

Behin, jendeari calte⁵ gehiagorei egiteagatic, ekharraraci cituzten ur handietaco aintciretaric⁶, bi musker⁷ ikharag arri. San Mathieuc egiten du gurutcearen seinalea, eta bozcaricau dire hekiei jazartceco⁸ bildu cirenac, icusteaz ethorri baino zalhuago dohacila gibelerat.

Denbora hartan Ethiopiaco errege Esipe cen. Bada⁹, jadaneco sainduaren bothereaz jende gucia mintzo delaric, hiltcen zaiu erregeri alabetaric bat, eta aiphatu bi sorginec¹⁰ jakinarazten dute, nahi dutela andre gazte han pizaraci. Hantche direlaric beraz, hekiei begira, errege, hirico jendea eta Apostolua, hasten dire bi gaichtaginac, sinoca¹¹, escuz eta buruz, eta othoitcean oihuca. Baina aintcina ere hila zagon erregeren alaba, eta noizbeit exitu behar izan zuten sorginec.

Orduan hurbiltcen¹² da san Mathieu, eta, eracusteagatic cenbatez cen hekiena ez bezalacoa, hare zuen botherea, egiten du, hilaren gainera, gurutee bakhar bat, eta erregeren alaba piztua cen. Miracuilu horrec hala Esiperi nola han ciren bertce guciei zabalaraci ciozcaten arimaco begiac; eta ordutic aintcina, nibou dens trabaric gabe, hedatcen hasi cen Ethiopian gure erlisione saindua.

¹ Epantchia edo phocholia. — ² Elhe. — ³ Erouaitin ciao. — ⁴ Khurutehela. — ⁵ Gaitz. — ⁶ Ihitokietaric. — ⁷ Susker. — ⁸ Bahurtceco. — ⁹ Phuru. — ¹⁰ Bahagiler. — ¹¹ Geinuca. — ¹² Hultateen.

Gebiago dena, aldi batez, Ifisenia, orai aipatu dugun erregeren bertce alaba batec entzuten du Saindua mintzatcen birjina ditezkenec Bildox ¹ sainduarekin ibiltceco duketen zorionaz ². Dena hartua axegin ecin erranezeo hekien guticiáz, galdegiten dio Apostoluari berech dezala bertce giristinoctarie, eta eman diozola birjina egon nahi delaco cerbeit seinale. Eta Sainduac ezartcen dio, begitartearen gordagailu, birjinen beloa.

Bertce hainitz nescatchec ere nahi izatu zuten egin Ifiseniac bezala, eta hortacotzat bilaraci cituen guciac etche batetara, ama orde eta iracastailatzat emaiten ciotelarie erregeren alaba.

Hori izatu cen Sainduari martirioa irabazaraci ciona; ecen orducotzat Esipe errege giristino haren ordain, hura hil celacotz, haren anaia Hirtace deitcen zutena cen errege. Gizon hunec ez du bertcerie ez buruan ez bihotcean baicic ere Ifiseniarekin ezcontcea; ceren ez baitcen nihon hura bezain ederric. Erraiten dio beraz Apostoluari, behar diola comentutic athearaci ³.

Sainduac ihardesten dio: Zato ⁴ sarri hekien elizara, icusico duzu cer diodan erranen, ceroni lekhuco ⁵.

Eta gero, erregeren beraren aintcinean, Ifiseniari eta haren lagun guciei erraiten diozate, hekieatzat ceruan ditezken axeginez eta khoro ederrez, gure Erostaile Jaincoaren ganic entzun cituen guciac.

Ezcontzaco sacramendua handi da, cion, eta baitezpadaoa ⁶ munduaren irautearentzat; baiman cenbatez ez da handiagoa eta hobea birjinitatea. Bururaino egia gucia erran dezadan, lurreco errege batec ez lakike nola aski gaztiga bere andrea galaraci nahi izatu lioken muthila; eta nolacoac ez dire izanen erregearen Erregearen hasarregoa ⁷ eta gaztiguac espos maite bat ebasten dionarentzat.

Hirtace, etzuelacotz holacoric igurikitcen, atheratcen da elizatic mendekioa gogoan; eta, ahal duen bezain laster, igortcen ditu muthilac Apostoluaren hilaraztera.

¹ Achouri. — ² Irousitania. — ³ Elkhi eraci. — ⁴ Teiauri. — ⁵ Jakile. — ⁶ Osoki nesesarioa. — ⁷ Khechia.

Meza sailduaren akhabatcera zohan, gainera erori citzaizconean; eta han berean, hekien ukhaldien azpian, eman zuen azken haxa, hogoita hirur urthez Ethiopian egotua, milaca jendeac bathaiatu cituen ondoan.

Bacituen, orducotzat, hainitz eliza eginac, hekientzat hainitz apez eta apezpicu ordenatuac, eta horrela, igan ondoan ere ceruetarat, harico da aintcina, bertcez, Jaincoaren ezagutarazten eta maitharazten.

IRACAXPENA

Cenbat aldiz ez gaitu Jesus Jaunac bere ganat deithu, predicuez, cobesoraren ahoz, edo oraino geronec ezagutcen ditugun gracia bereciago batzuez! Eta, menturaz, bortchatuac gare aithortcera, ez diogula ihardexi! San Mathieu hartuz bitarteco¹, galde diozogun Nagusi Dibino hari, iscriba dezan Ebanjelio saildua gure bihotcetan, gure urhaxac, gure gogoetac, gure bicitcea izan ahal ditecen haren arabera.

BURUILAREN 22^{da}

SAN MAURICE BERE LAGUNEKIN

ETA

SAN VICTOR, MARTIRAC

Bilac 286^{da}

Maximien Hercula, Erromaco inperadoreac hain cituen higuin giristinoac, non hainitcetan, canpoco exaien guduacera zohalaric ere, baitzabilzcan² soldadoac hekien bilha³, ahal zuen guciaren hilarazteco.

Behin, abiatu zuen gerlan hazcarrago izan zadien, Dioclecien inperadoreac igorri cion, Antiocheco hiritic, lesione bat, erran nahi baita sei mila eta sei ehun gizon. Soldado andana⁴ hau ezagutua cen eta aiphatua bazterretan, herioaz zuen achola

¹ Ararteco. — ² Ebilten zutian. — ³ Cherkha. — ⁴ Tanda.

gutiaz: ezen gehienac¹ soldado zaharretarie ciren, eta etcituzten exaiaren aintzeinan nihoiz² icusi loxatuac. Haukien lehen ainteindariac Maurice zuen icena.

Horrelaco³ harmadarekin helteen da Maximien inperadorea Suissaco mendi artetara, eta han, behar diotela pausa pichica bat eman sol ladaoei, tricatce⁴ bat egiten du. Hainbertcearekin piztea zaio bihotcean giristino odol ichurtceco guticia. Manatcen diote beraz soldadoei, dohacila herri hetaco celhai eta mendi macelac gaindi, giristinoketa.

Mauricen lesio:eari ere manatua zaro lan hori bertee soldadoei bezala. Ordean manua eman deneco, mintzo bera atheratcen⁵ da hekien gucien bulharretarie, deihadarretic bezain oceaki. Diote denec, diote hekien ondotic erreketaco oiharzune:⁶ Gu ere giristino gare! Giristinoac: sobrakin direnaz geroz lurraren gainean, has dadiela gutarie.

Laster entzuten du Maximienec cer daasaten⁷ Thebaco soldadoec. Ictaraci behar dituela, manatcen da guciac lerroan jarraz detzatela, eta hamargarren ditekcu gucia ezpataz joa izan dadiela.

Sarrasina⁸ horrea ondotic ezlichago eta haren nahiaren egiterat ekharriago citezkela uste zuen; baina ez, egundaino bezain hazcar eta gogor direla icusten du. Hasten da beraz burregoa berriz ere contateen, eta berriz ere chorthac atceman duken hamargarrenac, deus erreacurarie gabe, deus erasiarie gabe, bocic, arrimatuco du lephoa, dakielacotz larreco harmadarie atheratcearekin sartecu dela cerucoetan.

Maximien aldiz, hura ecia bere larruaren barnean egoanean cen, icusteaz deusic etcela hari, noiz-eta-ere iracurtcera emaiten baitiozate Mauricec, bere lagun gucien icenean, gaztigatcen⁹ diozcan litz hauc :

« Zure soldado garela badakizu, Inperadore Jauna, baina etcinakienu da, ordu berean oraino, Jesu Christoren soldado ginela. Gure lan eta urhaxentzat emaiten daucuza diru, eta aldiz

¹ Haboroac. — ² Behinere. — ³ Gisa hortaco. — ⁴ Ekhuatce. — ⁵ Eikhitzen. — ⁶ Aranec. — ⁷ Dioien. — ⁸ Odol ichourte. — ⁹ Izkiribatcen.

Jaincoac urriric¹ emaiten darocu bicia mundu huntan eta bertean. Jaincoac haizu uzten ez daracun gauza manateen badaucuzu, Inperadorea, ez gaizkitzu jarraikico; eta aldiz, bertee cernalitan, zure escupeco gare; eracux diezaguzu exaia, eta ezagutuco duzu cer garen.

«Badakigu ezpataren eta lantzaren ibiltcen, bainan ez gaitutzu icusico burdin-aztapar batzu escuetan, hobenic ez duen odolaren ichurteen.

«Cere gaozea zure banderen azpian? Egin darotzugun cinac: Norentzat ginitazke on Jaincoari berari egin cinac hausten baginitu? Christo Jaunac ditu lehenic gure cinac izatu. Ez ginelaric oraino zure soldado, jadanic harenac ginen. Nolaz uste izan dezakezu Jaincoaren saltceco gai², eta zuri leial izanen gaizkitzula.

«Giristinoen galaraztea bilhatcen duzu, gu ere hala gare, haszaitc gutaric. Aichtian, gure aldean³, gure lagunac erortcen icusi ditugu, hekien odolaz oraino bustiac dire gure soinecoac: hala-ere etzaizkigu urricalgarri⁴ iduritcen, eta ehortei behar baitugu, ez da gure begitartetan agertuco ez nigarric ez ilhundurric. Izan dadiela-izan gutaz bertee hainbertee.

«Inperadorea, etzazula uste izan, eximenduzco indarca batean, gure escuac harmaric ukhico⁵ duela. Ez, harma hetaz ez ditugu beiratuco gure buruac, gure ezpatac beren untietan egonen dire eta gure besoac dilindan⁶.

«Egizu gutaz nahi duzuna; errearaz gaitzatzu gure oihal-etchetan, chehecaraz harmada guciaz; ezpatac iragan gaitzala; herioa, emaiten darocuzun bezala, hartuco dugu. Giristino gare.»

Hitz hautaric ezagutu zuen Maximien bihotz gabeac etzuela deus e irabazten ahal giristino haukiekin. Igortcen ditu beraz milaca soldadoac hekiei buruz; eta, ezpatac esruan, hurbiltcen zaizcote exaiac izatu balire bezala. Saindu hec aldiz ihesari eman gabe ez deus jazartceric⁷ egin gabe, daude, higitu ere gabe,

¹ Dohaiñic edo kitoric. — ² Capable. — ³ Khantian. — ⁴ Pietate egin-garri. — ⁵ Hounkico. — ⁶ Chilintchau.

beren tokietan¹; eta guciac, ogia uztailean egiten den bezala, crorteen dire batzu berteen gainera.

Jesus Jaunac here burua bildoxaren² pare utci zuela heriotcerat eremaiterat, zuten guciec gogoan, eta hare bezala egiteagatic, zauden guciac deus indarcari egin gabe, eta halaz, joan ciren hekien arimac guticiatcen zuten ceruco dohaxutasunaz gozatcerat.

Bere adichkideric hoberenac horrela galaraci cituen ondoan, jauxi cen Maximien Marseillaco hiri alderat. Han ekhartcen diote Victor, soldado aintcindari zahar bat, hura ere giristino dela.

Zango besoac estecatua, ibilarazten du lehenic carricaz-carrica, jende tchar gucia josta zadiela hari nahi cituen laidoac eginenez. Ezartcen du gero presondegian, eta Victorrec besarcarazten diote Jainco-legea presondegi zaintzailei berei.

Biharamunean sutan eman cen inperadorea, icusiz, ez baxharic etcela gogoz ganbiatu soldado zaharra, bainan bertceric ere giristinoaraci zuela. Husu³ holarazten ditu giristino berriac; gero, Victor bera ezarrarazten du dilindan, somer batetarie, eta, burregoc indarric duteno, larrutua da azote ukhaldica. Azkenean igorri zuen oraino, bere presondegirat, indar har cezala tormenta garratzagoen pairateco.

Cenbeit egunen buruan, berriz ere galdegiten dio inperadoreac, ja nahi duen Jupiter jaincoa adoratu. Saindua hurbiltcen da jaincoa zakharren⁴ hirur zangotaco mahain bati buruz adoratceagatic bezala, eta, ostico batez, arthikitcen⁵ ditu mahaina eta jainco celacoa. Maximienec motzaraci cion orduan zango hura, eta gero, ezarraraci zuen bera escu-errota⁶ baten harriaren azpian, emeki-emeki han lehertua izan zadien. Jadanic zangoa, hezur eta haragi, lehertua zuelaric eta zabaldua, tresna⁷ lazgarri hura hauxi cen; eta ebakaraci cion burua tiranoac.

Arthicaraci ere zuen ixasorat gorphutz saindu hura, bainan

¹ Lekhietan. — ² Achouriaren. — ³ Laster. — ⁴ Ekhartcen cian. —

⁵ Ourthoukitcen edo aurdikitcen. — ⁶ Eihera. — ⁷ Arma.

Jaincoac etzuen nahi gal zadien; ethorri cen ur bazterrerat, eta ehorteia izatu zohacon icustatearekin.

IRACAXPENA

Martiren begiez begiratcen¹ baginiote mundueo aisia eta axeginei², ez ginezake haukien gatic, gure arima damnacioneco bidean iduc. Eta bertzalde, fedea bici balin baginu cein gogo onez ez ginetzazke har axecabeac³ eta oinhaceac⁴! Martir lorios haukien arartecotasunac ardiex⁵ dezaucula izanea ditugun nahigaben, bihotz onez, hartceco gracia.

BURUILAREN 25^o^m

SAN FERMIN NAFARTARRA, AMIENSECO LEHEN APEZPIGUA, MARTIR

Hila lehen mendearen akhabantzan

Apostoluetaric Jondoni Joanes oraino bici celaric, Iruñaco etcheco-jaunen artean lehen herronca zaocan Fermin deitzen zuten Jaun aberax batec. Bada 7^o egun batez, tenplorat dohalaric bere emaztearekin, een jainco falxuetan zuen bere sinhes-tea, bertce Escualdunec bezala, Jaun hunec buru egiten⁸ du gizon arrotz batec berari beha zagocan jeade oste batekin.

Arrotz hura mintzo da Jainco bakharraren seme gizon eginaz, harc munduari egin dion ungi handiaz, zabaldu duela ceruco athea⁹ bere odola ichuriz, eta ez dela ceru hartan sartcen abal iracaxi dituen manuei jarraikiz baicen.

Zoratuac⁹, Fermin eta haren andrea ere, badaude beha mintzo deino, eta gero, othoizten dute ethor dakioten etchera, erran dituenen gainean, oraino cerbeit chehetasunen emaitera. Mintzatzaileac etzuen bertceric guticiatcen¹⁰:

Galdegiten diote nor den, eta nondie den ethorria. Giristino

¹ Sogiten. — ² Placerer. — ³ Nahigaber. — ⁴ Sofricariae. — ⁵ Ukhenezaz. — ⁶ Arren. — ⁷ Baratcen. — ⁸ Bortha. — ⁹ Enochentiac. — ¹⁰ Desiratcen.

naiz eta apez, ibardesten diote berteeac. Honesté da ene icena. Saturnin Ene-Jaun eta Tolosaco apezpicu denac naizaitzue igorri, begiac hartcen darozkitzuen lanhoen uriharazterat, eta zuei ceruco bidearen eracusterat.

— Eta cergatic, erraiten dio berriz ere Iruñarrac, zure Jauna deitzen duzunac berac ez lezake agertee bat egin gure artean? Ah! hinarainoco bat egiten balu, cer uzta ederra bil lezakena! Cenbat Escualdun sarraraz lezaken aiphatu duzun ceruco bidean!

— Hola denaz geroz, dio apezac, laster icensico duzue Saturnin saindua.

Etzuen denboraric galdu Honestec. Zazpi egunen buruco Iruñaco carriketau eta placetau hari cen Tolosaco apezpicua Ebanjelio sainduaren ezagutarazten; eta han gairic iragatu cituen egun cenbeiten buruco, berrogoi mila giristino bacen Iruñaco inguruetan. Fermin eta harekin hirico bertee handinetaric asco, giristino cirea; eta berehala, haukien diruari esker, alchatu cen eliza bat geroan edertua eta handitua izatu dena, eta orai oraino san Cerningo eliza deitzen dutena.

Fermini etzaio aski bere sosean emaittea, duen ahal eta indar guclaz hari da Jesus Jaunaren ezagutarazten. Badu seme bat, bera bezala Fermin deitzen dena; seme hura ezartcen du Tolosan, Honeste apezarea etchean, apeziteco jakin behar duen guciaren ikhasten.

Bai, ikhasteco cen sorthua haur hau eta iracasteco, saindu izaiteco eta ceruaren sainduz bethetceco. Hala-hala, ikhasten hari celaric etzuen ahanzen bere arimaren berthutez aphaintcea¹, eta hortacotz, Jaincoa ganaco amodioa egunetic-egunera emendatuz zohan hura baithan.

Hemezortci urthe baicic etzuen oraino, eta jadanic nagusiac, bera zahar eta ahulegi² celacotz nihorat joaiteco, Nagusiac, diot, igortcen zuen bazter herrietan cirea giristino berrien ganat, hekiei Jaincoaren hitzaren entzunaraztera; eta guciec ederres-

¹ Althateia. — ² Flacuegi.

teco¹ zuten cenbat argi eta cenbat bertce gracia Jaincoac ichur-
teen zuen haren arimaren gainera.

Azkenean ereman cioten Jaun apezpicuari, apez ordena ce-
zala. Apezpicuac errechki² ezagutcen du cein den saindua eta
arima irabazteco gaia³ ekharri diotea gizon gaztea. Gantzutcen⁴
du beraz olio sainduaz, escuac ere ezartcen diozca buruaren
gainean, eta igortcen du Iruñarat apezpicu, erraiten diolaric :
Bozcaria zaite, ene haurra, ceren emana zaitzun hautexien⁵
untci izaitea; zohaci zure herrirat, eta jarraik zaite ordena sain-
duarekin batean Jesu Christo Gure Jaunac eman darozkitzuen
eginbidei.

Iruñarat heldu deneco, emaiten da Ebanjelio sainduaren
ezagutarazten. Nafarroco hiri eta herri guciei entzunarazten
diozcate egia bera; eta gucietan sartcen da giristino-legea. Na-
farroa etcen aski handi Fermin sainduaren bihotza erretcen
hari zuen su biciarentzat. Gogoan Jesus Jaunaren hitz hauc :
zohazte populu guciei nere ganic entzun ditutzuenen iracaste-
rat; uzten du Escual-Herria eta sartcen da Frantciacolurretan.

Frantcian, hiritic hirira iraganez, eta probintciatic probin-
tciara, belteen da gain-gaineco bazterreraino, predicatuz hiri
eta herri gucietan Ebanjelio Saindua, zaram n⁶ bicitce sain-
duaz, eta bere iracaxpenez. Hedatcen ere da Holandaco aldeta-
rat, bainan, bere harat-hunatca gucietan, Amienseco hirira
zuen bere biltcea.

Han zuen bere egoitza; han ciozcaten icusten bazter gucieta-
ric osteca⁷ ethortcen citzaizcon eri eta beharretan cirenac sok-
horritcen, ixuei argitcen begiac, gorrac ernearazten, mainguae⁸
chuchentcen, zain guciac hilac cituztenac sendatcen eta debruei
ere gorphutcetarie canpoa emaiten. Han zuen oraino izatu bere
unbadurentzat⁹ guciz guticiatcen zuen saria, odolaren Jesus
maitearentzat ichurtcea.

Salhatua gobernadoreari, giristinoen aintcindari bezala.

¹ Admiratceco. — ² Aise. — ³ Capablia. — ⁴ Ountatcen. — ⁵ Haitatu-
ric direuen. — ⁶ Erouaiten ci+n. — ⁷ Saldoac aldian — ⁸ Chainkhu. —
⁹ Akh^{te}centaco.

agertzen da haren a'ntcinean, burua goraric. Gobernadoreac egiten diozca galde hauc : Erran diezadac, ja hi haicen Inperadoreñ exai higuingarri hura ? Erran diezadac oraino, nola den hire icena eta nongo haicen.

Nahi duzunaz geroz jakin nor naicen, ibardesten dio sainduac : Fermin da ene icena. Escualdun naiz eta Iruñarra sortcez, ene aita biltzarrenetaco aintciadarietaric cen ; hemen, giristino naiz, eta gucia erran dezadan apezpicu.

Iracasten diot ahal dudun guciari, ez dela Jainco bat baicen, ez dela bertceric adoratu behar baicen ere hura, eta haren Seme bakhar guretzat gizon egin dena. Iracasten dut izanen dela guretzat, eta gure egintcen¹ arabera, edo cerua edo ifernua, eta oraino, zuec jaincotzat daozeatzuenac ez direla bertceric, baicen ere aingeru gaichto batzu, desleial izatu direlacotz, Jaincoac cerutic ifernurat arthiki² dituenac.

Solhas³ horien entzuteac hilaracia izaiteco horien sinhestea aski duela dakienaren ahotic, harritua ezartzen du gobernadoreac. Hala ere egiten du oraino egin ahal bat, behin lausenguz⁴, gero larderiáz⁵, Fermini bere erlisionearen arnegarazteco ; baina horien ondotic, cer egin ? Ecen lausenguzco hitzac bezain alfer dire larderiázcoac, eta badaki, hiri gucia alde duela Sainduac ; gucien aintcinean hiltcera condenatzen badu, beldur da jendea jazar⁶ dakion berari.

Huna beraz nola jokhatzen den : Alegia barkhatzen, erraiten dio, dohala etcherat ; ordean, ichilic, manatzen diote bere inthilei hiricogazteluan sar dezatela, eta gero, gauaren erdian, nihori deusic, sumatcerat⁷ utci gabe, ezpataz jo dezatela.

Egin zuen beraz san Fermin Escualdun handiarenac, eta berac icusi zuenean azken oreñera heldua cela, eta bazohala Jesus bere Jaun guciz maitea-ganat, eman ciozcan eskerrac haren ganic ordn arteraino izatu laguntza gucientzat, gomendatu ciozcan giristino berriac, eta gero, galdeginic oraino haren bitartecota-

¹ Obren. — ² Aurdiki edo ourthouki — ³ Elhe. — ⁴ Balacuz — ⁵ Mehatchuz. — ⁶ Buhur edo oldar. — ⁷ Bogatcerat edo nabaitcerat.

sunari¹ herxatuco² cirenen othoitzac entzun cetzala, escaini zuen burua burregoari, eta haren arima saindua igan cen cerue-
tarat.

IRACAXPENA

Gure aiten aitec utcidarocuten erlisionea atchie dezagun deus notharic³ gabe, eta gure fedea dohala emendatuz, icus dezaten guciec fededun dela escualduna, eta hala garela eracux deza-
gun ez bakharric hitzez, bainan oraino obrez.

BURUILAREN 26^{an}

SAN CYPRIEN ETA SANTA JUSTINA MARTIRAC

Hilac 304^{***}

Ebanjelio sainduaren argia orducotzat zokho gucietan piztua celaric, bazuen jadanic cenbeit egun diacre bat, Praulius dei-
tzen zutena, hari cela Antioheco hirian, bethi toki beretic, gure erlisione sainduaren ezagutarazten; eta egun guciez bazagon hari beha, bere etheco leihotic, jainco falxuen apez baten alaba bat.

Justinac, hola cen andre gazte hunen icena, Justinac erraiten dio azkenean amari: Cergatic egonen gare gehiago urhezco, cilharrezco, zurezco, edo harrizco jainco batzuei begira⁴, Galilear baten iuhacoa aski dutenaz geroz porroscatuac izaiteco?

Amac ihardesten dio: Ichil hadi, haurra, eta beaun⁵ aita ez dezaunan holacoric eutzun. — Ama, ordu da, bai zuc eta bai aita, jakin dezazuen Praulius diacreac ezagutaraci darotan Christo Jauna adoraten dudala; badakit gurutcearen seinalearen egiten, eta hari esker Jaincoac lagunduco nauela ere badakit. Orduan, utciric leihoa, joan cen Elizarat.

Ondoco gauean Justinaren burhasoec⁶ ezagutu zuten amex batean egiazcoa cela giristinoen erlisionea, eta lehiatu ciren

¹ Arartecotarzunari. — ² Adrezatuco. — ³ Thonaric. — ⁴ Soz — ⁵ Abisain. — ⁶ Aita eta amac.

bathaióaren galdeteerat. Aita eta amen ceruco bidean icustea eman cion bozearioric handiena Justinari, eta, ezagutzaz eta amodioz bethea Jesus Jaunarentzat, egin zuen birjinitatearen botua.

Bada, Aglaídas deíteen zuten abocat bati bihotzaz erraiten dio, hura behar lukela emaztetzat; adichkide batzuen ariaz ¹ egiten ere ditu egin ahalac Justinaren irabazteco; baina alferretan; eta berehala icus dezake, ez dela, onez onean, deus egitecoric izanen. Orduan bilhateen ² du Cyprien; hura cea azti aipatu bat; eta erraiten dio, nahi dituen bideac har detzala, baina behar diola irabaci Justinaren bihotza.

Cyprienec, lehenbician Aglaídasen gatié, gero aldiz, beretzat nahi lukelacotz andre gazte hura, agerrarazten ditu bi izpiritu gaichto, eta igorteen, gabaz, Justina baituan lohikeriaco suaren piztera.

Haukien ondotic Cyprienec deíteen du Satan izpiritu gaichto gucien aita; hau agerteen zaio Justinari nescatcha baten itchuran, emaiten ere dio cerbeit tentacione, ordean Birjinac egiten du, aintcinetie bezala, gurutcearen seinalea, eta, akhabatecco denbararic eman gabe ere, jadanie sunxitua ³ cen khetan nescatcha-ordea.

Cyprien jakin nahian cen; nolaz haur gazte hare garhait cetzazken izpirituric botherexuenac; eta debruac, axegin ⁴ egiteagatic, aithorteen dio, niholaz ez dezaketela jasan gurutceficatua izatu denaren seinalea.

Cer! erraiten dio Cyprienec, beraz hi baino hazearrago due gurutceficatua izatu dena? Eta orduan, cergatic bari hindakidan ene ixutua atchiki beharrez? Bera, erraiten duten bezala, gare juaiteerat ethorteen bada, hie cer eginen due egun hartan, haren escuetarie gure atterateco ⁵, orai baren orhoitzapen bateg ihes igorteen hauaz geroz? O akít ⁶ hemendie urrun, Satan, luezezi baicic ez nate hire saretan idaki ⁷.

Itho zuken ordu berean debruac; baina oihu egiten du Cy-

¹ Bidez. — ² Cherkiaten. — ³ Galdu. — ⁴ Placer. — ⁵ Elkhiteco. — ⁶ Jonan hakit. — ⁷ Atchiki.

prience : Justinaren Jaincoa hel zikizkit! Gero, besoa libro duela ezaguturic, egiten du gurutecearen seinalea, eta, hain sarri, galdu cituelacotz exaiac hunen gainean cituen escu guciac, galdetu zuen bathaioa.

Gehiago dena, handie laster apezgoa harraraci cioten; eta, hamasei urthez haritu ¹ cen ondoan lanean, kharric handienarekin, izatu cen apezpicu ordenatua. Orduan sarraraci zuen Justina comentu batean han ciren seroren ama izan zadien, eta horrela biec, cein bere escualde, egiten zuten arimei ungi handia.

Debruac etzuen ahantzia cer laido egin cioten batec eta berteeac. Hala-hala, biac salhatuac dire gobernadoreari, girstino direla; eta gobernadoreac, ainteinera ekharri diozcatenean, erraiten diote : Neroni ² girstino izatua naicenez geroz, ezagutcen dut zuen erlisionea, egiten ahal duzue beraz zuec ere nic bezala, eta nic bezala badukezue onthasun eta ohore.

Ordean ungi urrun da cerbeit irabazten baitu: aitecic ³ nahasia eta ecin egonean ceren entzun dituenec contienteiaren mintzoa atzarraraci ⁴ dioten, dilindan ⁵ ezarrarazten du Cyprien, eta gero, larruarazten du burdin craco batzuec; Justina, aldiz, azote ukhaldica chehacarazten du; bi gizon hari zaico, joahala jo, bat unhatu ⁶ cenean bertcea, arteric utci gabe; eta hala-ere Justinac cion : Eskerrac darozkitzut, Jainco ona, ceren nanzun iraganarazten pairamen ⁷ hautaric, ecen orai ederki aldatua agertuco da ene arima, bere Espos Jaunaren ainteinan.

Noizbeit gelditecn dire burregoac, eta gobernadoreac, oraino ecin exiz, erraiten diote : Non duzue zuhurcia, horrela, zuen nahitara, biciaren azteco? Haiccn bezalaco dohacabea, ihardesten dio Apezpicu sainduac, aubenda ⁸ zac hire zoramendua ⁹. Nola haiz baztertu bethierreco dohaxutasunerat hindaraman bidetic ⁹? Ecea gu bagohacic, hainan, menderen mende, dohaxu gaituzkec.

Aphaldi ¹⁰ horrec hasarregoaric ¹¹ borthitecencan sarrarazten

¹ Eaunxi. — ² Nihaur. — ³ Conntalat. — ⁴ Iratzarera. — ⁵ Chilitaban. — ⁶ Eñhe edo akhita. — ⁷ Sofricari. — ⁸ Deithora. — ⁹ Ertzokeria. — ¹⁰ Ahokhaldi. — ¹¹ Khechuric edo samurgoaric.

du juica, eta harico zaizcote burregoac batari kharracaz burdin cracoez, bertceari azote uklaldica; azkenean, gizon dohacabe hunec igorrico ditu egundainocotan gaztelurat.

Genbeit egunen buruan, berriz erre nahitcen zaio icusi, ja ez duen deusic egiten ahal. Orducotzat bazagocan menean bertz handi bat, bikhez, escoz eta urinez bethea, eta egurren gainean.

Ethorri zaizconeon aintcinera, erraiten diote, eman darozkitzuet egun hauc, icus ahal cinezaten cer ixumendua den hilaraci duten gizon batentzat hiltcea. Bainan Cyprien dohaxuac ihardesten dio, horrelaco¹ hiltcearen bidez badiaguc bicitce bethierecoa. Orduan gobernadoreac emanarazten dio su bertzari; eta gero, irakitcea hasi denean manateen du haren barnerat arthie² detzatela.

Cyprien da lehenic arthikia, eta irakitcen hari diren urin, ezco eta bikheac mainhu ezti batea pare zaizco. Justina suaren bazterrean loxatcen bezala da. Ordean Apezpicuac erraiten dio: Jesusen ardi samurra³, zu, ceruco atheac⁴ zabaldu eta Jaincoaren botherea ezagutaraci darozkidatzuna; zu, gurutcearen seinalearen bidez, Debruaren indar guciaz irri egin ahal izatu dazuna, zato⁵ ni ganat. Eta Justina, gurutcearen seinalea eginic, sarthu cen, hura ere, bertcean.

Bainan mundu huntaco suac etzuen indarric aski bekiei min egiteco, eta Jaincoaran ontasunaren eta botherearen cantateen harico dire han utcico dituzten denbora gucian.

Icusgarri horren aintcinera, gizon bat, Athanase deitcen zutena, hasi cen oiluca, ciolaric: Ez uste izan, horien suaren gainean erre gabe egoiteac cerbeit erran nahi duela! Nie ere eginen dut horiec egiten dutena! Abiatcen da beraz, eta gobernadora bozcariorekin begira dago, oraicoan bederen ez ditekela osoki garhaitua. Bainan Athanase, sura deneco, ithoa da, hertceac atheratcen zaizco eta berehala errea da.

Gobernadoreac etzakien gehiago cer egin. Hortacotz igortcen ditu biac Nicomediaco hirira, Dioclecien imperadoreari buruz.

¹ Gisa hortaco. — ² Aurdic. — ³ Trendia. — ⁴ Borthac. — ⁵ Teiauri.

er egin dioten contatcen diolaric; eta inperadoreac ezpataz hiltcerat condenatu cituen.

Cypriac belhaunicaraztea du lehenic Justina saindua; eta gero, diolari; Loria Jesu Christo gure Jaunari, berac ere hedateen du burua eta jox da. Horrela, balohaci oraino ekharrekin bethi iraunen duen zorionaz gozatcerat.

IRACAXPENA

Bicitce hautaric ageri dena da, debrua, cenbat nahi hazcar izan dadiea. beldur dela fede bici batekin egin ditekcn gurucearea seinalearentzat. Orhoit gaiten hortaz tentacionetaco ordnetan!

BURUILAREN 27^{mo}

SAN COSME ETA SAN DAMIEN ANAIAC, MARTIR

Hilac 286^{oa}

San Cosme eta san Damien sorthu ciren Arabia deiteen den Asiaco bazter batean. Aita goicic galdu zuten; bainan amac, egiazco giristino cen emacume¹ batec, iracaxi cioten Jaincolegea bi haukiei eta cituen bertee hirur semei. Cosme eta Damien nagusiric aiphatueneen entzuten ere ibili ciren, eta horrela² ikhasi zuten, bertee asco gauza bezala, miracuntza.

Alde batetetic saindu, bertetic miricu, hari ciren ungi handiaren egiten. Belharren edo erroen³ bidez egiten ahal etzuten sendatcea eg ten zuten Jaincoaren laguntzaz. Hala-hala, etce⁴ garhaitcen ahal etzuten eritasunic; eta saritzat galdeteen ciozcaten sendatuei arimac, Jaincoari emaiteco.

Lysias alde hetaco gobernadoreari salhatuac dire Inperadoreac jaincoen exai direla, eta tenploetarie jeodeac urruntcen dituztela. Gobernadoreac ekharrarazten ditubere ainteinera, eta erraiten diote : Badakit, bazabilzate, hiri batetic bertcera eta

¹ Emazte. — ² Gisa hortan. — ³ Zainen.

herriz-herri, jendeari ustekeria gaichto batzuen harrarazten; nongo zarete? Cer dire zuen onthasunac? Nola ditutzue ice-nac?

Cosmec ihardesten dio: Arabesac gare, ordean ez dirudun, ceren giristinoec ez baitiote eskerrie lur huntuco onthasunei; orai, nola diren gure ice-nac? Ni deiteen naiz Cosme, eta han, ene anaia, deitcen da Damien; baitugu oraino bertce hirur anaia, eta hekien i'enac ere nahi baditutzu jakin, dire, Anthyme, Leonce eta Euprepe.

• Hec ere ekhar dietzadatze, oi hu egiten diote muthilei; eta gero, erraiten diote hortzei: zuen sinheste funxgabecoa nahi baduzue utci, zuentzat ditezke Inperadorearen icustaterie bere-cienac; eta aldiz gogortu nahi bazarete zuen orai arterainoco urhaxean, lazgarriac beharco zaitzue pairatu¹. — Nahi duzun gucia egizu gutaz, ihardesten diote sainduec, giristino gare, eta Jaincoa alde dukegu.

Berehala Lysiasac zabal-zabala ezarrarazten ditu lurrean, eta joarazten azote ukhaldica. Lan horri hari cirelarie burregoac, bereu egin ahal guciaz, deus pairatcecoric izatu ez balute bezain ezti zauden gure martir sainduac.

Gero, azoteac escuetarie erori zaizcotenean burregoei, erraiten diote juicari: Asma² zazu oraino, pairamen³ borthitzagoric, ezagut ahal dezazun nolacoa den Jaincoac emaiten duen indarra; ceen icus dezakezu uspel⁴ bat ere cein egin ahal izatu darocuzula.

Nahi nuen icusi, ihardesten diote gobernadoreac, ja zuen baitan sarthuco cinezten oinbare⁵ ttiki⁶ batzuea bidez. Bertcela denaz geroz, arthicarazten⁷ zaituztet ixasorat burdin-esteken barnean.

Sainduec ixas-bidea othoitcean daramate⁸, gomendateen diozcatelarie beren buruac Jainco nrrical:anduz⁹ betheari, eta horra non, ixasorarat erortcearekin, aingeru batec hausten dioz-

¹ Sofritu. — ² Phenya. — ³ Sofricari. — ⁴ Odolouri. — ⁵ Sofricari. — ⁶ Tchipi. — ⁷ Ourthouc erazten edo aurdicarazten. — ⁸ Etouaiten die. — ⁹ Misericordiaz.

caten lokharri guciac; egiten du hobeiki, berac, gidatcen ditu leihorrera¹.

Muthilen ganie jakiten du husu² Lysiasec cer den gerthatu³. Gizon bunec gogoan zuen bethi, sorginkeriarri esker circla martir hauc pairatecetic eta hiltcecetic beiratuac; galdegiten diote beraz, ja nahi dioten hari ere iracaxi hainbertce gauza espantagarrien egiten. Bai, bai, ihardesten diote, giristino bilhaca zaite, eta badakikezu gue bezenbat.

Hori aski balinbada, erraiten diote gobernadoreac, jarraikitcen natzaitzue; eta ordu berean bi debru erori citzaizcon gainera, eta macelacoz chebacatcen hari zuten. Lysiasec oihu egiten diote martirei: Jaincoaren umeac⁴, hel zakizkitet! Sainducc othoitz egiten dute, eta utcia da debruez.

Nahiz begien zabaltecco eta bihotcez Jaincoaganat itzultcecco aski bazuken, hala-ere urrun cen giristinotecetic; eta nolaz cerbeit gehiago pairaracico cioten asmatu arteraino, g ztelurat igorri cituen.

Biharamuncan, bekien galtecco bere ustez neurri⁵ guciac hartuac, agerrarazten ditu berriz ere bere aintcinera. Lehenic egiten du egin ahal-bat bekiei beren erlisioniaren arbuiaztecco⁶; eta gero, egundaino bezain hazcar direla beren chedetan ezagutu duenean, orducotzat piztua cen su ikharagarri batetarat arthicarazten ditu; eta Cosme, Damien eta bekien anaiaic cantuz, eta Jaincoari eskerrac emaiten diozcatelarie, daude haren erdian.

Haice buhada batec hedarazten ditu behin, urrun garrae, eta ieustiarretarie hainitz, ithoac, hiltcen dire. Bortz martirac aldiz han egotu direnean, suac diraueno⁷ aurkhiteen⁸ dire bilocetan beretan ere erredurarie chumerena⁹ gabe. Hala-ere, nonbeit gaichtoaren adimendua¹⁰ cinez illundua izaiten da, Lysiasec etzuen icasten Jaincoa bera cela gai¹¹ bere haurren horrela zaitcecco. Hirtacotz mauteen du laurdencatcecco bezala estera detzatela, eta jo detzatela diteken borthizki¹²ena.

¹ Lur idorrila. — ² Laster. — ³ Agitu. — ⁴ Haurrae. — ⁵ Mesura edo izari. — ⁶ Aruegarartaco. — ⁷ Iraiten dieno. — ⁸ Causiteen. — ⁹ Tchi-piena. — ¹⁰ Ent. elogia. — ¹¹ Capable.

Bai, estecatuaq dire burregoac ere hari dire beren lanari, eta, sainduac ez dutelari oraino eracusterat emaiten minic batere hartcen dutela, gobernadoreac icusten ditu burregoac chutic ecin egonean, unhaduraren¹ handiz.

Oraino ere exia ecin hartuz, Cosme eta Damien altcharazten ditu gurutecan; eta icustiar guciei manatcen diote harrica detzatela. Harri ukhaldica abiatcen dire guciac, bainan harriac, gurutecan cirenetara heldu gabe, itzultcen dire bide erditaric, duten indar guciarekin, eta harricatzaileac berac dire joac direnac. Manatcen diote orduan soldadoei, balezta ukhaldica hilaraz detzatela. Hasten dire soldadoac, bainan, harricatzaileac bezain ungi, berac dire joac eta zaurthuac beren harma punta-zorrotceaz.

Orduan bederen icusi zuen gobernadoreac etzuela hoberic hekiei pairaraztea bilhatuz². Eman zuen manua ezpataz hilaraz cetzatela. Berri hori jakin zutenean, sainduac, bozcarioric handienean, cioten Jaincoari:

« Zucen da, Jauna, eske³rac eman dezarozkitzugin eta gorex dezagun zure icen saindua, gau eta egun guretzat izatu duzun ontasunaren gatic.

« Zoroac⁴ ez du begiric zure ontasun horren ederresteco⁵, eta aldiz gaichtaginac, hare ezagutuco da zure ontasuna nolacoa den, icusi dituzkenean bekhatoreac lastoa bezala erretcen hari direla.

« Lur huntan aphalduac eta gorderic atchiki nahi cituzten zurekilacoa zaocatenac; berentzat dukete, eta hori menderen mende, ahalke egiazcoa. Eta zu, Jainco bethiticacoa zarena, zu zare Jaun Guiz-Goicoa. »

Cantica hunen ondotic, oraino beren arimac Jaincoari gomen-daturic, escaini cituzten lephoac burregoen ezpatei, eta horrela utci zuten Inr hau, joaiteco zobazcoten ceruco doha xutasunex gozatcera.

¹ Ahhiduraren. — ² Cherkhatuz. — ³ Erroac. — ⁴ Adziratceco.

BURUILAREN 90^{oa}

SAN JEROME MORTUTIARRA

Hila 320^{oa}

Constance, Constantin handiaren semea, Erromaco inperadore celaric, sortu cen san Jerome Dalmacian, orai Autrichac bere azpico dagocan probintcia batean. Giristino cituen eta aberax burhasoac; horrengatic, beren herrietan ahal ciotena iracaxaraciric, igorri zuten Erromarat gehiago oraino ikhas ezan.

Jerome badago Erroman cenbeit denboraz, eta gero badabila Italiaco eta Franciac hiri aipatu guciac gaindi, non causituco duen cenbeit nagusi, ezdakien cerbeit iracasten ahal dionic. Lurraz hartua eta hemengo gauzez, cer da harrigarric, lur-reco axeginec¹ beretu bacioten bihotza, eta izatu bacen ere eroria? Ecin izan citeken bertela.

Ordean, laster bere baithan sarthua bazohan cenbeit adichkiderekin Sirian, iruzkiraco² aldetan, ciren mortuetarat³. Gure arimen exaiac axecaber⁴ handienarekin icusten du, aztaparretaric galdu duen gizon jakinxun huntaz joa izanen dela, ez balin badio hartu duen urhaxa utzarazten. Eta hortacotz kentcen diozca, batzu bertcen ondotic, bere adichkide guciac. Gero berriz, orhoitarazten du bera, jakinxunen artean zuen omen handiaz, iracurracazten diozca oraino, aintcietic guciz maite cituen munduco liburuac, eta ez-baian, denbora iraganari amodiozco begiratce⁵ bat eginarazten dio.

Hainbertcenarekin eri-gaizkitu cen, eta jadanic azken haxaren emaitera zohala uste izaiteco citeken, noiz eta ere Jaincoac agerraraci baitzuen izpirituz bere tribunalean. Jesus Janna aingeruez inguratua da, eta, begitarte zorrotz batekin, galdeten dio: Zu, nor zare? — Giristino naiz, ibardesten dio Jeromec. —

¹ Placerec. — ² Ekhilateo. — ³ Bortietalat. — ⁴ Phenaric. — ⁵ So.

Ez! erraiten dio Juieac, hori ez da hala! Munduco liburuetan da zure bihotza, eta ez Escritura sainduan. Eta berehala aingeru batzuec, azote ukhaldica, umateen¹ dute. Noizbeit, harritua atzarri cen, eta orduan, causitu cituen bere sorbaldac² uspelez³ denac urdinduac.

Handic aintcina-bai, harico da, bere ahal guciez, Escritura sainduaren ikhasten, bainan atzartee hartan zuen lazdua han duke berekin, bici gucicotzat. Geroan, juiamenduaz orhoitcean, idurituro zaio, entzuten duela juiearen mintzo samin hura, ikhara latzetan jarrico zaio gorphutza, eta, bere zoramenduan⁴ ez dakike gehiago non den.

Hala-ere etzuen oraino exitu debruac arima hunen loxaraztea edo erorraraztea. Eta San Jeromec berac erraiten darocu ethorteen citzaizeola mortu zokho hartan, gogora, Erromaco jostetagietaco irriac eta cantuac. Nigarrez egonki eta auben⁵ be-thierecoetan, bakhar-bakharra harrulien eta saien⁶ artean, gabaz lur huxaren gainean nahiz gorphutz gucia minberatua duen, egunaz errea iruzkiaz eta dena belztua, ura edaritzat, belhar edo erro⁷ gordein cerbeit janharri, eta, halaric ere, sutan zuela bihotza munduco axeginen guliciaz, erraiten darocu.

Su horren iraungiarazteco⁸, aste osoac iraganen ditu deusic jan gabe, harri bat hartu, eta, abuspez lurrari emana, harico da hartaz bulharren chehacatcen; azkenecotz mendi arteac eta errecac ez dire, haren othoitcei eta aubenei ihardestetic, nihoiz ichilduco.

Bicitce lazgarri hori zaramala bazuen bortzpasei urthe, haur-ride gaichto batzuen ganic etzuelacotz bakeric, utci cituenean hainbertce penitenteiez saindutuac eiren tokiac⁹; eta, aphur bat ibiliric bazter hetan eiren mortutiar sainduenen icusten, jo zuen Erromara.

Damas Aita sainduac, gogoz onez, bere aldean iduki¹⁰ zuen, bainan haren mintzo garratza gaitzexia izatu cen lurreco axe-

¹ Iratzarri. — ² Sjinac. — ³ Odolouriz. — ⁴ Enochentartzunian. — ⁵ Haxbeherapen. — ⁶ Basa ibicien. — ⁷ Zain. — ⁸ Hitarazteco. — ⁹ Gu-niac. — ¹⁰ Atehiki.

ginei estecatuegiac ciren gizon batzuez. Hartocotz eta bakharta-
sunaren guticia egundaino baino hazcarkiago piztu zaiolacotz
bihotcean, badoha berriz ere Jerusalemeco alderdiei buruz, bere
lehenagoco penitencia gogorretan bicitcera.

Bakharric, duen denboratic zathi on bat iragaiten du, eliza
gucian ezagutuac, irarcurtuac eta gorexiac diren liburu hai-
nitzen egiten, eta bertce zathi bat, oraino, cenbeit arimari sain-
dutasuneraco bidearen eracasten. Azkenerat, alitua¹ bere peni-
tenciez eta egintza sainduetz, noiz nahi eri cen. Eta huna cer
zaasat² berac bere ez ungi izaitearen gainean :

« Noiz arteraino, Jauna, utcico duzu, lur hunen gainean, zure
haurra? Bizkitartean zure icen saindua izan dadiela benedica-
tua, eta egina izan beikit nahi duzun bezala. Nolaz gaitzex de-
tzazket ene minac Jaunac darozkigunaz geroz emaiten eritasuna
eta osasuna? Hura da joiten gaituena; Hura da sendatcen gai-
tuena; Hura gure hilaraztailea eta biciaraztailea.

« Pairatceco³ dudan oinhaceac⁴ adiarazten⁵ darot ene ez deus-
tasuna; lur pichea⁶ batetarie egin nauela, eta ez naicela sor-
thua pairatceagatic⁷ baicen. Izan detzadala, beraz, Jaunac nahi
dituen oinhace guciac, sobra dohaxutasun duket, oinhace hau
kien bidez, balinbadut nere bekhatuen barkhamendua. »

San Jeromeren bihotza horrelaco sentimenduetan cen, sukhar
borthitz batez hartua izatu cenean. Orduan adichkideac ethorri
citzaizcon icustera, eta huna cer cioten erran sainduac begitar-
teric arinenarekin :

Zuen, ene aintcinean icustetic ezagutcen dut banohala. Adi-
chkideac, cer axegina darotan berri horrec emaiten! Horra be-
raz non hauxico diren lurrari estecatcen nauten lokharri gu-
ciac, eta lurrari utcico diot bekhaturat ekharraraci nahi nin-
duen gorphutza. Cergatic diote gizonec lazgarri dela, orai ni
naicen ordua?

* Joan dire ene lehenagoco beldurrac; ez naiz gehiago ikha-
retan. Ez, heriotcea ez da lazgarri gaichtoentzat baicic; Jesus

¹ Bigatia. — * Cian erraiten. — * Egarteco. — * Sofricariac. * En-
thelega erazten. — * Bouchi. — ⁷ Sofritciagatic.

gure Jaunac maithatu duenetic hunat ezti da, cenbat-nahi oin-
hacez inguratua izan dadien. Cer gozoa emaiten duen hobiaz
haindico dohaxutasunaren orhoitzapenac!

« Zuec ere nahi balinbaduzue ezti dela hiltcea ezagutu, dei-
thora zatue, ordu deino, zuen bekhatuac; zapha zuen haragia-
ren nahicundeac; etzazuela acholaric izan biciaz; bici zaitezte
deusentzat estecamenduric gabe eta Jesus Jaunaren amodioan,
eta izanen duzue guticiateen duzuen heriotcesaindu eta eztia.»

Horrela mintzatu den ondoan galdeten du Biatico zaindua;
eta comuniatu duenean bere fede bicia eta amodio kharsuac
emaiten diozcaten sentimenduekin, berriz ere entzuten dioz-
cate solhas hauc: « Cer irabacia enetzat hiltcea! Hemendic ain-
teina, Jesus Jauna baithan diteke ene bicia. Ondicozco¹ preson-
degi huntarie atheratcearekin, sartcea naiz Jaincoac beretzat
egin duen egongia ederrean.

« Oi, ene Dohaxutasuna! ilhunpe haukien ondotic izanen dut
argia; guduken ondotic, garhaisaria²; bicitre exiarazgarri
hunen ordain, eternitateco bicia. Hemen ixu ninteen, ceruan
Jesus Jaunac argitueo darozkit begiac; hemen oinhacen erdian
ninteen eta gorphutz ihartu baten azpico, ceruan Jesus Jauna
bera izanen da ene sari eta conxolatzaille bethierecoa.»

Gero berriz, irri ezti batekin, erraiten diote bere inguruan
dituenei: « Adichkide maiteac, has zaitezte laudoriozco cantica
cantateen, bere egoitza dohaxua sarraraztera naraman Jesus
guciz maitearen ohoretan.»

Hainberteenarekin gurutzatzen ditu besoac bulharren gainean
eta alchateen begiac cerurat; egiten ere du azken hax behera-
pen bat, eta arima saindu hura Jaincoaren gozamenera heldua
een.

IRACAXPENA

Jaincoaren juiamendu ikharagarrien beldurrac³ ekharrataz-
ten du arima, bekhatuari ihes egitera eta berfhutearen prati-
catcera. Tentacionetan beraz, orhoit juiamenduaz eta etzare

¹ Ondatz gaichtoco. — ² Erreconpenxa.

erorico: orhoit, noiz nahi, juiamenduaz eta errech¹ izanea zaitzu berthutearen praticatcea.

HIRRIAREN 4^{ta}

SAN FRANXES ASSISECOA ABADEA

Mia 1226^{ta}

Italetan, Assiseco hirian, soethu cen saindu hunen bicitean ez da deus harrigarri eta ederresgarri ez denic; eta min egitea du asco chehetasun berdin ukhigarri² litezkenen ecin erranae.

Franxesen aita eta ama aberax ciren eta ethorki³ handiticaco. Ama hau, gixtino kharsu cena, haur minekin cea eta ecin ukhanean, escale⁴ batec, ez bacea ere Jaincoac igortcen eion Aingeru bat, erranarazten dionean, heiarat⁵ eremanarazten hadu bere burua, han errechki izanen duela bere haurra; eta halachet gerthatu⁶ cen.

Haur hunc goicic eracuxi zuena, eta munduan cenon iraua ciona han cen, erromesentzateco⁷ amodio handi bat. Eteezaken bakhar bat ere utz cerbeit eman gabe. Munduan egonea da hogoita bortz urtheac arteraino, baina lohikeriaco bekhatuac ez dio nihoiz nothatuco⁸ ez gorphutza ez arima. Munduan hiltateen⁹ duena da aiphatua eta maithatua izaitea.

Eri gaizki den batez du casu egiten bakharric, cer bicitec ezdeusa ereman duen ordu arteraino; eta icusten du, salbatcecotz, behar lukela bertcela egin. Hargatic sendatu ceneco ahanctiac cituen eritasunean eta herioaren aintcinean hartu chede onac. Eta bere burua behar ciola munduari ezagutaraci, bazohan bere ustez gerlan haritcera; baina, bidean delatic, agercten zaio Jesu Christo gure Jauna eta erraiten dio: Franxes, itzul zaitte etcherat, nic nahi darotzut harraraci bertcelaco bandera bat.

¹ Aise. — ² Hounkigari. — ³ Arraza. — ⁴ Praube. — ⁵ Establiat edo barrokiat. — ⁶ Agitu. — ⁷ Praubentaco. — ⁸ Thonatuco. — ⁹ Cherkhaten.

Ordutic aintcina, cin-cinez, utci zuen mundua, eta, ahal zuen becenbat bakharric izaitea gatic, zaldiz zabilan maiz¹ hiritic campo. Aldi batez, lepradun batekin buru egiten du; eta bain da bere eritasunaz jana lepradun hura, non, Franxesec bazterteen baitu begia, eta zaldiari ostico bat emaiten, joan dadien zalhuago Bainan berehala, ahalcatua bere bihotceco gogortasunaz, itzultcen da lepraduna ganat, jausten da zalditic, sokhorri cerbeit emaiten dio, eta, hura ungi besarcaturic, lotcen da berriz ere bideari.

Caritatezco egintza² saildu horrec ezarri cion sutan bihotza Jaincoaren amodioaz. Etzuen geliago onic Jesu Christo gure Jaunaren pasioneari begira³ baicen. Gure Arrerosle maiteac ere egiten dio bigarren agertce bat: Gurutcean itzatua eta odola dariola zaio agertcen; eta entzuten diozcan hitz hauc baratcen zaizco, behin bethicotzat, gogoan: *Ene ondotic ethorri nahi duenac ukho egin bezo bere buruari, har dezala bere gurutcea eta jarraic beikit.*

Hitz hauc entzun bezain sarri, Franxesec uzten du etchea; eta, philda tchar batzuez jauntcia, diru pichea bat zarpan⁴ behar-ordu handitan diteken erromes cenbeiten sokhorritceco, abiatcen da elizaz-eliza, eta ahal dituen eri gucien arthatcen⁵.

Bainan horra non, Eliza batean, entzuten dituen, oraino, Ebanjelioco bertee hitz hauc: *Ez dezazuela izan ez urheric ez citharric zuen gerricoetan; bideco, ez dezazuela izan ez sakelari-ric, ez bi soineco, ez zapataric⁶, ez makhiliaric; eta arthikitcen⁷ du makhila, emaiten diru gucia, hartcen zurdazco⁸ soineco latz bat, eta, nahiz aita hasarretcen⁹ zaion, ustez galarraci behar diola etchearen omena, nahiz jendec ascotan harri-cateen duten eta zoro¹⁰ batentzat hartcen, nahiz laido eta eskernio ahal duten gucia pairarazten¹¹ dioten, ibilico da hargatic Franxes saildua hola-hola jendearen begia egin ez deino haren urhaxeic eta haren aphaltendu bere nahizcoei.*

¹ Ardura. — ² Obra. — ³ Soz. — ⁴ Sakelan. — ⁵ Soueñatcen. — ⁶ Os-kiric. — ⁷ Ourthoukiten. — ⁸ Bilhozco. — ⁹ Khechatcen edo amurtcen. — ¹⁰ Erzo. — ¹¹ Sofri erazten.

Orduan, bere bicitce sainduac emaiten dion botherearekin, hasten da Jesusec, ceruratcecotz, maatcen darocun bide herxiarren predicatcen. Bekhatoreac ikharatuac dire eta ukhituac. Galdetcen diote beraz cer behar duten egin salbatceco, eta othoizten dute bere haurtzat har detzan.

Bizkitartean gorplutceco begiez begira zaraman¹ bicitceari, eta etcen deus, hartan, jendearen urrun eta uzcur atchicaraz-garriric baicen. Dauden etchean ez dute deus jatecoric. Larretaco eta celhietaco belbarrac, eta oraino gordeinic, ciren hekien othuruntza² gaiic hoberenac.

Libururic ere, lehenbician etzuten, eta hekien othoizta cen. *Gure Aita*, edo gogoz zakiketen cenbeit psalmo; eta dena erran dezagun, gucien icusmenean, beren aita dohaxuac ezarria, bazuten gurutce handi bat, eta, hari begira, hari ciren, geroago hobeki, Jesu Christo gure Jauaaren pairamenen iracurteen. Hala-hala ceruco bidez jakin xun hardi, igorriac ciren husu³, bazter guciei buruz, gurutceco michterioaren predicatcera, lur-reco axegined⁴ ezdeustasunaren eta ceruco onthasunen balioaren munduari iracastera.

Franxes sainduaz denaz becenbatean, hura ere hari cen geroago eta hobeki arimaco biciaz bicitcen. Bacituen bi lan, eta hetan zohan haren denbora: othoiz egitea eta predicatcea. Jaincoaren bothere guciac bere escuetan, etcen egiten etzuen miracuiluric; nola nahico eritasuna izan zadiela, aski zuen nahi izaita, eta bethi eria sendatua cen, balin bacen ere bekhatuan sendaraci behar zuena. Hilac, hirur edo lau egun hetan hilic izanagatic ere, pitzarazten cituen.

Narnico probintcian causitcen du gizon bat ithoa lau egun hetan, pitzarazten du. Oriesico hirian ekhartcen diote haur bat hain gaizki egina non buruaz zangoac ukhitcen baititu, gurutcearen seinalea egiten du haren gainera, eta haurra chuchendu da. Assiseco hirian cen batez, suzco carrosa batean, agertcen zaiote bertce toki batean cituen haurrei.

Oficioaren emaiten hari den batez, chori batzuec burua haus-

¹ Erouaiten eian. — ² Apairu. — ³ Laster. — ⁴ Placeren.

ten cioten, officio haren emaiteco, berekin zuen lagunari : Ichil zaitezte, guc ofhoitza eman arteraino, erraiten diote choriei, eta choriac ichiltcen dire. Bertce behin, predicatcen hari celaric, inhara¹ batzuec beren cantuez airean zagocaten eliza, erraiten diote hekiei ere : Inhara ene arrebac, zaudezte ichilic predicatcen hari naiceno, eta inharaic ichiltcen dire.

Bertzalde, predicatcen cioten batzuetan choriei, edo arrainei, edo bildoxei², deitzen cituelaric bere anaiac edo arrebac, behar zutela Jaincoa laudatu, eta hari behar ciozcatela eskerrac eman ; eta adimenduric³ ez duten izaite hec, ceinec beren moldean, egiten zuten manatcen ciotena. Bertce aldi batez⁴, oraino, lakhetaraci zuen berekin oxo bat, jende batzuei aditcerat⁴ emaiteco, cein citezken hobendun predicatcen ciotena ez eginez.

Bainan san Franxesen onetan Jaincoac egin duen miraculuric handiena, erraiten ahal dugu izatu dela, hunec bere escuetan, oinetan eta sahexean izatu cituen zaurien miraculua. Hil behar zuenetic bi urthe lehen, Jondoni Micael aintcinean egiten zuen garizomaren egitera joan cen, bere baurride saindu batekin, Alvernaco mendiaren gainera. Gozo cein erranezco bat jastarazten dio hastean Jaincoac, gero, emendatcen dio izpirituco argia, eta erraiten dio : Har zazu Ebanjelioco liburua, hartaric ezagutaracico darotzut cer diteken zutaz, zure azken egunetan.

Lagunari zabalarazten dio san Franxesec liburua hirur aldiz, eta hiruetan, Passionecco Ebanjelioaren gainera dire erortcen hekien begiac. Hortaric icusi zuen sainduac, bere bician Jesusen urhaxei jarraiki cen bezala, beharco zuela, bururaino haren idurico izaiteagatic, cerbeit handiric pairatu.

Buruilaren hamalauean, Dona Gurutceez, igan cen mendiaren gainera, bethi bezala bihotza sufan Jaincoaren amodioaz ; eta horra non icusten duen Aingeru bat jausten cerutic, sei hegalekin. Casic ondoraino ere hurbiltcen zaio, eta agertcen zaio, hegal hekien gerizan⁵, Jesus gurutceficatua. Ordu berean, jasan

¹ Ainhera. — ² Achourier. — ³ Entheleguric. — ⁴ Enthelegatcerat edo conprenitecerat. — ⁵ Itzalian.

ahalaco oinhaceac¹ sentiteen ditu escuetan, oinetan eta sahaxean, zauri batzu egiten zaizco, odola ere joanen zaio hetaric bici deino, eta ikharagarriac izanen dire pairatuco dituenac; bainan cer gozoa etcioten causiteen gure Aita loriosac oinhace hekiei.

Bakharri: Jesusec egin cion ohorea citzaion handiegi, eta egiten cituen egin ahalac, nihorc etcetzon icus bere zauri maiteac. Ordean Jaincoaren nahia cen bertec ere ezagut cezaten cein zuen maite bere cerbitzari leiala; eta, bici celaric ere, hainitzac ciren jakin zutenac cer gracia handiac izatu cituen Jainco ganic.

Baratcen ahal gare, ageri da cein saindutasun gorara heldua cen, eta hala-ere bekhatore batentzat zagocan bere burua, cio-laric, Jaincoaren graciaz ez balitz idukia² izatu gaichtoac baino gaichtoago izanen cela.

Jadanic bacituen arimac milaca ceruco bidean ezarriac bere predicuez eta zaraman bicitec sainduaz; eta oraino goiz cela iduri zuten. Bainan ez! eri dela curriteen da berria.

Etceen orduan bere sor-herrian. Hala-hala Assistarrac, bel-durrez-eta gal geriza bat hain botherexua beren hiriarentzat, harmekin joan ciren haren bilha; hil behar bazuen, sor-herrian hil zadien.

Azken haxetara cenean, sainduac ezarraraci zuen bere burua ohetic canpo. eta lur huxaren gainean, cerbeit gehiagoren pairatceagatic. Orduan, oraino aldi bat, gomendatu ciozcan Jainco urricalmenduxuari³ arimaco aitatzat ezagutu nahi izatu zuten haurrac; eta gero, erranic Profetaren hitz hauc: «Atheraraz zazu, Jauna, ene arima presondegi huntaric, gorex⁴ ahal dezan zure icen saindua, * aphaldu zuen burua, hexi cituen begiac, eta ezarri zuen bere arima Jaincoaren escuetan, berrogoi eta bortzgarren urthean celaric.

IRACAXPENA

Escual-herrian berean hainitzac dire san Franxesen heren-ordre benedicatuan sarthuae direnac. Hec guciec beren-aitatzat

¹ Sofricariec. — ² Atchikia. — ³ Misericordiosari. — ⁴ Lorifica.

ezagutcen duten saindu handi hunen gainean contateen dute, eta egin dezakete. Ordean orhoit beitez cer zaioten galdetua Tiers-ordreco erregla sainduetz. Izan ditecela beraz ezti elkharentzat eta halaber haurride ez dituztenentzat, estecamenduric gabe munduco gaucentzat: maitha dezatela gurutcea, eta segur ditezke Aita san Franxesez bere haurtzat ezagutuco dituela.

URRIAREN 6^{oa}

SAN BRUNO, CHARTREUCO COMENTCAREN ALTCHATZAILEA

Hila 4101^{ena}

Cologne icena duen Alemaniaco hiri batean sortu cen Bruno. Mundutarrec dohaxu zaozcaten Saindu hunen burhasoac¹ aberax cirelacotz. Gristinoez aldiz aiphatuac ciren Jaincotiar handi cirelacotz. Ikhasteagatic Pariserat igorria, arte laburric barnean, hain ungi aintcinatu cen Bruno, non bera iracastzaile ezarri baitzuten Reimseco eliza nagusian.

Emaiten ere diote calonjegoa bat, apezgaiei iracasten haritceco carguarekin. Ordean laster unhatren² da munduco nahaskerien erdian izaitiaz, eta ceruco axegin³ pare gabecoen guticiaz hartua gogoan du ichiltasuna eta bakea behar dituela atceman, joanea balin bada ere cenbeit mortu⁴ zokhotarat. Huna cere zuen osoki hortaratu.

Munduarekin ecin osoki trencatuz hari celaric, hil cen nagusi bat guciez ezagutua, eta Brunoc ere escola egiten entzun zukena. Behar zuela beraz hilerrirano lagundu nagusi ohia, Elizan cea hunen ahide⁵ eta adichkidekin.

Eta horra non, cantariac eman ditueneco laugarren leccionearen hastean diren hitz hauc, *responde mihi, ihardex diezadac*, betbetan⁶ hilac altxatren duen burua, eta oihu egiten saminki⁷: Jainco guciez zuec arean escuetan naiz; ere bicitceari

¹ Aita eta ama. — ² Debeiatcen. — ³ Placer. — ⁴ Bortu. — ⁵ Ascari. — ⁶ Batetan. — ⁷ Ocenki.

atchica da Jainco gogo eta bihotzen miatzailea ¹. Othoitzac eta ehorztea hortan baratu ciren egun hartacotz.

Biharamunean, icustiar oste ²baten aintcinean, cantariac berriz ere cantatcen ditu aiphatu hitzac, eta berriz ere lehen eguneco oihua egiten du hilac. Hirurgarren egunean, hiri gucia bildua celariac abiatcen dituzte oraino othoitzac : *Ihardex diezadac* ; eta orduan, nagusi dohacabeac erraiten du : Eneac egin du, arthikia ³ naiz ! arthikia su-lama bethieracoetarat ! ez enetzat othoiteic egin.

Bertceac lezain ungi laztua eta harritua icusgarri hortaz, Brunoc erraiten diote bere adichkidei : Egizue, zuec, nahi duzuena, ni banoha nihorc icusico ez nauen tokietarat ⁴, nere bekhatuen auhendatcera ⁵. Sei lagun jarraitcen zaizco, eta zazpiac joiten dire Grenobleco aldetan diren mendi batzuei buruz.

Hiri hartan, orduan, baren apezpicu saindu bat Hugese deitcen cena. Apezpicu hunec, gau batez, amex hau egiten du : iduriteen zaio Jaincoac, Chartreu icena duten mendi arte batzuetan, altchatcen duela eliza bat ; iduriteen ere zaio, bera toki hartarat badohala ceruan ageri direnez bertcelaco diren zazpi izar ederren erdian.

Biharamunean bere amexari begira ⁶ zagolaric, jakin nahiz cer erran nahi othe zuen, athea ⁷ joiten dio norbeitec ; eta berehala, oinetara belhaunicatcen zaizcon zazpi arrotce erraiten diote : Gure Aita ona, urricalgakitzu ⁸ ! Ez dugu bertce guticiariac baicen ere gure arimaren salbatcea ; iguzu noabeit, jendetaric urrun, zokho bat ; han ez gaitecen gehiago bici cerucotzat baicic.

Badaki beraz orai, cer cion erraiten Jaincoac amex haren bidez ; hala-hala, dena boztua ⁹ gerthatcen ¹⁰ zaionaz eta gizon haukien khar sainduaz, atchikiteca ditu cenbeit egunez, eta badoha hekiei Chartreuco mendi-arten emaitera. Etcitzaion

¹ Ikherzaila. — ² Saldo. — ³ Ourthoukia edo aurdikia. — ⁴ Lekhietatlat. — ⁵ Deithoratcera. — ⁶ Soz. — ⁷ Boitha. — ⁸ Ukheza pictata galiziz. — ⁹ Alegerat a. — ¹⁰ Agitcen.

oraino nihori gogoratu basa ihicien gordagiac ciren toki hetan, egoitza altchateric.

Doidoia uda hastean dire urteen hango elhurrac, eta deusere ez da, han gairi, begiari asegin egiten ahal dionie. Oihan da ageri alde gucietarie, edo beren maceletan harri eta harri ha:cie ez duen cenbeit menli zorrotz. Baina Brunoc eta haren lagunec bazuten guticiatcen zutena.

Bakharrie, eztegi eta gozoegi celacotz izanen hekien bicitcea, elkharrekin eta etche berean egonez, baduke haurride bakbotchac bere etcho'a tcharra, eta ez dire elkharretaratcen othoitz egiteco eta Jaincoaren laudorioen cantateco haicic. Gaineraco deaboran harico dire edo liburu egitea edo bertee cerbeit escu-lanetan.

Botu egiten duen ez dutela nihoz, ez eta eri gaizki ditezken an ere, haragirie janen; zurdazco¹ larru arraseta gabaz eta egunaz ekharrico dutela; egun bakhar batzuez caupo, eginen dutela barur urthe gucian; eta elkharrekin ere nihoz solhas² bat egin gabe egonen direla.

San Brunoc utci zuen mundua, bere gorphutzarea zaphatceagatic eta balaz ceruaren irabazteco. Eta, han nahi zuen bezain aphas idukiteen³ ahal zuelacotz, zorion egiazco batez airean zagon haren bihotza.

Lazgarri ere dela horrelaco⁴ bicitcea diokegu, guc; baina Bruno ez da bera, eta haren lagunec erraiten daucute, bicitce hori ez dela gizonaren indarrez goragocoa, eta, hemen iragaitan erran dezagun, horra sarri bederatci ehun urthe san Brunoc baituela haurrac, orduan berac zaraman⁵ bicitce garrazaz, bici direnac. Cer ahalkea giristino lazoentzat!

San Bruno ecin egota cea sei urthe haicic bere mendi maiten artean; ecea Aita Saindu Urbain bigarrenac manu bat egin cion Erromarat joateco. Brunoc ez dezake bertela egin, badoha Erromarat. Haren lagunec uste zuten, beren aitarekin ciren ber, non nahi bakhartasunean izanen cirela; ordean laster

¹ Bilhozco. — ² Elhe. — ³ Atchikiten. — ⁴ Gisa hortaco. — ⁵ Erouaiten cian.

unhatu ciren hirico harraboxe.¹ Erdian, nahiz berentzat etche bat eman cioten Aita Sainduac, eta itzuli ciren Chartreuco morturat.

San Brunoc han berean aintcina egotu behar izatu zuen hortzpasei urthez; eta orduan, mundu guciari eta Frantciaco haurrei berei ere gordetcea gatic, egin nahi cituen penitenciac, Italian berean, Calabraco probinteian bilhatu ² zuen bigarren mortu bat; eta handie gaztigatcen ³ cioten bere Chartreuco haurrei, cer behar zuten egin Jaincoaren gogaraco izaiteco.

Bertcei gomendatcen cioten bicitcea zaramalarie berac ere egotu cen mendi haukien erdian bortiz edo sei urthez, eta jadanic han ere ezagutua cen, eta lehiatuki bilhatua handiez eta chumez ⁴, arimen eta gorputzen sokhorritceco zuen botherearen gatic. Hainitza ere izatu ciren beren aitatzat hartu nahi izatu zutenac.

Azkenean, han zuen haurride araldea eta Frantcian zuena gomendatu ciozcan Jaincoari, benedicatu cituen, eta, ereman zuen bicitce garratzari esker cerucotzat bildu cituen onthasunez gozatcera joaiteco, eztiki utci zuen haren arima sainduac lur hau, hiruetan hogoi eta sei urthetan.

IRACANPENA

Lur huntaco irabaci ttiki batzuen gatic gizonac cer nahi irriscutan ezartcen du noiz nahi bere bicia. Cergatic ez dugu saindu hunen begiekin so eginen ceruaren balioari? Hura da irabaci behar dugun onthasua. Harat heltceco sacrificioen egiten lagunt gaitzala san Bruno handiac!

URRIAREN 8^{no}

SANTA THAIZ, BEKHATOROS URRIKITUA

Laugarren mendean, Esiptoco comentuetan guci distiratcen zuten fraidetarie bat, cen Paphnuce saindua; saindu bat mira-

¹ Heroxen. — ² Cherkhatu. — ³ Mezu'cen — ⁴ Tchipiez.

cuilu egiteco ahala zuena, eta Jaincoac, asco arimen onetan, harat-hunat zabilana. Bada¹, horrela², Paphnucec bere saretan sarraraci, eta Jaincoa ganat itzularaci cituen arimen artean gehienic aiphatuac izan direnetarie bat, da santa Thaiz.

Ez da errana, Esiptoan, cein hiritaco cen Thaiz, ez cein hiritan bici cen, Jaincoaren maithatcen hasi aintcinitic. Dakiguna da, bera ondoan agertu cen bezain gaichtoricaco ama dohacabe baten alaba cela. Ama hunec, Jaincoaren beldurraren eta amodioaren hacia erain orde³ here haurraren bihotcean, egin cituen egin-ahalac phozoinkeria gucien hari edanarazteco. Eraiteen araberaco izatu ciren uztac.

Thaiz, bertzalde, cen guciz begicoa. Hala-hala, hainitzac eiren galarazten cituen arimac; eta bain urrun bedatua cen haren tzarkerien omena, non Paphnucec berac, here comentuan, entzuten baitu hetaz mintzatcen; Jaincoac urricari⁴ zuelacotz bekhatoros hau, ciren heldu Paphnuceraino hunen berriac.

Jaincoac, bide onean sarraraciz bekhaturz cargatua den arima hau, nahi diote adiaraci⁵ zola-zolaraino jauxiac ditezkenei berei, cein diren handi haren misericordiac. Hortacotz manateen dio Paphnuci, dohala haur prodigo hunea bilha⁶. Uzten da beraz sainduac fraide arropa, hartcen ditu mundutar soineco eder batzu: zarpan⁷ ere ezartcen da diruketa⁸ on bat, eta gero badohaco Thaizi, harenetarie izan behar balu bezala. Jakinki bekhatoros hunec sinhesten cituela erlisioneco egia handienac, iduriteen citzaion haukien bidez cerbeit egin cezakela.

Emana zaionean beraz Thaizi mintzatcea, erraiten dio: Ereman nazazu orai, jende ez Jainco, nihore icusico ez gaituen tokira⁹. — Ordean, ihardesten dio Thaizec, nola nahizare Jaincoaren begiari gorde, ez denaz geroz deus hanc icusten ez duenic? — Eta zue, Thaiz, erraiten dio Paphnuce sainduac, zue hori jakin, eta nola duzu bekhokia¹⁰ Jaincoaren damustateco¹¹ begira¹² dagokizun denboran! Hainbertcetan Jainco Jauna da-

¹ Arren. — ² Gi a hortan. — ³ Ereiteco lekhatan. — ⁴ Pietate. — ⁵ Enthelega eraci. — ⁶ Cherkha. — ⁷ Sakelaa. — ⁸ Diharu teka. — ⁹ Lekhila. — ¹⁰ Ausarcia. — ¹¹ Laidostateco. — ¹² So.

mustaraci duzuna, Thaiz. emazu contu; cer diteke laster zotaz?

Hitz horiez eta bertee holacoz harrítua, bekhatoros ondicoz-coa¹ belhaunicatcen da Paphnuceñ oinetan; eta, nigarra begian, erraiten dio: Ene Aita, mana diezadazut nahi duzun penitencia gucia; esperantza dut, zure othoitcei esker, Jainco Jau-nari urricalduco² natzaiola. Ez darozkitzut hirur oren baicie galdetcen; eta banoha nahi duzun tokirat; nitaz nahi duzuna eginen duzu.

Ordu berean harteen ditu bildu dituen onthasun eta pusca eder guciac, badaramazca³ plazaren erdira, eta han emaiten diote su, zoratua⁴ begira dagocon icustiar osteari⁵ erraiten dio-laric: Bere arimaz errencuraric duenac egin beza bertee hainbertee; eta gero, joaiten da Paphnuce sainduarekin.

Paphnuceec emazte comentu batetarat ereman zuen, eta han ezarri barne berech batean, hesten ciolaric athea⁶, nihore ecin zabal rezaken bezala. Barne hartara, doidoia argia harteen zuen leiho ttiki batetarie, beharco diote eman, eta oraño nihoiz⁷ deusie erran gabe, ogi idor pichca⁸ bat eta ura.

Jadaneco preso, Thaizec ezagutcen du Paphnuce badohakola, eta erraiten dio: Niganic urrundu gabe, ene Aita guci-z ona, erran diezadazut cer othoitz behar diodan egin Jaincoari. Paphnuceec ihardesten dio: Thaiz, ez dohatzu Jainco handiaren icenaren aiphatcea, ez haren gamathainbertee bekhatuz cikhinduac⁹ diren escuen altchatcea. Bakharric, iruzkiraco¹⁰ alderat buruz, egiozu othoitz hau: Zu, ezdeusetarie egin nauzuna, urricai zakizkit".

Bazuen hirur urthe Thaiz penitencia ikhargarri hortan zago-la, Jaincoac jakinaraci cionean Paphnuce sainduari arima gaicho haren nigarrac eta aubenac¹¹ onbexiac cirela.

Paphnuce badoha gogo onez, eta lehiarie handianean, Thai-

¹ Malerosa. — ² Pietate egingarri exituco. — ³ Erouaiten duta. — ⁴ Enuchentia. — ⁵ Saldoari. — ⁶ Fortna. — ⁷ Jagoiti. — ⁸ Bouchi. — ⁹ Theintiac. — ¹⁰ Ekhitaco. — ¹¹ Ukhezu pietate nitaz. — ¹² Haxpe-renac.

zen romentura : eta, athearen idekitcearekin, emaiten dio berria, bekhatuac barkhatuac zaizcola. Nola diteke hori? ihardesten dio Thaz bekhatoros urrikituac¹. Horra hirur urthe, eta oraino ecin egin dut bertceric, baiçen ere, ene bekhatu guciac metan² ezartcen nituelaric, okhaztatua³, hekiei begira egoitea.

Hori bera cen, zuc egin behar cinuena, ihardesten dio sainduac; eta orai, emankiotzu Jaincoari eskerrac, egin darozkitzun gracia handiez.

Athera⁴ cen beraz Thaz, bere presondegian egon nahiagoa. Ordean jadanic ondua⁵ cen cerucotzat; eta Jaincoac laster hartu zuen bere ganat, urriki⁶ hain handiaz, eta hirur urthe iraun zuten nigarrez cerna merecitu zuen arima saindua.

IRACAXPENA

Eroriac ditezkenec. balire ere lecearen zolaraino jauxiac, cergatic exituco dute beren salbamenduaz? Ez! ez dezatela exi! Hekientzat ere baditeke cerucobidea eracuxicodioten cenbeit Paphuce. Hekiei ere Jaincoac hedatcen diote escua; ecen haren misericordiec ez dute nihon bazterric.

JURRIAREN 9^{AN}

SAN DENIS, ATHENACO ETA PARISECO

LEHEN APEZPICUA, LEHEN MENDEAREN AZKENEAN.

Gure Nagusi Jaincozcoa bederatci urthetan celaric sorthu cen Denis Grecian, Athenaco hirian. Burhasoac⁷ aberax cituen; eta ikhasaraci cioten, hirico escoletan ikhas citeken gucia. Gero oraino, gehiago ikhas ahal cezan, igorri zuten Esiptorat.

Han cen Jesu Chrisio Gure Jauna hil cenean; eta orducotzat jakinki, iruzkiac⁸ egunaz bere argia galteen badu, ilhargia⁹

¹ Dolutiac. — ² Athian. — ³ Desgoustatia. — ⁴ Elkhi. — ⁵ Hountia. — ⁶ Dolumen. — ⁷ Aita eta amae. — ⁸ Ekbiac. — ⁹ Argizaria.

haren eta lurraren artean jartzen delacotz duela egiten: eta jakinki oraino, hori ez dela gerthatcen ahal ilhargi berriarekin baicic, harritzen da, iruzkia nola ilhuntzen ahal den, deus lanhoric gabe, ilhargia bethean denaz geroz.

Cer da hau? galdegiten dio bere nagusiari; eta hunec ihardesten dio: Cerbeit ganbio edo nahaskeria baditeke ceruan.

Denisec aldiz, geroago harrituagoa, erraiten dio, aphur baten buruan: Bietaric bat, edo munduaren Jaincoa pairamenetan¹ da, edo munduari arrodac² hauxi zaizco, eta orai funditcera doha. Jaincoac cion emaiten Denisi asmu³ hori.

Esiptoa utciric Athenarat itzulia, lehen lehena cen Denis Greciaco gizon argitu eta zuhurren artean.

Bada⁴, egun batez, aiphatu hiri huntaco filosofa batzuec aurkhitzen⁵ dute Juduen tenploan gizon arrotz bat, adi⁶ ez detzaketen gauza batzuec mintzo. Cer dituen erraiteco hec, gizona badaramate⁷ beren biltzarreac egiten cituzten tokira⁸. Eta ban, arrotza, erran nahi baita Jondoni Paulo, mintzo zaiote ceru lurrac eta gizona ez deusetaric egin dituen Jaincoaz, hasarre⁹ dela gizonentzat, eta manateen diotela penitencia egitea, ceren eta hartua baitu, hiletaric pitzaraci duenaz mundua juiatu gogo duen eguna.

Denisec bazuen entzunic aski. Jarraikitzen da Jondoni Paulori, badabila harekin hirur urthez, eta gero, bera ordenatua da Athenaco Apezpicu. Jondoni Pauloren mintzoari hexi cituzten beharriac Atheniesec; eta, etcelacotz hango, igorri zuten beren artetic. Bainan mintzatzaile berri huni cer erran dezakete? Eta bizkitartean gaitzi zaioten gucia predicatcen du.

Hec lurraren gainean ciren jakintxuenei etzaiote eder iduritzen, ordu arteraino debruaren muthil baicen ez direla izatu entzutea. Halaric ere emeki-emeki gogoetatcen dire hazcarrenac, emaiten dire beha cer daasan¹⁰ Denisec, begira¹¹ daude harrituac, hunec daraman bicitce gogorrari eta geroago eta hobeki durdu

¹ Solricarietan. — ² Errotac. — ³ Ousna. — ⁴ Arren. — ⁵ Causitcen. — ⁶ Enthelega. — ⁷ Errouaiten die. — ⁸ Lekhila. — ⁹ Khechu. — ¹⁰ Erraiten dian. — ¹¹ Soz.

zatuac¹ dire. Azkenecotz hiri guciaz nahi duena egiten du sainduac, eta bere inguruan icustea du giristino aralde² bat nihon ez bezalacoa.

San Denisez badakigu oraino, Birjina Sainduarena hiltceco orduan, haren aldean³ cela, joana Amasamur⁴ haren lur huntaco azken benedicionen hartcera Jondoni Joanes apostoluarekin, San Policarperekin eta bertee dicipuluekin.

Cenbeit urtheren buruan, orducotzat Asian gaindi eta Russiaco diren herri batzuetan gaindibilia, joaiten zaio icustera Jondoni Joanesi; eta Apostolu hau mintzateen zaio hainbertce bazterherri, orduan oraino, Jainco-legea ezagutcen etzutenez; cerbeit, bizkitartean behar litekela egin hekien gatic ere. Eta, nahiz osoki zabartua den, Denisi berari sartcen zaio bihotcean, cenbeit giristino berri ahal duen egin, norapeit joaiteco guticia.

Badoha beraz san Cleman Aita Sainduari buruz, bi lagun, Rustique eta Eleuthere, berekin harturic. Aita Sainduac etzuen berteric bilhatcen⁵ baicen ere, hura bezalaco ainteindaribaten azpico, cenbeit soldadoren igortcea Frantciarat eta Espainiarat. Emaiten dio Denisi hamar bat lagun saindu, eta guciac heltcen dire Frantciaco lurretarat.

San Denisec ezartcen du lagun hetaric bakhotecha cein bere escualdeari⁶ buruz, eta berac, cituen bi lagunekin, hartcea du Pariseraco bidea.

Lehenbician badago hiriz canpotic, eta egun guciez hara zaio geroago eta gehiago jende; jadanic hainitzac dire bathaioa hartua duteac, eta alchateen ditu lau eliza ttiki⁷.

Azkenean, icena Lizbius zuen jaua batec othoizten du, sardadien birian, eta escaintcen dio bere ethea. Sainduac gogotic onhartu zuen, eta hirian berean eman cen Jainco bakhar baten eta haren Seme gure gatic gizon egin denaren ezagutarazten: oraino aphur bat, eta hiri gucia beretua duke.

Bainan Frescennin hirico gobernadore cenac preso harraraci zuen bere lagunekin. Uste ere zuen ebun urthetaco gizon bat

¹ Dudatia. — ² Saldo. — ³ Khantiaq. — ⁴ Trende. — ⁵ Cherkhatcen. — ⁶ Gaintiari. — ⁷ Tchipi.

laster loxaracico zuela, eta amesten zuen hura garhaituz geroz, bertec ere eginen zutela hanc bezala, ordean etzakien gizona ceren egiteco gai¹ den Jaincoaren graciarekia batean.

Azote ukhaldica chehacarazten ditu lehenic hiruac, eta pairamenen erdian, Denisec eta hunen lagunec eskerrac ciozcaten Jesus Jaunari, ceren emaiten cioten bere calitetic edatera.

Uste cituen baino hazcarragohiekien causitceac gobernadorea bera iciten du; hala-ere igortcen ditu gaztelurat, agian pairatu dituztenen orhoitzapenac beren baithan sarraracico dituela. Bainan ez, biharamuncan icusten du egundaino bezain gogor direla beren olico hitzetan.

Hala-hala, coleraz samindua, ezarrarazten du apezpicu Saindua burdin keheta baten gainean, eta azpitic su emanarazten dio. Egiten ere du egin-ahala haren errearazteco, bainan deus minic gabe egoiten da Saindua, su haren gainean, tiranoac exia hartu arteraino.

Huntarichinlan, sarrarazten ditu hiruac labe gorritu batean, eta handic ere, lucez haren barnean egon diren ondoan, osoric atheratcen² dire. Lehoiuei arthicarazten³ ditu, bazca orde, eta lehoiuec milicateen diozcate beren zauriac. Gurutecan ezarrarazten ditu, eta, gurutetic ere gure erlisione sainduaz mintzo celacotz Denis, condenatuac dire haizcoraz joac izaiterat.

Halachet izatu cea eginic. Erori ciren lurrerat hirur sainduen gorputzac; ordean san Denisena, erori bezain sarri, chutitucen, eta, escuetan hartcen zuelaric bere burua, ereman zuen bi oreanen bidean, orai san Deniseco⁴ hiria den tokiraio.

IRACAXPENA

Saindu hauc barregoen aintcinean borthiztu dituen Jaincoari galde diozogun, haukien arartecotasunaz, hazcar gaitzala, guc ere garhait ahal detzagun gure arimaco exaiac.

¹ Capable. — ² Elkhiten. — ³ Ourthouki crazten edo aurdi-arazten.

IRRIAREN 22^{na}

SANTA THERESA BIRJINA

Hila 1582^{na}

Avila deitzen den Espainiako hirian sortu zen Theresa. Zuzpi urthetan, sainduen bicitcea iracurteen zuelacotz, bere odolaren Jesu Christorentzat ichurtceco guticiarie handiena lothu citzaion; eta etchetic abiatu zen anaia ttiki batekin, Morocco herrietarat buruz; han agian¹ izanen zutela zorion² hori. Osaba batec bidean causitu cituen, eta etcherat erakharri.

Haurkeria bat baicic etcen arren³ egintza hori, hala-ere eman cezaken ordutic asmateerat⁴, cerbeit bertceac ez bezalaco izanen cela geroan Theresa. Orduan oraino, etcetzazken athera⁵ gogotic hitz hauc: Bethi! bethi pairatcea⁶ ifernuan; bethi! bethi dohaxu izaitea ceruan; eta horrela⁷ heldu zen sainduki hamabi urthetaraino.

Adin hartan, ama hil citzaio lacotz, cenbeit liburu arinen iracurteen hasi cen; hala-hala, ttikitu citzaion Jaincoaren beldurra; ordean, behar-ere, aita ezarri zuen comentuan. Eta nahiz hastean etcitzaion hainitz gogaraco bicitce ilhun hura, hargatic emeki-emeki bere baithan sarthu cen, berari ere seroratceco guticia ethorri citzaion, eta hemezortci urthetan serora cen.

Orduan oraino, etcen erdizca baicic Jesusena. Nagusi dibino harc hainitcetan erran eta ezagutaraci dio amodio bereci bat ekhartcen diola, eta hala-ere Theresa egonen da, bai, bekbatu mortalic egin gabe, bainan ere Jesusena osoki izan gabe; egonen da hogoibat urthez ez-baian lazo. Haren atzarrarazteco⁸, behartcen zaio Jesus Jaunari bi aldiz agertu.

Orduan bakharric ezagutcen du Theresac cein den eskergabea izatu, eta, den gucia eta behin bethicotzat, emaiten da

¹ Balinba. — ² Irousite. — ³ Nahiz etcen. — ⁴ Phenxatcera. — ⁵ El-
kbi. — ⁶ Sofritcia. — ⁷ Gisa hortan. — ⁸ Iratzarrarazteco.

Jaunari. Handic aintcina Jaincoarentzat zuen amodioac cer dion pairaraci, cer dion eragin, ez da errech¹ contatcea lerro guti batzuetan.

Bici den egun gucietaco chedea, eta chede atcemanen duena, hauche diteke : Egiteco dituzken gucien egitea diteken hobekiena; eta bethi hobekienic denaren egitea.

Jadanic Carmeliten comentuan da, ordean etzaio aski borhitz han eta orduco carmeliten bertce comentuetan daramaten² bicitea. Onhexarazten diote beraz egingogo duena cenbeit lagunei, eta hekiekin altchatcen du, haste-hasteen zuen garrastasuenean bicico den Carmeliten etche berria; eta, hau ez askiz, hunen ondotic aintcina, bertceric-ere altchatuco du.

Orai, Jaincoarentzat zuen amodioaz, Jaincoac harentzat zuen ontasunaz, huna cenbeit hitz. Hautaric iracurtzaileac bere baithan egin dezake, nolacoac citezken haren bertce berthuteac.

Amodio haren suaz berotuac ciren erraiten cituen solhas³ guciac; su sacratu hura ezagan zuen oraino bere egintzi⁴ gucietan. Jaincoa maite zuelacotz, ecin handiagoco bozcarioa zuen ceren Jaincoa den dena, eta ceren bere baithan badituen loriazco eta dohaxutasunezco bilduna⁵ ecin agor ditezkenac. Jesu Christo Gure Jauna maite zuelacotz ecin erranezco axegina⁶ zuen, *Credoan*, hitz haukien cantatcen entzuteaz: *cujus regni non erit finis; ceinaren erregegoac ez baituko akhabantzaric.*

Jesus Jauna maite zuelacotz, bethiereco nigarretan cen, lur gucia hartua zaocaten bekhatuen gatic. Jesus Jauna maite zuelacotz, egin ezaken becenbatean, ihes egiten cion bertcekin izaituari, bere Guciz-Maitearekin baicen ez mintzatcea gatic. Jesus Jauna maite zuelacotz, hax-beherapenetan zagon, noiz hauxico ciren lurrari estecatcen zuten lokharriac, eta lehenbaino leben joan nahiz bere Jaun maiteaganat.

Jesus Jauna maite zuelacotz, ecin ase citeken pairamenez, eta

¹ Aise. — ² Erouaiten dien. — ³ Eihe. — ⁴ Obra. — ⁵ Tresora. — ⁶ Placora.

cion maiz : *Aut pati aut mori, edo paira edo hil.* Ecin nagoke pairatu gabe, ez pairatcecotz hil nadila.

Bihotza gairdi egina Jesusen amodioaz, eteen bici harentzat baicic, eteen mintzo hartaz baicic. Jesus Jauna cen eta Hura bakharric Theresarentzat on cena. Jesusez canpo, Jesus hau gabe citezken axeginei eteioten khirestasunic baicic causi-teen.

Jesus Christo Gure Jaunac ere ihardesten zuen hainbertee amodiori sinhex ditoken baino handiago ciren graciaz eta samurtasunaz¹; maiz agertcea citzaion, eta ezagatceerat emaiten ciozcan asco gauza nihore jakin behar eteituenac.

Behin batez, Aita Eternalac ere adiaraztea² dio, hau dela haren aldean³, eta erraiten dio : « Ene haurra, eman darozkitzut Ene semea, Izpiritu saindua eta Birjina hori (Andre dena Maria eracusten cion); zue, cer emaiten ahal darotazu ordjainez?⁴ » Behin oraino, comunione ondoan, eskerren emaiten hari celaric, Jesus Jaunac hartcea diozca escuac eta erraiten dio : « Theresa nere bihotcean zakharzcat⁵, eizaitut ahanteico. »

Huna oraino, egun batez, cer cion entzun Jesusi : « Bada-kizu, ene haurra, zure eta que arlean dea ezcontza, eta nereazarela osoki, nic dudan gucia ere zurea da. Ene lanac, ene oin-hareac⁶ zureac dire, hekiei emanic den saria galde diozozuke⁷ ene Aitari. » Bertce ceabait aldiz erraiten cion Jesus Jaunac : « Theresa, galde diezadazut nahi duzan gucia, ez dut deus emaiten ahal ez darotzudanic. »

Erraiten ahal da beraz Theresa saindua mintzo citzaiola Jesusi haur bat bere aitaric lañoenari bezala, emazte bat senharric eztieneri bezala.

Eta orai, cer ez liteke erraitceco Aldareco sacramendu sainduarentzat zuen atchikimenduaz? Nola adiaraz michterio ikharagarri hortarat hurbiltcean⁸ zuea bihotceco garbitasuna⁹ eta khar saindua?

¹ Tredeciaz. — ² Ardura. — ³ Enthelega erazten. — ⁴ Khantian. — ⁵ Ekhartzen zutut. — ⁶ Sofricari. — ⁷ Galthateen ahal diozu. — ⁸ Hullan-
teian. — ⁹ Chahutarzun.

Hogoita hirur urthez, egun guciez comunitacen du, eta comunitatu aintcinetic beharco da cobesatu, bekhatuic chumena¹ bere baithan ezagutcen balin badu : eta orduan haren bihotza labe khaldan² den baten idurico jarrico da, bazter gucien erretceco gai³ den su handi baten pare; comunitacera zobalaric, ezagun zuen, deusec ez balio gorde bezain ungi icusten zuela Jaun handia; ecea ageri zuen harritua cela ceren bere bihotza behar cion zabaldu.

Comunitatu zuenean, abantciz lurra eta lurrecoac, hantche zagon begira⁴ Jaun maite hari, edo haren oiactan Madalena saindua bezala, edo oraino besarca lothua zuen amodio guciarikin. Ascotan ez dakike gehiago non den. Gerthatu⁵ ere zaio, aldi bakhar batzuetan, elizatic atherateca iruzkiari⁶ bezala argia zariola.

Erramu igande batez, nahi dio bere Guciz Maiteari egin lehenago Juduec egin cioten baino ungi-ethorri⁷ hobea, eta, bihotzaren hobeki sustatecco bezala, irexi gabe ahoan zagocan ostia saindua; betbetan⁸ iduriccen zaio odolez bethea duela ahoa, eta gorphutz gucia ere odol hartaz bustia duela.

Dena harritua, birjina amodioxu hanc ez daki gehiago cer egin. Ordean berehala erraiten dio Jesusec : « Horra Juduec ichurraraci darokidaten odola; hargatic, zu, ene haur maitea, etzaitecela icit! Zuretzat ez diteke, odol horri esker, urricalmenduric⁹ haicen. »

Amodio kharsu hori joan celacotz, hogoita zazpi urthez, bethi emendatuz, azkenecotz hainbertcetaraino borthiztua cen non, agorandua¹⁰ ecin gehiago jasanez¹¹, erraiten baitcien Jaincoari : Edo hainbertce amodioren idukigia¹². Jauna, handi diezadazut, edo ereman nazazu mundu huataric. Eta horra, bere guciz Maiteaganat joateco, nola eman zuen azken haxa, hiruetan hogoi eta zazpi urthetan, Jaincoarentzat zuen amodioa ecin gehiago jasanez.

¹ Tchipiena. — ² Sutan. — ³ Capable. — ⁴ So. — ⁵ Agitu. — ⁶ Ekhia-ri. — ⁷ Batzarre. — ⁸ Bat-batetan. — ⁹ Misericordiaric. — ¹⁰ Jardiexio. — ¹¹ Egariz. — ¹² Lekhia.

IRACAXPENA

Harriteen gare sainda huni entzuten diozcagunean hitz hauc : Edo paira edo hil. Ordean bazakien Theresac, Jesus Jauna ganic jakina, ez dugula lur huntan bertce zorionic behar, baicen ere haren cerbitzatcea; lur huntan garela haren ezagutarazteco eta harc bezala pairatceco; bazakien pairamena dela guretzat, jauregi batean ezarria izan behar duen harri picatuarentzat legunteen duen marteilu ukhaldia dena; alfer cela beraz bicitcea ez pairatcécotz. Ah! orhoitcen bagine egia hautaz, cein gogo onez har ginetzazken axecabeac¹ eta oinhaceac², axecabe eta oinhace guciac!

URRIAREN 19^{an}

SAN GRAT, OLORONECO APEZPICUA

Hila seigarren mendean.

Donapaleutic Zuberoco haran³ ederrean sartcen denac causitcen duen lehen herria, da Sarricota; eta huni datchicola⁴, da bertce herri ttiki bat, Lichose.

Bada⁵, duela hamabi edo hamahirur ehun urthe, Lichose Gamitchalecoec igortcen zuten hauzora Grat, zortci edo bederatci urthetaco heren haurra, gaitciru bat artho mailea⁶ cezala; eta Behetico etheco andreac emaiten cion haurrari gaitciru arthoa, erraiten ciolaric, irri batekin : Apezpicu zaitezkenean, ceronec⁷ pagatuco nauzu.

Andre harc etzuen uste hitz hori nihortaz altchatua izanen cela; eta hargatic, egungo egunean ere, Zuberotar aitac solhas⁸ hori dio contatcen semeari, san Gratez mintzo zaionean.

Gamitchalea ethe ttikia celacotz, burhasoec⁹ etcioten geroan ere onthasun handiric uzten ahal Grati; bainan onthasun guciac

¹ Nahigabiac. — ² Sofricariac. — ³ Naba edo celhai. — ⁴ Acheica edo contra. — ⁵ Arren. — ⁶ Jesan. — ⁷ Ciharec. — ⁸ Elhe. — ⁹ Ait-eta-amec.

baino balio gehiago duena, erain zuten haren bihotz samurrean¹, Jaincoaren beldurraren eta amodioaren hacia.

Nonbeit bere begitar-tean eta ibiltze ez-tian ere eracusten zuken bekhatuaren hax phozoinatuac etciola lanhatu arima; ecen iragaile arrotz batec, asmatuz chede handiric izaiten ahal zuela Jaincoac haur ttiki haren gaínean, ezarri zuen apez-teco jakin behar direnen ikhasten. Haurrac, liburutan hari celaric, etzuen ahanzten bere arima, eta, adinean aintcinatecearekin, bazohan geroago eta jakinxunago eta sainduago.

Apezte cen egunetan giristinoec bazuten asco haido eta esker-nio jasaiteco², Euric errege ariano gaichtagin bat hari citzaio-telacotz, lausenguz eta larderiaz³ beren lege saindua utzaraci beharrez. Orduan lehenago Tobias sainduac bere Judu lagunei becenbat umgi egiten cioten Grat gazteac giristinoei, chuchen zohana bere bide onean fincaraciz, dudan cenaren izpiritua argi-tuz, erori citezkenac chutiaraciz.

Hala-hala, Oloroneco hiria apezpicuz gabetu cenean, diosesa gucian aiphatua celacotz, bera izatu cen hango apezpicu orde-natua. Eta diote, orduan orhoitu cela haurrean baratu citzaion zorraz, eta ere pagatu zuela.

Apezpicutuz geroz zaraman⁴ bicitce gogorraren orhoitzapena ez da osoki galdua; huna ecen cer den erranic: Behin, uri eraunxi⁵ batez atcemana izaitera zohalaric, gogoeta hau, ten-tacione bat bezala, ethorri citzaion izpiritura: egon citeken uri hori, aphur bat, hasi gabe; eta, gogoeta horren gaztigatceco, gakhoz⁶ lotcen du gerrian burdinazco gathe bat, eta gakhoa arthikitcen⁷ du ur handirat. Horra nola ibilico den zahartu arteraino.

Noizbeit, orducotzat ahuldua celaric adinaz, muthilac era-custen dio gakho bat, ekharri dioten arrainean causitu duela. Sainduac errechki⁸ ezagutu zuen, Jaincoaren nahia cela ken cezan bere gerrico lazgarria, eta halachet egin zuen.

¹ Trendian. — ² Egarteco. — ³ Ba'acuz eta mehatchuz. — ⁴ Erouaiten cian. — ⁵ Uhar. — ⁶ Giltzaz. — ⁷ Ourthoukifen edo surditcen. — ⁸ Aise.

Saindu hunen bertce miracuidu eta egintza¹ ederretarie gauza gutia da, gue dakiguna. Badakigu bakharrie Oloroneco hiriac, apezpicu zuen bezala, gobernadore ere hautatu zuela. Hortarie ezagun da cein cen maithatua.

Badakigu oraino bicitce luce baten buruan, eta osaki zahartua celarie, arimen salbatecco kharrac eginaraci ciola Aragonia Jacaraco piaia lucea. Espainiaco bidean, Biarnuco azken herrietarie bat, da Exaute. Jacara dohalarie, herri huntara ceneco iruzkia² aphaldua zuen. Jaun errotozac othoizten du beraz, han egon dadiela biharamuneraino. Ez, ihardesten dio apezpicu sainduac, helteen ahal naiz ihuneco mortu zolara, banoia aintcina; etcheracoan ere icusico nauzu. Eta gaua etchola cenbeitetan iraganic, biharamunean sarthu cen Jacaco jaun apezpicuaren etchean.

Bere egitecoec hori ciotelacotz manatcen, badago cenbeit denbora hiri huntan, eta egunetic egunera handituz zohan jendeac san Gratentzat zuen amodioa. Azkenecotz atheratcea³ aski zuen, chume eta larri⁴, jende oste⁵ bat z ingaratua izaiteco.

Goiz batez, bakharrie, harritua dago jendea, ceren ez duen bertce egunez bezala icusten. Eri gaizki cen saindua. Berri hori jakin deneco, elizarat laster egiten dute guciec, Jaincoari galdez, hici bat hain baliosa atchic ezola oraino bere cerbitzari kharsuari. Bainan ez! haren orenac joa zuen! Eta, azken haxa eman zuela jakin cen. Ordean populuac cion, bihotzminic handienarekin: Sainduaren arima j an zaicu, ordean haren gorphutza, ez darocu nihore eremanen.

Bizkitartean Jaun Apezpicuac erraiten diote: Ene haur maiteac, zuec bezain ungi, guticiateen⁶ nuke egiazco saindu hunen gorphutzaren beiratcea, geriza⁷ dezan gure diosesa; bainan irabaci ala galtce gehiago ginuke Jaincoaren nahiari bihurtcen balinbagine? Huna beraz, cer behar dugun egin: Mando ixu haten gainean estecatuco dugu; eta gero, mandoa, hiritic campo ezartcen dugularie, itzultcen bada hirirat, gurea diteke Jain-

¹ Ohra. — ² Ekhia. — ³ Jelkhatia. — ⁴ Tchipi eta handi. — ⁵ Sahdo. — ⁶ Desirateen. — ⁷ Beira.

coaren adiehkide handiaren gorputza; eta aldiz, bere hirira balinbadarama, badakikegu ohointza bat egiter dugula. Populuac onhexi zuen solhas hori.

Bilhateen¹ dute beraz mando ixu bat; eta gero, carga saindua, bicia izatu balitz bezala, ganean, ezarteen dute hiritic canpo eta Zaragozarat buruz. Mandoa, bizpahirur urbax egin ditueneco, itzultcen da gibelerat. Hala-hala, bozcarioan da jendegucia, ustez hirian baratcecotan itzuli dela. Ez, ez! etzaiote baratuco! Carrica guciac gandi, eta geroago eta biciago, harteen du Oloroneraco bidea, hiria trichteciari handiencan uzten delaric. Bainan cer egin? ezagun cen aingeru cenbeitec zaramala mando ixua hain chuchen.

Urdozera ceneco mandoa, gaua cen. Han iragaiten delaric, etchola batzuen inguruan ciren arthaldeac² jaucica abiateen dire, joareac³ alal bezain hazcarki inharrosten dituztelaric; artzainac ere, harrituac cer othe den, ceinatcen dire eta belhau-nicatcen.

Exautera he!du cencan, beranta orducotz, jaun Errotora cen bakharric oherat joaitecoa. Hunec sumateen⁴ du zaldidun batec athea⁵ jo diola; eta idekitcen dio, nor den galdegini gabe; errechki du ezagutcen bere apezpicu maiteac diola hedatcen escua; bainan ordu berean, eta hitzez erran ditcken baino lasterrago, mandoac harteen du berriz ere bere bidea. Bakharric Errotorari, etcezan uste izan amex batez izatu cela liluratua⁶, ahurrean baratu eiztaion sainduaren erhi bat.

Oloroneco lurretan mandoa sartcen, eta argia urratcera zohan.

Mando hunec orai, belduric gabe nihore ebax diozor bere carga baliosa, emaiten du lurrari estico bat, eta edaten du astiroki⁷, nihoiz⁸ gehiago ez agortcecotaa, orduan sorthu cen ithurritic. Gero, abiateen da urbax ezti batean, ez unhatua⁹ celacotz, bainan apecei eta jendeari emaitcagatic aldatuac eta

¹ Cherkhateen. — ² Saldoac. — ³ Cintzarriac. — ⁴ Bogatcen edo nabaitcen. — ⁵ Bortha. — ⁶ Ilusua edo enganatia. — ⁷ Aicinarek n. — ⁸ Jagoiti. — ⁹ Eñheric edo akhitia.

aphainduac beren Aitaren bidera ethortceco behar zuten denbora.

Hainbertcenarekin catedraleco ezkila¹ guciac airean jarleen dire beren baitharic. Harrabox² eta errepica uste gabeco horiec atzarrarazten³ dute hiria: berehala leibo guciac idekitcen dire, carrica harteen du jendeac, eliza ondoco plazan murruca⁴ bilteen da; eta diote batzuec bertcei: Cer da? Cer da? Ceren gatic egundaino izan ez den bezalaco errepica hori?

Azkenean ohartcen dire Sarrantzaco aldetic ethortcen den zaldidun bati: Gure Jaun Apezpicua! gure Aita ona! oilu egiten dute hurbilenic direnec; hekien ondotic oilu bera dute egiten guciac. Bainan hekien bozcarioaz etzuen lucez iraun behar. Laster ezagutu zuten ez zutela, mando ixu baten gainean, beren artzain sainduaren gorphutza baicie.

Bizkitartean, jende oste baten erdian, batzu nigarrez daudelaric eta bertceac Jaincoaren laudorioen cantateen hariki, helteen da mando ixua, nihoren laguntzaric gabe eliza nagusico athera; han belhaunicateen da, eta harteen diote gomendatu cioten carga sacratua; eta, lucez agerian idukia izatu cen ondoan, ehortci zuten Elizan berean. Mandoac ere irabaci zuen lanic gabeco bicitce on bat, eta gehiago dena, nahiz sortcez ixu cen, argitu eitzazcon begiac.

Jaincoaren miracuilu bati esker, hanc duelacotz zaindu erlisionearen exai guciataric, Oloroneco catedrallean aurkliteen da, orai ere, san Graten gorphutza; eta hiri hunec eta hunen ondoco bertce herriec balakikete erraitea, cein den balios saindu hunen arartecotasunarea azpian jarteea asco behar orduetan, eta bereciki, harri eraunxiataric beira gaitzan Jaincoac.

Han gaindi jendeac dio, eta orai arteraino izatu denetic mintzo da, san Graten gorphutza ukhi⁵ ondoan, benedicatua izatu den chirio⁷ bat erretcen hari den tokietan⁸ aire gaitchoac ez duela deus calteric⁹ egiten ahal. Harriaren gainean duen bo-

¹ Ceñiac. — ² Herrox. — ³ Iratzar erazten. — ⁴ Athian edo metaca. — ⁵ Causiteen. — ⁶ Hoznki. — ⁷ Torcha. — ⁸ Lekhietan. — ⁹ Gaitziac.

there hortaz, baliteke hainitz erraiteco; huna bakharric ichtoria bat: Behin galdegiten cion, duela cenbeit urthe, Oloroneco jaun erroter batec, urrandic ethorria cen gizon bati: Nola hartu cinuten san Grat baithan duzuen sinhestea? Iehkilinga¹ eta orratz saltzaile baten ganic, ihardesten du arrotzac. Lehen aldia zuen ethortcen cela gure herrirat, eta etche gucietan galde hau cioten egitea: Cer saltcen darocuzu harriac ez gaitzan gehiago jo?

Azkenean, unhatua² galde beraren izaiteaz, tratulari ttikiac ihardesten du: « Salduco dautzuet behar duzuen; errazue, cenbat aldiz izatu zarete ukhituac? — Aurthen seigarren aldicotz arrunt, ihardesten diote gure herritarrec; eta orai, ez daki gu cen sainduri oihu egin. — Ez duzue san Grat othoiztu? — Ez, saindu hori bacela ere ezginakien — Zobazte beraz Oloronerat, ekhar zazue handic Chirio benedicatu, eta hitz dautzuet ez darotzuela gehiago harriac minic eginen. »

Ene aita, dio arrotzac oraino, igorria izatu cen bertee lagun batekin hiri huntara urthe hartan, ondocoetan ere bai; eta lucez etzuen gehiago harriric egin,

Bakharric berrogoi eta zortzico errepublicac eman zarocun meratzat, gizon bat nonbeitic ethorria, eta Jaincoric bacela ere etzakiena. Hari behatu ginelacotz etcen nibor chirioqueta igorria izatu, eta harriac chehatu ginituen; ondoco hirur urthetan hala-hala egiten gaitu; bainan bortz garren urthean, gure merac ihes egin behar izatu zuen; berriz abiatu ginen chirioqueta, eta egundaino geroz, san Grati eskerrac, ez du gure herrian harriric egiten.

IRACAXPENA

Harri eraunxia dena uzta ontcera dohanarentzat, da bekhatu mortala arimarentzat; galdegin dezagun beraz Jaincoari, gutartean sorthua den saindu hau hartuz ararteco, calerna³ gaichtoetaric bezain ungi, beira gaitzala bekhatutic, eta ardiex dezaucula berac predicatu darocun Eban elioari jarraikitceco gracia.

¹ Iehkilinga. — ² Debeiatia edo enoatia. — ³ Tenpesta.

URRIAREN 19^{na}

SAN PIARRES ALCANTARACOA

Hila 1562^{***}

Espanian sorthu cen saindu hau, Portugaleco mugan, Alcantara deitzen den herri batean. Oraino haur-haurra, doidoia adimenduzco ¹ urthetan, eta jadanic Piarres Itikia ² mintzo citzaion Jaincoari gorputheco begientzat ageri izatu balu bezala. Hama sei urthetacotz bazuen asco jakitate, eta munduan ere errech citzaioke bicitpide baten izaitea. Hargatic uztendu mundua eta sartcen da Franciscanoen ethe batean.

Apezteco adinera ceneco saindu handi bat cen. Hala-hala, arima hainitz Jaincoa ganat itzularazten duelaric, badabila predicatcen; berantchago icendatua da zagon etchearen nagusi, eta ondoan oraino, bere probintziaco haurride gucien aintcindari. Bainan beretzat eta arima bekhatuan bici cirenentzat asti ³ gehiagoren izaiteagatic, uzten du aintcindarigoa, eta iragaiten da san Franxesen erreglari jarraikiagoa cen bertce ethe bate-tarat.

Etche hartan cen, eta egundaino baino khar gehiagorekin hari Jaincoaren ezagutcen eta ezagutarazten, izatu cenecan apezpicu ordenatua. Bainan apezpicu, bi urthe zuen bicitceco; eta jadanic azken egunera cen, Franciscanoei eta munduan bici cirenei ungeric handienac eginic.

Horra laburzki, san Piarres Alcantaracoaren bicitcea. Orai, chehetasun cenbeiten bidez, icusico ditugu hunen baithan gehienic distiratu duten berthuteac.

Comentuan sarthu ceneco, hartu zuen nihori ez deuseri nihoiz ⁴ ez begirateco ⁵ chedea. Lagunac etcituen ezagutcen mintzotic baicen. Badago lucez jakin gabe, bere ganbara zola duen ala harriz ala taulaz. Haren barura egun gucietacoa cen,

¹ Enthelegiaren. — ² Tchipia. — ³ Aicina. — ⁴ Secula. — ⁵ Sogiteco.

eta oraino othuruntzan ¹, izanen balinbada ere erigaizki, ez du hartuco bertceric baicen ere ogi eta ur.

Berrogoi urthez eginen duen lo chorta diteke, edo belhaunen gainera burua ezarria, edo oraino jarria zangoen gainera, eta buruz, edo parctara ², edo gela buru batetic bertcera estecatua zagocan soca baten gainera.

Bere biei gucian, oraino, ibilico da orthux ³, abarcenic ere gabe; bakharric, gerthateen ⁴ citzaionean minhartcea ⁵ zango batean, jaunzten zuen orduan espartin bat, eta uzten bertee zangoa aintcietic cen bezala, ciolaric, ez da zucen zango bat eri delaric bertcea sopra ungi izan dadien.

Jesus Jaunac ezagutaraci cion ungi, cer oinbace ⁶ ikharagarriac hartu cituen guregatic, eta orduz geroz Piarresen bihotzac ere etzuen bertceric bilhateen ⁷ baicic ere pairatcea ⁸ eta bethi pairatcea; orduz geroz, oraino, icustea zuten maiz ⁹, gurutce handi baten oinetan, besoac hedatuac eta turrustaz zariola nigarra.

Horrela zaramazcan oren osoac, lurraren gainean cela osoki ahantcia. Gehiago dena, bihotza jarraikitcen cen izpirituari, eta izpirituac eta bihotzac althateen zuten gorphutza bera ere. Eta, deus haztaric izatu ezpalu bezala, bazagon gurutce handi haren besoen parrean ¹⁰, lurric ez bertceric deus ukhi gabe.

Egiten zuen oraino bere egin-ahala gurutcearen amodio horren bertcei ere harrarazteco, eta hortacotzat maite zuen gurutce berri landatcea; eta eginaraci cituen ondoan, bideac cenbat nahi gaitz izan citecela, hala-ere bazaramazcan ¹¹ berac, bizcarrean, ezarri nahi cituen tokiraino.

Ez ingu hobeki ezagutarazten ahal nolacoa cen saindu hunc garbitasunarentzat ¹² zuen amodioa, baicen ere egun batez egin zuena contatuz: Behin beraz, sumatcen ¹³ du bere bihotcean lohikeriaren sua eta bekhaturaco ekharrimendu handi bat. Ordu

¹ Apairian. — ² Murrila. — ³ Oinlux. — ⁴ Agiteen. — ⁵ Mainkhateca. — ⁶ Sofricari. — ⁷ Cherkhatcen. — ⁸ Sofricia. — ⁹ Ardura. — ¹⁰ Kretcian. — ¹¹ Eroutaiten zutian. — ¹² Chshutarzunarentaco. — ¹³ Bogatcen edo nabaitcen.

berean jauci¹ egiten du arrantcezco sasi² baten erdira. Dena odoletan da, gorphutz gucia larrutua du, eta oraino exaia ez dela urrundu icusten! Cer dezake bertceric egin?

Negua cen; eta ohartcen da aldean duen aintciran³ badela putzu⁴ bat gaina hormatua⁴: Badaki, badaki cer egin! lasterca joaiten da putzu hartara, sartcen da lephoraino urean, eta burua bakharric canpo, hantchet egonen da, gorphutcic baduela ezagutcen dueno.

Horrelaco⁵ amodioa zuena Jaincoarentzat, errech da sinhes-tea Jaincoac ere maite zuela, eta eracusten ere ciola ekhartcen cion amodioa.

Gerthatu zaio ascotan, jaux ahalaco uriac hari cirelaric, batiere busti gabe biderean gainean egoitea. Behin batez, gauac atcemaiten du elhurra hari delaric; aintcina joaita ecin egin dezake, eta aldiz den tokian⁶ baratceco ez da nihon etcheric ageri; bainan huna cer artha⁷ dagocau Jaincoac bere haur maiteaz: elhurra airean gelditcen da hegatz⁸ orde, sainduaren gorphutza ukhitu⁹ gabe; eta, elhurrezco egongia tiki baten barnean, iragaiten du gaua berekin cituen lagun batzuekin, ez hoztu ez busti gabe.

Bertce behin, Taje deitzen den ur handia iragaiteco zuen; ordean urac handi dire eta zorrotz; untci-zainari etzaio iduric-teen iragan ditekela bicia gal-ordean¹⁰ ezarri gabe. Piarres, baitzpada¹¹ aintcina joan behar delacotz, abiatcen da uraren gainean, eta, zubitic egin zuken bezain errechki¹², iragaiten du hibaia¹³.

Erroman izatu cen batez berekin ibili zuen makhila, etchera cenean, landatu zuen. Makhila hura phico-ondo bilhacatcen da, eta ekharrico dituen phicoec sendaracico dituzte asco gaitzekin ditezken eriac.

Baldin lurrac badire idortez chukatuac, Jaincoari galdegiten cion uria, eta egiten zuen uri. Uri sobraz edo bertce cerbeit

¹ Salto. — ² Elborrizco tharta. — ³ Ihitztoan. — ⁴ Ciphu. — ⁵ Kharreuntatia. — ⁶ Gisa hortaco. — ⁷ Gunian. — ⁸ Arrancura. — ⁹ Teilatu. — ¹⁰ Galtceco lanjerrian. — ¹¹ Nesesarioki. — ¹² Aise. — ¹³ Hour handia.

gaitzez uztac galtcera balinbazohacin, galdegiten zuen oraino atheria edo bertce gaitzac urrun citecela, eta egiten zuen atheri, uzta etcen galtcen.

Azkenaren buruan, bazuen san Piarresec aski pairaturic, bazuen aski irabaci eginic; santa Theresaren laguntcen hari delaric, hunec altchatu nahi zuen etche baten egiten, eriteen da, hiruetan hogoi eta hirur urthetan.

Hartcen du Biatico Saindua, amodiozco nigarrez begitarte bustia, eta belhaunico, nahiz jadanic zain guciac hilac dituen; hartcen du ere Anoncioa¹, eta gero, bilha ethorri zaion Andre dena Mariari begira², eta diozcalaric Profetaren hitz hauc: *Bozcariatu naiz ekharri darokidaten berria entzutean, joanen gare Jaunaren etcherat*, eman zuen bere azken haxa, eta joan cen haren arima Jaincoaz beraz gozatcerat.

IRACAXPENA

Garhaitcen ez badugu garhaituco gaituen exai hau, gorputza, ez dezagula artha eta mainen³ erdian iduc⁴, aiticic zapha dezagun mortificacionen eta penitentcien bidez; eta horrela, ez badugu ere munduan saindu hunec izatu duen conxolacionetarie, bederen ceruan badukegu Jainco Jaunaren icustea.

ÏRRIAREN 21^{na}

SAN HILARION MORTUTIARRA

Hila 372^{na}

Palestinaco hiri ttiki batean sorthu cen Hilarion. Jainco falxuen adoratzaile cituen aita eta ama; baina Alexandriaco hirirat igorria da bere escolen egitera, eta han ezagutcen eta besareatcen du giristino-legea.

Orduan, oraino bici cen, mortu urrun batean, san Antonio handia. Hilarion gazteari hainbertcecoac erraiten diozcate saindu hunec daraman bicitceaz, non, bere begiz icusteco guti-

¹ Oliadura. — ² Soz. — ³ Souañ eta mañuskerien. — ⁴ Atchie.

ciaz hartua, joaiten baita hura zagon tokiraino¹. Gero, harekin egonik bi hilabetez, haren bicitcearen ungi gogoan hartzen, itzuli cen etcherat, burhasoac² hil citzaizcolacotz.

Burhaso hec utci diote onthasun, eta aberax izaiten ahal da. Bainan etcen hori Hilarionen amexa. Onthasunen erdia emaiten diote erromesei³, gaineracoa haurridei, eta, nahiz hamabortz urthe baicic ez duen, nahiz oraino, osasun⁴ tcharrecoa den, badoha morturat : behar duela san Antonioren bicitceaz bici.

Larru arraseco zurdazco⁵ baten gordagailu, zacu bat soinean, hankien gainera, capusailac⁶ bezala, gibel-aintcinac harteen diczean acienda larru bat, ihizeo eta hostozco etchola tiki batean zuen bere egoitza. Egun gucian, janharitzat, hamabortz bat plico duke. Eta oraino ez deuskeria hori ez du hartuco ilhun nabarrean baicic. Gan eta egun denbora gucia darama, gogoz zakizcan psalmoen emaiten, edo Jaincoaren amodicoan pulunpatua⁷.

Hala-ere debruac pizarazten du hura baithan ordu arteraino ezagutean etzuen su bat, lobikeriaco sua. Jaidura⁸ hortaz okhaztatua⁹, Hilarion gazteac erraiten dio bere gorphutzari : Cein haicen dohacabea¹⁰, halaco hersturetan idukico haut, eta halaco cargac emanen darotzaiat, non, haztaren azpian lehertua, erorico¹¹ baihaiz. Hilarico haut gosez eta egarriz. Ukhanen dituc pairatceco¹² hotza eta beroa, formatua¹³ edo errea izaiteraino-coan : hartuagoa izan hadien hire bebarrez ceen-ez hire axeginez. Atchiki zuen hitza.

Handic aintcina, bazaramazcan bi edo hirur egun, deusic jan gabe. Doidoia chutic egonki, eta hari cen haintzurren edo saski egiten; eta horrela garhaitu zuen bere gorphutza. Bizkitartean debruac, loxaraci nahiz, egiten ciozcan asma¹⁴ ahalac : Behin, bereciki, azote ukhaldica, chehacatu zuen; hilen ere zuen beharbada, bainan, gurutcearen seinalea eginez, bortchatu zuen ihes joaitera.

¹ Lekhiladrano. — ² Aita eta amac. — ³ Prauber. — ⁴ Osagarri. — ⁵ Bilhozco. — ⁶ Escapilac. — ⁷ Galdia. — ⁸ Enjogidura. — ⁹ Desgustatia. — ¹⁰ Malerousa. — ¹¹ Sofritceco. — ¹² Kharrountatia. — ¹³ Phenxa.

Erran dugu nolacoacc iren haren soinecoac, nolacoa cen haren etchola. Bada¹, egun batez, ethortcen zaizco ohoïn batzu, icialdi bat behar diotela eman; eta erraiten diote: « Cer egin cinezake ohoïnac ethortcen balaitzu? - Cer achola du ohoinez, deusic ez duenac? ihardesten diote sainduac. — Baina bicia bederen kentcen ahal darotzute. — Hala da, kentcen ahal darotet bicia; baina, orai hil, ala sarrichago hil, cer dohakit? Ez dut deus errencuraric bihotcean.» Hain eiren gaichtagin hec ukhituac² izatu solhas³ horren entzuteaz, non Jaincoa ganat itzuli baitciren, deithoracten zutelari ordu arterainoco bicitcea.

Lurreco gaucei hoïn guti eta Jaincozcoei hain ungi atchikia cen gizon gazte hura, hogoita bi urthe baicen etzuelari oraino, saristatua cen miracuilu egiteco ahalaz. Eri guciec bazuten hura baïthan beren miricua; eta sendatuetari hainitzec othoizten zuten, utz cetzala haren aldean bicitcera.

Handie aintcina, etciren bakharric mundutarrac ethortcen beren gaitzen sendaraztera; erran diteke bethi inguratua cela, ceruco bidearen ikhastera, ascotan urrundic, ethortcen citzaicon Fraidez. Bera ere bazabilan haurride hekien icusten, izan citecela bakharea etcholetan, edo elkharrekin comentuetan.

Behin batez, hirur mila lagunekin horrela zabilalaric, joiten du baratceco athea⁴, dirua maite zuela zaasaten Fraide baten etchola aintcinean. Lehen aldian ez dukela entzun, joiten dio berriz, hurrugarren aldian ere bai; ordean bethi alferretan: mahaxac onduac⁵ eiren.

Bortchatua delacotz beraz aintcainago joaitera, gelditcen da bere lagun haukiekin Sabas deitcen zuten Fraide baten etcholaren ondoan. Eta hunec, gogo onez, sarraraci cituen baratcean, nahi zuten gucia jan cezatela. Etzuen deusic galdu. Ecen Hilarion sainduac benedicatu zuen baratce hartaco mahaxa, eta Sabasec urthe hartan, egin zuen behinere baino arno gehiago. Lehen Fraideac aldiz gutti bat zuen bakharric egin, eta dena ere piztu⁵ citzaion berehala.

¹ Arren. — ² Hounkitiac. — ³ Bortha. — ⁴ Hountiac. — ⁵ Agretu.

Egiten cituen miracuiluen gatic, eta ethorkizunean ¹ gerthatu² behar cirenac jakinarazten cituelacotz, bazter gucieta-raino hedatua cen saindu hunen omena. Hala-bala, beldurrez hemen berean izan dezan, gizonen ganic, Jaincoaganic baicen nahi etzuen saria, badoha gordetcera, oihan urrun batetarat; eta han ere atceman duelacotz jendeac, ethortcen da Siciliarat.

Isla huntan sarthu cen nihortaz ezagutua izan gabe; uste zuen aintcina ere, ichiltasun eta bake berean egoitea; ordean huna cer gerthatu cen: Gaichtoez ³ hartua cen gizon batec erraiten diote bere zaintzailei: Ereman nazazue Hilarionen gana; hare sendaracico nau. Hilarionen manura debruac atheratu ciren gizon haren gorphutecic, bainan jendeac ere bazakien Hilarion non cen; eta, tokiz aldaratu behar duelacotz berriz ere, badoha saindua Dalmaciarat.

Dalmaciaco Iurretan bacen suge ikharagarri bat jendez eta aciendaz bici cena. Hilarionec sobera maite du bere laguna berri haukien entzuteco ezacholkeriarekin. Pitzarazten du beraz su handi bat, eta manateen dio sugeari sar dadiela su hartan; eta horrela, sugea erretcen da.

Epidauresco hiria ere harritua zagon, behin batez, beldurrez irex cezan ixasoac, nihoiz⁴ ez bezala handi eta hasarre⁵ celacotz. Ekharrazten dute saindua. Hunec, hirur aldiz, egiten du gurutcearen seinalea ixasoari buruz, eta ixasoa, ematua⁶, sartcen da bere cedarrietan. Herri hetan ere etzagoken gehiago, sobera ungi icusia cen. Iragaiten da beraz Chipraco islarat; eta isla huntaco mendi bizrar batean, Paphozeco hiriari hurbil, egonen da, hamabi urthez.

Noizbeit, orducotzat badituelaric lauetan hogoi urthe, jakiten du urhaxic handienaren egitera dohala. Gaztigatcen⁷ dio beraz, lehenago mortuan celaric, maitenic zuen haurrideari, akhabo direla haren guduac, eta uzten diozeala ebanjelioaren liburua eta bere capusaila. Eta gero, othoizten ditu Paphozeco jende

¹ Gerouan. — ² Agitu. — ³ Behargabez. — ⁴ Behinere. — ⁵ Khechu. — ⁶ Fategatus. — ⁷ Mezutcen.

batzu, ehortz dezatela haren gorputza hil citekea bezain sarri, soinean dakkharren¹ larru arrasecoarekin.

Azken ha xaren emaitera zohalaric, Jaincoaren juiamenduaren beldurrez ikharetan zagon oraino : Izatu othe dut Jaincoac bere cerbitzariet galdetcen dioten bihotceco garbitasuna²? cion bere buruari; eta curaie hartceco, zaasan³ :

« Athera⁴ hadi, ene arima, ceren beldur haiz? Erraiten daiat, herriz ere, athera hadien ! Cerc idukitcen⁵ hau? Hor a sarri, hiruetan hogoi eta hamar urthe Jesu Christoren ondote habilala ; eta oraino herioac icitcen? » Hitz horiee erraitearekin joan cen arima Jaincotiar hura irabaci cituen sariez gozateera.

IRACANPENA

Deus bekhatuic gabe, eta bethiereco penitencietan bici izatu direnac, ikharetan balin badaozca juiamenduaren othoizapenac, nolaz gue, icusico dugu herioa hurbiltcen, bõtere beldurric gabe, ez badugu cerbeit penitencia egiten, hainbertce bekhatu egin dukegun ondoan !

JURRIAREN 28^{to}

SAN SIMON ETA SAN JUDE, APOSTOLUAC

Simon Apostolua da, omeneria baten arabera, Canaco herrian bere eztei egunean, Gure Nagusi Dibinoa mahainean icusi zuen gizon dohaxu hura. Omeneria berac erraiten darocu, icusi zuenean ura arno bilhacatua, utci zuela bere andrea bitjinitatearen beiratceagatic, eta Jesu-Christoren apostolu izaiteco.

Jude, Jondoni Jacõbe ttikiagoaren anaia cen, eta horrela Jesusen cusi. Jesusec maite zuen hainitz apostolu hau; ez, erran gabe doha, ahide⁶ zuelacotz, hainan bere khar biciaren gatic.

¹ Ekharten cian. — ² Chahutarzun. — ³ Erraiten cian. — ⁴ Elkhi. — ⁵ Edukiten edo atchikitcen. — ⁶ Ascaci.

Jesu-Christo Gure Jaunac erran ciotenean Apostoluei, azken afaritic lekhora¹, agertuco cela maite zutenei, san Judec galdegín cion, cergatic etcen munduari ere agertuco; eta ahapaldi hortaz eracusterat eman zuen, uste zuela mundu huntaco Errege izaitera zohala gure Salbatzailea. Bainan Jesusec, bere ihardesteaz, adiarari² cion, munduari etzaiola emana izaiten ahal Jaincoaren icustea, hainbertcecoac egiten dituenaz geroz arimen galarazteco.

Huna, orai, cer dakigun bi Apostolu haükien urhaxen gainean. Berteekin batean icusi ondcan gure Arreroslea piztua eta ceruetarat igaten, bertee apostoluec bezala cigorrez³ joac izatu cirenean, haritu ciren predicatcen, lehenbician, Judeaco eta Syriaco probintcietan; gero, Apostoluekilaco azken hiltzarrean, egín cituzten Sinhestenduteco articulu hauc: San Simonec: *Sinhesten dut Sainduen parteliertasunean*; San Judec: *Sinhesten dut bekhatuén barkhamenduan*; eta utci cituzten biecer beren herria eta lagunac, joateco berentzat cituzten tokiei Ebanjelioaren ezagutaraztera.

San Simonec Esiptoac zuen beretzat; bainan bada erraile, Africaco bertce hainitz probintcietan gaindi ibiliric, Angletarrera ere heldu cela. San Judec Mesopotamian, Asiaco bazter batean zuen bere lanteia⁴. Ordean diote oraino, Arabian eta Idumean ere erain zuela eta sorteen icusi haci ona.

Azkenean, elkharretaratu direlacotz, badohaci biac Persiaco Erresumarat. Casic mundua bere azpico eta Juduac bere muthil izatu dituen populuaren garhaitcera dire abiatcen. Eta, oiñan idor batean sua egiten den bezala, hedatuco da, Persia gucian, Ebanjelio sainduaren argia; conta ahal baino gehiago haur badukete, hil gabe, han gaindi. Ordean han behar citzaioten oraino gerthatu,⁵ beren odolaren Jesusen gatic ichurteca.

Hiltcea contatu gabe, behardagu chehetasun cerbeit eman haukien Persiaco egintcen gainean; ez da, ondicotz, osoki segura den tokitic jakina, ordean ez diteke bazterrerat utz, ez balitzaio bezala deus sinhesteric emana izaiten ahal.

¹ Lande. — ² Enthelega eraci. — ³ Zaharoz. — ⁴ Lankhia. — ⁵ Agitu

Erranic da beraz, Persian sarthu cirenean causitu zutela Baradae, Erregeren harmaden aintcindaria, Indianoen gudu-cateerat joateco, jadanie bidean. Harmadaren artean sarteen dire bi Apostoluac, batere beldurric gabe, eta ordu berean, aztien eta jainco falxuen bultoen¹ ahoz mintzo ciren debruce emaiten dute ihesari.

Hauzoan aurkhitzen² den bulto bati galdegiten diote, nolaz aztiec beren jakitatea galdu duten: eta bulto hunc ihardesten du, ichilie zaudela, Simon eta Jude, Jesu-Christoren Apostolu dohaxuac, han cirelacotz; gizon hec biac, hain cirela harri-garriac, non ez baiteen hekien aintcinean zagoken debruric.

Hainitzac dire, berri horren ondotic, abiatcen direnac gure Apostoluac behar dituztela galaraci. Erraiten ere diote Baradaki, hilaraz detzala edo aztiakilacoa egina duela. Bainan aintcindari hunc sopra zuhurtcia zuen, deus gehiagocoric gabe, bi gizonen hiltceerat condenatceco. Ekharrazten ditu bere aintcinera, egiten du solhas³ hekiekin, eta hain ungi mintzo direla zaio iduritcen, non bere gerizaren⁴ azpian hartcen baititu.

Sainduac adiaraci cioten orduan, cein cen tiki debruen jakitatea, eta, hortacotz, cein ciren alfer hekiengatic egiten ciren urhaxac. Gero, egiaz mintzo zaizcola sinhex ahal dezan, eta ezagutceerat emaitco, cenbatez den, izpiritu gaichtoena ez bezolacoa hekien podorea⁵, uzten dituzte aztiac eta bultoac mintzatcera; erran dezatela cer izanen den hastera dohan gertaz. Debruce diote, gerla lucea izanen dela, eta odol hainitz ichurico dela. — Gezurrac! gezurrac horiec! ihardesten dute Apostoluec. Bihar, oraico tenore⁶ berean, helduco zaitzu Indiano gizonac, zure Erregearen azpico jartcen direla erraitera, eta bakearen galdetcera.

Gauzac erran bezala joan ciren, eta harmadetaco aintcindaria, Errege bere ethecoekin eta populutic gehienac⁷ berehala giristinotcen dire; nahiz bi azti guciz aiphatuac cirener

¹ Potreten. — ² Causi cen. — ³ Elhe. — ⁴ Itzalaren. — ⁵ Botheria. — ⁶ Ordu. — ⁷ Haboroac.

egiten dituzten asma¹ ahalac, jendearen aintcina liluratua² atchikhitceco. Beren amarru³ gucien gatic ere garhaituac dire aztiac, eta Babyloneco hiri handia Apostoluei utciz, joan ciren bertce hiri batetarat, beren ahalkearen gordetcera.

Orduan nahi zuten becenbat paganoren batha atceco zorio-na⁴ izatu zuten Apostolu hauc, ez bakharric, beren predicuen edo miracuiluen gatic, bainan oraino, beren exaientzat eracuxi zuten amodioari esker; ecen behin, gaichtagin bat hiltcera condenatua celaric, ceren haukien gainera escua ezarri nahi izatu zuen, joan ciren, biac, Erregeren othoiztera barkha cezola. Erregec barkhatu cion, eta hortacotz hazcartu cen jendeac ekhartcen cioten amodioa.

Errana da oraino, eliza-gizon baten icena herrestan ibilia celaric, hunen gain ezartcen zutelacotz egin etzuen gaizkia, urtheco haur bat mintzararaci zutela, eta hari erranaraci, nor cen egiazco hobenduna.

Haimbertce ongi egin ondoan Babyloneco inguruetan, bertce bazter-herrietan gaindi zabiltzalaric, heldu ciren Suanireco hirira. Han ciren doidoia aiphatu bi aztiac, aspaldion aspertu⁵ uahian, eta beha, noiz aztaparretaratuco citzaizcoten Saindu hauc. Alchatuac dire beraz preso, eta eremanac, adora detzatela jaincotzat daduzcaten⁶ bullo batzu, edo galduac direla. Apostoluec, tenploan sartcearekin, egiten dute gurutcearen seinalea, eta jainco falxuen potretac herraux bilhacatuac dire.

Bazuten aski urhax eginic, aski unhadura⁷ jasanic; oraicoan martirioa irabazten dute. Hilaraci zuten san Simon, zathicatcen zutelaric cerra⁸ batez; eta San Jude joa izatu cen haizecoraz.

Ordu berean jeikitcen den calerna⁹ ikharagarri batec arthikitcen ditu tenploac, puscateen jainco-orden potretac, eta, pusca hekien azpian lehertuac, hiltcen dire bi aztiac bertce asco gaichtaginekin; jendea aldiz, Jaincoaren graciaz argitua, sarthu cen ceruce bidean.

¹ Phenxa. — ² Ilusitia. — ³ Finacia. — ⁴ Irousitatia. — ⁵ Mendecatu. — ⁶ Atchikiten tien. — ⁷ Eñhetce. — ⁸ Segá. — ⁹ Tenpesta.

IRACAXPENA

Jesu-Christo Gure Jaunac ez du bere burua ezagutarazten munduari. Egia ikharagarria! Urrunt gaiten munduaren ganie, ezagut eta maitha ahal dezagun Jesus Jauna. Othoitz detzagun Apostolu hauc, ardiex dezaucuten gracia hori.

FACILAREN 4^{en}

SAN CHARLES BORROME, APEZPICUA

[Hila 1584^{an}]

Charles sortcera zohalaric, amaren ohea inguratua izan cen argi eder batez. Hortaric asmatceco zuten hunen aitac eta amac cer distiradura beharceco zuen, egun batez, hekien haurraren saindutasunac.

Haur hunec, escoletan sarthu orduco, josteta baino maiteago zuen othoitza. Hala-hala, jostatcera zohazcolaric lagunac, Charles zohan othoitcera; eta horrela¹ baduke indarrie aski jazarceco² bekhaturaco jaidurei³, eta halaber, debruac bidalico⁴ diozcan emazte galdu batzuei.

Hogoi urthetacotz jakinxun handi ezagutua, galdegiten du Erromarat, bere osaba eta Aita Saindu Pio laugarrenac; lagundu behar duela Eliza guciaren joanarazteco lanetan. Charles gazteac, ez ohore gose delacotz, bainan manatua z iolacotz, egiten du osabac errana. Badoha Erromarat; eta han icendatua da laster cardinale eta Milaneco archapezpicu.

Ungi gehiagoren egiteco baicic etcen baliatu Charles bere bothere berriez. Aita Sainduari emaiten diozcan ahalcuei⁵ esker akhabatcen da Trenteco concilioa. Eta gero, emaiten da Milaneco diosesan aurkhitecn⁶ dituen makhur⁷ gucienc chuchentceari.

Lazakeria handi batean eroriac ciren arimen gidariac berac;

¹ Gisa hortan. — ² Buhurteco. — ³ Enjogidurer. — ⁴ Igorrico. — ⁵ Conxeiluei. — ⁶ Causitcen. — ⁷ Okher.

eta giristinoec etzakiten casic densere erlisionearen gainean. Iracaspent¹ bici bat agertzen da Charles gucien aintzinean. Elizagizonec ezagutzen dute beren nagusitzat, eta, ahal becenbatean, jarraitzen zaizeo. Giristinoec ere icusten dute gaizkia gaizki dela, eta bide onean sartzen dire hec ere.

Comentuetan bici eiren fraide batzuei bakharric citzaioten gaitzi Charlesen khar saindua. Lau pareren artean biciteca, canpoan cer iragaiten den jakin gabe, canpoan bici direnekin deus ihardokimenduric² gabe, garratzegi iduritzen zaio te cenbeit gizoneti; eta gehiago dena, fraide batec egiten du bere baitan, behin bethicotzat ichilaraci behar duela, hain bide hersitic joanaraci nahi ditueca.

Arrax batez beraz, caperan, bere muthilekin othoitcean dagolaric, ondicozco³ gizon hau burbiltzen zaio, eta hamar hamabi urhaxetan, tiratzen dio arcaboza ukhaldi bat; baina Jaincoac bere gerizan⁴ zagocan Charles saindua. Kala bat, beltzatec diolaric eliza-athorra, erortzen zaio oinetara, bertce bat helteen da larruraino, eta hantche baratec, uspel bat egiten diolaric. Hargatic sainduac, deusic izatu ez balitz bezain ezti eta astiroki⁵, emaiten du othoitza bururaino.

Nahiz, orduan berean, ihes egin ahal izatu zuen gaichtagin harc, geroan preso hartua izan cen; eta hiltcera zaramatelaric⁶, Charlesece egin cituen egin cetzakcenac, bicia utz cezoten. Horrelacoa cen lagun gucientzat zuen amodioa.

Aitoren-seme celacotz bacituen onthasun handiac; idukitcen⁷ du erdixua egintza⁸ saindu batzuentzat, eta gaineracoa emaiten diote erromesei⁹. Bere escuco atchiki duenarekin batean egiten du eliza berri, semenario, etche erientzat eta emazte galduentzat, comentu berri, batzu gizonentzat, bertceac emaztentzat; hitz batez, behar den gucia lagunaren sokhorritceco ariman eta gorputcean.

Ordean munduari hobekienic eracuxi duena haren bibetzac

¹ Pedericu. — ² Atchikimenturic. — ³ Zorthe gaichtoro. — ⁴ Itzalian. — ⁵ Ai-inarekin. — ⁶ Errouaiten cialaric. — ⁷ Atchikitcen. — ⁸ Obra. — ⁹ Prauber.

lagunarenizat zuen amodioa, da, Milaneco hirian izatu cen izurrite ikharagarria.

Coxuaren harteco aski cen eriaren ukhittea¹, haren haxaren irestea, hanc ibiliricaco edo ukhiricaco gauza cerbeiten aldean² izaitea. Erran citeken beraz, Charlesenac egin zuela, hirian egoiten balinbacen. Hortacotz, othoizten dute, dohala hiritic aphur batentzat, eta beira dezala bicia ungi gehiagoren egiteco.

Urrun d'holacoric onhesten ahal baitzuen sainduac. Aitecic³, bera ibilico da eriz-eri, bataren cobesatcen, bertee bati azken sacramenduen emaiten, guciei Jaincozco hitz cenbeiten erraiten.

Handi guciac hilac diren etche batean, icusten du haur bat, oraino bici, eta bere ama cenduaren bulharrari lothua: san Charles ez da casu hari cer zaion berari gerthateen⁴ ahal; ez, jauci batez hilen artean da, eta, haur gaichoa besoetan, athe-rateen⁵ da etche hartaric.

Ordu berean, oraino, hirian cen gosetea lazgarria cen. Azkenecotz hiruetan hogoi eta hamar mila arima bacen, dens jate-coric gabe. Apezpicu sainduac hazten ditu denac, duen gucia salduz, eta gero bere diosesan eskeac eginaraciz.

Bizkitartean, Jaincoaren colera facega⁶ zadien, hari cen pre-sesione egiten; eta bera, bazabilan carricaz-carrica, soca bat lephotic, orthux⁷, zangoetaric odola zariola, eta gurutce batez cargatua, handic-eta jabaldu⁸ etceino, haren othoitcei eta auhenei⁹ esker, gaitz ikharagarri hura.

Izurrite hortaric lekhora¹⁰, orducotzat bere diosesa ceruraco bidean sarraracia, ibili cen san Charles hereticoen herrietan gaindi. Eta, non nahi izan zadiela, etzagoken jendea, haren mintzoari behatu gabe, eta egiazki giristinotu gabe. Zaraman bicitceac hori zuen manateen.

Egun gucia, urthe buru batelic bertcera, barur egotu ondoan, ogi pichca¹¹ bat zuen jateco eta ura edateco. Igande eta besta egunetan bakharric, dazuen cerbeit belharrerria, ogi haren

¹ Hounkitcia. — ² Khantian. — ³ Contralat. — ⁴ Agiteen. — ⁵ Jal-khiten. — ⁶ Ema. — ⁷ Ointhux edo inthux. — ⁸ Arintu. — ⁹ Haxperer. — ¹⁰ Landan. — ¹¹ Bouchi edo pochi.

lagun. Bere lo chorta, non ez dioten bortchaz harraraci lasto ahurtara cenbeit, bere lo chorta, diot, eginen du taula luxaren gainean. Soinean ez diote bertceric icusico baicen ere sotana tchar bat. Bicitee hortaz berri zakien jendea, nola egon citeken gogoetatu eta bere baithan sarthu gabe? Gutiac ciren beraz Jaincoa ganat itzularaz etcetzazkenac.

Ungiric handienac horrefa egiten hari cittelaric, nahiz oraino berrogoita sei urthe baicic ez duen erigaizki ezagutcen du bere burua, eta hartcen ditu azken sacramenduac.

Eri delaco berri horrec guciac ikhararazten ditu; bakhotchac ecen icusten du galtceric handienaren egitera dohala. Eta bazter gucietan solhas¹ hau da entzuten: Othoitz egin dezagun! othoitz egin dezagun! Jaincoac ez dezaucun ereman gure saindua, gure geriza. Baiman, sainduaren orenac joa zuen; eta, inerecimenduz bethea, begiac gurutcearen gainera zaozcalaric, ezarri zuen bere arima ederra Jaincoaren escuetan.

IRACAXPENA

Galdegin dezagun Jaincoari, saindu hunen arartecotasunaz, eman dezaucula Jesusec gehienic² maite dituen haurridentzat, erran nahi baita erientzat, amodio egiazco bat. Gathilu bat ur amoinatzat emanac baduenaz geroz sari handia, nolacoa ez da izanen cri hekiei egin dioteguken ungiaren ordain izanen duguna!

HACILAREN 11^{to}

JONDONI MARTINE, APEZPICUA

Hila 400^{to}

Sabaria deiteen den Hongriaco hiri batean sorthu cen Martin. Pagano ciren hunen burhasoac³, eta aita, Erromaco inperadoren soldado bat. Bizkitartean, Martin haurrac maite zuen gi-

¹ Elhe. — ² Haboroenic. — ³ Aita eta ama.

ristinoen eliza; eta, hamar urthetacotz jarria cen giristinotu nahi zutenen herroncan.

Hari cen ere, adinean aintcinatcearekin, ikhasten geroago eta hobeki, lehen-bai-lehen giristinotceagatic; bainan inperadoren manu batec deitcen ditu harmadarat soldado zabarren haurrac; eta horrela¹, catichimaren ikhastea utciric, badoba soldado Martin gaztea.

Hemezortei urthe cituen, negu guciz borhitz batez, causitcen duenean, Amienseco² ondoan, erromes³ bat erdi bilucia. Gogoac ez dio niholaz ere onhesten, sokhorritu gabe haren uztea. Bai, nahi luke sokhorritu; bainan nola egin, ez duenaz geroz deus diruric? Ezpataz, bi erdi egiten du bere capa, eta emaiten dio zathiric handiena.

Ondoco gauean icustea du, lotaric, Jesu Christo gure Jauna, capa erdi hura soinean; aingeru batzuez inguratua da, eta, haukiei mintzo delaric, entzuten da, erraiten diozcatela hitz hauc: «Martinec, ez delaric oraino giristino, soineco hau eman darot.» Amex conxo⁴; garri huntaric lekhora⁵, laster hartu zuen bathaioa; bainan soldado egon behar izatu zuen oraino cenbeit urthez.

Azkenean, iduritcen zaio aski lucez gizonentzat guduatu dela, eta galdetrea du soldadogatic atheratcea⁶; eren aspaldion Jaincoarentzat hasi nahia da. Ordean aintcindariac, exaiei buruz zohalacotz, erraiten dio, beldurrac eginarazten diola galde hori. Eta Martinec ihardesten dio: Herioaren beldur naicela? Jauna, ez! deus gerzaric⁷ gabe ene buruarentzat, ez ene bulharrea, ezar nazazu bertce gucien aintcinean, eta, gurutcearen seinaleaz harmatua, exaien herroncac hauxico ditudela icusico duzu.

Aintcindariac cion, agerico cela Martinec cer cezaken egin. Bainan biharamunean berean, ethorri ciren exaien mandataria, bakearen galdetcera; eta Martin joan cen lehiarekin san Hilaire apezpicuarea etcherat, behar zuela haren ganic ikhasi sainduten.

¹ Gisa hortan. — ² Prube. — ³ Landaz. — ⁴ Jelkhitia. — ⁵ Beiragalluri.

Apezpicu handi hunekin egotu denean aphiur on bat, orhoiteen da bere aita eta ama oraino ceruco bidetie canpo dituela; eta abiateen da, ja abal othe dituen Jaincoa ganat bildu.

Bidean, ohoïn batzuen escuetara erori cen; batec haizcora altchateen ere dio, buruaren mozteco; ordean bertce batec bazterteen du baizcora, eta bera, cilho batetarat darama estecatua, han kenduco diozcala dituzken guciac. Ala baitire miresgarriac¹ Jaincoaren graciae! gaichtagin harc entzuten ditu Martinec erraiten diozean hitzac; hitz hekiei bezala, behatcen da oraino Jaincoaren graciae, eta, urrikitua² bere ordu arte-rainoco bicitceaz, badoha Martinen lagun, harekin bere behatuez nigar egitera.

Martinec izatu zuen amaren Jaincoa ganat itzularazteco zociona³; eta gero, han gaindi penitencia egiten egon ondoan, jakinie san Hilaire Poitierseco hirirat, erran nahi baita, bere diosesarat itzuli cela, (aspaldion eeen canpoan zagocan inperadoreac, arianoac deitzen ciren heretico batzuei axegin⁴ egiteco, jakin duenean beraz san Hilaire bere hirirat iragan dela, heldu da hura ere Franciarat, eta Poitierseco ondoan altchateen du Ligugeco comentua.

Martin saindu bat cela ageri cen; hortacotz hainitzac lehiatu ciren comentu hartan sartcera; eta sainduac eracasten cioten guciei ceruco bidea. Ordean etcitzaion aski Fraide kharsu batzuen gidatcea, eta, nahiz eteen oraino apez, bazabilan pagano herriac gaindi, Ebanjelio sainduaren predicatcen.

Behin batez, bere predica horien gatic canpocan celaric, hil citzaioten comentuan, bathaiatceco denboraric ere gabe, zuela hirur egon ethorria zuten pagano bat. Hala-hala, haurriden bihotzmina handia cen; eta, ehorzterat ecin menturatuz, guciac nigarrez zauden gorphutz haren inguruan.

Hainberteenarekin heltcen zaiote beren Aita maitea. Saindu hunc erraiten diote dohacila canporat; eta, athea⁵ hexaraciric, emaiten da etzanie gorphutz haren gainean, zangoz-zango, begitartez-begitarte. Horrela othoitz egin duenean bi orenez, hi-

¹ Admiragarriac. — ² Doluria. — ³ Irousitatis. — ⁴ Placer. — ⁵ Bortha.

gitce cerbeit egiten du hilic cenac; bai, piztua da! Zabalteen ditu begiac eta chutitcen da, Martinec ere oihu egiten du, diolaric : « Loria Jaincoari; » eta haurridec bozcarioric, handie-nean, emaiten diote bathaioa.

Ordean etcen piztu berehala hiltcecotan; gero ere lucez bici izatu cen; eta erran zuen, condenatua, cela juieaz lececo ilhurbetarat; eta bi aingeruri esker izatu zuela bicia, erran ciotelacotz juieari, Martin harentzat othoitcean zagola. Miracuilu hunen ondotic bertce bat ere egin zuen hori bezalocoa, bigarren hil bat pizaraciz. Errechki¹ beraz, jo cituen bazter gaciac san Martinen omenac.

Gerthacari² hautaric landan, hil cen Tourseco apezpicua; eta Martin saindua bertchaz ordenatua izatu cen haren ordain. Cargutan celacotz, etzuen deusetan bere bicitcea gaubiatu; aitcitic³ egiten du comentu herri bat, eta han, bere diosesaco egitecoec uzten duten becenbatean, bici da laur hogoi fraiderekin, nihoiz ohean etzan ere gabe, eta bethi barurean.

Comentu berri hortaric hurbil, bacen beila aiphatu bat, icena etzakiten martir baten ohoretan. San Martini gogoac erraiten dio, orobat, jakin gabean, ohoreric ez dohacon norbeit ditekela aldare haren azpian ehortcia.

Behin beraz, badoha lagun batzuekin, eta othoizten du Jaincoa, jakinaraz diozon, nor den han ethortcia dena.

Betbetan⁴ agertcen zaio itzal bat, bainan da beltza eta ixusia. — Nor haiz? galdegiten dio sainduac; nolacoa izatu da hire bicitcea, lurrean? — Itzalac emaiten dio bere icena, eta ere erraiten : Gizon hiltzaile bat naiz, hementche, nere aldian, hilic izatu naicena. Ondicotz⁵ ez! ez dut deus iduripenic martirekin, hec ceruan dire eta ni pairamenic⁶ ikharagarrienen erdian. Erran gabe doha barreiatua izatu zela eliza.

Martinec bacituen bi hil pizaraciac, apezpicutu gabe; luna oraino, cer duen egiten bertce aldi batez : Chartreco hirira dohalaric, iragaiten da dena pagano den herri bildu baten erditic.

¹ Aise. — ² Gerthu edo feit. — ³ Coutrarac. — ⁴ Bat bate'an. — ⁵ Maierouski. — ⁶ Sofricariric.

Han gaindi, bai entzun dute mintzatzen Martinez eta haren miracuiluez, baina ez da nihor Jesusen icena ezagutzen due-
nie; oro bere saretan ziduzcan¹ oraino debruac; eta horrec
herstuteen dio bihotza Apezpicu sainduari.

Jakinazten diote beraz Martin nahi zaiotela mintzatu. Eta
husu², chume³ eta handi, denac han dire haren inguruan.
Noiz hasico cen, eta cer erranen cioten beba zaudelarie, ema-
cume⁴ batec, harresacan, cilhatcen du jende oste hura, eta
ezartcen du Apostolu handiaren oinetan bere haurraren gor-
phutza; eta gero, hedatcen diozcalarie bi besoac, ecin a liaraz⁵
diteken bihotzminarekin erraiten dio: Badakigu Jaincoaren
adichkidea zarela; horra ene haurra, ene seme bakharra,
othoi-othoi, pizaraz diezadazut. Jendeac ere, icusiz ama doha-
cabe haren eximendua, egiten dio othoitz bera.

Orduan hartcen du sainduac escuetan gorphutz tiki hura,
belhaunico emaiten delarie egiten du othoitz, eta, aphur baten
buruco, bazuen nahi zuena: Haurra piztua cen. Hala-hala, boz-
cariozco oihu ikharagarri bat egiten dute guciec. Behatcen
zaizco beraz gogo onez sainduari, eta berehala hartcen dute
bathaioa.

Ieusialgatic ere egiten cituen miracuiluac, hor-hemenca ha-
ciren oraino asco arima beren lehenagoco ustekeria galgarrie-
tan zaudenac, eta egundaino baino gogorkiago zagocatenac be-
ren tenploei eta jainco falxuei. Bacen bereciki pino bat hainitz
chun urthe hetacoa, eta mintzo cela ciotena. Apezpicu Sain-
duac nahi luke arthicaraci⁶ zuhain⁷ hura, baina haren ingu-
ruan daude paganoac harmetan; eta cenbat aldiz etzaiote alfer-
retan mintzatu!

Azkenean, gaichtagin batec, icusiz tenploac eta larrainac
jendez huxarazten hari dituela, erraiten dio, ustez halache
galarazten zuela exaie handiena: Arthikiteen dugu pi-
noa, picatcen hari garelarie, jartcen bazare gac nahi duke-
gun tokian⁸. Ungi da, ihardesten dio sainduac, jarrico naiz

¹ Atchikiteen zutian — ² Laster. — ³ Tchipi. — ⁴ Emazte. — ⁵ Enthe-
lega craz. — ⁶ Aurdicaraci. — ⁷ Arbole. — ⁸ Lekhian.

erranen jarotazuen bezala; eta hitzartzen dute eguna eta orena.

Ordu guciz berantexi hura ethorri denean, paganoec ungi baino hobeki egiteagatic, estecatzen dute pinoa cargac egoitzaraci¹ behar zuen alderdirat, eta saildua alderdi hartan dute jarrarazten. Han da egonen Jondoni Martine, othoitcean Jaincoari, ixu hekien arimac urricai² dakizcola. Bazter batean daude giristinoac, beren Aitarentzat ikharetan, eta hec ere othoitcean.

Jadanic sakho handi bat eginia diote pinoari, eta hari dire aintcina; jadanic dardararazten³ dute haizeora ukhaldiec, eta icustiarrac haxic ere ecin hartuz daude; hor azken pinoa! eta bozcariozco izkiritu⁴ bat egiten dute paganoec, badutela nahi zutena! Martin lehertua dela! Ordean Martin sailduac ez-baian gain-gainean duelar c, egiten du gurutcearen seinalea, eta hainbertceanarekin, bulta hartuz bezala, pinoa chutitcen da eta erortcen bertec alderdirat. Zuhain harekin batean erori ciren Franciaco paganoen azken tenploac.

Hitz bat oraino, Jaincoac cein zuen maite saildu hau. Gau batez sacristania batean celaric, taularen gainean etzana, sua lothucen, beren uestez, haren obietzat ezarri zuten lastoari; eta saildua atzarri⁵ ceneco sacristania gucia sutan cen. Orduan jauciegiten du athera⁶, bainan nihilaz-ere ez dezake causi clicheta. Bere ecinbertcean herxatcen⁷ da Jaincoari, eta badago hantchet, suaren eta khearen erdian, batere minic gabe, laguntza canpotic ethorri zaion arteraino.

Batbederac⁸ asma⁹ dezake nolacoac citezken Jaincoac hain maite zuen apezpicu baten bertec berthuteac; eta hortacotz alfer ere bada hetaz mintzatcea.

Azkenecotz, lauetan hogoi eta lau urthetan, bere lanez eta penitenteiez higatua, etcherat hari celaric, herri urrun bateco elizan antholamendu¹⁰ bat eginic, betbetan¹¹ hiltcen zaizco zan-

¹ Erorraraci. — ² Pietate ukhen dezala. — ³ Ikhara erazten. — ⁴ Gar-
rasia — ⁵ Iratzarri. — ⁶ Borthala. — ⁷ Adrezatcen. — ⁸ Bakhotchac. —
⁹ Phenxa. — ¹⁰ Chuchentce. — ¹¹ Bat batetan.

goelaco indar guciac: eta ordu berean, ezagutuz egun guti duela lur hunen gainean egoiteco, dicipulei erraiten diote: Oraino aphur bat, eta ene gorphutza desegina diteke. Hitz hori entzun deneco, ez da nigarric eta beiagorarie bāicen etche gucian.

— Gure Aita ona, erraiten diote, nor da zure haur umezurteen¹ beiratzaille uzten duzuna? Oxoac sarthuco dire zure arthaldean²; gure artzaina galduz geroz, nor izanen da gure geriza³. Geroan ere zue badukezu cerua; gure Aita, urricai gakitzu, eta zaude oraino gurekin.

Jondoni Martinen bihotza erdirateen da hitz haukien entzutean; eta Jesus Jaunari egiten dio othoitz hau: Janna, ene guduac lurrean borthitzae izatu dire; hala-ere, baitezpada ene beharretan balinbada ene populua, ez nau loxarazten unhadurac⁴, ez dut ukho egin nahi lanari; egina izan beikit, zue nahi duzun bezala.

Gero, hauxaren gainean etzana eta zurdazco⁵ larru arrasecoaz jauntzia, begiac eta escuac cerurat, hari cen aintcina othoitcean, eta ahal zuen guciaren bere gorphutz zaurthuari pairarazten⁶. Apez batzuec galdeteen diote, ja nahi duen sahexaren gainera ezar dezaten. — Ez, ene anaia, ihardesten diote, utz nazazue; lurrari baino nahiago dut ceruari begira egon, ene arimac ikhas dezan laster hartu behar duen bidea.

Azken haxetan cen agertu citzaionean Satan, haren icitarazteco; eta Martin sainduac erran cion: Non tabila hemen, sai⁷ gaichtoa? Ez due nitan dens hireric. Abrahamen besoetarat nobae pausatcera. Hitz horiec erraitearekin joan cen cerurat lur huntan hainbertce lan Jaincoarentzat egin zuen arima ederra.

IRACAXPENA

Ez gare guciac deithuac Ebanjelio sainduaren predicatcerat. Ordean guciac dugun manna da, gure lagunari amoinez eta

¹ Aitaric ez amari ez dienen. — ² Saldoan. — ³ Beiratzalia. — ⁴ Akhidurac. — ⁵ Bilhōzco. — ⁶ Soflerazten. — ⁷ Basa ibici.

bicitce saindu baten exempluaz, ahal dugun uogiaren egitea. Hortaric diteke ageri Jaincoaren haur garela. Caritate horri esker, oraino, badukegu eternitateco dohaxutasuna.

HACILAREN 19^{na}

SANTA ELIZABET HONGRIACOA, ALHARGUNA

Hila 1231^{na}

Elizabeten aita cen Andres bigarrena, Hongriaco erregea. Haur hau, oraino sehascan¹ baicen etcelaric, hitcimana izatu cen, emaztetzat, Louis Thurinsiaco printee eta aintcindari izan behar cenari. Louisen aita nahi izatu ere zuen ikhasi behar cituenac, haren etchean ikhas cetzala Elizabetec. Aines haren alabarekin. Bortzpasei urthetan, beraz, eremana izatu cen haren etcherat.

Ordutic Elizabeti begira² egotu citekenac ezagutu zuen cer izan beharra cen geroan; cen jadanic etzuen onic, elizan baicen: erromesei³ emaiten cioten ahal zuen gucia; eta, baldin ederkiegi jauntzia cela iduritzen bacitzaion, etcen guphide⁴ sobrakinen kentcera.

Aines bere lagunac bezala, bazuen, elizarat joaiteco, harriric baliosenez edertua cen khoro⁵ bat. Elizabetec escuan hartcen zuen khoro hura, elizan sartcean; eta galdegiten cionean Amariarrebagaiac, cer hari cen: ihardesten zuen: Jesus ene Arroslea arrantce⁶ khoroatna icustean, nola iduc⁷ nere buruan lorezco⁸ edo harri ederrezco khoro bat?

Ezcondu ondoan, hartu zuen, bere gidaritzat, Conrad, Marbourkeco apez saindu eta jakinxun bat. Cer behar duen egin edo egiteco utri, gidari zuhur hunec dio erranen; eta, hunen erranei delacotz jarraikitcen gauza gucietan, cein sinhex diteke cein laster zohan ceruco bidean.

¹ Khuñan edo ohacoan. — ² Sqz. — ³ Prauber. — ⁴ Herabezi.

⁵ Korona. — ⁶ Elhoriz. — ⁷ Atchic. — ⁸ Lilizco.

Orai dituen eginbidee ez diote beraz deus gibelamenduriko ekhartzen aintcineficaco bere urhax sailduei. Badaki zor diola amodioa Jaunari. Eta Jaunac icus dezake errechki, maithatua dela; bere harat-hunatetan guticiateen¹ badiu lagunt dezan, han du berekin printee gazteac Elizabet printeesa.

Eta, andrea etchean utciric, bera balin bada norapeit joaiten, orduan jeikico da Elizabet gabarea erdian, othoitz egitera eta Jesusen pairamenei² begira egoitera, nigarra dariola. Orduan oraino, egunaz, bere arropa ederrac utciric, tchar batzuekin ibilico da, eta ikharagarriac jasanaracico diozea bere gorphutzari.

Bertzalde, printee jauna etchean izan zadiela edo campoan, Elizabetec entzuten zuen Meza saildua egun guciez. Eta hain ciren ukhigarri³ harec elizan egoitea eta haren comuniaceca, non, predicuric hoberenaz bezala, bortchatuac baitciren bekhatoreac Jaincoa ganat itzultcerat.

Erromesentzateco amodioa etciteken hanc zuena baino handiago izan. Egun guciez, hainitzac ciren, jauregian berean, jaltceca izaiten zutenac. Eri balmbaciren, eta izan cezatela burua thinaz edo bertce cerbeit cikinkeriaz⁴ hartua, izan cezatela gorphutcean cer nahi zauri ixusi eta okhaztagarri⁵, etzuen deusec icitcen; eta berac, bere escuz, egiten ciozcaten, ama baten samurtasunarekin⁶, behar cituzten garbitce⁷ eta lotceac⁸.

Haukien ondotic, errech izanen da sinhestea Jaincoac egiten cituela, haren onetan, miracuilu handiac.

Egun batez, Louis printceac bazcaritan cituelaric berri-gucietaco Jaunic handienac, bazohan Elizabet ere bazcari hartara, bere hoberenean beztitua. Baina horra non causitren duen erromes bat; eta ez du cer eman. Bere ecinbertcean emaiten dio capa; ordean Jaincoac escaintza baiccu etcion galdetceen. Mahainera ceneco, aingeru batec ekhartcen cion capa hura bera.

Huna oraino bertce miracuilu bat lehen hori bezain handia: Behin jausten celaric, nescato batez lagundua, carrica gaitz bati

¹ Desirateen. — ² Sofricarier. — ³ Hounkigarri. — ⁴ Theiukeriaz. — ⁵ Desgoustagarri. — ⁶ Trendeciareki. — ⁷ Chahatce. — ⁸ Herste.

behera, capa zacu-orde biribilcatua eta bethen ogiz, haragiz arrolteez eta bertee jakiz, hor, uste gaberie, causiteen du bere senhar jauna.

Concortua da zargaren handiz, zaasan¹ Louisec bere baituan, cer darot, ene ichilie, andreac etchetic eremaiten? Eta berehala, bi esuez harteen diolarie capa, zabalteen dio. Bainan, cer du icusten? Arroza eta arroza; batzu gorri, berteeac churi; nihon citezken e ferrenac; eta hori, negua celarie.

Bizkitartean Elizabet ichilie zagon eta begiac lurrari hobendun bat bezala. Ba nan miracuilu husen aintcinean cer gaizki cion erraiten ahal jaunac? Bertzalde, gaizkien erraiteco guticia husu² kentzea dio bigarren miracuilu batec: icusten du Andre saiadu haren buruaren gainean suzco gurutce bat; eta horrela, ungi ezagaturie Jaincoa alde zuela, utci zuen, egin cezan nahi zuen gucia. Ordean etciren lucez elkharrekin egon beharrae; eeen Louis Lar saindurat zohalarie Turkei gerla egitera, hil cen bidean; eta Elizabet, hirur haur ttikirekin, alhargun baratcea da hogoi urthetan. Eta ez balu bezala aski zorigaitz³ senhar maite baten hain goicic galtceaz, emaiten dio jauregitic canpoa, bere coinat printce cearen anaia.

Horrela⁴ Elizabet, hura ere printcesa dena, Hongriaco erregearen alaba, haur bat besoan, bertee bia esentic, carricaren gainean da, leihorric⁵ ere gabe. Eeen ez da erraiten ahal atce-man duen etchean leihorric baduela, uria eta haicea alde gucietarie sartcen zaizeonaz geroz. Eta jaun Apezpicuac eginarazten dion etchea izan arteraino, han egonen da, aintcinetic bere amoi-nez hazten cituenez berez gaizki icusia eta laidostatua; bainan alegera eta boz, ceren emana zaion pairatcea⁶ eta aphaldua izaita.

Gero, egin dioten etche hartan bicico da escale⁷ batzuen bicitceaz: ogi beltz pichica⁸ bat eta cerbeit belharrerria harekin, horra haren jateco gucia. Etcetzazken berri soinecoac higatcen cirenean; hortacotz, cer nahi colozeco peza eratchikiz, aintcina

¹ Erraiten eian. — ² Laster. — ³ Malur. — ⁴ Gisa hortan. — ⁵ Atherberic. — ⁶ Sofritria. — ⁷ Leccionia. — ⁸ Placer.

zabilan, eta printçesa handi cenean baino alegerago. Cer iracaxpenac¹ gu gure buruan ecin aski gora icusian garenentzat!

Noizbeit bere dotea itzultcen diote: sartcen ere ahal da bere jauregian; bainan ez du emazte saindu harc ohore guticiarie, eta aintcina ere bere etche ttikian egonen da. Diruaz becenbatean, erraiten ahal da axegin egin ciola, ez, ordu arteraino baino hobeki bici gogo duela cotz, bainan baduelacotz erromesac certaz sokhorri. Emaiten diote beraz erromesei, emaiten diote haurrentzat goititu duen gutti hitez gaineraco gucia; eta gero, bethi hec ecin aski lagunduan, bera jartcen da hekieu nescato.

Orai, ecin erran ditekena da, nolaco amodioa ekhartcen cion Jesus bere Jaun maiteac, eta nolaco solhas² ezti eta samurrez mintzo citzaion, haragiaren nahicunde guciac horrela hilaraci cituenean.

Azkenean, nahiz hogoita lau urthe baicen etzuen, Espos guci³ on harc, egin cion agertce latean, erraiten dio: Zato, ene guci³ maitea, sar zaite ene Aitac mende guciac baino lehen edertua, i fukitcen darotzun egoitza dohaxuan. Eta Elizabet sainduaren arimac utci zuen lurra, ceruco loriaz gozatcerat joateco.

Haren gorphutza, berac gomendatu zuen bezala, erromesen bilherrietan izatu cen chortcia; bainan Jaincoac adiaraci⁴ nahi zuela cotz cer loria zuen ceruan ordu beretic, choriketa handi bat hasi cen haren hobiaren gainean cantateen, eta izatu ciren hamasei hil orduan piztu cirenac, haren arartecotasunari esker.

IRACAXPENA

¹ Ceruco lorjarat nahi zare heldu; ez bilha² mundu huntan aiphatua eta ungi icusia izaitea. Aitecic³ gorde zaite, zaude apha⁴, har zatzu, gogo onez, zure lagunen trufac eta laidoac, eta izanen zare, ceruan, gora altchatua.

¹ Elac. — ² Enthelega eraci. — ³ Cherkha. — ⁴ Countralat.

HACILAREN 22^{na}

SANTA CECILIA, BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 231^{na}

Erromaco familia handienetarik cen nescatcha hau haur-haurretik hasi cen Jesusen maithatcen. Amodio hori emendatuz joan citzaion adinarekin, eta azkenecotz etzuen Ceciliac bertceric gogoan, baieie ere Jaincoari axegin egitea.

Jakin gabe giristino zutela haurra, eta birjinitatearen beiratcea agindua¹ ciola Jesus Jaunari, burhasoec hitzartcen dute Valerien deitcen den gizon gazte batekin, adinetara diteken ordutic haren emazte izanen dela.

Eta orai, cer eginen du Ceciliac? Pagano batzuec ez dute aditeen² ahal botu baten indarra, eta hortacotz alfer luke erraittea ecin ezcont ditekela. Bai, hobé du Jaincoari berari herxatcea³. Eta galdetcen dio, lucez othoitz eta barur egin duen ondoan, urrical dakiola⁴, eta eman diozola, bururaino, birjinitatearen beiratceco gracia.

Bizkitartean helteen da eguna. Eta ezcontceco egiten ohi ciren urhaxac eginac, afaria bera ere egina, ezcondu berriac badohaci ganbararat; eta huna, cer dion erraiten Ceciliac Valerieni:

Ene lagun maitea, nahi badarotazu hitzeman, ez nauzula salhatuco, erraiten dautzut gauza bat, zure or.etan, baitezpada⁵ jakin bebar duzuna. Valerienec agintza guciac egiten diozca, eta Ceciliac erraiten dio:

Bada Jaunaren aingeru bat, ene inguruan, ene gorphutzaren zain dagona. Doidoia ukhitcera⁶ menturatcen bazaizkit, joa zaitezke; eta aldiz nahi baditutzu hartu ene alderat, Jaincoac berac emaiten ahal darozkitzun sentimendu batzu, nic bezain

¹ Hitzeman. — ² Enthelegatzen. — ³ Adrezatcea. — ⁴ Ukhen dezala pietate. — ⁵ Nesesarioki. — ⁶ Hounkitcera.

ungi icusico duzu aiphatu aingerua, eta zuretzat ere izanen du enetzat duen amodioa. — Aingeruaren icusteagatic, ihardesten dio Valerienec, nahi dituzun guciac egiten ditut.

Ceciliac igorri zuen orduan Urbain Aita Saindua gana, hanc erranen eta iracaxico ciola egin behar zuen gucia; eta, cenbeit egunen buruan itzuli cen Valerien etcherat, bathaiatua, Izpiritu Sainduaren dohainez bethea eta Jesusen amodioaz bihotza sutan.

Ceciliac hitzeman cion aingerua icusico zuela. Badu zorion hori Valerienec. Eta gehiago ere bai; ecen aingeruac biei ezartcen diote buruan arrosaz eta bertee usainic eztieta zuten lore¹ batzuez eginicaco khoro² bana, erraiten diotelaric, zuen begiac ditezke bakharrac khoro horiec icusico dituztenac. Bertcentzat gordeac egonen dire; eta, ceruco baratcean bildu ditudan lore horiec, ceroc³ nor bazarete, ez dire nihoiz⁴ histuco.

Orai zuc, Valerien, sinhexi duzulacotz Ceciliaren errana, galde zozu Jaincoari nahienic duzuna, ardiexico duzu. — Hola denaz geroz, ihardesten du Valerienec, galdegiten diot Jaincoari, ene anaia Tiburcec izan dezala haren ezagutceco gracia; eta aingeruac hitzeman cion. Handic laster Tiburce ere giristino cen.

Bainan anaia hanc khar sobera zuten lucez egoiteco ezagutuac izan gabe giristino cirela; alchatuac dire beraz preso eta hilteerat condenatuac. Bi anaiaac, soldadoen erdian hil tokira joanki⁵, eta mintzo ciren ceruaz eta bango axeginez. Hain ungi mintzo dire non itzularazten baitituzte Jaincoa ganat soldadoac eta bekien aintcindaria. Eta zaintzaile guciac giristino cituztelacotz, iragaile batzu izatu ciren cargatuac bekien hilarazteaz.

Cecilia ere giristino cela jakin gabe nola egon citeken Almakhius gobernadorea? ez, berri hori husu⁶ heldu cen haren beharrietaraino; eta, berehala, igorri cituen soldadoac, haren preso hartecera.

Birjina hau gazte bezain eder cen; eta hortacotz, estecatceco

¹ Lili. — ² Corona. — ³ Cihaurice. — ⁴ Secula. — ⁵ Hiltecco lekhila ositen. — ⁶ Laster.

manua zuten soldadoec berec othoizten dute, ez detzala gal, bere haurkerian, jainco botherexuec eta sortceac eman diozcaten dohain hec guciac; urricai dakizcola bederen bere gaztetasuna eta bere bicia.

— Utz nazazue ichilie, ihardesten diote Cecilíac; cer dohakit gorphutzaren eta lurreco axeginen ¹ gaitrea, halaz, eta haukien ordain, miletan baliosago diren onthasunac irabazten ditudanaz geroz? Ceroe orgatara bat lohi baino ahurtara bat urheren nahiago izaiteco baduzue aski ezagutza; eta ni, lur pichea ² baten bidez eternitateco biciaren irabaztera nohanari, daasadazue ³, gaizki hari naicela! Zuec! Zuec! egizue nic bezala, jarraic zaizkitet; sinhex nazazue; utz zatzue zuen jainco falxuac, eta adora zazue Jainco egiazcoa.

— Zure erranaren gainean, Cecilia, ihardesten diote soldadoec, sinhesten dugu ez dela Jainco egiazcoric, zuc dagocazuna baicen; nahi gare giristinotu. — Hola denaz geroz, zohazte, errozue gobernadoreari, ephe labur bat galdegiten diodala; eta gero, zathorkitet ⁴, hemen berean izanen duzue bathaiatuco zaituztena, eta zuentzat diteke, enetzat bezala, cerua.

Aphur baten buruan, Cecilíaren ethean cen Urbain Aita Saindua; ethorri ciren ere soldadoac ahal izatu zuten becenbat lagunekin; eta nonbeit lau ehunen heinac hartu zuen bathaio saindua.

Gobernadoreac jakin duenean cer gertatu ⁵ den, agerrarazten du bere aintcinera Birjina gaztea, egiten ere dio asco galde eta asco agintza; baina Cecilia, zurburteciaric handienarekin, ihardesten du haren gal'ei, eta ezagutcerat emaiten dio ez diotela eskerric haren agintcei.

Hortacotzat condenatua da bere etheco mainbutegian, beroaren-beroz, ithoa izaiterat. Hesten dute beraz barne ttiki batean, eta, hogoita lau orenez, khaldan den labe baten hax gucia barne hartarat sarrarazten dute, cilho batzuetaric. Jaincoaren nahiaz canpo, oren erdi bat etzuken irauñ, lil gabe, den hazcarrenac.

¹ Placeren. — ² Bouchi. — ³ Erraiten deitadacie. — ⁴ Jin zakiztade. — ⁵ Agitu.

Bainan Jaincoac, ihintz gozo batez kentzen dio suari bere indarra. Almakhius gaichtaginac, miraculu hortaz casuric egin gabe, igortzen dio burrego bat ezpataz burua ebac diozola.

Hain gazte, eta deus hobenic ez duen haut baten aintcinean, escasten zaio bihotza burregoari. Althateen du bai besoa, joiten ere du behin, bietan, joiten du hirugarren aldian, eta burua ecin trencatu dio. Etzaio hitartean ¹ cilhegi ² laugarren ukhaldiaren emaita; eta, ikhara latzetan, atheratzen da etche hartaric burregoa.

Athean zauden giristinoac sartzen dire mainbutegian lehia-ekin; eta causitcen dute Cecilia saindua bere odolean igeri, etzana lurrean escuineco alderdiaren gainera; bainan oraino bici. Bere ezagutza gucia ere han du; eta, aingeruen irri bat ezpainetan, han direnetaric bakhotchari, eta bereciki bere sosez hazten cituen erromesei ³, egiten diote begiratce ⁴ exti bana, eta erraiten Jaincozco solhas ⁵ ceubeit. Gero, hala-hala dagolaric, higitu gabe eta dilindan ⁶ lurraren eta eternitatearen artean, irauten du hirur egunez.

Hirur garren egunean, ethorteen zaio Aita Saindua icustera eta azken benedicione baten emaitera. Sainduac gomendatcen diozca ordu arteraino haci dituen erromes maite hec, eta, eliza bat hartaz egin dezala, emaiten dio bere etchea. Handic aintc-naco denbora bihotceco bildura saindu batean darama ⁷, bere Jesus maiteari eskerrac diozcalaric, ceren deitcen duen bere ganat.

Azken haxera denean gordetcen du begitartea bere escuetan, eta gero, erortcerat uzten duelaric bere buru ezpata ukhaldiez eta odolez desegina, ezartcen du arima bere Espos maitearen escuetan.

IRACAXPENA

Cein den dohaxua ethorkizunaz ⁸ orhoituz, gaztetasunaz ez onthasunez casu hari ez dena! Ah gaztea! Zure gogoa pausatcen

¹ Haregatic. — ² Haizu. — ³ Borthan. — ⁴ Praub. r. — ⁵ So. — ⁶ Elhe. — ⁷ Chintchau. — ⁸ Erouaiten da. — * Gerouaz.

balitz egiazki ethorkizun haren gainean! Bai, bacinuke zure arimaz errencura gehiago; bacinuke duzun baino curaje eta indar gehiago zure jaidura¹ gaichtoei eta munduari jazar-teeco². Galde zozu Jaincoari, sainda hunen arartecotasunaz, hazcar dezautzula fedea; icus ahal dezazun cein diren ez-deusac lur huntaco gauza guciac.

HACILAREN 24th

SAN JOANES GURUTCECOA, APEZA

Hila 1591th

Gurutcecoa deithua da saindu hau, ez duela cotz egundaino mundutarrac bere axeginentzat³, saindu hunec pairamentzat⁴ baino gose eta lehia gehiago izatu.

Joanes Espainian sorthu cen, Avila ondoan, Fontiberaco herrian. Aita goicic galdu zuen; bainan hunen ama egiazco giristino cen; eta arima gazte hartan erain zuen berthutearen hacia. Nahi zuken ere escolatu, hartee onecoa agertcen relacotz; bainan, Medinaco Jesuisten etchean ungi hasi deneco, ez dezake buru eman gastuei⁵, eta, nonbeit sehi⁶ ezarri behar zuela, berea bederen irabaz cezan, kendu zuen escolatic.

Orducotzat Medinaco ospitaleco nagusia ohartua cen, haur haren begitartean, haren urhax eta othoitz egitean, bacela cerbeit Jaincozcoric; hartcea du beraz erien arthatceco⁷ eta ospitaleco muthil.

Joanesez bere egiteco guciac bethetcen cituen centzua osoenic zuketenez bezain ungi. Eriei, bertzalde, solhas⁸ saindu batzuez, harrarazten ciozcaten pacientciarekin beren oinhaceac⁹. Gero, lanec haizu uzten cioten becenbatean, hari cen liburutau, eta baldin artea hala bazuen, bazohan escolarat. Eta aldiz,

¹ Enjogidura. — ² Buhurtceco. — ³ Placerrentaco. — ⁴ Sofricarien. — ⁵ Despendioer. — ⁶ Micheandi. — ⁷ Soueñateco. — ⁸ Elhe. — ⁹ Sofricariac.

ichilie egiten zuena, cen, geroago eta gehiago bere buruari pairaraztea¹.

Hogoi-bat urthe arteraino egotu cen ospitalean, eta orduan sarthu cen carmesen comentuan. Frogantzazco egunetan ezagu tecco izatu zuten aintindariac, cein zuen maite Jaincoa Joanesec, cein ciren handi hunen pairua² eta umilitatea; eta igorri zuten Salamancarat, theolosiaren ikhasterat.

Hiri huntan eteen lazatu; aitecic³ ikharagarriac cirea hunen penitenciaic: taula asca bat zuen ohe-orde⁴, egun guciez baza-kharrea⁵ zurdazco larru arrasecoa, eta gorphutza odolstatcen cion burdin gathiez eginicaco gerrico bat. Horrela zaozcalarie zaphatuac jaidura⁶ gaiehtoac, lan guciac egiten cituen Jesu Christo Gure Jaunarea gatic. Eta, geroan berteci aholcatuco⁷ diotena, ordutic berac hasia zuen: erran nahi baitut, etciola Jesus Jaunac onhex etceezaken axeginetarie deusere, ez emaiten, ez nihoiz⁸ harteerat uzten bere gorphutzari.

Theolosa ikhasi duenean, etzaio iduriteca, hura bezalaco bekhatore hati, badohacola apoztea; ordean manu bat egiten dio bere comeatuco nagusiac, eta, ikhara saindu batean, harteen du ordena sacratua.

Apeztu da bai? egundaino baino handiago duela cotz pairatecco gaticia, eta santa Theresaren erran hati behateen delacotz, uzten du comentu hura; eta bertce lagun batekin, hasten du, haiccari eta uriari zabalic den etche zahar batean, bicitce bat lazgarria.

Bi edo hirur orenez gaineraco denbora, gabaz ere, othoitecan dago, eta oraino, lo chorta haren egiteco, lur hotza izanen du ohetzat eta harri bat bururdi⁹. Egunaz Ebanjelio sainduaren predicatcen dabilta, deusic jan gabe, ascotan errencuratu ere gabe, ja, etchera ditezkenean, eerbeit ba-othe duketen.

Joanesen saindu tasuna agerian cen. Hortacotz hainitzae ciren, hura entzun-eta, Jaincoa ganat itzultcen cirenac; hainitzae ere

¹ Sofri craztia. — ² Parienteia. — ³ Countralat. — ⁴ Ohiatea lekhu-tan. — ⁵ Ekhartan cian. — ⁶ Enjogidura. — ⁷ Conscilatuco. — ⁸ Secula. — ⁹ Burunegi edo burukita.

dire haren azpico jarteen direnac. Erran gabe doha berteen ganic etzuela galdetceen berac egiten zuen gucia.

Mundutarren artean etzuen exai handirie saindu hunec, bairnan debruac ez dio barkhatcen ahal, ceren hainbertce arima kendu dion aztaparretarie; eta bederen ez diezon calte¹ handiagoric egin, pitzarazten du bekhaizgoa basa bat Joanesen leheneco lagunen bihotcean.

Lagun haukiei gaitzi zaiote hainbertce aiphatua izan dadien Joanes, hainbertce jende ibil dadien haren ondotic; eta, diotelaric burua galdua duela, ezartcen dute preso, cirritu cilho batetarie doidoia argia hartcen duen barne hotz batean; ogi pichca bat diote harat arthikitcen², eta, cenbeit aldiz, arraintiki batzu jakitzat.

Bederatci hilabetheren buruan, lehenago Jondoni Petriri aingeru batec egin ciona, bere Ama guciz maiteac, Andre dena Mariac egiten dio, atheac³ zabalteen; eta Joanes emaiten da obico lanari. Hari da predicatcen. Gero, bazter gucietarie ethortcen zaiolacotz jende, ceruco bidea eracax diozotela, egiten du comentu hekientzat; eta, saindutasuneraco bidean aintcinatececo duketen khar saindutie, errechki⁴ ezagutuco du, Jaincoac diozcala bidali⁵ haur hec guciac.

Lehenbician, gucien aita edo aintcindari cen. Bainan, bethi aintcindari izanez, etcitzaion iduritcen aski aphaltendu izaiten ahal zuela jasaiteco; eta aphaltenduric gabeco bicitee bat ez dezake niholaz ere onhex.

Horrengatic citzaion mintzatu, egun batez, Jesus Jaunari, egin zuen bezala; agertcen zaiolaric aireric eztienean, Jesusec galdetcen dio, cer sari nahi duen bere egintza⁶ sainduentzat. Guticiatcen⁷ dudan saria, ihardesten dio sainduac, da, zuretzat pairatceco eta laidostatua izaiteco zoriona⁸. Hortacotz cion oraino galdetcen maiz⁹ Jaincoari; etcezala utz, egun bakhar batez ere, cerbeit pairaraci gabe; ken cezola lehen-baino-lehen aintcindarigoa; egin cezola ahantcia eta laidostatua

¹ Gaitz. — ² Ourthoukiten edo aurdikitcen. — ³ Borthac. — ⁴ Aise. — ⁵ Igorri. — ⁶ Obra. — ⁷ Desiratcen. — ⁸ Irousitatia. — ⁹ Ardura.

hiltzeo gracia. Icusico dugu entzun ciola Jaincoac othoitz hori.

Bere comentuac urhax on batean ezarri dituenetic hasiric, ez balinbadu deus axecaberic¹ bere haurriden ganic, Jaincoac emanen dio bere barnean, kenduz bertce ordu batzuez cituen arimaco axeginac, eta ihartcera utciz, deusetan ere eracusterat, eman gabe, baduela harentzat amodioric. Eta Joanes sainduac badakharke hocic gurutee dorphe hori ere.

Jaincoa bera denean chuchenea gure gaztigatzailea, errech da, hein batetarainocoan, haren escuaren azpian buruaren aphaltcea. Nekhezago dena, da, guruteearen besarcateca, Jaincoac gordetceen duenean escua. Ikhas dezagun saindu hunen ganic, cer behar dugun egin halaco orduetan.

Cargutan ciren bi haurridei aditcera eman cioten, behin, hekien egintzac etcirela behar-bezalacoac. Gaitziteen zaiote naukiei, beren baithan sarraraci behar cituen solhas horren entzutea; eta, cargudunac bilduac diren batez, hain ungi mintzo dire beren gaichtakeriaren alde, non ez leusec egin baitzuen, Carmesen ordreco etche gucietaric, Joanesen canpo ez ezarria izaitca.

Azkenic sarthua citeken anaia bat bezala, eta oraino urricalmenduz², igortcen dute etcheric charrenerat, berantchago iraganaracico dutela Ameriketarat, nolazpeit gal zadien eman ciuelaco escandalen orhoitzapena.

Sainduac icusten du herrestan ibili beharra dela haren icena, baina ez da hortacotz galtcen arimaco bakea; eta, Jaincoac egin dezala haren garbitcea³, nahi dukenean, eman cen, bere ahal guciez, merecimendu cerbeit gehiagoren irabazteari.

Aski aphaltmendu bazuela iduritu citzaionean, Jaincoac ezagutaraci zuen Joanes, haren haur eta muthil maitea, cein guti hobendun cen eratchiki ciozaten huxez; eta juieac hortchatuac dire aithortcera tronpatuac izatu direla.

Entzunen du beraz, oraino, popaluac hain maite zuen mintzoa, eta sainduac ere baduke dohacon ohorea. Baina ez, han-

¹ Pl-naric. — ² Pietatez. — ³ Chahatcia.

die berehala eritcen da Joanes; eta, eririe ecin haz dezaketelacotz dagon etche tcharrean, galdetcen diote berari, cein comentutarat nahiago duen joan, Baezacora, ala Ubedacora; eta hautatcen du Ubedacoa, ceren han baita, hango nagusi, hainbertcecoac pairaraci diozcaten anaietaric bat. Harat doha, agian¹, oraino ere, cerbeit irabaci eginaracico diola.

Hala zaio gerthatcen². Berbera zagocan gela ttiki batean, ez bihotcic, ez deus icustateric etzuen haurride baten escu idorretan. Noizbeit ethorri citzaion icustera aintciadari handiena; eta harc jakinarazten diote guciei, Joanes, deus eskerric gabe hiltcerat uzten duten gizon hura, saindu bat dela.

Hori ceu jendearen sinhestea aspaldion, eta murruca bilducen haren ingurura, hil gabe, behar zuela oraino behin icusi.

Exai zuen haurride haren bihotza ere ukhi³ zuen Jaincoaren gracia; eta harc ere, belhaunico eta nigarra begian, galdegiten dio barkhamendu jasanaraci⁴ diozcan egitate gaichtoez. Joanes sainduac errechki cion barkhatu.

Gero, ezagutuz ethorria dela haren orena, hartcen ditu elizacoac amodioz bethea Jesus Jaunarentzat, eta bere inguruan ditueni erranarazten diote *Miserere mei*. Akhabatu denean, dio berac : *Loria Jaincoari*. Azkenean erraiten du : *Zure escuetan, Jauna, ezarteen dut ene arima*; eta horrela, Jesus Jaunarekin gurutceficatua izatu ondoan, badoha harekin dohaxu izaiterat eternitate gucian. Berrogoi eta bederateci urthe cituen hil cenean.

IRAGAXPENA

Saindu huni bezala, argi dezaukula Izpiritu sainduac adimendua⁵, ezagut ahal dezagun gerthatuco zaizeun axecaben balioa cein den handia, hartcen baditugu Jaincoaren escutic; ezagut ahal dezagun cein diren handi, gure nahitara egin detzazkegun penitencientzat hartce dituzkegun sariac.

¹ Baliaba. — ² Agitcen. — ³ Hounki. — ⁴ Egar eraci. — ⁵ Enthelegia.

HACILAREN 25^{an}

SANTA CATALINA, BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 307^{an}

Hirur mende zuen Jesu Christo mundurat ethorria cela. Maximin inperadoreac eman zuenean, bere azpico zuen jende guciari, haren jaincoen adoratceco manua; non-eta etcen, paira¹ abalac pairatu ondoan, bicia galdu nahi. Esiptoan cen, Alexandriaco hirian, manu hau emaiten; eta, jendez inguratua, hari cituen bitimac milaca errearazten.

Ordu berean, bacen hirian andre gazte bat giristinoen elizac gaindi zabilana, martirioaren amodioaren pitzarazten, beldurrez ikbaran zauden gucien bihotzetan. Hura cen santa Catalina. Sainda hunen etheha Alexandriaco lehenetariac celacotz, bacen cerbeit hunen mintzoa; bainan etzuen horrengatic giristinoen artean zuen botherea: Catalina guciz jakinxun eta guciz saindu cela bazakiten denec.

Giristinoen artean hain omen handia behar zuen andre hau altchatua izan cen pagano-legean; eta Jaincoaren gracia berec¹ batec cion ezagutaraci erlisione saindua. Gau batez agertcen zaio, amexetan, Birjina Maria saindua Jesus Haurra besoetan, eta entzuten du Haurrac diola Amari, ez duela Catalina maite, ceren ez den bathaiatua. Amex hortariac lekhora², lehiarekin egin cituen Birjina hunec behar ciren urbaxac, eta hartu zuen bathaioa.

Egiazco zorionean³ igeri zagolaric, ceren cen giristino, berriz ere egiten du amex bat; eta amex huutan erraiten dio Jesus Jaunac: Catalina, jakin zazu, hemendic aintcina, ene espos zarela; eta, ezagut ahal dezazun ez zarela liluratua⁴ izan amex batez, emazu erhian erhaztun hau; etzaitecela ere loxa zure exaien errabia icusiz; ene graciarekin batean garbaituco ditutzu.

¹ Sofri. — ² Landan. — ³ Irousitian. — ⁴ Ilusitia edo tronpatia.

Eta hemen, nola erran, cein cen handi Birjina hunen bozcarioa, icustean atzarri¹-eta ere han zuela bere erhaztuna?

Ordaz geroz, begiratceric² egin gabe munduari ez haren jostetei, eman cen, gogoac manatcen cion bezala, theolosiaren ikhasten eta Pagano aiphatuenec egin liburuen iracurtcen.

Azkenecotz, bera jakinxun cen, nola ez bakhar bat han gairdi; eta bertzalde, bihotza sutan zuen bere Espos guciz maitearen amodioaz.

Hortacotz, icusi duenean inperadorea, pagano gucien aintcinean, debruaren aldaren oinetan, icusi duenean hil eta erretcen hari dituzten bitimen odolaz eta kheaz hiria hartua, badohaco berari buruz, agian³ behatuco zaiola, eta acienda odolez egin dituen ondoan, ez dituela giristincenaz gorrituco hirico carriacae; eta erraiten dio:

Inperadore Jauna, nahi baduzu conu eman adimenduaren⁴ argiac cer dantzun eracasten, nahi baduzu icusi Pagano jakinxuenec cer duten iscribatu⁵, ezagutuco eta aithortuco duzu, ez dela Jainco bat baicic.

Inperadoreac etzuen uste holacoric entzutea nescatcha baten ahotic; durduzatua⁶, ez daki cer ihardex. Hargatic bere ahalkearen gordetceco, erraiten dio: Orai ez dut astiric zuri beha egoiteco; ordean, zato sarri, eta entzunen zaitut.

Catalina, eman dion orenean joaiten da; eta orduan ihardesten dio inperadoreac: Aithortcen darotzut, ni, ez naicela gai⁷ ezagutceco noiz darotazun erranen egia eta noiz gezurra. Ordean, hala nahi duzularic, bilarazten ditut gure legeco nagusiatic, eta hekiekin dukezu zure egitecoa. Gogoac erraiten cion Birjina gazteari, Izpirtu Sainduaren argiez lagundua izanen cela, eta onhexi zuen guducatcea legeco nagusiekin.

Berrogoi eta hamar nagusi jarteen dire alde batetic, jende ostel⁸ handi baten aintcinean; Catalina berbera bertetic. Nagusi hekien denen nagusiatic, solhas⁹ luce batean, erraiten du lehenic, bere alde, zakien gucia.

¹ Iratzarri. — ² Soric. — ³ Balinba. — ⁴ Enthelegiaren. — ⁵ Izkiribatu. — ⁶ Dudatia. — ⁷ Capable. — ⁸ Saldo edo tropa. — ⁹ Elhesta.

Hura ichildu denean hasten da Catalina saindua, eta solhasetic solhasera jauziz, eracusten du ez ditekela izan Jainco bat baicen; Jaincotzat daozenenac ez direla berteeric, baicen ere, lur huntan bici izatu diren gizon gaichtagin batzu.

Eracusten du, hala-hala, Jaincoaren Semeac gizon egin behar izatu duela, eta hil dela, bekhatuac ezarri zuelacotz gizona ifernuco bidean. Azkenean galdegiten dio nagusien nagusiari: Eta orai, cer ihardesten darotazu? Catalina, erraiten dio nagusiac, Izpíritu Saindua mintzatu da zure ahoz. Horra ene ihardestea. Mila miliunetan eskerrac darozkitzut, ecen zure erlisionea nerea diteke hemendie aintcina.

Maximinee, hasarrezoaric¹ handienean bertcei galdegiten diote, ja hec bederen ez duten cerbeit ihardesteco; eta guciec diote: Gure nagusia ichildu da, nolaz mintza gaitezke? Bainan ez! ez da osoki ichildu; dio, giristino dela. Eta horra, guc ere, cer daasagun², bai, giristino gare.

Etzakien gehiago imperadoreac non cen. Ahalic lasterrena, su ikharagarri bat pitzarazten du, eta berrogoi eta hamar giristino berriac hartan errearazten ditu.

Cenbat nabi hasa izana gatic, hala-ere Maximinee bihotza adarra³ zuen Catalinarentzateco amodioaz; eta, nahiz ezcondua den, ahal duen bezain eztiki erraiten dio: Catalina, utz zatzu solhas aller horiec, eta zuretzat ditezke guticiatcen ahal ditutzun ohore eta onthasun guciac.

— Ni! ihardesten du Catalina sainduac, Jesus Jaunarena naincena, zu bezalaco gizon baten andre! Ez, ez! jakin zazu, hain ungi atchikitcen diodala garbitasunari⁴ nola giristinotasunari.

Ceren etzuen gehiagoco achola haren agintcez⁵, coleraz sutan jartcen da tiranoa. Lehenic azote ukhaldica chehacarazten du. bi oren lucez; gero, arthicarazten⁶ du lur barnean cen presondegi batetarat, haa gosez hil dadiela, eta bera badoha hiritic campo.

Bazuen jadanic cenbeit egun Catalina preso cela, Faustina

¹ Khecharic. — ² Erraiten dugun. — ³ Erroda. — ⁴ Chahutarzunari. — ⁵ Hitez. — ⁶ Ourthoac erazten.

inperatriza joaiten zaionean icustera, Porphirius deitzen den capitain batekin. Eta cer onexia bekien begientzat ! azote ukhal-diez larrutua cela haren gorputza, eta etzuela deus jatecoric nihoren ganic izatu bazakiten; eta horra non, nescatba hura causitcen duten osoki sendatua, eta jatecoric hoberenez hacia izatu balitz bezain legitarre onean. Jaincoac zuen sendatu horrela ¹ eta haci bere haur maitea.

Jaincoaren graciae cioten oraino icusarazten biei miracuilu hori, eta, hala inperatriza nola capitaina, biac giristinotu ciren.

Inperadorea ere itzuli cen noizbeit etheherat, eta jakin zuen Catalina ² biei cela. Agerrarazten du beraz oraino, bere aintcinera, eta galdegiten dio, ja ohico hitzetan den. — Ohicoetan, Jauna, ihardesten dio sailduac, eta hala izanen, naiceno.

Gaichtagin hanc, orduan, eginarazten du tresna ³ lazgarri bat. Hirur arroda ⁴ ciren nolazpeit antholatuac ⁵, eta dena ganibet zorrotz eta burdin craco; batean ⁶ zabiltzan hirua, eta zathicatcen zuten artean sartcen citzaio tena. Tresna horri este-cateen dute Catalina saildua; arroden inguratcerat ere abiatcen dire, bainan, ordu berean, ehun pusca egiten dire arrodac eta ganibetac; eta icustiarretaric asco badire, zathi hetaz joac, hiltcen direnac.

Hainbertcenarekin, inperatriza ethortcen zaio bere Jaunari, erraitera, icusi dituen miracuiluen gatic, behar dituela begiac zabaldu, eta behar duela ezagutu, ez dela Catalinaren Jaincoaz campo bertceric. Solhas horrengatic hilaraci zuen Faustina bere andrea; eta andrearekin batean hilaraci cituen Porphirius capitaina eta hunc Jaincoari irabaci ciozcan berrehun soldado.

Azkenean, andreric gabe delacotz, egiten du oraino egin ahal bat birjina hunen bilhotzaren irabazteco; bainan sailduac ihardesten dio : Zaren bezalaco dohacabea, utz zatzu amex horiec. Jaincoac hainbertcetan entzunaraci nahi izatu darotzu bere mintzoa; eta, zu, etzare casu hari haren mintzoaz; hexia idukitcen ⁶

¹ Gisa hortan. — ² Harma. — ³ Errota. — ⁴ Arranjatiao. — ⁵ Batetan. — ⁶ Atchikiten.

diozu bihotza; ordean ez uste izan, hainitz iguriki beharco duzula zuretzat diteken gaztigua.

Horren ondotic, tiranoac manatcen du ken dezotela begien aintcinefic, eta ezpataz hil dezatela. Abiatu cen Catalina saindua hil behar zuen tokirat¹, bocic, eta eskerrac ciozcalarie Jaincoari ceren emaiten cion birjineu khoroarekin martirenaren irrebazteco gracia.

Bidean, galdegin cion Jesus Jaunari, haren gorphutza etzadiela gaichtagin hekien escuez ukhia² izan, eta eman cezola bakea Elizari. Aingeru batec aditcerat³ eman cion onhexiac cirela haren othoitzac; eta gero, aphaltcearekin burua ezpataren azpian, joan cen haren arima cerurat, eta haren gorphutza izatu cea ehortcia, aingeruez, Sinaico mendiaren gainean.

IRACAXPENA

Cenbat giristino bekhatuan daudenac, batzu axeginen⁴ amodioz, bertceac egin nahi luketenaren egiteco curaie edo bekhoikia escasez! Bizkitartean contuen eguna ethorrico da. Eta, orduan, cer izanen da bekhatoreaz?

HACILAREN 30^{na}

SAN ANDRES, APOSTOLUA

Apostoluzat hautatua izatu baino lehen arrantzaile cen Andres, haren etheccoac bezala. Bere lana baicen ez duclarie gogoan, jakiten du, bigi diteken gucia Jondoni Joanes-Batichtaren ondotic dabilala. Egiten du harc ere bertcec bezala, jarraitkitcen da Jondoni Joanesen predicuei.

Bada⁵, egun batez, Joanesec icusten du Jesus, bertce behatzailen artean, eta hasten da oihuz, diolarie: *Horra Jaincoaren Bildoxa*⁶. Andresec bertce lagun batekin uzten du Joanes-Batichta, eta abiatcen da haren ondotic.

¹ Lekhilat. — ² Hounkia. — ³ Enthelegatcerat. — ⁴ Placerren. — ⁵ Arren. — ⁶ Achouria.

Jesusec icusi duenean jarraikitzen zaizcola, galdegiten diote : *Noren bilha¹ zabiltzate?* Andresec erraiten dio : *Nagusia, non zaude?*—*Zatozte, eta icusazue*, ihardesten diote Jesusec ; eta araxalde hura eta ondoco gana iragaiten dituzte harekin.

Etzagoken Andres bertcei ere ezagutaraci gabe bere zoriona². Biharamunean eremaiten eion, Salbatzaile Jaunari, Petri bere anaia. Eta orduz geroz, nahiz hari den arrantzan, artea duenean, hargatic ibilico da maiz³ bere Nagusi maitearen entzuten.

Hamabortz hilhabethe zuen hola-hola bici cela, noiz-eta-ere, Petri bere anaiarekin, saren arthikitcera⁴ dohalaric, erraiten baitiote Jesu Christo Gure Jaunac, *Zatozte enekin, eta, nic, gizon arrantzaile eginen zaituztet*. Orduan, behin bethicotzat, utci cituzten sareac eta untcia, eta, apostolu hautatuac, abiatu eiren Jesus Jaunarekin.

Bertce apostoluec bezala, Andresec comuniatzen du Jesusen escutic; hec bezala, bere huxaz nigar egin ondoan, izaiten du Izpiritu Saindua; eta gero, escualde hec dituelacotz bere gain, badoha Ebanjelioaren predicatcera Russia gaineco jendeari.

Hasten da Akhaia deitzen zuten Greciaco probintcia batetatic, eta badabila orai Russiaco diren asco herri eta hirietan gaindi, gucietan onhexia, gucietan conta abal becenbat arima bere Jesus maiteari biltzen diolaric. Bicitceric sainduena alde batetic, miracuiluae nahi cituen bezala bertcetic, etzagoken bihotcetan ezarri gabe bera erretcen hari zuen su bicia.

Gorphutza erdi ligatua unhaduraz⁵, noizbeit iheltcen da abiatu tokira⁶, Akhaiaco probintciara, eta Patras icena zuen hango hiri nagusirat. Hiri hartan baciren oraino jainco falxuen adoratzaileac; eta, behinere baino khar gehiagorekin, emaiten da predicatcen haukiei buruz.

Ege gobernadoreac, hori jakinic, laster egiten du hiri hartara, bere jaincoen tenploac behardituelachutic atchiki. San Andresec

¹ Cherkha. — ² Irousitatia. — ³ Ardura. — ⁴ Ourthoukiten edo aur-dikitcen. — ⁵ Enhiaz edo akhiduraz. — ⁶ Lekhila.

ere badaiki cer chederekin ethorria den gobernadorea, ordean ez da icitcen. Egiten du hobeki; joaiten zaio berari buruz, eta erraiten dio, hanc ere, behar duela bere Arrerosle eta Juietzat ezagutu Jaincoaren Semea, Jesus, gurutcefiatua izatu ondoan, bere bothere bakharraz piztu dena.

Gobernadoreac ezuen deusic aditu ¹ hitz hautan; eta ihardesten dio: Azotatcen eta gurutcefiatcen zaitut, ez baduzu gure jaincoei sacrificatu nahi. — Nic, erraiten dio Apostoluac, ez dut bertee sacrificioric escainico baicic ere, egun guciez egiten dudana, notharic ² gabe den Bildoxaren sacrificioa; eta ez debru jainco izan nahi luketenei, bainan Jainco egiazcoari. Ene bicia zure escuetan da; nahi baduzu, gurutcean hilarazten ahal nauzu; bainan horra, cer den nic guticiatcen ³ dudan gucia, gurutcefiatua izaiten.

Etelacotz gurutce eginic, preso ezartcen dute saindua, hura egin arteraino. Bizkitartean populua, jakin duenean certara dohan gobernadorea, metatcen ⁴ da gazteluaren inguruan. Oihu batzuetaric ere ezagutceco du Egec, bere biciaren gal-ordean dela. Bainan san Andresec facegaraci ⁵ zuen populua hura, erranez, giristino batentzat irabaciric handienaren egitea dela, Jesusen gatic biciaren galtcea.

Cerbeit egunen buruan, bertee egin ahal bat egiten du gobernadoreac, nahiz bide onetic ceiharraraci ⁶ saindua; bainan ohico hitzetan da San Andres; eta hortacotz, zur batzuen gainean luzara estecatua, azote ukhaldica chehacarazten du. Herceac eta hezurrac ageri izanki, eta hala-hala, hotz ikhargarria hari delaric, uzten dute, zauri hec gaizcura ⁷ zakitzon.

Hala-ere urrun cen Apostolua garhaitua izaitetic; pairatu ⁸ duenac handitcen baicen ez dio eta borthizten pairatceco duen gosea. Beldurric gabe, erraiten dio beraz gobernadoreari: Jasan ⁹ arazten ahal darozkidatzun oinhace ¹⁰ guciec, bizpahirur egun, gorenaz ere, iraun dezakete; ordean zu zare egiazki

¹ Enthelegatu edo comprenitu. — ² Thonaric. — ³ Desiratcen. — ⁴ Athetcen. — ⁵ Ema eraci. — ⁶ Bazter eraci. — ⁷ Gatchant edo g. izcant. — ⁸ Sofritu. — ⁹ Egar. — ¹⁰ Sofricari.

urricalgarría¹, ehun mila urthez pairamenetan² izatu zaitzeken ondoan, egundaino bezain dohacabe izaneu zarelacotz.

Egec, icusiz etzuela deusic irabazten bere indarca guciez, condenatcen du gurutceficatua izaiterat; eta, lucezago iraun cezaten haren pairamenec, emaiten du manua, sokez esteka lezatela gurutceari. Orduan, lehen aldian baino jendeketa handiago bat bilteen da. Eta diote goraki, ez dutela saindua hiltcerat utci behar.

Apostoluac, aldiz, otboizten ditu, utz dezaten bere Jesus maitea ganat joaiterat. Eta gero, icusi dueneco gurutcea, axegina- ren³ axeginez, hasten da oihuca: Agur Gurutce Saindua, Jesu Christoren gorputzaren ukhitceaz⁴ edertua eta baliostua; bozcarioa bihotcetic gaindi eta beldurric gabe ethortcen naitzaitzu; har nazazu beraz, zutaz mundua arrerosi duenaren haur eta ondoco bezala; ecen maite izatu zaitut, eta ene guticia guciac ciren, noiz besarcatuco cinitudan. Oi Gurutce distiranta! Gurutce ene bihotceco khar guciez, bilhatu zaitudana! Har nazazu gizonen escuetaric zure besoetan; eta, zure besoetaric, har nazala bere ganat, zure gainean hedatua hil denac.

Gurutcearen ondora denean kentcen ditu berac soinecoac, eta emaiten burregoei; gero, uzten ditu escuac eta oinac este- catcera. Hara beraz non den, guticiatcen zuen bezala, dilin- dan⁵ ceruaren eta hurraren artean. Badu ere jadanic bi egun hala-hala dagola, eta hari dela edo otboitecan, edo predicatcen haren inguruan zagon hogoí-bat mila arimari.

Bainan, azkenecotz, icustiar hec oihuca caude gobernado- reari, lacha dezala saindua edo harenac egin duela.

Ege, harritua, hurbilteen⁶ da; eta horra non ilhuntcen eta histen den san Andresen begitarte. Ikharetan dago, beldurrez gal gurutcean hiltceco zoriona. Burregoac, manua duten be- zala, abiatcen dire soken haustera; bainan, hedatu dituzte- neco besoac, hilteen zaizcote indarrac. Ecen, luna cer otboitz zuen egiten sainduac ordu berean:

¹ Pietate egingarría. — ² Sofricaríetan. — ³ Placerraren. — ⁴ Houn- kítiaz. — ⁵ Cnilintchau. — ⁶ Hultanteen.

Jesus ene Jauna, etzazula onhex zure cerbitzaria jaux deza-
ten gurutceatic. Jaun ona, othoizten zaitut, beira nazazu holaco
aphalmenduan erortceatic; zu zaitut ezagutu eta maithatu; eta
orai, zure icusteco nahiaz hartua dut bihotza. Ordu da galde-
zadan lur hau begien aintcineatic eta ethor nadien zure ganat.

Azken litz horiekin batean, begiac jasan cezaken baino
handiagoco distiradurac gorde zuen san Andresen gorphutza,
eta oren erdi baten buruan, emeki-emeki histen celaric argi
hura, joan cen haren arima ceruco loriaz gozatcerat.

Erranic da, egun berean, debru batec hartu zuela Ege go-
bernadorea, eta, eremanic plazaren erdira, han itho zuela.

IRACAXPENA

Egun guciez, eta non nahi, gure aintcinean dituzkegun gu-
rutce hekiekin, ez dezagula egin, arthiki dioten besoa ahan-
tciz. harriaren ondotic dohacin chakhurrec bezala; ez gaitceceli
hasarre¹ axecabe² hura eratchikitcen darocunarentzat. Bai-
nan, haren gibelean den Jaincoaren escua icusiz, har detzagun
pacienteiarekin, eta horrela³ merecituco dugu hekien maite
izaiteco gracia.

ABENDOAREN 9^{an}

SAN FRANXES XAVIER, INDIETACO APOSTOLUA

Hila 1552**

Baxter gucietan ezagutua eta ederrexmendurekin⁴ aiphatua
den Escualdun saindu hunen bicitcearen laburzki contatcea,
niholaz ere ecin egin nuken, bicitce hau ez balitz aurkhiten⁵
jadanic, etche gucietaco untcitegietan. Eta hortacotz, gure her-
rietaco loren⁶ lorea den sainduaz ere, mintza naiteke cheheta-
sun luce batzuetan sarthu gabe. Escualdun odollic bere zainetan

¹ Khecha edo samur. — ² Phená. — ³ Gisa hortan. — ⁴ Admiracione-
reki. — ⁵ Causitcen. — ⁶ Lilien.

duenac baduke san Inacioren eta san Franxesen bicitcen iracurtceco errencura, hautaz bietaz den liburuan.

Nafaroco aitoren-semen artean, lehen-lehena cen Xavierreco Jauna, Franxesen aita. Aita hunec bazuen asco seme, eta hartu zuten guciac hobekienic zohacoten bidea.

Bere herrian ikhasi dituenean egiten ahal cituenac, badoha Franxes Pariseco escoletarat. Han iragaiten da husu¹ nagusi: eta bere gain emaiten diote philosophiaren iracastea. Gazte-gaztea orainoizanki, eta jadaneco, bazuen iguric cezaken baino ikhasle gehiago. Hala-hala, sorteez handi, gogoz handiago, bere buruaren ederki ezagutarazteco eta aipharazteco bidetan cela axeginekin² icusten zuen.

Ordu berean, hura bezala ikhastea gatic ethorria, bacen, Parisen, bertce Escualdun aitoren-seme bat, Inacio Loioloaco. Inacioc buruan zuen, gizon jakinxun andana baten biltcea, eta hekiekin erlisionearen hobeki ezagutaraztea eta maitharaztea.

Icusten du Franxes baithan balukela lagun bat onic. Lucez othoitz egin duenean beraz, mintzatcen du, eta erraiten dio haren gainean contatcen duela, behar duela, harc ere, mundua utci. Franxesec ez dio ihardesten ere, hain zuen achola guti Inacioren amexez; eta uzten du, zoro³ bat egin zuen bezala. Irriz zagocon mundu eder bati nola errau adio, hain goicic!

Ez du horren gatic exitcen Loioloaco semeac; icus aldica, erraiten dio: Xavier, Xavier, cer hari da gizona, mundu gucia irabaciric ere, galtcen badu bere arima? Azkenecotz gogoeta jartcen da Xavier, inharrosia da, garhaitua eta arimen irabazteco suaz hartua.

Jaincoa ganat izultce huntarie laster, Inacio sainduac bildu cituen bertce lagunekin, bazohan Franxes Italia Veniseco hirirat, handic lur saindurat joaiteco, Juduei eta Paganoei predicatera.

Eta jadaneco, cer pairamenen amodio ikharagarria duen gizon gazte hunen bihotzac! Aitcinetic bere zalhutasuna eta bere indarra derrexaraci dituelacotz, soca mehe batzuez, egin ahala

¹ Laster. — ² Placerrekin. — ³ Erzo.

tinki, esteatu cituen ichterrac¹ eta besoac; horrela² eman cen bideari; bainan cenbeit egunen buruco, hainbertcetaraino hantu citzaizcon ichterrac, non socaric hacenez ere ez baitcen ezagun. Ecin dohakela urrunago, eta cergatic, salhatcen diote azkenean lagunei.

Hauc guciac jartcen dire othoitcean; gaua halachet daude, eta, biharamunean, socac lurrean ciren, ehun pusca eginac; Franxes ere, osoki sendatua, heldu cen errechki³ leihor bazter-rera, Veniseco hirira.

Untcian sartceco ordua ethorri bizkitarte⁴, hirico ospitaleta-rat dohaei, eri arthacera⁵. Franxes dohan etchea cen ecin sendo citezkenena.

Etche hartan, eri batec zuen zauria bain cen ixusia eta okhaz-tagarria⁶, non begiratceric⁷ ere ecin egin baitzakioken. Leben soan lazten zaio Franxesi ere bihotza, gibelerat abiatcera doha, bainan berehala, bere buruaren garbaitiar, aphalteen da eriaeren gainera, besarcacen du, eta gero, ezartcen dituelaric ezpainac zauriaren gainean, egitendu egin ezginezakena.

Horrelaco egintza sainduen bidez merecimeadu herriric irabaci ondoan, izatu cen apez ordenatua; eta, khar berri batez sutan, hasi cen predicacen, Boloñaco hirian; ecen, Gristinoac gerlan hari cirelacotz Turkekin, etciren urrunago joaiten ahal.

Denbora hetan Portugaleco erregec gogoan zuen cenbeit misionesten igortcea, Indietan bere azpico zuen jendeari. Hala-hala, jakin dueneco, cer heineco sainduac diren Inario eta haren lagunac, othoizten du Aita Saindua, bidal⁸ diozola apez hetaric cenbeit.

Franxesen gainera zauden Jaincoaren begiac. Hau da heraz hautatua azkenean; eta, manua izatu dueneco, abiatcen da, bozcarioz bihotza gaindi, capa zahar bat bizcarrean, liburu bat besapean. Zaldiz eta ascotan oinez, iragaiten ditu Italia eta Franteia, sartcen da Nafarroan eta helteen da Iruñara.

Oraino bici zuen ama, eta Xavierreco Jauregia ez da hainitz

¹ Azpiac. — ² Gisa hortan. — ³ Aise. — ⁴ Artio. — ⁵ Souñacera. — ⁶ Desgonstagarria. — ⁷ Soric. — ⁸ Igor.

urrun Iruñatic. Erraiten diote beraz, dohala amaren besarcacera, haurridei eta adichkidei escuaren tincacera; orhoit da diela behar-bada bethicotzat duela uzten berria.

— Cer duket, ihardesten diote sainduac, ama aphur batez icusi ondoan? nigar gehiagoren hari eginaraztea; eta gero, bihotza zaurthuago eta ilhunago haren uztea. Ez! Ama, haurrideac eta ezagunac, uzten zaituztet, ceruan elkharrekin gaitezken arte-raino; han ezdukegu gehiago adio erraiteric! Eta horren gainean eman zuen aintcina bideari.

Untcian sarthü cen apherilaren 7^{ma} 1541^{ean}. Untcian, errege bat bezain ungi ekharria izan citeken, nabiago du erromesenic¹ direnekin egon; hekiei emaiten diote, jateco on cerbeit duenean, hura gucia. Ohe on bat oraino baciteken harentzat; zubi gainean, socac bururdi², eginen du bere lo chorta. Eritic baliabada, hekiekin diteke gabaz eta egunaz; hitz batez, erran citeken hura, Aita Sainduac bere icenean eta bere escu guciekin igortcen zuena, sehien³ sehia cela.

Bicitce bat hain garratzac husu sarraraci cituen beren baithan marinelac eta soldadoac; utci cituzten beraz solhas⁴ tzar-rac eta josteta gaichtoac, eta hasi ciren giristinoki bicitcen: Hamahirur hilabethe horrela iragan cituen ondoan, cen heldu Goaco hirira.

Hiri huntan bacen apezpicu bat, gehienac⁵ ere giristino ciren, bainan bakharric icenez. Gaizkiac aspaldion gaina hartua, ungia etcen gorderic baicen egiten ahal.

Franxes sobera ungi citekelacotz apezpicutegian, ez da hain egoiten; ospitalean du bere egoitza. Eta ospitale hartaric, eriac arthatu ondoan gabaz, ibilico da, egunaz, haurrei catichimaren egiten, haur liekien gucien bide on batean ezartcen. Haurren hain behar-bezalaco icusteac laster ahalkearaci cituen burhasoac⁶, berec zaramaten⁷ bicitce barreiatuaz.

Orduan igaten da Franxes saindua predicu alkhira, eta hain ungi, hain hazcarki da mintzo hiri hartan ciren gaizki gucien

¹ Praubesi. — ² Burunegi, epo burukita. — ³ Michcandien edo mañaten. — ⁴ Elhe. — ⁵ Ilaboroac. — ⁶ Ait e eta amac. — ⁷ Erroaiten e n.

gainean, non, denbora guti baten buruco, hiria bertzelacatua baitcen.

Goatic badoha perlaketari cen jende aralde baten gana. Jainco falxuen adoratzaile cen populu hau harricen du hunec daraman bicitce gogorrac : irris pichca¹ bat da sainduaren jaleco gucia ; etcholaric tcharrenean, eta oraino lurrean, du lo egiten, doidoia hirur orenez. Bertzalde, hil batzu pitzaraci ditu, eriac non nahi sendatu; eta, bera etcitkelacotz hel eri gucietara. haur batzuec emanaraci, eri hekiei, *Credo*, arrosario benedicatu batzuec hec ukhi², eta sendatuac dire. Haukien gucien ondotic, nolaz ez sinhex hunen erranae!

Bai, denac Jaincoa ganat itzultcen dire; eta, hantche berean, berrogoi bat miñac hartcen du bathaioa. Eta Perlaketari haukiekin egin duena eginen du bertce berrogoita hamar tokitan³.

Hortacotz, badabila herriz-herri, probintciatz-probintcia, erresumaz-erresuma, urez eta leihorrez⁴, cer nahi traba baduelaric egun guciez bere bidean. Gure arimen exaiac bereciki han izanen ditu bethi trebes; cenbeit aldiz ageri, itchurarie lazgarrietan, joco ere dute bertce aldi batzuec, gerthatu⁵ citzaion bezala Meliapourec hirian, san Thomasen elizan; bainan gure saindua joanen da aintcina bere bidean, hauxiz traba guciac, eta conbertiarazten cituen herriac gomendatuz emeki-emeki ethortcen citzaizcon apez lagunei.

Zazpi urthe horrela iragan dituenen, Jaincoac aditcerat⁶ emaiten dio, urrunago joan behar duela. Cen tokitic hirur ehun lecoa urrun, jakiten du badela isla handi bat, Japonia deitceu dena, eta jendez osoki bethea. Debrucec here meneco dagocate isla gucia, eta hango seme batec eman diozea, haren gainean, nahi cituen berriac.

Berehala egiten du inguru bat giristinoaraci dituen tokietan, eta hartcen du Japoniaraco bidea, jadanic bathaiatua cen Japoniarekin batean. Noizbeit heldu ciren. Eta bere lagunari

¹ Bouebi edo pochi. — ² Hounki. — ³ Lekhutan. — ⁴ Lurrez. — ⁵ Agitu. — ⁶ Entkelegatcerat.

esker, ungi-ethorri¹ on bat izatu zuen hunen ethebecoen ganic, eta halaber, hunen erregearen ganic.

Errege hunec uste zuen lehenbician, urbe edo cilharketa zabilala arrotz hau. Eta hortacotz egiten dio cerbeit escaintza. Ordean Franxesec erraiten dio: Ez, Jauna, ez dut urbe edo cilhar bilteagatic utci ene herria; arimaketa nabila hemen gaindi; nahi diot jendeari cerueo bidea eracuxi. Gero, Jaincoaz igorria cela gucici sinhexarazteco, egiten du, han ere, asco miracuilu.

Egun batez, arrantzaile batzu leihorrera² ciren deusic atce-man gabe; Franxesec benedicateen du ixasoa, eta manateen diote, berriz ere arthic³ detzatela beren sareac. Arrantzailec zaasaten etcela hoberic⁴, bainan egiten dute sainduac errana, eta harteen sarec jasan⁵ ahala arrain.

Bertce belün, haur bat ekharteen diote, haurraren eiteric ere etzuen. Erraiten du hirur aldiz haren gainera: « Jaincoac benedica zaitzala; » eta haurra chuchendua cen eta osoki sendo. Lepradun bat garbitcen du here gaitzetie, hirur aldiz ceinatcen duelarie.

Aldi batez oraino, aita bat hurbilcen zaio dena nigarretan, eta erraiten dio: Jauna, alaba hil zait, othoi, urricak zakizkit⁶. Sainduac ihardesten dio: Zohaci, bici da zure alaba; eta piztua causitu zuen etchera cenean.

Lurreco axeginei osoki estecatua cen jende hekien beren baithan sarrarazteco, cerbeit holaco behar cen. Hasi cen beraz bathaiatcen; eta nahiz jainco falxuen apezac hari ciren gogoac eman gucien egiten, populuari sinhexarazteco gizon engana-tzaile bat baicic ez dela Franxes, nahiz, ascotan, erregeac berac jeikitzen diren hekien-alde, hargatic gure sainduaren solhasa ez da lurrerat erorteen. Haci on bat da uzta ederric oraino emanen duena. Bai, alfer da hari bihurtu nabi izaitea; milaca, ehun milaca irabazten ditu arimac.

Bi urthe zuen iraganic Japonian cela, Izpiritu Sainduac

¹ Batzarre. — ² Lur i lorrila. — ³ Ourthoue edo aurdic. — ⁴ Erraiten cien. — ⁵ Egar. — ⁶ Ukhezu pietate nitzaz.

jakinarazten dionean, Goaco hirira joan behar duela, hango egitecoen antholatera¹. Gristino berriec etzuketec holacoric nabi; bainan, denac nigarrez uzten dituelaric, abiatcen da.

Untcian sarthu eta cenbeit egunen buruan ixasoa hasarrelcen² da; eta geroago eta gehiago gaiztuz doha. Capitaina exia da jadanic burutciaric egitea, eta guciaric harrituac azken orenaren beha daude; bainan Franxes han zuten. Franxesec manatece du ixasoari, eta ixasoa facegatcen³ da.

Denboraren buruan heldu cen Goara, eta han egonic bere egitecoec galdetecen cioten becenbat, berriz ere igan cen unteira, Chinan behar zuela egin Japonian egin zuena.

Untcian, nahiz, capitain eta marinel, denac Portugesac diren, etcion nihore begiratece oa bat egiten ahal; sainduarentzat ez du nihore eitate tchar eta solhas tcharagoric baicen. Eta horra non, edateco ura escasten zaioten, eta egarriac erretcen hari ditu.

Bederen Franxesen alderat⁴ hobe eta eztiago izatu balire, igurikitceco izanen zuten, huni esker, cerbeit laguntza; bainan hainbertce laidoren ondotic, cer esperantza izan dezakete? Behar-ere husu cituen ahantciaric laidoac eta mesprecioac san Franxesec. Ukhitua hekien oihace⁵ ikharagarriez, ixasoco ura ganbiarazten da ur edatecota.

Mahometano baten haurra oraino erortcen da ixasorat, eta hunen othoitcei esker da, sei egunen buruan ixas-zolatic agertcen bici-bicia. Horien gucien gatic mariuelac eta mahometanoa itzuli ciren osoki Jaincoa gauat.

Chinan, halacoac ciren ecen legeac, etcen nihongo arrotcie sartcen ahal. San Franxes, leihor bazterrera heldua, beha zagon, isla ttiki batean, nor izaneu cen hango atheac⁶ zabalduco ciozcana, noiz-eta-ere sukhar borthitz batez joa dela ezagutcen baitu; burua erdiratu nabi zaio, eta oihaceric borthitcenac, oraino, sabelean ditu.

Untcia delacotz ospitalea, barat doha; bainan untciaeren ha-

¹ Cluchentcera. — ² Samurteen. — ³ Ematecen. — ⁴ Er. teian. — ⁵ Sofricari. — ⁶ Borthiac.

rat-hunatac nahastenago baicen, ez dio barnea. Itzultcen da beraz leihorreat, eta etzaten da airea bera ere baratcen ez dion etchola batean.

Hara non den etzana lurrean, eta etzana ez gehiago jeikitceco; hura, Chinan sarthu-eta, hango jende gucia Jaincoari irabaci ondoan, nahi cena, bazter guciac caritatearen su sainduaz kharretan ezartcen cituelarie, Russian eta Alemanian gandi, Erromara itzuli. Jaincoari, aski citzaion guticia Saindu hori; eta etchola tehar hartarie da joan beharra Escualduni handi haren arima cerurat.

Han dago, oraino hamahirur egunez, lurra ahantcia; bere Jesus maitearekin eta Birjina sainduarekin solhasean, diolarie: Jesus Daviten semea, urricalmenduzco¹ begiratce² bat egidazut! O Maria, eracux diezadazut ene ama zarela!

Azkenean, abendoaren bia cen eta ortcirale bat, amodiozco nigarrez Jesus Jaunarentzat begiac betheac, eta musu³ emaiten ciolarie gurutceficari, erraiten ditu oraino hitz hanc: Zu baithan, Jauna, ezarri dut ene esperantza, ez naiz galdua izaiten ahalo; eta, ceruticaco bozcario bat begitartean, bi orenac irian, eman zuen azken haxa, berrogoi eta seigarren urthean celarie.

Orai arteraino erran dudanetic, iracurtzaileac icus dezake cenbat urbax egin duen saindu hunec arimen ondotic, eta cer arimaketa handiari besarcaraci dion Jainco-legea. Bainan etzait iduritecn baratcen ahal naicela cerbeit gebiago erran gabe, san Franxes baithan agerienic ciren berthutez.

Nolaco umilitatea zuen, ezagun cen cerbeit laudorio emaiten ciotenean; ecen orduan, dena ahalcatua zagon. Egiten cituen miracuiluez, cion, berteen fedea zuela Jaincoac miracuilu hetaz saristatcen. Erraiten zuen oraino bere predicuetan, etcela nihor Jesusen cerbitzari, non etzuen bere burua mesprezatcen.

Horrelaco umilitatearekin aise cen ezti izaitca lagunuen alde-
rat, errech citzaion ere obediteca. Hala-hala, bere aita san Ina-
ciori iseribatu nahi cionean, belhaunico emaiten cen letraren egiteco.

¹ Misericordiazco. — ² So. — ³ Pot.

Umilitate horrec oraino, ecin handiagoco amodioa eman cion pobreciarentzat. Norat nahi dohala, balinbada ospitale bat, han duke bere egoitza. Indietan, ehun aldiz pedazana eta aphaindua izatu den sotana batekin dabila; batzuetan sotana cilhotic, athorra ere cilho duela ageri; eta zapel ikharagarri batekin. Indietan eta Japonian oraino, noiz nahi orthux zabilan.

Ez da hain aise adiaraztea cer duen pairatu¹ eta cer pairateeco gosea zuen: behin, unteia galdu celacotz, egotu cen hirur egunez taula baten gainean; bertee behin, bi edo hirur egunez, borchatua da sasi² batzuetan gordea egoitera; gerthatu zaio ere, hirur gau-egunez, jan ez edan gabe cobesatcen haritcea, eta zazpi egunez bidean ibiltcea deusic jan gabe. Gero, cenbat aldiz etzabilan ihes bere exaien escuetan ez erortceco? Eta horiec guciac ez aski, nahiz borthitzac ciren egun guciez bere buruari bere nahitara jasanarazten ciozcanac, hala-ere haren guticiarie borthitceena cen, oraino cerbeit gehiagoren pairatcea, arimen salbateagatic.

Aldi batez Jesus Jaunac eracusten diozca harentzat dauden gurutceac; eta saindua oihuca hasten zaio, erraiten diolaric: *Gehiago, Jauna, oraino gehiago*; ecen etritzaien iduricen hazukela aski, begien aiteincan cituen pairamenekin. Bazuen Andre dena Maria baithan sinhesteric handiena; eta hari cion oihu egiten bere behar-ordu gucietan.

Cer erranen dat orai, Jesus Jaunarentzat zuen amodioaz? Segur dena da, othoitcean izan zadiela edo bere lan gaitzen ordian, etzuela nihoiz³ abantzten bere Jesus maitea. Lo zaramazcan bizpahirur orea hetan ere, entzuten ciozcaten hitz samur⁴ hauc: *O nere Jesus ona! o ene arimaco amodioa! O nere creatzailea, nere Jauna!* Jesu Christoren pasioneco michterioez, cion, Jaunac ekharteen zarocun amodioaren seinale onac eta bahi segurac cirela pairamen hec.

Jesus Jaunac ere saristateen zuen bere cerbitzari kharsua graciarie handienec eta conxolacioneric Lerecienez. Gau batez, Goaco hirian celaric, icusi zuten saindua baratcean zabilala,

¹ Sofritu. — ² Tnarta. — ³ Behingre. — ⁴ Trende.

bere barneco bozcarioa ecin jasanean, eta beroaren-beroz sotana lachatua gerriraino; entzun ere ciozcaten solhas haue: *Badut aski, Jauna, badut aski.*

Jesusec eman cion oraino, nor cer bekhatuz hobendun cen eta geroan cer izanen cen icusteco ahala; eta gracia horiez guciez eteen baliatcen arimen Jaincoaganat itzularazteco baieic.

IRAGAXPENA

Maite badugu egiazki Jaincoa, ecin egonen ahal gare ceredo-cer arimen salbamenduarentzat egin gabe. Fidel izanen gare, bederen, gure amoina Itikiaren egiteari, fedea heda dadien bazter gucietaraino, eta, egun guciez, erranen dugu, chede hortarat, *Gure Aita, Agur Maria eta Gloria*, bertce ahapaldi chume hunekin: *San Frances Xavierreco, othoitz egizu guretzat.* Horrela merecituco dugu saindu hunen arartecotasuna, saindu hunec ardiexico darocu berthutearen praticatceco escas dugun curaiea, eta halaz salbamendua.

ABENDOAREN 4^{on}

SANTA BARBA, BIRJINA ETA MARTIRA

Hirugarren mendean.

Casie guriee uste dutena da, santa Barba sorthu cela Asia-chumeagoco¹ probintcia batean, Nicomediaco hirian. Hunen aita, Dioscore, gizon aiphatu bat cen, bainan jainco falxuen adoratzaille kharsua. Alaba bat izanki² guciz ederra, eta, behar ez den cerbeit gertha³ zakion, ikharan zagon. Hortacotz, ungi baino hobeki egiteagatic, gaxhatcen⁴ du dorre handi baten barnean, eta han dagoca gabaz eta egunaz.

Ordean, nola nahi baitu, gerochago munduan, eder bezain jakinxun ager dadien, dorreco athea⁵ zabalteen da, noicie-behinca, nagusirie handiennen sartcerat uzteco; eta horrela⁶,

¹ Tchipiagoco. — ² Ukhen. — ³ Agit. — ⁴ Giltzateen. — ⁵ Eortha. — ⁶ Gisa hortan.

nagusi hetaric bati esker, Barbac ezagutcen du gure Erlisioe saildua eta giristinotcen da.

Ezcontceco adinetarat heldu denean, aitar egiten dio norbeiten escaintza. Bainan Barbac jadanic hautatua zuen, bere bethico Esposzat, Jesus Jauna; eta uzten du aita, erranic, ezdela oraino ezcontcerat ekharria.

Gizon hau nabigabe horren ahanzteco, hiritic canpo abiatcera dohalaric, denbora cenbeitentzat, alabac galdegiten dio bere gazteluan egon behar duenaz geroz, mainbutegi bat egin diozola, dorreari datchicola¹. Aitar onhesten dio galdea, eta, langilei erranic nola eta cer heinetaco egin, badoha.

Harginec zuten manna bi leihoren egiteco. Barbac hirurgarren bat galdegiten diote, ondorio gucien bere gain hartcea agintcen² diotelaric. Egitea dituzte beraz hirur leiho, eta oraino, hor-hemenca harrietan, gurutce ttiki batzu.

Aita ethorri orducotzat, mainbutegia egina cen. — Cergatic hirurgarren leiho hori? galdegiten du Dioscorec. Barbac ihardesten dio: Nic dut, aita, hori eragin³, ceren Jaincoa baithan baitire hirur presuna, eta hekien oboretan. Gurutce hauc eginaraci ditut, oraino, errechkiago⁴ eta maizago⁵ orhoit ahal nindadien Jainco Seme, gure gatic gizona ondoan, gure gatic oraino gurutcearen gainean hil denaz.

Hitz hauc hain kharsuki, hain ocenki erranac dire, non aitar berehala icusten baitu, alabaren bihotzac, behin bethicotz, utzi duela haren jaincoen baithango sinhestea. Hartcen du beraz expata, Barbaren hartaz, iragaiteco.

Halere⁶ athea zabalac cen, eta emaiten du haurrac lasterrari; ez herioaren beldur delacotz, bainan holaco bekhatu baten aitari egiterat ez uzteagatic.

Aita abiatcen da haurraren ondotic; uste ere du berehala atcemaiten duela; ccen Barba dohan bidea hexia da, mendi tarté batean, harroca ikharagari batez, eta ecin dohake urrunago; ordean harroca bi erdi egiten da, haurra hurbiltcearekin;

¹ Atchica edo contra. — ² Hitz emaiten. — ³ Eginaraci. — ⁴ Aisiago. — ⁵ Ardurago. — ⁶ Ironski.

eta, mendian inguru bat eginic, gorde cen Birjina gaztea lece ttiki batean. Aita dohacabeac etzuen beharbada atcemanen bainan artzain batec, salhatcen dio non den.

Orduan basa-gizon hunc, hartu escuetan bere haurra, eta arthikiteen du¹ hurrerat; joca, osticoca, umatcen² du; eta gero, biloctaric herrestan, eremaiten du Marcien gobernadorearen aintcinera, giristino dela, eta, giristinoei buruz ekliarriac diren legea arabera, izan dadiela haren alabaz.

Marcien hari da lehenic, lausenguen³ eta agintcen bidez, ja haur haren gogoa ganbiarazten ahal duen; gero aldiz, ezagutu duenean dembora galtcen baicic ez duela, azote ukhaldica che-hacarazten dio gorphutz gucia, eta alde gucietaric odola dariola ezarrarazten du. Azkenean, bertceric, cer pairaraci³ behar cion asmatu⁴ arteraino, presondegirat igortcen du.

Presondegian etcen lucez bera egon. Jesus Jauna agertu citzaion, argidura eder baten erdian, eta erran cion: Etzaitecela loxa, haur maitea; jasan⁵ beharco zaitzun gudukec diraucteno, hor, zure aldean naukezu. Eta sinhex ahal dezazun egiaz mintzo natzaitzula, sendatcen darozkitzut zauri guciac.

Biharamunean, gobernadoreac berriz ere ekharrarazten du bere aintcinera; eta, deus zauriric gabe icusiz, egiten du bere baithan, jainco falxuei diokela zor sendatce hori, erraiten dio beraz, behar diozcatela eskerrac eman. Ordean Barba sainduac ihardesten dio: Cein zaren ixu! uste duzu beraz, berec, izaiteco, gizona escuen beharra duten jainco batzuei diotedala zor ene sendateca. Ez, ez! Jesus ene Jaun maitea da ni sendatu nauena.

Hitz horiec gizona ezbezalacatcen dute Marcien; eta burregoei emaiten diote manua, burdinazco orrace batzuez, larru diotzotela sahexac, erre hertceac, eta, mailu ukhaldica, leher diotzotela burua. Oinhace⁶ horien erdian Barbacciona, hau cen: Ene Salbatzaile Jauna, badakizu zurea naizela, zureganic dudala igurikiteen ene indarra; etzaitecela urrunt niganic.

¹ Ubelteen edo oordintcen. — ² Ba'akien. — ³ Sofrieraci. — ⁴ Phen-xatu. — ⁵ Egar. — ⁶ Sofricari.

Haur gazte batec jasan ahal baino handiagoac citezkela horieci oro, erran diteke: Bizkitartean Barba oraino bici da. Eta cer diozoke gehiagocoric egin gobernadoreac? Bulbarrac elacarazten diozca; eta lazgarri ere den pairamen¹ horren ondotic, egundaino bezain hazcar du gogoa Birjinac. Garbaitua dena, da Marcien.

Gaichtagin hunec bere ecinbertecan, eta bederen nihor ez dadien haur hunen urhaxei jarraiki beharrez abia, nahi du, hirico carriketan gaindi, herrestan bilucia ibilaraci; Barbac aldiz egiten du othoitz hau Jaincoari: Eta zuc, ene Jauu ona, ez dezazula utz mundutarra irriz asetcera, ni ahalkez urtcen icusiz. Bai, ibilico dute carricaz-carrica; ordean beztitua diteke ceruticaco jaunztura eder batzuez.

Azkenean gobernadoreac, icusiric alfer direla indarca guciac, condenateen du ezpatz joa izaitera.

Dioscore horren beha zagon; galdetcen du, (aitaren bihotza cer bilhacatu haiz!) galdetcen du alabaren hiltcea emana izan dakiola. Ondicotz² izanen du axegin³ hori.

Hiltcera zohalaric, santa Barbac egin zuen Jaincoari othoitz hau: Ene Jainco ona, zuri ceroniri⁴ esker, zure exaien garbaitiar, lurraren uztera noban huntan, escateen⁵ dautzut, ene icenean cerbeit galdetcen dautzunari, othoi, egina izan dakiola bere nahiaren arabera. Mintzo batec erraiten dio: Zure othoitzac ophexiac dire, Barba, zato⁶ ceruan duzun khoroaren hartcerat.

Etzuen denboraric lucezago mintzatecco. Aitac, ezpata ukhaldi batez, kendu cion bicia, abendoaren lauean.

Aita haren gaztigua ere etcen urrun. Etcherat zohalaric bere alabaren odolaz bustia, aire gaichtoac erre zuen. Handic laster, hala-hala errea izatu cen Marcien. Horra cergatic othoitz egiten den santa Barbari ihurtzuriac⁷ hari direnean.

IRACAXPENA

Cenbatnaz ere baita garbikiago⁸ bici giristinoa, hainbertec-

¹ Soficari. — ² Maleronski. — ³ Placer. — ⁴ Cihauri. — ⁵ Galthateen. — ⁶ Treisuri. — ⁷ Uhulgiac. — ⁸ Chahukiago.

naiz hazcarrago da haren fedea. Hortacotz sainda hunc bezala maite izan dezagula garbitasuna, eta gure fedearentzat ezditeke gehiago hedoiic¹, bainan errechki icusico dugu mundu huntaco gaucen ezdeustasuna.

ABENDUAREN 5^{ua}

SAN SABAS, ABADEA¹

Hila 531^{oa}

Sabas sortlu cen orai Turkiaco den probintcia batean, Cesarco hirian, aita eta ama girstino batzuen ganic. Bainan burhaso² hankiei joan beharta citzioten Alexandriaco hirirat, eta iteci zuten haurra osaba baten escuetan.

Gizon hunen emaztea guciz mokhorra cen. Hala-hala Sabas, ez duelaotz etche huntan gaizkiric eta esker gaichtoric baicen, badoha bertee osaba baten ganat.

Haurraz bertzalde, baciren hunen onthasuaac; eta horra non, bi osabac osoki hasarreteen diren onthasun hekien gainctic; eta Sabas, han bederen bakea izanen duela, joaiten da, zorteci urthetan, comenfu batetarat.

Etche saindu hartan cituen eracuspenc³ icusiz, eman cen jaidura⁴ gaichtoen gducatcen, eta berthuten haciaren bere ariman eraiten.

Egun batez, baratcean hari delaric lanean, sagar ondo batean icusten ditu fruitu eder batzu hori-horia egimac. Nasaiki⁵ izan-ki, nihor hantchet hari begira⁶, cergatic ez du bat janen? Hartcen du. Bainan, ordu berean, oharteen da gure arimen exaiac diokela guticia hori eman; eta berehala, arthikiric⁷ sagarra lurrerat, zangoen azpian lehertcen du; eta, bere buruaren gatzigatceco, hartcen du chedea, ez duela nihoiz gehiago sagarric janen.

¹ Odeiiic. — ² Aita eta ama. — ³ Exenpliac. — ⁴ Enjogidura. — ⁵ Ausarki. — ⁶ So. — ⁷ Ourthoukiric edo aurdikiric.

Horrelaco¹ gauza ttikietan graciaren mintzoari beha zagona, etzohaken emeki ceruraco bidean.

Huna nolacoa cen haren fedea : Behin batez, comentuco okhinae soineco busti batzu ezarri cituen idorteen labean ; eta bilaramunean, ahanteiric hekien kentcea, piztu zuen sua. Labe gucia sutan denean da oharteen bakharric bere lanaz. Philda tchar batzu citezken, bainan cinez min diote egiten bihotcean, hekien galtceac. Sabas okhinaren muthil denac egiten du orduan gurutcearen seinalea ; eta, suaren erdian ibiliric, atheratcen² da soinecoekia batere erre gabe.

Jadanic ikhasichea nola saindu, joan cen, hemezortei urthetan, sainduagotceagatic, san Euthimeren comentura. Saindu hunec, hainitz garrazki bici celacotz, etzuen bere etchean hartu nahi izatu ; bainan bidali³ zuen bertce comentu batetarat. Han Sabasec laster eracuxi citen zaharrenei berei on cela hekiekialaco.

Hamabi urthez horrela egotu den ondoan, eta berthute guciec, diteken hobekiena, distiratcen zutelarié hura baithan, galdegiten du bertcetarié berheztea ; eta, onhexi diotenean, badoba mortuan barnago. Harri-cilho batean izanen du, han, bere egoitza ; eta erran diteke deusic etcirela haren hango jana eta loa. Jaincoaren laudorioen cantateen eta saski egiten, zaramazcan⁴ asteco bortz gau-egun.

Larunbatean⁵ joaiten cen comenturat ; eta gero, igandean meza eta predicua entzunic, comunione sainduaz hazcartua, saski egiteco behar zuen abar zamarekin⁶, hartcen zuen, berriz ere, bere harri-cilhoraco bidea.

Bortz urthe hola iragan cituenean, san Euthimec zabaldu ciozcan bere comentuco atheac⁷ ; bainan, denbora laburrentzat, ecen Euthime zahartua cen orducotzat, eta hil cen handic laster.

Sabasec etzuen oraino asca saindutceco zuen guticia. Uzten du beraz etche hau, sartcen da mortuan⁸, eta, egundaino baino kharsukiago emaiten da penitencia egiteari.

¹ Gisa hortaco. — ² Jelkhiten. — ³ Igorri. — ⁴ Erouaiten zutian. — ⁵ Nescanegunian. — ⁶ Hachiarekin. — ⁷ Borthac. — ⁸ Bortian.

Gure arimen exaiac asmatcen ¹zuen, horrelaco fedea zabilan gizonac cer nahi calte' egiten ahal ciola. Hortacotz hari zaio, ja nolazpeit ez duen loxaracico. Noiz nahi, cer nahi itchura lazgarrien azpian agertcen citzaion.

Aldi batez, Sabasec icusten du lehoin bat, cocorico jarria, begira dagocola. Ezagutcen du errechki³ Satan duela hantchet eta erraiten dio : Haicen bezalaco, sai⁴ beltza, nere gainean cerbeit escu balinbaduc, ceren beha hago ? Aitcitic⁵, ez badarotac deus minic egiten ahal, cergatic hoin alfer daramac denbora ? Hainbertcenarekin egiten du gurutcearen seinalea, eta ordu berean sunxitcen ⁶da lehoin orde hartan gordea cena.

Mortu hartaric, Jaincoaren Izpirituac joanaraci zuen jenden icusmeneanago cen mendi batetarat. Harpe batean duke, han ere, bere egoitza, eta belhar erroz⁷ da bicico, edo iragailen ganic duken ogi eta gasna pichca⁸ cenbeitez.

Emeki emeki Sabasen saindutasunaren omena barreiatcen da ; eta, batzu bertcen ondotic, zazpitan hogoi baino gehiago lagun ethortcen zaio. Hekientzat, egiten du etche eta etchola. Bainan ura dute urrun, eta, oraino, biciaren gal-ordean⁹ jauxi behar duten erreca gaitz batean.

Sainduac othoizten du Jaincoa, hurbilago eta toki¹⁰ hobe batean eman diozotela ithurri bat. Nola utcico du Jaincoac Sabasen galdea entzun gabe ? Ez fede hazkerregia zuen ! Othoitza akhabatcearekin, sainduac icusten du aldechean orkhatz eder hat, lurra besoaz joric, edaten hari dela. Bazuen beraz guticiatcen zuen gracia.

Horrelaco artha¹¹ zuelaric bere haurren arimez eta gorphutcez, nahiz hainitz etche baduen bere azpico, hala-ere badohaci lucez bakean eta batasun saindu batean.

Bainan ez da aski etche sainduetan izaitea saindu izaiteco. Bere ustez cerucotzat hazten cituen fraide batzu jazartcen¹² zaizco, gaizkiegi ekharriac direlaco aitzakian¹³. Eta hura, hekien aita, etchetie atheratcerat bortchatua da.

¹ Phenxatcen. — ² Ogen. — ³ Aise. — ⁴ Basa ihici. — ⁵ Countralat. — ⁶ Galteen. — ⁷ Zainoz. — ⁸ Bouchi. — ⁹ Hiltceco lanjerrian. — ¹⁰ Lekhu. — ¹¹ Errencura. — ¹² Buhurtcen edo oldartcen. — ¹³ Estacurian.

Orduan, ibes zohalaric, citzaion gerthatu gauza hau : Unhattua¹, egun gucia bidean ibili delacotz, sarteen da, ihhun nabarrean, lece batean, gauaren iragaiteco ; eta othoitzac eman ditueanean loharcatcen² da.

Gauerdi gainean atzarraracia cerbeitez, ezagutcen du ikharagarrico den lehoiñac zuelaitiratcen. Eteen hargatic icitu saindua. Casuric egin gabe lehoiñari, eta comentuco ezkilac³ jeikiaraci batu bezain lañoki, hasten du gauazco officioa. Lehoiñac ere egiten ditu bizpahirur urhax gibelerat, eta uzten du egin dezala bere lana. Bainañ akhabatu duenean hurbilteen zaio berrire ere, eta egiten dio bigarren tiraco bat arropetaric. Sainduac aldiz ihardesten dio : Anaia, icusac, hementche nahi bahaiz egon, badiaguc bientzat toki⁴ franco ; eta ez balin baduc hola nahi, hi baino handiago bainaiz Jaincoaren begietan, bertee etzangiaric bilhatuco⁵ duc hiretzat. Eta lehoiñac, hitz horiecentzuearekin, hustu zuen lecea.

Bizkitartean, bazter hec bere azpieco cituen Apezpieuae, jakinic cer nahaskeria den Sabasen comentuan, deitzen ditu, bere gana, haurride buruzkin hec, eta san Sabas ordenatcen du apez hekien aintcinean. Emaiten diote ere hauta, edo hura ezagut dezatela beren aintcindaritzat, edo canpoa har dezatela. Canpoa hartu zuten. Bainañ Sabasec etcituen horrengatic ahantci.

Berekin hartu jatereoac akhabatu zaizcotela ere eta gosea dutela etchean jakiten du behin. Eta berehala igortcen diote escas duten gucia. Geroan hala-hala igorrico diote, handic eta, beren gaizkia aithortcen dutelanic, barkhamendu galdetcera ethorri etzaizcono. Horra nolaco eztitasunaz eta ontasunaz arimac milaca irabazten ciozcan Jaincoari.

Bera, aspaldion ondua⁶ cen cerucotzat. Lauetan-hogoi eta hamabi urthetar, jakinxun biltcera dohala, bilarazten ditu bere meneco dituen guciac, eta, hekiei bere azken gomendioac eginic, ezti ezti ezartcen du bere arima Jaincoaren esenetan.

¹ Eñheric edo akhitia edo nekhatua. — ² Lotcen edo lokhartcen. — ³ Ceññiac. — ⁴ Lekhu. — ⁵ Cherkhatuco. — ⁶ Hounthia edo onthia.

IRACAXPENA

Sainduac, salbatceagatic, bici izatu dire eta oraino bici dire mortuetan eta comentuetan, penitenciaric ikharagarrienen erdian. Eta gu, ceru berera heldu nahi garenac, nola bicico gare batere beldurric gabe, munduan garelaric eta exaiez inguratuac? Ez, ez! ez gare ceruan sartcen ahal gure buruei bortcha eginez baicic; eta hortacotz, gure eginbide guciei jarraikiteen garelaric, egin dezagun, guc ere, penitencia; edo bederen har detzagun penitenciazco izpirituz gure egun gucietaco lanac.

ABENDOAREN 6^{an}

SAN NICOLAS HANDIA, MIRACO ARCHAPEZPICUA

Hila 226^{an}

—

Saindu hau sorthu cen Turkia Asiacoan, Pataraco hirian, aita eta ama giristino kharsu batzuen ganic. Bazuen ere osaba bat Miraco hirian, archapezpicuena. Horietaric ieusteco da, nolacoac izatu citezken Nicolisen lehen urtheac.

Gazetasuneco egun gaitzetan celaric, gal lu cituen bere burhasoac¹; eta horrela², bereac dituzke goizdanic, etche handi batetaco lurrac eta aciendac. Ordean ceruco onthasunac irabaci nahi dituen bihotz batentzat, cer da lurrecoec duten balioa? Nor nahirentzat lohi pichca³ batec duena. Hortacotz hari da duen guciaren lehen-bai-lehen emaiten.

Behin batez, jakiten du, aberax izatua cen jaun batec nahi dituela bere hirur alabac bideric trichtenean ezarri. Nicolasec hartcen du, berehala, lehenaren dotearentzat behar citekena; eta gauaz, nihore icusi gabe, arthikitec⁴ dio leihotic, gelara⁵. Lehenac ezcondu denean, bigarrenarentzat egitea du bertee hainbertee.

Aita dohaxua, segur hala-hala citekela hirugarrenarentzat.

¹ Aita eta ama. — ² Gisa hortan. — ³ Bouchi. — ⁴ Ourthoukiten. — ⁵ Ganbarara.

eman cen celetan ¹, jakin behar zuela, nori cioken zor horrelaco zorion ² exia; eta Nicolas, zarpalara ³-bat diru arthikiric hirugarren aldicotz, lasterca abiatcera zohan, baratua izan cenean eta ezagutua.

Cer egin duen, errana izinen delaco beldurrae ikharetan dagoca. Jaunac, bai, hitcemaiten dio, ez duela salhatuco; bainan, bibaramun arraxa gabe, hiri guciac bazakien; eta hasi cenjendea oiharteen hunec zaraman ⁴ bicitce ederraz.

Onthasuna partitu zueneco, hain cen saindu, non osaba archapezpicuac ezarri baitzuen comentu batetaco aintcindari. Bainan, handie laster, hil citzaion osaba, eta bera joaitcotan cen morturat ⁵, penitencia gehiagoren egitera, Jaincoac ezagutaraci cionean, beila bat Lur Saindurat, ceta bakharric, hare egin behar zuena.

Jesus Jaunarentzat eta haren pairamententzat ⁶ Nicolasec zuen bezalaco estecamendu kharsuarekin, errech ⁷ cen Jerusalemeco inguruetan lakhetcea. Jadanic, lehenago Jondoni Petric, Thaboreco mendiaren gainean, ciona zaasan ⁸ Jaincoari bihotceez: Jauna, hementche ungi naiz; ceren ez naiz, bici maiceno, hemen egonen? Ordean eteen hori Jaincoaren nahia; eta itzuli cen Miraco hirirat.

Cenbeit egunbakhar zuen hiri huntan ceta, osabaren ondotic hautatua izatu cen archapezpicua hiltcen denean. Biltcen dire beraz, berriz ere, inguru hetaco apezpicuac, ordain baten icendatceco; bainan, niholaz ez dezakete elkhar adi⁹.

Emaiten dire othoitecan; eta zabarreari Jaincoac jakinarazten dio, Izpiritu sainduaz hautatua dena, biharamunean Eliza athera ¹⁰, lehen diteken apezca dela. Apezpien hunec berac hartu zuen bere gain, nor citeken celetatcea ¹¹. Nicolas da lehen ethorteen dena; hura diteke beraz Miraco archapezpicu. Berri horrec bozealentcietan ¹² ezarri zuen hiri gucia.

¹ Coucouchean edo barrandan. — ² Irousite. — ³ Sakelatar. — ⁴ Erouaiten cian. — ⁵ Bortulat. — ⁶ Sefricarientaco. — ⁷ Aise. — ⁸ Erraiten cian. — ⁹ Enthelega. — ¹⁰ Borthala. — ¹¹ Coucoucheatcia edo barrandatcia. — ¹² Boztariotan.

Lehen meza eman dueneco, emacume¹ batec ekhartcen dio, surat eroriric, han erre zaion haurra. Nicolasec, han ciren apezpicu, apez eta giristino gucien aintcinean, egiten du gurutearen seinalea haur haren gainera, eta haurra pizten da.

Saindu hunec, bertce hainitz orduz ere, ezagutaraci du cer botherea duen suaren gainean; eta hortacotz othoitz egiten zaio, beira gaitzan, hala mundu huntaco sutic, nola bertcecotic.

Apezpicutuz geroz, bazuen bere azpico guciez artharic² handiena, Bainan gehenic maite cituenac ciren erromesac³. Bazabilan ere, nihoiz pausatu gabe, oraino pagano cirenen ondotic. Eta horra cergatic Licinius inperadoreac desterrurat igortcen duen, eta han chehacarazten, egun guciez, azote ukhal-dica, lehen-baino-lehen lil zadien.

Nicolas oraino bici cen, Constantin Handiac garhaitu eta erresumatic canpo ezarri zuenean Licinius inperadorea. Orduan, bide guciac zabaldu cirelacotz gure erlisione sainduarentzat, san Nicolas itzuli cen lehiarekin bere haur maitetara; eta egundainocotan eman cen arimen salbamenduari, eliza berri egiteari, beharretan ciren gucien sokhorritceari.

Loic eta janic gabe zagocan bere burua; bertceac aldiz, et-cetzazken icus deusen escasean; eta hekien laguntceco, noiz nahi, cer nahi miracuilu egiten zuen.

Ostaler gaichtagin batec hiltcen ditu, behin batez, hirur haur eta gacitcen, bertcei jaterat emaiteco. Sainduac gaichtakeria hori ecin jasan⁴ dezake, eta pitzarazten ditu haurrac.

Bertce behin hirur gizon, hobenic gabe, eta hala cirela zakielaric, hiltcerat condenatecen ditu gobernadoreac. Jadanic belhau-nico dire eta begiac estaliac dituzte, burregoac ere alchateera darama haizcora; hainbertcenarekin Nicolas saindua hurbiltecen da herresacan⁵ burregoa ganat, kenteen dio haizcora esetic, eta, gobernadorea bere oieskeriaz⁶ ahalkearacire, igortcen ditu gizon hec beren herrirat.

Bere lagunen onetan egin dituen miracuilu gucien contalcea,

¹ Emazte. — ² Errenewaric. — ³ Praubiac. — ⁴ Egar. — ⁵ Presacan. — ⁶ Salbaiakeriaz.

cein egin ahal ditekena da. Bakhar bat, oraino, aiphatcen dut, eta hontan baratcen naiz.

Behin, bacen ixasoan unteci bat calerna¹ ikharagarri batez garhaitua. Mariñelac marrascas zauden eta beren biloei tiraca: capitaina ere, ezagutuz ez duela luezago ihardokiteen² ahal, azken orenaren beha dago. Noizbeit halere³ mariñelac orhoiteen dire Nicolas sainduaz. Nicolasi oihu egiten diote; eta horra non, saindua heltecen zaioten unteira, erraiten diotelaric: luna non nauzuen.

Gero manatcen dio ixasoari, facega⁴ dadien, hartcen du lema escuan, eta ereman dituenean porturat bozcarioz non ciren etzakiten gizon hec, sunxiteen⁵ zaiote agertu citzaioten bezala.

Mariñelac badohaci elizarat, archapezpicu sainduari eskerren emaitera; eta sainduac ihardesten diote: Ni, ez naiz deusic, bekhatore bat baicen; bainan Jaincoari emotzue eskerrac: harc zaituzte sokhorritu. Eta gero, berei, erraiten diote ichilic, egin cituzten bekhatu batzuen gatic cirela, gal orde hartan izatu.

Horra lagunaren alderaco amodioaren sari, Jaincoac escuetan ezarri cion bothereaz cenbeit hitz.

Hainitz urthe zuen lur hunen gainean zabilala, amodio hunen kharraz errea eta ihartua, Jaincoac aditecerat eman cionean haren lanac akhabatcera zohacila. Cantatcen du beraz azken aldicutz meza. Egiten ditu adioac nigarrez urtzen hari den jende oste⁶ bati; eta, indar guciac akhitcen⁷ hari zaizcola, ezagutcen duclacotz, hartcen ditu azken sacramenduac.

Handic aintcina etcen gehiago mintzatu bere inguruan ageri cituen aingeruekia baicic. Noizbeit jo zuen orenac; eta ciozcalaric hitz hauc, « Jauna, ezartcen dut ene izpiritua zure escuetan », eman zuen bere azken haxa, eta hegaldacatu cen haren arima Jaincoa ganat.

¹ Tenpesta. — ² Buhurteen. — ³ Irouski. — ⁴ Ema. — ⁵ Galteen. — ⁶ Saldo. — ⁷ Urhenteen.

IRACAXPENA

Amoinaren bidez mereciten ditu san Nicolasec sainduta-
sunic handienera heltceco gracia. Amoina eginez, zuc ere,
ecezta detzazketzu bekhatuac. Emezute beraz, erromesei ahal
duzun gucia. Etzaitu bekiei emanac ceroni erromes bilhaea-
racico, eta, bai aldiz salbaracico.

ABENDOAREN 13^{oa}

SANTA LUCIA, BIRJINA ETA MARTIRA

Hila 303^{oa}

Lucia ethorri cen mundurat Siciliaco islan Siracuseco hirian.
Hunen burhasoac aiphatuac ciren, aberax cirelacotz eta oraino
ethorki¹ zaharretic; bazuten ere giristino izaiteco zoriona². Bai-
nan Lucia etcen oraino ezagutzarat heldua, eta jadanic aitaric
gabe cen; amac du beraz, argitcen gure Erlisione Sainduaren
gainean; amac dio ezagutarazten cein den handi Jesus Jaunac
ekhartcen darocun amodioa. Eta, horra cerc cion ukhi³ bihotza
haur gazteari.

Bizkitartean jakiten du amac hitzeman duela, ezcontzaz, pa-
gano aberax bati.

Cer axecabea mundutar eriantzat, jakitea ez dela hura sen-
datcen ahal duenic deusere! Aiphatu solhas⁴ hunen entzutea
khirexago izatu cen Luciantzat.

Ni, zaasan⁵ bere baithan, Jesus Jauna esposzat hautatua nai-
cena, gizon bati. pagano bati emana izanen naicela! eta, gomen-
datcen zuelaric bere burua Jainco onari, ihardexi zuen: Ama,
iguriki dezagun aphur bat, gazte naiz oraino, cer gatic lehia-
tuc⁶ gare?

Horrela⁷ denbora zobalaric, ama eriteen da, eta lau urthez
badabila, miricuz-miricu, zuen gaitzetic ecin sendatuz. Noizbeit-

¹ Arraza. — ² Irousitatia. — ³ Hounki. — ⁴ Elhe. — ⁵ Erraiten cian.
— ⁶ Presatuc. — ⁷ Gisa hortan.

jendea osteca¹ zabilalacotz Santa Agatharen hobian, hec ere, Ama alabec egiten dute bertec bezala, badohaci Catanaco hirira; eta, othoitcean eta aihenetan², badaude lucez, hobi haren aintcinean.

Azkenecotz Lucia loharcatcen³ da; eta, lotarie icusten du Santa Agatha, aingeruz inguratua, eta distiradurarie handie-nean; entzuten ere diozca hitz hauc: Lucia ene ahizpa, cergatic galdegiten darotazu zure amarentzat, ceronec⁴ ardiesten ahal diozuna? Zure fedeari esker ama sendo duzu; eta jakin zazu Siracusaco hiria aiphatua ditekela zure gatic, ene gatic Catanacoa den bezala.

Atzarri⁵ denean, erraiten dio amari: Ama, sendo zare; eta amac ezagutu zuen gaitzac utci zuela. Saritzat, galdeteen dio Luciac, ez dakion gehiago mintza ezcontzaz. Eta amac hitz hori emaiten dio.

Haurrac erraiten dio berriz ere: Othoitcen zaitut oraino, ama, ezcontcean eman gogo⁶ einauzkitan onthasunac, eman dietzadatzun orai berean. — Bai, zucenez ethorteen zaitzuna izanen duzu; bainan gaineracoaz, nahi naiz bici; eta hil naitekenean, hartaz ere eginen duzu dohatzuna⁷.

— Hil zaitzekenean, Ama! ihardesten du Luciac, bainan orduan cer sari dukezu Jaincoa ganie, ecin gehiago atchikiz utci diruarentzat? Solhas saindu horiec ganbiaraci cioten amari gogoa; eta berehala biac hasi ciren cituzten onthasun gucien amoinetan emaiten.

Lucia, bere ustez, andretzat behar zuen jaun gaztea badago lehenbician ichilic, harritua; gero, icusirie onthasun guciac badobacila, joaiten da Pascase gobernadoreari salhatcera, Lucia giristino dela.

Juica, lausenguz⁸ hasten zaio, behar duela Imperadoreu Jaincoei sacrificio escaini. — Sacrificio egiazki saindu eta escaini behar duguna, dio Luciac, alhargunxea eta umezurteen⁹

¹ Tropaca. — ² Haxperenetan. — ³ Lokhartcen. — ⁴ Cihaurac. — ⁵ Iratzarri. — ⁶ Gei. — ⁷ Placer dukezuna. — ⁸ Belacuz. — ⁹ Aitarie ez amarie ez dienen.

icustera joaitea da, eta erromesen¹ sokhorritcea. Hirur urthe huntan, horra ene sacrificioac; etzait orai berteeric baratcen baicic ere ere buruaren sacrificatcea Jainco biciari.

— Solhas horiec, erraiten dio gobernadoreac, idueatzu² giritinoentzat; badakizu Inperadore ene Jaunen manuac behar ditudala begiratu eta begiraraci. — Eta nic, ihardesten dio Luciac, nahi ditut ceruco Erregeren manuac begiratu. Zu, Inperadoreen beldur bazare, hekien manuei ez jarraikiz; ni, orobat Jaincoaren gaztiguen beldur naiz, harc manatua ez badut egiten. Zure escuetan naicenaz geroz, hilarazten ahal nauzu; baina ez! nihoiz³, ez nauzu Jesus ene Jauna ganic berecico.

Gobernadoreac icusten du, ez duela hoberic, gehiago eztiki mintzatuz; erraiten dio beraz, diteken saminkiena⁴. Ez dukezu hoinbertce solhas ukhaldietaratcen garenean.

Luciac ihardesten dio: Solhasa etzaiote escasten ahal Jesu Christoc erran diotenei: « Erregen edo Presidenten aintcinera agertu beharco zaitzuenean, ez duzue ceren bururic haux jakiteco, cer beharco duzuen erran; ecen mihiian ezarriac izanen zaitzue exaiac ichilaracico dituzten solhasac. Etzarete, zuec, orduan mintzatuco zaretenac, baina Izpiritu Saindua da mintzatuco zuen ariaz⁵. »

— Uste duzu beraz, erraiten dio Pascasec, Izpiritu Saindua zure baithan dela, eta hura dela zure mihiiaz mintzo. — Dakidana, dio Luciac, da, Izpiritu Saindna dagola garbiki⁶ bici direnetan.

— Hola denaz geroz, erraiten dio gobernadoreac, igortcen zaitut garbitasuna⁷ eta Izpiritu saindua galduco ditutzun tokietarat⁸. — Ez, ez! ihardesten dio Lucia sainduac, bortchatcen banauzu ere, ez duket ariman notharic⁹, eta aldiz baten orde, badituzket bi khoru¹⁰.

Aintcinlari gaichtaginac emaiten du manua, zarkerietaco etcherat ereman dezatela haur Jaincotiar hura. Baina cer da

¹ Prauben. — ² Atchicatzu. — ³ Seculs. — ⁴ Mingarkiena. — ⁵ Bidez. — ⁶ Chahuki. — ⁷ Chahutarzuna. — ⁸ Lekhietsalat. — ⁹ Thonaric. — ¹⁰ Corona.

gizonen indarra? debruarena bera cer da, Jaincoac beiratcea manatcen darozkigun onthasunic ederrenez dohanean?

Izpiritu Sainduac hala fincatcen eta gogortcen du, zagon tokian, Birjina hura, non burregoec ecin higiaraz ere baitezakete. Burregoekin, gobernadorearen muthilac eta soldadoac hari zaizco, unhatu¹ arteraino, ja ez duten handie abiaracico; idi pare batzu lotcen diozcate azkenean, halaz bederen² cerbeit eginen dutela. Alferretan dire indarrea horiee guciac; ez dute mugiarazten³.

Orduan, bere ahalkearen gordeteeco, Pascasec olioaz eta bidez bustiarazten du eta bethearazten Lucia saindua, eta eginarazten du haren inguruan egur meta⁴ bat; ez badio ere bekhaturic eragiten ahal, bederen behar duela biciric erre. Sua pixtua da, eta sainda hau badago suaren erdian bateré minic hartu gabe, eta Jaincoaren laudorioen cantatcen, egur guciac erre arteraino. Gobernadoreac icusten du, azkenecotz, densie ez dela hari; eta ezpataz hiltcerat condenateen du. Nahiz ezpata ukhaldia etcion osoki trencatu burua, hargatic, bazuela aski, hartan nteci zuten.

Giristinoac hurbildu citzaizconeon, mintzatu cen oraino hekiekin aphur bat; erran ere cioten laster bakea zuketela; eta gero, Biatico saindua hartua, joan cen haren arima hainbertce amoina, pairamen⁵ eta egintza⁶ Sainduen gatic hartce cituen sariez gozateerat, abendoaren hamahiruan.

Ezagutuada, legietaco minetan, on dela santa Luciaren deitcea, hala nola beldur denean suac gaina har dezan etche batean.

IRACANPENA

Santa Luciac baluke imitatzaile gehiago, munduco ama giristinoac ez balire diren bezain estecatuae lurreco onthasunei eta aphaindura ezdeusei. Cer contua, horrela, beren haurren bihotcetan urguiluaren hacia erain duketen amentzat!

¹ Akhita. — ² Phura. — ³ Zothuca erazten. — ⁴ Athe. — ⁵ Sofricari. — ⁶ Obra.

ABENDOAREN 21^{no}

SAN THOMAS, APOSTOLUA

Jesu Christo gure Jaunac bigarren urthea zuen predicateen hari cela, Thomasi erran cionean, hari jarrait zadiela.

Hau da, qrai, Ebanjelioac erraiten darocuna apostolu huntaz. Lazare hil cenean, Arrerosle Dibinoac aditcerat¹ eman cioten apostoluei Jerusalemerat zohala; eta nola batzuec gaitzesten baitcioten Jerusalemerat joaité hori, ceren zuela cenbeit egun, hil nahi izatu zuten Pharisaucec, Thomasec erraiten diote guciei : « Gohacen, gu ere, eta hil gaitzatela gure Jaunarekin. »

Jesu Christoc azken afarian erran cioten apostoluei : « Bada-kizue norat nohan, eta nohan tokiraco² bidea ezagutcen duzue. » Thomasec ihardesten dio : « Jauna, ez dakigu norat zohacin, nolaz dakikegu bidea? » Jesusec erraiten dio : « Ni naiz bidea, egia eta bicia; nihor ez doha Aita ganat nitaz bai- »

Jesu Christo gure Jauna piztu ondoan, hala nola Maria Madalenac ez baitzuen sinhexi nahi piztua cela, Aingeruaren erranaren gainean, ez Jondoni Petric Maria Madalenaren erranaren gainean, ez bertce apostoluec Jondoni Petriren erranean, san Thomasec ere ez du sinhexico, nahiz hamar apostoluec, erraiten dioten gauza bera. Icusi dutenean Jesus, orduan dute sinhexi bertce guciec, eta horra cer duen Thomasec ere eginen.

Piztu da! piztu da! diote guciec erraiten. Thomasec ihardesten diote : Baldin-eta ez baditut icusten haren escuetaco eta oinetaco itce cilhoac; cilho hetan ez badut erhia ezarteen, eta lantza cilhoan ene escua, ez dut sinhexico.

Eta, hala san Thomasec nola bertcec ez dutelacotz sinhexi omen baten gainean, bainan bakharric, beren begiez icusi dutenean Jesus, beren escuez ukhi³ dutenean haren gorphutza, horra cergatic sinhex dezakegun, guc, hekien errana.

¹ Enthelegatcerat. — ² Lekhilaco. — ³ Hounki.

Bazco zahar egunean, Thomas bertce apostoluekin delaric, agertcen zaiote berriz ere Jesu Christo gure Jauna; eta, guciei erran ondoan, bakea dela zuekin, Thomasi erraiten dio : « Thomas, ekharrac hunat hire erhia, eta begira zotec ungi escu haukiei, hurbil zac ere hire escua ene sahexera, eta ez hadiela izan sinhestic gabe, bainan bai leial. »

Belhaunicatcen delaric haren oinetan, Thomasec ihardesten dio : « Ene Jauna eta ene Jaincoa ! » Jesusec berriz ere erran cion : « Sinhexi due, Thomas, iensi naialacotz ; dohaxu¹ icusi gabe sinhexi dutenac ! » Horra cersu dakigun Ebanjeliotic san Thomasez.

Bertce apostoluekin predicatu zuenean, Lur Sainduan, Jesus hiletaric piztua eta cerurat igana, joan cen Iruzkiraco² alderat ; eta heldu cen errege Magoac zauden tokietaraino. Hec errechki³ giristinoaraciric, igorri zuen Thade, Jesu-Christoren ondotic zabiltzan hiruetan hogoi eta hamabi dicipuluetaric bat, eman cezola, Edessaco erregeri, Jesusec agindu⁴ cion arimaco eta gorphutceco osasuna⁵.

Avag ir, errege hau, orducotzat lau urthe hetan, eri cen, jakin zuenean Judeaco probintzian hacela norbeit, gizonarenez goragoco indarrekin cena ; ixuac argitcen cituela, gorrac ernearazten, eriac sendateen eta hilac pizten.

Jakin zuen, bertzalde, bacituela exaiac, eta hil nahi zutela. Gaztigatcen dio beraz, eri dela, eta ethor dakiola icustera. Erraiten dio oraino : Edessaco hiria ttikia da, bainan pollita⁶ ; zato⁷, gu, bientzat behar den gucia da. Jesusec ihardexi cion san Thomasen escuz : Dohaxu da ni baithan sinhesten ahal duena, ni icusi gabe. Ecen iscribatua da : Icusten nautenec ez dute sinhexico ni baithan ; eta aldiz, icusten ez nautenec sinhexico dute eta bicico dire. Gaztigatu⁸ darotazu ene ethorrazzteagatic ; Jerusalemerat ekharraraci nauten egitecoco manatcen darotet hemendic ez urrutcea. Berantchago, igorri nauenaganat igan naitekenean, bidalico⁹ darotzut dicipulu bat. Hare senda-

¹ Irons. — ² Ekuilaco. — ³ Aise. — ⁴ Bitzeman. — ⁵ Osagarria. — ⁶ Ejerra. — ⁷ Teiauri. — ⁸ Mezutu. — ⁹ Torrico.

tuea zaitu, eta ceroniri ¹ eta zurekilacoei emanen darotzue bicia.

Etzuen beraz san Thomasec, Thade dicipulua igortcean, Jesussec hitzemana baicic egiten.

Errege Mageoi besarcaraci ciotenean erlisione saindua, apostolu hunc eman cioten oraino bathaioa Ethiopiaco Beltzei. Gero, hartcen du Asia barneraco bidea; eta, herritic herrira, hiritic hirira iraganez, helteen da Indietaraino, hiri handi gucietan apezpicuac bere ordain uzten dituelaric.

Han gaindi izatu cituzken pairamenetarie ², ez eta ere egiten cituzken gauza espantagarrietarie ez dakigu deus handiric. Huna bakharric gure mendetaraino heldu den omenac cer darocun erraiten :

Meliapoureco hirian, hango erregeac, etciolaric uzten elizaric alchateera, ixasoac arthikiteen ³ du leihorrerat ⁴ ikharagarrico somer handia. Etciteken hobeki gertha ⁵ erregerentzat; een etche berri baten egiten hari cen. Hala-hala, lehiarekin igorteen ditu haren bilha ⁶ atceman dituen aciendaric hazcarrenac; eta jakiuic aciendac ez direla aski, ez dutela higiarazten ahal ere, igortcen ditu e'efantac Bainen aciendac eta elefantac alferretan dituzte leherrarazten. Somerra bethi toki berean dago.

Orduan, Apostoluac galdegiten dio erregeri, ja Elizaren egiterat uzten duen, somer hura hiriraino, berac, ekhartcen badu. Erregeac hitzeman cion, etzuelacotz uste deusetan aintcínatuago citekela Thomasen lana. Bainen sainduac Jaincoa alde zuen! Estecatcen du somerra gerricoaz, eta gero, gurutcearen seinalea eginic, eremaiten du, makhila bat ereman zuen bezain errechki.

Egin zuen orduan Eliza, eta canpoan, ixasoraco aldean ⁷, harri zahal baten gainean, ezarri zuen burdinazco gurutce bat, erraiten zuelaric : ixasoaren uhainac harri huntara heldu ditexkenean, ethorrico dire gizon larru churi batzu, nic predicatu darotzuedan erlisione beraren predicatcera.

Eta egiazki, nabiz orduan ixas-hegia hainitz urrun cen, harri

¹ Cihauri. — ² Sofricarietarie. — ³ Ourthoukiten. — ⁴ Lur idorrilat.

⁵ Agit. — ⁶ Cherkha. — ⁷ Gaintian.

hartaratua cen, Portugesen bandera lur betan landatua izatu cenean.

Huna oraino, bertee behin, cer egin zuen san Thomasec: gizon gaichto batec hil zuen bere semea Apostolu hunen galazteagatic; hortacotzat, Thomasec ciola hil zaasan¹ hazter gucietan. San Thomasec jendeketa handi bat begira² zagocolaric pitzaraci zuen haur hura, eta horrela³ eracuxi etcela hura haren hiltzailea.

Ordean jainco falsxuen apezac hasarreagoaric⁴ handienean ditu, ceren icusten baitute, laster galduac dituztela beren irabazpide guciac.

Harteen dute beraz sainduaren hiltceco chedea. Handic laster, apez betaric batec causiteen du othoitcean dagola, burdinazco gurutcearen aintcinean, eta, han berean, lantzaz iragaiten zuelaric kendu cion bicia. Gurutcea chutic zaduean⁵ harria gorritua izatu cen haren odolaz, eta hainitz menderen buruan, ezagun ciren, oraino, odol nothac⁶.

IRACAXPENA

Apez eta fidel, guciac apostolu gare. Guciac zar diotegu gure haurridei solhas⁷ eta exenplu onen predicua. Gure exenpluec ahalkearaz dezatela beraz bekhatorea, pitzaraz edo emendaraz dezatela onen bihotcetan berthutearen amodioa; gure solhasec argi detzatela hekien izpirituac eta conxola hekien bihotzac. Horrela izanen da apostolu hunen arartecotasunaz mereciten, dugularic sainduen fedea.

ABENDOAREN 26^{an}

JONDONI EZTEBE, LEHEN DIACRE ETA MARTIRA

Apostoluac predicatcen hasi cirenean, nola geroago eta gehiago hari baitcen handitcen giristinoen nombrea, guciac el-

¹ Erraiten cian. — ² Soz. — ³ Gisa hortan. — ⁴ Samurgoaric. — ⁵ Atehi-
kiten cian. — ⁶ Thonac. — ⁷ Elhe.

kharrekin bici cirelacotz, murmurica batzu hasi ciren piztu nahiz bezala; ecie-eta, sortcez Judu etciren emazte alhargunac etcirela aski ungi arthatuac¹.

Apostoluec, nahaskeria baten giristinoetan sartcerat ez uzteco, bilarazten dituzte guciac; eta erraiten diote, gaienic² eta sainduenic direnen artean, hauta detzatela zizpi gizon; eta, handie aintaina, hec duketela jatecoen errencura. Gu aldir, cioten, gibelamenduric gabe jarraikico gare othoitzari eta predicatceari.

Lehea hautateen dutena, da Jondoni Eztebe; gizon gazte bat federic hazcarrenecoa; eta bertzalde, Izpiritu sainduaz bethe den giristino bat. Escritura Sainduan berean duen laudorio huntaric asmatceco³ da, cer amodioa zuken Jesus Jaunaren-tzat.

Hala-hala, eginbidec uzten cioten denbora, Jesusen ezagutarazten zaraman⁴, bere predicuen hazcargailu egiten cituelaric miracuiluric espantagarrienac. Azkenecotz, jendea etcen mintzo Jondoni Eztebe Diaeren ainteindariaz baicie; haren saindutasuna, haren egintza ederrac, horra gucienc mihia ceren gainean cen bethi alha.

Sobera aipbatua dela ere iduriteen zaiote, Gamaliel nagusi handiaren etchean lucez lagun izatuac cituen gizon batzuei. Elkharretaratcen dire beraz, egun batez, gizon hauc; cenbeit, cin-cinez atchikitcen diotelacotz beren arbasoec⁵ utci dioten erlisioneari, hertceac aldir, alegia erlisione zahar hura galtcerat ez utci behar, bainan egiazki, bekhaizti direlacotz; eta badohaci denac icustera. cer dakien Eztebec hec baino gehiago; badohaci, ahalke gorria behar diotela eman.

Saul gerochago Jondoni Paulo izan behar cena, hura ere hancen hekjekin.

Judu nagusiac mintzateen hasi cireneco, hacen jendeketa handi bat, hekien inguruan, beha, gizonic jakinxuenen ahapaldi⁶ zorroteci, nola ihardexico ahal zuen Eztebe Diacreac.

¹ Ikhousiac. — ² Capablenic. — ³ Phenzateeco. — ⁴ Errouaiten cian. — ⁵ Aiten aitec. — ⁶ Ahokhaldi.

Bainan Eztehe Izpiritu Sainduaz beraz argitua cen; hortacotz laster ichilaraci cituen guciac, eta hortehatuac izatu ciren, cein bere etchetarat itzultcerat, egiazco abalkearekin. Hori cen, Judu nagusientzat, niholaz ecin barkha cezaketen laido bat.

Nolazpeit behar dutela girstino berri hura galdu, erosten dituzte lekhuco¹ batzu. Lekhuco hauc erran beharco dute, entzun dutela Jaincoaz eta Moisez gaizki mintzo. Horrela² bideac egin dituztenean, althutzen dute preso, eta badaramate Apez handiaren eta populuco zaharren aintcinera.

Lekhucoac han ciren, hec sarthu bezain sarri; eta diote, burua goraric, gizon hari entzun diotela erraiten, tenploaz mintzo celaric, Jesus Nazaretacoac deseginen zuela, eta Moisen legea ere gaubiatuco zuela. Hainthertcenarekin distiradura eder batec hartu zuen Ezteberen begitartea.

Apez handia ez da bargatic iciteen. Galdegiten dio, ja lekhucoctasun³ hec egiae diren. Sainduari errech⁴ eitzaioken bere buruaren garbitzea⁵; bainan cer dohaco egun cenbeit gehichago edo gutichago bicitcea?

Agian⁶ apez bekien artean, nagusi handi bekien artean, bat-edo-bat izanen dela. Jaincoaren ontasuna ezagutuz, haren ganat izuli nabico dena, mintzo da Jaincoaz; Jaincoac, Abrahami agertu cenetic hunat, bekien aiten aitei egin izatu dituen ungiez; eta nola, aita hec ez duten Jaincoaren ungi-eginei ihardexi eskergabetasunaz baicic.

Gero, berei mintzo zaio telaric, erraiten diote. Buru bihurri eta hezgaitzac, beharriric gabeco bihotz gogorrae, orai, zuec ere jazarriac⁷ zaudezte Izpiritu sainduari, lehenago zuen aitac egotu diren bezala. Cein da gaizki ibili ez duten profeta? Ez dituzte hilaraci Justoa ethorrico cela zaasatenac⁸? Eta zuec, cer egin duzue? Ez duzue Justo hura ezarri paganoen escuetan? Eta etzarete haren hiltceaz hobendun bilhacatu?

Izpiritu Sainduac ahoan ezarri ciozean gaizki samia⁹ horiec, izatu ciren gaichtagin hekientzat, guretzat litekena, zauri-ba-

¹ Jakile. — ² Gisa hortan. — ³ Jakilegoa. — ⁴ Aise. — ⁵ Chahateia. — ⁶ Balinba. — ⁷ Oidartiac. — ⁸ Erraiten cien. — ⁹ Ocen.

ten gainean ginuken ukhaldia; hortz carrascaz daude, eta ageri da, odola zainetan irakitzen hari zaiotela.

Ordu berean, predicari haren saristatecco bezala, ceren eman dion egiari horrelaco lekhucoetasuna, cerua zabalteen da; eta Jondoni Ezteberi agertzen zaio Jaincoa, bere loria guciaren erdian, eta Jesus Jauna ere bai, chutic, haren aldean. Halahala, amodioz eta bozcarioz bihotza bethca, oihu egiten du berriz ere, jende hec cerbeit gatic sar ditecon beren baithan: Huna, non icusten ditudan ceruac idekiac, eta Gizonaren semea chutic, Jaincoaren escuinean.

Hitz horiec entzutearekin, apecoc eta populuco zaharrec, saindu handiaren exaiec eta lekhucoec tapatzen dituzte beharriac, blasfemio handi bat entzun balute bezala. Gero, erortzen zaico gainera, eta eremaiten dute herrestan hiritic campo, behar dutela calitu harri ukhaldia.

Ez dire orai grinatuac¹ Gobernadorearen baimena² beharrez, Jesusen hilaraztean ciren bezala; ez! Lehen sacrilegioa da nekhezenic, bigarrena hainitez errechkiago da egiten.

Lekhucoec, hekiei celacotz lehen harrien arthikitcea³, eman ciozeaten beren capac, atchikitcerat, Saul gazteari; eta Sanlec onhesten zuen harri betaz joa izan zadiela haren leheneco laguna.

Martir Sainduaren lehen hitza izatu cen bere arimaren Jesu Christori gomendatecco: Jesus Jauna, zuen erran, har zazu zure ganat ene izpiritua. Azkenean, orducotzat dena uspeldua⁴ eta zaurthua, eta oraino, chitcherra⁵ bezala citzaizcolarie gainera harriac harrien ondotic, orhoitcen da gure Salbatzaile Dibinoac gurutcean egin zuenaz; belhaunicatcen da beraz, eta, ahal duen bezain hazcarki, oihu egiten du: «Jauna, ez diozetutela contu galdegin bekhatu huntaz; eta hainbertcenarekin izatu zuen bicia kendu behar cion ukhaldia.

Horrela loharcatu⁶ cen Jauna baithan, ardiesten ciolarie Saul ordnan oraino, bere hitzen arabera, oxo errabiatu cenari, bilдох⁷ bilhacatecco gracia.

¹ Penatiac. — ² Laudamena. — ³ Ourthoakiten edo aurdikitcen. —

⁴ Ubeldia. — ⁵ Cozcaborra edo baazuza. — ⁶ Lokhartu. — ⁷ Achouri.

IRACAXPENA

Jesus Jaunac eman darocu gure exaiei barkhatceco manua, eta berac manu horren arabera egin du. Jondoni Eztebec ere, barkhatcen diote; eta horrela, guri iracasten darocu, guc ere, gauza bera egiten abal dugala. Hortacotzat behar ditugun graciae eta caritatearen sua izanaraz dezaizcula Jaincoa ganic. Eeen barkhatcen duenac segur du barkhamendua.

ABENDOAREN 27^{oa}

JONDONI JOANES, APOSTOLUA ETA EBANJELISTA

Jesusec maite zuen dicipulua deithua izan den sainduaz, Jondoni Joanes Apostoluaz, huna cer dakigun. Gure Arrerosle Jaunac apostolu izaiteco hautatu zuen eguneraino, arrantzatic irabazten zuen bere bicia; bainan, Jesusen manura sareac arthikiric¹, hartu zuenean, bertce lagunekin, arrainketa handi hura; utci cituen untcia, sareac eta aita; eta, behin bethicotzat, eman cen Nagusi Jaincozco haren ondotic.

Apostoluec Jesusekin egin zuten azken afarian, gaztena celacotz eta garbitasun² osoan bici izatua, Jesusen bihotzaren gainera bezala zagocan burua. Jondoni Petric egiten dion keinu baten gatic ere, galdegiten dio, ceintaz den saldua izan beharra.

Olibetaco baratcean loharcatu³ cen, nahiz entzuna zuen atzariric egoiteco Jesusec egin cioten gomendioa; eta gero, etzuelacotz aski othoitz egin, erori; erran nahi baitut, ihesari eman.

Hargatic laster itzuli cen Jesus Dibinoa ganat, eta jarraiki citzaion gurutcearen oinetaraino; eta han, emana izatu citzaion entzutea Gure Jaun Handia, erraiten Maria sainduari: « Emaztea, horra zure Semea; » eta berari erraiten ciola oraino, Maria sainduna eracuxiz: « Horra zure Ama. » Hala-hala baduke, handie ainteina, Andre Dena Mariaz, bere amaz izatu zuen artha⁴.

¹ Ourthoaki edo surdiki. — ² Chabutarzun. — ³ Lokhartu. — ⁴ Errencura.

Ebanjelioaren predicatora denborac ethorri cirenean, baratu cen Jondoni Joanes Ephezaco hirian. hango apezpicu bezala; eta handie zabilan Asia ebumeagoco¹ hirietan gaindi. Hemen chehetasun gehiago gabe uzten ditut apostolu hunc, bere lan hortan, iragan cituen hiruetan hogoibat urthe, eta heltcen naiz, horrela², adin handi hartan pairaraci³ nahi izatu citen heriotcera.

Domicien inperadoreac, jakinic Joanes cela giristinoen aintcindarietarie bat, erakharri zuen Erromarat, eta condenatu olio irakituan egosia izaiterat. Hiritie canpo, eta Latinen Athearen⁴ aintcinean, bacen jadaneco, su ikharagarri bat piztua, bacen ere bertz⁵ handitara bat olio irakitcen hari.

Han dire, bilduac, hirico aintcindariac, aitoren-emeac, jende chehe gucia, eta giristinoac. Batzu icusi behar dutela gizon zahar batec cer begitarte eginen dioten oinhace⁶ loxarazgarri hekiei; bertceac, aitarie maitenaren urricariz⁷, eta hari adioen egitea gatic.

Burregoec, Domiciennen manuz, arthikitcen dute saildua olio hartarat; eta horra non, sua hiltcen den eta olioac cerepheltcen. Burregoec, erran gabe doha, egiten dituzte egin ahalac suaren berriz pizteco; pizten ere dute, bainan beren caltetan⁸; cen khar borthitz batzu, goiti joan orde, bazterretarat hedatcen dire, eta erreteen dituzte burregoetarie asco.

Domiciencic icusi zuen giristinoen Jaincoaz garhaitua cela; eta Jondoni Joanes, atheraia⁹ oliotic egundaino baino hazcarago eta zalhuago, igorria izatu cen Pathmoseco Islarat.

Isla hartan iscribatu zuen Apocalipsa deiteen den liburu saildua. Han oraino, eta, Domicien hil ondoan, bere Ephezaco hirirat itzultcera zohalarie, utci zuen iscribuz haren icena ekhartcen duen Ebanjelioa.

Orai, nahi badugu jakin, cer khar cen Jesusenaren gainera egotua cen apostoluaren bihotcean arimen salbamenduarentzat,

¹ Tchipiagoco. — ² Gisa hortan. — ³ Sofrieraci. — ⁴ Bortharen. —

⁵ Pandero. — ⁶ Sofricari. — ⁷ Aita maitiari doluz. — ⁸ Malurretan. —

⁹ Je kia.

cer higuintza arimen galarazten hari cirenentzat, errechki¹ da ezagun contatcera daramazedan bi ichtorio hantan :

Behin batez, mainhu baten harteera sarthua etche batetarat, jakiten du, Jesu Christo etcela Jainco predicatzen hari ciren bi gizon han direla, bec ere, etche hartan ; eta, ordu berean, atheratzen da, erraiten diotelaric bere lagunei : Gohacen laster canporat, gaichtagin haukiea gatic Jaincoac leherrarazten badu ere etchea, ez gaitecen hil hementche berean.

Huna bertce ichtoria : Domicienec Pathmoseco Islarat igorri aintcintic, gomendatu cion gizon gazte bat apezpicu bati, bainan, edo apezpicuac etzuelacotz aski errrencura izatu, edo bertce cerbeit gatic, gizon gazte hura lagun arin batzuekin adichkidetu cen. Adichkide hekien urhaxei jarraikitcecotz. behar cen diru ; abiatren da beraz ohoin batzuen lagun. Lehenbician oraino, contcintciaren oihuec etcioten gaichtakeria handiric egiterat uzten ; bainan emeki-emeki trebatzen da gaizkiarekin ; eta, azkenecotz, gaichtoenec berec beren nagusizat ezagutua zuten.

Bizkitartean, Jondoni Joanes ethortcen zaio apezpicuari, eta galdegiten dio contu haren gizonaz.—Galdu dut, ihardesten du apezpicuac, hax beherapen hatekin ; galdu dut ! hil da ! — Hil dela ! cer daasazu ? erraiten dio sainduac. — Hil dela Jaincoari, diot, ohoin bilhacatu denaz geroz. Hara mendia, han dago ohoin ainteindari.

Berehala, zaldi bat harturic eta lekhaioa, abiatcen da saindua mendirat buruz. Mendi zolan berean, atheratcen zaio celetan² zagon ohoin bat ; eta ohoin huntaz eremana da capitainaren aintcintera. Capitainac laster du ezagutu bere leheneco nagusi saindua ; eta, beldurrez ikharetan, emaiten du ihesari. Jondoni Joanes ere jarraikitcen zaio, ahal duen bezain zalhu, oihu egiten diolaric : Gergatic, ene haurra, zohazkit ihes ? Ceren beldur zare ? Orhoit zaitc zure gazte denboraz ! Orhoit zaitc nor naicen ! Jesus Jaunac natzaitzu bidaltcen³, iguriki nazazu !

Gizon gaztea, azken hitz horiec entzutearekin, baratu cen ;

¹ Aise. — ² Coucouchean edo barrandan. — ³ Ig rten.

eta, bere harmac lurrerat arthikiteen cituelaric, hasi cen nigarrez. Saindua ere jauxi cen zalditic, haren besarcatceco. Bainan bekhatorea begien alchatcerat ere ecin mentura diteke, eta hainbertee egintza gaichtoz cikhindua cen escua gordea daoca. Apostolu sainduac harteen dio escu lura, eta conxolaten du, hitzemaner izanaracico diola bekhatu gucien barkhamendua.

Horrela, atheratu zueñ debruaren aztaparretaric, ihardokimendu¹ gaichto batec ceruco bidetic canpo ezarri zuen arima.

Iracurizaile gaztea, nolacoa da zure laguna?

Saindu hunec, bere azkea egunetan, etcezaken gehiago predieu lucrie egin; eta hortacotz, hau cioten bethi erraiten bere dicipuluei: *Ene haurttoa, elkhar maite izan zazue*. Eta nola galdegia baitcioten, cergatic bethi gauza beraz mintzo cen; sainduac ihardexi zuen: Jaunaren manua da hori, eta hori bali badaocazue, baduzue aski begiraturic.

San Jeromec dio, ihardeste hori Jesusec maite zuen dicipuluari zohacona cela. Errana da Jondoni Joanesec ehun bat urthe bazuela, hil cenean.

IBACAXPENA

Ene haurttoa, elkhar maitha zazue; orhoit gaiten hitz horietan ezdela bakharric Apostolu hunec emaiten darocun aholcu² bat, bainan, oraino, Jesus Jaunaren manu herxi bat. Ez dezagula beraz uste izan, aski egiten dugula maithatuz dohazkigunac edo ungi egiten darocutenac. Bainan, galdeginez Jaincoari eman dezaucun bihotz largo bat, gure amodioac besarea detzala gure hel-menean ditezken guciac.

JESUS, MARIA ETA JOSEP.

¹ At-hikimendu. — ² Conxeila.

AURKHIGIA

URTHEGO EGUNETAN

	Eguner
Jain Apezpienari osainezko guthuna	V
Raimeno	VII
Jesu-Christo gure Jauna cenbait hitz	I
Andredona Maria	15

URTHARUA

3 ^o Santa Genevieva birjina	23
5 ^o San Simeon Pilarecoa	27
5 ^o San Jerlak, bekhatore urrikitua	30
9 ^o San Julian eta santa Baziliza, martir	33
15 ^o San Paulo, lehen mortutiarra	38
17 ^o San Antonio mortutiarta	42
20 ^o San Sebastian, martira	46
21 ^o Santa Agnes, birjina	50
22 ^o San Behincho	53
30 ^o Santa Martina, birjina martira	57

OXAILA

1 ^o San Inacio, Antiokheco patriarea	60
3 ^o San Bladi, apezpicua eta martira	63
5 ^o Santa Agata, birjina eta martira	68
6 ^o Santa Dorothea, birjina eta martira	72
10 ^o San Gallem Aquitaniacoa	76
10 ^o Santa Escolastica	80
13 ^o San Martinien mortutiarra	84
36 ^o Santa Margarita Cortonecoa, bekhatore urrikitua	88

MARTCHOA

1 ^o San Leon, Baionaco Apostolua eta martira	92
---	----

6 ^{oa}	Berragoi eta bi Martirac.....	99
7 ^{oa}	Santa Felicida, santa Perpetua eta bekien lagunac mart.r.....	103
9 ^{oa}	Santa Francisca, alharguna.....	108
10 ^{oa}	Berragoi Martir sailduac.....	112
17 ^{oa}	San Patrice, Irlandaco apostolua.....	115
19 ^{oa}	San Josep.....	119
20 ^{oa}	San Joakin eta santa Anna, B. M. Sailduaren aita eta ama.....	123
21 ^{oa}	San Benoit, Erromaz haindico Fracien aita.....	127

APHIRILA

2 ^{oa}	San Franxes-Paulecoa.....	131
2 ^{oa}	Santa Maria Esiptocoa, deithua bekhatosa.....	137
5 ^{oa}	San Richincho Ferrier.....	141
16 ^a	Santa Engracia, edo Gerachau edo Graciusa.....	146
	• Benoit Josep Labre dohaxua.....	148
17 ^{oa}	San Druon, artzaina.....	153
25 ^{oa}	San Marc ebanjelista.....	157
30 ^{oa}	Santa Catalina Siencocoa.....	160

MAIATZA

1 ^{oa}	Jondoni Jacobe tikiagoa.....	165
	• San Philippe.....	167
3 ^{oa}	Gurutze Sainduaren ediretza.....	169
4 ^{oa}	Santa Monica, emazte saildua.....	172
6 ^{oa}	San Joanes Damascocoa.....	176
10 ^{oa}	San Isidro laboraria.....	180
16 ^{oa}	San Joanes Nepomucecoa, martira.....	183
27 ^{oa}	Santa Maria Madalena Pazzicocoa, birjina.....	187

ÉRIAROA

6 ^{oa}	San Norbert, Magdebourkeco archapezpica.....	190
13 ^{oa}	San Antonio Padoucoa.....	194
15 ^{oa}	Germena dohaxua.....	199
17 ^{oa}	San Avit, abadia.....	203
24 ^{oa}	San Louis Gonzagaena.....	206
24 ^{oa}	Jondoni Joanes Batichtaren sortzea eta hiltzea.....	210
29 ^{oa}	Jondoni Petri apostolua.....	214
	• Jondoni Paulo apostolua.....	219

UZTAILA

1 ^{oa}	Santa Elizabeth, Portugaleco erregina.....	23
-----------------	--	----

	Planas
9 ^{na} San Arzoba mortutiarra.....	227
17 ^{na} San Aleccis.....	231
18 ^{na} San Arnaut, Metzaco apezpicua.....	233
19 ^{na} San Bichineho Paulecoa.....	239
22 ^{na} Santa Maria Madalena.....	241
25 ^{na} Jondoni Jacobe Gehiena, apostolua.....	247
31 ^{na} San Inacio Loiolacoa.....	251

ABOZTUA

1 ^{ra} Makhabe zazpi anaien hiltzea.....	257
4 ^{ra} San Dominica, abadea.....	259
8 ^{na} San Justin haurra martir.....	264
10 ^{na} Jondoni Laurendi, diacre eta martira.....	267
20 ^{na} San Bernat, abades.....	272
16 ^{na} San Roch.....	273
24 ^{na} San Bartolomé, apostolua.....	280
25 ^{na} San Louis Franciaco erregea.....	284
28 ^{na} San Agustin, apezpicua.....	288
31 ^{na} San Raymon edo Eramun Nonsat, cardinaha.....	292

BURUUA

9 ^a Piarres Claver dohaxua, Belicen apostolua.....	296
20 ^{na} San Eustache eta haren lagunac martir.....	304
21 ^{na} San Mathieu, apostolua eta ebanjelista.....	305
22 ^{na} San Maurice here lagunekin eta san Victor, martirac.....	309
25 ^a San Fermín Nafartarra, Amiensenco lehen apezpicua, martir.....	313
26 ^{na} San Cyprien eta santa Justinac martirac.....	317
27 ^a San Cosme eta san Damien anaiac, martir.....	321
29 ^{na} San Jerome mortutiarra.....	325

URBIA

4 ^a San Franxus Assisecoa, abadea.....	329
6 ^a San Bruno, Chartreuco comentuaren altxatzailea.....	333
8 ^a Santa Thais, bekhataros urrikitua.....	337
9 ^a San Denis, Atenaco eta Parisenco lehen apezpicua.....	341
16 ^a Santa Teresa, birjina.....	344
19 ^{na} San Grat, Oloroneco apezpicua.....	348
" San Piarres Alcantaracoa.....	354
21 ^a San Hilario, mortutiarra.....	357
28 ^a San Simon eta san Jude, apostolua.....	361

HACILA

4 ^{oa} San Charles Boceromica, apezpicua.....	365
11 ^{oa} Jondoni Martine.....	368
19 ^{oa} Santa Elizabet Hongriacoa, alharguna.....	375
22 ^{oa} Santa Cecilia, birjina eta martira.....	379
24 ^{oa} San Joanes Gurutcecoa.....	383
25 ^{oa} Santa Catalina, birjina eta martira.....	388
30 ^{oa} San Andres, apostolua.....	392

ABENDOA

3 ^{oa} San Franxes Xavier, Indietaco apostolua.....	396
4 ^{oa} Santa Barbara, birjina eta martira.....	403
5 ^{oa} San Sabas, abatea.....	409
6 ^{oa} San Nicolas handia, Miraco archapezcua.....	413
13 ^{oa} Santa Lucia, birjina eta martira.....	417
24 ^{oa} San Thomas apostolua.....	421
26 ^{oa} Jondoni Estebe, lehen diace eta martira.....	424
27 ^{oa} Jondoni Joanes, apostolua eta ebanjelista.....	428

AURKHIGIA

BEREEN ICENEZ

	Pluman
Andredena Maria.....	15
San Agustin, apezpicua, aboztuaren 28 ^{oa}	288
San Alecciz, uztailearen 17 ^{oa}	231
San Andres apostolua, hacilaren 30 ^{oa}	392
San Antonio mortutiara, urtharilarun 17 ^{oa}	42
San Antonio Padonca, eriaroaren 13 ^{oa}	194
San Arnaut, Meizaco apezpicua, uztailearen 18 ^{oa}	235
San Arzena mortutiara, uztailearen 9 ^{oa}	227
San Avit, abada, eriaroaren 17 ^{oa}	203
Santa Agata, birjina eta martira, oxailaren 5 ^{oa}	68
Santa Agnes, birjina, urtharilarun 21 ^{oa}	50
San Sabas, abadea, abendoaren 3 ^{oa}	469
San Bartelome, apostolua, aboztuaren 24 ^{oa}	280
San Benoat, Erromaz hundico Fraiden aita, martxoaren 21 ^{oa}	117
Benoat Josep Labre dohaxua, apirilaren 16 ^{oa}	148
San Bernat, abadea, aboztuaren 20 ^{oa}	272
Berrogot eta bi Martirac, martxoaren 6 ^{oa}	99
Berrogot Martir senduac, martxoaren 10 ^{oa}	112
San Bichincho Fernier, apirilaren 5 ^{oa}	137
San Bichincho Paulecos, uztailearen 19 ^{oa}	239
San Bichincho, urtharilarun 22 ^{oa}	53
San Bladi, apezpicua eta martira, oxailaren 3 ^{oa}	64
San Bruno, Chartreaco conventuaren alchatazalea, irriaren 6 ^{oa}	334
Santa Barbara, birjina eta martira, abendoaren 3 ^{oa}	405
San Charles Borrome, apezpicua, hacilaren 4 ^{oa}	363
San Cosme eta san Damien anaiac, martir, buruilaren 27 ^{oa}	221
San Cyrien eta santa Justina, martirac, buruilaren 26 ^{oa}	317
Santa Catalina Senacoa, apirilaren 30 ^{oa}	160
Santa Catalina, birjina eta martira, hacilaren 25 ^{oa}	388

Santa Cecilia, birjina eta martira, haedaren 22 ^{oa}	379
San Denis, Atonaco eta Pariseco lehen apezpicua, urriaren 9 ^{oa}	344
San Dominica abadea, aboztuaren 4 ^{oa}	259
San Druon, artzaina, apirilaren 17 ^{oa}	153
Santa Dorothea, birjina eta martira, oxailaren 6 ^{oa}	72
San Eustache eta haren lagunac martir, buruilaren 20 ^{oa}	304
Santa Elizabeth, Portugaleco erregina, uztailaren 4 ^{oa}	223
Santa Elizabet Hongriacoa, aharguna, hacilaren 19 ^{oa}	375
Santa Engracia, edo Gerachane, edo Gracusa, apirilaren 16 ^{oa}	146
Santa Escolastica, oxailaren 10 ^{oa}	80
San Fermin Nafartarra, Amieuseco lehen apezpicua martir, buruil. 25 ^{oa}	313
San Franxes Paulecoa, apirilaren 2 ^{oa}	131
San Franxes Assisecoa, abadea, urriaren 3 ^{oa}	329
San Franxes Xavier, Indietaco apostolua, abendoaren 3 ^{oa}	396
Santa Felicida, santa Perpetua eta bekien, lagunac martir, martxoar. 7 ^{oa}	103
Santa Francisca, aharguna, martxoaren 9 ^{oa}	108
San Gillem Aquitaniacoa, oxailaren 10 ^{oa}	76
San Grat, Oloreneco apezpicua, urriaren 19 ^{oa}	348
Gurutce sainduaren edireitea, maiatzaren 3 ^{oa}	169
Santa Genevieve, birjina, urtharilaren 3 ^{oa}	23
Germena dohaxua, eriaroaren 15 ^{oa}	199
San Hilarion mortutiarra, urriaren 21 ^{oa}	357
San Inacio, Antiokhero patriarca, oxailaren 4 ^{oa}	60
San Inacio Loiolacoa, uztailaren 31 ^{oa}	251
San Isidro laboraria, maiatzaren 10 ^{oa}	180
Jesu Christo gure Jauna renbat hitz.....	4
San Ierlak, bektatore urrikitua, urtharilaren 5 ^{oa}	30
San Jerome mortutiarra, buruilaren 30 ^{oa}	325
San Joakin eta santa Anna, B. M. Sainduaren aita eta atia, martxi. 20 ^{oa}	123
San Joanes Damasecoa, maiatzaren 6 ^{oa}	176
San Joanes Nepomucecoa, martira, maiatzaren 16 ^{oa}	183
San Joanes Gurutcecoa, hacilaren 24 ^{oa}	383
Jondoni Ezebe, lehen diacre eta martira, abendoaren 26 ^{oa}	474
Jondoni Joanes, apostolua eta ebanjelista, abendoaren 27 ^{oa}	478
Jondoni Joanes Batichtaren sortcea eta hiltcea, eriaroaren 24 ^{oa}	216
Jondoni Jacobe gehena apostolua, uztailaren 25 ^{oa}	247
Jondoni Jacobe ttikiagoa, maiatzaren 4 ^{oa}	165
Jondoni Laurendi diacre eta martira, aboztuaren 10 ^{oa}	267
Jondoni Martine, hacilaren 11 ^{oa}	368
Jondoni Paulo apostolua, eriaroaren 23 ^{oa}	219
Jondoni Petri apostolua, eriaroaren 29 ^{oa}	244
San Josep, martxoaren 19 ^{oa}	119
San Julian eta santa Baziliza, martir, urtharilaren 9 ^{oa}	33

Planan

San Justin haurra martir, abotzuaren 8 ^{oa}	264
San Leon, Baionaco apostolua eta martira, martxoaren 4 ^{oa}	92
San Louis, Franciaco erregea, abotzuaren 25 ^{oa}	284
San Luis Gonzagacoa, eriaroaren 21 ^{oa}	206
Santa Lucia, birjina eta martira, abendoaren 13 ^{oa}	417
Makhabe zazpi anaien hilteea, abotzuaren 1 ^{oa}	257
San Marc, ebanjelista, apirilaren 25 ^{oa}	437
San Martinien mortutiarra, oxailaren 13 ^{oa}	84
San Mathieu, apostolua eta ebanjelista, buruilaren 21 ^{oa}	305
San Maurice bere lagunekin eta san Victor, martirac.....	300
Santa Maria Madalena, uztailaren 22 ^{oa}	243
Santa Maria Madalena Pazzicoa, birjina, maiatzaren 27 ^{oa}	137
San Maria Egiptocoa, deitua bekhatorosa, apirilaren 2 ^{oa}	437
Santa Margarita Cortonelocoa, bekhatoros urrikitua, oxailaren 26 ^{oa}	88
Santa Martina, birjina martira, urtharilaren 30 ^{oa}	37
Santa Monica, emate saindua, maiatzaren 4 ^{oa}	172
San Nicolas handia, Miraco archapezpica, abendoaren 6 ^{oa}	413
San Norbert, Magdebourkeco archapezpica, eriaroaren 6 ^{oa}	190
San Patrice, Irlandaco apostolua, martxoaren 17 ^{oa}	115
San Paulo, lehen mortutiarra, urtharilaren 15 ^{oa}	78
Piarres Claver dobaxua, Belteen apostolua, buruilaren 9 ^{oa}	296
San Philippe, maiatzaren 1 ^{oa}	167
San Piarres Alcantaracoa, urriaren 19 ^{oa}	354
San Raymon edo Erramu Nonnat, cardinalia, abotzuaren 31 ^{oa}	292
San Roch, abotzuaren 16 ^{oa}	275
San Sebastian, martira, urtharilaren 20 ^{oa}	46
San Simeon Pilarecoa, urtharilaren 5 ^{oa}	27
San Simon eta san Jude apostolua, urriaren 28 ^{oa}	361
Santa Teresa, birjina, urriaren 16 ^{oa}	344
Santa Thair, bekhatoros urrikitua, urriaren 8 ^{oa}	337
San Thomas apostolua, abendoaren 21 ^{oa}	471







